

# Euskara Arkaikoko adizki jokatuen gaineko ikergaiak

---

Corpusa eta azterketa filologiko-linguistikoak

[2023ko urtarrila]

Doktorego-tesia / Hizkuntzalaritza eta Euskal ikasketak saila //  
Euskal Herriko unibertsitatea //

Doktoregaia:

Borja Ariztimuño López

Zuzendariak:

Joseba A. Lakarra Andrinua

Ricardo Gómez López

eman ta zabal zazu









*If we dismiss every case of polysemy as accidental we deprive ourselves of the possibility of ever finding out whether the two functions are in fact related or not. If, in contrast, we try to discover a relationship, in the worst case we may find that none exists. But in an optimal case we may find out that a connection exists, and the explanation of this connection may shed some light on the nature of language structure and of language change.* (Frajzyngier 2002 [1986]: 233)



## Eskaintza eta eskertza

Zuri, Amaia, zure laguntza eskergagatik; eskerrik asko, zure egonarri eta babesagatik. Hiri, Ibai, eta hiri, Oihan; zuen maitasun-keinu infinitu baino gehiagokoengatik.

Zuri, Mikel, naizena izaten hezteagatik. Zuri, Maite: siento que no puedes ver esto, aun estando tú en todo lo que hago...

Zuei, Izaskun eta Karlos, eta Joxepi, zuen abegi eta abaroagatik. Gainerako senitarteko eta hurko lagunei, animoengatik, eta, bereziki, Iñigo López Gazpiori, datubasea eraikitzeagatik.

Lagun eta adiskideoi; eta azitikideoi, zuen ero(a)pen eta ekarpenengatik.

Zuzendarioi, begirunez.

Kito.



# Aurkibide orokorra

Aurkibide orokorra .....	i
Taulen aurkibidea .....	xii
Irudien aurkibidea.....	xiii
Laburdurak eta zeinu-ikurra.....	xiv
Iturri bibliografikoak.....	xiv
Euskal dialektu eta hizkerak.....	xv
Terminoak .....	xvi
Testuak eta autoreak.....	xviii
Zeinu-ikur zenbait .....	xxiii
1. Sarrera.....	1
1.1 Tesiaren aurkezpena.....	2
1.1.1 Ikergaia .....	2
1.1.2. Aurrekariak.....	3
1.1.2.1 Schuchardt (1893, 1900).....	3
1.1.2.2. Lafon (1943, 1999).....	4
1.1.2.3. Zulaika (1998) .....	5
1.1.2.4. Mounole (2014) .....	5
1.1.3. Zergatik (beste) tesi bat aditzaren inguruan?.....	6
1.1.4. Helburu nagusiak.....	7
1.2. Marko teoriko-metodologikoa.....	7
1.2.1 Hizkuntza-aldeketaren gaineko ikuspegia .....	8
1.2.2. Metodologia.....	9
1.2.3. Aurre-behaketak eta hipotesiak .....	10
2. Corpora, datubasea eta adizkitegia .....	13
2.1. Corpus osoa eta datubasearen osaera .....	13
2.1.1. Datubasean etiketaturiko testuak .....	14
2.1.1.1. Arabera (A).....	14
2.1.1.2. Aezkoako euskara (Ae) .....	15
2.1.1.3. Bizkaiera (B) .....	15
2.1.1.4. Baxenafarrera (BN) .....	16
2.1.1.5. Erronkariera (E).....	17
2.1.1.6. Errioxako euskara (Ex) .....	17
2.1.1.7. Gipuzkera (G).....	17
2.1.1.8. Goi-Nafarrera (GN) .....	18

2.1.1.9. Hegoaldeko Goi-Nafarrera (HGN) .....	18
2.1.1.10. Iparraldeko Goi-Nafarrera (IGN) .....	19
2.1.1.11. Lapurtera (L) .....	20
2.1.1.12. Zaritzuko euskara (Zar) .....	20
2.1.1.13. Zuberera (Z).....	21
2.1.2. Corpus osoko gainerako testuak.....	21
2.1.2.1. ~1625 artekoak .....	21
2.1.2.2. Berantiarragoak .....	22
<i>XVII. mendea</i> .....	22
<i>XVIII-XIX. mendeak</i> .....	22
2.2. Adizkitegia .....	23
2.2.1. Aditz laguntzaileak.....	24
2.2.1.1. * <i>EDIN</i> .....	25
2.2.1.2. * <i>EDUN</i> .....	38
2.2.1.3. * <i>EDUTSI</i> .....	65
2.2.1.4. <i>EGIN</i> .....	70
2.2.1.5. * <i>EKIN</i> .....	82
2.2.1.6. * <i>ENIN</i> .....	87
2.2.1.7. * <i>ERADUN</i> .....	94
2.2.1.8. * <i>ERADUTSI</i> .....	98
2.2.1.9. <i>ERAGIN</i> .....	98
2.2.1.10. <i>ERAMAN</i> .....	99
2.2.1.11. * <i>ERAZAN</i> <sub>1</sub> .....	99
2.2.1.12. * <i>ERAZAN</i> <sub>2</sub> .....	99
2.2.1.13. <i>EROAN</i> .....	100
2.2.1.14. * <i>EZAN</i> .....	100
2.2.1.15. - <i>IDI-</i> .....	114
2.2.1.16. * <i>IRON</i> .....	115
2.2.1.17. <i>IZAN</i> .....	118
2.2.1.18. * <i>JADUN</i> .....	136
2.2.1.19. <i>JOAN</i> .....	136
2.2.1.20. - <i>KIDI-</i> .....	137
2.2.2. Aditz trinkoak.....	139
2.2.2.1. <i>ATERA</i> .....	140
2.2.2.2. <i>ATXEKI</i> .....	140
2.2.2.3. <i>EBAKI</i> .....	140
2.2.2.4. <i>EDEKI</i> .....	140

2.2.2.5. * <i>EDIN</i> ‘(etorkizunean) izan, izatera iritsi, bihurtu’ .....	141
2.2.2.6. <i>EDUKI</i> .....	141
2.2.2.7. * <i>EDUN</i> .....	148
2.2.2.8. <i>EGIN</i> .....	177
2.2.2.9. <i>EGON</i> .....	186
2.2.2.10. <i>EGOTZI</i> .....	198
2.2.2.11. <i>EKARRI</i> .....	198
2.2.2.12. <i>EKIN</i> <sub>1</sub> ‘(zerbaitetan) aritu edo aritzen hasi’ .....	202
2.2.2.13. * <i>EKIN</i> <sub>2</sub> ‘izan, izatera iritsi’ .....	202
2.2.2.14. <i>EKIN</i> <sub>3</sub> ‘agertu, sortu’ .....	203
2.2.2.15. <i>EMAN</i> .....	203
2.2.2.16. * <i>ENIN</i> .....	205
2.2.2.17. <i>ENTZUN</i> .....	210
2.2.2.18. <i>ERABILI</i> .....	211
2.2.2.19. * <i>ERADUN</i> .....	213
2.2.2.20. <i>ERAGOTZI</i> .....	213
2.2.2.21. * <i>ERAHATZE</i> .....	213
2.2.2.22. <i>ERAKARRI</i> .....	213
2.2.2.23. <i>ERAKUTSI</i> .....	214
2.2.2.24. <i>ERAMAN</i> .....	214
2.2.2.25. <i>ERANTZI</i> .....	215
2.2.2.26. <i>ERATZAN</i> .....	216
2.2.2.27. <i>ERAUNTSI</i> .....	216
2.2.2.28. <i>ERAUTSI</i> .....	217
2.2.2.29. <i>ERO</i> .....	217
2.2.2.30. <i>EROAN</i> .....	217
2.2.2.31. <i>ERORI</i> .....	219
2.2.2.32. <i>EROSI</i> .....	219
2.2.2.33. <i>ERRAN</i> .....	219
2.2.2.34. <i>ESAN</i> .....	221
2.2.2.35. <i>ETORRI</i> .....	223
2.2.2.36. <i>ETSI</i> .....	226
2.2.2.37. <i>ETXIDEN</i> .....	226
2.2.2.38. <i>ETZAN</i> .....	227
2.2.2.39. <i>EUTSI</i> <sub>1</sub> .....	228
2.2.2.40. <i>EUTSI</i> <sub>2</sub> .....	228
2.2.2.41. <i>EUTSI</i> <sub>3</sub> .....	229

2.2.2.42. <i>EZAGUN</i> .....	229
2.2.2.43. * <i>EZAN</i> .....	230
2.2.2.44. <i>EZARRI</i> .....	230
2.2.2.45. <i>IBILI</i> .....	231
2.2.2.46. - <i>IDI</i> - .....	235
2.2.2.47. <i>IDOKI</i> .....	236
2.2.2.48. <i>IFINI</i> (~ <i>IMINI</i> ) .....	236
2.2.2.49. <i>IGARO</i> .....	237
2.2.2.50. <i>IKASI</i> .....	238
2.2.2.51. <i>IKUSI</i> .....	238
2.2.2.52. <i>IKUZI</i> .....	243
2.2.2.53. - <i>IN(E)</i> - .....	243
2.2.2.54. -( <i>I</i> ) <i>NGU</i> - .....	243
2.2.2.55. - <i>IO</i> - .....	244
2.2.2.56. <i>IRAKATSI</i> .....	247
2.2.2.57. <i>IRAKIN</i> .....	247
2.2.2.58. - <i>IRA(T)</i> - .....	248
2.2.2.59. <i>IRAUN</i> .....	248
2.2.2.60. <i>IREKI</i> .....	248
2.2.2.61. <i>IRITZI</i> .....	248
2.2.2.62. <i>IRTEN</i> .....	252
2.2.2.63. <i>IRUDI</i> (~ <i>IDURI</i> ) .....	252
2.2.2.64. <i>ITXADON</i> .....	252
2.2.2.65. <i>ITXOIN</i> .....	253
2.2.2.66. <i>ITZULI</i> .....	253
2.2.2.67. <i>IZAN</i> .....	253
2.2.2.68. * <i>JAFINI</i> .....	275
2.2.2.69. <i>JAIFI</i> .....	276
2.2.2.70. <i>JAITSI</i> .....	276
2.2.2.71. <i>JAKIN</i> .....	276
2.2.2.72. * <i>JANON</i> .....	281
2.2.2.73. <i>JARIO</i> .....	281
2.2.2.74. <i>JARRAIKI</i> .....	282
2.2.2.75. <i>JARRI</i> .....	283
2.2.2.76. <i>JARRUGI</i> .....	283
2.2.2.77. <i>JAUGIN</i> .....	283
2.2.2.78. <i>JO</i> .....	283

2.2.2.79. <i>JOAN</i> .....	284
2.2.2.80. <i>ONHETSI</i> .....	290
2.2.2.81. <i>ORI</i> .....	290
2.2.2.82. <i>-RAIDI-</i> .....	290
2.2.2.83. <i>-RE-</i> .....	291
2.2.2.84. <i>-RZA-</i> .....	291
2.2.2.85. <i>URGATZI</i> .....	292
2.2.2.86. <i>UTZI</i> .....	292
3. Datibo-komunztaduraren ezaugarriak Euskara Arkaikoko adizkietan .....	293
3.1. Datibo-markak adizkietan .....	293
3.1.1. Erro aurreko markak.....	294
3.1.1.1. <i>e</i> - .....	295
3.1.1.2. <i>i</i> -.....	304
3.1.1.3. <i>j</i> -.....	308
3.1.1.4. <i>ra</i> - .....	309
3.1.1.5. <i>z</i> - .....	310
3.1.2. Erro osteko markak .....	311
3.1.2.1. <i>-i</i> .....	311
3.1.2.2. <i>-k</i> .....	313
3.1.2.3. <i>-ki</i> .....	315
3.1.2.4. <i>-ri</i> .....	317
3.1.2.5. <i>-S</i> .....	317
3.1.2.6. <i>-T</i> .....	318
3.1.2.7. <i>-ts</i> .....	320
3.1.3 Datibo-marken azterketaren ondorio batzuk .....	321
3.2. Pertsona-markak .....	322
3.2.1. Izenordainetarik datozen pertsona-markak (1PL & 2PL) .....	324
3.2.1.1. Lehenengo pertsona pluralaren markak (1PL) .....	325
3.2.1.2. Bigarren pertsona pluralaren markak (2PL) .....	326
3.2.2. Jatorri ezezaguneko pertsona-markak (1SG & 2SG) .....	327
3.2.2.1. Lehenengo pertsona singulararen markak (1SG) .....	328
3.2.2.1.1. <i>Marka bikoiztua</i> .....	328
3.2.2.1.2. <i>Marka fusionatua</i> .....	329
3.2.2.2. Bigarren pertsona singulararen markak (2SG) .....	330
3.2.2.2.1. <i>Marka “indartua” (2SGM)</i> .....	332
3.2.2.2.2. <i>Marka fusionatua (2SGM)</i> .....	332
3.2.2.2.3. <i>Marka zahar asimilatua (2SGM)</i> .....	333

3.2.2.2.4. <i>Marka zaharraren aztarna fonologikoa (2SGM)</i> .....	334
3.2.2.2.5. <i>Itxuraz markarik gabeak</i> .....	334
3.2.2.2.6. <i>Markaren kokagune berezia</i> .....	335
3.2.2.2.7. <i>Marka osoa amaieran (2SGF)</i> .....	336
3.2.3. Hirugarren pertsonari dagozkion markak .....	336
3.2.3.1. -o/-a alomorfoen banaketa.....	336
3.2.3.2. -ø morfoa .....	338
3.2.4. Pertsona-komunztaduren azterketaren ondorio orokorrak .....	339
3.3. Joko alokutiboak .....	340
3.3.1. Alokutibo-markak .....	341
3.3.1.1. Erro-aldeketa .....	341
3.3.1.2. i- (e-).....	343
3.3.1.3. j-.....	346
3.3.1.4. z- .....	347
3.3.1.5. -i berezia .....	349
3.3.2. Alokutibo-komunztadura.....	349
3.3.2.1. Hiketa alokutiboaren komunztadura markak .....	350
3.3.2.1.1. <i>Marka fusionatua</i> .....	350
3.3.2.1.2. <i>Marka indartua</i> .....	351
3.3.2.1.3. <i>Markaren kokaguneaz</i> .....	352
3.3.2.1.4. <i>Hiketaren erabilera eta generoen arteko aldea</i> .....	352
3.3.2.2. Zuketa alokutiboaren komunztadura markak .....	354
3.3.2.2.1. <i>Zuketa alokutiboaren hedadura</i> .....	354
3.3.2.2.2. <i>Komunztadura-markaren bokal asimilatua</i> .....	355
3.3.2.2.3. <i>Komunztadura-markaren kontsonante asimilatua</i> .....	356
3.3.2.2.4. <i>Markaren kokaguneaz</i> .....	356
3.3.3. Alokutibo-markak: ondorio labur batzuk .....	356
3.4. Datibo-komunztaduraren eta beste morfoen arteko harreman sintagmatiko-paradigmatikoak .....	358
3.4.1. Pertsona-komunztaduren markekikoak .....	358
3.4.1.1. Ergatiboa.....	358
3.4.1.2. Absolutiboa.....	359
3.4.2. Pluralgileekikoak .....	360
3.4.2.1. Datibo-pluralgilea.....	360
3.4.2.2. Absolutibo-pluralgilea.....	361
3.4.2.3. Ergatibo-pluralgilea .....	362
3.4.4. Morfoen konbinaketez gehiago .....	364

3.4.4.1. Datiboko pertsona-komunztaduraren eta -ke markaren artean .....	364
3.4.4.2. Datibo-pluralgilearen eta beste markaren baten artean.....	368
3.4.4.3. Pluralgileen artean .....	368
3.4.5. Ezaugarri konbinaketez gehiago.....	369
3.4.5.1. Datibo-marka eta absolutibo-pluralgilea .....	369
3.4.5.2. Datibo-plural eta ergatibo-plural argumentuen elkartzeetako -z(a)....	370
3.4.5.3. Datibo-marka atzizkitua eta modaltasuna.....	371
3.4.5.4. Datiboarekin lotutako fenomeno morfofonologiko batzuez.....	374
3.4.6. Ondorio laburrak .....	375
4. Zenbait ezaugarriren azterketa.....	377
4.1. Lazarragaren eskuizkribuko aditz-pluralgileak eta datibo-komunztadura .....	377
4.1.1. Aditzeko pluralgileak .....	378
4.1.2. <i>Trasken Lege</i> deituaz.....	380
4.1.3. Datibo-komunztaduraz .....	381
4.1.3.1. Datibo aurreko marka(k) .....	381
4.1.3.2. Datiboa 3. pertsonari dagokionekoa .....	382
4.1.3.3. Datiboa 1. edo 2. pertsonari dagokionekoa .....	383
4.1.4. Pluralgileak Lazarragaren eskuizkribuan .....	386
4.1.4.1. *edun-en adizkietan.....	386
4.1.4.2. *edutsi-ren adizkietan.....	389
4.1.4.3. Pluralgile bihurriak eta munstro pare bat.....	392
4.1.5. Lazarragaren sei adizkiren kronologia erlatiborako proposamen bat.....	394
4.1.6. Azken hitzak.....	396
4.2. Etxepareren <i>darauritzut</i> eta Leizarragaren <i>dauritzan</i> .....	397
4.3. Axularren -(k)ai0 aditz-bukaeraz .....	402
4.3.1. Datuak .....	403
4.3.1.1. Axular .....	403
4.3.1.1.1. -kaio .....	404
4.3.1.1.2. -(a)io .....	404
4.3.1.1.3. Beste pertsonekiko adibideak.....	405
4.3.1.2. Beste testu batzuetako lekukotasunak .....	406
4.3.1.2.1. <i>Etxepare (1545)</i> .....	406
4.3.1.2.2. <i>Leizarraga (1571)</i> .....	406
4.3.1.2.3. <i>Refranes y Sentencias (1596)</i> .....	407
4.3.1.2.4. <i>Materra (1617, 1623)</i> .....	408
4.3.1.2.5. <i>Haranburu (1635)</i> .....	408
4.3.1.2.6. <i>Oihenart (1657; atsotitzak)</i> .....	408

4.3.1.2.7. Urthubiako anderearen espioitza-gutunak (1597-1598) ....	408
4.3.1.2.8. Voltoire (ca. 1620).....	409
4.3.1.2.9. Silvain Pouvreau (1892 [ca. 1648-1659], 1664).....	409
4.3.1.3. Corpusa arakatuz .....	409
4.3.2. -(k)aio ez da bat eta bera beti .....	412
4.3.2.1. Forma hauetaz aurrekoek esanak.....	413
4.3.2.2. -ka morfoa .....	416
4.3.2.3. -i morfoa(k?).....	418
4.3.2.3.1. -(*d)i arkaikoaren (eta etorki desberdinien) hipotesia.....	418
4.3.2.3.2. -(*g)i zaharraren (eta etorki beraren) hipotesia .....	419
4.3.2.4. Dadukaio adizkiaz .....	421
4.3.3. Ondorio gisa .....	422
4.3.3.1. Postscriptum .....	423
4.4. Lazarragaren ñagon-etik Garibairen <i>diago</i> -ra .....	424
4.4.1. Lazarragaren eskuzkribuko <nagon> adizkia: grafia-kontu bat baino gehiago	425
4.4.1.1. Adizki berezi bat, ezaugarri berezi bi .....	425
4.4.1.1.1 <i>Iraganeko -a?</i> .....	426
4.4.1.1.2. <i>Lazarragaren grafiaren berezitasun baten inguruan</i> .....	426
4.4.1.2. Paradigmaren hedaduraz.....	427
4.4.1.3. -ago- errodun formen jatorriaz .....	428
4.4.1.3.1. <i>Beste ikertzaileen esanak</i> .....	428
4.4.1.3.2. <i>Proposamen berria</i> .....	429
4.4.1.4. Laburbilduz.....	430
4.4.2. Gipuzkoa mendebaldeko <i>diago</i> : Otxoa Arinen bitxitasuna baino gehiago .....	431
4.4.2.1. Adizki berezi batzuen hatzean.....	431
4.4.2.2. -g-dun adizki ditrantsitiboen corpsa zedarritzen.....	432
4.4.2.3. Formen sailkapenaz gehiago .....	434
4.4.2.4. Ondorioak .....	435
4.4.2.4.1. <i>Postscriptum</i> .....	437
4.4.3. Garibairen <i>diago</i> .....	438
4.4.3.1. Garibairen errefrauak.....	439
4.4.3.1.1. <i>Aurreko irakurketak</i> .....	439
4.4.3.1.2. <i>Lekukotasunen analisia</i> .....	440
4.4.3.1.3. <i>Irakurketarako proposamena, filologia zehatza lagun</i> .....	441
4.4.3.2. <i>Diagotik harago eta atzera diagora</i> : adizkiaren analisi morfologikoan sakontzen .....	442
4.4.3.2.1. <i>Adizkiaren azalpen morfosintaktikoa</i> .....	442

4.4.3.2.2. <i>Adizkiaren azalpen lexikoa</i> .....	443
4.4.3.3. Aditzen morfologiaren auzian etimologia gehigarriak .....	444
4.4.3.3.1. * <i>einon, oñon~iño eta inotsi</i> .....	444
4.4.3.3.2. <i>eusi, era(u)si eta erau(n)tsi</i> .....	445
4.4.3.3.3. <i>aun, txanpa eta jauki</i> .....	445
4.4.3.4. Laburbilduz.....	446
5. Aditz-erro eta -familia batzuen azterketa .....	449
5.1. * <i>zan</i> erroaren paradigmak .....	449
5.1.1. * <i>e(i)zan</i> .....	450
5.1.1.1. <i>Izan iragangaitza eta iragankorra</i> .....	450
5.1.1.2. <i>Izan eta *ezan</i> lotuaz.....	451
5.1.1.3. Jabetza-predikatuen iturburuez.....	452
5.1.1.4. Munduko hizkuntzetako datuak.....	453
5.1.1.4.1. <i>Helburu-eskemaren adibideak</i> .....	454
5.1.1.4.2. <i>Iragankortze adibideak (apud Heine 1997: 78, 98)</i> .....	455
5.1.1.5. Hipotesiaren azalpen diakronikoa .....	455
5.1.2. <i>etzan</i> .....	457
5.1.2.1. Aldaerez.....	458
5.1.2.2. * <i>ezan / etzan</i> .....	461
5.1.2.3. <i>Etzan / egon</i> .....	462
5.1.2.3.1. <i>Erro- eta pluralgile-alomorfoak</i> .....	463
5.1.2.3.2. <i>Kronologia erlatiboaz</i> .....	466
5.1.2.3.3. <i>Morfo-hurrenkeraz</i> .....	467
5.1.2.3.4. <i>Egon aditzaren pluraleko formen bilakaeraz</i> .....	468
5.1.3. Beste eratorri batzuk:.....	469
5.1.3.1. <i>Arazi (arazo, erazi, erazo)</i> .....	469
5.1.3.2. <i>Jazo</i> .....	471
5.1.4. Ondorioak.....	471
5.2. * <i>dun</i> erroaren paradigmak.....	472
5.2.1. * <i>edun / eduki</i> .....	473
5.2.2. * <i>edun / ukан</i> .....	479
5.2.3. * <i>edun / *edutsi / eutsi</i> .....	482
5.2.4. * <i>edun / *eradun (~erauki)</i> .....	485
5.2.5 * <i>edun / *jadun</i> .....	488
5.2.6. Ondorioak.....	488
5.3. * <i>kin</i> eta * <i>din</i> erroen paradigmak .....	490
5.3.1. * <i>din</i> .....	490

5.3.2. * <i>kin</i> .....	492
5.3.2.1. (*) <i>ekin</i> vs <i>jakin</i> <sub>1/2</sub> : *da- aurrizkiaren gorabeherez .....	494
5.3.2.2. Erroko kontsonanteaz .....	496
5.3.3. Bilakaera osoa eta kronologia erlatiboa.....	498
5.3.3.1. Hipotesi “arina”: * <i>kin</i> .....	498
5.3.3.2. Hipotesi “gogorra”: * <i>gin</i> .....	499
6. Ondorioak .....	501
6.1. Emaitza nagusiak .....	501
6.2. Ondorioetan sakonduz.....	506
6.2.1. Datibo-komunztadura eta ergatibo-komunztadura alderaturik.....	506
6.2.2. Datibo-markez .....	508
6.2.2.1. Aurrizkia(k) .....	508
6.2.2.2. Atzizkiak.....	512
6.2.2.3 Datiboa eta alokutiboa: marka komunak eta arkaismoak .....	513
6.2.3. Barne-berreraiketa sakonagoa: aditz batzuen etimologiak eta erregimen aldaketak .....	514
6.2.3.1. Paradigmen etimologiak .....	514
6.2.3.1.1. <i>Jako eta zaio</i> .....	514
6.2.3.1.2. <i>Dau eta dauka</i> .....	516
6.2.3.2. Erregimen-aldaketak.....	516
6.3. Aurrera begira .....	517
Bibliografia .....	519
Eranskinak .....	543
1. eranskina: - <i>kai</i> - eta - <i>i</i> - adizki-amaierak.....	543
Axular (1643) .....	543
- <i>kai</i> .....	543
* <i>eradun</i> .....	543
- <i>kidi</i> -.....	543
<i>eduki</i> .....	545
<i>izan</i> .....	545
- <i>i</i> .....	545
* <i>ezan</i> .....	545
<i>eman</i> .....	548
Etxepare (1545) .....	548
Leizarraga (1571) .....	548
<i>Refranes y Sentencias</i> (1596) .....	548

Materra (1617, 1623).....	548
Haranburu (1635) .....	549
Oihenart (1657; atsotitzak).....	549
Urthubiako anderearen espioitza gutunak (ca. 1598) .....	549
Voltoire (ca. 1620) .....	549
Pouvreau (1892 [ca. 1648-1659], 1664).....	549
Oihenart (1657; neurtitzak) .....	550
2. eranskina: <ñagon> eta <guztiac> adizkien irudiak.....	551
i) <ñagon> adizkia Lazarragaren eskuizkribuan .....	551
ii) <guztiac> hitza Amilletaren eskuizkribuan (Arejita & Alberdi 1985: 32) .....	551
3. eranskina: sudurkari sabaikariaren grafia Lazarragaren testuan .....	552
4. eranskina: -g-dun adizkien lekukotasunak (*enin, *jadun).....	553
< 1625.....	553
-ig- < -i(n)-.....	553
*jadun .....	554
1625 <.....	555
*jadun .....	555
*jadun alokutiboa (zalantzhan) .....	555
5. eranskina: *enin eta *jadun-en adizkien aldaeren banaketa.....	556
< 1625.....	556
1625 <.....	556
6. eranskina: -g- edo/eta j-dun adizkien paradigma (*enin, *jadun).....	557
7. eranskina: *jadun-en adizki modernoak.....	558
i) Oñati.....	558
ii) Bergara-Antzuola.....	558
iii) Legazpi .....	558
iv) Elgoibar.....	559

# Taulen aurkibidea

1. taula: datubasean bildutako aditz laguntzaileak .....	24
2. taula: datubasean bildutako aditz trinkoak .....	139
3. taula: DAT eta ABS.PL morfoen konbinaketa posibleak .....	369
4. taula: datibo eta modaltasun atzizkien konbinaketa posibleak .....	372
5. taula: Lazarragaren eskuizkribuko eta Gatzagako dotrinako * <i>edun</i> adizkiak .....	389
6. taula: lekukotasun guztiak, autoreka .....	410
7. taula: Axularren lekukotasunak (gainerakoak parentesi artean) DAMka .....	411
8. taula: <i>etzan</i> aditzaren aldaerak testuetan .....	460
9. taula: pluralgileen banaketa <i>egon</i> aditzean (NORTZUK) .....	464
10. taula: erroaren alomorfoen banaketa (NORTZUK).....	464
11. taula: erroaren alomorfoen banaketa (NOR[TZUK]- <i>ke</i> ) .....	465
12. taula: erroaren alomorfoen banaketa (NOR-NORI) .....	465
13. taula: erroaren alomorfoen banaketa (NORTZUK-NORI) .....	466
14. taula: jokatugabeetako * <i>j</i> -ren eta datibo/alokutibo-adizkien bilakaerak .....	511
15. taula: Lazarragaren eskuizkribuko zenbait hitzen grafia-konparaketa .....	552
16. taula: * <i>enin</i> /* <i>jadun</i> adizkien aldaerak testu/autoreka (kronologikoki, < 1625) ....	556
17. taula: * <i>enin</i> /* <i>jadun</i> adizkien aldaerak testu/autoreka (kronologikoki, 1625 <) ....	556
18. taula: - <i>g</i> - edo/eta <i>j</i> - <i>dun</i> adizkien paradigma (* <i>enin</i> , * <i>jadun</i> ) .....	557
19. taula: Oñatiko orainaldiko adizkiak.....	558
20. taula: Bergara-Antzuolako orainaldiko adizkiak .....	558
21. taula: Legazpiko orainaldiko adizkiak (alokutiboa) .....	558
22. taula: Legazpiko iraganaldiko adizkiak (alokutiboa) .....	558
23. taula: Elgoibarko orainaldiko adizkiak (alokutiboa) .....	559
24. taula: Elgoibarko iraganaldiko adizkiak (alokutiboa) .....	559

# Irudien aurkibidea

1. irudia: datubaseko datibo-komunztaduren kopurua pertsona-numeroka.....	323
2. irudia: hiketako adizkien kopuruak eta ehunekoak .....	353
3. irudia: nafar auzietako hiketako adizkien kopuruak eta ehunekoak.....	354
4. irudia: <i>-te</i> alomorfoaren hedadura (Zuazo 2008: 193-tik moldatua) .....	379
5. irudia: <i>-o/-a</i> alomorfoen banaketa osagarria Lazarragaren eskuizkribuan .....	383
6. irudia: ERG.SG (a) eta ERG.PL (b) formen arteko kontrastea (Lazarraga) .....	388
7. irudia: Lazarragaren DAT (a) eta ERG (b) pluralgileak .....	389
8. irudia: Lazarragaren sei adizkiren berreraiketa eta garapena .....	395
9. irudia: <i>darauritzut</i> (Etxep) eta <i>dauritzan</i> (Leiz) adizkien etimologiak .....	401
10. irudia: * <i>edin</i> eta * <i>ezan</i> -en gramatikalizazio-eskema.....	421
11. irudia: Lazarragaren <i>jago</i> eta <i>ñagon</i> adizkien etimologiak .....	430
12. irudia: <i>-g-dun</i> adizkien banaketa diatopikoa .....	435
13. irudia: * <i>nin</i> erroko <i>-g-dun</i> adizkien bilakaera .....	436
14. irudia: <i>-ag-dun</i> laguntzaile ditrantsitiboen etimologiak .....	436
15. irudia: jabetza-predikatuen jatorri-eskemak (Heine 1997-tik moldatua) .....	453
16. irudia: iragankortze-prozesuaren ezaugarriak .....	453
17. irudia: <i>izan</i> <sub>1</sub> eta <i>izan</i> <sub>2</sub> aditzen forma jokatugabeen garapena .....	456
18. irudia: * <i>ezan</i> laguntzaile iragankorraren forma jokatuen garapena.....	456
19. irudia: <i>izan</i> <sub>1</sub> eta * <i>ezan</i> (= <i>izan</i> <sub>2</sub> ) aditzen forma jokatuen garapen paraleloa.....	457
20. irudia: * <i>ezan</i> -en oinarritzko adizkien garapena ‘ <i>etzan</i> ’ adieran .....	462
21. irudia: <i>eduki</i> -ren paradigmaren sorrera eta berdintze analogikoa .....	476
22. irudia: * <i>dun</i> erroaren familia-zuhaitza .....	489
23. irudia: * <i>gin</i> ~* <i>kin</i> erro(ar)en familia-zuhaitza.....	500
24. irudia: datibo/alokutibo-marka aurrizkituarekiko aldaeren sorrera eta garapena ...	513

# Laburdurak eta zeinu-ikurrak

## Iturri bibliografikoak

- CONTAV *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos* (Sarasola 1983)
- EHHA *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa* (Euskaltzandia 2008-2020)
- EHHE *Euskararen Hiztegi Historiko Etimologikoa* (Lakarra eta beste 2019)
- EKC *Euskal Klasikoen Corpusa* (Euskara Institutua 2013)
- ETZ *Euskal Testu Zaharrak I* (Satrustegi 1987)
- ETZBB *Euskal Testu Zaharren Bilduma Berria* (Gómez eta beste, prestatzen)
- FHV *Fonética Histórica Vasca* (Mitxelena 1977 [1961])
- OC *Luis Michelena. Obras completas* (Ruiz Arzalluz & Lakarra 2011)
- OEH *Orotariko Euskal Hiztegia* (Mitxelena & Sarasola 1986-2005)
- TAV *Textos Arcaicos Vascos* (Mitxelena 1964)

## Euskal dialekto eta hizkerak

A	arabera edo Arabako euskara
Ae	Aezkoako euskara
B	bizkaiera (mendebaldeko hizkerak, A salbu)
BN	baxenafarrera (mBN = <i>mendebaldeko BN</i> zehazturik Etxauz denean)
E	erronkariera (Erronkaribarko testuak)
G	gipuzkera (Gipuzkoako testuak, Bkoak salbu)
GN	Nafarroa Garaiko euskara (sailkagaitza); ik. HGN, IGN
HGN	hegoaldeko goi-nafarrera
IGN	iparraldeko goi-nafarrera
L	lapurtera
Z	zuberera (edo Oihenarten atsotitzak, oro har, besterik zehaztu ez bazuen)
Zar	zaraitzuera (Zaraitzuko testuak)

## Terminoak<sup>1</sup>

ABS	absolutiboa
ADM	admonitiboa
ADV	adbertiboa
AFF	baieztapenezkoa
APO	apodosia
CAUS	kausal edo azalpenezkoa
CIR	zirkunstantziala
COH	kohortatiboa
COM	komitatiboa
COMP	konpletibo edo osagarrizkoa
CONC	kontzesiboa
COND	baldintza
CONT	kontinuatiboa
DAM	denbora-aspektu-modu kategoriak
DAT	datiboa
DUB	dudazkoa (modalitate epistemikoa)
ERG	ergatiboa
EXP	espektatiboa (espero edo aurreikusten den etorkizuna)
FUT	geroaldia edo geroratua (esaterako, aginterarekin) edo orokorra
GNO	aspektu gnomikoa
HAB	ohiturazkoa
HOR	hortatiboa

---

<sup>1</sup> Laburdurok *Lepizig Glossing Rules* delakoetatik eta Bybee eta beste (1994) lanetik egokitu ditut, funtsean.

HYP	alegiazko aldia edo hipotetikoa
IMP	agintera
IND	indikatiboa
JUS	jusiboa
N	Nor (joko iragangaitza)
N-N(i)- N(k)	Nor-Nori-Nork (joko iragankor hirupertsonal edo ditrantsitiboa)
N-Ni	Nor-Nori (joko iragangaitz datiboduna)
N-Nk	Nor-Nork (joko iragankor ergatiboduna = bipertsonal edo trantsitiboa)
OPT	optatiboa (desira, eskaera)
PFV	aspektu burutu edo perfektiboa
PL	plurala (2PL = <i>zu</i> singularra vs “2PL zaharra” = <i>zu</i> plurala; adib. <i>zoaz</i> )
PLPL	plural pleonastikoa (2PLPL = <i>zuek</i> ; adib. <i>zoazte</i> )
POT	ahalera edo potentziala
PROG	progresiboa
PROT	protasia
PRS	orainaldia
PST	iraganaldia
PUR	helburuzkoa
QUES	galderazkoa
QUO	aipamenezkoa
REL	erlatibozkoa
SG	singularra (2SG = <i>hi</i> ; 2SGF = <i>hi</i> [noka]; 2SGM = <i>hi</i> [toka])
STEX	egoera burutugabea (aditz estatiboekin)
SUB	subjuntiboa edo halako mendeko perpausa

## Testuak eta autoreak<sup>2</sup>

Abendaño	Peru Abendañokoren eresia
Amend	Joan Amenduxen eresia
AmillD	Amilletaren dotrina
Andram	Andramendiko idatziak
AndrEm	<i>Andr'Emili, andre gora</i> poema
AndS	Andoaingo sermoia
Añib	Añibarro
AntzD	Antzuolako dotrina
AresOt	Aresoko Otoitzak
AritzAuz	Aritzetaiko auzia
Arnega	Jainkoaz arnegatzeko formula
ArrasErre	Arrasateko erreketaren kantuak
Artazub	Artazubiagaren eresia
Ax	Axularren <i>Gero</i>
AzkBerts	Azkoitiko ziri-bertsoa
AzkPo	Azkoitiko poemak
AzkS	Azkoitiko sermoia
AzpEzk	Azpeitiko ezkontza-zina
AzpGut	Azpeitiko gutunak
BBizk	Bertso bizkaitarrak
Bela	Jakes Belaren errefrauak
BeorbEzk	Beorburuko ezkontza-zina

---

<sup>2</sup> Taula honetan laburduren esanahia argitzen da; testuen gaineko xehetasunak [§ 2.1](#)-eko zerrendetan daude.

Beotib	Beotibarko kantua
BeotNaf	Beotibarko nafar kexua
Ber	Berain (-DCh, -Meza)
Bet	Betolatza
Bikuña	Martin Bikuñaren testuak
BizkKant	Bizkaiko maitasun-kantua: <i>Ene veguiacaz...</i>
BizkOlerk	Bizkaierazko maitasun-olerkia: <i>Catigatu ninduçun...</i>
BretKant	Bretainiako kantua
BustSorg	Sorginei buruzko Busturiako testu laburra
DebaSerGut	Debako seroraren gutuna
DiaozAro	Juan Diaoz Arokoaren kantua
DonemGlosa	Donemiliagako glosak
DotrSerm	Dotrinazko sermoitegia
EgiaKant	Egiaren kanta
ElduBerts	Elduaingo ziri-bertsoak
ElgBerts	Elgoibarko ziri-bertsoa
Enoj	<i>Enojaduric...</i> olerkia
ErrezilGut	M. Arzallus errezzildarraren gutunak
ErrZar	Errodrigo Zaratekoaren kantu epikoa
EsparEzk	Espartzako ezkontza-zina
EspGut	Espioitza gutunak
Etxauz	Bertrand Etxauzen gutuna
Etxep	Etxepare
EtxRos	Ros-Etxart gutuneria: Etxarten gutunak (ik. RosEtx)
EzkGonb	Eraulgo ezkontza-gonbidapena

FrantzOrd	San Frantziskoren Hirugarren Ordenaren profesatze-agindua
frJZum	Frai Joan Zumarragaren gutuna
Garibai	Garibairen errefrauak
Hb	Joanes Haranburu
He	Joanes Haraneder
HenPr	<i>Gure Principe don Henrique Iaunari</i>
Herv	Hervásen aitagurea
IbargC	Ibarguen-Cachopinen <i>Crónica</i>
IrañGut	Juan Irañetakoaren gutuna Pedro Iterokoari
Isas	Isastiren testuak (besterik zehazten ez bada, errefrauak)
JElez	J. Elizalderen poema sariduna
JMena	Juan de Menaren liburuan eskuz idatzitako esaldi solteak
KantabKant	Kantabriarren kantua
Kap	Kapanaga
KatZat	Katixima zatiak
Labieru	Marti Juanes Labierukoaren hilartitza
Laz	Lazarraga
Lcc	Landuccio
Leiz	Leizarraga
LoiD	Loiolako doctrina
LopeVega	Lope de Vegaren liburuko <i>Zure vegi ederroc</i> kantua
Lubieta	Lubieta donostiarren eskuizkribua
MAld	M. Aldaz (poema saridunak)
MartSanM	Martin San Martinen gutuna
Mat	Materra (A = 1617, B = 1623)

MatxZalb	Matxin Zalbaren gutuna
MendAera	Mendietaren <i>Aerario de la hidalgua</i>
MendKoad	Mendietaren koadroko testua
Mikol	Mikoletaren eskuizkribuko poemak
Miser	Gipuzkerazko misererea
MLastur	Milia Lasturko
NafarForu	Nafarroako Foru Orokorra
NafEs	Nafarroako auzietan bilduriko esaldiak
OArin	Otxoa Arin
OihAts	Oihenarten atsotitzen liburua
OihBizk	Oihenartek bildu bizkaierazko poema
OihKai	Oihenarten eskuizkribuko errefrauak
OihNeur	Oihenarten neurtitzak
OihUrrh	OihAts-en <i>urrhenkina</i>
Olaso	Olasoko kanta
OlatzaEzk	Olatzagutiko ezkontza-zina
Orreaga	Orreagako Amari eskainitako bertsoa
Perutxo	Perutxoren kantua
PEzc	Pedro Ezkurraaren poema sariduna
Portal	M. Portalen poema
Rab	Rabelaisen testua
Rosab	<i>Rosabella</i> komediako euskarazko esaldiak
RosEtx	Ros-Etxart gutuneria: Rosen gutunak (ik. EtxRos)
RS	<i>Refranes y Sentencias</i>
Sandailia	Sandailia

SarasketaHiz	Sarasketa hiztegitxoa
Saratsa	Martinez Saratsakoaren itzulpena
Sasiola	Estibaliz Sasiolaren poemak
SeguraGab	Segurako gabon-kanta
Sein	Martin Seinichen gutuna
SevBer	Sevillako bertsoak
SilvP	Silvain Povreau
Sorabilla	Sorabillako aitoren semeen kantua
SorgAgot	Sorginen eta agoteen kontrako auzia
Sueskun	Miguel Sueskunen zortziduna
SumBr	Sumario brebea
ToloEzk	Tolosako ezkontza-zina
Urrexola	Urrexolako guduaren kantua
UterEzk	Utergako ezkontza-zina
UterMeh	Utergako mehatxua
VJ	<i>Viva Jesus</i>
Volt	Voltaire
Xanf	M. Xanfarronen kanta
Zalg	Bertrand Zalgizeren errefrauak
Zannetti	Zannettiren krehoa
Zestoa	Oñatiko testu zahar bi [Zestoako hizkera]
ZufiaEzk	Zufiako ezkontza-zina

## Zeinu-ikur zenbait

- aurrizki-/atzizki-lotura
- : klitiko-lotura edo nolabaiteko lotura prosodiko berezia
- <, > bilakaera fonologikoa
- ←, → fonologikoa ez den bilakaera (analogia, eratorpen morfologikoa...)
- X morfema (zehaztugabe) bat
- Σ (aditz-)erroa



# 1. Sarrera

Euskararen ezaugarriarik, aditz-morfologia da bertokoen zein kanpoko arreta gehien erakarri duen alderdietako bat, hizkuntzaren historiaz eta historiaurreaz (diakroniaz) jardun dutenen artean, behinik behin (baita berez morfologiaz ez diharduten lanetan ere, cf. Mitxelena 1977 [1961]). R. L. Trask dugu horren adibide (1977, 1981, 1995), eta hizkuntzalari estatubatuarrak berak ere nabarmendu zuen hizkuntzaren alor honek piztu izan duen interesa:

No aspect of Basque linguistics has received more attention over the years than the morphology of the verb. In comparison with most other European languages, Basque exhibits a verbal morphology which is remarkably rich and which has often seemed rather exotic. As a consequence, innumerable books have been devoted and continue to be devoted entirely to the Basque verb. (Trask 1981: 285)

Hortaz, euskarazko adizki jokatuen morfologia berezia da, hainbat alderdirengatik, inguruko hizkuntzkin alderatuta; esaterako, argumentu-komunztadura aberatsa du eta, oro har, hizkuntzaren absolutibo-ergatibo motako egitura errespetatzen du, baina denbora-aspektu-modu (DAM) bereizketa erlatiboki gutxi egiten du morfologia hutsez (alegia, perifrasia alde batera utzita).

Tesi honetan euskararen aditz morfologiako zenbait alderdi jorratuko ditut ikuspegি historikotik. Zehatzago esanda, Euskara Arkaikoan adizki jokatuek (bereziki datiboko-munztaduradunek) erakusten dituzten ezaugarriak aztertuko ditut, azalpen diakronikoetara iristeko helburuarekin.

Lanak bi bloke edo parte nagusi ditu, bi helburu nagusiren arabera banaturik. Lehen partea tesiaren aurkezpenari eta corpusari eskainia da: hasteko, ikergaia eta helburuak aurkeztuko ditut ([§ 1.1](#)), eta marko teoriko-metodologikoa ezarriko ([§ 1.2](#)); ondoren, corpora zehaztu ([§ 2.1](#)) eta berorren ikuspegi orokorra eskainiko dut, tesirako osatu dudan datubasea adizkitegi gisa moldaturik ([§ 2.2](#)); azkenik, bigarren parteko kapitulueta zehar bereziki aztertu eta baliatu ditudan adizkiak (datibodunak, alegia) hainbat ezaugarrien arabera xehekiago sailkatu eta deskribatuko ditut ([§ 3](#)).

Bigarren partea, beraz, corpusaren ustiaketatik egindako ikerketek osatzen dute, honela antolaturik: [§ 4](#)-n zenbait autore edo testuren aditz-ezaugarri berezi batzuk azalduko ditut;<sup>1</sup> eta [§ 5](#)-en aditz-erro eta -familia zenbaiten azterketan sakonduko dut, deskribapen zehatzak eta, ahal delarik, berreraiketa-proposamenak eginez.

Ondorioen atalean ([§ 6](#)), tesian zehar egindako proposamen eta berreraiketa nagusiak bilduko ditut, aditz jokatuen morfologia zaharrari buruzko ondorio zenbait plazaratu eta aurrera begirako ikerlerroa zedarritzeko.

## 1.1 Tesiaren aurkezpena

Kapituluaren sarreran aurreratu bezala, atal honetan tesi honen ikergaia eta marko teoriko-metodologikoa zehaztuko ditut, alegia zer, zertarako eta nola ikertu dudan, eta tesian zehar darabiltzadan hainbat kontzeptu eta termino ezartzeko ere baliatuko dut.

### 1.1.1 Ikergaia

Azken hamarkadetan antzinako euskararen eta aitzineuskararen aditz sistemari buruzko zenbait lan interesgarri argitaratu da, aspaldi Schuchardtek (1893) eta, bereziki, Lafonek (1943) urraturiko bideari jarraipen bat emanet; besteak beste, Aldai (2000, 2002), Lakarra (2006b, 2008a), Mounole (2011, 2013, 2014, 2015) edota Creissels & Mounole (2017, 2020) ekarpenak ditugu. Nahiz eta haien artean askotariko aztergaiak ukitu dituzten (aldea dago helburu zehaztetan eta metodologian ere), bada oraindik zer ikertu, hainbat galdekizun eta azalpen gabeko kontu.

Zehazki adizki jokatuei dagokienez, arestian aipatu lanez gain, halaber aipa litzke Heath (1977), Trask (1977, 1981, 1997), Oregi (1974, 1985), Gómez (1994), Gómez & Sainz (1995) edota Martinez Areta (2013, 2020) bezalako lanak, zeinetan hainbat proposamen eta iruzkin plazaratu diren.

Haietan guztietan, euskal adizki jokatuen morfologian diren arazo edo alderdi ilun batzuk seinalatzen dira, eta nork bere erantzuna ematen die. Alabaina, ez da adostasunik lortu puntu zenbaitetan, hala nola komunzadura ergatiboaren (eta ergatibotasun erdibitu bereziaren) gorabeheretan; eta, esan bezala, euskal aditzaren alderdi batzuk ez dira nahikoa ikertu.

---

<sup>1</sup> Aurretiaz argitaraturiko neure ikerlanak dira oinarrian, eta dagokien azpiataletan daude zehaztuta.

Nolanahi den, tesi honetan beste bide bat urratu nahi dut, adanismotan erortzeke eta aurrekoen esanak kontuan hartuta, baina hipotesi eta ikerbide propioekin, aditz jokatuen azalpen diakronikoan eta berreraiketan aurrerabidea egin nahiz.

Lehenik, baina, zenbait aurreiritzi edo inertzia gainditu beharra dago, azterketa sinkroniko hutsetik abiaturik, apriorizko banaketa morfologikoetan eta atomismoetan erori gabe. Hala, irregularitasun morfologiko historikoetatik historiaurreko erregularitasunetara iristea litzateke helburu nagusietako bat, beti ere kontuan hartuz antzinako erregularitasunak ez duela sistema “bakunago” bat esan nahi, sinkronikoki koherenteago edo gardenagoa baizik (baina zatikakoa, ezinbestean, gure ikuspegitik).

### 1.1.2. Aurrekariak

Euskal aditzak ikerlari asko erakarri ditu eta hainbat lan egin dira gai horren askotariko alderdiak jorratuaz euskalaritzaren historian zehar (ikus Loidi 1992, ordura arteko bibliografia xehe baterako). Asko euskara modernoari (edo euskara “akroniko” bati) buruzkoak izan dira, eta, datu historiko zaharrak erabiltzekotan, ez da ia azterketa sistematikorik egin. Antzinako euskararen deskribapen sinkronikoetan edo aitzineuskararen berreraiketan nahiz ezaugarri zenbaiten garapen diakronikoa azaltzerakoan bereziki eta berariaz aditz jokatuez dihardutenen artean, arestian aipaturikoak dira aipagarrienak. Nolanahi ere, esan liteke Lafonen 1943ko lanaz geroztik ikerketa orokor gutxi egin direla lekukotasun zaharren azterketa sistematiko eta zehatzaren bidez. Batzuk autore baten edo egitura jakin batzuen gainean eginikoak dira, eta orokorrogoak beste batzuk, betiere garaian garaiko testu-ezagutzaren eta hautu edo garapen metodologikoen arabera osatuak.

Dela tesi honetan jorratuko diren gaiekiko kidetasunagatik, dela beroren garapenerako izan duten garrantziagatik, Schuchardt (1893, 1900), Lafon (1943, 1999), Zulaika (1998) eta Mounole (2014) ikerketen zertzelada adierazgarrienak aurkeztuko ditut jarraian, nire lanak horiekin dituen harremanak argitze aldera.

#### 1.1.2.1 Schuchardt (1893, 1900)

Euskalarien artean ezagunenetako eta oparoonetakoa izan zen (cf. Egurtzegi 2012) eta euskarari alderdi askotarik hurbildu zitzaion: hasi testu zaharren edizio edo iruzkin xeheetatik, eta etimologia nahiz beste hizkuntzekiko erkaketetaraino (iberierarekin,

esaterako). Lehen puntuari gatxezkiola, Etxeparereren testutik abiaturik osaturiko “gramatika” (1923 [itzul. 1947]) edota Theodor Linschmann-ekin batera eginiko Leizaragaren obraren edizioaren barruan Schuchardtek berak prestaturiko sarrera (Schuchardt 1900) ditugu. Haietan aditzari buruzko hainbat eta hainbat iruzkin eta ohar aurki daitezke, baina, hizkuntzalari austriarraren lanik behinena, zalantzarik gabe, 1893ko artikulu mardula da, non “erlaziozko” (hots, datiboko eta alokutiboko) aditz formak aztertzen dituen batik bat, nahiz egiazki orokorragoa ere baden. Horrez gain, hainbat artikulu laburretan eta ihardespenetan, zeharka edo zuzenean, adizki jokatuen morfologiaz eta forma jakin batzuen etimologiaz zuen ikuspegia plazaratu zuen.

Euskaraz kanpoko haren jarduna aski errespetatua eta are berritzailea izan zen arren, gaur egungo ikuspegitik ezin esan liteke gauza bera gure hizkuntzaren inguruko haren ikerketaz (askok aipatua izan bada ere; tartean Lafonek [1943] eta Zulaikak [1998]). Hemen inon baino “askeago” jokatu zuen, esaterako, aldaketa fonologikoekin<sup>2</sup> eta, ondorioz, tentuz erabiltzeko erreferentzia da.

#### 1.1.2.2. Lafon (1943, 1999)

Ezbairik gabe, mugarri garrantzitsua izan zen Lafonen tesia (1943) euskal aditz sistema zaharra ulertzeko. Alderdi diakronikoa falta badu ere (Céline Mounolek bete du hutsunea), garai hartan eskura zituen XVI. mendeko testuetarik igarri edota areago teorizatu zezakeen sistemaren deskripzio xehea aurkezten digu autoreak, aditz jokatuen alderdi semantiko-funtzionalaz ez ezik osaera morfologikoaz ere argibideak emanet. Bestelako asmo batzuen interferentzia dela eta, desiragarri zatekeen baino leku handiagoa eskaintzen die kaukasiar hizkuntzerekiko erkaketei (cf. Lakarra 2003), baina, oro har, ezin utzizko erreferentzia da oraindik ere Euskara Arkaikoko aditz jokatuaren azterketa baterako.

Hizkuntzalari gaskoiak aditz jokatu osoa analizatu zuen (trinkoak eta perifrasiak, denbora-modu guztietai), baina forma jokatuen eta morfoen aldaera dialektal nahiz paradigmaticoiei dagokienez, ordea, ez zien oro har horrenbeste erreparatu, ezen haren helburua, beraren liburuaren izenburuak adierazten duen bezala, *système*-a bera (batik bat funtzionalki ulertuta) argitzea zen, eta ez sistema horretako elementuen historia argitzea.

<sup>2</sup> Iritzi hori zuen Mitxelenak, esaterako: “no deja de presentar dificultades fonéticas aunque Schuchardt las ignorara (...) a pesar de Schuchardt para quien los sonidos casi nunca constituían dificultad” (Mitxelena 1954b: 526, etimología batzuez ari dela; orobat Lakarra 2003).

Halarik ere, Lafonen tesian bertan nahiz beraren artikulu ugarietan barreiaturik hainbat proposamen eta iruzkin aurki daitezke (Lafon 1999), zeinetarik ondorio interesgarriak atera litzkeen.

#### 1.1.2.3. Zulaika (1998)

Schuchardt & Linschmann-en (1990 [1900]) edizioaren eta Dodgson-en (1912) ikerlanaren ondotik, Leizarragaren adizkiak Lafonek (1943) eta Arrestik (1972) bilduak izan ziren, nork bere modura, eta xedearren araberako zehaztasun maila ezberdinez. Esther Zulaikak, ordea, adizki bakoitzaren agerpen guztiak adierazirik eta taula egokiago eta erabilerrazagoetan sailkaturik aurkezten dizkigu bere tesiaren ondoreko liburuan. Batik bat Lafonen analisiari jarraikiz, egileak Leizarragaren aditz sistema osoa (trinkoak, laguntzaileak, perifrasia, aditz lokuzioak, etab.) aurkezten du, eta morfokako azalpenak ere ematen. Damurik, autore bakar horrek darabiltzan alomorfoen azaleko deskripzio sinkroniko hutsa du helburu, eta, ondorioz, garaiko beste testuekiko nahiz eremuko hizkera berriagoekiko alderaketa saioak urriak izateaz gain, ez du jomugan sistema beraren barne-egituratik abiaturiko analisi sakonagorik (barne-berreraiketarik) egitea.

Hala ere, osoki Leizarragaren aditzari emaniko lan hau ezinbesteko iturria da lapurtar idazle zaharraren lekukotasuna xeheki aztertzeko orduan.

#### 1.1.2.4. Mounole (2014)

Euskal aditzaren historiari eta haren ulerpenari eginiko azken ekarpena, eta Lafonez gero garrantzitsuena, Céline Mounoleren eskutik etorri da. Bere tesian (2014) edota harekin loturiko artikuluetan (2006, 2007, 2009, 2011, 2013, 2015 eta, hein batean, Creissels & Mounole 2017, 2020) euskararen aditz sistema zaharra aztertu du, eta haren garapen historikoa azaldu. Labur esanda, Lafonen ildoari jarraiki, baina erreminta teoriko berriez horniturik (aldaketa diakronikoez eta hizkuntza-tipologiaz, esaterako) eta haren lanaz geroztik idorotako testu berriak ere (bat azpimarratzekotan, Lazarragaren eskuizkribua) kontuan harturik, DAM kategorien ñabardurek eta balentzia aldaketek zituzten adierazpideak, horien sorrera edo etimologia, eta XVI. mendeko sistematik XVIII.ekorainoko bilakabideak deskribatu eta proposatu ditu tesian.

Mounolek Euskara Arkaikoaren eta Klasikoaren artean gertaturiko aldaketak (berrikuntzak eta desagerturiko/murritzuriko arkaismoak), bai eta lehendabizikoaren

leukukotasunetan bazirauten ezaugarri eta egitura arkaikoak nahiz ezberdintasun dialektal zaharrenak ikerturik, perifrasi nagusien eta forma sintetikoen arteko banaketa eta, batez ere, lehenen historia eta gramatikalizazio bideak azaldu ditu, haien kronologia erlatiboa ere ezarri; besteari beste, erakutsi du progresibozko perifrasi zaharrena [part. + *joan/eroan*] dela, eta proposatu (ikus Mounole 2015) indikatiboko laguntzaile hirupertsonalen gramatikalizazioa ‘eman’ esanahiko hiru aditzekin gertatu dela (\**edutsi*, \**enin*, \**eradun*).

Aditz sintetikoei dagokienez, haien erabilera guztiak ere xeheki azaltzen ditu baina, oro har forma jokatuen (nahiz jokatugabeen) azterketa morfologikoa helburu ez izanik,<sup>3</sup> haien “orainaldiko/iraganaldiko” edo “-ke/-te-dun / gabe” moduko deskripzio formal orokoren bitartez identifikatzea aski zaio.

### 1.1.3. Zergatik (beste) tesi bat aditzaren inguruan?

Esan bezala, aurreko lanetarik gehienek perifrasietan jarri dute arreta handiena, edo perifrasien eta sintetikoen arteko banaketan eta aditz-sistemaren egituraren; edota autore, testu edo forma jakin batzuetara mugatu dira. Aldiz, aditz jokatuen (hots, trinko edo sintetikoen eta perifrasietako laguntzaileen) barne-egituraz, morfologiaz eta garapenaz, ezer gutxi ikertu da azken urteetan (horretan ere Lafon mugarri); hizkera jakinetako azterketak (sinkronikoak oro har) ugariak izan dira, baina aditz zaharraren alderdi horren ikuspegi zabal eta xehe bat (zentzu diakroniko nahiz diatopikoan) ments da.

Arestian aipatu lanez gain, euskararen berreraiketan aditz jokatuaren osaera arduratu dira, halaber, Ariztimuño (2012, 2013b, 2015a) eta Lakarra (2008a, 2011) ere, besteari beste. Joseba Lakarrak, halere, morfo jakin batzuen azken buruko jatorria izan du aditz-morfologiaren alorreko ikergai nagusi (nahiz eta adizki sintetikoen osaerarako Multzo Aditz Egituren proposamena ere egin duen), eta ez horrenbeste Euskara Batu Zaharrerako osatua zatekeen joko-ereduaren xehetasunak eta hartarik euskalkietarako aldaketak (baina ikus Lakarra 2011: § 4.5 eta § 4.6, non aitzineuskaratik euskalkietarako bidean gertaturiko berrikuntzen zerrenda bat ematen den, aditz-morfologiari dagozkion batzuk barne).

---

<sup>3</sup> Berariaz baitio tesiaren sarreran (eta artikuluetan ere hala jokatzen du): “la description des formes non-finies ou de la composition morphologique des formes finies dépassent les objectifs de cette recherche” (Mounole 2014: 4).

Horrez gain, testu berriak idoro edo ezagutarazi dira (are Mounole 2014 lanetik ere),<sup>4</sup> eta lehendik ezagutzen genituenak hobeki ulertzen ditugu orain (cf. Ariztimuño 2015a, 2016b, 2020a, 2021a.)

Azkenik, aztergaiak ezberdinak izanik, helburuak ere ezin zitezkeen berberak izan, ondoko azpiatalean ikusiko den bezala.

#### 1.1.4. Helburu nagusiak

Esanak esan, tesi honetan ez dut euskal aditzaren, ezta zehazki aditz jokatuaren morfologia osoa azalduko; helburu orokor batzuk eta corpusaren behaketan ([§ 2.2](#), [§ 3](#)) oinarrituriko beste zehatzago batzuk izan ditut gogoan ikerketaren gidalerro gisa ([§ 4](#) eta [§ 5](#)-en isla izan dutenak; cf. [§ 1.2.3](#)). Honako hauek dira helburu orokorrak:

- a) Euskara Arkaikoko (Lakarra 1997a, Mounole & Lakarra 2018), alegia XVII. mendera arteko (~1600), testuen corpora bildu eta, adizki guztiak etiketaturik, database digitala osatzea, hala, Euskara Arkaikoko aditz morfologiaren ikuspegি orokor eguneratua eskaintzeko.
- b) Euskararen aditz morfologiako ikergai jakin batzuetan sakontzea bibliografian zein corpusaren behaketan zehar antzemandako garrantziagatik; bai euskal aditz jokatuaren historiarako (Euskara Arkaikotik aurrerako eta euskalkien banaketarako), bai berreraiketarako (Euskara Batu Zaharraino, gutxienez; Lakarra 2018).

Ikusiko denez, puntuok estuki loturik agertuko dira azterketa garatu ahala, baina ondorioen atalerako utzi dut ikuspegি orokorra emateko ahalegina.

### 1.2. Marko teoriko-metodologikoa

Lan hau, funtsean, filologia lan baten ondorio da, eta behaketa hutsetik abiatzen da. Hau da, ez dut datuak marko jakin baten arabera azaltzeko helbururik, edota aldez aurretiko ideia batzuk frogatzekorik, baizik eta datuek ikergaiaz zer erakusten duten

---

<sup>4</sup> Areago, helburuetan ere haren tesitik aldentzen naizenez, hark bere corpusean sartu ez zituen hainbat testu (ikerketa honetarako garrantzitsu) erabili ditut (ikus [§ 2.1](#) zerrenda osorako).

azaleratzeko eta, hortik abiatuta, deskribapen zehatzak eta, ahal denean, zenbait irregularitasun edo ezaugarri bereziren azalpen posibleak plazaratzeko. Jakina (eta ikus hurrengo azpiatala), edozein gogo-jardunetan gertatzen den bezala, baditut errealtitatea ikusteko eta haztatzeko oinarritzko ezagutza, uste edota teoria batzuk.

### 1.2.1 Hizkuntza-aldaketaren gaineko ikuspegia

Bere tesian Krajewskak (2017: § 1.2.1) narbamendu bezala, *framework free* edo lan-marko jakin batean txertatu gabeko azterketak ugariak dira ikerlan diakronikoetan (areago, esango nuke, filologian oinarriturikoetan), nahiz eta, berak egin zuenaren kontrara, ez ohi den ageriki adierazten. Horrek ez du esan nahi, halere, aldez aurreko ezagutzen eta hipotesien gainean eraikitzen ez direnik, datuak berak sailkatzea eta interpretatzeko unetik beretik hasita (cf. Haspelmath 2010).

Alde horretatik, egoki da hizkuntzaz eta hizkuntza-aldaketaz dudan ikuspegiaren nondik norakoak zedarritzeko lan eta kontzeptu zenbait erabiltzea, eta hori hobekien islatu eta biltzen duen lana Janda & Joseph (2003) da, oro har, eta euskarari dagokionez, ikus EH eta Camino (2009). Ildo horretatik, garaian garaiko sistema linguistiko bat aurreko garaietakoaren emaitza gisa ulertzen dut, eta garapen hori giza harremanek eta giza gogoaren/burmuinaren funtzionamenduak moldatua (bideratu eta mugatua) dela. Erabili ditudan hizkuntza-aldaketa mota nagusiak, bada, ohiko *aldaketa fonetikofonologikoak* (euskararako, oinarritzko da FHV), *analogia* eta *berranalisia* dira (cf. Anttila 2003, Hock 2003, Janda 2003).

Orobat baliatu dut *gramatikalizazioaren teoria*, bai eta *tipología* ere, dela egindako berreraiketak bermatzeko, dela hasieran igarri baino ezin zitezkeen bilakaerei zentzuak aurkitzeko helduleku eta paraleloen bila (esaterako, Bybee et al. 1994, Joseph 2003, Heine 2003, Brinton & Traugott 2005, Heine & Kuteva 2002<sup>5</sup>; euskarari gagozkiola, cf. Lakarra 2008a, 2008b). Helburu nagusiei eutsiz, betiere, datuek erakusten dutena lehenetsi dut, baina, zenbaitetan *barne-berreraiketatik* (cf. Ringe 2003) harago iristen ere saiatu naiz.

Hizkuntza-ezaugarri batzuen agerpenean eta analogia zein berranalisi bidezko aldaketa batzuen norabidean eragiten duen beste kontzeptu bat *maitzasuna* da, hizketa-maitzasuna, zehazki (Haspelmath 2006). Maiz “markatugabe” edo “oinarrizko” kategoria

---

<sup>5</sup> Orain, ikus Kuteva eta beste (2020).

gisa definitu direnak hizketan maizago agertu eta, ondorioz, errazago aurreikusi eta isil daitezkeenak direla defendatzen du hainbatek. Azalpenak azalpen, ondorioa berbera da: zenbait kategoria edo *forma* oinarri gisa hartzen dira aldaketa zenbaitetan; esate baterako, *orainaldia* → *lehenaldia, singularra* → *plurala*, 3. *pertsona* → 1. *eta* 2. *pertsonak*.

Badirateke alderantzizko kasuak, jakina, arestian aipatu maiztasun erlatiboa ere alderantzizkoa baitukete. Adibidez, gorputz-atal batzuen edo multzoka ageri ohi diren gauzen singulartasuna “markatuagoa” izan daiteke dual edo pluraltasunaren ondoan, edota DAM konbinaketa batzuetan lehenaldia arruntagoa izan, eta orainaldiko formak “markatuagoak”.

Euskal aditz morfologiara ekarrita, pentsa genezake paradigma berean komunztadura gutxiagoko formak direla gehiago dituztenen oinarri, oro har: NOR (N) → NOR-NORI (N-N<sub>i</sub>) edo NOR-NORK (N-N<sub>k</sub>) → NOR-NORI-NORK (N-N<sub>(i)</sub>-N<sub>(k)</sub>) eratorpenean kasu. Hala ere, pentsa genezake ezen, datibo-komunztadura hori aditz jakin batean maizago gertatuz gero, forma jatorriz konplexuena bilaka daitekeela aldaketa analogikoen eta berranalisiengidari. Adibide on bat dira Gipuzkoako *dakarki* ‘dakar’ eta *daramaki* ‘darama’ erako adizkiak. Datiboden formetarik abiatuaz, *daramakio* → *daramaki* egin dela pentsa liteke, agian pluraleko *daramazkio* eta *daramazki* ‘daramatza’ adizkiek ere presio egin dutela. Nolanahi den ere, singularreko datibo gabeko oinarrizko forma (ustez, “markatugabeena”) aldarazi da hizkera horietan, itxuraz “markatuagoen” eredura.

Orokorrako esan liteke, baita ere, forma garden, emankor eta erregularrenek forma ilun, fosildu eta irregularretan eragiteko indarra dutela, nahiz eta azken horiek erresistentzia egin dezaketen, beren maiztasun altua dela-eta; ez da, halere, alderantziz gertatuko modu mugatuau baizik, beti ere ko-okurrentzia sintagmatiko edo lotura paradigmatiko/semantiko nabarmen bategatik ez bada, eta eragileen maiztasuna, berriz ere, nahikoa altua bada. Horren adibide izan daiteke, esate baterako, \**edun*-en pluraleko *ditu* erako forma bereziek \**ezan*-en *dezan* → *ditzan* eta nafarrerazko *ditiot* erakoak sorrarazi izana, *-it-* pluralgilea hedatz (sinkronikoki gardena eta emankorra ez izanagatik, eta bereziki Joseba Lakarraren berreraiketa [prestatzen] zuzena bada).

### 1.2.2. Metodologia

Lehenik eta behin corpora arakatu dut (ikus zerrenda osoa [§ 2.1](#)en); izan ere, arakatze horrek berak lagundu dit arestian aipaturiko ikergaiak zehazten. Behin corpora

ezaguturik eta zedarriturik, datubasea<sup>6</sup> elikatu eta azterkatu dut (ikus [§ 2.2](#) datubasearen gaineko azalpenetarako). Lehen hurbilpen horren ondorio da, hain zuzen, [§ 3](#), non arreta datibo-komunztaduradun formetan ipini dudan eta datubaseko etiketa morfologikoen arabera (datibo-marken arabera, zehazki) sailkatu ditudan lekukotasunak; bertan, xeheki deskribatu dut zein morfo(-aldaera) zein euskalkitan eta zein aditzekin bai eta zein testuinguru morfosemantikotan erabiltzen den.

Ondoren, aurreko urratsetan zein bibliografian ikuskaturiko interesguneak sakonago ikertzen dituzten bi atal datozen: bata autore edo testu jakin batzuetako forma bereziak aztertuz argitaraturiko artikuluen bilduma da, funtsean eta egokitzapenak egokitzapen ([§ 4](#)); bestea aditz-erro batzuen azterketa sakonagoek osatzen dute ([§ 5](#)). Lehen taldekoak joratzeko, delako forma edo ezaugarriaren gaineko bibliografia bildu eta testuetako lekukotasunak aztertu ditut, etimologia eta garapena azaltzeko eta azalpen horren ondorio edo implikazioak argitzeko. Bigarren taldeari dagokionez, aurrez bestek esanak kontuan hartuta, tesian zehar ibilitako ildotik erro bakoitzaren inguruabarrik azaldu ditut, hainbat aditzen etimologia eta azalpen diakronikoa eskainiz. Horietan guztieta, datibo-komunztadura da ardatz; dela jatorrian, dela eratorpenetan.

### 1.2.3. Aurre-behaketak eta hipotesiak

Tesi honen helburu nagusien artean ezein aurreuste edo ideiarik frogatzea ez badago ere, lan-hipotesi batzuk izan ditut gogoan, nire ikerketa eta datuak interpretatzeko modua bideratu dituztenak. Hipotesiok corpusaren behaketatik eta euskararen historiaz (eta oro har hizkuntz aldaketaz) aurrekoei ikasitakotik abiatuta joan naiz formulatuz; bestalde, egoki iruditu zait usteotako zenbait oinarri dituzten behaketak ere azaltzea zerrenda honetan:

1. BEHAKETA: ez dauagu frogarik (ez argudiorik) datibo-komunztadura ergatibokoa baino beranduago gramatikalizatu zela esateko (izen sintagman ere, *-i* baino zaharragoa ote da \*-ga?);
2. BEHAKETA: datibo eta ergatibo komunztadurak, datibo-markarik ezean, anbiguoak dira: ezin bereiz daitezke sintaxian baizik (eta ergatiboaren lekualdatzeagatik, orainaldiz

---

<sup>6</sup> Tesian zehar “datubase” erabiliko dut neronek bildu eta etiketatutakoari erreferentzia egiteko. Aldiz, “corpusa” eskura izan dudan testu-multzo osoaz aritzean erabiliko dut (xehetasunetarako ikus [§ 2.1](#)).

kanpoko formetan; jakina, lekualdatzearen beraren azalpena sartzen da hor jokoan, inoiz halakorik gabeko aditza izan zela proposatu duenik ere bada eta);

3. BEHAKETA: teorikoki beren maiztasunagatik izan dezaketen izaera gordetzailea gorabehera, aditz laguntzaileek aditz jokoaren morfologia orokorra berreraikitzean zuzenean heda ezin daitezkeen berezitasunak dituzte, beren garapen bereziaren ondorioz;
4. BEHAKETA: mendeko perpausetan berezitutako aditz laguntzaileek arkaismoak gorde ohi dituzte (cf. Mounole 2014);
5. BEHAKETA: aditz, aditz-klase eta hizkera bakoitzaren barneko joerak ikus daitezke, bereizi ezean distortsioak eragin ditzaketenak;
6. BEHAKETA: joera bat ikusten da perifrasietan:  $N-N_i \rightarrow N(-N_i)-N_k$  (Creissels & Mounole 2017, 2020);
7. BEHAKETA: badira, *eduki* bezala, *-ki* amaiera duten aditz (historikoki) datibogabeak; aipatu aditzarentzat proposatu izan da datibo komunztadura egiten zuela eta horren arrasto direla *-ko/-ka* amaierak.

Horietatik eta aurretiazko ezagutza eta literaturatik honako ildoak ezarri ditut, hipotesi edo aurreuste gisa:

1. HIPOTESIA: datibo-komunztadura ( $N-N_i$ ) ergatibokoarekin bateratsu (edo are lehenago) sortu zen;
2. HIPOTESIA: historikoki  $N-N_k$  izan diren aditz trinkoetako batzuk bederen  $N-N_i(-N_k?)$  izan ziren jatorrian;
3. HIPOTESIA: erroetako/paradigma barneko irregularitasun fonologiko/morfologikoak egoera zaharragorako leihotz dira, § 1.2.1-en aipatu ikuspegi eta erreminten arabera zabaldu beharrekoak, betiere;
4. HIPOTESIA: aldaketa eta hedatze analogikoek indar handia izan dute euskal aditzaren garapenean, kontuan harturik aski gardena dela historikoki, adizki berezi zenbaiten kasuan salbu (cf. 3. hipotesia); eta, zehazki, honako hatsarre hauek betetzen dira, oro har:
  - a. 3. pertsona 1. eta 2.aren oinarrian dago (cf. Watkins 1962);

- b. singularreko formak pluralekoen oinarrian daude;
  - c. datibo-gabeko formak datibodunen oinarrian daude;
5. HIPOTESIA: irregulartasun morfo(fono)logikoetan (salbu eta aldaketa fonologiko arrunten ondoriozkoetan, esaterako *\*datorz > datoz*<sup>7</sup>), oinarrizko forma da berrikuntza jasan duena, kontrakoa pentsatzeko arrazoi sendorik (edo frogarik) ezean.
6. HIPOTESIA: partizipioetako *-ki* atzizkia (*edeki, eduki, jalki, jarraiki...*), zeinak *-gi* aldaera ere baduen, *-ki* datibo-markarekin lotua dago (eta, hortaz, azken horren forma zaharrena edo etimologikoa ere *\*-gi* zatekeen).

---

<sup>7</sup> Hemen, jakina, erroko dardarkariaren galeraz ari naiz; ohiko aldaketa *rz > s* zatekeen, baina pluralgile emankorra izateak eragotzi zukeen txistukari-aldaketa (FHV: 297).

## 2. Corpora, datubasea eta adizkitegia

Hurrengo azpiataletan erabilitako corporusari eta osaturiko datubaseari datxezkion xehetasunak azalduko ditut; baina, lehenik, haren beharraz, sorreraz, eta elikatzeaz zerbait esan nahi nuke.

Lehendabiziko puntutik hasteko, kontuan hartu behar da ezen euskal testu guztien edizio fidagarriek eta, batez ere, corpus etiketaturik ezean, ikertzaile bakoitzak bere datubasea egitea beste aukerarik ez dela izan (cf. Zulaika 1998, Aldai 2002, Mounole 2014, Krajewska 2017, Padilla 2017, Reguero 2019, Zuloaga 2022); nork bere helburu eta interesgune zehatzetan egin ere, eta, ondorioz, ezaugarri berezi eta jakin batzuekin.

### 2.1. Corpus osoa eta datubasearen osaera

Aurreko atalean ezarritako helburuen arabera, datubasea osatzeko Euskara Arkaikoko testu guztiak bildu nahi izan ditut (~1600 artekoak), bai eta ~1625 arteko testu labur gehienak ere, batik bat lekukotasun zaharrago gutxi edo bat ere ez duten hizkerak aztertu ahal izateko (esaterako, Gipuzkoakotzat dugun *Misererea* edo Erronkaribarko Migel Rosen gutunak; kanpoan utzi ditut, ordea, hobeto lekukoturiko hizkeretako testu luzeagoak, hala nola Materraren 1617-1623ko eta Beriainen 1621eko dotrinak).

Euskara Arkaikotik datubasean etiketatu ez ditudan testu bakarrak Leizarragarenak dira, haren obraren tamainari lotutako arrazoiengatik: alde batetik, bera osoki biltzea eta aztertzea tesi bat zatekeen (cf. Zulaika 1998) eta, bestetik, tesiaren alderdi kuantitatiborako ere irudi orokorra desitxuratzen besterik ez luke egingo. Nolanahi ere, eta aipatutako Zulaikaren (1998) liburua baliatuz, Leizarragaren aditza ere aztertu dut, eta kontuan hartu, batik bat [§ 3](#)-ko deskribapenetan, bai eta tesian zeharreko hainbat puntutan ere (esaterako [§ 4.2](#)-n).

Horiek horrela, tesian zehar bi hitzak erabili ditut: *datubasea*, neronek bildu eta etiketaturiko adizkiekin osatu dudana aipatzeko, eta *corpusa*, (1625 arteko) testu guztiekin osatzen dutenaz aritzeko.

Jarraian, *corpusa* osatzen duten testuen zerrenda osoa eskaintzen da; lehenik datubasean etiketaturikoak ([§ 2.1.1](#)), gainerakoak gero ([§ 2.1.2](#)). Inolako helburu dialektologikorik gabe, Bonaparterengandik erabili izan diren banaketa eta izendapenak

erabili ditut testuak euskalki edo hizkeraka sailkatzerakoan, haietan atzeman diren ezaugarri nagusiak kontuan hartuz, oro har, baina baita geografiak baldintzaturik ere, lekukotasunak zein lurraldetakoak diren errazago ikus dadin. Lehen zutabeen testuaren izenburu edo deskripzio identifikagarri laburra paratu dut; bigarrenean, testua zein edizio edo iturritatik eskuratu dudan zehaztu dut;<sup>1</sup> hirugarrenean, lekukotasunaren datazioa (zenbaitetan gutxi gorabeherakoa, ezinbestean);<sup>2</sup> eta, azkenik, lanean zehar testuari erreferentzia egitekotan erabili dudan laburdura.<sup>3</sup>

### 2.1.1. Datubasean etiketaturiko testuak

#### 2.1.1.1. Arabera (A)

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Urrexolako guduaren kantua	TAV (§ 3.1.3)	ca. 1388-1401 (Lazarragak bildua, 1588)	Urrexola
Errodrigo Zaratekoaren kantu epikoa	Arriolabengoa (2008: 101-106)	ca. 1468 (IbargC-ek jasoa)	ErrZar
Iacob Gebarakoaren hiletak	TAV (§ 3.2.3)	XVI. m.	
Marineo Siculoren hitz-zerrenda	TAV (§ 3.2.4)	1530	
Rosabella komediako euskarazko esaldiak	Altuna (2001), Ibisate (2001)	1550	Rosab
Lazarragaren eskuizkribua (artzain liburua [AL] eta poemak [An, Bn])	Bilbao eta beste (2020b)	ca. 1560-1605	Laz
Landucciren <i>Bocabularioa...</i>	Mitxelena & Agud (1958)	1562	Lcc
E. Salazarren gutuneko agurra	Canonica (2019)	ca. 1570	Salazar
A. Poza: <i>De la antigua lengua de las Españas</i>	Gorrotxategi (1987)	1587	
Garibai: azalpen etimologikoa	TAV (§ 3.3.1.11)	1588	
Betolatzaren <i>Doctrina Christiana</i>	Mitxelena (1955)	1596	Bet

<sup>1</sup> Batzuetan iturri bat baino gehiago erabli dut; kasu horietan, noiz kronologikoki, noiz nire lanean izan duten pisuaren arabera eman ditut.

Halere, badira aipatzeke utzi ditudan bi erreferentzia orokor, gelaxkok arindu eta errepikapen astunak saihestea aldera: bata Reguero (2019) da, zeinak nafar lekukotasun gehienen (salbu NafEs-2) edizioa baitakar; lehenik aurreko edizioetara edo jatorrizko testuetara jo badut ere, hainbatetan egiaztatu edo alderatu ditut interpretazio eta irakurketak hura konsultatuz. Besteak EKC da, zeina oso baliagarri gertatu baitzait, batik bat datubasean etiketatu gabeko testuetarako, ondoren jatorrizkora jo izan dudan arren.

<sup>2</sup> Bi urte/mende bereiz aipatzen direnetan (ez urte-tarteak), goiztiarrena ahozko testuaren ustezko sortze-datari dagokio, eta berantiarrena lekukotasunari berari (izkribuan jasorik iritsi zaiguna, alegia). Errefraubildumen kasuan, bestalde, mendebeteko alde finkoa ezarri dut, ohi bezala.

<sup>3</sup> Laburdura guztiak, alfabetikoki, lehen orrialdeetako “Laburdurak eta zeinu-ikurrak” atalaren barruan bildu ditut.

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Abendañoren heiagora	TAV (§ 3.1.6)	1443 (Mendietak jasoa, XVI. m.)	Abendaño
Mendietaren koadroko testua	CONTAV (§ 5.2.7)	1609	MendKoa
Mendietaren <i>Aerario de la hidalguía</i>	Ulibarri (2013)	ca. 1611	MendAera
M. Portalen poema	TAV (§ 3.1.21)	1610	Portal
Sevillako bertsoak	Ulibarri (2011)	1619	SevBer

### 2.1.1.2. Aezkoako euskara (Ae)

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
F. Maiorak bildu nafar auzietako esaldiak (Garralda)	Maiora (2018)	1565	NafEs-2
F. Maiorak bildu nafar auzietako esaldiak (Hiriberri)	Maiora (2018)	1600	NafEs-2

### 2.1.1.3. Bizkaiera (B)

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Marti Yuanes Labierukoarena	TAV (§ 3.1.4)	1393 <i>post quem</i> (IbargC-en jasoa)	Labieru
Milia Lasturko	TAV (§ 3.1.5)	XV. m. (Garibaik bildua, 1584)	MLastur
Olasoren kantua	TAV (§ 3.1.8)	1448 (Garibaik bildua, 1596)	Olaso
Arrasateko erreketaren kantuak	Arriolabengoa (2008)	ca. 1450 (IbargC- en jasoa)	ArrasErre
Artazubiagaren eresia	TAV (§ 3.1.9)	1464 (Garibaik bildua, 1584)	Artazub
Salinasko kondearen kantua	TAV (§ 3.1.11)	1471 <i>post quem</i> (IbargC-en jasoa)	SalinasKond
<i>Bienandanças e fortunaseko euskal esaldia</i>	TAV (§2.2.17)	ca. 1476	
<i>Refranes y Sentencias</i>	Lakarra (1996)	1596 [XV. m.]	RS
Garibairen errefrauak (A eta B eskuizkribuak)	Urquijo (1919), Zubiaur & Arzamendi (1976), Urkizu (1989)	XV. m. (Garibaik bilduak, XVI. m.)	Garibai (An, Bn)
Sandailia	TAV (§ 3.1.10)	XV-XVI. m. (1588an bildua)	Sandailia
Guecho familiaren armarría	TAV (§ 3.3.1.4)	XV-XVI. m.	
Juan de Menaren liburuan eskuz idatzitako esaldi solteak	Marcos-Marín (2006)	1505 <i>post quem</i>	JMena

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Juan Diaoz Arokoaren kantua	TAV (§ 3.1.14), Arriolabengoa (2008: 108-109)	1511 <i>ante quem</i> (IbargC-en jasoa)	DiaozAro
San Frantziskoren Hirugarren Ordenaren profesatze-agindua	TAV (§ 3.2.2)	1521 <i>ante quem</i>	FrantzOrd
Perutxoren kantua	TAV (§ 3.1.15)	1536	Perutxo
Frai Joan Zumarragaren gutuna	CONTAV (§ 5.2.1)	1537	frJZum
Antonio Araozkoaren gutuna	TAV (§ 2.2.16)	1545	
Sarasketa hiztegitxoa	Aginagalde & Urgell (2012)	ca. 1550	SarasketaHiz
Ibarguen-Cachopinen Crónicako atsotitzak	Arriolabengoa (2008)	1570-1620 [XV-XVI. m.]	IbargC-atsotitzak
Ibarguen-Cachopinen Crónicako esaldi solteak	Arriolabengoa (2008)	1570-1620	IbargC-esaldiak
Ibarguen-Cachopinen Crónicako hiztegia	Arriolabengoa (2008)	1570-1620	IbargC-hiztegia
Kantabriaren kantua	Arriolabengoa (2008: 55-79), Mitxelena (1986)	XVI. m. (IbargC-en jasoa)	KantabKant
Andramendiko idatziak	TAV (§ 3.2.9)	XVI - XVII. m. (IbargC-en jasoa)	Andram
Plentziako armarriko 3 errefrauak	Zuloaga (2011)	1603 <i>ante quem</i>	
Bizkaiko maitasun-kantua: <i>Ene veguiacaz...</i>	TAV (§ 3.1.22)	ca. 1609	BizkKant
Lope de Vega: <i>Zure vegi ederroc...</i>	TAV (§ 3.1.23)	1615	LopeVega
Sorginei buruzko Busturiako testu laburra	Reguera (2012)	1616	BustSorg
Plentziako aitagurea	Larrañaga (2018)	1613-1620	
<i>Enojaduric...</i> olerkia	Arejita (1991)	1623 ( <i>ante quem?</i> )	Enoj
Bizkaierazko maitasun-olerkia: <i>Catigatu ninduçun</i>	CONTAV (§ 5.1.4)	XVII. m.	BizkOlerk

#### 2.1.1.4. Baxenafarrera (BN)

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Etxepareren <i>Linguae Vasconum Primitiae</i>	Altuna (1980)	1545	Etxep
Bertrand Etxauzen gutuna (mBN)	TAV (§ 3.2.8)	1584	Etxauz

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Oihenartek bere <i>Kaieran Nafarroa</i> Beherekotzat eman atsotitzak	Urquiyo & Mitxelena (1967)	1665 <i>ante quem</i> [XVI. m.]	OihKai

## 2.1.1.5. Erronkariera (E)

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Jainkoaz arnegatzeko formula	CONTAV (§ 5.2.3)	1569	Arnega
F. Maiorak bildu nafar auzietako esaldiak (Erronkaribar)	Maiora (2018)	1596	NafEs-2
F. Maiorak bildu nafar auzietako esaldiak (Izaba)	Maiora (2018)	1607	NafEs-2
Ros-Etxart gutuneria (Rosen gutunak)	ETZBB	1616-1617	RosEtx

## 2.1.1.6. Errioxako euskara (Ex)

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Donemiliagako Glosak	TAV (§ 2.2)	X. m.	DonemGlosa

## 2.1.1.7. Gipuzkera (G)

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Beotibarko kantua	TAV (§ 3.1.1)	1321 (Garibaik bildua, 1571)	Beotib
Juan Lazkanoren kantua	TAV (§ 3.1.12)	1476 (Zaldibiak [1577] eta Isastik [1620] bildu bersioak)	
Bretainiako kantua	TAV (§ 5.1.1)	1489 <i>post quem</i> , 1590 <i>ante quem</i>	BretKant
Azkoitiko poemak	Ros (2020), Ariztimuño (2020a [2022a])	ca. 1515	AzkPo
Sorabillako aitoren semeen kantua	TAV (§ 3.1.17), Arriolabengoa (2008: 107-108).	1539 <i>post quem</i> , 1558 <i>ante quem</i> (IbargC-en jasoa)	Sorabilla
Tolosako ezkontza-zina	TAV (§ 3.2.6)	1557	ToloEzk
Azpeitiko ezkontza-zina	Satrustegi (1992)	1560	AzpEzk
Azkoitiko ziri-bertsoa	Satrustegi (1991a)	1566	AzkBerts
Oñatiko testu zahar bi [Zestoako hizkeran omen]	Irigoien (1987)	1582	Zestoa
Debako seroraren gutuna	ETZ (31-34), ETZBB	1596	DebaSerGut
<i>Salmo Misererea</i>	Akesolo (1982), Unzueta (1982)	XVI. m.	Miser
Estibaliz Sasiolaren poemak	Bilbao eta beste (2020b)	ca. 1600	Sasiola

<b>Testua</b>	<b>Edizioa/Iturria</b>	<b>Urtea/Mendea</b>	<b>Laburdura</b>
Baltasar Etxaberena <i>Ave Maria</i>	TAV (§ 3. 2.10)	1607	Etxabe
Baltasar Etxaberena esaera	TAV (§ 3.3.1.15)	1607	
Azkoitiko <i>Sumario Brebea</i>	Urkizu (2009)	1614	SumBr
Elduaingo bertso iraingarriak	TAV (§ 3.1.25)	1619	ElduBerts
Ustezko gipuzkoar baten lekukotasuna nafar auzi batean	Maiora (2018: 159)	1620	NafEs-2, 159
M. Arzallus errezildarraren gutunak	ETZBB, CONTAV (§ 5.2.9: 124-128)	1622	ErrezilGut

#### 2.1.1.8. Goi-Nafarrera (GN)

<b>Testua</b>	<b>Edizioa/Iturria</b>	<b>Urtea/Mendea</b>	<b>Laburdura</b>
Pater Noster txikia	TAV (§ 2.2.15)	XIV. m.	PatNosTx
Martin San Martinen gutuna	Idoate (1969), Monteano (2015)	1415	MartSanM
Matxin Zalbaren gutuna	Idoate (1969), Monteano (2015)	1415	MatxZalb
F. Maiorak bildu nafar auzietako esaldiak	Maiora (2011, 2018)	XVI - XVII. m.	NafEs-1, NafEs-2
Zannettiren kredoa	TAV (§ 3.2.11)	1614	Zannetti
Miguel Sueskunen zortziduna	TAV (§ 3.1.19)	1625 (Isastik bildua)	Sueskun
Oihenartek bere <i>Kaieran</i> nafartzat eman atsotitzak	Urquijo & Mitxelena (1967)	XVII[XVI]. m.	OihKai

#### 2.1.1.9. Hegoaldeko Goi-Nafarrera (HGN)

<b>Testua</b>	<b>Edizioa/Iturria</b>	<b>Urtea/Mendea</b>	<b>Laburdura</b>
Nafarroako Foru Orokorra	TAV	XIV. m.	NafarForu
Utergako ezkontza-zina	Satrustegi (1977a)	1547	UtergEzk
Olatzagutia ezkontza-zina	ETZ	1548	OlatzaEzk
Juan Irañetakoaren gutuna Pedro Iterokoari	TAV (§ 2.2.16)	1549	IrañGut
Bakedaoko ezkontza-zina	ETZ	1550	
Agoizko ezkontza-zina	Satrustegi (1992)	1551	AgoitzEzk
Zufiako ezkontza-zina	TAV (§ 3.2.6)	1552	ZufiaEzk
Espartzako ezkontza-zina	TAV (§ 3.2.6), Satrustegi (1977b)	1557	EsparEzk
Eraulgo ezkontza-gonbidapena	Satrustegi (1991a)	1564	EzkGonb
Joan Amenduxen kantua	TAV (§3.1.18)	1564	Amend
Puiuko auziko esaldia	Urrizola (2007b)	1596	

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
E. Santaziliak bildu/aztertu nafar auzietako esaldiak	Santazilia (2018, 2019)	XVI. m.	NafEs[SGG], NafEs[SAF]
Utergako mehatxua	Satrustegi (1977a: 11)	1602	UtergMeh
J Elizalderen poema sarduna	TAV (§3.1.20)	1609	JEliz
P Ezcurraren poema sarduna	TAV (§3.1.20)	1609	PEzc
Martinez Saratsakoaren itzulpena	Reguero (2019)	1610	Saratsa
Katixima Zatiak: Artikulu fedezkoak	CONTAV (§ 5.2.8)	1614	KatZat-Fede
Katixima Zatiak: <i>Ave Maria</i>	CONTAV (§ 5.2.8)	1614	
Katixima Zatiak: <i>Credo</i>	CONTAV (§ 5.2.8)	1614	KatZat-Credo
Katixima Zatiak: Eliz. manamenduak	CONTAV (§ 5.2.8)	1614	KatZat-Manam
Katixima Zatiak: aitagurea	CONTAV (§ 5.2.8)	1614	KatZat-PatNos
Katixima Zatiak: 10 manamenduak	CONTAV (§ 5.2.8)	1614	
Katixima Zatiak: sailkatugabeak	CONTAV (§ 5.2.8)	1614	KatZatSG
Katixima Zatiak: Salve	CONTAV (§ 5.2.8)	1614	
Orreagako Amari eskaini bertsoa	TAV (§ 3.1.24)	1619	OrreagAma
F. Maiorak bildu nafar auzietako esaldiak	Maiora (2011, 2018)	XVI - XVII. m.	NafEs-1, NafEs-2
Aritzetaletako auzia	(Erdozia 2005: 329-332)	XVI- XVII. m.	AritzAuz

#### 2.1.1.10. Iparraldeko Goi-Nafarrera (IGN)

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Beotibarko kantua: nafarren kexua	TAV (§ 3.1.1)	1321 (Zaldibiak bildua, 1575)	BeotNaf
Etxalekuko ziri-bertsoa	Maiora (2011), Urrizola (2007a)	ca. 1491 (1541-1546 artean jasoa)	NafEs-1
Uitziko ezkontza-zina	Satrustegi (1992)	1506	UitziEzk
Arizkurengoko ezkontza-zina	Satrustegi (1992)	1536	
Beorburuko ezkontza-zina	ETZ (20-21)	1536	BeorbEzk
M. Xanfarronen kanta	TAV (§ 3.1.16)	1544 (Zaldibiak [1577] eta Isastik [1620] bildua)	Xanf
E. Santaziliak bildu/aztertu nafar auzietako esaldiak	Santazilia (2015, 2017)	XVI. m.	NafEs[SGZ], NafEs[SOL]
Aresoko Otoitzak: artikuluak	Reguero (2019)	1591	AresOt-Fede
Aresoko Otoitzak: <i>Ave Maria</i>	Reguero (2019), Satrustegi (1991b)	1591	AresOt-Ave
Aresoko Otoitzak: <i>Pater Noster</i> 1	Reguero (2019), Satrustegi (1990a)	1591	AresOt-PatNos1

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Aresoko Otoitzak: <i>Pater Noster</i> 2	Reguero (2019)	1591	AresOt-PatNos2
Aresoko Otoitzak: <i>Salve Regina</i>	Reguero (2019), Satrustegi (1991b)	1591	AresOt-Salve
Aresoko Otoitzak: <i>Symbolum</i> 1	Reguero (2019), Satrustegi (1990b)	1591	AresOt-Symb1
Aresoko Otoitzak: <i>Symbolum</i> 2	Reguero (2019)	1591	
Isastiren <i>Salvea</i>	TAV (§ 3.1.12)	1625 <i>ante quem</i>	IsasSalve
Karlos V.aren eta mandazainaren arteko elkarrizketa	TAV (§ 3.2.7)	1625 [XVI. m.] (Isastik jasoa)	

#### 2.1.1.11. Lapurtera (L)

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Rabelaisen euskarazko pasartea	TAV (§ 3.2.5)	1542	Rabel
Sunbillako lapurreta (uztariztar lapurraren hitzak)	CONTAV (§ 5.2.5), Maiora (2018)	1597	NafEs-2, 133
Urthubiako anderearen espioitza gutunak	Floristán Imízcoz (1993)	1597-1598	EspGut <sup>4</sup>
Martin Seinichen gutuna	TAV (§ 3.2.8)	1626 <i>ante quem</i>	Seinich
Oihenartek bere <i>Kaieran</i> Lapurdikotzat eman atsotitzak	Urquijo & Mitxelena (1967)	1665 <i>ante quem</i> [XVI. m.]	OihKai

#### 2.1.1.12. Zaraitzuko euskara (Zar)

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
F. Maiorak bildu nafar auzietako esaldiak (Jaurrieta)	Maiora (2018)	1550	NafEs-2
<i>Gure Principe don Henrique Iaunari</i> <sup>5</sup>	Haritschelhar (1983)	1554	HenPr
F. Maiorak bildu nafar auzietako esaldiak (Ezkaroze)	Maiora (2011)	1590	NafEs-1

<sup>4</sup> Salbu EspGut-1, Charles Lüküzeakoaren gutuna (Z).

<sup>5</sup> Nafarroa ekialdekoa dirudielako (*ciratela* ‘izango zara’, baina *çarala* ‘zarela’) kokatu dut hemen, ziurra ez bada ere.

### 2.1.1.13. Zuberera (Z)

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Belaren Errefrauak	TAV (§ 3.3.4)	c. XVI. m.	Bela
Bertrand Zalgizeren <i>Euscaldunen Erran Caharrac</i>	Urquijo (1908), CONTAV (§ 5.3.3)	c. 1620[XVI]. m.	Zalg
Charles Lüküzeakoaren gutuna esploitza-gutunen artean	Floristán Imízcoz (1993)	1595	EspGut-1
Ros-Etxart gutuneria (Etxarten gutunak)	ETZBB	1616-1617	EtxRos
Oihenarten <i>Atsotitzak</i>	Altuna & Mujika (2003)	1657 [XVI. m.]	OihAts
Oihenarten <i>Atsotitzen Urrhenkina</i>	Altuna & Mujika (2003)	1665 [XVI. m.]	OihUrrh
Oihenartek bere <i>Kaieran Zuberoakotzat eman atsotitzak</i>	Urquijo & Mitxelena (1967)	XVII[XVI]. m.	OihKai
Oihenartek bildu <i>Andr'Emili andre gora kanta</i>	CONTAV (§ 5.1.3)	1665 <i>ante quem</i> [XVI. m.]	AndrEm

### 2.1.2. Corpus osoko gainerako testuak

Datubasean etiketaturikoez gain, esan bezala, Leizarragaren aditza ere aztertu dut (Zulaika 1998), bai eta ~1625 arteko beste testu (luze) batzuk ere.

Jarraian, testu horien ([§ 2.1.2.1](#)) eta tesian zehar aipatu ditudan beste lekukotasun berantiarragoentzat ([§ 2.1.2.2](#)) zehaztasunak ageri dira.

#### 2.1.2.1. ~1625 artekoak

Testua	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Leizarragaren testuak	Zulaika (1998), Leizarraga (1571)	1571	Leiz
Materraren <i>Do(c)trina Christiana</i>	Krajewska eta beste (2017)	1617, 1623	MatA, MatB
Voltoireren <i>L'interpret du traduction du françois, espagnol &amp; basque</i>	Lakarra (1997b, 1999)	ca. 1620	Volt
Berainen lanak ( <i>Meza eta Dotrina</i> )	Reguero (2019)	1621, 1626	BerMeza, BerDCh

### 2.1.2.2. Berantiarragoak<sup>6</sup>

#### XVII. mendea

Testua/Autorea	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Etxeberri Ziburukoa	EKC	1627	EtxZib
Joanes Haranburu	Haranburu (1635)	1635	Hb
<i>Egiaren kanta</i>	Arejita (1983, 1988), Urgell (1986)	ca. 1638	EgiaKant
<i>Viva Jesus</i>	Ulibarri (2010)	ca. 1640	VJ
Axularren <i>Gero</i>	Urgell (2015), Axular (1643)	1643	Ax
Silvain Pouvreauen lanak	Pouvreau (1664, 1892 [ca. 1648-1659])	ca. 1648-1664	SilvP
Mikoletaren eskuizkribuko bi poemak	Ariztimuño, Manterola & Zuloaga (prestatzen)	1653	Mikol (I, II)
Kapanagaren dotrina	Kapanaga (1656)	1656	Kap
Oihenarten neuritzak	Altuna & Mujika (2003)	1657	OihNeur
Oihenartek bildu bizkaierazko poema	CONTAV (§ 5.1.3)	1665 <i>ante quem</i>	OihBizk
Elgoibarko Domingo Irureren bertsoak	Azpiazu (1988)	1677	ElgBerts
Amilletaren dotrina	Arejita & Alberdi (1985)	1680	AmillD
Bertso bizkaitarrak	Lakarra (1984, 1986b)	ca. 1688	BBizk

#### XVIII-XIX. mendeak

Testua/Autorea	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Segurako gabon-kanta	Lekuona (1954)	1705	SeguraGab
Otxoa Arinen dotrina	Otxoa Arin (1713)	1713	OArin
Lubieta donostiarren eskuizkribua	Bilbao (prestatzen)	1728	Lubieta
Larramendiren gramatika	Larramendi (1729)	1729	
Azkoitiko sermoia (Laram.)	Lakarra (1985)	1737	AzkS
Azpeitiko gutunak	Madariaga eta beste (2009)	1740 <i>ante quem</i>	AzpGut
Haranederren ebanjelioa	Haraneder (1740)	1740	He
Andoaingo sermoia (Laram.)	Altuna & Lakarra (1990)	ca. 1763	AndS
Barrutia ( <i>Acto para la nochebuena</i> )	Lakarra (1981)	1759 <i>ante quem</i>	Barrutia
Loiolako dotrina	Altuna (1995b)	1768 <i>ante quem</i>	LoiD
Hervásen aitagurea	Oroz Arizcuren (1980)	1787 <i>ante quem</i> (XVII. m.?)	Herv
Dotrinazko Sermoitegia	Ulibarri (2015)	c. 1780	DotrSerm

<sup>6</sup> Gorago aipatu bezala, EKC tresna baliagarria izan da halakoetan bilaketak egiteko. Taulak arintze aldera, ordea, soilik bestelako iturririk erabili ez dudan kasu bakarrean aipatu dut tresna hori (Etxeberri Ziburukoa). Areago, tauletatik kanpo utzi ditut EKCn kontsultatu eta, zenbaitetan izen edo/eta deitura osoz aipatu arren, adibiderik hartu ez diedan autore ezagunak (Arzadun, Harizmendi, Mogel, Tartas...).

Testua/Autorea	Edizioa/Iturria	Urtea/Mendea	Laburdura
Añibarro ( <i>Lora sorta eta Gramatica Bascongada</i> )	Urgell (1988), Añibarro (1969)	1803, ca. 1823	Añib
Antzuolako dotrina	Uribe-Etxebarria (2008)	1825	AntzD

## 2.2. Adizkitegia

Atal honek datubasean bilduriko adizki guztien berri ematea du helburu. Horretarako, bi azpiataletan banatuta dago: lehenik ([§ 2.2.1.](#)) aditz laguntzaileei dagozkien forma guztiak emango ditut, erroka eta alfabetikoki antolaturik; eta, ondoren ([§ 2.2.2.](#)), gauza bera egingo dut aditz trinkoekin. Horiei heldu baino lehen, ordea, on dateke argibide eta zehaztapen batzuk ematea taulen osamoduaren gainean, eta etiketatzeko irizpideei buruz.

Lehenik eta behin, argitu beharra dago ezen, laguntzaile/trinko bereizketan, bi kategorietan agertzen diren aditzen kasuan, gordetzaile jokatu dudala eta, ondorioz, *behar/nahi izan* bezalako lokuzioetan aditz jokatua trinkotzat jo dudala, testuinguruak eta morfologiak ahalbidetzen zuen kasu guztieta, albait sistematikoenik.

Taulen osaerari dagokionez, lehen zutabean (ADIZKIA) lema ezarri dut, grafia eguneratuan, ahoskera albait fidelen islatuz; ez ditut bereizi, dena dela, zubererazko /ü/-dun formak (esaterako, *du* eta *dü*), taulak areago ez luzatzeko.

Bigarren zutabean ETIKETAK daude. Alde batetik, irizpide morfologiko eta semantikoak erabili ditut, albait sistematikoen, baina lehen funtzioa datubasearen erabilera izango zela gogoan; beraz, ez bedi behin betiko irizpenik bila horietan, gutxi gorabeherako gida bat baizik; bestalde, arestian esan bezala, gordetzaile jokatu dut eta horrek, besteak beste, arkaismo gisa uler zitekeen oro hala jasotzea ekarri du, dela morfologia aldetik, dela semantikaren aldetik (esaterako, POT eta FUT kategorien artean hautatu behar izan dudanean, *-ke* atzizkidun formen kasuan).

Hirugarren zutabean (ADIBIDEA), testuetako lekukotasunak ipini ditut adizkien erabilera bakoitzaren adierazgarri (izan ere, lema askok erabileraren araberako lerro bat baino gehiago hartzen dituzte). Adibideak hautatzeko, kontuan hartu dut lekukotasunik gehien dituen hizkera zein den, baina, era berean, euskalki eta testu guztiak islatzen saiatu naiz, taulak interesgarriago eta orduko euskara osoaren erakusgarri izan zitezten.

Laugarren zutabean (HIZK[KOP]), delako adizkia zein euskalkitan eta, parentesi artean, bakoitzean zenbat aldiz dokumentatu den jaso dut (eta, hizkera batean baino

gehiagotan agertzen bada, guztizko kopurua amaieran, parentesi karratuen artean). Arestian esan bezala, funtsean Bonapartez geroztiko tradizioan erabili diren laburdurak baliatu ditut (ikus [Terminoak](#)), eta, inolako sailkapen beriren asmorik gabe, irizpide linguistikoak eta geografikoak erabili ditut haien erabiltzerakoan, adizkiak mapa batean gutxi gorabehera kokatzeko moduan emateko.

Azkenik, OHARRAK erantsi ditut, hala beharretsi dudanetan, bai adizkien esanahia edo morfologia azaltzeko, bai datubasean ageri diren adizki beraren aldaera guztiak aipatzeko. Bertan, beste adizkiei erreferentzia egiteko, “ik.” eta “cf.” laburdurak erabili ditut: lehena, baldin loturiko formen arteko aldea fonologikoki azal badaiteke; bigarrena, aldiz, morfologiazko desberdintasun handiagoak tarteko direnean edo delako adizkia bestelako arrazoi bategatik aipatzen denean (kidetasun edo kontraste semantikoak, berezitasun morfologikoak, etab.).

### 2.2.1. Aditz laguntzaileak

Datubasean laguntzaile funtzioaz ageri diren formak 20 taulatan sailkatu ditut. Erroak gutxiago dira, noski, baina zenbait aurrizki-atzizkirekiko eratorpenak (batuetan sinkronikoki gardenak) sistematikoki bereizi nahi izan ditut, aditz nagusi edo trinkoekin egin ohi bezala.

Hala bada, balio arazledun \*eradutsi eta eragin-en adizkiak ez ditut, hurrenez hurren, \*edutsi eta egin-en barruan sartu. Halaber, \*edin-en barruan sailkatu izan diren -ki- erroko formak \*ekin aditzaren taulan bildu ditut, eta berdin jokatu dut \*ekin horren eta egin laguntzailearen eratorrien (\*-kidi- eta \*-idi-) formekin ere.

*EDIN ( <a href="#">§ 2.2.1.1</a> )	*ENNIN ( <a href="#">§ 2.2.1.6</a> )	*ERAZAN <sub>1</sub> ( <a href="#">§ 2.2.1.11</a> )	*IRON ( <a href="#">§ 2.2.1.16</a> )
*EDUN ( <a href="#">§ 2.2.1.2</a> )	*ERADUN ( <a href="#">§ 2.2.1.7</a> )	*ERAZAN <sub>2</sub> ( <a href="#">§ 2.2.1.12</a> )	IZAN ( <a href="#">§ 2.2.1.17</a> )
*EDUTSI ( <a href="#">§ 2.2.1.3</a> )	*ERADUTSI ( <a href="#">§ 2.2.1.8</a> )	EROAN ( <a href="#">§ 2.2.1.13</a> )	*JADUN ( <a href="#">§ 2.2.1.18</a> )
EGIN ( <a href="#">§ 2.2.1.4</a> )	ERAGIN ( <a href="#">§ 2.2.1.9</a> )	*EZAN ( <a href="#">§ 2.2.1.14</a> )	JOAN ( <a href="#">§ 2.2.1.19</a> )
*EKIN ( <a href="#">§ 2.2.1.5</a> )	ERAMAN ( <a href="#">§ 2.2.1.10</a> )	-IDI- ( <a href="#">§ 2.2.1.15</a> )	-KIDI- ( <a href="#">§ 2.2.1.20</a> )

1. taula: datubasean bildutako aditz laguntzaileak

2.2.1.1. \*EDIN<sup>16</sup>

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>adi</b>	IMP-PRS	<i>Oraingaño gaztea ax ta, urtexe baten goza adi</i> (Laz, A19: 16)	A(3), B(5), BN(16), Z(7) [31]	
	ADM-PRS	<i>Hil adi, alaba aite</i> (OihAts, 235)	Z(3)	cf. <b>aite</b> ; cf. *EDIN trinkoan
	FUT-IND	<i>Hiladi, laydadi</i> (Bela, 29)	Z(1)	cf. <b>aite</b>
<b>adila</b>	IMP-PRS	<i>Bizi adi ongi onareki, eta ezadila alborota gaxtoareki</i> (OihAts, 103)	Z(5)	Beti ezezko perpausetan
<b>adin</b>	EXP-IND- PRS-REL	<i>Guero iraçar adinian orhit adi vertaric</i> (Etxep, I: 23)	BN(1)	
<b>aite</b>	FUT-IND	<i>Echun ayte afalzaga, ta jagui aite zorbaga</i> (RS, 394)	B(2), Z(4) [6]	cf. <b>adi</b>
	ADM-FUT	<i>Haur maite haz aite, ezten ara higa aite</i> (Zalg, 193)	B(1), Z(2) [3]	ik. <b>eite</b> ; cf. <b>adi</b>
	POT-PRS	<i>Gaixtoequi ecin ayte gayzqui beci prouecha</i> (Etxep, I: 210)	BN(1), Z(1) [2]	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du
<b>albailedi</b>	ADV-HYP	<i>Abantallan dabilela albayledi segura</i> (Etxep, XIII: 17)	BN(1)	
<b>albaitzinde</b>	ADV-HYP	<i>Andria minça albaycinde verce aldian emiago</i> (Etxep, VIII: 23)	BN(1)	
<b>badadi</b>	COND-	<i>aynverçe eguin vadadi ezta cer</i>	BN(1),	ik. <b>badidi</b>
	PROT-PRS	<i>marabillaturic</i> (RosEtx-11, 1r: 26)	E(2), L(1), Z(1) [5]	
<b>badidi</b>	COND- PROT-PRS	<i>Cegaiti çu cara, dubdadu baga, / corridu badidi ondo mundua, / beste guzietan estimadua</i> (Laz, B15: 8)	A(1)	ik. <b>badadi</b>

<sup>16</sup> Aditz laguntzaile honen paradigman sartu ohi diren datibodun adizkietarako (*dakion* erakoak), ikus § 2.2.1.5 \*EKIN eta § 2.2.1.20 -KIDI-.

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>badite</b>	COND- PROT-PRS	(...) <i>dangeretan contestatione eta desordre hec continuatzen badite</i> (...) (EtxRos-01, 1r: 18)	Z(1)	ik. <b>baite</b> Bitxia aditz-izenarekiko perifrasia
<b>bagaitez</b>	COND- PROT-PRS	<i>Estate gure probechu arcabuzetara etorri bagaytes</i> (NafEs[SGG], 3)	HGN(1)	cf.. <b>bagite</b>
<b>bagite</b>	COND- PROT-PRS	(...) <i>ni eta erriontacoric sar baguite erriortan, guiren presso eta aziendac confiscaturic</i> (RosEtx-16, 1v: 7)	E(1)	cf. <b>bagaitez</b>
<b>bainendin</b>	IND-PFV	<i>Maradicacen dut neure fortuna / Ceren gin vaynendar egun çugana</i> (Etxep, X: 70)	BN(1)	Ohart “egun” dioela
<b>baitadi</b>	COND- PROT-PRS	<i>Nola ere hil vaytadi doha saluamenduyan</i> (Etxep, I: 183)	BN(1)	
<b>baite</b>	COND- PROT-PRS	<i>guztiocaz aseguin artuco dau çure arima deunsu orrec, aportabayte orra guisa onean vein ese orretara eta çure podrera</i> (frJZum, 12)	B(1)	ik. <b>badite</b>
<b>baladi</b>	COND- HYP-PROT	<i>Eztuçula ouste eci, bercela, eguin ahal balady arcorduric, ororen contentamendura ezqueneçan eguin</i> (EtxRos-09, 1v: 10)	Z(1)	Ahalera <i>ahal</i> partikulak adierazten du ik. <b>baledi, balidi</b>
<b>baledi</b>	COND- HYP-PROT	<i>Cenbayt andre hel baledi oneritez hargana / Ceyn guiçonec andriari emayten du oguena</i> (Etxep, III: 45)	BN(2)	ik. <b>baladi, balidi</b>
<b>balidi</b>	COND- HYP-PROT	<i>Adisquide bar[r]iagayti / zar[r]a vcatu validi / edo len edo guero / calta artu leydi</i> (RS, 510)	A(1), B(1) [2]	Lcc: “oxala : validi”; ik. <b>baladi, baledi</b> ; cf. *EDIN trinkoan
<b>balite</b>	COND- HYP-PROT	<i>Hec guiçoner veha valite, eliçate bat honic</i> (Etxep, III: 39)	BN(2)	

ADIZKIA	ETIKETAK ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
	COMP- <i>Amorosac nahi nuque honat veha valite</i> COND- (Etxep, II: 3) HYP-OPT- PROT	BN(1)	
<b>banadi</b>	COND- <i>jarri banadi sugatean, / beroetan jat</i> PROT-PRS <i>iturria</i> (Laz, A19: 29)	A(6), BN(3) [9]	cf. *EDIN trinkoan
<b>baneinde</b>	APO- <i>Harequila egoytiaz ezpaneynde enoya, /</i> COND- <i>harganico particia ene eyhargarria</i> HYP-PROT (Etxep, VI: 8)	BN(1)	
<b>bazatez</b>	COND- <i>ezcon baçatez, eongo çara / ardia</i> PROT-PRS <i>leguez mansaric</i> (Laz, A8: 3)	A(3)	
<b>bazinite</b>	COMP- <i>Ichil vacinite nahi niqeçu</i> (Etxep, X: COND- 52) HYP-OPT- PROT	BN(2)	
<b>bedi</b>	JUS <i>Cumpli bedi çure vorondatea nola bayta çeruan ala lurrean</i> (AresOt, 1v: 16)	A(1), BN(3), HGN(5), IGN(4), L(2), Z(1) [16]	ik. <b>bidi</b>
<b>bidi</b>	JUS <i>Nigaz ezcondu gura dabena / sosega bidi baquean</i> (Laz, A24: 114)	A(6), B(4), G(4), HGN(1) [15]	ik. <b>bidi</b>
<b>bite</b>	JUS <i>olaoc bere guiadu bite ondo</i> (frJZum, 36)	B(2), Zar(2), Z(1) [5]	cf. <b>bitez</b>
<b>bitez</b>	JUS <i>deabruaren equinac erre bites deabruaren ysenean</i> (NafEs-2, 148)	A(1), G(1), HGN(1) [3]	cf. <b>bite</b>
<b>bitezke</b>	FUT-JUS <i>eta ainbat lasterren guziak komulgadu bitezke</i> (SumBr, 2:17:6)	G(1)	
<b>dadila</b>	JUS-PRS <i>Ehor fida eztadila othoy vanitatiān</i> (Etxep, I: 166)	BN(3), L(1) [4]	ik. <b>didila</b>
<b>dadin</b>	GNO-IND- PRS-REL <i>Mundu onetaco araguia, / Agotic sarr dadinean, / Eguiten da gure aragui / Estomaguaren suan</i> (JELiz, 132)	BN(8), HGN(1),	Gehienetan lehen bi adieren artean argiro bereizi

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
	EXP-IND- PRS-REL	<i>pacqueta compli dadinean behar den bezala, orduan ez tut faltatuco abisacera</i> (EspGut, 20: 4)	L(1), Z(8) [18]	ezinez, kopuruak baturik eman ditut ik. <b>didin, din</b>
	PRS-PUR	<i>Eta acordu eta baque on bat eguin dadin, len bear duçu casatu çure sentenciac eta preguatu</i> (RosEtx-16, 1v: 12)	BN(2), E(3), L(2) [7]	ik. <b>didin</b>
	COMP-PRS- SUB	<i>Halaber guomendatzen derauçut cien aldetic eztadin deus guasquiric edo prezaric eguin</i> (EtxRos-05, 2r: 6)	E(2), Z(3) [5]	
<b>daite</b>	FUT-IND	<i>Joan dadina behar gaberic jen daite nahi gaberic</i> (OihKai, 238)	BN(2), Z(2) [4]	
	GNO-IND	<i>Oihal ona kutxan dagoela sal daite</i> (OihUrrh, 658) <sup>17</sup>	Z(6)	Batzuk FUT gisa ere uler daitezke
	POT-PRS	<i>Amoria ecyn cençuz ecin dayte goberna...</i> (Etxep, IV: 33)	BN(1), Z(4) [5]	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du  cf. <b>daiteke, diteke</b>
	~	<i>éçe guiçónac nay bádu / itçul dáyte jateán</i> (PEzc, 46)	HGN(1), Z(3) [4]	Adieretako batean argiro sailkaezinak
<b>daiteen</b>	GNO~POT- PRS-REL	<i>Ergeltarzuna da sendo eztaiteen elharzuna</i> (OihAts, 143)	Z(2)	Bietara uler daitezke ik. <b>deitean, diten</b> ; cf. <b>daiteken</b>
<b>daiteiela</b>	COMP-POT- PRS	<i>eta berce nacione oroc vste dute ecin deusere scriba dayteyela lengoage hartan</i> (Etxep, Hitz, 1r: 14)	BN(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du  ik. <b>deiteala</b> ; cf. <b>daitekela, detekela</b>
<b>daiteke</b>	POT-PRS	<i>Baña au yguita daiteque / Corpus Christe egun berean</i> (JEliz, 143)	HGN(1)	ik. <b>diteke</b> ; cf. <b>daite</b>

<sup>17</sup> Cf. *Ojal ona huchan saldu doa* (RS, 541).

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>daitekela</b>	COMP-POT- PRS	<i>baina esan dit semeac er[r]az egin daitequela eregueren magestateac nay badu Endagaco partera</i> (EspGut, 17: 6)	L(1)	Ahalera balioa izan lezakeen <i>erraz egin</i> lokuzioa (literalki ere uler liteke, halere: 'erraz egingo da').  ik. <b>detekela</b> ; cf. <b>daiteiela, deiteala</b>
<b>daiteken</b>	POT-PRS- REL	<i>Beste berriric ez ta oray conta al daitequenic</i> (EspGut, 6: 3)	L(1)	Ahalera <i>al</i> partikulak ere adierazten du  cf. <b>daiteen, deitean,</b> <b>diten1</b>
<b>deiteala</b>	COMP-POT- PRS	<i>Vercea, vadaquiçu ecin deus eguin deyteala</i> (RosEtx-11, 1r: 13)	E(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du  ik. <b>daiteiela</b> ; cf. <b>daitekela, detekela</b>
<b>deitean</b>	POT-PRS- REL	<i>non vear baytugu tratatu gutunez eçin deyteana</i> (RosEtx-12a, 1r: 22)	E(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du  ik. <b>daiteen, diten1</b> ; cf. <b>daiteken</b>
<b>deizte</b>	POT-PRS	<i>Eta nola gauza huec eçin trata deyzte gutunez...</i> (RosEtx-12a, 1r: 14)	E(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du  cf. <b>detizke, ditazke;</b> <b>ditake, diteke</b>
<b>detekela</b>	COMP-POT- PRS	<i>Miraculus nago nola ouste duçun gauça handy eta important hoietañ deuz hunic eguin detequela goure erregue iaunen vorondatia edo manuia guaberic</i> (EtxRos-05, 1r: 12)	Z(1)	ik. <b>daitekela</b> ; cf. <b>daiteiela, deiteala</b>
<b>detizke</b>	POT?-PRS?	<i>[desdic]hadu dei detizque</i> (Laz, AL, 1140v: 9)	A(1)	ik. <b>ditazke</b> ; cf. <b>deizte; ditake, diteke</b>
<b>didila</b>	OPT-PRS	<i>Ildidila Unçueta ta Uergara</i> (ArrasErre- 1b: 1)	B(2)	

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
	JUS-OPT- PRS	<i>Hora il daguien mendian Guiçona idoro ez <b>didila</b> (Garibai, A52)</i>	B(1)	ik. <b>dadila, dila</b>
	JUS-PRS	<i>Aztua eztan zarra aztidila (RS, 415)</i>	B(1)	
<b>didin</b>	PRS-PUR	<i>lotu deuso escuchoa, usi eztidin odoletan (Laz, A25: 52)</i>	A(3)	ik. <b>dadin</b>
	IND-PRS- REL	<i>Nungo çarean esadaçu, / bada al <b>didin</b> gaucea (Laz, B16: 32)</i>	A(1)	Ahalera <i>al</i> partikulak adierazten du
	EXP-IND- PRS-REL	<i>cegaiti ez dot nic erosico / an jarri <b>didin</b> frutea (Laz, B5: 86)</i>	A(1)	ik. <b>dadin, din</b>
<b>dila</b>	JUS-OPT- PRS	<i>Sâtificadua içan <b>dila</b> çure içena (Bet, 2: 3)</i>	A(1)	ik. <b>dadila, didila</b>
<b>din</b> <sup>18</sup>	GNO-IND- PRS-REL	<i>Apizetan eztina edaraytê da (RS, 509)</i>	B(3)	ik. <b>dadin, didin</b> cf. *EDIN trinkoan
	EXP-IND- PRS-REL	<i>Sar <b>dina</b> gueben lecuan, bere caltean (RS, 209)</i>	B(4)	ik. <b>dadin, didin</b>
<b>ditake</b>	GNO~ POT- PRS	<i>Sendo <b>ditaque</b> zauri ezpatazcoac, bana nequez mihibizcoac (OihKai, 347)</i>	BN(1), Z(1) [2]	ik. <b>diteke; cf. deizte; detizke, ditazke</b>
<b>ditazke</b>	GNO~ POT- PRS	<i>Mendiac eztitazque bat, bay gendiac (OihAts, 344)</i>	Z(1)	ik. <b>detizke; cf. deizte; ditake, diteke</b>
<b>ditean1</b>	EXP-IND- PRS-REL	<i>Gaza lora <b>ditean</b> artean, beste gauza lecusque (RS, 145)</i>	B(1)	cf. <b>daiteen</b> etab.
<b>ditean2</b>	COMP-PRS- SUB	<i>de manera balin bada erriortan agravio recebituric erriontaquez, gin <b>ditean</b> erriontara gure Consello Andiara, justicia demandaçera (RosEtx-16, 1v: 2)</i>	B(1), E(1) [2]	ik. <b>diten2, ditien</b>

<sup>18</sup> RSetako itzulpenaren arabera sailkatu ditut (gazt. *fuere* erakoak [EXP-PRS], gainerakoak [GNO-PRS]), baina gehienak bietara uler litezke.

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
diteke	POT-PRS	<i>bi erregue iaunen eta heyen rezumen arteco differenciac ecin <b>diteque</b> acorda eta iudga</i> (EtxRos-03, 2r: 1)	Z(2)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du ik. <b>ditake</b> ; cf. <b>deizte</b> , <b>detizke</b> , <b>ditazke</b>
diten1	POT-PRS-REL	<i>gauça erraz combatidu <b>diten</b></i> (Lcc, 248v; s.v. <i>combattible cosa</i> )	A(2)	Ahalera balioa izan dezakeen [ <i>erraz</i> + <i>*edin</i> ] egitura ik. <b>daiteen</b> , <b>deitean</b> ; cf. <b>daiteken</b> cf. <b>ditean1</b>
diten2	COMP-PRS-SUB	<i>Haren bier emanen du sentencia piçuya / Elgarrequi pena <b>diten</b> ifernuco garrian / Seculaco suyan eta eceyn pausu gabian</i> (Etxep, I: 257)	BN(1)	ik. <b>ditean2</b> , <b>ditien</b>
ditezen	PRS-PUR	<i>eta lizenzia au ezta eman bear erraz inkonbenienteren bazuk eskusa <b>ditezen</b></i> (SumBr, 2:14:3)	A(1), G(2) [3]	
ditien	COMP-PRS-SUB	<i>ecin nic eztut permititzen goure hitzac eta promessac hautz <b>ditien</b></i> (EtxRos-05, 2r: 2)	Z(1)	ik. <b>ditean2</b> , <b>diten2</b>
eit(e)	FUT-IMP	<i>Y eçar eyt'oi edatera</i> (ElduBerts 33)	G(1)	ik. <b>aite</b>
endin	COMP-HYP-SUB	<i>Ixil <b>endin</b> nahi niquec ala ene fedia</i> (Etxep, XII: 38)	BN(1)	cf. <b>indi</b>
gaitean	COH-PRS	<i>Arren, echosu orain osaba, bixooc justa <b>gaitean</b></i> (ErrZar, 19)	A(1)	ik. <b>giten</b> , <b>gitian</b> ; cf. <b>gaiteza</b> , <b>gaitezen</b> , <b>gitezen</b>
	PRS-PUR	<i>dignu izan <b>gaytean</b> Iesu-Christoен prometimentuen</i> (Bet, 3: 41)	A(1)	ik. <b>gaiten</b> , <b>giten</b> , <b>gitian</b> , <b>gitien</b> ; cf. <b>gaitezen</b> , <b>gitezen</b>
gaiten	PRS-PUR	<i>Eta, vici <b>gayten</b> gatic, / dabil beti gure atçean</i> (JEliz, 123)	HGN(1)	ik. <b>gaitean</b> , <b>giten</b> , <b>gitian</b> , <b>gitien</b> ; cf. <b>gaitezen</b> , <b>gitezen</b>
gaiteza	COH-PRS	<i>lasterreon sar <b>gayteza</b> / cantoeco çarçayqueran</i> (ArrasErre-3: 7)	B(1)	ik. <b>gaitezen</b> , <b>gitezen</b> ; cf. <b>gaitean</b> , <b>giten</b> , <b>gitian</b>

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>gaitezen</b>	COH-PRS	<i>estugu yll, biurr <b>gayteçe[n?]</b> eta buca deçagun</i> (NafEs-2, 85)	HGN(1), Zar(1) [2]	ik. <b>gaiteza, gitezen</b> ; cf. <b>gaitean, giten, gitian</b>
	PRS-PUR	<i>Eta, Jaynco eguin <b>gaitecen</b>, / dagogu onla otoytçetan</i> (PEzc, 137)	HGN(1)	ik. <b>gitezen</b> ; cf. <b>gaitean, gaiten, giten, gitian, gitien</b>
<b>gindezen</b>	HYP-PUR	<i>Assarra ezquindecen gatic / ogui au errepartiçean, / bati ambat ematen dió, / millari nola millatan</i> (JEliz)	HGN(2)	cf. <b>gindizen</b>
<b>gindizen</b>	IND-PFV	<i>Jagui guindicen arerean</i> (Laz, B16: 138)	A(1)	cf. <b>gindezen</b>
<b>ginteske</b>	APO-	<i>eci bercela eguin bagueneça, puni</i>	Z(1)	
	COND-HYP	<i>quintesque iustoqui</i> (EtxRos-05, 1r: 15)		
<b>gitakek</b>	FUT-IND	<i>Bata ezpada nahi, ezkitakek guduka ni eta hi</i> (OihUrrh, 553)  (itzul. “...ne nous battrons pas”)	Z(1)	
<b>gitean</b>	COMP-PRS-	<i>çeren erregue jaunec nai dute (...) gure</i>	E(1)	ik. <b>gieten</b>
	SUB	<i>artean conpon <b>gitean</b></i> (RosEtx-10, 1v: 30)		cf. <b>gaitean etab.</b>
<b>giten</b>	COH-PRS	<i>Secretuqui minça <b>giten</b> bioc othoy maytia</i> (Etxep, IX: 48)	BN(4)	ik. <b>gaitean, gitian</b> ; cf. <b>gaiteza, gaitezen, gitezen</b>
	PRS-PUR	<i>Gendec yrrigarri guerta ezquiten</i> (Etxep, X: 6)	BN(2)	ik. <b>gaitean, gaiten, gitian, gitien</b> ; cf. <b>gaitezen, gitezen</b>
<b>gitezen</b>	COH-PRS	<i>Amoryac othoy parti <b>gitecen</b></i> (Etxep, X: 3)	BN(1)	ik. <b>gaiteza, gaitezen</b> ; cf. <b>gaitean, giten, gitian</b>
	PRS-PUR	<i>Laydoc hartu gabe gueldi <b>gitecen</b></i> (Etxep, X: 5)	BN(1)	ik. <b>gaitezen</b> ; cf. <b>gaitean, gaiten, giten, gitian, gitien</b>
<b>gitian</b>	COH-PRS	<i>Bioc behin secretuqui nonbait mynça <b>guitian</b></i> (Etxep, VII: 18)	BN(1)	ik. <b>gaitean, giten</b> ; cf. <b>gaiteza, gaitezen, gitezen</b>

ADIZKIA	ETIKETAK ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
	PRS-PUR <i>haren moyenez uda huntan bil ahal guitian bortuyan edo berce...</i> (EtxRos-02, 1v: 11)	Z(1)	Ahalera <i>ahal</i> partikulak adierazten du <b>ik. gaitean, gaiten, giten, gitien; cf. gaitezen, gitezen</b>
<b>gitien</b>	PRS-PUR <i>hainbercerrequy bicy <b>guitien</b> hebentic harat baque eta unione / hunian, ayço hun beçala</i> (EtxRos-02, 1v: 4)	Z(1)	<b>ik. gaitean, gaiten, giten, gitian;</b> cf. <b>gaitezen, gitezen</b>
	COMP-PRS- SUB <i>coinetan goure botheriac manatcen baiqutu ediren eta minça <b>guitien</b>, baque hun baten eguiteco</i> (EtxRos-04, 1r: 20)	Z(1)	<b>ik. gitean</b> cf. <b>gaitean</b> etab.
<b>indi</b>	IND-PFV <i>Gal <b>indi</b> gazte on</i> (IbargC-esaldiak, 13)	B(1)	cf. <b>endin</b>
<b>ladin</b>	HYP~PST- PUR <i>ceren <b>ladin</b> publica mundu gucietara berce lengoagiac beçala</i> (Etxep, Hitz, 1r: 10)	BN(1), E(1) [2]	<b>ik. lidin</b>
	COMP- HYP-SUB <i>bay-eta hun luqueçu cien vicerregue iauna icenta <b>ladin</b> cien errengue iaunaren deputacionian</i> (EtxRos-03, 1v: 13)	BN(1), E(1) [2]	<b>ik. lidin</b>
<b>laite</b>	HYP-POT <i>Uzki maite, higunt <b>elaite</b></i> (OihAts, 474)	Z(1)	<b>ik. leite</b>
<b>ledila</b>	COMP-PST <i>jauna, vadaquiçu nola çuc eta nic gure visorrey jaunaren aycinean prometatu guinoen, gauça huec acordaztean, <b>eledila nobedade eta gayzquirich eguin vatec vercer</b></i> (RosEtx-10, 2r: 18)	E(1)	
<b>leite</b>	HYP-POT <i>Amoradua amorez ilten / ecin <b>leite</b> sufridu</i> (Laz, B11: 10)	A(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du <b>ik. laite</b>
	FUT-HYP <i>Molde ontan <b>eleite</b> beñere acaba eta concluy gauzaric</i> (RosEtx-10, 1r: 29) (itzul. “nunca se acabarán ni concluirán cosas”)	E(1)	<b>ik. laite</b>

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>leitekean</b>	HYP-POT- REL	<i>ceinzuc bagaric ezin yñor salvadu leytequean</i> (Bet, 7: 2)	A(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du
<b>lidin</b>	PST-PUR	<i>Aren aldean jasarri ninçan / cerren ez lidin uçatu</i> (Laz, B12: 50)	A(1)	ik. <b>ladin</b>
	COMP- HYP-SUB	<i>Bada bere, nai ez neuque, / mundu guztiagaitirren, / çuregaz ene secretoa / descubri <b>lidin</b> bapere</i> (Laz, AL, 1144v: 12)	A(1)	ik. <b>ladin</b>
<b>litean</b>	COMP- HYP-SUB	<i>deseo andia dut negocio guziac conpon litean vertati</i> (RosEtx-10, 2r: 7)	E(1)	cf. <b>litezen</b>
<b>litezen</b>	HYP~PST- PUR	<i>Beccatoren saluaceco ieyncoac eguin cinducen (...) / nola berac iustician ecin salua liçaque, / çure misericordiaz remedia <b>litecen</b></i> (Etxep, II: 96)	BN(1)	cf. <b>litean</b>
<b>litezke</b>	APO- COND- HYP-POT	<i>Isasoori tinta balidi, / ceru çabala liburu, / oy Arabaco abantajaoc / ecin litezque contadu</i> (Laz, A6: 22)	A(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du
<b>nadila</b>	COMP-PRS	<i>Jaicoari nai eç daquiola çu joan da ni eben guera <b>nadila</b></i> (Laz, AL, 1151v: 14)	A(1)	
	OPT-PRS	<i>Oray othoy <b>enadila</b> oguen gabe difama</i> (Etxep, IX: 14)	BN(1)	
<b>nadin</b>	PRS-PUR	<i>Hiz bat honic erradaçu hil ez <b>nadin</b> othoy bertan</i> (Etxep, IX: 42)	A(1), BN(3) [4]	
	EXP-IND- PRS-REL	<i>cegaiti biur <b>nadinean</b> / serviduoco çaut, jauna, çu</i> (Laz, AL, 1147r: 15).	A(1), BN(2) [3]	
	COMP-PRS- SUB	<i>gura doçun ni enplea <b>nadin</b> çure servicioan</i> (Laz, AL, 1140r: 1)	A(1), B(1) [2]	
	CIR-PRS- SUB	<i>Nahiz heben pena <b>nadin</b> arima den saluatu</i> (Etxep, XIII: 45)	BN (1)	
<b>nainde</b>	APO- COND-HYP	<i>Ouste banu probetchuric liçatiela ene çuiequi minçaciaz, gin <b>nainde</b></i> (EtxRos- 04, 1r: 21)	BN(1), Z(1) [2]	

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
	FUT~HYP	<i>Iamas çurequila naynde enoya</i> (Etxep, X: 8)	BN(1)	cf. <b>neinde</b>
<b>naindeiela</b>	COMP-HYP-POT	<i>Ecin damna nayndeyela cinesten dut segurqui</i> (Etxep, II: 121)	BN(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du cf. <b>neinde</b>
<b>naite</b>	POT-PRS	<i>Hequi ecin medra nayte, bay gal neure arima</i> (Etxep, XII: 55)	BN(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du
<b>neinde</b>	HYP-POT	<i>secula barriz ecin neynde / çure aurrean aguirtu</i> (Laz, B12: 35)	A(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du cf. <b>nainde;</b> <b>naindeiela</b>
<b>nendin</b>	IND-PFV	<i>Çahar nendin, çora nendin</i> (Bela, 11)	BN(3), GN(1), Z(5) [9]	ik. <b>nindin</b> cf. *EDIN trinkoan
	PST-PUR	<i>Ni certao jayo ninzan? Salua nendin</i> (Sueskun, 1)  (jat. “Para salvarme”)	GN(1)	
	HYP-POT	<i>Jaincoa ez nezan icus, condena al nendin, / Gauza tristea lizate, ordea badate</i> (Sueskun, 3)  (jat. “dejar de ver a Dios y condenarme, triste cosa será, pero posible”)	GN(1)	Ahalera <i>al</i> partikulak adierazten du
<b>niaitek</b>	FUT-IND	<i>Beguiria adi vr bareti, nihaur niaitec lasterreti</i> (Zalg, 16)	Z(2)	
<b>nindin</b>	IND-PFV	<i>esaiorrez topa nindin gradaetan</i> (Laz, A25: 2)	A(2)	ik. <b>nendin</b> cf. *EDIN trinkoan
<b>sindean</b>	IND-PFV	<i>E[rrodrigo] Çarateco, selan engana sindean / jaun Juane Abendañocogas gudua arçen sanean?</i> (ErrZar, 4)	A(1)	
<b>zadin</b>	IND-PFV-REL	<i>Ventura çadinac hartza, etzadinac, ez eta phartza</i> (Zalg, 124)	Z(2)	ik. <b>zedin, zidin</b>

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
	IND-PFV	<i>Agian zerrana etzadin engana</i> (OihAts, 8)	Z(1)	ik. <b>zedin, zidin, zidi</b>
<b>zaite</b>	IMP-PRS	<i>yçul çayte urda ardiçarr ory</i> (NafEs-2, 87)	HGN(3), IGN(1) [4]	cf. <b>zaitez, zatez</b>
<b>zaiteala</b>	OPT-PRS	<i>Es quendu beguioc, Jauna, niganic / quendu ez çaitela</i> presentiatic (Miser, 9: 2)	G(1)	ik. <b>zitela</b> ; cf. <b>zatezela</b>
<b>zaiteien</b>	COMP-POT- PST	<i>Berce gendec vste çuten / Ecin scriba çayteyen</i> (Etxep, XIV: 9)	BN(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du cf. <b>zaitekeien</b>
<b>zaitekeien</b>	CIR-PFV- POT	<i>eta nolas parte oretarat apresta al zaitequeien</i> (EspGut, 13: 21)	L(1)	Ahalera <i>al</i> partikulak ere adierazten du cf. <b>zaiteien</b>
<b>zaiteske</b>	FUT-IMP	<i>arren, aguir çaytesq[ue] / sacusquedan leyotic</i> (Sasiola, B28: 3)	G(1)	ik. <b>zatezke</b>
<b>zaitez</b>	IMP-PRS	<i>et alegraçaiteç ongui</i> (MatxZalb, 7)	A(1), GN(1), HGN(1) [3]	ik. <b>zatez</b> ; cf. <b>zaite</b>
<b>zatez</b>	IMP-PRS	<i>ene bioça, / erdira çatez dolorez</i> (Laz, A28: 6)	A(23)	ik. <b>zaitez</b> ; cf. <b>zaite</b>
<b>zatezela</b>	COMP-IMP- PRS	<i>eta dio joan çatecela</i> Confisioco Esera (Laz, AL, 1153v: 7)	A(1)	cf. <b>zaiteala, zitela</b>
<b>zatezen</b>	EXP-IND- PRS-REL	<i>eta, an el çatecenean</i> (Laz, AL, 1153v: 7)	A(1)	cf. <b>ziten</b> eta pluraleko <b>zitezten</b>
<b>zatezke</b>	IMP-FUT	<i>eben aseden eta guero / joan çatezque, caballero, / andiro mejoraduric</i> (Laz, B16: 149)	A(1)	ik. <b>zaiteske</b>
<b>zatezkeala</b>	COMP-FUT- IND	<i>nic prometietan deusut ece laster osatu çatezqueala</i> (Laz, AL, 1151r: 4)	A(1)	
<b>zedin</b>	IND-PFV	<i>Cerutica iayxi cedin harçaz amoraturic</i> (Etxep, III: 48)	BN(1), Z(9) [10]	ik. <b>zadin, zidi</b>

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
	IND-PFV- REL	<i>Aizez izorra zedina putzez erdi zedin</i> (OihUrrh, 542)	BN(1), Z(3) [4]	ik. <b>zadin, zidi, zidin</b>
<b>zeitean</b>	EXP-IND- PFV-REL	<i>arean da beregan biurtu ceitean artean</i> (Laz, AL, 1143r: 16)	A(1)	cf. pluraleko <b>zitezkeano</b>
	CIR-IND-PRS-STEX	<i>Loxaturic iarri nuçu ezpaytaquit cegatic</i> (Etxep, IX: 6)	BN(1)	
<b>bakit</b>	AFF-IND-PRS-STEX	<i>Neuronec baquit</i> (Laz, A29: 57)	A(4), B(1) [5]	ik. <b>badakit</b>
<b>bakizu</b>	AFF-IND-PRS-STEX	<i>vaquıçu zurea orain gustiau naçana</i> (BizkOlerk, 17)	B(1)	ik. <b>badakizu</b>
<b>baliaki</b>	COND-HYP-PROT-STEX	<i>Ene gogoa balyaqi mayte vide nynduque</i> (Etxep, V: 13)	BN(1)	
<b>banekike</b>	AFF-APO-COND-HYP-STEX	<i>banequique leiaetan, / içorrاد ezpanengui</i> (Laz, A19: 55)	A(2)	
<b>bazeakie</b>	COND-PROT-PST-STEX	<i>baldin jorquere baldin baçeaquie magnifesta çesala</i> (NafEs-2, 147)	HGN(1)	-n gabeko iragana; cf. <b>baziakiela</b>
<b>bazeakik</b>	AFF-IND-PRS-STEX	ançarac <b>vaceaquic</b> deadarr eguiten (ElduBerts 38)	G(1)	‘badaki [toketa]’
<b>bazeeki</b>	COND-HYP-PROT-STEX	<i>Ciertu baceequi esan doçun berbaocaç eguin deustaçun asecabea, sin[i]squetan dot eç cebela esango.</i> (Laz, AL, 1151v: 7)	A(1)	‘bazeneki’ ik. <b>bazinaki,</b> <b>baziniaki</b>

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>baziakiat</b>	AFF-IND- PRS-STEX	<i>Hire potac bacyaquyat berce gauça nahi dic</i> (Etxep, VIII: 13)	BN(1)	‘badakit [toketa]’ cf. <b>ziakiat</b>
<b>baziakiela</b>	AFF-COMP- IND-PST- STEX	<i>Respondatu ciçun ezi Pariseco Parlamentuyac vaziaquiela arch çer potere çuen</i> (RosEtx-13, 1r: 14)	E(1)	cf. <b>bazeakie</b>
<b>bazinaki</b>	COND-HYP- OPT-STEX	<i>Bacinaqui gogoa, / lastana bioçecoa</i> (Sasiola, B28. 17)	G(1)	ik. <b>bazeeki</b> , <b>baziniaki</b>
<b>baziniaki</b>	COND-HYP- PROT-STEX	<i>Eguiara vaciniaqui vrricari nanguidiçu</i> (Etxep, IX: 32)	BN(1)	ik. <b>bazeeki</b> , <b>bazinaki</b>
<b>beki</b>	JUS	<i>Beki on eta gaitzaren berri, kargutan duenak zenbait herri</i> (OihAts, 73)	Z(1)	
<b>daki</b>	IND-PRS- STEX	<i>Bitartean estaquy nihorc oraino Guienan nor isanen den lieutenant general erreguerenzat</i> (EspGut, 15: 14)	A(2), B(2), G(1), L(1), Z(1) [7]	
	GNO-IND- PRS-STEX	<i>Oboro daqui erhoac bere exean ecenes çuhurrac berzerenean</i> (OihKai, 373 = OihUrrh, 626)	BN(1), IGN(1), Z(5) [7]	
<b>dakiala</b>	CIR-IND- PRS-STEX	<i>Eguic on (eta) eztaquiala non/nori</i> (Isas, 28) (itzul. “Haz bien, y no sepas a quien”)	IGN(1)	Itzulpenari begira, optatibo gisa ere uler liteke, bereziki juntagailua jatorrizkoa badu.
<b>dakian1</b>	IND-PRS- REL-STEX	<i>Gueyago dio daquiana baño</i> (RS, 340)	A(3), B(3), G(2), Z(3) [11]	‘hark hora’
<b>dakian2</b>	IND-PRS- REL-STEX	<i>Dakian guzia ezterra, ez jan bethi eure ahala</i> (OihUrrh, 569)	Z(1)	‘hik hora’
<b>dakidala</b>	CIR-IND- PRS-STEX	Nic çugana <b>daquidala</b> faltatu eztut vician (Etxep, VII: 17)	B(1), G(1), BN(2) [4]	
<b>dakidan</b>	IND-PRS- REL-STEX	<i>daquidan leguez esaten dot</i> (Laz, B16: 74)	A(2)	

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
	CIR-IND- PRS-REL- STEX	<i>Nic daquidan gauçaric eztaducat çureric</i> (Etxep, IX: 5)	A(1), B(2) [3]	
<b>dakie</b>	IND-PRS- STEX	<i>Inglateraco armada&lt;c&gt; marchuaren ondareco bella eginen omen du, noracos eztaquie</i> (EspGut, 19: 11)	A(2), B(2), L(3) [7]	ik. <b>dakite</b>
<b>dakien<sub>1</sub></b>	IND-PRS- REL-STEX	<i>Eztaquienac ez hitzic eguin.</i> (OihKai, 282)	IGN(2), L(2), Z(6) [10]	'hark hora'
	CIR-IND- PRS-REL- STEX	<i>Iñork dakienean bere kongreganteren falta graberik korrejidu bear deu karidadearekin</i> (SumBr, 2:19:1)	G(1)	
<b>dakien<sub>2</sub></b>	IND-PRS- REL-STEX	<i>ez daquienac / daocen abisaduric</i> (Laz, A28: 37)	A(1), G(1) [3]	'haiet hora' ik. <b>dakiten</b>
<b>dakigula</b>	CIR-IND- PRS-STEX	<i>bellaco ori, nor den ori daquigula vicicen gara emen</i> (NafEs-2, 142)	GN(1)	
<b>dakiguzan</b>	IND-PRS- REL-STEX	<i>GVERO errezzadu bear dogu daquiguçan oraciñoac</i> (Bet, 1: 32)	A(1)	
<b>dakik</b>	IND-PRS- STEX	<i>hi hayz hayta juramentu gayztoguillearen semea et ayta heurea norduan eztaquic</i> (NafEs- 1, 56)	GN(1), Z(1) [2]	
<b>dakike</b>	FUT-IND- STEX	<i>Daquianac arçayten daquique emayten.</i> (RS, 187)	B(2), BN(1), Z(1) [4]	
<b>dakiken</b>	FUT-IND- REL-STEX	<i>Hogei urtetan eztena, hogei eta hamarretan eztakiena, eta berrogeietan eztuena, da jagoiti eztatena, eztakikena eta eztukeena</i> (OihAts, 524)	Z(1)	
<b>dakikezu</b>	FUT-IND- STEX	<i>Figuraren eqhustiaz daquiqueçu eguia</i> (Etxep, II: 54)	BN(2)	

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>dakit</b>	IND-PRS-STEX	<i>ez daquit neurau nor naxan</i> (Laz, A9: 26)	A(5), B(3), BN(3), E(2), HGN(2), IGN(1), L(3) [19]	
<b>dakite</b>	IND-PRS-STEX	<i>Larrayntarec daquite</i> (RosEtx-11, 1r: 23)	E(1)	ik. <b>dakie</b>
	HAB-IND-PRS	<i>Gayzqui eguin dadinian gendec sarri daquite</i> (Etxep, XII: 21)	BN(1)	
<b>dakiten</b>	IND-PRS-REL-STEX	<i>Oray porogacen dicit daquitenen errana</i> (Etxep, VI: 19)	BN(1)	ik. <b>dakien</b>
	COMP-IND-PRS-REL-STEX	<i>Oustes Bagonara etorry direnec zerbait berry obeto daquiten anbat tardatou dout gastigazera zertan serby al dezaquedan zeure senoria</i> (EspGut, 14: 13)	L(1)	
<b>dakizu</b>	IND-PRS-STEX	<i>Gayxteria eguitia laydo dela daquiçu</i> (Etxep, XII: 15)	A(1), BN(1)	
<b>dakizun</b>	IND-PRS-REL-STEX	<i>Ez daquiçunoc jaquin eguiçu, / ce çaoz engañaduric</i> (Laz, A14: 37)	A(1)	2PL zaharra
	PRS-PUR-SUB	<i>[Beguioc irecaçu guchi baten (...)] cegaiti daquiçun, ceurc ecusita, / ez naxana min baga quexaetan</i> (Laz, B3: 85)	A(1)	
<b>dazki</b>	GNO-IND-PRS-STEX	<i>Ez bere eskasa ez bertzen bortitza, eztazki urguluak, senti ezpaditza</i> (OihAts, 503)	Z(1)	
<b>dekian</b>	IND-PRS-REL-STEX	<i>Yre auçoac eztequiâ gacha ona da</i> (RS, 431)	B(1)	'hark hiri hora'
<b>ekian</b>	CIR-IND-PST-REL-STEX	<i>Silvero joeala equian lecuetati</i> (Laz, AL, 1147r: 19)	A(1)	cf. <b>zeakiela</b>
<b>jakizu</b>	IMP	<i>Et jaquiçu Done Johane Garaçicoec dute gr(aci)a eRegue baytaric hurtean yruroguey t amauj florin</i> (MatxZalb, 4)	A(4), GN(1)	Lazarragaren adibideetako bat 2PL zaharrari dagokio.

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>lekike</b>	FUT-HYP- STEX	<i>Ycasí eztaguianac esean, ez lequique çelayan</i> (RS, 241)	B(1)	
<b>maneki</b>	COND-HYP- PROT-STEX	<i>Egaz manequi ora nequiqueo choriarí</i> (RS, 230)	B(1)	< *baneki; cf. <b>maemana</b> , EMAN aditzean.
<b>nekian</b>	IND-PST- STEX	<i>nun eldu ninçan ez nequian</i> (Laz, B16: 53)	A(1)	
<b>zeakiela</b>	COMP-IND- PST-STEX	<i>eçeaquiela arc alacoric</i> (NafEs-2, 147)	HGN(1)	Zehar-estiloko esate-aditz implizitua edo isildua cf. <b>ekian</b>
<b>ziakiat</b>	IND-PRS- STEX	<i>bay eçiaquit ayetaric batec ere bat badic</i> (NafEs-2, 103)	HGN(1)	‘dakit [toketa]’ cf. <b>baziakiat</b>
<b>ziakikezu</b>	FUT-IND- STEX	<i>Gure arteco amoria ehorc eciaquiqueçu</i> (Etxep, XII: 18)	BN(1)	‘daki [zuketa]’

## 2.2.2.72. \*JANON

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>diago</b>	IND-PRS	<i>Acean diagonac, usean diago</i> (Garibai, A20 = Garibai, B39)	B(1)	
<b>diagon</b>	IND-PRS- REL	<i>Acean diagonac, usean diago</i> (Garibai, A20 = Garibai, B39)	B(1)	ik. § 4.4.3

## 2.2.2.73. JARIO

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>lariola</b>	COMP-PROG- PST	<i>cenacusan (...) Orotaric laryola odol preciatuya</i> (Etxep, I: 127)	BN(1)	

## 2.2.2.74. JARRAIKI

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>arraika</b>	IMP-PRS	<i>Arraica aunçari, Baihagozque gapharrari</i> (Zalg, 14)	Z(2)	
<b>arraio</b>	IMP-PRS	<i>Ynurriari arrayo</i> (RS, 183)	B(1)	
<b>badarraik</b>	COND-PROG- PROT-PRS	<i>Goiz jaikitea baliatuko etzaik, zoriona ondoti ezpadarraik</i> (OihAts, 520)	Z(1)	
<b>banarraio</b>	AFF-IND- PROG-PRS	<i>yxilco banago bati banarrayo</i> (NafEs-2, 79)	HGN(1)	
<b>berraio</b>	JUS	<i>Othoitzen eztakiena Jainkoari, berraio itsasoari</i> (OihUrrh, 663)	Z(1)	
<b>darraik</b>	GNO-IND-PRS	<i>Loila, ezadila hoila, ondotik darraik barandaila</i> (OihAts, 303)	Z(1)	
<b>darraika</b>	HAB-IND-PRS	<i>Nic eztancut emaztiac borchaturic guicona / Bana vera çoraturic andriari darrayca</i> (Etxep, III: 44)	BN(1)	
<b>darraikala</b>	CIR-GNO- IND-PRS	<i>Behiari darraikala doha gaizkintzetara xahala</i> (OihUrrh, 555).	Z(1)	
<b>darraikon</b>	GNO-IND- PRS-REL	<i>Emaztea hartzen duenak ezkontsari hutsagati;biharamuna du dolu eguna, gaitz darraikonagati</i> (OihAts, 136)	Z(1)	
<b>darraion</b>	CONT-IND- PRS-REL	<i>Darrayonarenzat da icia</i> (Isas, 24)	IGN(1)	
<b>darraizkon</b>	CONT-IND- PRS-REL	<i>Ditxa onak, nola baita bera itsu, hari darraizkonak itsutzen ditu</i> (OihAts, 116)	Z(1)	
<b>darraizt</b>	IND-PROG- PRS	<i>Alaba ezkondu ondoan, ezkontgeiak darraizt ondoan</i> (OihAts, 17)	Z(1)	
<b>darraizu</b>	HAB-IND-PRS	<i>Villa real de Urrechu, Veti guerrea darraiçu</i> (Garibai, A33 = Garibai, B58)	B(1)	
<b>narraiola</b>	COMP-CONT- IND-PRS	<i>Vste dicit narrayola ecin duquedanari</i> (Etxep, XII: 47)	BN(1)	
<b>zarraizkidate</b>	IMP-PRS	<i>çaRayzquidate gero bertan yüçoc ongi notaturic</i> (Amend, 13)	HGN(1)	

## 2.2.2.75. JARRI

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>zarriz</b>	IMP-PRS	<i>Acorda çatez / oy eta çarriz contuan</i> (Laz, A26: 78)	A(2)	Ohart erroko -i-ari. Bi lekukotasunak poema berekoak dira.

## 2.2.2.76. JARRUGI

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>jarruta</b>	IND-PFV- PST	<i>egun bein ur jarruta / ganboar seme lasterra</i> (ArrasErre-3, 27)	B(1)	‘hura niri’; -n gabeko iragana, baldin berrezarri behar ez bada.

## 2.2.2.77. JAUGIN

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>daugin</b>	CIR-EXP- IND-PRS- REL	<i>Eci escapa hari ehor dauguinian manuya</i> (Etxep, I: 138)	BN(6)	Geroaldi zein orainaldi orokor gisa interpreta daiteke. Beti heriotzari edo azken judizioari lotua ageri da (seietatik lautan zuzenean <i>herio(tz)a</i> hitzarekin).

## 2.2.2.78. JO

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>jak</b>	IMP	y como los vnos y los otros se animasen deçian <i>jac, emac</i> , que quiere decir “amaga, dale, matales” (MendAera, 46r)	A(1), B(3) [4]	‘jo ezak/iezaiok’ Gehienetan <i>emak</i> edo/eta <i>erak</i> adizkiekin batera ageri da, esaera zahar edo esamolde finkatueta.

## 2.2.2.79. JOAN

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>badoiae</b>	COND-EXP- PROT-PRS	<i>alincoa! bada pleituan alçina badoaye noriere bayt mendecatuco gayzquioc</i> (NafEs-2, 102)	HGN(1)	
<b>bagioanzen</b>	AFF-IND- PFV-PST	<i>baguiocardio arerean / floresta baten erditi</i> (Laz, B16: 84)	A(1)	
<b>bahoa</b>	COND- CONT- PROT-PRS	<i>Sentona, agorrilan bidez bahoa, uk eureki ekitakoa</i> (OihUrrh, 669)	Z(1)	
<b>bajoazen</b>	AFF-IND- PFV-PST	<i>Bajoacen, bada, gau illun baten, / aytea ta seme, biac batera</i> (Laz, B3: 37)	A(1)	
<b>balioa</b>	COND- HYP-PROT	<i>çure mersedo ori balioa lenbaño obeto leguunque</i> (NafEs-2, 119)	GN(1)	ik. <b>balloa</b>
<b>balloa</b>	COND- HYP-PROT	<i>Ifini dave / oy eta asco penaric / comarcaetan, / ara balloa g[u]içonic</i> (Laz, A28: 68)	A(1)	“badaezpada ere” ulertu behar da implizituki  ik. <b>balioa</b>
<b>banajoen</b>	AFF-IND- PROG-PRS	<i>ni banajoen salsearen aurquietan</i> (Laz, A25: 7)	A(1)	‘banoa [noketa]’ Progresiboarekin berehala egingo duena adierazten du.
<b>banijoean</b>	AFF-IND- PFV-PST	<i>Eliçara vanijoean colpeau ar neçanean</i> (AzkPo, 4: 6)	G(2)	ik. <b>nioean</b> cf. <b>niñoeala</b>
<b>banoa</b>	CONC- COND- EXP-PROT- PRS	<i>ni onerean banoa bere, / ene bioça çuc doçu</i> (Laz, AL, 1146v: 7)	A(1)	
<b>bazoaz</b>	CONC- COND- EXP-PROT- PRS	<i>baçoac munduen cabura bere, ecin echi neidiçu</i> (Laz, AL, 1151v: 10)	A(1)	
<b>bihoa</b>	JUS	<i>Bihoa mairu herrin gora</i> (AndrEm, 4)	Z(1)	ik. <b>bioa</b>

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>bihoaz</b>	JUS	<i>Haz nezak egunko aragiaz, atzoko ogiaz eta xazko arnoaz, eta atxeterrak <b>bihoaz</b></i> (OihAts, 213)	Z(1)	
<b>bioa</b>	JUS	<i><b>bioa</b> porra batez arraitan</i> (Laz, B2: 12)	A(1), B(1) [2]	ik. <b>bihoa</b>
<b>boa</b>	AFF-IND- PROG-PRS	<i>orayn vere cerbayta <b>voa</b></i> (frJZum, 29) (itzul. “También ba algo agora”)	B(1)	
<b>dian</b>	CIR-HAB- IND-PRS- REL	<i>ofrendara <b>dianean</b> / ondo oy det miratu</i> (Sasiola, B27: 9)	G(2)	ik. <b>dijohan, doaien, doan, doeán, doen, dohen, dohen</b>
<b>dijohan</b>	HAB-IND- PRS-REL	<i>Vrtara maiz <b>dijohan</b> jarroa</i> (Isas, 85)	IGN(1)	ik. <b>dian, doaien, doan, doeán, doen, dohen; cf. diyoa</b>
<b>diyoa</b>	EXP-IND- PRS	<i>eta egoun <b>diyoa</b> bere echera aren adrezazera eta moustrequin etgitera</i> (EspGut, 9: 5)	L(1)	cf. <b>doa, doha;</b> cf; <b>badoaie, dijoan</b>
<b>diyoala</b>	COMP- CONT-IND- PRS	<i>gastiga al dezaquedana da erege jauna Amiansen setio dagoela eta jente asco <b>diyoala</b> socorrira</i> (EspGut, 2: 7)	L(1)	ik. <b>doela, dohala</b>
	COMP- EXP-IND- PRSC	<i>[diote ezin (...)] eta Amianscoa egin den bezain laster erekue ara <b>diyoala</b></i> (EspGut, 5: 12)	L(2)	
<b>doa</b>	IND-PROG- PRS	<i>Hermandadea arean <b>doa</b> negarrez</i> (Sandailia, 11)	A(1), B(4), HGN(1) [6]	ik. <b>diyoa, doha;</b> cf. <b>badoaie, dijoan</b>
	GNO-IND- PRS	<i>Lan aitzineti pagatua ihesi <b>doa</b></i> (OihAts, 293)	B(1), Z(3) [4]	
<b>doaien</b>	CIR-IND- PROG-PRS- REL	<i>eçe goyñata <b>doayen</b> lecuan eztuçu çuc joan beharr</i> (NafEs-2, 87)	HGN(1)	ik. <b>dian, dijoan, doan, doeán, doen, dohen;</b> cf. <b>diyoa</b>
<b>doake</b>	FUT-IND	<i>Hil badadi hura nola nor <b>doaque</b> gaynera</i> (Etxep, III: 25)	BN(1), Z(1) [2]	

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
	FUT-POT	<i>Baya gayzqui jaten duenic / Eçin doaque cerura</i> (MAld, 90)	HGN(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du.
<b>doan</b>	HAB-IND-	<i>gurdiaquin doana</i> (Lcc, 246r; s.v.	A(2)	ik. <b>dian, dijoan, doaien, doeán, doen, dohen;</b> cf. <b>diyoa</b>
	PRS-REL	<i>carretero</i> )		
<b>doaz</b>	EXP-IND-	<i>Doan gustiari emanen çayo</i> (JEliz,	HGN(1)	ik. <b>doaza</b>
	PRS-REL	127)		
<b>doaz</b>	HAB-IND-	<i>Galay galantoc ara doaz / eguiten</i>	A(2)	ik. <b>doaza</b>
	PRS	<i>erromeria</i> (Laz, B22: 21)		
<b>doaza</b>	IND-PROG-	<i>pare bat casulla eta frontal bi doaz</i>	B(1)	ik. <b>doaz</b>
	PRS	<i>orayn</i> (frJZum, 17)		
<b>doazala</b>	HAB-IND-	<i>Dama galantac ara doaça / galantic</i>	A(1)	ik. <b>doaz</b>
	PRS	<i>adornaduac</i> (Laz, B22: 25)		
<b>doazen</b>	CIR-	<i>Bidaletan deusudaz S(ancho) Garcja</i>	B(1)	
	IND,PROG-	<i>gaz onen içenean doaçala gogoan</i>		
	PRS	<i>garrjac(~guztiac) plater bi (...)</i>		
<b>doean</b>	CIR-HAB-	<i>escalerañen ondoan, corura</i>	HGN(1)	ik. <b>dian, dijoan, doaien, doan, doen, dohen;</b> cf. <b>diyoa</b>
	IND-PRS-	<i>doaçenean, apartatuxeric berçetaric</i>		
	REL	(NafEs-2, 145)		
<b>doela</b>	CIR-IND-	<i>Ardi bat doeán lecuti oro</i> (RS, 223)	B(1)	ik. <b>diyoala, dohala</b>
	PROG-PRS-			
	REL			
<b>doela</b>	JUS-PRS	<i>Eztoela latsara, gatzez duena oinzolara</i> (OihAts, 166)	Z(1)	ik. <b>diyoala, dohala</b>
<b>doen</b>	GNO-IND-	<i>Ergela da gordatzera doena</i>	Z(1)	ik. <b>dian, dijoan, doaien, doan, doeán, dohen;</b> cf. <b>diyoa</b>
<b>doha</b>	PRS-REL	<i>berezenera</i> (OihUrrh, 580).		
	GNO-IND-	<i>Gaizqui doha erbiaz, alhatcen</i>	BN(2), Z(3) [5]	ik. <b>diyoa, doa;</b> cf. <b>badoaie, dijoan</b>
	PRS	<i>denian ohatchiari</i> (Zalg, 103)		
<b>doen</b>	CONT-	<i>Haren maiestatea Fontaneblera</i>	L(2)	
	EXP-IND-	<i>partizera doha, eta handic Bloysa</i>		
	PRS	(EspGut, 15: 8)		

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>dohala</b>	JUS-PRS	<i>Dançatu nahi eztena, eztohala dançala</i> (Zalg, 109)	Z(1)	ik. <b>diyoala, doela</b>
<b>dohaten</b>	HAB-IND- PRS-REL	<i>Ni beçala anhiz duçu halacoric munduyan / Mende oro dohatenic bethi vanaglorian</i> (Etxep, II: 83)	BN(1)	‘doakien’
<b>dohen</b>	GNO-IND- PRS-REL	<i>Min bilha dabila, gudukara dohena azkarragoarekila</i> (OihUrrh, 645)	Z(2)	ik. <b>dian, dijoan, doaien, doan, doeán, doen</b> ; cf. <b>diyoa</b>
	PRS-PUR- SUB	çuhur denac hara <b>eztohen</b> eguin penitencia (Etxep, I: 179)	BN(1)	
	COMP- PRS-SUB	<i>[Iuge iaunac manaturen (...)] Saxu eta quirax oro dohen mundu gucticic</i> (Etxep, I: 319)	BN(1)	
<b>goaie</b>	IMP-PRS	<i>esterju çarra, goaye orrat</i> (NafEs-1, 93)	HGN(1), Zar(1) [2]	‘hoa’
<b>goakez</b>	FUT-IND	<i>Azarcûzeac bildurra vza bez, çe ylteco edo vicico gudura goavez</i> (RS, 165)	B(1)	
<b>goaz</b>	IND-PROG- PRS	<i>Sorginac narama et oray ui sorgin goaz</i> (SorgAgot, 2)	A(1), IGN(1) [2]	
<b>goazela</b>	CONT-IND- PRS	<i>ic jaquingo doc ece guec goacela Dueroco riberara</i> (Laz, AL, 1147r: 22)	A(1)	
<b>goazen</b>	COH-PRS	<i>Heuscura da campora, eta goaçen oro dançara</i> (Etxep, XIV: 1)	A(2), BN(4) [6]	ik. <b>guazen</b>
	CIR-EXP- IND-PRS- REL	<i>[Vioc ondo içango gara (...)] paradisu erreinuan / mundutic goacenean</i> (Sasiola, B30: 30)	G(1)	
<b>guazen</b>	COH-PRS	Ola, <b>guaçen</b> yguitara (JEIz, 113)	HGN(1)	ik. <b>goazen</b>
<b>joaku</b>	IND-PROG- PRS	<i>Dollorrac pere andizuren ospea, gora joacu ycaztobico quea</i> (RS, 507)	B(1)	
<b>joat</b>	IMP-PRS	<i>ay <b>joat</b> gauiraya / astor usua</i> (Perutxo, 4)	B(2)	‘hi niri’

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>joatala</b>	IND-PROG- PRS	<i>Contentu baga dacust joatala / neure urte dulceac castaetan</i> (Laz, B15: 52b)	A(1)	Subjektu sintaktiko pluralarekiko komunztadurarik ez.
<b>joazela</b>	CIR-CONT- IND-PST	<i>Egun baten, (...) lauoc batera nor bere ardiaquin joacela, topadu cirean iturri fresco baten aldean</i> (Laz, AL, 1152r: 6)	A(1)	
<b>joazen</b>	CONT-IND- PST-REL	<i>asi cirean Silverogaz joacen musicoac ain dulcemente jaiten euren instrumentuac, ece...</i> (Laz, AL, 1144r :4)	A(1)	
<b>joeala</b>	CIR-CONT- IND-PST	Egun baten, bada, bere bideti <b>joeala</b> , ... (Laz, AL, 1147r: 20)	A(3)	
<b>joean</b>	CONT-IND- PST	<i>be]re iru matalotequin / g]auça galanta joean</i> (Sasiola, B30: 6)	A(1), G(1) [2]	Sasiolarena da G-kotzat hartu dudana. cf. <b>zuen</b>
<b>lioake</b>	HYP-POT	<i>Guichia guichia vrrin lioaque</i> (RS, 350)	B(1)	ik. <b>lioake</b>
<b>lloake</b>	HYP-POT	<i>cegati nigaç ecin inor lloaque</i> (Laz, AL, 1151v: 13)	A(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du. ik. <b>lioake</b>
<b>lloazen</b>	CIR-COMP- IND-PROG- PST	<i>ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen</i> (Laz, AL, 1147r: 21)	A(1)	
<b>niñoeala</b>	COMP- IND-PROG- PST	<i>Uste dot ece niñoeala / lo, ce ez iraçarriric</i> (Laz, B21: 15)	A(1)	ik. <b>nioeala</b> ; cf. <b>nioean</b>
<b>nioeala</b>	CIR-IND- PROG-IND- PST	<i>Formaonetan nioeala / bioçau guztiz tristea</i> (Laz, B16: 16b)	A(1)	Eskuizkribuan tatxatua. ik. <b>niñoeala</b> ; cf. <b>nioean</b>
<b>nioean</b>	IND-PFV~ PROG-PST	<i>seguro ustez ez nioean / bapere prebeniduric</i> (Laz, AL, B21: 9)	A(1)	ik. <b>banijoean</b> cf. <b>niñoeala</b>
<b>noa</b>	IND-PROG- PRS	<i>tristeric vaia noa neure angerua</i> (BizkOlerk, 12)	B(1)	

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
	HAB-IND- PRS	<i>Yradu noa nayra</i> (RS, 83)	B(1)	
<b>noake</b>	FUT-IND	<i>Neure biçian enoaque Urquiçuren contrean</i> (ErrZar, 21)	A(1)	
	POT-PRS	<i>Perilequi bayecila ecin noaque hargana</i> (Etxep, IV: 15)	BN(1)	Ahalera <i>ezin</i> partikulak ere adierazten du
<b>noean</b>	PRS-PUR- SUB	<i>Echi eguidac orailloba, gau[r] bixiric noeán</i> (ErrZar, 20)	A(1)	ik. <b>noian</b>
<b>noian</b>	PRS-PUR- SUB	<i>Seculacos damnaturic enoian galduya</i> (Etxep, I: 431)	BN(1)	ik. <b>noean</b>
<b>oa</b>	IMP-PRS	<i>Hoa laster, baracheje</i> (RS, 173)	A(1), B(1), HGN(1) [3]	ik. <b>oae, oak, oha</b>
<b>oae</b>	IMP-PRS	<i>Peru Stellara oae</i> (NafEs-2, 76)	HGN(1)	ik. <b>oa, oak, oha</b>
<b>oak</b>	IMP-PRS	<i>hoa / hoac</i> (MendAera, 6v; ‘ve’)	A(1)	ik. <b>oa, oae, oha</b>
<b>oake</b>	FUT-IMP	<i>arasseen oaqué olloquin afaritara</i> (ElduBerts 36)	G(1)	
<b>oean</b>	CIR-IND- PROG-PRS- REL	<i>Çe eyquec maurtuti hoeaneâ eder eztanic calean</i> (RS, 36)	B(1)	
	IMP-PRS	<i>Atsoa, lehia duna hiltzera? Oha atzerrira bizitzera</i> (OihAts, 61)	Z(4)	ik. <b>oa, oae, oak</b>
	HAB-IND- PRS	<i>Bay bician bay hilian bethi oha galduya</i> (Etxep, II: 67)	BN(1)	
	APO-COND- HYP-PROG	<i>alqueric baçindu ezindoazque orr, urda ardiori</i> (NafEs-2, 87)	HGN(1)	
<b>zioak</b>	IND-PROG- PRS	<i>Maingui cioac ori</i> (SorgAgot)	IGN(1)	‘doa [toketa]’
<b>zoaz</b>	IMP-PRS	<i>çoaz deabruetara, guilote vorracho çarquiori, errromessori!</i> (NafEs-2, 121)	A(3), BN(1), HGN(3), IGN(2), GN(1) [10]	ik. <b>zuaz</b>
	IND-PROG- PRS	<i>Doristeo, cegaiti çoaz ceurori, bada, galduric,...</i> (Laz, AL, 1151v: 22)	A(1), Aez(1) [2]	

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>zuaz</b>	IMP-PRS	<i>çuaz urdea, ardi liquits (h)ori, ezta aur(~ori) çure joan bidea</i> (NafEs-2, 86-87)	HGN(1)	ik. <b>zoaz</b>
<b>zuen</b>	IND-PFV- PST-REL	Errumera <b>çouenac</b> , lekuya gal (Bela, 21)	Z(1)	cf. <b>joean</b>

#### 2.2.2.80. *ONHETS*<sup>59</sup>

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>donhetsa</b>	GNO-IND- PRS-REL	<i>Otsoak zer baitetsa, / otsemak donhetsa</i> (OihAts, 390)	Z(1)	Asmatua bide da.
<b>onhetsak</b>	IMP	<i>Dituen ontarzunegati onhetsak adiskidea, eta ez utz opho gutigati, zeren dik nork berea</i> (OihAts, 112)	Z(2)	

#### 2.2.2.81. *ORI*

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>ori</b>	IMP	<b>Ori</b> escuan ezpata (AzkPo, I: 5)	A(1), G(1) [2]	
<b>orie</b>	IMP	<b>Orye</b> , lagunac (NafEs[SOL], 4)	IGN(1)	

#### 2.2.2.82. *-RAIDI-*<sup>60</sup>

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>deraidik</b>	FUT-IND	<i>Arrotzac ez lan daidic, ez deraidic</i> (Zalg, 182) (itzul. “Un hôte ni ne fera aucun travail pour toi, ni ne te donnera le moyen d’en faire toi-même”)	Z(2)	‘ez-eragin’ = ‘eragotzi’

<sup>59</sup> Ik. § 2.2.2.36 ETSI.

<sup>60</sup> Ik. § 2.2.2.8 EGIN eta § 2.2.2.46 -IDI-.

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
FUT-IND		<i>Gaitz deritzanak irri <b>deraidik</b>, on deritzanak hasperren</i> (OihAts, 176)  (itzul. “Celui qui te hait te fera rire eta celui qui t'aime te fera soupirer”)	Z(1)	

2.2.2.83. -RE-<sup>61</sup>

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>zaretno</b>	IMP-PRS	<i>çareço Martini viar arrasean datorrela</i> (NafEs-1, 78) <sup>62</sup>  (itzul. “y que le <b>dixiese</b> que al otro dia a la noche no dexase de yr”)	HGN(1)	cf. <b>zarezkio</b>
<b>zarezkio</b>	IMP-PRS	<i>Onguy jâuturic nigarrès, / viôtçean dâmu duçulà, / becatuên urriquirêqui, / çarezquîo guztiac</i> (PEzc, 50)	HGN(1)	cf. <b>zaretno</b>
<b>zarezt</b>	IMP-PRS	<i>Arren, eguia bat çarezt</i> (Laz, A4: 1)	A(1)	

## 2.2.2.84. -RZA-

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>narzake</b>	HYP-IND	<i>Hanbat ecirade andere larri / BN(1) Merexi duçuna <b>narçaque</b> sarri</i> (Etxep, XI: 4)		Altunak (1980: 213) <i>nacarque</i> 'nekarke' zuzentzea proposatzen du, eta Lafonek (1943), <i>naçaque</i> 'nezake'. Egiantzekoago deritzot <ç> pro <r> bidez, beste zuzenketa honi: <i>narraque</i> .

<sup>61</sup> Ez dut uste adizkiotan <r[r]> zuzendu behar denik, ez baita (orain arte egin denaren kontrara; cf. Mounole 2014: 133) ERRANEkin lotzeko arrazoirik, adieraz harago, eta kasualitate handiegia bailitzateke lekukotasun guzietan akats berbera izatea. Cf. § 2.2.2.53 -IN(E)-.

<sup>62</sup> Bada beste adibide bat 1626an, Riezun (Gesalatz): *çareço amari dagola alegre eta viscor çeren aunsayac jaisten diren lecura aquerrac acudituco din(?)* (NafEs-2, 162).

2.2.2.85. *URGATZI*

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>drugatzula</b>	OPT-PRS	<i>Andria ieyncoac drugaçula oray verdi guirade</i> (Etxep, VIII: 1)	BN(1)	Voltoirek ere badarabil, desitxuraturik, fosiltzearen seinale: <i>Iaincoa trogatçula</i>

2.2.2.86. *UTZI*

ADIZKIA	ETIKETAK	ADIBIDEA	HIZK(KOP)	OHARRAK
<b>dutzala</b>	OPT-PRS	<i>Adiskide zaharra berriagatik eztutzala</i> (OihUrrh, 540)	Z(1)	‘hik hura’ (asmatua?)
<b>euztazu</b>	IMP	<i>Othoycen niçauçu nyry euztaçu</i> (Etxep, X: 29)	BN(1)	ik. <b>extazu, uztazu</b>
<b>extazu</b>	IMP	<i>arren, extaçu exilic</i> (Laz, A28: 58)	A(1)	ik. <b>euztazu, uztazu</b>
<b>itxazu</b>	IMP	<i>bardin on ez derechun guero, / doncelleorri ichaçu</i> (Laz, A12: 12)	A(1)	ik. <b>utzazu</b>
<b>iutzak</b>	IMP	<i>traydore, bellaco juçac mandorj</i> (NafEs-1, 102) (itzul: “que dexase el dicho macho llebar a ellos”)	HGN(1)	< *eutzak ik. <b>utzak</b>
<b>usdak</b>	IMP	<i>usdac edo puñal ucaldi bat emanen diat</i> (NafEs-1, 88)	Zar(1)	
<b>usdazue</b>	IMP	<i>usdaçue emen, yl nay diat</i> (NafEs-1, 88)	Zar(1)	
<b>utzak</b>	IMP	<i>Utzac hona hobiagati</i> (Zalg, 91)	Z(3)	ik. <b>iutzak</b>
<b>utzazu</b>	IMP	<i>guardaçaçu, uçaçu gueldiric</i> (NafEs-2, 89)	IGN(1)	ik. <b>itxazu</b>
<b>uztazu</b>	IMP	<i>Vztaçu hurrancera amore mayte</i> (Etxep, X: 1)	BN(4)	ik. <b>euztazu, extazu</b>
<b>uztek</b>	IMP	<i>Uztec gueldiric vesterenari</i> (ElduBerts 45)	G(1)	Akatsa ez bada, agian ‘utz iezaiek’ ulertu behar da; <i>besteren-ekiko concordantia ad sensum?</i>

### 3. Datibo-komunztaduraren ezaugarriak Euskara Arkaikoko adizkietan

Kapitulu honetan, datibo-ezaugarri batzuk corpusean nola gauzatzen diren deskribatuko dut, ahalik eta modu objektiboenean, baina zenbait aurreuste eta hasieran ezarritako hipotesiak gidari (azpiatalen banaketa bera haien ondorio dela), eta beharrezko diren ohar eta azalpenez horniturik.

Lau atal nagusi izango ditu: lehenean ([§ 3.1](#)) datibo-markez arituko naiz, hau da, datibo-komunztaduraren presentzia iragartzen edo markatzen duten morfoez; ondoren ([§ 3.2](#)) datibo-argumentuari dagozkion komunztadura-marken agerpena deskribatuko dut, pertsonaz pertsona; hirugarrenik ([§ 3.3](#)), aurreko bietako puntu berak alokutiboko munztadurari dagokionez aztertuko ditut; eta amaitzeko ([§ 3.4](#)), datibo-komunztaduraren inguruko beste zenbait markaren eta berezitasunen inguruko xehetasunak eskainiko ditut.

#### 3.1. Datibo-markak adizkietan

Atal honetan datibo-aurreko markek Euskara Arkaikoan zuten presentzia aztertuko dut, eta haien banaketa lexikoa, diatopikoa eta funtzionala argitzen saiatuko naiz, EBZko egoerara hurbiltzeko lehen urrats gisa.

Oro har, Euskara Modernoko marka berak dira Euskara Arkaikoan, salbuespenak salbuespen, baina aldeak daude bai haien maiztasun erlatiboa eta emankortasunean (zeinak lotuak baitira), bai haien gauzatze fonologiko edo alomorfoetan.

Lehenik eta behin, Euskara Arkaikoko morfoak eta haien maiztasunak aurkeztuko ditut. Datubasean datibo-komunztadura egiten duten adizkietatik % 46,3k soilik dute datibo-markaren bat agerian (549/1186). Halaz ere, datibo-marken emankortasunaz, berritasun erlatiboa edo hautazkotasunaz ezer esan baino lehen, bi aldagai edo aldagai-multzo hartu behar dira kontuan. Batetik, *egin* eta *eutsi* aditzen orainaldiaz kanpoko formak datibo-markarik gabekotzat gorde dira datubasean, nahiz eta haien orainaldiko forma gehienetan (*egin*) edota are guztietaan (*eutsi*) badutene *e-* bokala (batik bat Lazarragaren eskuizkribuari zor zaizkion arren); halakoak ere markaduntzat joz gero,

% 59,1ek lukete datibo-markaren bat (701/1186). Bestetik, alde batera uzten baditugu \**edin*-en adizki bipertsonalak (errotzat berezko datiboduna den *-ki(di)*- dutenak; ikus § 5.3), zenbait forma sinkopadun (*dr-* hasten direnak) eta \**enin* errotikakoak (ia guztiak *di-* baitira),<sup>1</sup> datibo-markadunen proportzioa nabarmen igotzen da; % 88ra zehazki (701/796).<sup>2</sup>

Hortaz, datibo-komunztadura egin arren inolako datibo-markarik ez duten adizkiak gutxiengoa direla esan daiteke. Areago, halakoak maiz berrikuntzak izan daitezke (§ 3.1.2.1), edota grafia defektiboaren eraginez ezin erabat bazter litezkeenak (§ 3.1.2.5, § 3.2.1.2). Lehen motakoak dira, esaterako, Etxeparereren eta ekialdeko beste lekukotasun batzuetako *darau-* moduko \**eradun*-en 9 adizkiak, zeintzuei 2 alokutibo-markadun gehitu behar baitzaizkie (*dirau-* hasierakoak, non oinarrian zegoen bokala alokutibo-markarekin batu baita). Bigarrenen taldean sartzen dira *egon*-en N-Ni egiturako 10 (Hegoaldeko *dagoçu* erakoak, ez baitziren grafikoki *z* eta *tz* bereizten).

Nolanahi ere, datuok corpusaren ezaugarrien mende daudela jabeturik, eta bere horretan onartu ditudan salbuespenek ere azalpenak behar dituztenez, are probetxugarriago eta argigarriago deritzot datibo-marken presentziari eta absentziari xehekiago begiratzeari: datozen azpiataletan datibo-markak banan-banan eta testu/hizkera guztietaiko adibide ugarirekin aurkeztuko ditut, haien erabilera esparruak zehazteko helburuarekin (banaketa diatopikoak, lexikoak nahiz paradigmatikoak), eta erregulartasun zein salbuespenak detektatzeko asmoz. Horretarako, erroaren aurretikoak (§ 3.1.1) eta ostekoak (§ 3.1.2) bereizi ditut, eta horien barnean morfo eta alomorfo bakoitzari azpiatal bat eskaini diot. Azken azpiatalean (§ 3.1.3), modu albait objektiboenean, 1625 arteko lekukotasunetan ikusitakoaz ohar zenbait egingo ditut, bai eta ondorio labur batzuk ere atera, geroko azterketaren oinarri.

### 3.1.1. Erro aurreko markak

Mitxelenak aspaldi (FHV: 253) eta gerora Lakarrak ere (2009b) ikusi zutenez, euskal hitzen ezkerreko partea da hainbat arrazoirengatik berreraiketarako ilunena. Hori

<sup>1</sup> Eta, beraz, ezin jakin \**dai-* ala \**dei-* ziren; ez eta are \*-i-gi > \*-ii > -i gertatu ote zen, pluraleko \*-i-z-gi > -zki kontuan hartuz. Hala ere, badira lauzpabost salbuespen *e-* bokaldunak, bi muturretako hizkeretakoak (RS eta Etxep), eta ez halabeharrez testu zaharrenetan eta aditzaren joko trinkoan dokumentatuak (23-24).

<sup>2</sup> Zenbaketa erradikalagoa (baina era berean gordetzaileagoa) eginez, hau da, orainaldiko formak soilik kontuan hartuz, baina horietarik soilik *dr-* hasieradunak eta \**enin* errotikakoak baztertuaz, % 79,7an geratzen da datibo-markadunen ehunekoa (448/562).

euskarak historikoki izan duen tipologia atzizkizalearen ondorio gisa har daiteke (cf. Lakarra 2006a), edo, bestela esanda, aurreko alde behiala biziaren eta geroko fosiltze eta emankortasun galeraren ondoriotzat.

Badakigu, ordea, euskarak aurritzkiak (ere) izan zituela aspaldian, eta halakoak dira, izan ere, aditz jokatuetako morfo ugari (pertsona-komunztadura eta DAM marka zenbait, esaterako), eta haien tartean datibo-marka batzuk. Horiek datubasean nahiz corpus hedatuak arakatu eta sailkaturik aurkeztuko ditut hemen, banaketa diatopikoak, lexikoak eta beste azal(era)tzeko, eta geroagoko bilakabide-proposamenen oinarri izan daitezten.

### 3.1.1.1. *e-*

Bokal honen izaera eta jatorria argi ez badaude ere, aspaldi ohartu zen Mitxelena (1954a: 135) zenbait testu zaharretan, batik bat mendebaldekoetan, orainaldiko ohiko *a-* bokalarekin egiten zuen balentzia-kontrasteaz (ikus baita ere Trask 1977; Lakarra 1986c: 649-650; Gómez & Sainz 1995: 245-246). Funtsean, zenbait aditz iragankorren oinarrizko formak ditrantsitibo bihurtzeko mekanismoa zatekeen (adibidez, mendebaldeko aditz laguntzailean: *dagidan* ‘dezadan’ / *degidan* ‘diezadan’), eta bai Mitxelenak (1954a: 136), bai Lakarrak (1986c: 649), beste fenomeno bat ere ekarri zuten hizpidera, bokal horri buruz aritzean: adizki alokutiboetan eta aditz iragangaitz bipertsonalen mendebaldeko aldaeretan agertzen den edo berreraiki daitekeen bokal itxi / irristari palatala (*diagok* ‘zagok’, *joaku* ‘doakigu’). Lehenak ez zuen lotura argirik egin bi morfo usteko horien artean (areago, hedadura aldetik kontrajarri egin zituela esan daiteke);<sup>3</sup> bigarrenak, aldiz, aurrekoaren hitzei helduta bada ere, ate hori irekia uzten du.<sup>4</sup> Arkaimoaala berrikuntza (zaharra) den oraingoz eztabaidatzeko (ikus § 6), bi ikertzaileek ematen dituzten mendebaldeaz landako adibideek, gutxienez, Mitxelenak beharresten zuen azterketa xehea justifikatzen dute.

Bada, datubasean 264 adizki daude *e-* bokalaz horniturik datibo-komunztaduraren adierazgarri.<sup>5</sup> Ordea, horietatik erdiak baino gehixeago (147) \**edutsi* eta \**eradun* aditzen

<sup>3</sup> “[L]a situación que reflejan los textos antiguos de otros dialectos no es ni mucho menos tan clara. Recordemos, **además**, (...) que un prefijo vocálico *-i-* es general en formas alocutivas de todos los dialectos (...)” (Mitxelena 1954a: 136 [letrakera lodia nirea da]).

<sup>4</sup> “Beste euskalkietan bereizketa ez da horren garbi mantendu Mitxelenak (op. cit. 30) dioen legez; **halere**, bada *i* bat, inoiz alboko kontsonantearekin baturik, euskalki guztiak alokutiboetan (...)” (Lakarra 1986c: 649 [letrakera lodia nirea da]).

<sup>5</sup> Datibo-komunztadura egiten duen orainaldiko *de-* hasieradun forma oro hartu dut halakotzat. Jakina denez, badira datibo-komunztadurarekin lotura (sinkroniko) zuzenik ez duten beste *de-* batzuk; esaterako:

formak dira. Ez da harritzeko, eremu lektal handi banatako N-N-N jokoko aditz laguntzaileak baitira, jarraian ikusiko den bezala.

Gainerako 117en artean, gehien-gehienak (105) N-N-N jokoa berezko edo oso ohiko duten beste sei errorenak dira (*egin*-/-*(ra)idi*-, *eman*, *esan*, \**e(ra)zan*, \**enin* ‘eman’, *iritzi*),<sup>6</sup> eta gainerako 12ak aurritzki honekin (eta batzuk are guztira) dokumentaturik ale bana edo bina baino ez dauzkaten aditzei dagozkie (*eduki*, \**edun*, *edezi*, *erakutsi*, *erauntsi*, *eroan*, *erori*, *izan*, *jakin*). Markatzekoa bide da salbuespenen taldean ageri direla *erori* eta *izan* erroen N-N-i jokoko adizki bana; iragangaitz bakarrak, alegia.

Deskribapen xeheari forma erregular eta erabilienetatik ekinez, lehenik, \**edutsi* aditzari dagozkionak ditugu. Espero bezala (Zuazo 2012, 2017), mendebaldeko testuetan aurkitzen dira, bai (gehienetan) N-N-N jokoko laguntzaile, bai ‘eman’ adierako trinko gisa (3, 7). Zehazki, Araba (1-3) eta Bizkaikoak (4-7) dira gehienak; bestalde, Gipuzkoa mendebaldekoak izan daitezkeen Milia Lasturkoren eresian nahiz Arrasateko erreketaren kantuan ere badira (8-9).<sup>7</sup>

- (1) Mendiola yl **deustac**, Gasto Apala (Abendaño, 7)
- (2) çuri / emayten **deusuguz** zizpuruac (Bet, 3: 26)
- (3) linda damea, asco **deusut** / nic aregaiti esquerric (Laz, A23:27)
- (4) Mizqueriac erajegui **deuso** (RS, 519)
- (5) nic prometietā **deusut** gure Jaunare rregnua. (FrantzOrd, 8-9)
- (6) Veguiac **deuse** egozten vioçari culpea (BizkKant, 11)
- (7) esquerric asco **deustet** (frJZum, 40)
- (8) Peru Garciac eguin **deust** laburto (MLastur, 26)
- (9) esquerric asco emayten **deusat** (ArrasErre-3, 31)

Euskalarien artean gauza onartua da aditz honen eta \**edun*-en arteko lotura etimologikoa: *dau* ‘du’ : *deutso* ‘dio’ (cf. Lakarra 1986c: 649; Mounole 2015; EHHE, s.v. \**edun*). Gai honen inguruan zertxobait gehiago esango dut -*ts* atzizkiari buruz ([§ 3.1.2.7](#)) eta, batez ere, aditz familiez aritzean ([§ 5.2.3](#)); aurrera dezadan, baina, bion arteko

*deramate* ‘daramate’, *dezaguzke* ‘ezagut ditzake’, *dezan* [hark-hura] (cf. *dagian*). Geroago aztertuko ditut halako batzuen jatorri, bilakaera eta salbuespenen gorabeherak (ikus [§ 5.1.1](#) eta [§ 6](#)).

<sup>6</sup> Kontaketa hotetarako, *egin*, -*idi*-, -*raidi*-, batetik, eta \**ezan*, \**erazan*, bestetik, erro berekotzat hartu ditut; jakina, bikoteetako kide bakunak, arrazoi diakroniko nahiz diatopikoak medio, maiztasun handiagoz ageri dira datubasean.

<sup>7</sup> Lazarragaren *deraustae*-ren modukoak ere *e-dunak* dira, baina \**edutsi* erroarekin lotzen ditudanez, *raurrizkiaren* atalerako utzi ditut ([§ 3.1.1.4](#)).

harremana argitzeko ezinbestean azaldu behar dela, halaber, *eduki* (eta *eutsi*) aditz sintetikoarekikoa (cf. Trask 1995; Lakarra 2006b).

Maiztasunean bigarren, adiera bereko \**eradun* dugu, zeina \**edutsi*-rekiko banaketa diatopiko osagarrian aurkitzen den.<sup>8</sup> Zehazki, *e-* aurritzidun formak Nafarroa Garaiko (10-12), Nafarroa Behere ekialdeko (13-14; bigarrena ‘ukan [+DAT]’ adierako trinkoa) eta Zuberoako (15-16) testuetan aurki daitezke.

- (10) pagatuco **deraudaçue** (NafEsI)
- (11) nic fedea prometaçen **derauçut** / ez verçe senarric egujteco (AgoitzEzk, 1-2)
- (12) Hegun goyçean, Agustin Martin Uztarrozcoac ygorri **derautaçu**<sup>9</sup> / ynformacione eguin duena agot oñaren eta bere / lagunen contra (RosEtx-15a, 1r: 12-14)
- (13) Norc vaytere eguyن **deraut** malicia handia (Etxep, XIII: 31)
- (14) Galdu valin badituçu ceren oguen **derautaçu** (Etxep, IX: 34)
- (15) Jauna: eremerciazen **deraucut** cegei coure merchediac / hainberce cuidado baitu nicac (EspGut, 1: 1-2).
- (16) hala nola igorri **baiterauciet** gouriaren coppia / cien othoitzetara (EtxRos-07, 1r: 4-5)

Aipatu eremu geografiko osoaren barruan zergati desberdinako bi hutsune sumatzen dira berehalakoan.<sup>10</sup> Batetik, datubasean ezin bildu izan dut Lapurdiko \**eradun*-en adizkirik: ez Rabelaisen testutxoan, ez uztariztar lapurraren hitzetan, ez Oihenarten lapurtar atsotitzetan. Izan ere, haietan ez da N-N-N indikatiboko ezein laguntzailerik agertzen (eta Lüküzerenaz gainerako EspGut-eten ere, nonahikoak direla, \**enin*-enak dira guztiak).

Nolanahi ere, datubasetik kanpo (1625eko muga kronologikoaren barruan) badira halakoak. Leizaragak *e-* du sinkoparik gabeko orainaldiko forma bakarrean (17), Materraren lanetan (18) *derau-* formak agertzen dira sistematikoki (adibide honetan ‘eman’ adierako trinkoa), eta Voltoirek *a-dunak* eta *e-dunak* (19) darabiltza nahasian.

- (17) Ceren Christ Gentiley predicatu **derauen** Circoncisionecoec Pierris reprotchatzen (Leiz, Akt 11, 0)
- (18) Iesu Christo ene salbatçaillea, esquer eta laudorio **derautçut** (Mat-B, 207)

<sup>8</sup> Izan ere, besterik ere esan edo iradoki den arren (Lakarra 2018: 165; Mounole & Lakarra 2018: 396), ez dut uste Lazarragaren \**eradutsi* aditza \**eradun*-ekin zuzenean lotua denik, \**edutsi*-rekin baizik (ikus § 3.1.1.4-ko [89-92] adibideak eta hango azalpenak; bai eta § 5.2.3 ere aditzon inguruan).

<sup>9</sup> Zuketa, ‘deraut, dit’. Kontuan hartu behar da, halere, autore horren \**eradun*-en adizki bakarra dela, gainerako guztietaen \**enin* erroa baitarabil.

<sup>10</sup> Esan nahi baita, Nafarroatik Zuberoarako tartean; Gipuzkoan *i-dun* formak ditugu (§ 3.1.2.1).

- (19) Hitz ounaq ematen **derauxté** (Volt, 232)

Beste salbuespen nabarmena Nafarroa Behere mendebaldea da, baina oso bestelako arrazoi bategatik: bertakotzat hartu ditudan Etxauzen eta Seinichen gutunetan *daraу-* da aukera bakarra. Ekialderagoko Etxeparek ere arestiko adibideotan erakutsi *e-dun* formak baino maiztasun handixeagoz erabiltzen ditu *a-dunak* (7/5). Hortaz, eta testu zaharrenak kontuan hartuta, nire hipotesia da Nafarroa Behereko berrikuntza izan zela *-eraу- > -araу-*, eta gero Lapurdira zabaldu zela.

Hurrengo multzoa, esan bezala, hiru pertsonako argumentu-egitura berezkoa edo bederen guztiz ohikoa duten aditzek osatzen dute. Halakoak dira *eman* (20, 21), \**erazan* (22), \**enin* ('eman' adierako joko trinkoan) (23, 24), *iritzi* (25, 26), *-raidi-* (hots, *-idi-*ren faktitiboa) (27, 28), *egin* (29-31), *-idi-* (32), *esan* (33, 34), eta \**ezan* (35-38).

- (20) Jaun Cerucoac oni **demala** / bici ona ta lucea (Laz, A24:123)<sup>11</sup>
- (21) Fama gayciq **eztemala**<sup>12</sup> lagunari falsuqui (Etxep, I: 221)
- (22) Jaincoac parca **derozola** Migueli (IrañGut)
- (23) ta **deyc** buztanaz biçarrean (RS, 166)
- (24) Othoy eguic ieyncoari **deyen** varcamenduya (Etxep, I: 32)
- (25) ezçaytu joco, onegui **deriçu** (ErrezilGut, 66)
- (26) Gaitz **deritzanak** irri deraidik, on **deritzanak** hasperren (OihAts, 176)
- (27) Arrotzac ez lan daidic, ez **deraidic** (Zalg, 182)
- (27bis) Arrotzak ez lan daidik, ez **deraidik** (OihAts, 37)
- (28) Gaitz deritzanak irri **deraidik**, on deritzanak hasperren (OihAts, 176)
- (29) Nayago dot to bat, çe amaui emon **deyat** (RS, 40)
- (30) temporaz abisadu bear deu Ayta edo Perfectoa, beste bati enkargadu **degion** (SumBr, 2:13:6)
- (31) Ez akusan begik nigar **eztegik** (OihAts, 153)
- (32) beronec bere **ezteydio** falta gueiago damari, tempora baten eyon baño Jasonec Isorgileri (Laz, B23:3)
- (33) erançungo dau orduan / Jaun Cerucoac, / oy au **desoen** puntuau (Laz, A26: 76)
- (34) eta nere / abisua **desodan** zure senoriary, obligazio dudan / bezala (EspGut, 19: 7)
- (35) batec emun **leçaquet** abitoa (Laz, B4:3)

<sup>11</sup> Adibideotan *-o > -a* gertatu dela jo dut (\**dema-o > \*demo → \*demo-(a)la > demala*).

<sup>12</sup> 'Hik-hari-hura': \**demo-a-la > \*demaala > demala*, dela *oa > a* bakuntzeaz, dela *o > a* bilakaera, Lazarragarenean bezala (20); cf. Etxeparereren beraren *deritzan* eta (289) adibideko *demaçun* ([§3.2.3.1](#)).

- (36) Beldoures oxygen / etorraraz zerbait alarma falso eman **dezoten** / zure senoriary (EspGut, 13: 9)
- (37) Emak eure xahala gogo onkara, gora ahal **dezaianari** azkarrara (OihAts, 578)
- (38) igor **deçadaçu** informacione ample Augustin Martinen cabalen edo çamarien eppaistiaz eta ohonqueriaz (EtxRos-8, 1v: 6)

Adibide hauek bi multzotan bana daitezke datibo-komunztaduraren beharrezkotasunaren arabera. Alde batetik, *eman* (salbuespen gutxi eta argiro “bigarrenkariekin”<sup>13</sup>), \**erazan*, \**enin*, *iritzi* eta *-raidi-* aditzek hartzalea behar izaten dute; bestetik, *egin/-idi-*, *esan~erran* eta \**ezan-ek* ez dute beharrezko, nahiz eta ohikoa izan oso.

Lehen taldeari dagokionez, *e-* ia orokorra da datubasean, nahiz eta *iritzi-k a-dun* formak ere badituen; esanguratsua dateke, ordea, Etxeparek sistematikoki *e-rekin* erabiltzea. Salbuespenak Nafarroako eta Bizkaiko ale bana eta Zuberoako bi forma dira. Batetik, mendebaldeko *a-dun* bakarrak (39) adiera iragangaitz-inpertsonala duela kontuan hartu behar da (‘izena izan’), bai eta *-o* agerian duela ere. Izan ere, corpuseko lau *a-dun* formetatik hiruk daramate *-o* marka; haietatik bik ‘izena izan’ esanahi hori berori dute (39, 40), eta besteak ‘uste izan’ (41), osagarritzat -(*e*)la konplementatzailearekiko perpausa duela (eta cf. esaldi bereko *dausquidala*, hori ere *a-rekin*). Laugarrenak ere 3SG-eko komunztadura du, *-a* aldaeraz, baina ohiko *on iritzi* lokuzioan ageri da, ekialderago (42).

- (39) nola **dariço** – como te llamas (sic)’ (IbargC-hiztegia)
- (40) Arnault Curutchagua **daritzonaguanic** (EtxRos-07, 1r: 2)
- (41) **badariçosu** er[r]an dausquidala ar[r]açeо [o]nac? (NafEs-1, 115)
- (42) Eskerrak iztadan, zeren neure haziendari on **daritzadan** (OihAts, 690)

Ildo berean, Beriainek ere *dariço* dakar ‘izena izan’ adierarako (adibide bakarra du), eta Voltoirek *a-dunak* baizik ez ditu: birritan ‘izena izan’ eta beste batean ‘uste izan’ adieretan. Halaber, Leizarragak *a-* du sistematikoki, edozein dela ere pertsona edo esanahia; dena dela, kontuan hartu behar da aditz honen iraganeko formetan ere *a-* duela sistematikoki.

---

<sup>13</sup> Bigarrenkari deritzet “egia orokor” edo “inpertsonal” adierako erabilerei. Esaterako, *norc berea* [inori] **demana beti da bellaco** (NafEs-1, 37), eta cf. egun ezinezkoak liratekeen antzeko balentzia-murriztea edo adiera inpertsonalak: *Gaza lora ditean artean beste gauza lecusque* ‘ikus liteke [itzul. “se vería”]’ (RS, 145), *Guichia, guichia, urrin lioaque* ‘joan liteke [itzul. “se podría ir”]’ (RS, 350).

Bigarren taldean, aldiz, bi bereizketa diatopiko esanguratsu ikusten dira. Batetik, *esan-ek* N-N-N jokoan *e-* eta N-N<sub>k</sub> jokoan *a-* dituen bitartean (azken horien adibide guztiak Lazarragarenak dira), alderantzizko adibide ugari ditugu ekialdean *erran-ekin*, batik bat N-N<sub>k</sub> *e-dunak* (43), baina baita N-N-N formaren bat *a-rekin*, alegiazkoa izanagatik ere (44). Orobak dakartza Leizarragak bietarik, bai monotrantsitiboetan (45), bai ditrantsitiboetan (46).

- (43) Ezterragula çoin houretaric edanen dugun (Bela, 24)
- (44) Othoyce bat baneguyon **larradala** egua (Etxep, XII: 3)
- (45) eta nehorc ecin **derraqueela** Iesus dela Iaun, Spiritu sanduaz baicen (Leiz, Kor 12, 3)
- (46) cein **badarradaçue** nic-ere erranen drauçuet (Leiz, Mt 21, 24)

Bestetik, \**ezan-*en kasuan, *a-* hutsa duen ditrantsitiborik ez bada ere, *e-* ez da aukera bakarra, ez ugariena (*ia-* eta *ie-* dira ohikoenak; ikus § 3.1.1.2).<sup>14</sup> Hala, datubaseko adibideen urritasunak eskatzen duen zuhurtasunaz, esan daiteke *e-* bazterretako lekukotasunetan ageri dela gehien eta sistematikoen, XVII. mendearren hasiera arteko lekukotasunetan bederen: Lazarragak mendebaldean (35), eta Oihenartek (37) eta Etxartek (38) ekialdean. Halaz guztiz ere, EspGut-eten badira *e-dun* formak, (36) adibidekoak kasu, bestelakoekin batera.

Azkenik, orobat gertatzen da Voltoireren testuetan, non denetarik aurki daitekeen, *e-dunak* barne, eta Leizarragaren aditzera joz gero, gehienetan bestelakoak baditu ere, zenbait *e-* ere ikusiko dugu, dela esklusiboki, dela *ie-dun* aldaerarekin txandaka. Zehazki, *-ke* atzizkidunak dira *e-* (soilik) duten adizki gehienak, batez ere 3SG-eko datibo-komunztadurakoak; hots, *deçaqueo* ‘diezaioke’ vs *dieçaquet* ‘diezadake’.<sup>15</sup>

*Egin* aditzari dagokionez, hasieran esan bezala, mendebaldean da argien *a/e* txandakatze morfologikoa (29, 30), baina ekialdean bada arrastoren bat edo beste, zehazki Oihenarten atsotitzetan (31); cf., ordea, Etxepareren testuko eta EspGut-etako adibideak (47, 48).

- (47) Nyri vnsa **ezpadaguit** vehar dicit pintatu (Etxep, VII: 13)
- (48) Dio ezen eregeren magestateac eman diola / compania bat eta zenbait picqua bidalzeaz / merchede **daguidala** (EspGut, 19: 6)

---

<sup>14</sup> Aldiz, egitura monotrantsitiboetan *e-* da aukera (*ia*) bakarra; azalpen saio baterako, ikus § 5.1.1.

<sup>15</sup> Gogoan izan *iritzi*-ren *a-dun* adizkiez aritzean esandakoa.

Aldiz, erro beraren bi eratorrik jokabide ezberdina erakusten dute: *-idi-k*, *egin-ek* bezala, *e-* du mendebaldean, eta *a-* ekialdean, baina *-raidi-k*, dokumentatzen den bi kasuetan (27, 28), *e-* hartzen du ekialdean ere. Bestalde, Leizarragak *a-* du orainaldian *egin* nahiz *-idi*-ren adizki guztieta, eta iraganean *e-* nagusitzen da.

Amaitzeko, *e-* aurrizkiarekin gutxitan dokumentatu diren aditzak ditugu (49-56). Batzuk oro har dira bakanki dokumentatuak joko trinkoa (*edeki*, *erakutsi*, *erauntsi*, *erori*); beste batzuek *e-* aurrizkidun edo, oro har, N-N-N egiturako lekukotasun gutxi dituzte (\**edun*, *eduki*, *eroan*, *jakin*). Azkenik, *e-* aurrizkiarekin agertu ez ohi den aditz arazotsu bat bada (*izan*).

- (49) Erroia haz ezak, begiak **dedetzak** (OihAts, 152)
- (50) Othoi sainduari, **deraunsano** ekaitzari (OihAts, 662)
- (50bis) Zeinuak **deraunsano**, / zinzarrotsa joralterano (OihAts, 433)
- (51) Esteiari izan denari bethiere, / on **derorkona** hanitz zaio, apur badere (OihAts, 692)
- (52) crueldaderic **baderacuso** / beoque beti tristeric (Laz, A14:61)
- (53) eta, ain da nic **deusudan** amorioa andia, ece... (Laz, AL, 1147v:11)
- (54) Tacoc **deroat** dodana / neure echerean çejara (RS, 82)
- (55) Peco gassoa **deucot** etorri joatan gacha / jatordala, / ase osteco loa (RS, 425)
- (56) Yre auçoac **eztequiâ** gacha / ona da (RS, 431)
- (57) nic, catherina, ezconce **necaycut**, / domingo, / eta (...) (AzpEzk, 6)

Maiztasun apalaren araberako multzo honen azpian motibo ezberdinak ezkutatzen direlakoan, banan-banan aztertuko ditut.

Ekialdeko testuetatik hasita, Oihenartenak dira lehen azpimultzoko gehienak (49-51), eta jakina da autore honen adizkiekin tentuz ibili beharra dagoela, batik bat adizki trinkoak erabili (eta sortu) zale baitzen (Mitxelena 1953a: 292; 1953b: 298; 1985: 183). Nolanahi den, ez dira hirurak mota bereko aditzak, eta dituzten paralelo apurrak ere ez dira berdinak.

Lehenik, *edeki* [N-N-N] berezkoa edo oso ohikoa duen aditzen artean sailkatu behar da eta, gainera, baditu forma trinko gehiago dokumentaturik: Etxeparerentzako *edetaçu* (birritan), eta Isastiren errefrau bateko *baledeco*.

Bigarrenik, *erauntsi* aditza, datubasean urrienetarik bada ere (corpuseko beste adibideak *dr-* sinkopadunak dira), ondo dokumentaturik dago euskararen historian zehar,

bai *e*-rekin (Oñatiko eskuizkribuak eta Haranburuk, corpusetik kanko; OEH s.v. *erauntsi*),<sup>16</sup> bai *a*-rekin (XVII. mendeko lapurtar autoreetan).

Azkenik, *erori*-ren adizkia dugu (51), beste inon eta inoiz agertu ez dena. Hapax izaerak ez ezik, *e*-dun iragangaitz bakarra izateak ere susmoa eragiten du (ikus beherago *necaycut*-i buruz, bai eta *e*-ren gaineko ondorio orokorrak).

Euskal Herriko beste muturrean, Lazarragaren bi adizki bildu ditut (52, 53). Batetik, trinkoki gutxitan dokumentaturiko *erakutsi*-ren adizki gardena eta, bestetik, \**edun*-en N-N forma bat.

Azken hori (53) \**edutsi*-ren parekoa da morfologikoki, baina ez da laguntzaile gisa edo ‘eman’ adierako trinko gisa erabilia, baizik eta, hain zuzen, \**edun*-ekiko aditz perifrasia bati estimuluaren jatorria gehituta (cf. *amodia eduki, ukan~izan*; ikus § 5.2.3).

Azken horren antzekoak dira (N-N<sub>k</sub> → N-N-N balentzia-aldaketaz) hurrengo hirurak, guztiak RSetan dokumentatuak (54-56). Beharbada arruntena, aurritzka gorabehera, *eroan*-ena da, eramatearen onuraduna (eramaten denaren jabea nahiz hartzailea) txertatzea ohikoa baita. Aldiz, *eduki*-ren kasua arrestiko \**edun*-enaren berdina da, non sentipenaren eragilea gehitu den;<sup>17</sup> eta orobatsu *jakin*-en adizkiari dagokionez, hartan “ikasitakoaren” iturria erantsirik.<sup>18</sup>

Amaitzeko, *izan*-en adizki bat dugu, bi aldiz ageri dena Azpeitiko auzibide batean, lekuko ezberdinengandik jasoa (57): *necaycut* ‘natzaizu’. Kasu honetan ezkontzaren “helburua” (ezkontidea) markatzen da datibo-komunztaduraz, baina ez da hori bitxitasuna, noski, forma baizik. Bukaeratik hasiz, bi agerraldietan dagoen -t da azalgaitzena. Errata edo lapsus bat dirudien arren, kontuan hartu behar da ustez bi lekuko desberdinen ahotik jasoa ageri dela, eta eskribauak ez zuela besterik gabe bat bera bitan kopiatu, grafia ezberdinez ageri baita. Horrez gain, esaldi osoari begiratzen badiogu,

<sup>16</sup> Oihenarten beste atsotitz batean ere ageri da, datibo-argumenturik gabe, baina forma berarekin, fosildurik balego bezala (50bis). Horrek eta autore berak beste kasu batzuetan erakusten duen *a*-rako joerak berma lezake, hein batean, formaren fidagarritasuna.

<sup>17</sup> Kasu honetan, ez dirudi azalpen etimologikoa duenik, baizik eta analogiazkoa, edo bestela esanda, arrestian aipatu *a* : *e* oposaketa hedatzearren ondoriozkoa. Horrela ulertzen da jada datibo-marka barneraturik eta fosildurik bide duen aditz batek (*eduki*) berriz ere datibo-komunztadura gehitu ahal izatea (ikus § 5.2.1); cf. egungo bizkaierako *estekotzue* (*erremediorik*) erako adizkiak, datibo etiko edo interesekoarekin batik bat, baina baita iturria markatzeko ere, nola baita *estakatzut* [*beldurrik*] (Gaminde 2007).

<sup>18</sup> Oxel Uribe-Etxebarriak jakinarazi didanez, editatzen ari den XIX. mendeko Oñatiko eskuizkribuan badira halako bi (ez dut besterik ezagutzen), esaterako: *bere barri dequioen* beste Christaun guztiai emuten deuste *escandalu guztiz madaricatuba* (Uribe-Etxebarria, prestatzen). Badira *jakin*-en forma hirupertsonal gehiago (XVIII. mendean), baina *dia-* (OA; ikus [568] adibidea) edo *da-* (Mogel) hasierekin, bana. Gerora sortu dira forma hirupertsonal berriak mendebaldeko hizkera batzuetan, datibo etikoarekin bada ere; hala nola *dakitzut* (Gaminde 2007).

subjektuak ergatiboa daramala ikusiko dugu, eta horrek pentsaraz lezake ez ote zukeen *çaitut* esan edo idatzi nahi izan; hasierako *e-* oker bat izan zitekeen hala (ezen *<n>*, egiazki, aurreko aditz-izenari ahal zegokiokeen). Alabaina, beste ezkontidearen hitzetan ere ergatiboa dugu (*nic*), baina adizkia (beste aldaera batean) are gardenago adierazia (amaieran *-t* duela, halere!): *ezconcen naycaycut*. Kontua are korapilatzenago da beste lekukotza bateko “*nic... çaytut... çuri*” ikusirik.

Nolanahi ere, Satrustegik argitaraturiko testuaren berezitasuna azpimarratu behar da, oro har: Azpeitiako gertakari batzuen ingurukoa izan arren, hizkera ez dator bat eremu hartakoarekin, nabarmen; eta aldea, funtsean, hainbat aldiz errepikatzen den adizki bakarrean (*drauçut* ‘dizut’) oinarritzen bada ere, oso esanguratsua da, zeren eta, alde batetik, halako sinkopadun formak Leizarragaren itzulpenean eta hegoaldeko goi-nafarreran agertzen baitira, eta, bestetik, Azpeitia Iruñeko elizbarrutian baitzegoen artean. Bada, azken urteetan argitaratu diren lan interesgarri batzuen abaroan (Monteano 2017: 163 eta hh.; eta alderdi filologiko-linguistikotik, bereziki, Santazilia 2017: 379-380, 402; 2018: 429, 454; 2019: 32, 48) datuok interpretatzen saia bagaitez, pentsa daiteke nafar administrazioko langileak ez zuela euskara (edo eremu hartako euskara bederen) erabat menderatzen, edo/eta berak erabili ohi zuenaren interferentzia gertatu zela. Hala uler daitezke adizkien arteko “*gurutzatzeak*” eta hegoaldeko goi-nafarreraren ezaugarri den *drauçut* adizkiaren agerpena: hark ezagutzen zuen eta nafar administrazioan estandarra edo prestigiozkoa zatekeen aldaera.

Ildo beretik, *nezaizu* ‘natzaizu’ erako adizkiak ez dira ezezagunak behialako *drauzut-en* eremuan. Bonapartek hegoaldeko goi-nafarrerakotzat dakartzza, baina lehenagoko lekukotasun bakarrak, Beriainenak, *nayçayo* dakar (Reguero 2019: 443). Beharbada Nafarroa hegoaldeko eremu horretan *ai > ei* joera zen (Nafarroa Beherean bezala; Camino 2008: 128-129), idatzietan beranduago ageri bada ere (Camino 2003: 132; Reguero 2019: 400, 504). Halere, ikus § 5.1.1 eta § 6 *izan* aditzaz eta haren paradigmaz.

Honenbestez, esan daiteke orainaldiko *e-* bokala N-N-N konfigurazioari lotua ageri dela batez ere (dela etimologikoki eratorria, dela analogiaz hedatua), salbuespen susmagarri bakarrarekin (berriki aipatu dudan *nezai-* alde batera): Oihenarten *derorkon* ‘erortzen zaion’. Alabaina, kontuan hartu behar da autore berak *derora* ‘erortzen da’ ere badarabilela, datibo-komunztadurarik gabekoa, eta, beraz, bestela azaldu behar da;

litekeena da, azken batean, berak sorturiko adizki trinkoa izatea, aditzoin osoa harturik (cf. *derahatza, donhetsa*).<sup>19</sup>

Horrez gain, bi baieztapen orokor gehiago erants daitezke: batetik, oinarrian N-N<sub>k</sub> erroak dituzten *ra-* aurrizkidun aditzek *e-* ere hartzen dutela, oro har, eta, bestetik, bokal hori N-N<sub>k</sub> → N-N-N eratorpenerako berrerabili zela, Bizkaiera Zaharrean behin behin (gerora bertan *-ts-*k hartu duen funtzio bera, hain zuzen).

Aldiz, egoera ñabarragoa darakuste N-N<sub>k</sub> → N-N-N zaharragoek. Hala, Oihenarten eta Zalgizeren *daidik* : *deraidik* bikotearen argitan, esan liteke *ra-k* arazletasuna eransten duela, eta *e-k*, datibo-komunztadura bera (cf. Oihenartek dakartzan *degi-* hasierako adizkiak, zeintzuek ez duten arazletasun esanahirik). Egia da *degik-en* eta *daidik-en* artean bigarrenaren higadurak eta morfologiak arkaikoagoa izan behar duela iradokitzen dutela (Lakarra 2013: 304), baina beharbada hiperzuzenketa baten aurrean gaudela pentsatu behar da: Oihenarten itzulpenari jaramon egunik, jatorrian *deidik* : *deraidik* zatekeen oposaketa, baina (ikusi dugun bezala) *ra-* aurrizkiarekin *e-* agertzeko joera (orokorra nahiz autore beronen hautua izan), bai eta *a-* N-N<sub>k</sub> → *e-* N-N-N bilakabidearen galbidea direla medio, *deidik* → *daidik* berrosatu zezakeen.

### 3.1.1.2. *i-*

Bokal hau 48 aldiz baino ez da ageri aurrizki moduan eta datibo-markaren funtzioaz datubasean (interesgarriro, beste 30 alditan ageri da alokutibo-marka gisa). Bestalde, horietarik gehienak \**ezan-en* (58-61) eta *izan-en* (62-64) adizkiak dira.

- (58)    ecin esan **niazcaquec** Miravallesco gaucac (ElduBerts, 30)
- (59)    Barca **jazquiguçu** guere pecca/tuac (AresOt-PatNos1, 1v: 18)<sup>20</sup>
- (60)    Jauna: zure senoriac barca **biezat** (EspGut, 13: 1)
- (61)    Azquen finian eman **diaçan** recebice dignia (Etxep, I: 40)
- (62)    Ni becatariau confessetan **nachaco** / Iaungoyco gustiz poderosoari (Bet, 6: 21-22)
- (63)    Ni ere jarrayquico **nayçaye** ari eta aren ylobay (NafEs[SOL], 9)
- (64)    Berce aldi batez ginen **nyçayçu** (Etxep, X: 61)

<sup>19</sup> Areago, *dera-* arazleen “orainaldiko aurrizki” gisa osorik erabili zuela dirudi. Batetik, ez dago inongo arrazoirik pentsatzeko *ahantzi-k* forma sintetikoak izan ahal zituenik ere eta, bestetik, hirugarren silabako hasperenak salatzen bide du formaren berritasuna, arkaismo batean espero ez zitekeena.

<sup>20</sup> Adizkiok (bi dira otoitz berean) eta Etxepareren *yaçadaçu*, grafiak eta lituzketen ahoskerak gorabehera, *i-* aurrizkidun gisa gorde ditut datubasean, batik bat mendebaldeko *j-*etatik bereizteko eta, aldi berean, ekialdeko beste *i-ekin* bateratzeko.

Datubasean *i*-dun forma ezberdin gehien dituenarekin hasiaz, \**ezan*-en adizkiak Gipuzkoa ekialdetik hasi, Nafarroa iparraldetik igaro eta ekialdeko hizkeretaraino hedatzen dira, aurreko puntuaren ikusitako *e*-dunekin lehian (9 *e*- vs 13 *i(a/e)*-). Esaterako, hizkera “nahasiko” EspGut-eten bietarikoak ageri dira, adizkiaren arabera (*ni(a)zakeio*, *biezat*, baina *dezon*, *dezoten*),<sup>21</sup> baina Etxeparek sistematikoki *i(a)*-dun formak ditu; orobat Materrak *ia*-rekin. Bestalde, Hegoa deko adibideak ere ez dato bat: Lazarragak *lezaket* duen bitartean, AresOt-PatNos-eten *iazkiguzu*<sup>22</sup> ageri da, eta ElduBerts-eten <*niazcaquec*>,<sup>23</sup> (XVIII. mende hasierako Otxoa Arinek eta Lubietak ere badakartzate halakoak; hurrenez hurren, *diakit* eta *diaramaio*).

Hala bada, hain adibide gutxi eta heterogeneoekin (soilik aginterako forma bat dut autore ezberdinaren testuetan dokumentatua: ‘iezadazu’), ezin atera liteke ondorio sendorik. Hala eta guztiz ere, banaketa diatopikoari begiratuta, argi zerbait egin liteke. Esaterako, Etxart eta Oihenart zuberotarren hizkuntza “gutziz zuberotarra” dela ezin esan bidaiteke ere (Camino 2008; Padilla 2017), puntu honetan bat dato biak, bai eta beste muturreko Lazarraga ere (nahiz eta XVII. mendeko zuberotarrek *i*- baizik ez duten). Nolanahi den, korapiloa askatzeko, *e* : *i*- oposaketa bainoago, aztertu beharreko *i* : *ø*- eta *e* : *a*- hautuak eta beren konbinaketak direlakoan nago.

*Izan*-en adizkiei helduz, lehenik eta behin esan behar da hauek direla *i*- aurritzki-bokala denbora-aspektu bokalaren ondoren daramaten bakarrak (vs *ia*-). Bada, corpusean dauden 22etatik 16ren subjektua 1SG da (hots, euskara batuko *natzai*-), eta Lazarragarenak dira ia erdiak (6 *nachaçu*); Betolatzak *nachaco* dakar.<sup>24</sup> Gainerako adizkietatik batek ekialdeko *itza*- aldaera dauka (batuan *hatza*- dena), eta beste bostak *litza-/zitza-* iragan-alegiazko ereduak dira, hala ekialdean (OihAts *zitzaizkan* ‘zitzaizkion’) nola mendebaldean (Laz *liçacala* ‘litzaiola, zitzaiola’, non markatzeko den ez dela \**eitz* > \*\**etx* gertatu).

Beste *i*-dun adizkiak heterogeneagoak dira, proportzioan eta erroari dagokionez, eta haietako asko geografikoki aski mugatuak, Gipuzkoa (hego-)mendebaldean; hangoak

<sup>21</sup> Ikus aurreko puntuaren Leiz-en adizkiez esana.

<sup>22</sup> Ariztimuño (2016a: 33) lanean \**iazkiguzu*-tik zetorrela proposatu nuen, haplogiaz.

<sup>23</sup> Ez dago argi adizkiaren esanahia eta, ondorioz, ahoskera (edo alderantziz): baldin *niazkakek* irakurriko bagenu, AresOt-eten *iazkiguzu* adizkiari buruz esandakoaren ildotik, \**niazazkakek* ‘niezazkioke[toketa]’ uler liteke; eta, aldiz, *natzakek* irakurriko, ‘niezazkiak’ [nik hiri-haiek] edota ‘nitzake[toketa]’ uler liteke.

<sup>24</sup> Halakoak *i*-duntzat hartu dira, zeren eta *natxa*- horren jatorrian \**naitza*- baitago; cf. erdialde zabaleko *na(i)tza*-, ekialdeko *nitza*-, eta haien banaketa bera duten *nax* : *naiz* : *niz* (< \**naiza*; FHV: 105).

dira ArrasErre, SumBr eta, zehaztasun gutxiagoz, Miser. Nolanahi ere, Euskal Herri osoan zehar ageri da aleren bat. Dakusagun zehatzago zer-non eta zertarako.

- (65) Busti naçanean çure graçiac / quenduco **diraust** culpa gustiac (Miser, 5: 1-2)
- (66) eta aplikaduko **dirauze** ynduljenziak irabasten diradenak / euren kapilla bizitazeaz (SumBr, 2:17:7)
- (67) çoinetan gainan iguorten **dirauet** respuesta messagier / hunequi (EtxRos-09, 1r: 4-5)
- (68) Beotibar, hic **diadutac** Martin de Oybar (BeotNaf)
- (69) Amore bat nahi nuque **liadutanic** egua (Etxep, II: 20)
- (70) Mari Lopezco ederreza, / arren çaoça exilic, / oy eta baldin gura badoçu / ez **difinçuen** tacharic (Laz, A27a:1-4)
- (71) Ez **diaço** bacarric (ArrasErre-2b: 5)
- (72) eta aren abisuak aprobetxatzen ezpadeu / esango **diago** Kongregazioko Aytary (SumBr, 2:19:3)
- (73) Açeán **diagonac**, usean **diago** (GarErr, A20 = B39)  
 ‘Los que **hieren** detras **hieren** en vazio’ (Garibay G)  
 ‘Tras en **dize** el que, vazío en **dize**’ (Garibay Cc)

Lehen adibideak (65-67) \*eradun-i dagozkio, baina ekialdeko ohikoaren bestelako aurritzia dute, eta merezi du aldea xehetasunez azaltzea.

Ekialdeko \*eradun-en adizkietan *e-* (edo *a-* berrikuntza) da beti, salbu eta Etxart zuberotarraren adibide honetan (67).<sup>25</sup> Aipatzekoa da ezen, alderantziz, beste gutungileak (Ros erronkariarrak) *i*-rekin ematea espero litekeen adizki alokutiboa *e*-rekin dakarrela:<sup>26</sup>

- (74) Hegun goyçean, Agustin Martin Uztarrozeacoa ygorri **derautaçu** ynformacione eguin duena agot oñaren eta bere lagunen contra (RosEtx-15a, 1r: 12)

Erdialdean (Gipuzkoan) ere badira \*eradun-en adizkiak (65, 66), baina bertan *i*- da araua. Mitxelenak (1960: 698-699) aspaldi seinalatu bezala, objektu pluraleko formak baino ez ziren erabiltzen eremu hartan, adibideok erakusten duten bezala (ikus Lakarra 2011: 197-198).

Erdi-ekialdeko hedadura dute baita ere *eduki* aditzaren *i*-dun formek (68, 69); zehazki, Nafarroatik sortalderakoa. Corpuseko beste testuetan ere aurki daitezke gehiago:

---

<sup>25</sup> Gutunen edizio kritikoaren faltan, ez dakit akastzat hartu behar den (*e* eta *i* oso antzekoak izan daitezke eskuizkribuetan), edo alokutiboko formen eragina izan daitekeen.

<sup>26</sup> Ikus § 3.3.1.2-n alokutiboko *i*-ren lekukotasunak.

- (75) daquigunean ecen Iaincoac hala bridá herstua **diadutela**, non deus haren congitarequin baicen ecin baitaidite (Leiz, Catech 1297-19)
- (76) Çeren onlacoey **diaducote** Iaungoycoac prometaturic barcatuco dizquitotela (BerDCh, 141v)

Hapaxa da, berriz, ArrasErre-ko *diaço* (71), haren osaera eta esanahia erabat argitu gabe badiraute ere (Mitxelena 1979: 49; ikus § 5.1.2); orobat da Lazarragaren *difinçuen* ‘ipin diezazuten’ (70), non *i-* datiboarekin lotu behar den, kontuan harturik *damindan* ‘ipin dezadan’ (RS, 99) eta Lazarragaren beraren *nafinzu* ‘ipin nazazu’ (Laz, B3:70) formak.

Analisi zailagokoak dira beste biak (72, 73), zeinek forma bera izanagatik erro bera duten ere ez baita argi, esanahiak ere ez baitituzte.

Batetik, SumBrko *diago* ‘dio’ erako N-N-N laguntzaileak ditugu (72), zeintzuek Laz-ren *jago-* erakoak dakartzaten gogora (cf. § 4.4.1 eta § 4.4.2).

Bestetik, forma berbereko (baina ‘jo’ eta ‘esan’ adierez itzuli ziren) adizkiak dakartza Garibaik errefraueta (73). Berez, itzulpenari so, ez genuke datibo-komunztadurarik esperoko adizkiotan; hala, *-iago-* enborra bereiz liteke, baina argi dago horrek ezin duela erro hutsa izan. Aitzitik, 3. pertsonako datibo-komunztadura orokor bat dela pentsaturik (zurrumurren jomuga nahiz kaltearen jasalea, ‘esan’ edo ‘jo’ adierei jarrikiz), *i-* (eta beharbada *-o*) azaldurik geratuko litzateke. Hortaz, *d(i)a-* orainaldiari legokioke eta erroa *-g-* (edo *-go-*) luke. Halako aditzik ez denez (nekez lot bailiteke *egonekin*), aurrerago aurkeztuko dut morfologiaren eta bilakaera fonologikoen bidez iritsitako proposamen bat (§ 4.4.3).

Azkenik, beharbada talde honetan sartu behar dira Leizarragaren adizki berezienetakoak, *-ngu-* errokoak (77, 78). Halere, ezin da baztertu haietan *e > i / \_CCu* gertatu izana (cf., aldiz, Etxep, I: 72, *Othoy iauna enguztaçu lagun çure saynduya*), edo bokal itxia erroaren zati izatea (*-ingu-*).<sup>27</sup> Hona adibideen pasarte osoak, egungo *Elizen arteko Bibliako bertsioarekin* batera, hobeto uler daitezen:

- (77) Uste duçu ecin othoitz daidiodala orain neure Aitari, eta **baitinguzquet** bertan hamabi legione baino gehiago Angeru? (Leiz, Mt 26, 53)

‘Ala uste al duzu ezin diodala Aitari dei egin? Hamabi aingeru-talde eta gehiago **jarriko lizkidake** berehala ondoan.’

<sup>27</sup> Konparaziorako, \**ei- > e-* ezohiko emaitza bide dute \**enin* erroko hauek: *Amore bat hautaceco conseylu bat nequeye* (Etxep, II: 5); *Huda ta negu, eguzu ogui ta su* (RS, 304).

- (78) Eta çuetaric cembeitec hæy erran diecén, Çoazte baquerequin, bero çaitsezte eta asse çaitsezte; eta **eztinguzteçuen** gorputçaren necessario diraden gauçác, cer probetchu duqueite? (Leiz, Iac 2, 16)

‘eta zuetakoren batek esaten badio: «Hoa bakean, bero hadi eta ase», baina behar duen laguntza **eman** ez, zertarako balio du horrek?’

### 3.1.1.3. *j-*

Datubasean 66 adizki daude aurrizki hau datibo-marka gisa dutenak, eta hiru multzotan bana daitezke. Lehenik, 43 alerekintzat, *izan-en N-Ni* paradigmakoak ditugu; bigarrenik, eskutara bana adibide dituzten hiru aditz arruntenak (*etorri, ibili, joan*); azkenik, arrazoi ezberdinengatik bereziagoak direnak: batetik, *jago-* hasieradunak (ikus § 4.4.1) eta, bestetik, *ipini-ren* eta *jarrugi-ren* adibide bana.

- (79) Etorrico **xasu** / Gacha bertati (Mikol, I: 7-8)
- (80) Lelengo yrurac / pertenecietan **jacaz** / Iaun goyoaren honrari (Bet, 3: 46-48)
- (81) bosteun ducat costa **jacan** / baroeoni balentia (Sasiola, B26: 7)
- (82) Contentu uste neben orduan / oy **jatort** descontentua (Laz, AL, 1143v:10-11)
- (83) Oñetaco lurrau **jabilt** ycara (Artazub, 1)
- (84) Peco gassoa deucot etorri **joatan** gacha / jatordala, / ase osteco loa (RS, 425)
- (85) Contentu baga dacust **joatala** / neure urte dulceac (Laz, B15:52b)
- (86) Jaun Cerucoay emaiten **jagot** / oy asco gueraciari (Laz, A23:1-2)
- (87) descubriduric **jafındaçu** / apelliduaz nonbrea (Laz, B16:34)
- (88) egun bein ur **jarruta** / ganboar seme lasterra (ArrasErre-3, 27-28)

Ikusten denez, guztiz mendebaldera mugaturik dago aurrizki hau. Izan ere, hau da eremu lektal (zabal baina) bakarrean agertzen den datibo-marka bakarra (eta, § 3.1.1.5-en ikusiko dugun bezala, hein batean *z-*rekiko banaketa osagarrian).<sup>28</sup> Horrek bi azalpen izan ditzake: edo berrikuntza bat da, edo arkaismoa da. Aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako frogak eta argudioak (eta bakoitzaren implikazioak) aurreragoko utziko ditut.

Dena dela, kasu batzuetan zenbait zehaztasun egin behar dira. Esaterako, *jarrugi* aditzaren iraganeko formaren kasuan (88) zalantza egin liteke *j-* horrek datibo-marka batekin (\**i-* azken batean) zerikusirik duen ala iraganeko \**e-ren* ondorena den (cf. *joean*

<sup>28</sup> Jakina, etena ez bide zen erabatekoa, ezen Estibaliz Sasiola debarraren poema batean, adibidez, aipatu *jacan* ‘zitzaison’ formaren ondoan *çaco* ‘zaio’ irakur daiteke; orainaldi/iragan arteko ezberdintasun morfologikoaren ondorio?

‘zihoan’, ustez < \**e-oa-an*). Bestalde, *jafindaçu* aginterako forma dela kontuan hartu behar da, eta halakoek amaieran baino ez dutela izaten morfologia jokatua (*egin* → *egidazu*, *utzi* → *uztazu*, *eman* → *emadazu*, etab.);<sup>29</sup> hots, baliteke, OEHk (s.v. *ipini*) dakarren bezala, balizko datibodun *\*jafini* partizipio bati egokitzea (cf. Lazarragaren beraren *jagin* ‘*egin*[+DAT]’ eta *jakin*<sub>2</sub> ‘\**edin*[+DAT]’; ikus § 5.3).

### 3.1.1.4. *ra-*

Sarreran esan bezala, *ra-* datibo-marken barruan sartu dut, ez datibo-komunztaduraren adierazle izateagatik, baizik eta haren bitartez egindako N-N → N-N-N eratorpenetan (arazletasuna adierazi zein ez) datiboa delako erantsi ohi den komunztadura. Hortaz, bi motatako aditzak sailkatu dira: batetik, halako arazletasun-eratorpen sinkroniko aski gardena egiten dutenak (\**eradutsi*, *eragin* eta \**erazan*-en adizki bana), eta, bestetik, oinarrizko N-N aditzaren adiera gorderik argumentu bat gehitzen dutenak (\**eradun*-en adizki trinkoak, ‘*eman*’ adiera lexikalizaturik ez dutenean). Honatx aditz eta autore ezberdinen adibideak:

- (89) Cegaiti lauoi bardin on erechi / ez **derausteçu** euren amoreetan? (Laz, AL, 1145v:10) ‘Zergatik lauroi ez diezu elkar maitarazten?’
- (90) Oy aserratu **deraustaçu**, / ceurorrec ala guraric (Laz, A27a:5)<sup>30</sup>
- (91) eragocico **deraustae** / damaoc servietea (Laz, A24:11)
- (92) ez **deraustae** besteric ateraco, / salvo bay çaitudala amaetan (Laz, B20:71)
- (93) Azaiteau galdu **lerait** / ardura usaçaqueac (Laz, A24:157)
- (94) eracusteco **drauqueo** ceric den Iaincoaren iustitia handia (Leiz, Othoitz 1292-21)
- (95) Ceren bada **daraucate** emaztiari hoguenic (Etxep, III: 34)
- (96) Galdu valin badituçu, ceren oguen **derautaçu**? (Etxep, IX: 25)
- (97) Arrotzac ez lan daidic, / ez **deraidic** (Zalg, 182)
- (98) Gaitz deritzanak irri **deraidik**, on deritzanak hasperren (OihAts, 176)
- (99) Curutchagari baka **eraçacoçu** bere despendioac Aguostini (EtxRos-07, 2r: 18)

Ikusten denez, oro har, adizkietan bada *ra-z* gain beste datibo-markarik (*e-*, *-k* edo *-ts*). Lazarragaren adibideei dagokienez, *ra-* aurritzkiak arazletasuna adierazten du

<sup>29</sup> Salbuespen interesgarria eta beharbada esanguratsua \**ezan* laguntzailea da (ikus § 5.1.1.2).

<sup>30</sup> Lazarragaren eskuizkribuan ez da *haserretu* aditzaren beste lekukotasunik, baina, agian, pentsa daiteke NOR-NORI gisa jokatuko zuela; horrela uler genezake \**aserratu jat* ‘*haserretu naiz*’ → *aserratu deraustaçu* ‘*haserrarazi nauzu*’.

(89, 90), edo arazletasunari lotua ageri da, nolabait (91, 92). Azken bion kasuan, adibidez, (91) adibideko aditz nagusia bera ere arazlea da, etimologikoki bederen; (92) lekukotasunekoak, aldiz, anbiguoa izan daiteke, baina adierari begiratuz gero ('esatea', 'aitortzea'), pentsa liteke N-N<sub>k</sub> konfigurazioari erantsitako datiboa ez dela helburu edo onuraduna, behartutako egilea bera baizik (*esalea*); eta ergatiboaren lekua hartu duena, aldiz, eragilea (*esanarazlea*). Interpretazio horren berme dateke ediziogileek oin-ohar gisa dakarten zehaztapen argigarri hau: «ateraco] azpian hitz bat dago tatxaturik: *erasango agian*» (Bilbao eta beste 2020b: 532, 71. ohar paleografikoa).<sup>31</sup> Bitxikeria gisa, eta, Leturiagak (2020: 380) dioen bezala “oso kontuz erabili beharreko datua bada ere”, aditz beraren aldaerak dirudite (eta, beraz, Gipuzkoan ohikoak ziren objektu-pluraleko \**eradun*-en formetatik bereizi beharrekoak) Larramendiren gramatikako forma batzuk, ordurako arazletasun zentzua erabat galdurik, nonbait: “[Item [mendebaldeko hizkerako objektu singularrarekiko formak —*déutzac, an, déutzazu* etab.— eman berri dituelarik] *jaten-dírautzac, an, tazu, dirautzit*,<sup>32</sup> *dírautzazue, &c*” (Larramendi 1729: 93). Edonola ere, formok ez dira nahastu behar Aramaion eta Leintz ibarrean jaso diren egitura progresiboetako *erau(n)tsi-ren*<sup>33</sup> adizkiekin (pace Zuazo 2018: 905; Eraña 2020: 61; Ondartza 2022: 25).

### 3.1.1.5. z-

Gorago aurreratu bezala, aurritzki hau mendebaldeko *j*-rekiko banaketa osagarrian ageri da lehen testuetarik; hots, Araba eta Bizkaitik kanpoko hizkera guztieta dago dokumentaturik. Beste datibo-markak ez bezala, homogeneotasun hori aurritzki hau hartzen duen aditzean ere erabatekoa da: *izan*-ek baino ez darama (datibo-markatzat), bere N-N<sub>i</sub> jokoan. Adibide gutxi batzuk jarriko ditut hemen, bat hizkerako.

<sup>31</sup> Corpusetik kanpo, aurkitu dudan adibide antzekoena, eta ekialdean, Haranbururen hau da: *Ordea inoranzia batzutan batzuei ahantzten daraue zer egin behar den* (apud Fernández & Ortiz de Urbina 2010: 102; nahiz eta ikertzaileok morfologia arazlerik gabeko beste datibo-gehitze batzuekin alderatzen duten, esaterako Pouvrearen honekin: *Ahantz diatzakidatzu munduan diren guziak*).

<sup>32</sup> Egia da forma hau ez genukeela esperoko objektu singularrarekin, -*tzi*- pluralgile gisa ageri ohi denez gero; halere, kontuan hartu behar da, alde batetik, adizkion lekukotasun urrien ondorioz, ez dugula horien garapenaren berri nahikorik (analogiazko eta bestelako aldaketak paira zitzaketen); bestetik, gramatikan aurrerago aipatzen ditu Larramendik \**eradun*-etiko objektu pluraleko ohiko forma giputzak, aldaera nagusitzat aurkezten dituenen ondoren (*diozka*) eta erdialdeko beste ondoan (*dizkio*); aipatutako besteak, aldiz, esan bezala, mendebaldeko (Dialecto I) formen ondoren ematen du, objektu singularrekotzat.

<sup>33</sup> ‘Aritu, jardun’ adiera aski hedatuarekin (ik. OEH sv. *erauntsi* 4); areago, zubereraz, progresiboko perifrasian sartu gabe bada ere, *aritu da-ren* ordez *erauntsi* dū darabiltela dio Peillenek (1991: 828, 3. oin-oharra).

- (100) (...) eta kabizen **zakan** santua zerbiduko deu (...) (SumBr, 1:5:2)
- (101) secula erguelqueria faltatu ez **çayc** eta faltatuco (NafEsII, 144)
- (102) ala yrido **çayo** / gure erriari (RosEtx-12a, 1r: 14)
- (103) sino gai ztoa **zaut** Biarn/on companien egitea (EspGut, 19: 15)
- (104) Pot bat othoy eguidaçú **ezayçula** herabe (Etxep, VIII: 3)
- (105) Hire nahiz gaitz jin **zaikan** horri, errakok "Sancho, ungi ethorri" (OihAts, 621)

Adizkiotako aurritzkiaren homogeneotasunaren parean, hizkeraren araberako atzizkien askotarikotasuna agertzen zaigu; izan ere, erro osteko markei eskainia den hurrengo azpiatalean aztertuko diren atzizki guztiak ageri dira *z*-rekin konbinaturik, hizkeraren nahiz pertsona- edo numero-komunztaduraren arabera.

### 3.1.2. Erro osteko markak

Azpiatal honetan atzizkiturik ageri diren morfoak izango ditut hizpide. Euskara historikoa eta modernoa atzizkizalea izan denez, pentsa daiteke, oro har, aurritzkiak zaharragoak direla, eta euskararen jito tipologikoan galdu edo fosildu direla (ikus besteak beste Lakarra 2006a, 2009b).

Halaber, euskara historikoan atzizki berririk ere ez da gramatikalizatu, baina haiekiko adizkien gardentasun morfologikoa handiagoa da. Noski, analogiak ere egin bide du bere lana, dela morfo edo alomorfo jakin baten erabilera hedatuaz (*-ts*, *-ki* vs *-k*, *-o* vs *-a*...), dela lehenagoko atzizkien konbinaketak berrinterpretatz (*-zki*). Nolanahi den, badira azaldu beharreko zenbait aldaera, arkaismo zein berrikuntza.

#### 3.1.2.1. *-i*

Aurritzki gisa ere ikusi dugun bokal honek 72 agerpen ditu erro ostean. Horietatik 63 *izan*-en adizkietan dira: 50etan 3. pertsona dela subjektu (106-109), eta 10etan 1SG (110-112); beste pertsona-komunztadurek ale bana dute (113-115). Gainerakoak *eman*-en (116-117) eta \**ezan*-en (118-119) adizkiak dira, \**eradun*-en (120) zalantzazko batekin.

- (106) Çuc ezconduta berori juango **liçay[ɔ]te** (ErrezilGut, 69)

- (107) sino gaiztoa **zaut** Biarn/on companien egitea (EspGut, 19: 15-16)<sup>34</sup>
- (108) pla/zer duçun beçala irudi **baçautzu** imprimi eraci diça/çun (Etxep, Hitz, 1r: 20-22)
- (109) ala yridi **çayo** / gure erriari (RosEtx-12a, 1r: 14-15)<sup>35</sup>
- (110) Ni ere jarrayquico **nayçaye** ari eta aren ylobay (NafEs[SOL], 9)
- (111) eta ala souplicazen / **nazago**<sup>36</sup> mana nazan pouchanza douen bezala (EspGut, 14: 14-15)
- (112) Othoitzten **niçauçu** nahi duçun / consideratu (EtxRos-5, 1v: 6-7)
- (113) alincoa! bada pleituan alçina badoaye noriere bayt mendecatuco **gayzquioc** (NafEsII, 102)<sup>37</sup>
- (114) Bay, bada, orren ayer **baçayzquit**, çuc edo nic ercalchuçendu bear dugu (NafEsII)
- (115) Prestatzen ezadila ari, gero burhasik eskatu behar **itzaukeonari** (OihAts, 398)
- (116) Aramayo, dabenac ez **lemayo** (RS, 284)
- (117) Harc ehori **eztemayo** oren vaten epphia (Etxep, I: 148)
- (118) Inglesen berriric ezin gastiga **niazacoyo** zure / senonary (EspGut, 20: 6)
- (119) Bere nahiz eri denari nork bilha **dezakeio** osagarri? (OihAts, 94)
- (120) Hiri eguin **vadaraye** bidegabe handia (Etxep, XIII: 80)<sup>38</sup>

Nire datubasetik kanpoko corpusean honelakoak ere topatu ditut (*izan-enez* gain, horiek orokorrik baitira):

- (121) eta bere sasoinean fructuac renda **dietzoyoten** berce laborariri bere mahastia alocaturen (Leiz, Mt 21, 41)
- (122) Eta nehorc ecin ihardets **cieçoyon** hitzic (Leiz, Mt 22, 6)
- (123) Iaincoa lagu duenary / nihorq eçin qualteriq / eguin **deçaqueyo** (Volt, 150)

---

<sup>34</sup> Honetan (107), hurrengoan (108), eta (112) zein (115) adibideetan, bokala aldaturik ageri da (-i → -u), arrazoi fonetikorik gabe; beharbada ordurako *au* > *ai* egiteko joeraren ondorioz egindako hiperzuzenketa izan liteke, edota N-N-N jokoko diptongoarekiko analogiaz sortua (Camino 2008: 110).

<sup>35</sup> Aldiz, *çaela* ‘zaiela’ dakar Rosek berak; halaber, *zagü* ‘zaigu’ dauka 1564ko Eralgo ezkontza-gonbidapenak.

<sup>36</sup> Irakur bedi *natzaio* (cf. gutun horietan *Bagonaco* ‘Baionako’).

<sup>37</sup> Beharbada < \**gai(t)zaizkiok*, haplogliarekin; cf. AresOt-PatNos-etako *jazquiguçu* (59. adibidea eta bertako oin-oharra), eta cf. Leizarragaren *gaizquioc* ere.

<sup>38</sup> Ez dago argi adizki honen garapen fonologikoa zein izan zatekeen. Baliteke inguru hartan *au* > *ai* aldaketa gertatzea, esporadikoki eta fonotaktikoki bazen ere, kontzientzia fonologikoan *au*-k ziruela (i). Bestalde, Etxeparek erakusten du *ua* > *uia* bilakabidea (ii). Azkenik, -i atzizkia bazeukala ere proposa daiteke (iii); cf. Etxep *darauritzut* (158; § 4.2), eta EspGut *didage* (436):

- i) \**darau-* > *darai-*
- ii) \**darau(V)* > \**daraui(V)* > *darai-*
- iii) \**darau-i-* > *darai-*

- (124) Eduquitcen du laburzqui cer-ere galdeguin ahal **bai-tiaçaiogu** Iaincoari (Mat-A, 85 = Mat-B, 86-87)
- (125) Hunelatan gutarik batbederari erran ahal **lekidikeion** bezala... (Ax, 453-19)

Ikusten denez, bada, *izan-ez* gain *eman*, \**ezan* eta \**ekin* aditzetan baino ez dut topatu atzizki hau. Are gehiago, modalitateari loturik ageri zaigu, *-ke* morfoarekin gehienetan (\**ezan*-en kasuan), baina baita hainbakoak izanik esanahi hori dutenetan ere, \**ezan* (121, 122, 124) zein *eman* (116) aditzetan (ikus [§ 3.4.5.3](#) eta [§ 4.3](#)).

### 3.1.2.2. *-k*

Atzizki hau 54 adizkitan aurkitu dut datubasean, hizkera guztieta (aditz batzuk orokorrago, beste batzuk dialektalago), eta betiere 3. pertsonaren datibo-komunztaduraren aurrean (*-o* zein *-a* alomorfoekin).<sup>39</sup> Kontuan hartu behar, baina, horietako 11 erroan fosildurik ageri direla (hots, forma jokatugabeek ere badaukatela), dela beti N-N<sub>i</sub> jokatzen zirelako (*atxiki*, *jarraiki*), dela etimologikoki zegokiekelako, historikoki N(-Ni)-N<sub>k</sub> izan arren (*edeki*, *ireki*).<sup>40</sup> Gainerakoentzat, *izan-enak* dira erdia baino gehiago, eta *egon-ek* eta \**eradun-ek* sortatxo bana dute (azken horrek, bistan da, beti darama datibo-argumentua). Azkenik, ale bana edo bina duten \**erazan*, *erori*<sup>41</sup> eta *erran* ditugu.

Corpus zabalduan arakatuta, dagoeneko aipatu ditudan erro zenbaiten adibide gehiago ez ezik, Beriainen *eduki*-ren adizki bat (132), Voltoireren *joan*-en bat (139), eta Leizaragaren \**ezan*-en beste bat (140), bai eta autore beraren *izeki*-ren zenbait forma aurkitu ditut (128); arestiko sailkapenari jarraituz, *eduki* datibo-marka etimologikoa fosildurik duen N-N<sub>k</sub> erako aditza da, *izeki* N-N<sub>i</sub> jokoa baino ez duena, eta *joan*, aldiz, NOR erakoa, zeinari datibo-komunztadura gehitu baitzaio.

Hona adibide sorta bat aipaturiko guztien erakusgarri, erroaren arabera eta alfabetikoki ordenatuak:

---

<sup>39</sup> Zalantzazkoak dira Oihenarten *zaikan* ‘zaian’ eta nafar auzibide bateko *derucat* ‘derauat, diat’, non *-ka* osoa izan daitekeen 2SG-aren komunztadura-marka, nahiz eta teorian \*-k-ga ere berreraiki litezkeen.

<sup>40</sup> Sarreran adierazi bezala ([§ 1.2.3](#)), partizipioetako *-ki* guztiak datiboarekin lotzen ditut (etimologikoki) lan-hipotesi bezala.

<sup>41</sup> Oihenarten berezitasun susmagarrietako bat izanik, eta dagoeneko emana dudanez (51), ez dut hemen *erori*-ren adibidea errepikatuko.

NOR-NORI (-ki fosildua)

*atxiki*

- (126) traidorea, **acheca**, lagun aquit! (NafEs-2, 80)
- (127) Sua **datxekonean** auzoko etxeari, gogoa emak eureari (OihAts, 672)

*izeki*

- (128) Eta egotciren dituzte labe **daihecanera** (Leiz, Mt 13, 42)

*jarraiki*

- (129) Bana vera çoraturic andriari **darrayca** (Etxep, III, 44)
- (130) **Arraica** aunçari, / Baihagozque gapharrari (Zalg, 14)

NOR(-NORI)-NORK (-ki fosildua)

*edeki*

- (131) Ecieguiña arria baño gogorrago: arriari malluaz ere **baledeco** (Isas, 26)

*eduki*

- (132) Çeren onlacoey **diaducote** Iaungoycoac prometaturic barcatuco dizquiotela (BerDCh, 141v)

*ireki*

- (133) Zorionari **irekak** atea, / eta gaitzari auko beha (OihAts, 438)

NOR(-NORI)

*egon*

- (134) Lar adi **vasagocas** / Favore bateri (Mikol, I: 5)
- (135) Burua guriz duenari **eztagoka** izatea labekari (OihAts, 105)

*izan*

- (136) berva eguiten asi **ninçacan** (Laz, A7:7)
- (137) Gascotan sartu oy **caca** abbadesquin (ElduBerts 23)
- (138) Sugueas aussiquia beldur / **zauka** suskerrari ere (OihKai, 382)

*joan*

- (139) Portuguez bateq bilha egorri çerautâ çerbait enbalatçera **nyndohâgola** (Volt, 212)<sup>42</sup>

NOR(-NORI)-NORK

\**ezan*

- (140) Eta hura date, baldin (...) Iaincoari gure buruac gobernatçera utçi **badietçacogu** (Leiz, Catech 1321-11)

*erran*

- (141) Gaitz eure nahiz duan / horri / **erracoc** vngui etorri (OihKai, 368)

NOR-NORI-NORK

\**eradun*

- (142) Ceren bada **daraucate** emaztiari hoguenic? (Etxep, III: 34)

\**erazan*

- (143) Curutchagari baka **eraçacoçu** bere despendioac Aguostini (EtxRos-07, 2r: 18)

### 3.1.2.3. -*kt*<sup>43</sup>

Euskara estandarreko datibo-marka (eta alomorfo) emankor bakarraren 17 adibide baino ez ditut datubasean. Nabarmentzekoa da nafarrak direla guztiak (Etxepare

<sup>42</sup> Adizki honetako datibo-markaren herskari belarearen ezohiko itxurari dagokionez (<g>), nire ustez, Voltoireren eskuizkribuko ortografia bereziari zor zaio (cf. Lakarra 1997b: 11 eta han aipatuak), eta ez haren hizkeran zukeen egiazko gauzatze fonetikoari. Izan ere, idazle horrek maiz darabil <q> grafema “ezohiko” kokaguneetan /k/ adierazteko (alegia, <q(u)a> eta <q(u)o>) eta, era berean, bada eskuizkribuan zehar hainbat <g> pro <q> (nahiz <q> pro <g>) aldaketa. Adibidez: *Angleterranguorriq* ‘Ingalaterrakorik’, *urguytu* ‘aurkitu’, *beteag* ‘beteak’ (Lakarra 1999: 500, 18. oin-oh.). Hortaz, (139) adibideko adizkia *nindohakola* irakurtzekoa da.

<sup>43</sup> Bada Hervásen aitagurean baizik ageri ez den beste alomorfo bat, -*gi*, itxura arkaikoa izanagatik <g> pro <q> hustsat jo dudana, birritan agertu arren (hiperzuzenketaz agian?):

- (a) eta barca **drazguiguzu**, / guri guéuren zorrac (Herv, 8)
- (b) guc zorgaituztem erì / barcatzen **dizguioguten** bezala (Herv, 11)

Reguerok (2019: 213) Hervásen garaikidetzat jotzen du (1787), batik bat izen morfologiako datibo pluraleko -*eri* aldaeragatik. Halako otoitzak urtean-urtean berrasmatzen ez baziren ere, eta, beraz,

baxenafarraren bi barne, biak \**edin*-en N-N<sub>i</sub> jokoan), lekat EspGut-etakoak (haietako hizkera ez baita ongi definitua), eta guztiak -z pluralgilearekin batera agertzen direla (-*zki*), 1609ko Iruñeko poemako bat izan ezik (154). Hala ere, badira Lapurdiko adibideak corpus hedatuan (Leiz, Mat, Volt), han ere aipatu pluralgilearekin batean. Horrez gain, Beriainek \**erazan*-en adibideak ere baditu (155).

- (144) guc guere contra eguiten **dizquigueney** barçaen / diezcun beçala (AresOt-PatNos1, 1v: 20)
- (145) non ezcouac / apazen **baitizquizut** mila bider nitzas douen / couidadouas (EspGut, 4: 2-4)
- (146) **dizquitçugun** esquerrac eta laudorioac gueure ahal guztiaz (Mat-B, 344)<sup>44</sup>
- (147) Sendatu cen beçala eçarri **cizquioten** cateac eta grilloac. (BerMeza, 114r)
- (148) Orhituqui othoy eguin, **daquizquian** valia (Etxep, I: 57)
- (149) Lagun **çaquisquid** esperonyaq eta botaq quençen (Volt, 159)
- (150) çertaco **çagozquit** niri coartel galdez? (NafEsII, 121)
- (151) çure ganatcen gara, oihuz **gagozquitçu** (Mat-B, 360)
- (152) badariçosu er[r]an **dausquidala** ar[r]açeo [o]nac? (NafEs-1, 115)
- (153) Ene equiteco guciac notificaturen **drauzquiçue** Tychique gure anaye maiteac (Leiz, Col 4, 7)
- (154) Ala oray estaliric / **Datorquigu** jatean (PEzc, 77-78)
- (155) Barca **jazquiguçu** guere pecca/tuac (AresOt-PatNos1, 1v: 19) = (59)
- (156) eta barca **drazquidaçun** neure becatu guciac (BerMeza, 74v)<sup>45</sup>
- (157) eççayac atra **saisquit** bidera ylçera (NafEs-1, 117)
- (158) **çaRayzquiDate** guci(s?) bertan yçoc ongi notaturic (Amend, 13)

---

arkaismoen gordailu izan zitekeen arren (cf. *drazguiguzu* laguntzailearen beraren *dra-* hasiera, zeina ez den ageri XVII. mendeaz geroztik; cf. Reguero 2019: 447-448), nekez uler daiteke txistukari ostean jatorrizko forma gorde egin izana. Kontuan hartu behar da, gainera, Hervásen gipuzkerazko aldaera *diestegun* dakarrela, zeinak AresOt-etako *diez-* eta *dizte-* zaharrak dakartzan gogora, gurutzatu bailiran. Hain zuzen, XVIII. mendearen erdialdetik aurrera agertzen da aldaera hori, Gipuzkoako orduko aitagure guztietan, besteak beste. Hala ere, ez dator guztiz bat ezeinekin, baina <eguizcutau> (hots, *eguizcutçu*) adizkiak Otxoa Arinenera eta Irazustarenera hurbiltzen du (vs Mendiburu, Larramendi, Kardaberaz).

<sup>44</sup> Bakarra da trinkoki (inperatiboko formetatik kanpo) pluralgiledun forma bat darabilena.

<sup>45</sup> Bokalaren sinkopa ez ezik, honelako formetan erroko txistukaria ere galdu da, haploglogiaz agian (\**d(e)razaz-* > *draz-*); cf. (59) (=155) adibidea eta hango oin-oharra.

### 3.1.2.4. -ri

Dakidala Schuchardt ezkerro inork aipatu ez badu ere, atzizki hau aurreko puntuko datibo-markaren alomorfotzat hartu behar da (eta ez erratatzat edo bitxitasun azalgaitzat), kontuan harturik hiru autore eta hizkera ezberdinako testu banatan ageri dela.

- (159) joan oi **carizca** anrreac (ElduBerts 19)
- (160) igorten **darauritzut** heuscarazco copla batzu (Etxep, Hitz, 1r: 18)
- (161) Eta eguiteco huni **dauritzan** gaucetan conplituqui informatua çarençát (Leiz, Catech 1355-18)

Kontsonante epentetikotzat nahiz jatorrizko kontsonante baten (-g?) garapena den oraingoz sartu gabe, gutxienez silabifikazio argia erakusten duela argi da; izan ere, (159) adibidekoari metrikazko motibazioa egotz balekiok e, ez da halakorik Leizarragarenan, ez eta Etxeparerenean ere, ezen haren liburuaren hitzaurrean aurkitzen baita.<sup>46</sup>

### 3.1.2.5. -S

Datubaseko datuak puntu honetan dira ahulen. Gainerako marka gehienak ez bezala, honako hau aldaketa fonologiko batez gauzatzen da; edo bestela esanda, aldaketa fonologikoa bera du ageriko ezaugarri: 2. pertsona pluraleko (-zu) txistukariaren afrikatzea. Hala bada, soilik frikari/afrikatu bereizketa egiten duten testuak baliatu ditzakegu, baina jakina da ezen, oro har, Ipar Euskal Herrikoetan baizik ez zela egiten XVIII. mendea baino lehen; areago, haietan ere ez beti, EspGut eta, oro har, Etxep kasu.

Hori dela eta, datubasean ez dut aldaera honen kasu argi bakar bat ere idoro. Alde batetik, frikariaren adibide argiak dituzte Leizarragak (162) eta Etxartek (163), nahiz eta corpus hedatuan ohikoak diren afrikatuak (164-165).<sup>47</sup> Bestalde, corpuseko datuak (166) ezin daitezke izan Hegoaldeko euskararen erakusgarri (arestian aipatu muga ortografikoa dela kausa), eta XVIII. mendearen erdialdeaz geroztiko testuetara jo beharra dago (167) ikuspegi zehatzagoa erdiesteko.<sup>48</sup>

---

<sup>46</sup> Besterik da, Lafonek markatu bezala, adizki hori Etxeparereren eskuri zor zaion ala ez (adizki hauez ikus [§ 4.2](#)).

<sup>47</sup> Etxeparereren adibide batzuek, berriz, afrikatua islatzen dute, baina “ageriko” datibo-marka baten ostean (analogiaz?): *baçautzu* (108) eta *darauritzut* (160).

<sup>48</sup> Ikus halaber hurrengoa puntuau ([§ 3.1.2.6](#)) marka honi nire ustez estuki loturiko -T-ren ingurukoak.

- (162) Guc ere denuntiatçen **drauçuegu** çuei (Leiz, Act 13, 32)
- (163) hala nola anitzetan scribatu **baiterauçut** (EtxRos-08, 1r: 19)
- (164) çor **derautçugun** ohorearen eta laudorioaren ahal beçanbat errendatcera (Mat-B, 329)
- (165) Catoçea, nyq iraquoçiquo **derautçut** haren guela (Volt, 219)
- (166) Faltaduco **jaçulaco** / cençuna goganbear nax (Laz, A9:17-18)
- (167) cer guertaco **jatzue** gracia baga egonic? (Añib, 1803, 119: 18)

### 3.1.2.6. -T

Aurrekoa bezala, marka hau aldaketa fonologiko batean datza, zehazki kontsonante herskari ahostun baten ahoskabetzean. Corpusean 31 aldiz aurkitu dut, zeinetarik 13 \*eradun aditzari baitagozkio. Aurrerago ikusiko den bezala, berebiziko garrantzia izan dezake ezaugarri honek (aurrekoarekin batera), bai ekialdeko hizkeren garapena (eta oro har dialektalizazioa), bai datibo-komunztaduraren inguruabarrik ikertzeko orduan. Jarraian ezaugarri hau erakusten duten adizkiak aurkeztuko ditut (\*eradun-enak azkenerako utzirik), eta zertzelada batzuk emango haien hedadura diatopikoaz, lexikoaz eta paradigmatikoaz; lehenik corpusean ditudan formetatik ezagun edo arruntenak ipiniko ditut (168-174), ondoren adibide bana duten eta nolabait bereziak diren bi aditzenak (175-176) eta, azkenik, datibo-marka etimologikoa dutela uste dudanenak (177-186).

#### i) Arruntak:

*izan*

- (168) Gaztelatica jentil onbre bat / orayn etorri ey **jacu** (Laz, A12:1-2)
- (169) enojaduriq aditu **jataz** / yleyten nauden vegubi (Enoj, 3)

*joan*

- (170) Contentu baga dacust **joatala** / neure urte dulceac (Laz, B15:52b-53b)
- (171) Dollorrac pere andizuren ospea, / gora **joacu** ycaztobico quea (RS, 507)
- (172) Bain hec erran ceçaten, Cer **dohacu** guri? hic dacussála (Leiz, Mt 27, 4)

*egon*

- (173) Gaineracoaz, beguiratua **diagotac** iustitiazco coroá, cein rendaturen baitraut Iaunac egun hartan, iuge iusto harc (Leiz, 2 Tim 4, 8)
- (174) Seroretara **zautan** gogoa, / ezteietara aizeak naroa (OihAts, 530)<sup>49</sup>

ii) Bereziak:

\**ezan*

- (175) Erakuts **itzatak** eure lagunak, / nik gero hiri eure atunak (OihAts, 141)

*jarrugi*

- (176) egun bein ur **jarruta** / ganboar seme lasterra (ArrasErre-3, 27)

iii) Etimologikoak:

*edeki*

- (177) Iangoycoa **edetaçu** amoria gogotic (Etxep, VII: 27)

*eduki*

- (178) Beotibar, hic **diadutac** Martin de Oybar (BeotNaf)
- (179) Amore bat nahi nuque **liadutanic** egquia (Etxep, II: 20)

\**eradun*

- (180) Presentatu **drautaçue** guiçon haur populuaren nahatsale beçala (Leiz, Lc 23, 14)
- (181) Eman **darautaçu** ahalueyçuna (Etxep, X: 68)
- (182) halaber suplicazen nizaucu auctore pareba[t] nahi **derautacun** chercatu neure duhuruian (EspGut, 1: 11)

---

<sup>49</sup> Oihenarten beraren itzulpena ez baita argigarriegia (*J'avais mon inclination aux religieuses*) nire interpretazioaren arabera egin dut, dokumentatuak diren beste egiturak kontuan hartuz: batetik, RSetako *Ama, nagozu oera* (ArrasErre-3: 26), *Sayra nozu* [< \*nauzu ala < \*na(g)o zu?] (RS 361 eta 362) eta, bestetik, Oñatiko eskuizkribuko *Errira egon nintzan* OEH s.v. *egon* § 10) eta, bereziki, ekialdeko erabilera (OEH s.v. *egon* § 3), esaterako *Balinetan egiazki gu bagaude hargana* (Etxep, II: 59) esaldikoa.

- (183) Hegun goyçean, Agustin Martin Uztarrozcoac ygorri **derautaçu** ynformacione eguin duena agot oñaren eta bere lagunen contra (RosEtx-15a, 1r: 13)
- (184) Micheasec haren sortzeco lekua claroqui eracusten **draucu** (Leiz, Adv 261-2)
- (185) Hi arraza handiko, ni seme jauregiko, egur hori nork **drauku** hautsiko? (OihAts, 231)
- (186) Eta eguiasqui ouste uken dut, orai beno lehen, çuc igorriren **cenerautara** cien commissioniareni coppia (EtxRos, 06a, 1r: 14)

Ikusten denez, bereziki \*eradun aditzean, herskaria ahoskabetzea orokorra zen Iparraldean, txistukaria afrikatzea ez bezala. Ariztimuño (2015b) lanean proposatutakoari jarraituz, pentsa daiteke \*-k-D- > -(k)T- bilakaera fonologikoa gertatu dela hemengo formetan eta, hirugarren pertsonako -k(a/o) kontuan harturik, bigarrenekoetan ere inoiz \*-k-z- izan zela pentsa daiteke, hain zuzen > -tz- eman zukeena.

### 3.1.2.7. -ts

Morfo hau, datibo-marka argi (sinkroniko eta emankor) gisa, aditz bakarrean ageri da datubasean, baina orokorra da: -io-. Horrez gain, mendebaldeko indikatiboko N-N-N laguntzailean ere berreraikitzen da, \*edun-etik \*edutsi eratorriaz, baina eutsi ‘atxiki’ aditzareniko loturak argitzeke zirauen (ikus [§ 5.2.3](#)). Hain zuzen, laguntzailearen eragin analogikoaz ulertu behar da gerora mendebaldean beste aditz batzuetara hedatu izana (cf. *daukotzut* ‘daukakizut, dizut’, *daroatzut* ‘daramakizut’, *eistazu* ‘egidazu’, edota kostako hizkera batzuetako *jast* ‘zait’ erakoak), halakorik ez baita testu zaharretan; aldiz, egun bada *deuat* ‘diat [nik hiri]’ forma, nahiz eta eremu horretako testu zaharretan ez den halakorik: cf. RS 49 *deustat* < \*deuskat < \*deus-ga-t ([§ 3.2.2.3](#)).

Hona datubasean bildu ditudan -io- ‘esan’ erroaren (187-191) eta eutsi ‘atxiki’ trinkoaren (192-193) adibide batzuk:

- (187) Ene jauna, cer **diostaçu**? (Laz, A25:12)
- (188) Belagaya **dioçae** ta / çorionean jaioa (Sasiola, B32: 5)
- (189) Nic **diosçut** cyratela Iaun gucien Iáuna (HenPr, 6)
- (190) Onsa hari gomendadi nic **diossat** egua (Etxep, II: 71)
- (191) Higu dudanaz gaitz **diostana** / sinets ziroiat, nahiz barhana (OihAts, 233)
- (192) **Ausho** Perucho Vrdeorri, eta neuc iesdaguidan (Garibai, A26)
- (193) eztacart gorguera, **eztaust** gona (Laz, B15:17)

### 3.1.3 Datibo-marken azterketaren ondorio batzuk

Honenbestez, datibo-marken lekukotasunen deskribapen xehea egunik, tesiaren azken atalean askatzen saiatuko naizen zenbait korapilo azaleratzea eta, ahal den neurrian, haien askatzeko bideak irekitzen hastea dagokit.

Lehenik eta behin, datibo-marken banaketa dialektala hartu behar da kontuan, edo beste aldetik begiraturik, haien batasuna; izan ere, marka gehienek dute, gutxi-asko, euskalki guztietañ adibiderik.

Erro aurreko markekin hasteko, banaketa koherente eta nabarmenena *izan*-en paradigmako N-N<sub>i</sub> jokoan agertzen dena da: *j-* mendebaldean eta *z-* ekialdean. Ikuspuntu logiko hutsetik, eta arestian aipatu euskararen jito tipologikoa kontuan harturik, bi aukera daude banaketa hori azaltzeko: edo inoiz komuna zen aurrizki baten galera dialektala, edo aurrizki beraren bilakaera fonologiko bereziak (ikus [§ 4.1.5](#)).

Bigarrenik, orainaldiiko *a-* eta *e-* bokalen arteko txandakatzea dugu, zeina batik bat mendebaldean ageri den, baina, adibideekin erakutsi uste dudanez, orokorra izan zela pentsatzeko arrazoia ditudan; zehazki, bokal horien txandakatzea bera morfologiazko ezberdintasun baten ondorio fonologikoa besterik ez litzateke (\**a-* vs \**a-i->e-?*), zeinak arkaismo gisa iraun zukeen erdi-ekialdeko forma batzuetan, eta morfologizaturik emankor iraun mendebalde muturrean.

Azkenik, aurreko puntuarekin loturik, *i-* aurrizkituaren banaketa dialektal eta lexikoa aipatu behar da: gehienbat *izan* eta \**ezan* aditzetan, baina baita beste forma bakan eta hapax zenbaitetan ere, betiere erdialde zabal batetik ekialdera. Orobak hartu behar da kontuan hark erro aurrean hartzen duen kokagune zehatza: DAM aurrizkiaren edota aurrizkiko bokalaren ezkerretara (*diatzo*, *diezaket*, *iatziguzu*), ala eskuinetara, erroari datxekiola (*natzako~naitzaio*, *daixeke*; onarturik partizipioetako *i-* horiek datiboarekin zerikusia dutela).

Hortaz, eta *j-* azken batean \**i-* batetik etor daitekeela gogoan izanda, esan liteke bi aurrizki ageri direla, garapen fonologiko ezberdinak: *i-* (orokorra) eta *z-* (erdiekaldeko). Hale ere, eta arestian *j-/z-* banaketaz esandakoa gogoratuz, edo bi aurrizkiren aurrean gaude (bigarrenak beste inon aztarnarik utzi ez duela), edo egiazki bilakaera fonetiko ezberdinen emaitza dira.

Atzizkiei helduaz orain, haietan ere banaketa dialektal eta lexiko batzuk ikusten dira, bai eta, aurrizkietan bezala, gehienak etimologikoki lotzeko aukera ere: \*-gi (> -ki, -k, -i, -ri alomorfoak dituena) eta -ts.

Oraingoan ere mendebaldea eta erdi-ekialdea bereizten dituzte morfo eta alomorfook, baina batik bat bakoitzaren erabilera esparru edo maiztasunean, ia denak orokorrak baitira. Esaterako, *-ts* atzizkia, hainbat partizipiotan eta haietako batzuen forma trinkoetan lexikalizaturik ez ezik (*erauntsi, eutsi*), euskararen eremu osoan ageri da *-io-* aditzaren forma ditrantsitiboetan erantsirik. Bestalde, *-ki* alomorfoa mendebaldean ezezaguna bada ere (baina cf. *çacusquidan*; ik. [§ 6.2.2.2](#)), haren bi alomorfo nagusiak (*-k* eta *-i*) ageri dira corpusean, batik bat *-k*. Azkenik, *-ri* alomorfoa dela eta, ez dago argi *VgV > VrV* aldaketaren adibide den, edota bestelako azalpena behar duen. Edozein kasutan, aldaera horren adibide apurrik izan litezke bilakabide paraleloak, eta ez aurreko hizkuntz egoera komun batetik jarauntsiriko formak.

Horrez gain, bi kointzidentzia nire ustez ez-kasual nabarmenduko ditut: alde batetik, *-ki* batik bat *-z* pluralgilearen ondoren azaltzea eta, bestetik, erabat sistematikoa (batez ere ekialdean) ez bada ere, pentsatzen dut datibo-marka berak eragin dituela zenbait adizkitako ahsokabetzeak (*-gu > -ku*) edota afrikatzeak (*-zu > -tzu*). Azken horiei dagokienez, halere, pertsonaren, aditzaren eta konfigurazioaren araberako markatzeak eta aldaketa analogikoek izan zezaketen pisua kontuan hartzekoa da.

Aipatzeke edo gutxienez aztertzeke geratu diren hari zenbait datozen ataletan joango naiz matazatik idokiaz, esaterako pluralgileak eta pertsona-komunztadurak, bai eta horien eta datibo-marken arteko harreman paradigmatiko eta sintagmatikoei begiratzean. Gaien artean daude aurritzki edo/eta atzizki ezberdinak adizki berean agertzea, alokutibo-marken eta datibo-marken arteko antzekotasunak nahiz aldeak, eta horrek guztiak euskalkien historiaurreaz eta EBZren ezaugarriez esan diezagukeena.

Hala bada, datibo-marken korapiloa askatzeko datu (ezberdin) gehiago aurkeztuko ditut hurrengo azpiatalean, alokutibo-markak azaldu eta bi fenomenoen arteko harremana aztertzean.


## 3.2. Pertsona-markak

Atal honetan, datibo-komunztadurari dagozkion pertsonak aztertuko ditut corpusean. Aurreko atalean aurreratu dudan bezala, databasean datibo-komunztadura egiten duten 1192 adizki bildu ditut. Mounolen (2015) arabera, bere corpuseko XVI. mendeko ekialdeko testuetan (Etxauz, Etxepare, Oihenart, Zalgize), soilik datibo-komunztadura egin zezaketen adizkien % 25,2k dute egiten, batik bat perifrasietako laguntasileek (% 50ek vs trinkoen % 6,15ek).

Nire datubasean datibo-komunztadura duten adizkien % 63,5 (757) laguntzaileak dira, eta beste % 36,5a (435), trinkoak; azpimarratzeko da, beraz, ditrantsitiboak ez diren adizkien kontrako egoera erakusten dutela, haietan gehiago baitira forma sintetikoak.

Lehen taldean sartzen dira egungo ohiko erroak (\**edin*, *egin*, \**eradun*, \**ezan*, \**edutsi*, \**enin*, *izan*), bai eta arkaikoagoak (-*idi-*, *joan*, -*kidi-*) edota dialektalagoak ere (\**eradutsi*, \**erazan*, -*g*-). Bigarrenean, guztiak salbu eta soilik laguntzaile gisa dokumentatzen direnak (\**eradutsi*,<sup>50</sup> \**erazan*, \**ezan*<sup>51</sup> eta -*kidi-*).

Datubasean 3. pertsona da maizenik ageri den pertsona-komunztadura (batik bat singularrekoak): % 40 baino gehiagotan (492). Honela banatzen dira pertsona guztiak datubasean:



1. irudia: datubaseko datibo-komunztaduren kopurua pertsona-numeroka

Ikusten denez, bada lotura bat pertsona-komunztadura bakoitzaren maiztasunaren eta forma trinkoen proportzioaren artean. Hortaz, pentsa daiteke forma irregularrenak (morfologikoki arkaikoak eta, aldi berean, fonologikoki ilunduenak) 3. pertsona singularrekoak izango direla, eta baduketela pisua aldaketa analogikoetan; orobat 1SG-ekoek, hein batean.

Aldiz, 2. pertsonari dagokionez, uste dut datuok ezin direla ahozko erabilera errealaaren isla fideltzat hartu, eta egunerokoan 2SG eta 2PL-ekoak egiazki parekatuago

<sup>50</sup> Nahiz \**edutsi*-ren arazlea den, izatez, zalantzazko adibideren bat gorabehera (ikus § 3.1.1.4).

<sup>51</sup> Egiari zor, bada NOR-NORK egiturako adizki sintetiko bat datubasean, *nahi ukān* lokuzioan, \**edun*-en ordez, laguntzaile-antzera gramatikalizaturik bada ere: *ezpadeçañu nay* (RosEtx-10, 2r: 7b). Horrez gain, Frai Domingo Lardizabalen gutuneko **estezala** *anbat esqu* ere (CONTAV: 129), baldin ‘ez dezala hainbeste eskumen ukān’ ulertu behar balitz, adibide argia litzateke, baina bakarra eta erlatiboki berankorra.

ziratekeela (edo are 2SG-ekoak goraxeago; cf. [§ 3.3.2.1.4](#)-n nafar auzietako hitanoko adizkien kopuruez). Alabaina, corpusekoak gehienbat idatziz sorturiko testuak direnez, eta oro har formalak edo jasoak (gutun pertsonalen bat eta auzietako esaldiak izan ezik), ez da harritzeko errespetuzko tratamendua nagusitzea.

Hala eta guztiz ere, eta datibo-markak pertsona-markekin duen harreman paradigmatikoaren harira, esan beharra dago ezen, hasierako hipotesia berori 3. pertsonarekin estuki lotua zela izan arren, datuek beste agertoki bat erakusten digutela pluraleko formen kasuan: 2. pertsonako adizkiek besteek baino hein handiagoan erakusten dute datibo-markaren bat, eta 1. eta 3. pertsonak askoz ere parekatuago daude (3.ekoek gehixeagotan dituzten arren). Halere, interesgarria da ikustea *\*eradun*-ek duen pisu erlatiboki handia 2. pertsonako formetan (*derauzut*), batik bat ezkontza-zin ugariengatik eta Ros-Etxart gutuneriagatik.

Jarraian, pertsona bakoitzaren komunztadura-markak aztertuko ditut corpusean, izenordainetarik eratorritako 1. eta 2. pluralekoen hasita ([§ 3.2.1](#)), marka bereziagoak dituzten singularreko kideak ondoren ([§ 3.2.2](#)), eta, amaitzeko, hirugarren pertsonekikoak ([§ 3.2.3](#)).

### 3.2.1. Izenordainetarik datozen pertsona-markak (1PL & 2PL)

Terminoen laburduren azalpenetan ikusten den bezala, 2PL gisa sailkatu ditut *zu* pertsonari dagozkion formak, zeren eta, Euskara Arkaikoko lekukotasun gehien-gehienek ere singularreko adiera berria duten arren, jatorrian eta morfologikoki pluralekoak baitira, ezagun denez. Hortaz, etimologiazko antzekotasuna ez ezik (alegia, izenordainetarik etortzea), pluraltasun morfologikoa ere komun dute atal honetan bildu ditudanek.<sup>52</sup>

Bestalde, nabarmentzekoa da pluraleko adiera gordetzen duten 2PL formako adizkien kopurua 2PLPL formakoena delako dela datubaseko formen artean (datibo-komunztaduran betiere). Areago, 2PL zaharraren adibide gehienak Lazarragaren eskuizkribuan daude eta, aldiz, 2PLPL formako guztiak Etxart zuberotarrak darabiltza.<sup>53</sup> Alabaina, datubaseak desitxuraturiko argazkia dukegu hori, tarteko eremuko testuetan ez baita 2PLPL edo 2PL zaharra agertzeko testuinguru egokirik suertatu. Hala bada, corpus

<sup>52</sup> Ikertzeko dago, dakidala, *\*-ga* (> *-k*; cf. *-aga*) / *-za* (eta *-zu!*) ugaritasun-atzikien eta *gu/zu* izenordainen arteko harreman etimologiko posiblea.

<sup>53</sup> Ergatiboan are nabarmenagoa da: Lazarraga kontuan hartu gabe (hark ez du 2PLPL bakar bat ere), 56 adizki dira 2PLPL-ekoak, eta soilik 14 2PL zaharrekoak (8 mendebaldekoak, 6 erdi-ekialdekoak). Lazarragarenekin batera, ordea, 76raino igotzen dira ergatiboko 2PL zaharrak.

osoan ikus dezakegu, adibide esanguratsu bat emateko, Leizarragak sistematikoki ezberdintzen dituela *zu* eta *zuek* pertsonei dagozkien adizkiak, nahiz eta bera den autore zaharrenetako eta arkaiko omena duena.

Honenbestez, jarraian bi pertsona-komunztadura hauen inguruko azalpen xehagoak emango ditut, alomorfo ezberdinen erabilera erakusten duten adibideekin.

### 3.2.1.1. Lehenengo pertsona pluralaren markak (1PL)

Lehen pertsona plurala bi (edo are hiru) modutara erabiltzen da, hizkuntza batzuetan morfologikoki ere adierazten den ezberdintasun baten arabera: *gu* horrek hartzalea (*hi*) barnean daukan ala ez eta, hala bada, *ni* eta *hi-ren* gehiketa hutsa den ala hirugarrenik baden ala ez (*hi+haiet, zuek*). Euskaraz, jakina, ez da morfologiazko ezberdintasunik honetan.

Ildo horretan, alabaina, esan beharra dago ezen pertsona hau idatziz erabiltzeak berak zerbait esaten digula testu motaren edo testuaren edukiaren inguruan; edo alderantziz, testuaren ezaugarrien arabera uler daitekeela gehiago edo gutxiago agertzea. Hala, pertsona jakin bati zuzenduriko testu batean (dela gutuna, dela poema), *gu* batek lehen bi pertsonen batura adieraziko du gehienetan. Talde bati zuzendua denean, aldiz (gutun ofizial batean, adibidez), igorlea ere talde baten izenean aritzea gerta liteke eta, beraz, *gu* vs *zu(ek)* adieraziko du. Azkenik, “denok” edo “gizarte osoa”, oro har, adierazten duen *gu* bat ere bada, arauemaile kutsuko testuetan aurkitzen dena, batez ere (adibidez, dotrinentan).

Datubaseari dagokionez, hain zuzen, *gu* gehienak testu erlijiosoetan eta gutun ofizialetan dira, non komunitate oso bat edo elkarritzetan ari diren bi talderen batura adierazten duen; halaber, amodiozko testuean ere agertzen da, bikotearen adierazle.

Nolanahi ere, formari dagokionez, bi alomorfo ditu, *-gu* eta *-ku*, aditzaren eta euskalkiaren arabera erabiliak, batik bat mendebaldeko eta ekialdeko hizkeretan. Aldaera ahoskabetua kontsonante osteko gunean sortu zatekeen (195-197, 200), nahiz eta ondoren hizkera batzuetan testuinguru gehiagotara hedatu (198). Dagoeneko eman ditut azalpen eta adizki batzuk datibo-markez aritzean ([§ 3.1.2.6](#)); beraz, hemen adibide batzuk jarri besterik ez dut egingo:<sup>54</sup>

---

<sup>54</sup> Noski, txistukari ondoren ahoskabetzen direnak ez besteez ari naiz. Mendebaldean *deusku* agertzeak ez du azalpenik behar; bai, aldiz, *joaku-k* edo ekialdeko *derauku-k* (1SG-eko *-ta-* alomorfoarekin gertatzen den

- (194) erregutan gagoçu esan **deiguçula** çure icena (Laz, AL, 1147v: 16)
- (195) oy etorri **jacu** / un ángel bolando (Laz, A13:7)
- (196) Dollorac pere andizuren ospea, / gora **joacu** ycaztobico quea (RS, 507)
- (197) Bainha hec erran ceçaten, Cer **dohacu** guri? hic dacussála (Leiz, Mt, 27:4)
- (198) Iaincoaganic eztena guri **etzaicu** behatzen (Leiz, 1 Io, 4:6)
- (199) Ceren ieyncoa egun oroz ongui ari **bayçaygu** (Etxep, I: 17)
- (200) Iaincoac emanen **derauqu** gracia eta verthute (EtxRos-03, 1v: 17)

### 3.2.1.2. Bigarren pertsona pluralaren markak (2PL)

Arestian azaldu dut 2PL-aren jatorri eta garapen historikoa. Datubasean 211 adizki bildu ditut, zeinetarik 9k gordetzen duten plural balio zaharra. Esan bezala, ia guztiak mendebaldekoak dira (201, 202); gehienak Lazarragarenak, hein batean datubasean duen pisuaren ondorio. Salbuespen bakarra Ros erronkariarraren gutunetako forma bat da (203).<sup>55</sup>

- (201) Ene angueruac, es sinistu gaisto orreq esaten **deunçun** gausaac (BustSorg, 1)
- (202) Choriac eta tortolachoac, / gura **deusut** agindu (Laz, A6: 6)
- (203) çoynetan / emayten **vaytizu** podere çuen gobernadore jaunari eta / abbade Santa Engraciacoari eta çuri (RosEtx-12a, 1r: 6)

Forma aldetik, 1PL-ekoaren modura, bi alomorfo nagusi ditu: *-zu* eta *-tzu*. Dagoeneko [§ 3.1.2.5](#)-n datibo-markez aritzean azaldu dudan bezala, aldaera afrikatua kontsonante osteko gunean sortu zatekeen (201, 202, eta agian 208), nahiz eta ondoren hizkera batzuetan testuinguru gehiagotara hedatu (207 eta, horren arabera interpretatzen badugu, 206). Hala ere, grafia defektiboa dela-eta (batik bat Hegoaldeko testuetan) frikarien moduan idatzirik ageri dira gerora afrikatuak izango direnak ere (204, 205). Hona hemen zenbait adibide:

- (204) Sendo cenduan odolori biurtu **jaçu** gaçayoa (Urrexola, 3)
- (205) Arren, Sirena, ene bioça, / suplicaetan **nachaçu** (Laz, AL 1146v: 2)

---

bezala). Erdialdean, ordea, ez dut *-ku* alomorfoa bildu ahal izan, oro har lekukotasun gutxiago izaki eta, ziurrenik, datibo-markaren *-ki-* alomorfoaren hedapena dela kausa.

<sup>55</sup> Gogoan izan datibo-komunztaduraz ari naizela une oro. Ergatiboari dagokionez, eta Mounolek eta Lakarrak (2018: 429) ematen duten ikuspegia osatuz, badira erdialdeko hizkeretako adibideak ere, urriak izanagatik: *bada, Joanes Gastearena eta Christobel eta Liçarçaren semea, çuec eguiten didaçu eta begirua euqueçu* (NafEs-1, 68).

- (206) Eci hala ari **çauçu** Ihesu christo vera ere (Etxep, II: 110)
- (207) pla/zer duçun beçala irudi **baçautzu** imprimi eraci diça/cun (Etxep, Hitz: 1r: 20-22)
- (208) Catocea, nyq iraquocíquo **derautçut** haren guela (Volt, 219)

Horrez gain, ezaguna da ezen mendebaldeko \**edutsi* laguntzailean eta -io- aditzaren forma ditrantsitiboetan, -ts amaierak txistukari bizkarkaria asimilatuta, -(ts)u gertatzen dela (grafiak gorabehera); orobat egiten zaie *urgatzi* eta *iritzi*-ren formei, baina erroko txistukaria ere bizkarkaria izanik, emaitza -tzu da (edo -txu, mendebaldeko ohiko sabaikaritza gertatu den kasuetan).

- (209) nic prometietā **deusut** gure Jaunare / rregnua (FrantzOrd, 6)
- (210) Nic **diosudan** berbaetan / duda efinten badoçu... (Laz, B16:41)
- (211) Nic **diosçut** cyratela Iaun gucien Iáuna (HenPr, 6)
- (212) Amore maytia **dioxut** egquia (Etxep, X: 47)
- (213) Andria ieyncoac **drugaçula** oray verdi guiradeçu (Etxep, VIII: 1)
- (214) Iaincoa **trugatçula** (Volt, 243)
- (215) Dempora baten on oy **nerechu** (Mikol, II: 29)
- (216) itaundu nagon (...) nola **ereiçun** ceure icenaz (Laz, A7:71-73)
- (217) ezçaytu jo/co, onegui **deriçu** (ErrezilGut, 66)
- (218) Cergatic? ala ceren çuey on **eztaritzuedan?** Iaincoac badaqui (Leiz, 2 Cor, 11:11)
- (219) Nic çuri hon **vaderiçut** gayci eztaquicula (Etxep, XII: 44)

### 3.2.2. Jatorri ezezaguneko pertsona-markak (1SG & 2SG)

Marka hauen berezitasunak bi dira: etimologikoa bata, eta sintagmatikoa bestea. Alde batetik, pluralekoetan ez bezala, haien jatorrian ez daude historikoki dagozkien pertsona-izenordainak. Antzekotasun fonetikoak tarteko, lokatibozko morfo batzuekin lotu izan dira, baina haien gramatikalizazio bideak edota paralelo tipologikoak zehazki azaltzeke daude oraindik (Lakarra 2018: 152, 186 oin-oh.). Bestetik, adizkiaren amaiera absolutuan izan ala ondoren beste morfo bat duten, alomorfo ezberdinak erakusten dituzte (euskarra estandarrean ere hala da sistematikoki; ez, ordea, beti eta hizkera guztieta).

Hala bada, etimologiazko hipotesiak alde batera utziaz, testu zaharretan alomorfoen agerpenak eta aldaerak banan-banan ikuskatuko ditut, lehen pertsonako markarekin hasiz, eta ondoren bigarrenekoari helduz.

### 3.2.2.1. Lehenengo pertsona singulararen markak (1SG)

Hizkera guztiako testu zaharrenetan, egun bezala, *-t* da pertsona honen marka adizki amaieran, eta *-da-* hitz barnekoa.

Horiez gain, bada bigarrenaren aldaera ahoskabea ere (*-ta-*), zeina kontsonante osteko gunean sortu zatekeen, dela txistukari (220-223), dela jatorrizko herskari (224-227), nahiz eta ondoren hizkera batzuetan testuinguru gehiagotara hedatu zatekeen (228), beharbada datibo-komunztadurarekin lotzen zelako hiztunen gogoan. Halaber, *-n* galdu duten iraganeko formak ere badira Bizkaian eta Nafarroan, eta halakoetan hitz barneko alomorfo arrunta adizkiaren bukaera absolutuan ageri da (229-232).

- (220) Baldin niri on **badariztaçue**, ene manamenduac beguiraitçaue (Leiz, Io, 14:15)
- (221) Orduan har ceçan hitza Ancianoetaric batec, **ciosṭala**, Arropa luce churiz veztitu hauc nor dirade, eta nondic ethorri dirade? (Leiz, Apoc, 7:13)
- (222) Ni çugana niatorqueçu beccatore handia / Carioqui othoycera çu **çaquiztan** valia (Etxep, I: 394)
- (223) suplicaetan nachazu / deguioçula oy Silverori / on **derextala** aguindu (Laz, AL, 1151r:15)
- (224) enojaduriq aditu **jataz** / yleyten nauden vegubi (Enoj, 3)
- (225) egun bein ur **jarruta** / ganboar seme lasterra (ArrasErre-3, 27)
- (226) Beotibar, hic **diadutac** Martin de Oybar (BeotNaf)
- (227) Iangoycoa **edetaçu** amoria gogotic (Etxep, VII: 27)
- (228) Eta oroçaz respoestu eguinien **derautaçu** / luçamendu guabe (EtxRos-03, 2r: 2)
- (229) Hurrûgo ynsaurra burua laso, / jarrequin ez **equida** erricoa laso (RS, 344)
- (230) Esan **senguida** beste gatic / Esneydysula trucadu (Mikol, II: 43)
- (231) bay eta escribau batec juramentu arrtu **cerauda** (NafEs-1, 107)
- (232) eta erran **çerauda** “es” (NafEs-1, 107)

Marka orokor hauez gain, ordea, badira beste bi aldaera berezi ere, jarraian azalduko ditudanak.

#### 3.2.2.1.1. Marka bikoiztua

Ekialdeko hizkera batzuek 1SG datiboaren morfoa bikoizteko (eta are hirukoizteko) joera dute zenbait aditzetan; gertakari hau bereziki Zuberoa-Erronkaribarretan aurkitzen

da historikoki (Camino 2011: 120; Padilla 2017: 482-492), baina Leizarragak ere badu adibiderik, bai eta (*pace* Camino 2008: 133) Nafarroa Behereko Etxeparek ere, behin baino ez bada ere.

- (233) Aita, indak onhasunetik niri heltzen **çaitadan** partea (Leiz, Lc, 15:12)<sup>56</sup>
- (234) eztarradan ezen are eure burua ere niri zor **drautadala** (Leiz, Philem, 1:19)
- (235) Nihaurc ere vciren dut hon **ezteritzadana** (Etxep, XII: 52)
- (236) Eskerrak **iztadan**, zeren neure haziendari on daritzadan (OihAts, 690)

Egun bezala orduan ere adibide guztiekin *-tada* izateak (eta ez \*\*-*dada*, \*\*-*tata*, edo \*\*-*data*) ez dirudi halabeharra. Batetik, adizki bakoitzaren testuinguruari eta garapenari beha diezaiekegu. Esaterako, 1SG-eko *deriztan* eta 3SG-eko *deritzan* fonetikoki gertu zeudenez (eta areago egon zitekeen 2SG-ekoa, baldin \**derizkan* > \**deriztan* gertatu bazen, cf. *deustat*), datibo-atzizkia azpimarratzeko beharra sortu zatekeen; edota *iztadan*-en kasuan, erroa bera hain emankorra ez izanik,<sup>57</sup> balizko \**iztan* bat morfologikoki analizatzeko zailtasunak izan zitzaketen hiztunek, eta horregatik *-da-* gardena gehitu.

Bestetik, eta oro har, alomorfo ohikoaren aldeko berdintze gisa ikus liteke, baina marka zaharra ezabatu gabe sortua (cf. *daraudala*, beharbada *-ta-* → *-da-* ordezkatutik); hots, ohiko alomorfoaren berrezarpena/eransketa, haren itxuraldatzea eragin zuen testuinguru morfofonologikoa ilundu delarik.

Azalpenak azalpen, agerikoak dira forma hauen “berritasuna” eta dialektaltasuna eta, beraz, ez ditut aintzat hartuko ondoko analisietan.

### 3.2.2.1.2. Marka fusionatua

Adibide gutxi batzuetan, *-da* edo *-ta* alomorfoa ergatiboaren *-e* pluralgilearekin baturik ageri da, \*-ae > -e bokal bakuntzearekin (cf. Laz *deustae*, *diosuae*, *derauiae* forma osoak, ez baitezpada arkaismo gisa).

Hala bada, interesgarri egiten dituena ez da bakuntzea bera soilik, baizik eta halakoak mendebaldetik kanpo ere aurkitzen direla, non bestela pluralgilearen *-te* alomorfoa erabiltzen den:

---

<sup>56</sup> *Izan* aditzarekin baita ere *ceitadan* ‘zaidan’, *aitzaitadan* ‘hatzaidan’, *craitadac* ‘zaidak’.

<sup>57</sup> Aditzak maiatasun handi samarra izan arren (65 aldiz trinkoki jokaturik, lehen hamar ugarien artean), ia denak indikatiboaren edo aginte-adierako subjuntiboaren orainaldiiko formak eta inperatibokoak dira, hartzailea gehienbat (bi heren inguru) lehen pertsonakoa dela, batez ere singularra. Alabaina, objektu pluralarekin, Oihenarten adibide honezaz gain, RSko bi *yndauz* besterik ez da; hirurak errefrauentan, beraz.

- (237) Neurez ez dot / **balinde** baniqueçu (RS, 91)
- (238) Erran **deraute** estela han (Volt, 219)
- (239) Hitz ounaq ematen **derauxte** (Volt, 232)
- (240) Huneçaz testimoniaje ecar ahal **dieçaquedé** principalqui cargu hunen hartcera incitatu ucan nautenec (Leiz, Dedic 251-26)
- (241) eta misericordia eguiten drauedana milla jenerationetarano, niri on **dariztener** (Leiz, ABC 1400-16)

Bigarren kasua ez da horren ikusgarria, baina funtsean gauza bera gertatu da: bi bokal (kasu honetan berdin) bakundi dira, 1SG-ari dagokiona eta 2SGM-arena.

- (242) Higu dudanaz gaitz **dioshana** / sinets ziroiat, nahiz barhana (OihAts, 233)
- (243) Manifestatu diraueat hire icena hic niri mundutic eman **drauztán** guiçoney (Leiz, Io, 17:6)
- (244) eztarradan ezen are eure burua ere niri zor **drautadala** (Leiz, Philem, 1:19)<sup>58</sup>

### 3.2.2.2. Bigarren pertsona singularren markak (2SG)

Komunztadura marka honi dagokionez, bi alderditan jarriko dut arreta, haren berezitasunak kontuan hartuta: alde batetik, besteetan bezalako alomorfo ezberdinaren deskribapen xehea egingo dut, baina, bestetik, haren maiztasunaren inguruko iruzkinak ere egin behar dira, bai beste 2PL-arekin alderatuta, bai tratamenduaren barneko genero bereizketaren aldetik.

Datu kuantitatiboekin hasiz, guztira 69 adizki dira hikako tratamendu arruntean (hots, alokutibokoak ez direnak), zeinetarik 17 RSetan diren; gainerako errefrauak eta Etxeparerentzako liburua ere alde batera utzita (ikus beherago), beste 17 baino ez dira halakoak. Azpiatalaren sarreran esan bezala, testuen izaerak eragin zukeen errespetuzko tratamenduaren erabilera horren handia izatea hitanoaren aldean.

Genero berezkuntzari dagokionez, hitano femeninoko 3 adizki baino ez dira, alokutiboko formak alde batera utzita; bi, hain zuzen, ahozko hizkera hobekien islatzen duten testuetan (Nafarroako auzietako lekukotzetan), eta bestea Lazarragaren eskuizkribuan, fikziozko pertsonaia femenino bat tarteko. Maiztasunean alde handia da eta horren arrazoia, hain zuzen, hitano maskulinoaren adibide gehienak biltzen dituzten

<sup>58</sup> Ez dut uste Zulaikak (1998: 292) proposatzen duen gisan akats edo errata bat denik, baizik eta marka bikoiztuaren eta bokal bikoitza bakuntzearen emaitza: \*drauta-da-a-la.

testuetan datza: errefrauak eta Etxeparereren liburua. Haietan hartzaile implizitu bat dago (atsotitzen nahiz dotrinaren aholku-aginduak jasotzen dituena), zeina agerikoa ez den eta, ikusten denez, gizonezko gisa markatzen den, beste zehaztapenik ezean.<sup>59</sup>

Genero bakoitzaren markak oinarrizko bi alomorfo ditu, adizkiaren bukaera absolutuan (245-247, 253-255) ala hitz barnean (248, 250, 251, 256-258) geratzen diren; badira, halere, hitz amaieran geratu diren hitz-barneko alomorfoaren adibideak (249, 252), agidanez adizkiek zuten *-n* eroririk (1SG-ekoetan ikusi dugun bezala). Azpimarratzeko da, arestian aurreratu bezala, nire datubasean aurki daitezkeen datibo-komunztadura femenino bakarrak (254, 255, 257, 258) adibideetakoak direla; horregatik, datiboko adieran alomorfo bera izango zukeela pentsatuz, alokutiboko forma bat (253) erabili dut adibideak osatzeko.

- (245) Badeguioc yñori, / eyngo **deusc** bestec yri (RS, 13)
- (246) secula erguelqueria faltatu ez **çayc** eta faltatuco (NafEs-2, 144)
- (247) Goiz jaikitea baliatuko etzaik, / zoriona ondoti ez**padarraik** (OihAts, 520)
- (248) Nayago dot to bat, / çe amau emon **deyat** (RS, 40)
- (249) Eshseco mirabeari echi, / çe **daquia** andra andi (RS, 525)
- (250) **badiqueat** orraa bofeton bat aurrari beçala (UtergMeh)
- (251) Eta diotsa deabruac, Emanen **drauat** bothere hori gucia (Leiz, Lc, 4:6)
- (252) Quiryasayluyari nola hiri hel **eztaquia** (Etxep, XIII: 78)
- (253) ni **banajoen** salsearen aurquietan (Laz, A25:7)
- (254) vada asegün arreçan eçen ni bengatuco **nayçan** (NafEs-1, 64)
- (255) gauça delicatu eta excellent guciac galdu içan **çaiquin** (Leiz, Apoc, 18:14)
- (256) Eyz ona ichi **dinat** menaetan (Laz, A25:5)
- (257) eta prometaçen **dinat** / ez verçe emazteric eguiteco y vaycen (UtergEzk, 4-5)
- (258) Esca aquit cer-ere nahi baitun, eta emanen **draunat** (Leiz, Mc, 6:22)

Ondoko azpiataletan marka maskulinoa soilik izango dut hizpide, bi arrazoirengatik: batetik, ez dudalako goiko adibideak baino gehiago biltzerik izan eta, bestetik, eta batez ere, maskulinoak dituelako jasaten testuinguruaren araberako aldaketak, herskari etimologikoa dela eta.

---

<sup>59</sup> Aurkezturiko datuak datibo-komunztadurari dagozkio soilik. Ergatibokoari dagokionez, maiztasun absolutuak handiagoak diren arren, proportzioan joera bera ikusten da: 342 dira orotara (67 RSetan, eta 101 gainerako errefrauematik eta Etxeparereren liburutik kanpo); femeninoak, 32.

### 3.2.2.2.1. Marka “indartua” (2SGM)

Badira bi kasu non itxura batean 2SGM-aren marka *-ka* den. “Itxuraz” diot, ezen (260) adibidean bederen *-k* datibo-marka (ere) egon bailiteke azpian, hain zuzen komunztadura-markaren ahoskabetzea eragingo zuekeena: \**-k-ga* > *-ka* (cf. datibo-markarik gabeko Etxauzen *darauat* edo Voltoireren *derabat* < \**darauat*).

Nolanahi ere, XVII. mendetik aurrera ongi dokumentatuak daude hitz barneko *-ka(n/la)* edota are *-k(en/ela)* alomorfoak ekialdeko testuetan. Hona, bada, datubaseko adibideak:

- (259) Hire nahiz gaitz jin **zaikan** horri, errakok "Sancho, ungi ethorri" (OihAts, 621)
- (260) ychoc, ychoc, nyc erareyne[n?] **derucat** berçe yle bat, oçar bellaco, traydoreorit(sic), perro çital orj, perro nastarj orj (NafEs, 91)

### 3.2.2.2.2. Marka fusionatua (2SGM)

Lehenengo pertsonaren komunztadura-markaren kasuan bezala, bigarrenarena ere ergatibo pluralgilearen alomorfo jakin batekin (*-e*) elkarturik bezala ager daiteke (egungo hainbat hizkeratan bezala, bestalde), baina kasu honetan, pertsona-komunztadura bera bokal bat besterik ez denez, emaitza itxuraz pluralgile hutsa da; hots, pertsona-komunztadura desagartzen da.

- (261) **Dienean** ereztuna / yfinc chircandea (RS, 192)
- (262) Hiri egui **vadaraye** bidegabe handia (Etxep, XIII: 80)
- (263) eta hire gratiaren gossea dutenéc, ohore eta laudorio emanen **draué** (Leiz, Othoitz 1273-38)

Lehen kasuan \**di-a-(d)e* ‘diate [trinkoa]’ dugun bezala (mendebaldean espero den *-e* alomorfoarekin), bigarrenak eta hirugarrenak ezohiko itxura erakusten dute, ordurako *-te* alomorfoa baitzen ekialdean emankorra; hortaz, \**d(a)rau(i)ae* ‘diate’ batetik datozena pentsatu behar da, *-e* alomorfoarekin (cf. *daraukate* ‘diote’).<sup>60</sup>

Bestalde, *-a-z* amaituriko erroekin batzean, marka ez da agerikoa, bokal bikoitza bakuntzen baita (corpusean ekialdeko formak baino ez ditut):<sup>61</sup>

---

<sup>60</sup> Ikus § 3.4.2.3 ergatibo pluralgilearekiko harremanetarako.

<sup>61</sup> Datiboko adibide gutxi dira, baina ugari ergatiboan, bai erroarekin, bai 1SG-aren markarekin fusionaturik: *ezterrála* ‘ez dezaala erran’ (Leiz, Rom, 10:6), *drauztán* (Leiz, Io, 17:6), *drautadala* ‘didaala’ (Leiz, Philem 1-19), *dacussála* (Leiz, Mt, 27:4), *dacussán* (Leiz, ABC 1417-28), *diostana* ‘diostaana’ (OihAts, 233).

- (264) Azquen finian eman **diaçan** recebice dignia (Etxep, I: 40)
- (265) Iaunac bada eman **dieçála** adimēdu gauça gucietā (Leiz, 2 Tim, 2:7)
- (266) Eta ethoriric hora eta hi deithu çaituztenac erran **dieçán**, Emóc huni lekua (Leiz, Lc, 14:9)
- (267) Non nahi duc appain **diaçágun** iatera Bazcoa? (Leiz, Mt, 26:17)

### 3.2.2.2.3. Marka zahar asimilatua (2SGM)

Logikoa da pentsatzea ezen, baldin *-a-* eta *-k* alomorfoak *\*-ga* batetik badatoz, inon jatorrizko morfoaren aldaera osoago bat espero genezakeela (analogiak bere lana guztiz bete ezean, noski). Hala ikusi zuen, esaterako, Lafonek (1943: 291; eta bat zetorren Mitxelena, *FHV*: 286) txistukari ondoko adibide pare batean (268, 269); berdin gerta zitekeen, inoiz konbinaketa hori gertatu bazen, datibo-markaren *\*-g* alomorfoaren ondoren (270). Ikusten denez, adibide guztietan kontsonante belarra inguruko hortz-hobikarietara asimilaturik ageri zaigu, *-ta* forma anbigoaren pean:

- (268) Trancart eguiten deustac ta vlerretan **deustat** (RS, 49)
- (269) Ezca çé aquio daucanari ta vay **onderextanari** (RS, 257)
- (270) Az ezac er[r]oya, **diratâ**<sup>62</sup> beguia, ta mutil guextoac quendu deyque arguia (RS, 136)

Adibide guztiak mendebaldekoak dira, baina litekeena da aldaera hedatua (are orokorra) izatea antzinago. Alde batetik, datubasetik kanpoko corpus hedatuan, beste adibide bat aurkitu dut (*ciroquetat* ‘zezakeat’ alokutibokoa; [§ 3.3.2.1.2](#)); horrek pentsarazten dit aurreko adibideen modukoetarik *-ta-* alomorfoa hedatu zatekeela hizkera hartan. Bestetik, pentsa daiteke [§ 3.2.2.2.4](#)-ko ekialdeko adibideek ere itxura hori izan zutela lehenago, herskaria analogiaz galdu aurretik.

---

Horiez gain, Leizarragak sistematikoki bakuntzen ditu *\*ezan* erroko eta ergatiboko 2SGM-aren bokalak *-(e)n/-e)la* atzizkiekiko formetan. Bestalde, Ariztimuño (2015a) lanean argudiatzen da Oihenarten *dezaian* (OihAts, 578) ez salbuespen fonologiko gisa, baizik eta morfológikoki markatu gisa azaltzearen alde (ikus [§ 4.3](#)).

<sup>62</sup> Erroa ezezaguna bada ere, litekeena da azken morfoa *-gi* izatea (*iradoki* aditzarekin loturik agian?); hots, *\*dira(d)otan* (> *\*dirautan*?) (dela datiboarekin loturiko *i*-rekin, dela ondoko diptongoak aldarazitako *\*e->i*-rekin) > *diratan*. Beste aukera bat *jan/edan*-ekin lot genezakeen balizko *\*iradagi* batetik eratortzea da; cf. Lhandek Zuberoakotzat dakarren *iraki* ‘s’alimenter’ (OEH s.v.).

### 3.2.2.2.4. Marka zaharraren aztarna fonologikoa (2SGM)

Mitxelenak erakusten duen bezala, Etxeparereren eta Leizarragaren testuetako adizki gutxi batzuetan, 2SGM markaren eta aurreko morfoko txistukari afrikatuaren elkarketak ez du esperotako emaitza erakusten; hots, txistukaria frikari bihurturik ageri bada ere, ez dago herskaririk, eta hizkuntzalari erreenteriarak *guzti* > *guzi* bilakaerarekin alderatzen du: “Se observa *zt* > *z* en *guzi* ‘todo’ (...). De sibilante más el índice de 2.<sup>a</sup> pers. masc. (...), Leiç. tiene *z* y *s*: *diossát* ‘te lo digo’ (Dech. *diossat*), cf. *diotsó*, *diotsa* ‘se lo dice’, *on dariçadala* ‘que te quiero’, cf. *on daritzadala* ‘que le quiero’” (FHV: 286).

Beste azalpen bat analogia litzateke, 2SGM komunztadura-markaren “hitz barneko alomorfo” ohikoena (-a-) ezarriaz (batik bat lehenik \**Ska* > \**Sta* gertatu bazen, arestiko adibideetan bezala), baina txistukariaren izaera aldatzeke (eta horrela 3SG-arekiko anbiguotasuna saihesturik).

- (271) Onsa hari gomendadi nic **diossat** egua (Etxep, II: 71)
- (272) Giçon gaztea, hiri **diossat**, iaiqui adi (Leiz, Lc, 7:14)
- (273) Eta faltatu cenean mahatsarnoa, bere amac **diotsa**, Iesusi, Mahatsarnoric eztie (Leiz, Io, 2:3)
- (274) Eta erran cieçon, Iauna, hic gauça guciac badaquizquic, hic badaquic ecen on **dariçadala** (Leiz, Io, 21:17)
- (275) Bainha haur eguiten da, eçagut deçançat munduac: ecen on **daritzadala** Aitari (Leiz, Io, 14:31)

Ikusten denez, corpusean ez da mendebalderagoko adibiderik. Egungo hizkeretan, aldiz, *deuat* ‘diat’ da formarik hedatuena, *deustat* bazterretako hizkera batzuetan delarik. Kasu horretan, beste formetan dakusagun atzizki txistukaria ez da ageri, dela arkaismo gisa, dela zuzenean *dau* > *deuat* “berriagoa” sorturik (nola *dauko* > *deukot*).

### 3.2.2.2.5. Itxuraz markarik gabeak

Azkenik, badira 2SG-aren marka behar luketen eta ez duten kasu bi, beste marka edo hots batekiko fusionatzez azaldu ezin direnak.

- (276) Az ezac er[r]oya, diratâ beguia, ta mutil guextoac quendu **deyque** arguia (RS, 136)
- (277) In habentes umana misteria, / veguietan **daquila** beteria (ElduBerts 31-32)

Bigarrenetik hasita, zalantza egin liteke are bigarren pertsonari erreferentzia egiten ote dion ere, ala egiazki hirugarrenari (cf. TAV: 124; bigarren aukera horri buruz, ikus § 3.2.3.2).

Lehena (276), aldiz, argia da testuinguruan, baina badu beste bitxitasun bat: *-ke* atzizkia bera. Izan ere, RSetan atzizki hori hartu zezaketen<sup>63</sup> *egin*-en 29 adizkietatik, beste lauk baino ez daramate: guztiak geroaldiko aginterakoak (*eyquec* ‘egin eza(ke)k’). Indikatiboko geroaldiko 18 adizkietatik, aldiz, aztergai dudanak soilik.<sup>64</sup> Apika, kopiatzean edo inprintan eginiko hutsa izan liteke, balizko <*deyq*> bateko *-q* laburduratzat (edo akastzat) hartu eta *deyque* osaturik. Horrela, bestalde, 6 silabako lau zati lirateke jatorrian, orain arteko irakurketak ekar dezakeen 6-6-6-7 egituraren ordez.

Horiek horrela, behin-behinean adibideok (batez ere RSkoa) ez ditut egiazko “2SGM markarik gabekotzat” hartu.

### 3.2.2.6. Markaren kokagune berezia

Datibo-komunztaduraren ohiko kokagunea erroaren ondokoa bada, ergatibo-komunztaduraren marka ororen aurretik, corpusean bi salbuespen aurkitu ditut (278, 279), biak 2SGM eta ergatibo-pluralgilearekikoak.

- (278) Hiri iniuria erraiten **draueanén** iniuriác ene gainera erori içan dituc (Leiz, Rom, 15.3)<sup>65</sup>
- (279) erran **drazaquetc** “erromes” (Saratsa, 6)  
«bien te puedes (sic) llamar “pobre”»<sup>66</sup>

Geroagoko testuetan ohikoagoa den ezaugarri honek zerikusia duke alokutiboko formen finkatzearekin eta datibokoekiko harremanaren garapenarekin.

---

<sup>63</sup> Hots, ahalera, apodosia edo geroaldia adierazten dutenetatik. Nabarmenzekoa da, zeren eta Bizkaiko testu zaharretan *egin*-ek ez duen horren beharrik denbora-modu horiek adierazteko (Lakarra 1996: 170-171).

<sup>64</sup> Mounolek (2014: 65) dioenez, «[I]’auxiliaire de morphologie présent ne reçoit qu’exceptionnellement le suffixe *-ke* (262)», non (262) adibidea hemengo (276) bera den, hain zuzen.

<sup>65</sup> Cf. gainerakoetan *draue* ‘diate’ vs *drauec* ‘diek’.

<sup>66</sup> Itzulprena literalra ez denez (ikus behean), beste aukera bat alokutibotzat hartzea da (‘zezaketek’). Kasu horretan alokutibotasuna markatzeko \**ezan* → \**erazan* “erro-aldaletaren” adibide bakarra genuke.

Amorioric etzpalinvadu

Si te falta caridad

sobra **balioqui** ere urre guçia

aunque mas oro te sobre

erran **drazaquetc** erromes.

bien te puedes llamar pobre.

### 3.2.2.2.7. Marka osoa amaieran (2SGF)

Bigarren pertsonaren morfologiarekin amaitzeko, alokutibo femeninoaren aldaera berezi bat aipatuko dut: normalki beste morfo baten aurretik agertzen den *-na-* osoa amaiera absolutuan. Esaldi batean (280) eta gramatika-ohar batzuetan (281-283) baizik ez da ageri nire datubasean, betiere mendebaldeko testuetan. Gaur egun ere mendebaldean aurkitzen da (EHHA).

- (280) Lagunen gacha / aguir çé **ezana** (RS, 401=516)
- (281) **eguina** / eguic (MendAera, 6v)
- (282) **bacuna** / bacusc (MendAera, 6v)<sup>67</sup>
- (283) **banzuna** / bançuc (MendAera, 6v)

### 3.2.3. Hirugarren pertsonari dagozkion markak

Jakina denez, datibo-komunztaduraren berezitasunetako bat hirugarren pertsonak (singularak, bederen) komunztadura-marka berezia izatea da. Izan ere, 3. pertsona markagabea da gainerako euskal aditz morfologian, hizkuntza askotan bezala, eta ez da erraz ikusten zer arrazoirengatik izan behar zuen datibo-komunztadurak halakorik.<sup>68</sup> Hori dela eta, atal honetan bereziki singularrekoa izango dut hizpide, ezen 3PL-komunztadurako formetan pluralgilea bera besterik ez ohi da agertzen testu zaharrenetan, salbuespenak salbuespen.

#### 3.2.3.1. *-o/-a* alomorfoen banaketa

Hirugarren pertsonaren markak bi alomorfo ditu, *-o* eta *-a*, hizkera guztieta, baina banaketa paradigmatiko eta sintagmatiko (eta, beraz, maiztasun) ezberdinekin. Mitxelenak ikusi zuen bezala (1954a: 133), mendebaldeko testu zaharretan *-o# / -a-* banaketa gehiagotan gordetzen da; eta “gorde” diot zeren eta, Mitxelenaren ildotik,

<sup>67</sup> Aipatzeko da (282) adibideko *\*sn > n* bakuntzea, gogoan izanik Zalgizek eta Oihenartek dakarten *zionat* ([§ 3.3.1.4](#)-ko [368] adibidea).

<sup>68</sup> Lakarrak (2016: 187) datibo-markatzat berreraikitzen du; *\*bon* ‘eman’ (*\*ebon > emon*) erroaren gramatikalizazio gisa, hain zuzen.

jatorrizko *-o* bat eratorpen lexikoan *-a* bihurtzen zen bezala, aditzean ere halaxe egiten zela uste baitut.<sup>69</sup>

- (284) Eç **dauco** Peru Garciac bearric (MLastur, 17)<sup>70</sup>
- (285) pisç asco **daucā** gauçea (Lcc, 272v; s.v. *espumosa cosa*)
- (286) Mizqueriac erajegui **deuso** (RS, 519)
- (287) prometidu **eusan** ece, biaramunean, / sinfalta, Sirena eroango **leusala** bere aposentura (Laz, AL, 1142v:6)
- (288) Harc ehori **eztemayo** oren vaten epphia (Etxep, I: 148)
- (289) çuc guibela **demaçuna** nola vayta galduya (Etxep, I: 411)<sup>71</sup>

Alabaina, banaketa hau ez da aditz guztieta gertatzen eta, hortaz, badira mendebaldean ere menderagailuen edo beste pertsona-komunztaduren aurrean *-o*-daukaten adizkiak. Esaterako, Lazarragak orainaldiko (*ba*)*degio*-ren ordain ez du iraganean \*\**egian* ematen, *egion* baizik; jakina, badu beste *egian* bat, N-N<sub>k</sub> jokokoa hain zuzen, eta anbiquotasun-arrisku hori zatekeen (bai eta 2SG-arekikoa ere) *-o*- alomorfoa gordetzeko edo berrezartzeko zioa. Beste modu batera ere saihesten da balizko anbiquotasuna Lazarragaren eskuizkribuan (290)<sup>72</sup> eta Ibarguen-Cachopinen kroniketan jasotako (291) adizki banatan, ez baitezpada arkaismo gisa. Nolanahi ere, adierazgarria da kontrakoa ez dela gertatzen; hau da, ez da mendebalde osoan *-a#* aloformoaren alerik.<sup>73</sup>

- (290) asi çan llantu andi bat eguiten, ain tristeza andiaz ece ençun eguien guztiai emun **gioan** tristeza andia (Laz, AL 1142r:4)
- (291) ta **baesoan** bere na/gucciari legues Ochoa Onsaluch Agur Agur (Andram, 26)

Nolanahi ere, banaketa argia da mendebaldean, batik bat *eduki*, *eman*, *eutsi*, *iritzi* eta *izan* aditzetan; ez, ordea, erdi-ekialdean, non maiz, hizkeraren eta aditzaren arabera, *-o* (292, 293) edo *-a* (294, 295) alomorfoak orokortu diren, maiz biak edozein testuingurutan ager daitezkeela, are mendebaldeko eraren kontrara ere (296-299):

<sup>69</sup> Traskek azalpen horren kontra egin zuen, argudiatur ezen *-o* > *-a* ez zela izan hitz eratorpen eta elkarketako aldaketa bakarra, eta, aldiz, aditz-morfologian ez dela ikusten *-i/-u* > *-o* edo *-e* > *-a* bezalakorik (*apud* Gómez & Sainz 1995: 252, 22. oin-oh.). Lehenen bilakaerarako, ikus Ariztimuño (2015b; hemengo [§ 4.1](#)) eta Urgell (2018), eta bigarrenaren alde, Ariztimuño (2015a; hemengo [§ 4.3](#)).

<sup>70</sup> *Eduki*-ren adizkiak ere aurkezten ditut zeren eta, Mitxelenari eta ondokoei jarraituz (xehetasunak gorabehera), uste baitut amaierako *-o* hori datibo-komunztadura zahar baten arrastoa dela (ikus [§ 5.2.1](#)).

<sup>71</sup> Adizki honen azpian \**dem(a)-o-zu-n* morfologia datzala pentsatzen dut. Cf. (20-21) adibideak ([§ 3.1.1.1](#)).

<sup>72</sup> Baldin eta errata ez bada, ezen testuinguruak datibo plurala eskatzen baitu, ediziogileek singularra inpertsonal izatearekin lotzen badute ere (Bilbao eta beste 2020b: 36, 64. oin-oh.); baina cf. esaldi bereko *egien*.

<sup>73</sup> Nire datubaseko adibiderik mendebaldekoenak Elduaingo *çaca* (137), eta *çarizca* (159) dira.

- (292) ene anditasunonec **estrauquo** orri gayçic eguiten (NafEs-1, 116)
- (293) Argatic, otoyz eguiten **draucot** andre dona beti virginari (BerDCh, 95r)
- (294) Ieyncoari ere eder **çaica** (Etxep, X: 25)
- (295) Malicia gayci **çaicala** eta mayte egquia (Etxep, I: 304)
- (296) Eneko, **atxeka** hi hartzari, / nik demadan ihesari (OihAts, 139)
- (297) Sua **datxekonean** auzoko etxeari, gogoa emak eureari (OihAts, 672)
- (298) **Arraica** aunçari, / Baihagozque gapharrari (Zalg, 14)
- (299) Emaztea hartzen duenak ezkontsari hutsagati; biharamuna du dolu eguna, gaitz **darraikonagati** (OihAts, 136)<sup>74</sup>

Laburbilduz, eta ikuspegi oso eta zehatza izateko hizkeraz hizkera eta autorez autore deskribatu beharko litzatekeen arren, joera zenbait ikus daitezke eremu zabalagoak kontuan hartua.

Alde batetik, mendebaldean aipatu banaketa osagarri etimologikoa dakusagu, oro har, eta, beraz, forma atzizkituen/atzizkigabeen arteko proportzio bertsuan topatuko ditugu *-a/-o* aldaerak.

Beste aldetik, (erdi-)ekialdean ez da *-o* > *-a* aldaketa morfofonologiko sinkronikorik, eta zenbait aditzetan alomorfoetako bat orokortzeko joera ikusten da.

Halere, badira *-o* (ia) aukera bakar duten aditzak ere mendebaldean nahiz ekialdean (*-ki-*, *\*enin, esan/erran, egin, \*ezan*). Halabeharrez edo ez, denek dute *a* edo *i* bokala erro jokatuaren amaineran. Hala, batzuen kasuan erroan *-a* edukitzea izan liteke *-o* alomorfoaren esklusibotasunaren arrazoia, ezen halakoetan forma itxuraz komunztadura-markarik gabeak sortuko ziratekeen, *aa* > *a* bakuntzearen ondorioz (*eman-en* formekin gertatzen den bezala, cf. arrestiko (289) adibidea).

### 3.2.3.2. -*ø* morfoa

Azaldu berri ditudan ohiko alomorfo biez gain, arrazoi ezberdinengatik 3SG marka “falta” duten zenbait adizki aurkitu ditut.

Argienetako bat (300) adibidekoa da. Hartan, nolabait, erroaren eta ergatibo-komunztaduraren arteko bokala “sinkopatu” dela ikusten da (cf. esanahi bereko *derechadan* [nik-hari] Laz, A3:2; aitzitik, antzeko forma izanagatik ekintzaren alderantzizko norabidea adierazten du *derextala* [hark-niri] (223) adizkiak). Izan ere,

---

<sup>74</sup> Etxeparek kasu honetan ere antzera: *darrayca* (III: 44), baina *narrayola* (XII: 47).

erroko eta komunztadura-markako kontsonanteek erakusten dute ez dela huts tipografiko bat, beren arteko egokitzapen fonotaktikoak gertatu baitira (*/tʃ/ → [ʃ]* eta */d/ → [t]*).

- (300) Esquerrac yndauz, ce on **derexta** ene gauçary (RS, 556)

Besteak bi multzotan bana daiztezke. Batetik, esanahia gorabehera, \**edin*-en N-N<sub>i</sub> jokoko *-ki-* erro supletiboarenak diruditen (301-303) adibideetakoak daude. Nabarmendu behar da erro hori N-N<sub>i</sub> komunztadura baino ez dutenetarik dela; hots, ezin ezaba dakiokeela datibo-komunztadurarik, zeina, bestalde, adizkiaren bukaeran joango litzatekeen (menderagailuak alde batera utzita). Honatx esaldiak, eta ikus § 5.3.2 azalpen proposamen baterako:

- (301) Vzqur baquio ecachari, senda**quiique** eguzquiari (RS, 251)  
 (302) In habentes umana misteria, / veguietan **daquila** beteria (ElduBerts 31-32)  
 (303) Andriac hon deričanari **ezpadaqui** mesura (Etxep, XII: 42)

Bestetik, *eretxi* (304) eta *eutsi* ‘atxiki’ trinkoaren (305) adizki parea dugu, zeinetan zehar-objektua singularrekoa izan arren, ergatibo-pluralgilea zuzenean erroari lotua ageri den:

- (304) cegati utra on / alcarri **erexten** (Laz, AL 1142r:14)  
 (305) Ese banatan bici cirean, / ceñac **eusten** alcarri (Laz, A11:14)

Lehenak argiro esan nahi du ‘irizten zioten’, konfigurazio berorrekin. Halaber, bigarrenak ere ‘eusten zioten’ adierazten duela dirudi, baina joko zaharrena eta Lazarragak beste adizki batean (*daust* ‘eusten zait’) darabilena N-N<sub>i</sub> izateak zalantza eragiten du; horren arabera *eutsan* ‘eusten zitzai(zki)on’ behar luke (ageriko [ABS.PL] komunztadurarik gabe). Aukera bat da pentsatzea, dela *lapsus* gisa, dela ezaugarri propio gisa, egitura elkarkarian datibo-argumentuak hartu zuela pluralgilea (‘eusten zitzaien’ bailitzan).<sup>75</sup>

### 3.2.4. Pertsona-komunztaduren azterketaren ondorio orokorrak

Aurreko puntueta aleturiko adibideetan ikusi dugu pertsona-komunztaduren morfoek hainbat alomorfo dituztela; batzuk oso ezagunak eta are orokorrak, beste batzuk (testuetan bederen) lokalagoak, eta bada orain arte, dakidala, xeheki deskribatu gabe egon

---

<sup>75</sup> Forma horren eta antzeko beste batzuen inguruko eztabaidea eta proposamenerako, ikus Ariztimuño (2015b), eta hemengo § 4.1.

denik ere. Edonola ere, guztiak dira azaltzeoak, eta guztiekin dute, nire ustez, hizkuntzaren aurreko garai batean indarrean zegoen bilakabide fonologikoren baten edota ezaugarri morfologiko baten aztarna.

Horrenbestez, ondorio orokorrik ateratzekotan, esan nezake (hizkuntza eta hizkuntzaren arlo guztieta bezala, baina ezaguna izanagatik aipagarria iruditzen zaidana) bi indarrek mugituta garatu dela euskararen aditz morfologiaren alderdi hau ere: bilakaera morfonologikoak eta analogiak. Lehen motakoak dira, esaterako, *-o* > *-a* ezaguna edo, erregularra izan ez arren, 2SG-eko morfoaren *\*(S)ga* > *\*(S)ka* > *(S)ta*. Analogiaz azaldu behar dira, aldiz, *diosat* bezalako formak, non *\*dioskat* edo *\*diostat* esperoko litzatekeen etimologiaren eta dokumentaturiko beste forma batzuen arabera (cf. *deustat*). Orobaz azaldu behar da analogia gisa, *-o* > *-a* orokorra izan zela kontuan hartuta, beste ezaugarri hau: *-ki-*, *\*enin*, *esan/erran*, *egin* eta *\*ezan* erroko adizki datibodunek 3SG-aren *-a* alomorforik ez erakustea. Hala ere, mendebaldean askoz hobeki gorde zen *-o#/a-* alternantzia, besteak beste *izan*, *iritzi* eta *\*edutsi/\*eradun* aditzen formek erakusten duten bezala.

Bestalde, ezaugarri komunak edo eremu zabalekoak ikus daitezke, batzuk bilakaera komunen ondorio, bestetzuk beharbada beregainki gertatuak. Esaterako, *-o* komunztadura-morforik gabeko *-ki(ke)-* enbordun adizki bakanak mendebaldean (301) nahiz ekialdean (303) ageri zaizkigu; *\*-da-e* > *-de* fusioa ere bi ertzetako lekukotasunetan gertatu da (*balinde* [RS], *dieçaquede* [Leiz]); eta komuna da, baita ere, arestian aipatu dudan aditz batzuetako *-o* alomorfoaren berrezartzea. Aldiz, mendebaldeko testuetan soilik aurkitu ditut *erexten* < *\*eretx(-o)-de-* [Laz] eta *derexta* < *\*deretx(-o)-da-* [RS] bezalako forma itxuraz sinkopatuak.

### 3.3. Joko alokutiboak

Euskararen aditz-sistemaren berezitasun nabarmenetako bat aditz alokutiboen sistema da (eta ez ikuspuntu ibero- edo eurozentrista batetik soilik, mundu osokoa baizik), eta, bereziki, haren erabilera tratamenduaren arabera (cf. Antonov 2015).

Atal honetan, adizki alokutiboak haien kide neutroetatik eratortzeko Euskara Arkaikoko corpusean ageri diren prozedura morfo(fono)logikoak deskribatuko ditut, kontuan harturik datibo-komunztadurarekin nola edo halako lotura ezarri ohi dela (Alberdi 1995) eta, ikusiko dugun bezala, antzeko elementuek esku hartzen dutela. Datibokoekin bezala, bi zati nagusitan banaturik egongo da: alde batetik ([§ 3.3.1](#)),

alokutibotasuna berariaz markatzeko elementuak aurkeztuko ditut eta, bestetik ([§ 3.3.2](#)), solaskideari dagokion “komunztadura” izango dut aztergai (toka, noka edo zuka ari den, agertzen den pertsona-marka). Azkenik, ondorio labur batzuk aurkeztuko ditut, bai atal honetako datuen behaketatik, bai datibo-komunztadurarekiko erkaketatik aterea ([§ 3.3.3](#)).

### 3.3.1. Alokutibo-markak

Nire datubasean 198 adizki alokutibo bildu ditut (107 zuketako, 91 hiketako), zeinetarik 144 \**edun* eta \**enin* erroen formak baitira (91 zuketako, 53 hiketako); esan nahi baita, *izan* eta \**edun* aditzen kide alokutibo gisa erro haietarik sorturiko adizkiak. Izan ere, aditz horietan alokutibotasuna maiz erro-aldaketarekin gauzatzen da (*izan* → \**edun*, \**edun* → \**enin*) eta, ondorioz, ez ohi dute bestelako adierazgaririk erakusten, salbuespenak salbuespenak ([§ 3.3.1.1](#)).

Gainerako 53 adizki alokutiboei dagokienez, 18 erro hauen artean banatzen dira: \**edin*, *eduki*, \**edun*, \**edutsi*, *egon*, *ekarri*, \**eradun*, *erautsi*, *etorri*, *ezagun*, \**ezan*, \**enin*,<sup>76</sup> *ikusi*, -io-, \**iron*, *izan*, *jakin*, *joan*. Ikusten denez, badira laguntzaileak eta trinkoak, iragangaitzak eta iragankorrak (monotransitibo zein ditrantsitiboak), eta, adibideetan ikusiko denez, lurralte guztietakoak (nahiz eta batez ere Nafarroa-Zuberoetakoak diren, datubasearen ezaugarrien ondorioz). Horietatik 46 adizkik dute alokutibo-markatzat har litekeen ageriko beste ezaugarriren bat (esan nahi baita, solaskidearen markaz bestalde); gehien-gehierek, beraz ([§ 3.3.1.2](#), [§ 3.3.1.3](#), [§ 3.3.1.4](#)).

Jarraian, datibo-marken deskribapenean egin dudanaren antzera, marken arabera (erro-aldaketa ere markatzat hartuaz oraingoan) eta aditz-erroka antolaturik aurkeztuko ditut datubasean bildutakoak, gainerako corpusean aurkitu ditudanez ere horniturik.

#### 3.3.1.1. Erro-aldaketa

Procedura morfologiko hau, arestian esan bezala, bi aditzetara mugatzen da (bakarrera mendebaldean) eta, gehienetan, beste erroko adizki neutroen forma berak dira emaitza; hots, *izan* [N] → \**edun* [N-N<sub>k</sub>] bilakatzean, \**edun*-en adizki neutro bat sortzen da, eta berdin \**edun* [N-N<sub>k</sub>] → \**enin* [N-N-N] egitean. Zenbaitetan, halere, neutro gisa

---

<sup>76</sup> Esan nahi baita, \**enin* aditzaren alokutiboko forma ditrantsitiboak (ez nahasi arestian aipatu \**edun*-en alokutiboko forma supletiboekin).

(historikoki bederen) existitzen ez diren formak ere sortzen dira; euskara estandarrean, esaterako, *lukek* ‘litzateke [toketa]’ edo *naik* ‘nau [toketa]’ bezalakoak. Lehenaren kasuan, indikatiboko *dukek-i* aurritzka aldatu zaio, forma neutroetako ergatiboaren lekualdatzearen ordez (*huke*); bigarrenari dagokionez, ezaguna da euskarazko N-N-N jokoak ez duela 3. pertsonaz besteko objekturik onartzen eta, hortaz, *nauk* formari erroa aldatu zaio zuzenean, \**enin*-*ekin* ordezkatzuz.<sup>77</sup>

Halakoak aztertzean, kontuan izan behar da gaur egun ere erro-aldaketok ez direla hizkera, konfigurazio, eta ez pertsona guztieta berdin egiten. Labur esateko, alde batetik, orokorrak dira (aldaerak aldaera) *naiz*, *da* → *naun/k*, *dun/k* erakoak zein *zait*, *dio* → *zaidan/k*, *zion/k* erro-aldaketarik gabeko alokutiboak. Bestetik, hedadura murritzagoa du *du* → *dik* aldaketak (mendebaldean *jon/k*), areago jasalea 3. pertsonakoa ez denean, *nau* → *nain/k* kasu (mendebalde zabalago batean, Gipuzkoa gehien barne, ez baita erroa aldatzen: *najon/k~natxion/k*). Era berean, isoglosak ezberdinak dira alegiazkoetan: *litzateke* → *litzateken/k* da mendebalde zabalean, eta *lukan/k* ekialdean (erdialdeko zenbait tokitan *uke* edo *ukek/unake*); ordea, lehen pertsonako jasalearekin, esaterako, ezagunak dira *ninduken/k* erakoak Gipuzkoan (Oihartzabal 1994: 973). Mekanismo ezberdin horien arteko txandakatzearen erakusle dira, adibidez, Leizarragaren adizki adierakideok:

- (306) baina gaichto bada, hire gorputza-ere ilhun **duquec** (Leiz, Lc, 11:34)
- (307) Baina baldin hire beguia gaichto bada hire gorputz gucia ilhun **datec** (Leiz, Mt, 6:23)

Esan bezala, egun mendebaldean ez da erro aldaketarik gertatzen \**edun-en* alokutiboetan, baizik eta beste aditzetan bezalako *d->j-* bilakaera ([§ 3.3.1.3](#)): *dot* → *joat* ‘diat’; corpusean, haatik, aldaketarik gabeko (308) formak baino gehiago dira erro-aldaketaren adibideak (309; eta autore beraren beste bi), guztiak Arabakoak:

- (308) Omenaje eguingo **joat** biçia dodan artean (ErrZar, 22)
- (309) Nic lanceteaz jo **diat** eta / oy ic eçarroc enplastua (Laz A21:37)

---

<sup>77</sup> Salbuespen ezagunena Leizarraga da, zeinek, besteak beste, \**eradun* erroko *narauan* (Io, 19:11) darabilen (← \**narauk* ‘[hark ni hiri]’), *naik* ‘nau [toketa]’ alokutiboaren kide morfologiko zehatza.

Erdialde zabaleko adibide gutxi batzuk ere badira, erro aldaketa ez beste alokutibomarka bat dutenak, esaterako: *cetuc* ‘ditik’<sup>78</sup> Gipuzkoa ekialdean (360), *neau* ‘nain’ Zaraitzu inguruko lekukotza batean (314), eta Leizarragaren eta Beriainen *niauc* ‘naik’ (315-316) eta beskoiztarraren *niaue* ‘naitek’; horien kideko bide dira Irizarrek Gipuzkoa ipar-ekialdeko eta Nafarroa Garai iparraldeko zenbait herrian bildu *niok/n~niak/n~niek/n*, *niotek/n...* aldaerak. Hala ere, beste kasu batzuetan bezala, Leizarragak adizki hauen beste aldaera batzuk ere badarabiltza, hain zuzen erro-aldaketa duten *nic* ‘naik’ eta *nié* ‘naitek’, Irizarrek erdi-ekialde osoan zehar (Nafarroa Garaitik Zuberoara) bildutako *n(a)in/k*, *n(a)iten/k~ni(n)e* eta abarren erakoak. Bitxitasun modura, nabarmentzekoa da Nafarroa Garai mendebaldeko Dorrao eta Etxarri-Aranazko aldaeretarako ere Leizarragaren forma berberak dakartzala: *nik* eta *nie*.

Bestalde, bi hiperkarakterizazio ere topatu ditut. Lehena Leizarragaren *citic* ‘ditik’ (365) erako adizkietan gertatzen da, non erro-txandaketaz gain, hasierako kontsonantearen eraldaketa gertatu den; hain zuzen, *ElduBertsetarako Mitxelenak* proposatu *zetik* zuzenketaren erakoa (egun batik bat Gipuzkoako alderdi batean ezaguna, EHHA ikus daitekeenez).<sup>79</sup> Bigarrena, aldiz, ez dut argi errata edo lapsustzat hartu behar ez ote den: Etxauzek *diqueci* darabil, ez ‘duke [zuketa]’ adierazteko, baizik eta ‘dateke [zuketa]’ adieran.

(310) Hunequila hirur garrena **diqueci** ez/cribatu darauçudala (Etxauz, 1)

Aukera bat litzateke pentsatzea berak gogoan zuena ez zela ‘dateke’ adiera (*dukezu*, alokutiboa), baizik eta ‘dukezu’ neutroa, eta zuketa alokutiboko testuinguruuan ematean forma hiper-alokutibo hori sortu zuela.

### 3.3.1.2. *i-* (*e-*)

Gorago esan dut marka hau nahiko maiz ageri dela alokutiborako, datibo-markaren funtzioarekin alderatuz gero; bada, hura bezala, erdi-ekialdeko hizkeretan erabiltzen da, emankorrenik ipar-ekialdean (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa).

---

<sup>78</sup> Mitxelenak (TAV: 123) *cetic* zuzentzea proposatu zuen, beharbada bertsoen sorgunean ez delako bestelakorik dokumentatu; baina Gipuzkoa mendebaldeko zenbait tokitan *zetuk* esaten denez (cf. EHHA), hala uztea erabaki dut.

<sup>79</sup> Interesgarriro, aldaketarik gabeko aldaera sistematikoki eta esklusiboki ezeptapen partikularen ondoren darabil: *citiát*, *citic*, *citiagu*, *citié* vs *eztitiát*, *eztitic*, *eztitiagu*, *eztitie* (Zulaika 1998: 418, eta horko 120. oinoharra).

\**edin*

- (311) Eta gucién ondoan hil **ciedián** emaztea-ere (Leiz, Mt, 22:25)
- (312) ecin iaiqui **niaitec** hiri emaitera (Leiz, Lc, 11:7)
- (313) Beguira adi vr baretí / Nihaur **niaitec** lasterreti (Zalg, 16)<sup>80</sup>

\**edun*

- (314) ni andurtu ninduenac ondu **neaun** (NafEs-2, 128)
- (315) erran ceçan, Saul anayé, Iaunac igorri **niauc** (Leiz, Act, 9:17)
- (316) Erreguec igorcen **niauc** jaquin deçadan ea eguin duçuen, harc manatu cindustena (BerMeza, 111v)

*eduki*

- (317) Hiretaco **eziaducat** guerthuz neure buruya (Etxep, XII, 40)<sup>81</sup>

*egon*

- (318) acheguina **çeagoc** (NafEs-1, 68 [SGZ: 12])
- (319) hic bayño obeas ler eguiniquin **neagon** (NafEs-1, 121)<sup>82</sup>
- (320) ecen Aita-ere halaco adoraçalén galdez **diagon** (Leiz, Io, 4:23)
- (321) Ieyncoaren hurranena hora **diagoc** glorian (Etxep, I: 47)
- (322) çutan **diagoçu** ene vicia (Etxep, X: 48)

*ekarri*

- (323) Vizcondia, beldurrac **diakarquec** / ahalguia (Zalg, 60)<sup>83</sup>
- (324) Ez holla, Usmena, handiki gorapenak soinean **diakarken** beherapena (OihAts, 160)

\**eradun*

- (325) eta çuetaric batbederari emanen **diarocat** bere obrén araura (Leiz, Apoc, 2:23)
- (326) ecen haguitz gure hitzey resistitu vkan **dirauec** (Leiz, Tim, II, 4:15)
- (327) Conchit galdeguin **diracoçut** eta erran **diraudaçu**<sup>84</sup> / conchit de gascon nahi dudanez (...) (Etxauz, 8-9)

<sup>80</sup> Oihenartek ia berdin, adizki berberaz: *Begira nezak ur emeti / nihaur niaitek lasterreti* (OihAts, 75).

<sup>81</sup> Erdialderagoko *eduki*-ren alokutiborik ez dut bildu, baina ikusi ditugu arestian antzeko osaera duten datibodunak, hala nola Beotibarko kantuko *diadutac* (68) eta Beriainen *diaducote* (76).

<sup>82</sup> Nafarroako beste adibide bat bada markarik gabekoa: *traydorea, ayerric nagoc* (NafEs-1, 52).

<sup>83</sup> Oihenartek antzekoa, adizki berberaz: Baigorriko Bizkondea, / beldurrak **diakarkek** ahalgea (OihAts, 65).

<sup>84</sup> Ros-Etxart gutunerian, aldiz, *derautaçu* (RosEtx-15a, 1r: 12) darabil erronkariarrak alokutiborako, neutrorako beti \**enin* erroa darabilenean, bide batez; esaterako, *didaçu* (RosEtx-13, 1r: 3).

*erau(n)tsi*

- (328) Haiceac nahi duen lekura **diraunsac** (Leiz, Io, 3:8)
- (329) Viocian **diraustaçu** guertuz, ama eztia, çure orduco doloriac eta vihoz çauriac (Etxep, I: 124)

*etorri*

- (330) Emazte hartu diat, eta halacotz ecin **niathorrec** (Leiz, Lc, 14:20)
- (331) Ni çugana **nyatorqueçu** beqhatore handia (Etxep, I: 51)

*ezagun*

- (332) Garcia, Garcia. Gaixto batac **badiaçaguc** bercia (Bela, 26)<sup>85</sup>

*\*ezan*

- (333) Eta har **cieçateán** hora çazpiéc, eta leinuric etzieçateán vtzi (Leiz, Mc, 12:22)
- (334) ecin esan **niazcaquec**<sup>86</sup> Miravallesco gaucac (ElduBerts 30)

*ikusi*

- (335) Iauna, **badiacussát** ecen Propheta aicela hi (Leiz, Io, 14:9)
- (336) eta harren, confusioneric eta ahalqueric baicen **ezteacussagu** gure gainean (Leiz, Othoitz 1272-28)
- (337) Ordu harten **diacusaçut** galdu neure buruya (Etxep, I: 400)

*izan*

- (338) alincoa! nescatoc ere **eçiazquiguc** minçatuco (NafEs-2, 102)
- (339) Echaguiçon, ylumbe neste orretan eurea eguiten yrudi **ciaydac** duala (NafEs-2, 143)
- (340) Iauna, deabruac-ere suiet eguitē **ciaizquiguc** hire icenean (Leiz, Lc, 10, 17)
- (341) Ene buruya **ciaydaçu** harendaco abastu (Etxep, VII: 14)

*jakin*

- (342) ançarac **vaceaquivic** deadarr eguiten (ElduBerts 38)
- (343) bay, **eçiaquiat**, ayetaric batec ere bat badic (NafEs-2, 103)

<sup>85</sup> Oihenartek eta Zalgizek atsotitz bera dakarte, aldaerak aldaera:

Garcia, / Gaixto batac **diaçaguc** bercia (Zalg, 130)

Garzea, gaxto batak **diezaguk** bertzea (OihAts, 182)

<sup>86</sup> Baldin eta *natzakek* ‘nitzakek’ ulertu behar bada.

- (344) Magistruá **bacequiagu** ecen eguiati aicela (Leiz, Mc, 12:14)<sup>87</sup>
- (345) Hire potac **bacyaquyat** berce gauça nahi dic (Etxep, VIII: 13)
- (346) Gure arteco amoria ehorc **eciaquiqueçu** (Etxep, XII: 18)

*joan*

- (347) Maingui **cioac** ori (SorgAgot)
- (348) eta huni erraiten diarocat, oha, eta **badihoac** (Leiz, Lc, 7:8)
- (349) Picher ebilia hauxi **diohaçu** (Etxep, X: 43)

Orain arte jarritako adibideez gain, Leizarragak aditz gehiagotako forma alokutiboak ere badarabiltza; harena izaki testu aberatsena eta hiketa gehien darabilena. Hainbat direnez corpusean hark baizik ez darabiltzanak, guztiak elkarrekin zerrendatzeari hobetsi dut : *etzan* (351), *ibili* (352), *-idi-* (353), *iritzi* (354), *jario* (355).

- (350) Iauna, ene muthilla **diatzac** etchean paralytic (Leiz, Mt, 8:6)<sup>88</sup>
- (351) deabruéc-ere sinhesten dié, eta ikara **diabiltzac** (Leiz, Iac, 2:19)
- (352) (...) eta desesperatzeaz berce gauçaric ecin **guineaidiquec**, ia herioaren abysmoetan baguina beçala (Leiz, Othoitz 1271-30)<sup>89</sup>
- (353) hæy nic-ere gaitz **diarizteat** (Leiz, Apoc, 2:6)
- (354) eta orduan haguna **diarioc**, eta garrascots bere hortzez eguiten dic (Leiz, Mc, 9:18)

### 3.3.1.3. *j-*

Datibo-marka berdinarekin gertatzen den bezala, alokutibo-marka hau mendebaldean baizik ez da erabiltzen, eta hura besterik ez hango testuetan (Euskara Arkaikoko corpusean, baina, Arabako lekukotasunak baino ez ditut):

- (355) ni **banajoan** salsearen aurquietan (Laz, A25: 7)
- (356) Il aguidala jaunac **jaustac** aguinquetan (Laz, A25: 42)
- (357) borondate **jaucaat** al badaguit salbaetan (Laz, A25: 45)

---

<sup>87</sup> Leiz-k oro har *zea-* dakar (adibide honetakoa da *ze-* bakarra), bai eta *ciaquie* ‘zakitek’ eta *niaquian* ‘nekian’ aldi banatan. Halaber, kontuan hartu behar da tratamendu neutroko iraganeko formetan ere *-ea-* (*ceaquian* ‘zekien’) eta *-ina-* (*cinaquiten* ‘zenekiten’) erakoak dituela (halakoez, ikus § 5.3.2.1).

<sup>88</sup> Cf. datiboduna izan litekeen *diaço* iluna (Mitxelena 1979: 49-50).

<sup>89</sup> Neutroan *gueneidique* espero bide litzateke (cf. Axularren *geneidike*, eta bokal aldaketarako, Leizarragaren *nengoen* → *niangoan*). Barneko *-ea-* hiatoa analogiaz hedatu zatekeen, autore beraren *natzaye* > *nitzayec* ‘natzaie [toka]’ eta *gaitzaizte* > *gaitzeaiztec* ‘gatzaizkie [toka]’ formetan bezala, beharbada hirugarren pertsonako *çaye* > *ciayec* modukoena eredura.

- (358) Omenaje eguingo **joat** biçia dodan artean (ErrZar, 22)

Horiez gain, Errodrigo Zaratekoaren kantuan bada adizki ilun bat (359), zeinetan, interpretazioaren arabera, *-x-* har litekeen alokutibo-markatzat, Lazarragaren *banajoa* ‘banoa [noka]’ adizkiko (359) *-j-*ren modukoa (eta cf. Barrutiaren *najoc~naxoc* ‘nau [toka]’). Hala balitz, *\*nagi-* oinarritik *naja(\*g)i-* egin zela ulertu beharko litzateke.

- (359) Bela uic sar **naxaytec** billa Realgo torrean (ErrZar, 23)<sup>90</sup>

Hala eta guztiz ere, txistukari sabaikaritua kontuan hartuz, berdin proposa liteke *\*naizai-* oinarria, eta *\*ezan-ekin* lotu (ikus adizkitegiko oharra: [§ 2.2.1.14](#), s.v. **naxaitek**).<sup>91</sup>

### 3.3.1.4. *z-*

Eite bereko datibo-marka bezala, alokutiboarena denean ere erdi-ekialde osoan ageri da *z-* ezaugarria, baina (nire corpusean) soilik *e-* eta *i-* bokalen aurrean.<sup>92</sup>

Hauek dira datubasean bildu ditudan 13ak, Beriainek dakarren bakarra eta, guztiaren osagarri, Leizarragaren adibide batzuk, ezaugarria erakusten duten erro guztiarik.

#### *\*edun*

- (360) Misterioc **cetuc** erreguen ofrendac (ElduBerts 29)

*egon*

- (361) Acheguina **çeagoc** (NafEs-1, 68 [SGZ, 12])

#### *\*ezan*

- (362) huná, eman vkan drauát eure aitzinera bortha irequia, eta nehorc ecin erts **ceçaquec** hura (Leiz, Apoc, 3:8)

---

<sup>90</sup> Mounolek (2014: 65) Errodrigo Zaratekoaren kantuko adizkia *naixatec* zuzentzen du (259. adibidea lan hartan), baina edonola ere *egin*-etik datorrela proposatzen bide du (izan ere, “[Participe passé + *egin* « faire »]” egituraren adibidetzat ematen du, nahiz eta aditzoina daukan).

<sup>91</sup> Edonola ere, bitxia da *-te* modala (eta *ez -ke*) *egin* zein *\*ezan* aditzekin, baina cf. *\*ezan*-en jatorria ([§ 5.1.1](#)) (edota, adizki honetan besterik ez bada ere, *-ke > -te* aldaketa fonologikoa ez litzateke ezinezko).

<sup>92</sup> Kasuen urritasunagatik, eta ezaugarri ezberdinen halabeharrezko konbinaketagatik, lehenago emandako adibide batzuk errepikatu egingo dira, baina osorik jartzea hobetsi dut argitasunaren mesedetan.

\*enin

- (363) **ecioat** eman nay hor bati arriones (NafEs-1, 97)
- (364) bay, semeari(sic)<sup>93</sup> apurtu **cidate**<sup>94</sup> (NafEs-2, 154) «sí, al hijo me han maltratado»
- (365) guerla eguien dic hayen contra, eta garaithuren **citic** eta hilen (Leiz, Apoc, 11:7)<sup>95</sup>

-io-

- (366) egua **cioat** Christean, **etziotat** gueçurric (Leiz, 1 Tim, 2:7)
- (367) eta erroçue, Magistruac **cioc**, Ene demborá hurbil duc (Leiz, Mt, 26:18)
- (368) Hiri **cionat** allaua, / Ençun neçan allauaiçuna (Zalg, 131)<sup>96</sup>
- (369) Ditzak “bila nezatela” **ziotsak** (OihAts, 112)<sup>97</sup>

\*iron<sup>98</sup>

- (370) Higu dudanaz gaitz diostana / sinets **ziroiat**, nahiz barhana (OihAts, 233)
- (371) “Ecin **ciroquetat**, ceren ençun dic verbum caro factum est” (BerMeza, 112r)

jakin

- (372) ançarac **vaceaquic** deadarr eguiten (ElduBerts 38)
- (373) bay, **eciaquiat**, ayetaric batec ere bat badic (NafEs-2, 103)
- (374) Magistruá **bacequiagu** ecen eguiati aicela (Leiz, Mc, 12:14)
- (375) Hire potac **bacyaquyat** berce gauça nahi dic (Etxep, VIII: 13)
- (376) Gure arteco amoria ehorc **eciaquiqueçu** (Etxep, XII: 18)

joan

- (377) Maingui **cioac** ori (SorgAgot)

<sup>93</sup> Maiorak hala dakar, baina litekeena da <ri> hori egiazki *n* itxurako <u> bat izatea; hots, <semeau>, artikulu hurbilarekin.

<sup>94</sup> Baldin *cidatec* zuzendu edo \**zidaate* ulertu behar bada, eta ez -n gabeko iragan bat (halere, itzulpenak nire interpretazioaren alde egiten duela uste dut).

<sup>95</sup> Oihenartek ere badarabiltza bere poemetan era horretako adizkiak: *zitin* ‘ditin’, *zitikeguk* ‘ditizkeagu’. Orduko zubereraren ezaugarria ala Oihenarten sartalderanzko jaiera ote? Edonola ere, Leizarragak ere badarabiltzan adizkiok analogiaz sortuak behar dute, \**edun*-en bokala \**enin*-enarekin ordezkatutik (*du* / *dik* bikotea eredu), eta historikoki alokutiboen ezaugarri baizik ez den *d* → *z*- aldaketarekin.

<sup>96</sup> Oihenartek antzekoa, adizki berberaz: *Hiri zionat, alaba; adi ezan, alabaizuna* (OihAts, 240).

<sup>97</sup> Interesgarria da Oihenarten *ziotsak*, hirupertsonaletan atxiki ohi zaien -ts atzizkia baitu; cf. autore berak eta Zalgizek dakarten *cionat*, eta Leiz-en *cioc*.

<sup>98</sup> Orobak Etxeberri Ziburukoak eta Oihenartek bere neuritzetan: *Nihork ezin hauta zirok hire minaz zaurthua* (EtxZib, Buru III), *Ur-sortak, ardur arduratuz, Harria xila zirozu* (OihNeur, I: 6).

### 3.3.1.5. -i berezia

Azkenik, bada marka berezi bat (datiborako ere agertu zaiguna) erro ostean, bokalartean doana; zehazki, 2SGM-komunztaduraren aurrean, ekialdeko bi adibideotan:

- (378) Higu dudanaz gaitz diostana / sinets **ziroiat**, nahiz barhana (OihAts, 233)
- (379) Ber-ehun dineroren oguiaz **ezliqueye** asco Leiz, Io, 6:7)<sup>99</sup>

### 3.3.2. Alokutibo-komunztadura

Behin alokutibo-markak ikusirik, datibo-komunztadurarekin egin bezala, alokutiboko “pertsona-komunztadurari” helduko diot orain; hots, adizki alokutiboetan txertatzen den solaskidearen markari.

Alabaina, izeatz, ez da “komunztadura” bat, ez baitu sintaxian den pertsona batekiko lotura morfosintaktikorik egiten, baizik eta, aipatu bezala, uneko solaskidearekin edo hartzalearekin (singularrean betiere).

Ezagun denez, euskaraz bada tratamendu alokutibo orokor bat (hiketa), bai eta dialektalak diren beste bi ere (zuketa eta are mugatuagoa den xuketa). Lehen testuetarik ageri zaizkigu lehen biak, eta egun bezala orokorra da hiketa, euskalki guzti-guztietan ageri denez gero; aldiz, zuketa ekialdeko hizkeretara mugaturik ageri da corpusean ere.<sup>100</sup>

Komunztadurari dagokionez, aurreko ataleko alokutibo-marken kontrara, atzizkitua da beti, datibo-komunztadura bezala (eta ergatibokoa ez bezala); izan ere, oro har, datibo-komunztadura egongo litzatekeen tokian ezarri ohi da, edo haren ondo-ondoan, hura ere ageri denetan.

Horrenbestez, jarraian hiketari eta zuketari dagozkion komunztadura-marken berezitasunak azalduko ditut, banan-banan.

---

<sup>99</sup> Hots, \**like(i?)ae*. Ez da sistematikoa, ordea; izan ere, antzeko testuinguru morfonologikoetan *diquee* ‘dukete [toka]’ eta *citzaquee* ‘ditzakete [toka]’ darabiltza Leizarragak. Halaber, joko alokutibotik kanpo ere aurkitzen da -*ke* morfoaren eta ergatibo-pluralgilearen arteko -*i* hau, baina betiere pluralgilearen -*te* alomorfoarekin, eta batzuetan absolutibo-pluralgile pleonastikoa ere tartekaturik; esaterako, *duqueite*, *dacarqueite*, *ditzaqueizte* (ikus § 3.4.5.3).

<sup>100</sup> Alokutiboen sorburuan dagokeen “datibo etikoa” edo “datibo afektiboa” (Schuchardtek izendatu bezala; cf. Lafon 1943) ezaguna da, jakina, mendebaldean ere; eta horrekin lotu behar da agian adibide hau ere: *ama nagoçu oera* (ArrasErre-3, 26).

### 3.3.2.1. Hiketa alokutiboaren komunztadura markak

Honezkerio behin baino gehiagotan errepikatu bezala, alokutiboko komunztadura-marka berak datibokoen berdinak dira; horregatik, ez dut hemen berariazko adibiderik jarriko (balia bitez orain arte emandakoak eta ondotik datozenak).

Hortaz, jarraian markon berezitasun formalak aipatuko ditut, beharrezko denean datiboko formekiko aldeak eta antzekotasunak nabarmenduz.

#### 3.3.2.1.1. *Marka fusionatua*

Pertsona-komunztaduraren antzera, alokutibo-komunztadura ere ondoko morfoen bokalekin elkartzean haietan bat egin du hainbat kasutan, arrastoren bat utzirik zenbaitetan (azentu markatua eta alomorfo zaharragoen zantzuak). Halere, eta corpusaren ezaugarrien ondorioz, ekialdeko adibideak baino ez ditut atal honetarako, eta gehien-gehienak Leizarragarenak.

\*aa > a

Adizki batzuetan, 2SGM-aren morfoa “falta” da, itxuraz, dela aditz-erroaren (384, 385), dela 3SG-eko komunztadura-markaren (380-382 eta, etimologikoki, 387) nahiz 1SG-ekoaren (386) bokalari lotu eta bakuntzearen ondorioz. Aipatzeko da ezen kasu gehienetan bokal bakunduan dutela azentu grafikoa Leiz-en testuan (azentua beretzen duten ezezko eta baiezko partikulekikoetan salbu).

- (380) Halacotz laudorio emanen drauat hiri Gentilén artean, eta hire icenari cantaturen **diarocát** (Leiz, Rom, 9:15)
- (381) bide cen ohorea ez obedientia hire hitz sainduari **eztiraucagu** ekarri ez rendatu (Leiz, Othoitz 1272-22)
- (382) Esquerrac emaiten **dirautzat** neure Iaincoari (Leiz, Philem, 4)
- (383) eta **badiacussagu** Iauna (Leiz, ABC 1404-1)
- (384) eta lehenac har **cieçán** emazte (Leiz, Mc, 12:20)
- (385) ençun **nieçán** vozbat niri minço çaitadala (Leiz, Act, 26:14)
- (386) Eta harc erran **cieçadán**, Ni nauc (...) (Leiz, Act, 26:15)
- (387) Hiretaco **eziaducat** guerthuz neure buruya (Etxep, XII: 40)<sup>101</sup>

---

<sup>101</sup> Cf. Laz jaucaat.

\**ae > e*

Beste kasu batzuetan, ergatibo pluralaren *-e* alomorfo zaharrarekin batu da 2SG-aren marka (M nahiz F), bokal hori dela geratzen dena; alabaina, hemen ere ikusten da bokal horrek azentua hartzeko joera (Leizarragak ez ezik Voltoirek ere grafikoki adierazten baitu; oraingoan baieztapen aurrizkia duenak ere bai).

- (388) eta bere puissançá eta authoritatea bestiari emanen **diarocoé** (Leiz, Apoc, 17:13)
- (389) eta berceac icitu içan dituc, eta eman **diraucoé** gloria ceruco Iaincoari (Leiz, Apoc, 17:13)
- (390) bere buruäc Iudu eguiten baitituzté eta ezpaitirada, aitzitic gueçurra **cioé** (Leiz, Apoc, 3:9)
- (391) Eta ecin phoroga **citzaqueé** ni orain accusatzen nauten gauçác (Leiz, Act, 24:13)
- (392) Iauna, hec **baceaquié** ecen ni presoindeguira eşarten ari nincela (Leiz, Act, 22:19)
- (393) aitzitic guciéc abandonnatu vkan **niaué** (Leiz, 2 Tim, 4:16)
- (394) Eta ezníe templean eriden nehorequin disputatzen ari naicela (Leiz, Act, 24:12)
- (395) Bainha gure arteco emazte batzuc-ere icitu **guiaitié** (Leiz, Lc, 24:22)
- (396) eta eztiquee permettituren hayen gorputzac eçar ditecen sepulturatan (Leiz, Apoc, 11:9)
- (397) ecen eztitie ikutzen bere escuac oguia iaten dutenean (Leiz, Mt, 15:2)
- (398) Iaincoa dun Spiritu: eta hora adoratzen dutenéc, spirituz eta eguiaz adoratu behar **diné** (Leiz, Io, 4:24)
- (399) Gure aitéc ian vkan **dié** manná desertuan (Leiz, Io, 6:31)
- (400) Han dire nec bethi **die** suyan pena handia (Etxep, XIII: 69)
- (401) icusten **dié** «ellos veen — ils voient» (Volt, 15)<sup>102</sup>

### 3.3.2.1.2. Marka indartua

Datiboko pertsona-komunztaduraren kasuan bezala, eta beharbada haren analogiaz, alomorfo indartua garatu zuen alokutibokoak ere Nafarroan bederen. Hala, mendebaldean *deustat* den bezala, eta bokal osteko kokagunera ere hedaturik, Beriainen lekukotasun batean (402) alokutibo-komunztadura *-ta-* da adizki-barnean.

- (402) Ecin **ciroquetat**, ceren ençun dic verbum caro factum est (BerMeza, 112r)

---

<sup>102</sup> Hiztegiko aditz joko osoan zehar berdin egiten du (*erraten dié, ic-husi dié...*). Iraganean çiteen ‘zitean’ darabil, baina kontu grafiko-fonologikoa edo analogiaren ondoriozkoa dirudi (cf. *gaitien~gueytyan* ‘gaitezen’; halaber singularreko *cien* ‘(hark) zian’, eta lehen pertsonako *nien* ‘nian’ vs orainaldiko *diat*).

Hain zuzen, Caminok (2003: 67) hegoaldeko goi-nafarreraren eremu jakin bateko ezaugarritzat dauka (Izarbeibar barne), non erregularki ageri den *-ta* hitz akabuan; besteak beste, hauek bildu zituen Aezkoan: *xeota* ‘zegoan’, *xitxeidata* ‘zitzaidaan’.

### 3.3.2.1.3. Markaren kokaguneaz

Datibo-komunztadurari buruz aritzean zehaztu dudan ordenari jarraitzen dio alokutiboarenak ere (oro har, egun bezala), hau da, [ABS-ERG]. Areago, egungo hizkera batzuetan (eta euskara estandarrean) salbuespen gisa alokutibo-komunztaduraren marka (batik bat maskulinoa) ergatibo-pluralgilearen ondoren kokatzen bada ere (*ditek* ‘dute [toka]’, *ziotek* ‘diote [toka]’, *zitzaketek* ‘ditzakete [toka]’), Leizarragak, esaterako, sistematikoki kokatzen du pluralgilea amaieran, [§ 3.3.2.1.1](#)-en erakutsitako *\*ae > é* emaitzarekin (*dié*, *cioé*, *citzaquéé*). Izan ere, ez dut datibo-komunztaduraren kasuan bezalako “ezohiko” kokagunerik ikusi<sup>103</sup> (salbu *naxaytec* ilunean, baldin *-te* ergatibo pluralgilea bada, baina ikus (359) adibideari egindako oharrak eta, adizkitegian, [§ 2.2.1.14](#), s.v. **naxaitek**).

### 3.3.2.1.4. Hiketaren erabilera eta generoen arteko aldea

Tarte batez alokutibotasunaren eremutik irtenaz, aipatu dudan hiketaren berezitasunetako bat hartzailearen generoaren araberako morfologia da. Jakingarria iruditu zait eta, beraz, hona dakart forma maskulinoen (toka) eta femeninoen (noka) erabileraren azterketa, alokutiboko formak ez ezik, oro har hitanokoak kontuan hartuaz.<sup>104</sup>


Lehenik, nabarmendu behar da Leizarragak sistematikoki erabili zuela hiketa 2. pertsona singularrari zuzenduriko pasarteetan, eta Etxeparek ere aski maiz jo zuela tratamendu horretara, bai irakurle implizituari hitz egitean, bai beste arrazoi batzuengatik ere (esaterako, bere buruari zuzentzen zaionean). Errefrauetan ere ohikoa da hiketa, baina ez alokutiboa.

<sup>103</sup> Egungo hizkeretan badira halako batzuk, gehiago edo gutxiago hedatuak, hala nola *juek* (eta horren aldaerak) eta *di(t)ek* ‘dute [toka]’, edo *diguk* ‘dugu [toka]’ (Aezkoan eta baxenafarreraren zati batean) eta *jo(g)uk~joa(g)uk* (Bizkai sartaldean).

<sup>104</sup> Kanpoan utzi ditut genero-bereizkuntzarik egiten ez duten datubaseko 14 forma aurritzak (*h-* edo *ø-* dutenak, alegia) eta, beraz, *hitano* edo *hiketa* termino orokorrak eta haiei dagozkien kopuruak adiera murritzut horretan ulertu behar dira hemen.

Bigarrenik, noka gutxiago agertzen da corpusean toka baino, eta igorlearen generoa ez baizik eta hartzalearen kontuan hartzen denez, ezin azal daiteke zuzenean autore gehienak gizonezkoak izatearekin. Hortaz, bi aukera (ez elkarren baztergarri) daude: edo hiketako jardunaren zati handiena gizonezkoei zuzendua da (irakurle nahiz testu barruko pertsona(ia) izan), edo toka berezko formatzat (“neutro” gisa) erabili zen, hizkuntza idatzian bederen.

Datuak laburbilduz, datubasean bildutako adizkien artean, hiketakoak (alokutiboak nahiz neutroak) % 7,3 dira. Horien barruan (ik. 2. irudia), tokako formak % 90 dira, eta nokakoak, % 10. Alokutibokoak, aldiz, hiketako adizki guztien % 18,4 dira, baina aldea dago bi generoen artean: tokakoentzat alokutiboak % 17,5 dira, baina, nokakoetan % 27.




## 2. irudia: hiketako adizkien kopuruak eta ehunekoak

Azken alde handi samar hori datu-multzo berezi baten eragina da: ahozkotik gertuen dauden nafar auzietako lekukotasunak. Istan ere, baldin testuinguru horretako datuok soilik har baditzagu (3. irudia), ikusiko dugu nokaren presentzia nabarmen handiagoa erakusten dutela (esaldiotako hiketako adizkien % 26,8, vs % 10 orokorra); bai eta forma alokutiboen proportzio handiagoa ere bi generoetan (tokakoentzat % 38,3 eta nokakoentzat % 40,9 vs % 17,5 eta % 27 orokorrak, hurrenez hurren; askoz ere parekatuago, beraz). Azpimarratzekoa da, halaber, lekukotasunotan hiketakoak adizki guztien % 21,5

### 3. Datibo-komunztaduraren ezaugarriak Euskara Arkaikoko adizkietan

direla (vs % 7,3 orokorra) eta, ondorioz, nahiz eta nafar auzietako adizkiak datubaseko guztien % 5,1 baino ez izan, hiketakoetan % 15eko dela portzentaje hori.



#### 3. irudia: nafar auzietako hiketako adizkien kopuruak eta ehunekoak

Edonola ere, alde handia dago tokako eta nokako adizki-kopuruuen artean eta, beharbada, horren zioa orduan gizonek “bizitza publiko” nabarmenagoa izatean datza, edota beren arteko liskarrak ugariago izatean (auzibideetara iristen zirenak bederen). Nolanahi ere, lekukotasunok erakusten dute nokaren erabilera ohikoa zela artean.

##### 3.3.2.2. Zuketa alokutiboaren komunztadura markak

Euskarak duen beste tratamendu alokutiboa zuketa da, agidanez *zu* jada singularra zenean gramatikalizatu zena; hiketa alokutiboa baino berankorragoa eta, beraz, dialektalki mugatua, testuek eta oro har erabilera historiko eta modernoak erakusten dutenez. Hala, pentsa daiteke hiketaren ereduari jarraituz eratu zela, alde bakarra pertsona-komunztadura baita.

###### 3.3.2.2.1. Zuketa alokutiboaren hedadura

Deskribapenen arabera, tratamendu hau ekialdean erabili izan da (Alberdi 1995), eta hala da nire datubasean ere: Zaraitzuko (404), Erronkaribarko (403-405), Nafarroa

Behereko (406-409) eta Zuberoako (410-415) testuetan, zehazki. Nabarmentzekoa da, aitzitik, errefraueta (Bela, Oih, Zalg) ez dela behin ere ageri, hiketa ez bezala. Hona hemen Nafarroa Behereko testuetatik kanpoko adizki guztiak, eta eremu hartako bi autoreen (Etxauz, Etxep) bina adibide:

- (403) compon bite, Maria, nombayt ilquico **duçu**, baldinba (NafEs-2, 137)
- (404) Respuesta aor eguiten **dicut** çure gutunari (RosEtx-10, 2r: 3)
- (405) Hegun goyçean, Agustin Martin Uztarrozecoac ygorri **derautaçu** ynformacione eguin duena agot oñaren eta bere lagunen contra (RosEtx-15a, 1r: 12)
- (406) Iangoycua ari **duçu** hala hala gurequi (Etxep, I: 7)
- (407) Are elgarrequi vehar **diguçu** (Etxep, X: 17)
- (408) Heven àhal beçala **nuçu** (Etxauz, 5)
- (409) Berçe çerbiçariec oroc vci **dicie** (Etxauz, 10)
- (410) Hil haniz bi aldetaric, hamasei mila, baratu **ditucu** canpouan (EspGut, 1: 9)
- (411) Oray berian recebitu **dicit** çure guthuna Athardatzeco mercatuan (EtxRos, 05, 1r: 1)
- (412) eci guero beldur **nuçu** iaun abbade doctor Behety, çoin baita iaun eguiascoa eta bidescoa, ezteçagun herry huntan ardietz eta ukana (EtxRos, 03, 2r: 4)
- (413) Hainbercerequ ny **nuqueçu** çure ayço eta adisqu[id]e hun (EtxRos, 02, 2r: 19)<sup>105</sup>
- (414) bay-eta hun **luqueçu** cien vicerregue iauna icenta ladin cien erregue / iaunaren deputacionian (EtxRos, 03, 1v: 12)
- (415) nic **dioçut** eguiasqui, haren procuradore beçala (EtxRos, 07, 1v: 2)

### 3.3.2.2. Komunztadura-markaren bokal asimilatua

Hedaduran ez ezik, jakina, morfologian ere badira aldeak. Komunztadura marka ezberdina izateaz gain, badira bi gertakari markagarri, maiztasunagatik ezin pareka daitezkeen arren.

Batetik, aurreko adibideetako batean (409) agertzen den asimilazio bokalikoa dugu, non komunztadura-markako bokala errokoarekin berdintzen den (*dizut* → *dizit*; cf. Rosen *dicut* (404) asimilatu gabea). Asimilazio hori beste morfo bat (zehazki, *-ke*) tarteko delarik ere gerta daiteke edo, bestela esanda, *-ke-dun* adizkiak forma asimilatutik

---

<sup>105</sup> Adizki hori berori beste hiru alditan ere badarabil Etxartek, agurtzeko formula ezberdin batean, bera beti: *eta nukezu zure zerbitzari*. Aipagarria da azken hitzaren aldaera ezberdin bana daramatela esaldiok: *çerbitzari* (05), *çerbutchari* (06a), *çerbutzari* (07).

### 3. Datibo-komunztaduraren ezaugarriak Euskara Arkaikoko adizkietan

abiaturik sortzen direla esan daiteke (gerora bildutako lekukotasunetan bezala; cf. Videgain 1983). Areago, bada adizki bat zeinetan tarteko pertsona-komunztadura ere asimilatu den (418).<sup>106</sup>

- (416) eta **eniçi** pagatu nahi (Etxauz, 7)
- (417) Segur oray **enyqueci** dudan gogoan veharra (Etxep, VI: 22)
- (418) Sobera **diguici** eguyn beqhatu (Etxep, X: 14)

Bestalde, azken adibidean ikus daitekeen bezala, Etxeparek (\**edun* →) \**enin* erroko forma horretan alokutibo-komunztadura “kanporatu” du, hiketako nahiz zuketako beste forma alokutiboekin alderatuz ez legokiokeen tokian ezaririk (*dizugu* → *diguzu*).

#### 3.3.2.2.3. Komunztadura-markaren kontsonante asimilatua

Azkenik, datiboko morfoarekin gertatzen zen gisan, bada zuketako adibide bat non alokutibo-komunztaduraren txistukaria errokoarekin batu den afrikatu batean (<x> = /ts/):

- (419) Guhaurc vano segurago gogua **diacuxu** (Etxep, I: 203)

Alabaina, adibide honen bitxitasuna ez datza asimilazioan, baizik eta, Etxepareraren (eta oro har, ekialdeko autoreen) *ikusi* erroko beste adizkiekin alderatuz gero, elkartze hori eragotzi ez duen bokalean. Izan ere, *dakutsu* neutroa eta *diakutsu* alokutiboa ez ezik, *dakusazu* eta *diakusazut* ere badarabiltza Etxeparek.

#### 3.3.2.2.4. Markaren kokaguneaz

Ikusi dugu ([§ 3.3.2.1.3](#)) hitano alokutiboan ez dela salbuespenik, baina zuketa alokutiboko adibide bat badut datubasean ezohiko hurrenkerarekin: arestian aipatu Etxepareraren *diguici* (418), hain zuzen.

### 3.3.3. Alokutibo-markak: ondorio labur batzuk

Honenbestez, alokutibo-jokoa aztertuta bi motatako ondorioak atera daitezke, datibo-komunztadurarekiko antzak eta desberdintasunak kontuan hartuz.

<sup>106</sup> Badira salbuespenak Etxeparereren testuan (bi *nikezu* ‘nuke [zuka]’, eta beste bi *diguzu* ‘dugu [zuka]’). Alabaina, Altunak (1980: 154, 199) ikusi zuen bezala, errimaginean dira denak, -zu duten beste adizki batzuen artean; aldiz, bertsolerro barruan agertzen diren bakarrak (*digizi* hau eta *nikezi* bat) forma asimilatuak dira.

Alde batetik, ikusi dugu datibo-komunztaduraren marka asko alokutiborako ere erabiltzen direla, baina ez guztiak; zaharrenak izateko aukera handiena duten erro aurrekoak soilik, hain zuzen. Izan ere, datiboak baitu atzizki berezi batzuk (\*-gi, -ts), alokutiboan ageri ez direnak (Oihenarten *ziotsak* gorabehera). Aurrizkiei dagokienez, berriz, mendebaldean datiboarekiko lotura agerikoagoa da, bietarako erabiltzen baita *j-*. Erdi-ekialdean, *z(i)-* zein *di-* daukagu alokutiboetan, hizkeraren eta aditzaren arabera, baina bigarrena soilik, izatekotan, datibokoetan; aldiz, *z-* orokorra da eremu horretan N-N<sub>i</sub> laguntzailearen hasieran.

Bestetik, isoglosa ezberdinak marrazten ditu \*enin laguntzaileak datibo-komunztadura ala alokutibokoa markatzeko den, gramatikalizazio geruza eta hedatzeen kronologia erlatibo ezberdinen zantzu gisa.

Xehetasun formaletan sakonduz, alokutibo-komunztadurak datiboarenaren kokagune bera (edo, hura ere badenean, haren ondo-ondokoa) hartu ohi du, egun bezala. Egiari zor, *zuketako* formaren batean ezohiko ordena ikusi dugu (datibokoetan, aldiz, *hiketan* gertatzen da), baina lekukotasun gutxiegi dira ezer ondorioztatzeko, eta geroagoko datuak kontuan hartu behar dira. Hala, bi joera ikusten dira kontrakarrean, azpian dituzten zioak bezala. Batetik, badirudi gizonezkoen hitanoko -k hartu dela markaren alomorfo nagusitzat (*derukat?*) eta, ondorioz, horren ohiko kokalekura eraman da forma batzuean (*drazaketek*); halaber, ikusi dugu pluralgilearen alomorfo zaharrarekin batzean *ae > e* gertatu zela, alokutiboaren marka estaliz, eta baliteke halakoetan hura markatzeko beharra sentiturik berriz erantsi izana, oinarrizko formaren amaieran (*drauēan* ‘diaten’ ← \**drauek* ← *draue* ‘diate’ < \**drauae*). Bestetik, N-N<sub>k</sub> alokutiboko formetan beranduago gertatu zatekeen aldaketa hori berori, datiboko formen analogiaz (*drauec* ‘diek’ / *dirauec* ‘ziek’ vs *draue* ‘diate’, *die* ‘ditek’).

Esan bezala, lekukotasun zaharrak ez dira nahi genukeen bezain oparoak eta ikuspegia testu berantiarragoetara zabaldu beharra dago zenbait formaren berri jakiteko. Kontuan hartuta alokutiboko eta oro har hitanoko formak ez direla ugariak idatzietan, Bonaparteren tauletako eta Larramendiren gramatikako datuak ere kontuan hartu beharrekoak dira, fenomenoaren zenbait zertzeladari behatzeko. Horrek guztiak datibo-komunztaduraren garapenean eta euskararen dialektalizazio prozesuan zerbait argitzeko oinarria jar lezake.

## 3.4. Datibo-komunztaduraren eta beste morfoen arteko harreman sintagmatiko-paradigmatikoak

Atal honetan datibo-komunztadurak (nahiz alokutibokoak) eta haren inguruko markek aditzeko beste morfoekin dituzten harreman sintagmatikoak (hots, zuzenean eragin eta pairatu aldaketa fonologikoak) eta paradigmaticoak (aldaketa horien mugak, hedapenak, fonologiaz kanpokoak) ikertuko ditut, irregularitasunei nahiz analogiak eragin ahal izan dituen erregularitasunei antzemateko asmoz. Hasiera batean aurreko atalen antza har badakioke ere, gogoan izan behar da haietan datibo-marka bakoitzaren eta komunztadurari dagozkion pertsona marken alomorfoez aritu naizela. Oraingoan, bada, horiei beste ikuspegi batetik begiratzeaz gain, pluralgileez eta beste argumentuen komunztadura-markez ere arituko naiz, bai eta morfoen aditz-barneko kokalekuaz eta agerpen konbinaketa aukerez eta maiztasunez ere, betiere euskalkien arteko aldeak eta bilakaera diakronikoen zantzuak aurkitzeko xedearekin.

### 3.4.1. Pertsona-komunztaduren markekikoak

Aurreko atal batean ([§ 3.2](#)) ikusi ditugu datiboko pertsona-komunztadurarekikoak. Oraingoan, datibo-markek beste argumentuen marken gainean duten eragina izango dut hizpide.

#### 3.4.1.1. Ergatiboa

Jakina denez, ergatibo-komunztadurak berezitasun bat du pertsona-markei dagokienez: denbora-moduen arabera, atzizkiak ala aurrizkiak izango dira (sinkronikoki *ergatiboaren lekualdatzea* deritzogun fenomenoaren ondorioz; Laka 1988). Atzizkien kasuan, datibo-komunztadurari dagozkion marken atzetik ezartzen direnez, ez da espero datibo-markekiko inolako harreman sintagmatikorik. Aurritzkiak kasuan, ordea, nahiz eta teorian denbora-moduen markek hartzen duten pertsona-marken ondo-ondoko kokalekua, aditz trantsitiboetan ez da halakorik, baizik eta 3. pertsonaren (*z-* gabeko) formari gehituriko pertsona-markak; adibide garbia da, esaterako, mendebaldeko *eban* → *n-eban*, baina gauza bera gertatzen da, *z-* gorabehera, ekialdeko eta estandarreko formekin: (*z)uen* → *n-uen*, azken batean guztiak \**e-du-* oinarrizko protoformatik

(Ariztimuño 2013a: 57). Orobak gertatzen da ditrantsitiboekin ere, datibo-marka aurrizkiturik ez denean: *eutsan* → *n-eutsan*.

Horiek horrela, datibo-marka aurrizkitua duen orainaldiaz kanpoko adizki ditrantsitiboak behar ziren, eta kasu bakarra topatu dut datubasean: *ñagon* ‘nion’:

- (420) Egun ascotan nic eguin **ñagon** / modu ascotan erregua (Laz, A21: 5)

Sasi-hapaxa izaki (autore bakarrak erabilia, bost aldiz bada ere) eta azalpen xeheagoa behar zuela iritzita, atal berezia eskainiko diot adizki horri eta beraren paradigmari, azalpen etimologikoa eta berrirakurketa filologikoa defendatuz (ikus [§ 4.4.1](#)). Oraingoz, \**njagon* berreraikiko dudan aitzin-forma baten bidez azalduko dut soilik Lazarragak idatzi duen *ñagon* adizkia, zeina iparralderago \**niagon* zatekeen (cf. Laz *jago* vs SumBr eta OArin *diago* ‘dio’),<sup>107</sup> eta alokutiboetako “bustidura” batzuk gogorarazten dituena, bai Arratia eta Oñati inguruko *ñoan* ‘nian’, bai Arratia inguruko zenbait herritako *ñotzan* (eta aldaerak) ‘nioan’, eta halaber Aezkoako *ñakota* ‘nioan’ erakoak (ikus [§ 6.2.2.1](#)).

### 3.4.1.2. Absolutiboa

Jakina denez, absolutiboaren komunztadura-marka aurrizkia da beti; hortaz, harten eragin lezaketen datibo-markek ere aurrizkiak beharko dute izan; eta, izan ere, *i-* eta *j-* formez aipatu dudana baino ezin liteke, lekualdaturiko ergatibo-markaren kasuan bezala.

Tamalez, ez dut corpusean ezaugarri hau izan lezakeen kasu garbirik; hots, \**nj-* > *ñ-* bezalakorik. Aurreko ataleko adibidea kontuan izanda, Lazarragaren testuan aurkitzea espero zitekeen arren, harten *banajoan* ‘banoa [noketa]’ aurkitzen da (355), non *-j-* elementua *na-ren* ondoren ageri den, komunztadurako kontsonantea aldarazi gabe.

Nolanahi ere, geroko lekukotasun eta deskribapenek ergatiboko aurrizkiaren “bustiduraren” eremu bertsuan kokatzen dute absolutibokoarena (alokutiboko formetan betiere): esaterako, Arratia inguruko *ñoiak* ‘nihoak’, *ñok* ‘naik’ (eta *balletok* ‘baletorrek’) eta abar, edota Aezkoako *ñagok* ‘nagok’ (ikus [§ 6.2.2.1](#)).

---

<sup>107</sup> Hain zuzen ere, eta interpretazio zuzena bada, izartxozi eman dudan forma ageri da AzkPo-eten: A8 *niagon* (ikus [§ 4.4.2](#)-ko *Postscriptum* atala).

### 3.4.2. Pluralgileekikoak

Atal honetan adizkietako pluralgileen forman jarriko dut arreta. Aurrekoetan bezala, hipotesia da datibo-markak, ezartzen zenean, eragina izango zuela inguruko beste marketan, baita pluralgileetan ere, ohiko hots-aldaketen bidez.

Hala ere, kontuan izan behar da, batetik, pluraletan zenbait berrikuntza morfologiko gertatuko zela (esaterako, *zuek* plural berria, *zu-ren* eta *gu-ren* zenbait forma pleonastiko, pluralgileen hedapen analogikoak, etab.), eta bestelako aldaaketak ere izan zitezkeela (3. pertsona pluralaren berregokitzapena singularrekoaren arabera, esaterako); hortaz, hots-aldaleta erregularrak nahiz kasuan kasukoak ez ezik (eta haien itxuraldatzeen eraginez), analogia presente izango dela eta berreraiketan kontuan izan beharrekoa datekeela aurreikus daiteke.

#### 3.4.2.1. Datibo-pluralgilea

Euskara estandarrean beti *-e* den marka honek bi alomorfo ditu datubasean: *-e* eta *-te*. Bigarren alomorfoa erdi-ekialdeko hainbat hizkeratan erabiltzen da egun ere sistematikoki, betiere singularreko *-o-ri* erantsirik (esaterako, *diote*, *dakote* ‘die’ edo *zaiote*, *zakote* ‘zaie’); hortik kanpo, Oñatiko *doste* ‘die’, eta Oñati-Aramaio arteko *xate~jate* ‘zaie’ nahiz Azpeiti-Zegama arteko zerrendako *zate* ‘zaie’ ditugu (dagoeneko Otxoa Arinek dakarrena).

Datubasean, izan ere, *-te* alomorfoaren adibide gehienak mendebaldeko testuetakoak dira, txistukari ondoren (*\*edutsi*) ageri direnak batik bat (421), bai eta *izan-en* N-N<sub>i</sub> paradigmako formarenak (422). Ezaguna da halakoak orokorrak direla mendebaldeko lekukotasun zaharretan: Lazarragaren eskuizkribuan edo Zumarragakoaren gutunean ez ezik, Mikoletaren testuan eta Kapanagaren dotrinan ere bai. Horiez gain, bada Aresoko otoitzetan txisukari osteko *-te* bat (423), eta mendebaldeko XVII. mende erdialdeko adizki bat ere badakart, beste erro baten lekuko (424).

- (421)    *guc gueure çordunay / parquetan deusteguna leguez* (Bet, 2: 14)
- (422)    *ainbat sartu jate çure bildur[ra]* (Laz, B3:77)
- (423)    *g[uc] / barçaçen diztegun / beçala guere ç[ordu]/ney* (AresOt-PatNos2, 6r: 12)
- (424)    *Yte.— Ceinzuc dire, edo celan dereste?* (VJ, 5: 5)

Bokal osteko testuinguru argian (-o markaren ondoren), berriz, soilik hegoaldeko Goi-nafarreraz ageri zaigu corpusean (425-427, eta beherago 484, 485); gerora, esan bezala, askoz ere hedatuago aurkitzen da (Camino 2013; Reguero 2019: 455-456).

- (425) napur charrorreq gueyaco ebasten **draucotec** (NafEs-2, 100)
- (426) edoceyn necessidade dutenendaco prometacen **zayote** remedio (BerMeza, 53v)
- (427) Onetan confessacen dugula guc barcacen **diotegula** injuriatu eta agraviatu gaytuzteney (BerMeza, 93r)

Horrez gain, bada beste testuinguru bat non -te alomorfoa ageri den, orokor itxura duena (hots, mendebaldean eta ekialdean dokumentatua): N-N<sub>i</sub> konfigurazioako adizki trinko zenbaiten erroaren ondoan.

- (428) Ni beçala anhiz duçu halacoric munduan / Mende oro **dohatenic** bethi vanaglorian (Etxep, II: 83)
- (429) ceñay escuac /ascaetan **egotela** Silvero eta Dorido... (Laz, AL 1154v:18)
- (430) (...) eta gueçurti guciey partea assignatua **dagote** suz eta suphrez dachecan stagnean (Leiz, Apoc 22:8)
- (431) nola bai-ta **dagotenei** ohore emaitea (Mat-A, 120)
- (432) (...) aleguera ahal gaitezque, daquigunean ecen Iaincoac hala bridá heRStua **diadutela** (Leiz, Catech 1297-19)
- (433) eta ciraden çazpi lampa suz **çachetenic** throno aitzinean (Leiz, Apoc 4:5)
- (434) Ene manamenduey **datchetena**, eta hec beguiratzen dituena, da niri on daritzana (Leiz, Io 14:21)

Adibide guztiotako adizkiek gauza bat dute komun, datibo-komunztaduraz gain: -k(i) atzizkia esperoko litzateke, dela partizipioari zegokiolako (*eduki, atxiki, izeki*, eta lexikalizaturiko *egoki*),<sup>108</sup> dela paradigmako beste formetan agertzen (edo igartzen) delako (*dohako, dohaku, joaku, dagoka, dagoku, jako, jaku...*).

#### 3.4.2.2. Absolutibo-pluralgilea

Datubasean ia adibide garbirik ez bada ere, Euskara Arkaiko eta Zaharreko corpus osoagoan (batik bat Leizarragaren eta Lapurdi inguruko beste autore batzuen testuetan), fenomeno bitxi bat gertatzen da. Datibo-marka agerikoa duten absolutibo singularreko

---

<sup>108</sup> *Dagote* forma, jarri ditudan adibideetatik kanpo, Oihenarteren neuritzetan, Loiolako Dotrinan, edota Larramendiren Andoaingo sermoian ere aurkitu dut; Lazarragaren iraganeko forma kontuan hartuz, adizki orokorra izan zela ondoriozta daiteke.

adizkiek (*derauko-ren* modukoak) absolutibo-pluralgilea hartzean (aldaera afrikatua betiere), datibo-marka “desagertu” egiten da batzuetan: hots, *-k(i)o/-ka* → *-zk(i)o/-zka* egin ordez, *-tza* (ik. § 3.4.5.1).

Esan bezala, ez da orokorra, ez eta autore guztietan sistematikoa ere, bereziki Leizaragaren itzulpenean (beharbada esku bat baino gehiago izan zelako), non, adibidez, *zaizkio, zaizko, zaizka* eta *zaitza* aldaerak ere erabiltzen diren.

- (435) Dio ezin ogeye eta amabost mila guizon Amiansy **daozala** (EspGut, 11: 5)<sup>109</sup>
- (436) eratchequiren **drautza** hari Iaincoac liburu hunetan scribatuac diraden plagác (Leiz, Apoc, 22:18)
- (437) Chindurriari **daquitzanean** egoac (...) (Isas, 21)<sup>110</sup>
- (438) Lagun **çaquitça**, beraz (Mat-A, 9)

Beste berezitasun bat Leizaragaren honako adizki honek dakar (ez nahastu *drauece* ‘diete’ (448) formarekin).

- (439) eta presentac igorriren **dirauecέ** elkarri (Leiz, Apoc, 11:10)

Ikusten denez, pluralgilearen alomorfo frikaria du oraingoan, eta, ez halabeharrez, ezohiko kokagunean doa, datibo-pluralgilearen ondoren (nahiz eta, beharbada, datibo singularra espero zitekeen *elkarri* izenordainarekin), baina, dirudienez, alokutibo-komunztaduraren ezkerretara (\*-e-z(a)-a-e > -eze).

### 3.4.2.3. Ergatibo-pluralgilea

Datibo-pluralgilearen kontrara, euskara estandarrean *-te* du alomorfo bakarra ergatibogarenak, eta (alokutibotik kanpo) hala da egun Gipuzkoa ipar-ekialdean, Nafarroa Garai gehienean, Lapurdin eta Nafarroa Beherean. Lekukotasun zaharrenetan ere hala da, oro har (Nafarroa Behereko euskararako, ikus Camino 2008: 149-150); ordea, badira eremu horretan salbuespen nabarmenak, non *-e* alomorfoa agertzen den bokalarteko \*-de zaharraren emaitza gisa, datiboko pertsona-komunztadura jakin batzuen ondotik eta, oro har, morfo haietkin fusionaturik, fosildua.

---

<sup>109</sup> *Daozala* ‘dagotzala, dagozkiola’ dela ulerturik, batetik, *daoz* ‘daude’ ez delako ekialdeko aldaera, eta bestetik, *Amiansy* datiboa delako.

<sup>110</sup> Formaz bederen indikatiboz kanpoko NOR-NORI laguntzailearekin parekatzen baitut (~*dakizkion*), *daquila* (302) bezala (TAV: 124; Reguero 2019: 191); ikus § 5.3.

Dagoeneko horrelako adizki ugari aurkeztu ditut (fusionatutako markei dagokien ataletan); hortaz, halako morfo-konbinaketa bakoitzeko adibide pare bat baino ez dut emango, fenomenoaren erakusgarri eta lehenago aipatutako besteei erreferentzia eginez.

**\*-da-e [1SG.DAT-3PL.ERG]** (ikus 233-237)

- (440) Hitz ounaq ematen **derauxte** (Volt, 232)
- (441) Huneçaz testimoniaje ecar ahal **dieçaquedé** principalqui cargu hunen hartcera incitatu ucan nautenec (Leiz, Dedic 251-26)

Horiez gain, atzizkiak fusionatu gabeko honako hapax hau aurkitu dut EspGut-ean:

- (442) Jauna: parte oretaco adisquideren bazeuec gastigatou **didage**<sup>111</sup> ezin (...) (EspGut, 14: 2)

**\*-a-e [2SGM.DAT-3PL.ERG]** (ikus 257-259)

- (443) Ihardets cieçon Iesusec, Euroren burutic hic hori erraitē duc, ala bercéc errā **draue** niçaz? (Leiz, Io 18:34)

**\*-zue-e [2PLPL.DAT-3PL.ERG]**

- (444) vngui eguięue gaitz **daritzuëney** (Leiz, Mt 5:44)
- (445) Eta gauça hauc eguien **drauzquięue**, ceren ezpaitute ećagutu Aita, ez ni (Leiz, Io 16:3)

**\*-e-e [3PL.DAT-3PL.ERG]**

- (446) ecen vicitze gaichtotacoec-ere vicitze gaichtotacoey prestatzen **draue**, ordaina recebi deçatençat (Leiz, Lc 6:34)
- (447) othoi citzaten Gentiléc hurreneco Sabbathoan hitz hauc hæy declara **lietzén** (Leiz, Act 13:42)

**\*-e-za-e [3PL.DAT-ZA-3PL.ERG]**

- (448) Hala senharréc on eritzi behar **drauece** bere emaztey nola bere gorputzey (Leiz, Eph, 5:28)<sup>112</sup>

Ikusten denez, aldaera honen berezitasuna ez datza soilik -e alomorfoa erakustean, baizik eta horren aurretik espero ez den beste morfo bat ere agertzean: -z(a) pluralgilea ([DAT.PL-ERG.PL] konbinaketaren berezitasunez ikus [§ 3.4.5.2](#)).

---

<sup>111</sup> Testuko beste hitz batzuetan bezala, uste dut <g> hori sabaiaurreko bokalerdi gisa irakurri behar dela (cf. *Bagona* ‘Baiona’, *digoa* ‘doa’, *dioge* ‘diote, esaten dute’, besteak beste):

<sup>112</sup> Cf. *draue* ‘diete’ (446) eta, aldiz, *dirauece* ‘zizkietek’ (439).

*Alokutibokoak* (ikus 382-395 adibideak)

\*-(n)a-e [HIKETA-3PL.ERG]

(449) an dire nec bethi **die** suyan pena handia (Etxep, XIII: 69)

(450) Iaincoa dun Spiritu: eta hora adoratzen dutenéc, spirituz eta eguiaz adoratu behar  
**diné** (Leiz, Io, 4:24)

\*-zu-e [ZUKETA-3PL.ERG]

(451) Berçe çerbiçariec oroc vci **dicie** (Etxauz, 10)

### 3.4.4. Morfoen konbinaketez gehiago

Atal honetan, eragin fonologikoak alde batera utzita, datibo-komunztadurarekin loturiko morfoen (datibo-marka, pertsona-komunztadura, pluralgilea) eta haien inguruan kokatu ohi diren beste batzuen kokaguneak aztertuko ditut, arkaismoak, txandakatzek eta hurrenkera bereziak azaleratzeko.

#### 3.4.4.1. Datiboko pertsona-komunztaduraren eta -ke markaren artean

Egun hurrenkera zaharraren arrastoak ditugu mendebaldean, aditz laguntzailean fosildurik (*neuskio*, *neuskizu* etab.), non marka *-ki-* bezala berrinterpretatu den, 3. pertsonan *-keo* > *-kio* gertatu ondoren; cf. XVIII. mendeko DotrSerm-eko *leiquiyo* ‘le(g)ikeo, liezaioke’, *lequiquiyo* ‘lekiroke’, *leuskiyo* ‘leuskeo, lioke’.

Ez da ezaugarri ezezaguna, beraz, baina ez ohi zaio arreta handirik eskaini. Testu zaharrenetara jotzen badugu, euskalki gehienetako lekukotasunak aurkituko ditugu, ezaugarri honen nondik norakoak zehazten lagunduko digutenak. Jarraian hainbat etsenplu jarriko ditut, aditz erroka sailkaturik, ezaugarriaren orokortasunaren erakusgarri (ikus baita ere § 3.4.5.4-ko [514-522] adibideak eta hango iruzkinak).

*egin*

Lazarraga salbuespena da corpusean aditz honen datiboko formak *-ke* atzizki hutsarekin erabiltzen (452), ezagun baita Euskara Arkaikoan ez ohi zuela hartzen (Mounole & Lakarra 2018): edo biluzik adierazten zituen morfo horren balioak (RSetan,

adibidez), edo *-di* atzizkia hartzen zuen (Lazarragak berak ere bezala).<sup>113</sup> Geroko lekukotasunetan berriz agertuko dira Lazarragarenen antzeko *-ke* atzizkidun forma hirupersonal gehiago (453).

- (452) Jentil onbrea, ez / **neyqueçu** neure bician bervaric (Laz, A7:97)
- (453) bada orrembestez eman **neiqueo** causa, edo motivoa, artu daguian bertatic neuronen contra odio, edo gaitzerizteren ba (OArin, 170)

### *egon*

Honetan are bereziagoa dugu idazle arabarra, dakidala beste inork ez baitu erro hau aldi berean datibo-komunztaduraz eta *-ke* atzizkiaz erabili.<sup>114</sup>

- (454) Ezcondu gura baldin badoçu, / asco **dauquezu** senarric (Laz, A27a:30)

### \**ekin*

*Egin* aditzaren antzera, \**ekin-i -di* atzizkia erantsi ohi zitzaion ekialdean (hala dute Etxeparek, Leizarragak eta Zalgizek, besteak beste), baina Lazarragaren adibide bakarrak (*lequidiçu* ‘lekizuke’) beste muturrean ere erabili zela bermatzen du. Dena den, mendebaldean ohikoagoa bide zen ordurako *-ke* atzizkiarekin, arabarrak berak ez ezik (455) RSetan ere ageri baita (456). Nafarroan ere ageri zaigu (457), eta aipatu beste erroarekin bezala, Axularrek forma pleonastikoak darabiltza (458).

- (455) oyta irago ce **bequiqueo** / bisitaçaca asteric (Laz, A14:97)
- (456) Aspertu banequio, asper **lequiquet** (RS, 10)
- (457) eta verce gayz eta desgraciari asco egunoros guerta **baytaquiquegu** (BerMeza, 109v)
- (458) etzindezke izi, eta ez ikhara, baina iduri **lekidikezu** guztia erraz, plazent eta arin (Ax, 270-29)

---

<sup>113</sup> Leizarragak datibo-komunztadurak gabeko forma batuetan forma pleonastikoak darabiltza (-*idike-*; cf. (351) alokutiboa ere); ditrantsitibotan, ordea, *-di* atzizkidunak baizik ez.

<sup>114</sup> Izan ere, puntu honetan ez nator ediziogileen irakurketarekin bat: haien ‘dukezu’ ulertzen duten arren (Bilbao eta beste 2020b: 336), nik ‘dagokizuke’ interpretatzea proposatzen dut (ik. § 3.4.5.3-ko (496) adibidea eta hango oin-oharra eta, azalpen osorako, § 4.2ko (530) adibidearen oin-oharra).

\*eradun

- (459) eta gratiazco Spirituari iniuria eguin **drauqueonac?** (Leiz, He 10:29)

\*erazan

- (460) erran **drazaquetc** “erromes” (Saratsa, 6)

- (461) eta ecin erdeci **draçaquegu** escacen dioguna (BerDCh, 134v)

esan/erran

- (462) errazoaz **desaqueçue:** / la bella mal maridada (Laz, A8:15)

- (463) Edo nola ahal **derraqueoc** eure anayeri, Anayé... (Leiz, Lc 6:42)

etorri

- (464) oy orain ez **letorquet** ondo / arereanic jastea (Laz, A24:129)

- (465) Ay, traidorea! amory ilic **datorquet**<sup>115</sup> (NafEs-1, 94; Reguero 2019: 141)

\*ezan<sup>116</sup>

- (466) batec emun **lezaquet** abitoa (Laz, B4:3)

- (467) eta eztela herioric-ere eguiazco vicitza edequi ahal **dieçaquegunic** (Leiz, Adv 268-33)

- (468) Iaincoa lagû duenary nihorq için qualteriq eguin **deçaqueyo** (Volt, 150)

\*enin

- (469) Legue baliz escaetan / guiçonari lancetea, / **baniqueo** nic surrealdea / mocituric escuetan (Laz, A19:53)

- (470) Yquedac ta **diqueada** (RS, 233)

- (471) andicoz eta ebeticoz / barcação **diqueçut** (AzkPo, A8)

<sup>115</sup> Pasartea iluna da, baina adizkiaren irakurketa argia (Reguero 2019: 141). Ezin baztertu bide da -ki-ren aldaera hutsa izan dadin (cf. Lazarragaren *çaquezt* ‘zakizkit’ B15: 93). Bestela, Lafonek (1943) Etxeparereren eta Leizaragaren hizkeran ikusi funtzioa luke -ke atzizkiak hemen ere; alegia, orainaldi burutugabearen zentzua markatzea, adizki biluziaren telikotasuna moldatzeko.

<sup>116</sup> Beste bi adibide ere badirateke, baldin interpretazio zuzena datibokoa bada (beste aukera alokutibotzat jotzea da): *Hanbat ere handi tuçu ecin erran nizaqueçu* [‘nieza(zki)zuke’] (Etxep, IX: 31) eta *ecin esan niazcaquec* [‘niezazkiake’] *Miravallesco gaucac* (ElduBerts, 30).

(472) **badiqueat** orraa bofeton bat aurrali beçala (UtergMeh)<sup>117</sup>

(473) Eta orori **baytequegu** berac complimenduya (Etxep, II: 50)

*irakatsi*

(474) Oean calentureac liquet / lagunic baneu aldean; / laster batean oy **liracasquet** / beste mundura bidea (Laz, A24:165)

*iritzi*

(475) **banerexqueo** / oy lequiola umillardu / gach egualea / andra oni ta suplicadu... (Laz, A26:21)

(476) Gach çé **erexqueoc** yñori, ta emac verea edoceyni (RS, 312)

*izan*

(477) hi escatu **inçayqueon** hari (Leiz, Io 4:10)

(478) Prestatzen ezadila ari, gero burhasik eskatu behar **itzaukeonari** (OihAts, 398)

*jarraiki*

(479) non vnguiari eta harenganaco eguibideari **baicarreizqueo** (Leiz, Catech 1339-37)

*-ngu-*

(480) ea **baitinguzquet** bertan hamabi legione baino guehiago Aingueru? (Leiz, Mt 26:53)

Salbuespen bakarra dut datubasean -ke-ren kokaguneari dagokionez, erdigune berritzaietza jo izan den Nafarroan, hain zuzen:

(481) eta nic ylarroz aldi bat emanen **nioque** bellaco çarrari (NafEs-1, 103)

Ikusten denez, atzizkiaren kokagunean ez ezik, perifrasian ere berritzalea da (Euskara Arkaikoan [adoin. + \*ezan + -ke] erabiltzen baitzen alegiazko apodosian; Mounole 2014: 117-118). Atzizki modalak bere geroaldi zentzua galdu eta

---

<sup>117</sup> Ikus ordea (481) adibidea.

hipotetikotasunaren adierazle huts bilakaturik dakusagu. Ez da halabeharrez ditudan adibideetan \**enin* erroko bakanetakoa laguntzaile funtzioan (-ke atzizkiarekin, noski). Haatik, datubaseko beste laguntzaileak (nafarra hau ere) ordena zaharrari eusten dio, eta ohar bedi geroaldi tasuna berak adierazten duela, ez aditz lexikoak:

- (482) gaysto andurorreq pagatu **dizquedan** (NafEs-1, 53)

#### 3.4.4.2. Datibo-pluralgilearen eta beste markaren baten artean

Nire datubasean ohikoena datiboko 3. pertsona plurala -e pluralgileak adieraztea bada ere, ikusi dugu jada adibide batzuetan XVI. menderako badela singularreko -o morfoari -te pluralgilea erantsitako forma bat Nafarroa Garaian (Iruñeko auziko *draucotec* [425]). XVII. mendearen lehen laurdenean Beriainek ere -ote(-) darabil sistematzikoki datiboko 3. pertsona pluralerako (Reguero 2019: 455-456).

Bada ordea beste berezitasun bat duen adibide parea Beriainenaren (483) eta Hervásen aitagurean (484): ergatibo-komunztadura daukate -o morfoaren eta pluralgilearen artean. Halako formak (*diozute* ‘diezu’, *diogute* ‘diegu’) berriro agertuko dira XVII. mendearen azken laurdeneko eta XVIII. mendeko lapurtar idazle batzuengen (Etxeberri Dorre, Aranbillaga, Gazteluzar, Xurio, Haraneder), bai eta mende horren bigarren erdiko Lizarraga nafarrarengan ere.<sup>118</sup>

- (483) Eta ala erran deçaquegu ece Virgina Mariari eta berce sanduey ecin eman **draçoquegutela** ambat honra eta contentu (BerMeza, 19r)
- (484) guc zorgaituztem erì / barcatzen **dizguioguten** bezala (Herv, 11)

#### 3.4.4.3. Pluralgileen artean

Corpusean ikusi dudan beste fenomeno bat datibo-pluralgilearen eta abstolutiboko edo ergatibo-pluralgilearen arteko hurrenkera ezberdinak dira, are testu berean ere. Esaterako, Aresoko otoitzentz bertsioetako batek *diztegun* ‘dizkiegun’ dakar (423), baina besteak *diezcun* (485), eta halaber da Leizaragaren alokutiboko adibidean (486).

---

<sup>118</sup> Badira -ke- morfoa soilik tartekatzen duten formak ere, baina halakoak morfo horren gorabeheren ondorioz gertatu direla ulertzen dut: Beriainek *laçoquete* ‘liezaieke’ (27v) eta *daquioqueten* ‘dakiekeen’ (70r) dakartz (apud Reguero 2019: 275, 287), eta azken hori bera darabil behin Etxeberri Sarakoak ere XVIII. mende hasieran.

- (485) Barca jazquiguçu guere peccatuac, guc guere contra eguiten dizquigueney barçaen **diezcun** beçala (AresOt-PatNos1, 1v: 2)
- (486) eta presentac igorriren **dirauec ** elkarri (Leiz, Apoc, 11:10)<sup>119</sup>

### 3.4.5. Ezaugarri konbinaketez gehiago

Atal honetan adizkien osaeran parte hartzen duten zenbait elementuren arteko konbinaketa posiblleez arituko naiz, dela bi morfo lotzeari dagokionez, dela morfo bat eta ageriko markarik ez duen beste ezaugarriren baten aldi bereko erabilerari dagokionez. Horretarako, alomorfo ezberdinak ere kontuan hartu behar dira, eta hala saiatuko naiz ondorioztatzen zer azal daitekeen arkaismo gisa (“jatorrizko” forma, aldaketa fonetiko-fonologikoko itxuraldaturik bada ere), eta zer analogiaz edo bestelako berrikuntza morfologikoren baten bidez sorturikoa.

#### 3.4.5.1. Datibo-marka eta absolutibo-pluralgilea

Gorago ikusi ditugu bi morfoon arteko emaitza batzuk ([§ 3.4.2.2](#)). Oraingoan, litezkeen konbinazioez arituko naiz, testu zaharretako adibideetatik abiatuta.

Aukera logikoei dagokienez, aldagai nagusia morfoen arteko ordena izango da: [ABS.PL-DAT] ala [DAT-ABS.PL]. Horrez gain, bien artean beste morforen bat (pertsona-komunztadura edo atzizki modal bat; [§ 3.4.5.3](#)) agertzen den eta, oro har aurreko bi aldagaien menpe, zein alomorfo hautatzen diren ikusi behar da.

	DAT-ABS.PL	ABS.PL-DAT
<b>morf. tart. ez</b>	(1) *-gi-za-X-	(2) *-za-gi-X-
<b>morf. tart. bai</b>	(3) *-gi-X-za-	(4) *-za-X-gi-

**3. taula: DAT eta ABS.PL morfoen konbinaketa posibleak**

Corpusean arakatuta, batetik, morfo tartekatuekiko adibide ia guztiak mendebaldekoak dira, 3. ereduokoak, pluralgilea adizkiaren bukaeran jartzeko joeraren ondorio (*vasagocas, jacaz, jacazan, jataz*). Bestetik, beranduxeago bada ere, Axularrek 4. ereduoko adibide bat dakar (*zerauzkaion*), non pluralgilearen eta datibo-markaren artean atzizki modala (itxuraldaturik) ageri den (\*-z-ke-i-o). Esanguratsua da, ezen Axularrek

---

<sup>119</sup> Cf. kide neutroa den *drauzte* ‘dizkiete’, edota alokutiboko *dirauzteat* ‘zizkieat’.

*zihoa<sup>zkon</sup>* eta *zaizkon* baino ez ditu *-zk-*rekin; gainerako guztieta *-tza* da [DAT-ABS.PL] kategorien ezaugarri (*derautza*, *zaitza*...).

Morfo tartekaturik gabeko formeい dagokienez, arestian ikusi dugun bezala, *-zki-* Nafarroa Garaian ageri da batik bat (*egon*, \**ekin*, \**eradun*, \**ezan*, \**enin*, *izan* eta *jarraiki* aditzetan; EspGut-eten \**enin*-en adibide bat), eta Leizarragaren itzulpenean ere askotan, sistematikoa izan gabe, \**ekin*, \**eradun* eta *izan* aditzetan. Etxeparek \**ekin*-en adizki gutxi batzuetan besterik ez du, eta \**eradun*-en kontradibideren bat; aldiz, ezin jakin dezakegu *egon*, *izan* edo *jarraiki* bezalakoetan nola jokatuko zuen. Gipuzkoa ekialdean (ElduBerts), Lapurdin eta Nafarroa Beherean, aldiz *izan* eta \**ekin*-en adizkiek *-zk-* dute 3. pertsonan.

#### 3.4.5.2. Datibo-plural eta ergatibo-plural argumentuen elkartzeetako *-z(a)*

Konbinaketa honek zenbait berezitasun morfologiko dakar, batik bat ekialdean, dela ergatibo-<sup>120</sup> edo datibo-pluralgileari dagokionez, dela bien artean txertatzen den eta funtzio argirik ez duen beste morfo baten bidez.

Nire datubasean *-za(a)* “morfo sarkina” Leizarragaren hiru adizkitan baizik ez dut aurkitu: gorago aipatu *drauece* ‘diete’ (448), horren iraganeko aldaera (487), eta 2PLPL-arekiko (eta pluralgilearen alomorfo berriarekiko) forma bat (488):

- (487) ecen halaber eguiten **cerauecen** prophetey hayén aitec (Leiz, Lc, 6:23)
- (488) çuey Euangelioa predicatu **drauçueçatenez** (Leiz, Pier, I, 1:12)

Alabaina, corpusetik kanpoko testu berrixeagoetan ugariago dira halakoak. Urgell Axularrez (2015: 368, 177-21 oh.; eta Prouveauren testuetan ere aurkitu dut), eta Altuna Otxoa Arinez nahiz beste zenbait gipuzkoarrez (1995: 230-231, 29. oin-oh.) ohartu ziren bezala, [{2/3}PL.DAT-3PL.ERG] konbinaketako forma batzuek absolutiboari ohi dagokion *-z(a)* pluralgilea daukate; gehienetan beste bi pluralgileen artean (490-491),<sup>121</sup> baina inoiz itxuraz datiboari dagokiola (492), edota ergatibo-pluralgilearen tokian (489, 493).

<sup>120</sup> Dagoeneko ikusi dugu §3.4.2.3-n ergatibo-pluralgilearen ezohiko alomorfoa (442); hemen ergatibonahiz datibo-pluralgilearen ordez edota bien artean txertaturik ageri den morfoz arituko naiz.

<sup>121</sup> Hein batean *dituzte* (eta neurri txikiagoan *zaitezke*) bezalakoetan ageri den *-z-* “pleonastikoa” dakar gogora, baina hauetan, txertatzearen arrazoi zehatza zein den ere, absolutibo plural argumentua izan bada. Areago, Leizarragak baditu *zaituztez* ‘zaitutzete’ eta *bazaitzatez* ‘bazaitzatete’ formak, bai eta Axularrek *zaituztezate* ‘zaitutzete’ (vs *zaituzte* ‘zaitutzte’) bezalakoak ere.

- (489) Batzuek uste dute, ezen probeari emaiteaz probetuko direla; eta halatan, erraiten **deruaeza** eske ethortzen zaiztenei, ebanjelioko bortz birjinek bere lagunei bezala (Ax, 126-25)
- (490) Etsaiak, etsaiak onhetsi behar ditutzue, gaizki egiten **deratzuezanei** egin behar derauezue ongi (Ax, 177-21)
- (491) Adamen ondokoei herioa ekhartzen **deraezaten** armak (SilvP, 1892)
- (492) Gurasoac euren Semeay, Nagusiac euren criaduay, eta Juêzac euren republican arquitcen diraden aey, debecatu ez ote **dizaten** hoostutcea; edo consentitu eta disimulatu ote **dizaten** napurretaric eguitea (OArin, VI, VII: 17)
- (493) Zulo aetako batetik irtengo da kea, eta arrabioen talde ikaragarri bat, eta oek ekingo **dieza** bekatariai beren ezten zorrotzakin (Agirre Asteasukoa)<sup>122</sup>

Bitxitasun hau azaltzeko modurik ez badut ere *(-t)e-(t)e* segida saihesteko?), kontuan hartu behar da ezen, alderantziz, *\*-de* pluralgilea ere ageri dela testuinguru berezietan, bai *zuek* plural berria markatzeko (*zatoz* vs *zatozte*), bai erregularki espero zitekeen *\*-za-ren* tokia hartuz (erd.-ek. *daude* vs mend. *dagoz*).

#### 3.4.5.3. Datibo-marka atzizkitua eta modaltasuna

Euskaraz atzizki modal emankor bat dugu historikoki (*-ke*), euskalkien arteko ezberdintasunak gorabehera, lehen testuetatik besteen (*-di*, *-te*) lekua hartuz joan dena (adibidez *daite* → *daiteke* → *daike*), haietako bat zeharo desagerrarazi arte (*daidi* → *daidike* → *daike*, *dakidio* → *dakidikeo* → *dakikeo*).<sup>123</sup> Nolanahi ere, *-te* ez da datibo-komunztadurarekin aurkitzen, zalantzazko forma batean izan ezik:

- (494) Çuc ezconduta berori juango **liçay[ɔ]te** (ErrezilGut, 69)<sup>124</sup>

Hortaz, *-di* eta *-ke* morfoak datibo-marka atzizkitua duten edo izan zezaketen adizkietan harekin nola konbinatzen ziren ikusiko dugu jarraian.

Lehenik, morfoen arteko ordena dago: DAT-MOD ala MOD-DAT den, alegia. Bigarrenik, datibo-markaren zein aldaera ageri den: *-k(i)* ala *-i*. Eta, azkenik, beste morforik tarteka dakiween ala ez: dela pertsona-komunztadura (batik bat lehenbizi

---

<sup>122</sup> Altunak (1995: 230-231, 29. oin-oh.) Beasaingo eta Otegi beizamarraren *dize*, eta Errezilgo *diize* (<*\*dieze*>) ‘diete’ ere aipatzen ditu.

<sup>123</sup> Egiazki testuetan ez dira hiru urrats horiek horren garbi ikusten, baina *-di-dun* formak arkaikoenak direnez, eta *-ke* denez iraun duen bakarra, ordezkapena gertatu dela argi dago.

<sup>124</sup> Ediziogileek osatua lerro amaieran mozturik ageri den hitza (<*liçay[.]*/*te*>).

datibo-marka doanean), dela pluralgile bat (bereziki atzizki modala hasieran denean), edo biak (lehen kasuan, izatekotan):

	DAT-MOD	MOD-DAT
k(i)	(1) - <i>k(i)(X)ke-</i>	(3) - <i>ke(X)k(i)-</i>
i	(2) - <i>i(X)ke-</i>	(4) - <i>ke(X)i-</i>

**4. taula: datibo eta modaltasun atzizkien konbinaketa posibileak**

Hasteko, testu zaharretan bigarren zubatekoak aurkitzea espero da, jada ikusi baitugu datibo-komunztadura atzizki modalaren ondotik ezarri ohi zela. Halaber, -(*k*)i marka \*-gi berreraikitzen badugu, garapen fonologiko zuzenarekin ez litzateke -keki segidarki izango, -kei baizik. Bestela (-(*k*)ike ordenan bezala), datibo-markaren aurrean beste morfo bat beharko zen ahoskabetzea eragingo zuena, esaterako -z pluralgilea (\*-z-gi > -zki).

Hortaz, analogia pairatu ez duten formetan \*-kei eta, baldin pluralgilea tartean ezartzea bazen eredu zaharrena, \*-kezk(i) (edo, gorago ikusi dugun aukera kontuan hartuta, \*-ke(t)z- < \*-ke-g(i)-z) aukerak baino ez dira espero.

Hala ere, kontuan hartu beharra dago batzuetan \*-gi atzizkia erroari aski goiz erantsi zitzaiola, orokorra baita forma jokatugabe batzuetan. Halakoetan lehen zutabeko ereduari atxikiko zaiola aurreikus daiteke: -(\*g)i-X-ke edo -(t)z-X-ke (< \*-g(i)-z-X-ke).

Azkenik, eta jakitun izanik eremu espekulatiboagoan sartzen ari naizela, muriztapen fonotaktikoak direla-eta \*-gi apokopatua (-*k*) soilik bokal baten aurrean gorde daitekeenez, beti egin dezakegu zalantza datibo-marka agerikorik ez duten formetan \*-kC- > -C- gertatu ote den. Aldiz, itxuraz -i alomorfoa ageri den kasu batzuetan (eta epentesiaren aukera baztertuz gero) aztertu beharko da ea ez ote den erroa bera edo haren parte, jatorriz nahiz fosildurik edo analogiaz hedaturik (503-509; [§ 6](#)), ala morfo ezberdin bat izan daitekeen, bestelako marka modalik gabeko formetan (510-513; [§ 4.3](#)).

Hala bada, ikus ditzagun corpuseko datuak, adizka sailkaturik. Lehenik, -ke atzizkiarekikoak:

*egon*

- (495) Ezcondu gura baldin badoçu, / asco **dauquezu** senarric (Laz, A27a: 30)<sup>125</sup>

<sup>125</sup> Baldin eta etimologikoki \*-k- (< \*-g(i)-) alomorfoa zeukala onartzen badugu: \*dago-k-ke-zu nahiz \*dago-ke-k-zu (bigarren horren arabera, [dauketsu] irakurrita; ikus [§ 4.2](#)ko (531) adibidearen oin-oharra).

\**ekin*

- (496) Conjuraetan oy eta çaitut, / oean çaucidenean / gogaberatu **çaquezquedala** (Laz, A16: 87)<sup>126</sup>
- (497) Hunelatan guitarik batbederari erran ahal **lekidikeion** bezala... (Ax, 453-19)

\**ezan*

- (498) Bere nahiz eri denari nork bilha **dezakeio** osagarri? (OihAts, 94)
- (499) Jauna: orandic ezcin gastiga **nizacoie** zure senoriary cer quantitate mercaduria dens (EspGut, 20: 1)
- (500) Inglesen berriric ezin gastiga **niazacoyo** zure senonary (EspGut, 20: 6)

\**enin*

- (501) Ber-ehun dineroren oguiaz **ezliqueye** asco Leiz, Io, 6:7)
- (502) gaysto andurrorreq pagatu **dizquedan** (NafEs-1, 53)

*izan*

- (503) hi escatu **inçaiqueon** hari, eta eman baitzerauquenán vr vicitic (Leiz, Io, 4:10)
- (504) Ecen baldin lehen hura deusen falta içan ezpaliz, bigarrenari **etzaiqueon** bilhatu lekuric (Leiz, Heb, 8:7)
- (505) non harc gu bekatu eta vitio orotara mortificaturic, iustitiazco eta innocentiazco fructu hiri placent **çaiqueanic** gutan procrea eta eraguin baiteçaque (Leiz, Othoitz 1264-19)
- (506) ençunen duçue hura minçaturen **çaiquequen** gauça gucietan (Leiz, Act, 3:22)
- (507) Eta gauça guciac hari suiet eguin **çaizqueonean**, orduan Semea bera-ere suiet eguinē çayó (Leiz, Cor, 15:28)
- (508) Prestatzen ezadila ari, gero burhasik eskatu behar **itzaukeonari** (OihAts, 398)
- (509) eta hon eta leyal **nayçaquanala** / dudanas eta duquedanas (NafEs-Uitz, 2)

Azkenik, ekialdeko zenbait autorek ahalerako forma bereziak darabiltzate (batik bat \**ezan* errokoak); azpiatal honetan hizpide ditudan bi ezaugarrietan berezi, izan ere: alde batetik, itxuraz datibo-marka atzizkitua darabilte (forma arruntek ez bezala) eta, bestetik, ez daukate -*ke* atzizkiaren arrastorik (cf. RS 284 *lemayo*, Etxep *eztemayo*; ikus § 4.3):

- (510) eta bere sasoinean fructuac renda **dietzoyoten** berce laborariri bere mahastia alocaturen (Leiz, Mt 21:41) = (121)

---

<sup>126</sup> Ediziogileek diotenez (Bilbao eta beste 2020b: 212) lehen -*que-* aditz erroa da (< *ki*; cf. Lazarragaren beraren *çaquezt* ‘zakizkit’ B15: 93) eta bigarren -*que-* atzizki modala.

### 3. Datibo-komunztaduraren ezaugarriak Euskara Arkaikoko adizkietan

- (511) Eta nehorc ecin ihardets **cieçoyon** hitzic (Leiz, Mt 22:46) = (122)
- (512) Eduquitcen du laburzqui cer-ere galdeguin ahal **bai-tiaçaiogu** Iaincoari (Mat-A, 85)
- (513) Baiña cer eman ahal **diaçaiçut** nic çuri hunen amorio handiaren ordain? (Mat-B, 279)

#### 3.4.5.4. Datiboarekin lotutako fenomeno morfofonologiko batzuez

Azken puntu honetan zenbait bitxitasun aipatu edo azpimarratu nahi ditut, ezaugarri batzuen zahartasunaz eta jatorriaz hausnartzeko eta aurrerago haietan sakontzeko bide eman diezaguketelakoan.

Orain arte aurkeztutako adibideetan, oro har, morfologia aski gardena dute adizkiek, eta batik bat aldaketa morfologikoak erakusten dituzte (morfoen ordena, haien presentzia zein absentzia, edota alomorfo bakoitzaren hedadura ezberdinak). Gardentasun horrek, beraz, aldaketa fonologiko gutxi izan dela salatzen du (edo, izan bada, paradigmek berdintzera egin dutela): alde handienak aipatu hiru aldagai horietan dautza.

Hala, hapaxak eta zenbait forma arkaiko edo fosildu alde batera utzirik, aditz erabilienetan dira bilakaera fonologiko hutsen emaitza diber gente nabarmenenak, dagoeneko testu zaharrenetan ageri direnak. Esaterako, *\*edun-en dot/de(u)t/dut eta izan-en nax/naiz/niz* bezalako aldaerak.

Alta, badira zenbait aldaketa fonologiko berezi zeinak, erregularrak eta hedatuak izan ez arren, paradigma oro har erregularren artean berreraiketarako aieru gisa ageri zaizkigunak, ez horrenbeste delako adizkiaren beraren berreraiketarako (aldaketa txikiak eta erraz desegin daitezkeenak baitira), baizik eta forma erregularragoekiko alderaketan aldaketa fonologikoek ilundu duten osaera morfologikoaren zahartasuna erakuts lezaketelako. Esanok hobeto ulertze aldera, (berr)ikus ditzagun adibide batzuk:

- (514) Jauna: orandic ezcincastiga **nizacoe** / zure senoriary cer quantitate mercaduria / dens, (...) (EspGut, 20: 1) = (498)
- (515) Inglesen berriric ezin gastiga **niazacoyo** zure / senonary (EspGut, 20: 6) = (499)
- (516) eta bere sasoinean fructuac renda **dietzoyoten** berce laborariri bere mahastia (Leiz, Mt 21:41) = (121, 509)
- (517) Eta nehorc ecin ihardets **cieçoyon** hitzic (Leiz, Mt 22, 6) = (122, 510)
- (518) Jaincoac parca **derozola** Migueli (IrañGut) = (22)

Berainen eta OArin-en testuetan bina aldiz ageri den beste fenomeno bat *\*-keo* (ala > *\*-kao?* Cf. [§ 4.3.2.2](#)) > *-ko* da:

- (519) Hare, oni guerta **daquico** eztaquion atra vere aucia desseacen duen bezala (BerMeza, 44v)
- (520) otoytz eguin Iaungoycoari demon vere favorea eta gracia meza ongui ençuteco aren divina magestadeari agrada **daquicon** bezala (BerMeza, 121v)
- (521) batere ezcutaduric guelditu ez **daguicoan** moduan (OArin, 132)
- (522) edo bacoitçari zor dion hazienda, interessa, honra, edo fama restituidu, edo biurtu **dizocoalic** ere, biurtcen ez dionean, edo nai eztavenean restituidu (OArin, 130)

### 3.4.6. Ondorio laburrak

Ikusi denez, askotariko emaitzak aurki daitezke datibo-komunztadurarekin loturiko morfoen eta bestelakoen arteko elkarketa sintagmatiko nahiz paradigmatikotik.

Lehenaren kasuan, 3. pertsona singularrekoetara mugatuta, *-io* / *-ko*, *-ka* eta, absolutibo pluralgilearekin, *-zko*, *-zka* / *-tzo*, *-tza* ditugu, hizkeraren eta aditzaren arabera; adibideak aztertuta, honela berreraiki litezke, hurrenez hurren: *\*-(g)i-o* / *\*-g(i)-o* eta *\*-z(a)-g(i)-o* / *\*-g(i)-z(a)-o* (ezin bazter daiteke zenbaitetan datibo-markarik gabeko *\*-tz-o* batetik etortzea, baina aldaera afrikatua bera, aldi berean, lehenagoko forma baten analogiaz hedat zitekeen). Horrez gain, zenbait aldaketa fonologiko berezik formaren osaera zaharra sala dezaketela ikusi dugu, forma gardenagoekin alderatuta (esaterako, Leiz *ziezoion* edo Ber *dakikon*).

Paradigma barneko nahiz ezberdinen arteko aldeei dagokienez, esanguratsua da datiboko eta alokutiboko formen arteko bat etortzeak hainbat puntutan; adibidez, pluralgilearen forma ez analogikoa gordeaz zenbait formatan, ekialdean. Halaber, datibo-marka atzizkituaren presentzia eta absentzia aztergai korapilatsua da, baina euskalki guztietai (modu ezberdinean bada ere) gertatzeak garai zaharragoetako alternantzia pragmatikoren bat edo banaketa morfosintaktikoa salatzen du, ondoren norabide ezberdinaren erregulartu dena.



## 4. Zenbait ezaugarriren azterketa

Kapitulu honetan, nire ikerketa ildoak eman ditzakeen fruitu zehatzen adibideak erakusteko asmoz,<sup>1</sup> Euskara Arkaiko eta Zaharreko autore batzuen testuetan aurki daitezkeen ezaugarri jakin batzuetan jarriko dut arreta. Hala, datibo-komunztaduraren inguruko gorabehera morfologikoek aditz morfologiaren beste alderdiak ere ukitzen dituztela ikusiko dugu, eta forma berezi horiek (azalgaitz, irregular nahiz bakan izategatik), ondorioz, barne-berreraiketan lagungarri gerta daitezkeela.

Lehen atalean ([§ 4.1](#)), Lazarragaren adizki batzuetako datibo-komunztaduren eta aditz-pluragileen arteko harreman sintagmatikoez zenbait ideia plazaratzen dira, idazle arabarraren adizki batzuen osaeraz eta garapen diakronikoaz proposamen zehatzak egiteko; bigarrenean ([§ 4.2](#)), Etxeparerentzat Leizarragaren hapax banaren inguruko oharrak eskaintzen dira, haien jatorria argitzeko asmoz; hirugarrenean ([§ 4.3](#)), Axularren aditz-amaiera berezi baten ildotik ezaugarri morfologiko eta morfofonologiko zahar batzuen inguruko azterketa eta proposamena egiten dira; eta, azkenik ([§ 4.4](#)), zenbait testutan agertzen diren *-ag-* erroko adizkien azterketa xehea aurkezten da, batetik Lazarragaren eta Gipuzkoa mendebaldeko testuetan ageri diren aldaeren (*jago~diago*) arteko batasun etimologikoa defendatz eta, bestetik, Garibairen errefrauuetan agertzen den itxura bereko *diago* adizkia beste erro batetikoa dela argudiatuz.

### 4.1. Lazarragaren eskuizkribuko aditz-pluralgileak eta datibo-komunztadura<sup>2</sup>

Atal honen xedea Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuen azalpen diakronikoa eskaintzea da, urrats bat euskal aditz morfologiaren histori(aurre)ra osatzeko bidean. Lehenik, aditzeko pluralgileei, eta bereziki *-te*, *-e*, *-de* atzizkiei, ikuspuntu sinkronikotik egingo diegu so ([§ 4.1.1](#)); ondoren, Joseba Lakarrak *Trasken Legea* izendaturikoaren nondik norakoak laburbilduko ditut ([§ 4.1.2](#)), eta jarraian aditzeko datibo-komunztadurari

<sup>1</sup> Izan ere, kapitulu hau dagoeneko argitaraturik dauden artikuluekin osatu dut; bakoitzaren hasieran dagokion aipamena egingo dut.

<sup>2</sup> Atal hau Ariztimuño (2015a) lanaren egokitzapena da.

datxezkion zenbait alderdi ([§ 4.1.3](#)), testu zaharretan oinarrituz;<sup>3</sup> hurrena ([§ 4.1.4](#)) aurretik azaldutako alomorfoen banaketa Lazarragaren eskuizkribuan nola eta (ene ustez) zergatik gertatzen den azalduko dut, \**edun-en* ([§ 4.1.4.1](#)) eta \**edutsi-ren* ([§ 4.1.4.2](#)) adizkiak aztertuaz, eta ustezko salbuespen batzuk argitzen saiatuz ([§ 4.1.4.3](#)). Amaitzeko, aurreko puntuetako ondorio nagusiak laburzki eman eta adizki interesgarrienetako batzuen garapen diakronikoa (hots, pausoz pausoko berreraiketa) aurkeztuko dut ([§ 4.1.5](#)), bai halaber aurrera begirako galdekizun behinenak planteatuko ([§ 4.1.6](#)).

#### 4.1.1. Aditzeko pluralgileak

Jakina denez, euskarazko aditz jokatuetan 3. pertsonako agenteen eta zehar-objektuen pluraltasuna esplizituki adierazi behar da, 1PL eta 2 PL<sup>4</sup> ez bezala (horietan komunztadura markak berak adierazten du). Esate baterako, *dugu, duzu : dute; digu, dizu : die*. Subjektu iragangaitzen eta objektu zuzenen pluraltasuna agertzea, berriz, nahitaezkoa da beti: *gabiltza, zabiltza, dabiltza; gaitu, zaitu, ditu*. Era berean, aipatu adibideetan ikus daitekeenez, pluralgile ezberdinak erabiltzen dira argumentu motaren arabera. Zehatzago: *-te* edo *-e* ergatibo eta datiboetarako, *-tza* (eta aditz gutxi batzuetan *-it-*) absolutiborako. Atal honetan lehendabiziko bietara mugatuko dut ikerketa.<sup>5</sup>

Euskara Batuari so eginez gero, alomorfoen erabilera erabat erregularra aurkituko dugu: argumentu ergatiboarekin *-te* eta datiboarekin *-e* (horrela *diote/die/diete* ezberdintzen dira). Aldiz, 2PL berriari *-e* dagokio baldin eta komunztadura atzizkitua bada (*-zu-e*; datibo zein ergatiborako: *dizue, duzue*), eta *-te*, aldiz, arrizki bidez adierazten bada (*z-...-te*; hau da, absolutiboko argumentu guztiekin eta, *ergatiboaren lekualdatzearen* ondorioz, orainaldiaz landako ergatibokoekin: *zarete, zaituzte*, eta *zenekarten, bazenute*, etab.). Besterik da alomorfo-hautaketa hori hizkera bakoitzean nola egituratzten den.


---

<sup>3</sup> Besterik adierazten ez bada, *EKC* izan dut testu zaharren iturri. Datu dialektal modernoagoak, aldiz, Irizarren (1991-2002) adizki tauletatik eskuratu ditut.

<sup>4</sup> Pluraleko 2. pertsona zaharra (*zu*) ari naiz, noski. Aldiz, *zuek* “2. pertsona plural berria” (2PL berria) izendatuko dut atal honetan (= 2PLPL).

<sup>5</sup> Ikus, dena den, [§ 4.1.6](#)ko hipotesia, eta [§ 5.1.2.3](#)ko proposamena.

Egungo euskalkietan aditz-morfologiaren alderdi honek dituen ezberdintasunez orokorki arduratu den hizkuntzalari bakarra Koldo Zuazo dialektologialaria bide da,<sup>6</sup> eta berari zor diogu mapa hau, hain zuzen:



4. irudia: *-te* alomorfoaren hedadura (Zuazo 2008: 193-tik moldatua)

Hedadura geografikoari dagokionez, bi muturretako eremu ezagunetan<sup>7</sup> *-e* besterik ez omen da,<sup>8</sup> eta erdigune zabal batean *-te* ere bai. Alomorfo horren hedadura paradigmaticoari dagokionez, berriz, hiru eremu ezberdintzen dira: gutxi gorabehera *gipuzkeraren* eremuan *-te* “NOR saileko 2. pertsonan [2PL berrian]” besterik ez dugu aurkituko, hots, *zerate*, *zaudete*, eta abarretan.<sup>9</sup> Nafar-lapurteraren eremuan eta Nafarroa gehienean, halakoetan ez ezik “[ergatiboko] 3. pertsonan” ere erabiltzen da: *dute*, *dakite* (vs. gainerakoetako *dabe*, *due*, *düe* [die]). Hortaz, Euskara Batuak bigarren eremuko erabilerari jarraitzen dio, itxura batean. Izan ere, Gipuzkoako ipar-ekialdean eta hortik

<sup>6</sup> Lehenago ere ohartuak bide ziren euskalariak lurralte batzuetako berezitasunet, baina zehaztasun gutxiagoz adierazi zituzten: “Se ha dicho en el párrafo precedente que la característica del agente plural de tercera persona en B [bizkaiera] y S [zuberera] es el sufijo *e*” (Azkue 1969 [1923-1925]: 555).

<sup>7</sup> Tradizioan *bizkaiera* deitu izan dena eta egun Zuazok *mendebaleko euskara* izendatu nahiago duena, alde batetik, eta Zuberoako euskara, bestetik; Erronkaribarko (eta hein batean Zaraitzuko) euskara ohia ere eremu berean sartuko litzateke. “Eremu” diodanean, jakina, ez naiz eremu dialektalez ari, esparru geografiko hutsez baizik.

<sup>8</sup> Egiazki *-de* alomorfoa ere agertzen da mendebaldean (*daude* ‘dute’ bezalakoetan), baina Zuazoren mapan ez da aldaera horren hedadura islatu.

<sup>9</sup> Ez da argi geratzen gainerako absolutiboko argumentuei ere badagokien zehaztapen hori, esaterako zaituzte [hark-zuek] bezalako formei.

hegoaldera —isoglosek arestian aipatutako bi ereduenean artean jaisten den zerrenda irregular bat marraztuko balute bezala— Nafarroako hizkera batzuetan, “NOR sailaz besteko 2. pertsonetan” ere nagusitzen da *-te*, *duzute* edo *dakizute* moduko 2PL berrieta.

Alabaina, hizkuntzaren historian eta bilakaeran sakondu nahi badugu, hizkera ezberdinei ez ezik, beste bi alderdiri ere so egin beharko diogu. Alde batetik, goiko mapa osatzeko erabili diren datuekin batera, aditz paradigmako ale gehiago kontuan hartu beharko da, eta, bestetik, testu zaharragoetan arakatu, haietan egungo erregularitasunen kontrako adibideak idoro baititzakegu, hizkuntzaren historian atzerago joateko aukera emango digutenak.

Lehendabiziko puntuari helduz, N-N<sub>i</sub> (*zaie*) eta, bereziki, N-N-N (*diote*, *die*, *diete*) saileko laguntzaileak sartu behar lirateke jokoan, bai eta N-N<sub>k</sub> saileko beste pertsona batzuetakoak ere (*gaituzte*, *zaituzte*). Horiekin batera, badukete interesik hala laguntzaileen iraganeko eta alokutiboko forma batzuek, nola adizki trinkoek, oro har. Gipuzkoan zehar, esate baterako, Azpeititik Zaldibiraino eta Ataundik Berastegiraino, *-te* alomorfoa hainbat adizkitan agertzen zaigu, eta hizkera horien bilakaeraz nahiz alomorfo horren berorren hedakuntzaz beharbada ezein parigma erregularrek baino informazio interesarriagoa eman diezagukete. Areago, hizkeraz “bizkaitarra” den Oñatin ere *dotse* ‘*diote*’ eta *doste* ‘*die*’ bereizten dira oraindik.

Bigarren egitekoaz den bezainbatean, testu zaharren edizio egokiak garrantzitsuak dira emaitza fidagarriak lortzekotan, baina horretarako testu-kritikaren eta hizkuntzalaritza historikoaren arteko elkarlana ezinbestekoa da, elkar elikatzen baitute (cf. [§ 4.1.4](#)).

#### 4.1.2. *Trasken Lege* deituaz

Labur esateko, R. L. Trask hizkuntzalariak (1995: 231, 1997: 221) zenbait atzizkiren aldaeren garapena azaltzeko proposamen bat egin zuen, Lakarrak (2013) “*lege*” modura honela adierazten duena: -DV/-TV/-V < \*-DV. Horrela, *-de/-te/-e* pluralgileak denak \*-*de* batetik letozke (cf. bizk. *daude* ‘dute’), eta *-ki/-i* datibo aurreko marken aldizkatzea jatorrizko \*-*gi* batek azaldu dezake (cf. partizipio batzuetako *-(g)i* eta *-ki* aldaerak, nahiz eta egun dialektalak diren, paradigmatikoak baino gehiago).

Aldaera horiek ez ziren, jakina, bat-batean edo berez sortu, testuinguru fonologiko jakin batzuetan baizik. Alde batetik, bokal ondoren zihoalarik, atzizkiaren herskari ahostuna eroriko zen, *-e* eta *-i* aldaerak emanez (*d(a)ue*, *dio* < \**dau-de*, \**di-gi-o*). Bestetik,

txistukari baten ostean herskaria ahoskabetu eta *-te* eta *-ki* formak sortuko ziren (*dituzte*, *dizkio*). Eta, azkenik, fonologikoki baldintzaturiko alomorfoak askatu eta ingurune berrietara hedatuko ziren (hots, -V aldaera txistukari ondora eta -TV bokal ondora).<sup>10</sup>

Dena dela, azalpen oso batek jatorrizko testuinguru haien ahalik eta zehatzen zedarritu behar lituzke (eta ea, halakorik balego, zein beste testuinguruk sorraraz zitzakeen alomorfo horiek); areago ikusirik mutur bietako hizkerak bat datozena *-e* alomorfoaren orokortzean, hura arkaimotzat (edo berrikuntza zahar komuntzat) hartzera garamatzakeena, itxura batean (ikus 4. irudia).<sup>11</sup>

#### 4.1.3. Datibo-komunztaduraz<sup>12</sup>

Atal honetan, datibo-komunztadurari dagozkion hiru alderdi izango ditut hizpide. Lehenik, Traske (1997: 227) *dative flag* izendatu zituen morfoak aurkeztuko ditut; bigarrenik, 3. pertsonako datibo-komunztaduraren morfologian zentratuko naiz; eta, azkenik, 1. eta 2. pertsonen datibo-komunztaduraz jardungo dut. Beti ere testu zaharretako lekukotasunei helduz eta helburua adizkien osaera aztertzea izanik.

##### 4.1.3.1. Datibo aurreko marka(k)

Gorago esan bezala, Trask (1995) ezkerro *-ki* eta *-i* atzizkien arteko lotura genetikoa onartzen da. Autore horrek *-k* aldaera ere aipatzen du, baina ez du haren sorrerari buruzko azalpenik eskaintzen.<sup>13</sup> Aldaera ezberdinak batzeko nahi hori Campion eta Schuchardt-engandik dator, gutxienez, eta euskalari haiek, gainera, *-ts* morfoa ere (*-tsi* osoa egiazki)

---

<sup>10</sup> Egiari zor, William H. Jacobsenek esana zuen 1975eko lan argitaragabe batean pluralgilearen jatorrizko formak herskari ahostuna zukeela (\*-dee, haren berreraiketan) eta kontsonante ahoskabedun aldaera txistukari ondoren sortu zatekeela (*apud* Gómez & Sainz 1995: 258).

<sup>11</sup> Cf. arrestiko [146] oin-oharreko aipuaren segida: “Creo que, originariamente, *e* se habrá dicho en todos los dialectos, y que andando el tiempo [...] ha degenerado en varios dialectos a *te*, en otros en *de*, *dee...* etc.” (Azkue 1969 [1923-1925]: 555). Nahiz eta aspaldixko dakigun, ataltxo honetan azaldu bezala, *-e* ezin dela berez *-te* baino jatorrizkoagotzat hartu, Zuazoren mapatik (eta esango nuke ohiko orokorprena dela bertan azaleratzen dena) erraz atera zitekeen azken paragrafoko ondorio okerra, datuen analisi xeheago baten faltaz.

<sup>12</sup> Komunztadura aipatzean, noski, adizki jokatuak datozkigu gogora. Hemen haietaz arituko naiz, baina Lazarragak baditu nolabaiteko datibo-komunztadurak aditz jokatugabe batzuetan ere. Eskuizkribu osoan zehar hainbat aldiz agertzen dira *jaquin* ('*izan/\*edin* [N-Ni]') eta *jaguin* ('*egin* [N-N-N]) gehienbat laguntzaile jokatugabe moduan, baina baita aditz nagusi bezala ere (Bilbao eta beste 2020a: 148-149; eta ikus hemengo § 5.3-n).

<sup>13</sup> “Occasionally we find *-k*, which probably derives from the same source” (Trask 1997: 227).

multzo berean sartu zuten, baina ideia hori erabat baztertua dago aspalditik, euskararen fonetika historikoaren kontra doalako (Trask 1995: 230).<sup>14</sup>

Azkuek ere lotu zituen alomorfo horiek (1969 [1923-1925]: 573-574), baina horrez gain Traskek zeharka baino aipatzen ez zuen -k aldaerarako *ko* < *ki* + *o* eman zuen, hura beti -o (edo -a) 3. pertsonaren datibo-komunztadurarekin batera agertzen dela oharturik (Azkue 1969 [1923-1925]: 616). Lafonek, bere aldetik, hainbat ohar interesgarri dituen lan batean, hauxe dio: “Il semble que les combinaisons -ki-ko, -ki-ka “à lui”, -ite, -kite “à eux” ne se rencontrent pas” (Lafon 1999 [1961]: 419). Horrekin, 3. pertsonaren morfoak -o eta -a hutsak direla erakusteaz gain (ez -ko eta -ka), -k-ren eta -ki-ren arteko lotura ere frogatu zuen; haren ustez, *ki* < *k* + *i* deskonposa zitekeen, eta marka horiek noiz bata, noiz bestea, bereiz ere erabil zitezkeela proposatu zuen.

Trasken Legeak -ki eta -i lotzen baditu ere, esan bezala ez du -k alomorfoaren jatorria azaltzen, eta horretarako lan honetan funtsezkoa den “Mitxelenaren Lege” batera jo beharko dugu. Hark, *FHV*-n konposizio edo eratorpenetan euskaraz gertatzen diren bokal-aldaketen artean sartu zuen -i > -ø (*FHV*: 103-105), bi silabatik gorako enborrei gertatzen zaiena. Bada, adizki guztiak gutxienez bi silaba dituztenez (hiru, datibo aurreko marka gehituta), \**dagogi*, \**datorgi* “enborrei” -o atzizkia gehitzean > \**dagog#-o*, \**datorg#-o* > *dagoko*, *datorko* lortzea ez bide da harrigarria.

#### 4.1.3.2. Datiboa 3. pertsonari dagokionekoa

Ezaguna denez, euskaraz 3. pertsonak ez du komunztadura-marka berezirik aditzean, datibo singularreko -o/-a alde batera utzita. Izan ere, Traskek pluraleko -e atzizkiaren jatorrian hirugarren graduko pluraleko erakuslearen erroa (*haie-*) ikusi nahi izan bazuen ere (Trask 1997: 220), -e < -o-(\*d)e (cf. -ote) izan liteke ekonomikoena, Schuchardtek proposatu bezala (*apud* Gómez & Sainz 1995: 251), non eta ez den analogiaz hedaturiko alomorfoa (cf. bizk. zah. *deuste* → bizk. mod. *dotse* ‘die’, eta hemen § 4.1.1 nahiz § 4.1.2ko adibide eta azalpenak).

Lot gakizkien, baina, singularreko 3. pertsonaren morfoei (pluralekoz ikus § 4.1.4). Haien jatorria gorabehera (nahiz horrek baldintzatua maiz), -o eta -a atzizkien arteko lotura (eza) izan da hizpide nagusi aipatuko ditudan autoreen artean. Alde batetik,

---

<sup>14</sup> Traskek -ts-i banatu zuen, *dative flag* delakoa eta partizipio-atzizkia bereiziz, eta Lakarra (2006b: 598) haratago joan da, -ts < \*-tz /R\_te proposatz, adib. *eutsi* ← *eus-te* < \**eunz-te* ← \**edun-tz-i*; cf. Mitxelenaren azalpena *jauntsi* eta *intsausti* hitzez (*FHV*: 234, 299).

Lafon (1999 [1961]: 424), Gómez & Sainz (1995: 251-252) eta Trask (1997: 219-220) Bonaparteren proposamenari atxikitzen zaizkio, zeinaren arabera 3. pertsonaren datiboko komunztadura-markak erakusleen erroetarik letozkeen, antzina beharbada gradu ezberdinak ere bereizten zirela (-o < *hau(r)/hon-*, *hori/horr-*, eta -a < *har-*). Beste alde batetik, Azkuek (1969 [1923-1925]: 560), Mitxelenak (1954a: §3 eta §5) eta Lakarrak (*apud* Gómez & Sainz 1995: 252) -o > -a aldaketa dakusate aldaera horien atzean, eratorpen arau ezagunaren antzekoa (cf. *baso* → *basa-jaun, basa-ti*).<sup>15</sup> Izan ere, bizkaiera zaharrean -o hitz amaiera absolutuan ageri zaigu soilik (edo batik bat), eta -a-, ordea, atzizkiren bat gehitzean. Gainerako euskalkietako testuetan ez da arau hori betetzen, baina zernahi gisan -o eta -a aldaerak, txandaka bada ere, agertzen dira haietan ere.

Lazarragaren eskuizkribuan -o/-a banaketa osagarri sistematikoa erakusten duten adibideak ugari ditugu, *izan, eduki, \*edutsi* eta *eretxi*-ren adizkietan:

- a. *jaco* ‘zaio’ : *jacan* ‘zitzaison
- b. *dauco* ‘dauka’ : *daucaçu* ‘daukazu(e)’
- c. *deuso* ‘dio’ : *deusae* ‘diote’
- d. *derecho* ‘deritzo’ : *derechala* ‘deritzala’

##### **5. irudia: -o/-a alomorfoen banaketa osagarria Lazarragaren eskuizkribuan**

###### 4.1.3.3. Datiboa 1. edo 2. pertsonari dagokionekoa

Lafon izan da, nik dakidala, datibodun adizki batzuetako komunztadura atzizkien forma berezia modu egoki batean azaltzen saiatu den hizkuntzalari bakarra. Hark, zehazki, -da-, -gu eta -zu-ren ordez -ta-, -ku eta -tzu aldaerak erabiltzeko arrazoia bilatu zuen, besteak beste zeren eta “[l]es seuls points sur lesquels, dès le XVI<sup>e</sup> siècle, l’usage est constant, c’est que l’on n’emploie jamais -ku, mais toujours -gu, après de l’élément *ki* et après le suffixe d’indétermination -ke” (Lafon 1999 [1961]: 425). Ondorio gisa, aipatu forma “indartuetan” datibo aurreko markaren -k- alormofoaren presentzia igar daitekeela- eta Leizarragaren adizki batzuen jatorrizko formak eman zituen (“*dohaku* < \**doa-k-gu*,

<sup>15</sup> Traskek (*apud* Gómez & Sainz 1995: 252, 22. oin-oh.) proposamen horri oztopo bat ikusten dio, aipatu arauak -e bokalari ere eragin ziola-eta, aditzean ez omen delako halako besterik gertatzen. Alabaina, cf. § 4.1.3.1 — § 4.1.5-eko 5. irudian laburbildurik; eta, bokal berari dagokionez, ikus § 4.3.2.2 (eta, beharbada, § 5.2.2, Lazarragaren *eucaiqueçu, beucaique* eta *baneucaique* formez).

*drautan* < \**drau-k-dan*”, Lafon 1999 [1961]: 426); areago, bilakabide horrek euskara orokorrerako balioko luke, RS 507 *joaku* ‘doakigu’ ere aipatzen baitu.

Joseba Lakarrak ahoz beste azalbide bat proposatu zidan kontsonanteon gogortzerako. Horren arabera, diptongoek (bereziki /au-/k?) kontsonante baten moduko eragina izango lukete (cf. *gau-e-an*, *lurr-e-an* vs *barru-an*), eta hortik *deraugu* > *derauku*, eta abar. Ondoren, analogiaz, *-ku*, *-tzu* aldaerak datibo komunztaduraren ezaugarri bihurtu eta beste testuinguru batzuetara zabalduko ziren. Horren harira, Lafonek Leizarragaren aditzaz egindako iruzkin hau gogora dezagun:

Liçarrague emploie toujours *-ku* après une diphtongue: *zaiku*; *dauku* “il nous est” (de *dagoku*, qui est employé par Axular au siècle suivant); *darreiku* “il nous suit”; *drauku* “il nous l’a” (de *darauku*). Le seul verbe de la 2e classe où figure *-ku* [...] est celui dont la racine est *rav-*, et qui est proprement le causatif de *du-* “avoir”. [...] Ce n'est pas uniquement après une diphtongue (primitive ou secondaire) que l'on trouve *-ku*. Il s'ajoute à la racine *oa-* “aller”; *dohaku* (Liç.) “il nous importe”, bisc. *joaku* “il nous va” (Lafon 1999 [1961]: 425).

Nire aldetik, honako eragozpideak ikusten dizkiot aurreko argudioari: batetik, analogiazko hedadura jasateko bezain emankorra balitz bilakabide hura, diptongo guztien edo gehienetan ondoren kontsonante “gogorrak” (-t-, -k-, -tz-) aurkitzea esperoko litzateke, eta, alderantziz, gainerako inguruneetan anabasa handiagoa, analogiaren indarraren arabera, hizkeraz hizkera eta paradigmaz paradigma;<sup>16</sup> alabaina, estate baterako, \*\**doada*- eta \*\**doagu* ez dira lekukotzen (bai *doata-*, *doaku* —cf. RS 507 *joacu*— bezalakoak),<sup>17</sup> eta *doazu* oso gutxi eta berandu (ia beti *doatzu*); aldiz, badira testu zaharrenetan *d(e)rauda-*, *d(e)rauzu-* bezalako aldaerak (*draugu* soilik Beriainek), beti ere *d(e)rauta-*, *d(e)rautzu* (eta Beriainez kanpo nagusi den *d(e)rauku*) formekin batera.<sup>18</sup>

Lazarragaren eskuizkribuaren kasuan, soilik hiru adizki idoro ditut aipagarri: *gagoçu* (AL: 1147v), *nagoçu-* (AL: 1139v, AL: 1152v, A16: 45, B3: 73, B3: 88, B20: 24) eta *nachaçu* (AL: 1140r, AL: 1146v, AL: 1151r [*nachazu*], AL: 1152r, AL: 1152v, B11: 8). Zoritzarrez, Lazarragak ez du txistukari apikari eta bizkarkarien sailetan artikulazio

<sup>16</sup> Oroit: analogiak erregulartasuna sorraraz dezake, baina ez da erregularra, litezkeen kasu guztietaan gertatzen ez den heinean.

<sup>17</sup> Bai aldiz *dagogu* ‘dagokigu’, 1609an Iruñean saritutako poemetako batean.

<sup>18</sup> 1651ko Oltzeko Pregarien itzulpenetan, bestalde, badira *daroguten* ‘diguten’ (Lapurdiko jatorrizkoan *darocuten*) eta *daragute* ‘digute’ (Lap. *darocute*) formak. Irizarrek bilduak azterturik, badirudi *-gu* aldaerak Nafarroan (Garai eta batez ere Beherean) sortu edo hedatu zirela.

modua grafikoki bereizten, beti <ç>/<z> eta <s> idazten baitu. Hala ere, pare bat gauza esan daiteke forma horien inguruan: 1) ediziogileek *egon*-en adizkien azalpenetan “irakur bedi *nagozu* [eta *gagozu*], txistukari frikariarekin (eta ez \**nagotzu* [eta \**gagotzu*], afrikatuarekin)” dioten arren, ez dute adierazten zer arrazoi dagoen horretarako; izan ere, batetik, frikari/afrikatu bereizketa grafikoa egiten duten mendebaldeko lehenengoetariko autoreek (Larram, Añib) *nagotzu* ematen dute eta, bestetik, *gagoçu* bera nahiko bitxia da, itxuraz pluralgilea falta baitzaio (baina izan daiteke absolutiboko pluralgilerik ez erabiltzea, Araba-Debagoina eremuko euskararen ezaugarria baita, hain zuzen). Eta alderantziz, 2) ediziogileek *nachaçu/nachazu* nola irakurri behar den ez dute zehazten, baina, adibidez, Añibarro *nachazu* dakar gramatikan, nahiz eta alboan *nagotzu* eta *nachatzue* ere badituen. Ez da ahaztu behar, bestalde, geroagoko testuetan ere *natxatzu* nahiz *natxazu*, biak erabili direla. Edonola ere, hori *izan*-en N-N<sub>i</sub> saileko adizkien auzi orokorraren barruan sartuko litzateke,<sup>19</sup> hemen aztertuko ez dudana (ikus § 6). Azkenik, multzo horretan bertan, eta tradizioarekin bat etorriz, *jacu* ‘zaigu’ eta *jaçu* ‘zaizu’ (/jatsu/ noski, Añib *jatzue* bezala) aipa daitezke, gaurdaino iritsi diren formak, alegia.

Forma horien harira, ez nituzke aipatu gabe utzi nahi 1862ko *Gatzagako dotrinan* (Uribe-Etxebarria 2011) ageri diren adizki hauek: *naotzu/nautzu* ‘nagokizu’, *gaotzu* ‘gagozkizu’,<sup>20</sup> *jatzu* ‘zaizu’, *nachatzu* ‘natzaizu’, *gachatzu* ‘gatzaizkizu’ eta *guatzu* ‘goazkizu’, guztiak txistukari afrikatuaz.

Laburbilduz, 3. pertsonarako onartu behar den bilakabidea (\*-gi > -k / \_#) besteetan ere ezagut daitekeela (2) eta salbuespenak bitara uler daitezkeela pentsatzen dut. Izan daitezke analogiak eragindakoak (bereziki -ku, -tzu → -gu, -zu, beste adizkien eta izenordainen beren itxurak erakarrita), edota jatorrian bertan gerta zitezkeen txandakatzeen ondorio, beharbada \*-gi ez zelako aditz/pertsona guztiekin eta modu berean erabiltzen (cf. Lakarra 2006: 594-595), hots, kasu batzuetan hautazkoa izan zitekeelako, dela arrazoi morfosintaktikoengatik, dela eragile semantiko-pragmatikoengatik (esate baterako, aditzaren oinarrizko konfigurazioa, datibo etikoa sartzea, datibo-argumentuaren rola —onuraduna, helburua, esperimentatzailea— bereiztea, eta abar).

<sup>19</sup> Hots, *jako/zako/zaio* (eta *dakio*) bezalako aldaeren hasierako hotsaren eta datibo-markarenean.

<sup>20</sup> Eta *gaocola* ‘gagozkiola’, pluralgilerik gabe; hortaz, litekeena da *gaotzu*-n ere pluralgilerik ez izatea, eta bai datibo-marka (cf. Laz *gagoçu*-z esandakoa).

#### 4.1.4. Pluralgileak Lazarragaren eskuizkribuan

Honenbestez, atal honen muinerantz murgiltzeko tenorea dugu. Hasteko, Lazarragaren eskuizkribuaren edizioan pluralgile *-de*, *-te*, *-e* pluralgileen erabileraz esaten dena ekarriko dut:

(..) *-de* morfema iragangaitzetako NOR argumentuaren pluralgile bezala aurkitu dugu bost aldiz, gehienetan pleonastikoki erabiliak: *çagode* (A5:2), *çarade* (AL:1144v, B16:91), *dirade* (A1:52), *çabilçadela* (B16:147), *gabilçaden* (A17:93), *çaucidenean* (A16:86). (...)

Azkenik, *-te* zein *-e* morfok NORK argumentuaren pluralgile bezala erabiltzen dira nagusiki: *darabilte-* (A1:47, A24:87), *ecarrela* ‘zekarrela’ / *ecarten* ‘zekarten’ (AL:1153r, AL:1154v, A1:37), *ecusen* ‘zekusen’ / *ecusten* ‘zekusten’; *eguijan* (*eguiala*) / *eguien* ‘zegiten’, *eyoen* ‘zegioten’; *eucan* ‘zeukan’ (*eucala*) / *eucaen* ‘zeukaten’; *eusan* ‘zion’ / *eusaen* ‘zioten’. Baina *-te* NORI 3. pertsona pluralekoa delarik ere aurkitzen da, bai iragankorretan (*deustet* ‘diet’ A17:9, *deuste* ‘die’ A26:145, *eusten* ‘zien’ AL:1144r, A6:50, A29:49), baita iragangaitzetan ere (*egotela* ‘zegokiela’ AL:115v, *jate* ‘zaie’ B3:77). Gisa berean, *-e* iragangaitzetan ere badago 3. pertsona pluraleko NORI argumentua markatzeko: *lequielo* ‘lekiela’ (AL:1154v). *Liçatela* ‘litzaizkiola’ (AL:1154v), *eustela* ‘eusten zitzaizkolarik, eusten ziotelarik’ (AL:1142v) eta *eusten* ‘eusten zitzaizkion’ adizkiak eskema hauetatik kanpo gelditzeaz gain, arras bitxiak dira; adizki horien azalpen saio baterako, ikusi Ariztimuño (2015). (Bilbao eta beste 2020a: 157-158)

Zerrendaturiko adibideetan ikus daitekeenez, egungo hizkeretan ohi ez bezala, *-te* alomorfoa datiboko argumentuen pluralgile bezala ere erabiltzen zen (zerrendatik atera gabe *deustet* ‘diet’ eta *eusten* ‘zien’ ditugu; ikus [§ 4.1.4.2](#)). Bestetik, *liçatela* (*l*-dun iraganeko forma) ‘zitzaizkolarik’ dago “itzulia” edizioan (Bilbao eta beste 2020b: 80), baina hori espero dugun forma da, ez adizkiak adierazten duena, nire ustez; ikus [§ 4.1.4.3](#).

Auzi honi beherago helduko diot, baina, lehendabizi, *-e* alomorfoarekin lotutako fenomeno batez arituko naiz, laburzki.

##### 4.1.4.1. \**edun*-en adizkietan

Ezaguna da mendebaldeko hizkeretan (eta hemen *mendebalde* zabalago batez ari naiz, Gipuzkoaren zati bat barne) \**edun*-en 3. pertsonako adizkiek forma berezia dutela, arkaikoa zehatzago esanda, diptongo zaharra edo haren garapen berezia (-*u*-ra bakundi

gabea) erakusten baitute: *dau* (*dab-*) / *deu* (*deb-*) ‘du’, *dau(i)e/dab(i)e/deb(i)e* ‘dute’ (*daude(e)*-ren aldaerak bazter utzita). Hizkeraren arabera forma bat edo beste aurkituko dugu, baina joera nagusia singularreko forma atzizkidunetan ere bokalarteko *-u-* > *-b-* egitea dela esan daiteke, eta horrek maiz *daben* ‘duen/duten’ bezalako anbiguotasunak dakarzkeenez, pluralgile pleonastiko bat txertatu zaio (*-ee* > *-ie*) toki askotan.

Nahasteko “arrisku” hori nahiko zaharra bide da, ezen Kapanagak berak *-e-* bat eransten die gehienetan pluralekoei (*dabee* ‘dute’, *dabeen* ‘duten’, eta abar), nahiz eta artean *dauen* ‘duen’ argi batzuk ere bazerabiltzan singularrean. Bi mende geroagoko Otxandioko dotrinan (Uriartek Bonaparterentzat “itzulitako” hartan), bereizketa egonkortu dela ikusten da, *dau* ‘du’ → *dauben* ‘duen’ eta *daube* ‘dute’ → *daubeen* ‘duten’ formak ia sistematikoki darabiltza eta.

Bada, zer erakusten du Lazarragaren eskuizkribuak puntu honi dagokionez? Erantzuna borobila da: arabarrak erabat bereizten ditu forma horiek guztiak, eta gainera ez *-e* pleonastiko baten bidez, baizik eta forma zaharren garapen bereiziengatik.

Ez nintzen berehalakoan jabetu sistematikotasun horretaz, harik eta adizki zaharren datubasea osatzen ari nintzela erregulartasun bat azaldu zitzaidan arte, grafia zaharrak eragindako nahasmendu batek ordura arte estalirik eduki zuena: Lazarragak ez ditu <*u*> eta <*v*> hizkiak bereizten, eta hitz ezezagun baten aurrean erabaki egin beharra dago /*u*/ ala /*b*/ fonema adierazten duen delako grafemak; areago, hitz bat ezaguna izanagatik (edo horregatik hain zuzen ere) oker interpretatzeko arriskua egon daiteke, aldaera biak existitzen baldin badira, eta eskuizkribuan <*v*> eta <*b*> nonahi txandakatzen direla uste badugu. Horrek guztiak ekarri zuen hasieran Lazarragaren *daben* eta *daven* edo *eben* eta *even* aldaera grafiko soiltzat hartzea, guztiak subjektu singular zein pluralerako balio zezakeelakoan (hots, ‘du(t)en’ eta ‘zu(t)en’). Baina xehetasun garrantzitsu bati antzemanez gero auzia oso bestelakoa dela konturatuko gara: Lazarragak ez du behin ere *dabe* hutsa erabiltzen (beti *daben*, *dabela* eta abar). Hari horri jarraituta eta testuinguruari erreparatuta, erraz ikusiko dugu *-b-*dun aldaerak beti subjektu singularrekoak direla, eta *-v*-dunak pluralekoak.<sup>21</sup>

<sup>21</sup> Hasieran salbuespenen bat edo beste bazela zirudien arren, ediziogileen berrikuste xehe batek erakutsi du egitan transkripzio akatsak zirela, eta *l*-dun iraganeko formek ere arauari jarraitzen diotela (*lebela* ‘zuela’). Horrez gain, Joseba Lakarrak erregulartasun bera ikusi du beste zenbait hitzetan ere, ahoz adierazi didanez: Lazarragak *gau* hitza deklinatzerakoan *-u-* > *-b-* egiten duen bitartean (*gabaz*, etab.), *lau* deklinatzean *-u-* bere horretan geratzen da (*lauac*, etab.), jatorrizko *-r* galduak (*laur-*) aldaketa eragotzi balu bezala. Gauza bera *ceben* eta *ceuen* hitzekin: lehenak ‘zenuen’ esan nahi du eta \**zeuen*-etik datorrela pentsa daiteke (berori arkaismo ala berrikuntza den gorabehera); bigarrenak ‘zeuen’ esan nahi du eta badu *ceuren* aldaera ere, *-u-* mantendu izana azaltzen duena.

Behin banaketa hori eginda, azpian arrazoi diakronikoak egon daitezkeela susma genezake, nahiz eta hasiera batean senaren kontrakoa lirudikeen, singularreko *dau* ‘du’ deklinatzean *-u-* gordetzea errazago dirudielako, \**daue* pluralgileduna *dabe* ‘dute’ bihurtzea bezalaxe. Haatik, alderantziz, *dab-* ‘due-’ eta *daue* ‘dute’ ditugu eskuzkribuan, bai eta are itxuraz testuinguru fonologiko bera duten *eben* ‘zuen’ eta *euen* ‘zuten’ formak ere. Haatik, Joseba Lakarrak ahoz iradoki bezala, pluralgilearen forma zaharra \*-de baldin bada (eta hala uste dugu, Trasken Legea beteaz), bokalen artean kontsonanteak iraun zuen, gutxienez, beste formetan *-u-ren* kontsonantizazioa gertatu arte; hori erraz uler daiteke erroko kontsonantearen galera -de pluralgilea bizirik zegoen garaian gertatu zela pentsatzen badugu, eta soilik ondoren pluralgilekoa, Bizkai sartaldeko hizkeretan izan ezik (cf. *daude* ‘dute’ erako aldaerak).<sup>22</sup>

a. *daben* < \**daw-e-n*, *eben* < \**ew-e-n*

b. *daue(n)* < \**daw-de(-n)*, *euen* < \**ew-de-n*

#### 6. irudia: ERG.SG (a) eta ERG.PL (b) formen arteko kontrastea (Lazarraga)

Azpiatal honekin amaitzeko, *Gatzagako doctrina* delakoan (Uribe-Etxebarria 2011) ageri diren adizkiak aipatu nahi nituzke, uste baitut bertako hizkerak baduela Lazarragarenaren antzik, bi mende eta erdiko aldea egon arren bien artean. Izan ere, Arabaren eta Gipuzkoako hego-mendebaldearen artean hartu-eman estuak izan direla gauza jakina da (cf. Zuazo 2012), eta horren ondorio bide dira hango hizkeretako ezaugarri batzuk, beharbada zabalduena objektu pluralekiko komunztadurarik eza dela (Zuazo 2008: 140-141), dagoeneko Landucciren hiztegian bezalaxe (Mitxelena 1958: 229-230). Hona, beraz, Lazarragaren eskuzkribuko eta *Gatzagako doctrinako* adizki batzuen taula konparatibo labur bat:<sup>23</sup>

<sup>22</sup> Beste kronologia erlatibo bat ezartzeko ere baliagarri gerta daiteke, *-n* ( $\leftarrow$  *-an*) atzizkiaren jatorria kontuan hartuz gero (Ariztimuño 2013a).

<sup>23</sup> Oñatiko gaur egungo adizkiak ere ia guztiz bat datoaz Lazarragarenekin (salbu eta Oñatiko *dauen* ‘duen’); eta taula honetakoez gain, *xate* (Laz. *jate*) eta arestian aipatu *doste-* (Laz. *deuste-*) ere erabiltzen dira bertan.

Lazarraga	Gatzagako dotrina	
<i>daben</i>	<i>daben</i>	'duen'
<i>dauen</i>	<i>dauben</i>	'duten'
<i>eben</i>	<i>eben</i>	'zuen'
<i>euen</i>	<i>euben</i>	'zuten'
<i>zeben</i>	<i>zeben</i>	'zenuen'

5. taula: Lazarragaren eskuizkribuko eta Gatzagako dotrinako \**edun* adizkiak4.1.4.2. \**edutsi*-ren adizkietan

Lazarragaren eskuizkribuko beste alternantzia sistematiko bat *-te* eta *-e* alomorfoen artekoa da. Eta sistematikoa da bi zentzutan: alde batetik, testuinguru fonologikoaren araberakoa, kontsonante ondoren *-te* agertzen baita beti, eta, alderantzik, *-e* aldaera bokal ondoren soilik, salbuespenik gabe;<sup>24</sup> beste alde batetik, \**edutsi* laguntzailearen formetan *-te* beti datiboko 3. pertsonaren pluralgilea da (kontsonante ondoren, ez halabeharrez),<sup>25</sup> eta *-e* ergatiboarena (bokal ondoren, jakina),<sup>26</sup> nolabait euskara estandarraren kontrara.

- |  |
|--|
| a. <i>deuste</i> ‘die’, <i>deustet</i> ‘diet’, <i>eusten</i> ‘zien’, <i>leustela</i> ‘ziela’             |
| b. <i>deutsae</i> ‘diote’, <i>deustae</i> ‘didate’, <i>eutsaen</i> ‘zioten’, <i>baleustae</i> ‘balidate’ |

7. irudia: Lazarragaren DAT (a) eta ERG (b) pluralgileak

<sup>24</sup> Bokal ostean *-de* eta *-te* ere badira, baina adizki jakin batzuetan: lehendabizikoa *egon*-en pluraleko formetako batean (*çagode*; cf. Landucciren *daodē*) eta pleonastikoki markaturikoetan (adibidez *çauçidenean* ‘zautzanean’, *dirade* ‘dira’, *gabilçaden* ‘gabiltzan’); bigarrena, aldiz, beherago azalduko ditudan *egotela* ‘zegokiela’, *jate* ‘zaie’ eta *liçatela* ‘zirela (?) ~ zitzaiela (?) ~ zitzazkiola (?)’ formetan.

<sup>25</sup> Ohikoak dira Bizkaiera Zaharrean *-te* pluralgiledun formok: *deuste* (BBizk, EgiaKant, Kap, Zub), *deusteet* (frJZum), *deustegu* (Bet, Zub), *eusten* (BBizk), *neusten* (EgiaKant), eta abar. Halaber, VJ *deuste*, *deustegu* eta *deustezu*, eta beranduago, AnzD *deustegu*.

<sup>26</sup> Egia da badela *eusten* bat testuan ‘zioten’ adiera duena (ez ‘zien’), *-te* ergatibo pluralari dagokiola, beraz. Alabaina, kontuan harturik esaldi berean beste *eusten* ‘zien’ bat badela (urreko lerroan, ia gain-gainean) eta, azken batean, kontradibide bakarra litzatekeela arauzko etsenplu ugarien artean, *immutatio* motako akastatzat joko nuke (Blecua 1983: 26-30):

(i) (...) Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu **eusten** nora illoacen, ceñac erançun **eusten** manera onetan (AL: 1147r).

Ez litzateke hori kopiaketa huts bakarra Lazarragaren eskuizkribuan, Ricardo Gómezek ohartarazi didanez, ediziogileen ustez oso litekeena baita A testua ez izatea lehen idatzaldikoa, baizik eta garbira pasatakoa.

Baliteke inork *deutse-* (> *dotze-*, etab.) ‘die-’ eta *deuste-* ‘id.’ formen artean harreman diakroniko zuzena dagoela pentsatzea,<sup>27</sup> eta are azken hori beste hartatik datorrela, *-te* aldaera “bizkaieraz” espero ez dugulakoan, Mitxelenak (FHV: 298) *interversión* deitu aldaketaren bitartez: *ts* > *st*.<sup>28</sup> Trasken Legeak dioskuna besterik da: jatorrizko *\*-de* bat ahoskabetu da erroko txistukariaren ostean (*\*deuts-de* > *deuste*), eta beranduago —testuek erakusten duten moduan— beste testuinguru batzuetarik hona igaro da *-e* aldaera (*deuste* → *deutse*). Aldiz, *deutsae* ‘diote’ bezalako formetan (egun *dotze* < *deutse*), *\*-de* hora bokal ondoan zihanez, herskari ahostuna galdu egin zen.

Baina adizkion azalpena ez da hor finitzen. Alde batetik, *-te* pluralgile hutsa bada, eta singularreko datibo-komunztadurari gehitzen bazaio datibo plurala adierazteko, [haiiek-hari-hura] eta [hark-haiei-hura] formen arteko sinkretismoa esperoko genuke, biak < *\*deuts-o-de* batetik datoza. Lehendabizikoaren kasuan *-de* ergatibo pluralaren marka litzateke, eta *-o* hutsa datibo singulararena. Bigarrenean, *-o* datibo-marka litzateke, eta *-de* beraren pluralgilea. Ordea, emaitza ezberdinak dira batean (*deutsae* ‘diote’) eta bestean (*deuste* ‘die’). Hala, hasierako hipotesi gisa, *-o* marka ergatibo/datibo bereizketa gauzatzeko sortu bazen, datibo pluralean beharrezko ez zela pentsa genezake, eta egiazki protoformak ezberdinak ziratekeela: *\*deuts-o-de* ‘diote’ eta *\*deuts-de* ‘die’.

Alabaina, beste aditz batzuetara jotzen badugu, azalpen gehiagoren beharra izango dugu. Har dezagun *eretxi* ‘iritzi’ aditza, N-N-N jokoa duena. Aipatu berri dudan hipotesiaren arabera, Lazarragaren sisteman iraganaldiko [haiiek-hari-hura] forma *\*eretxaen* izatea esperoko genuke, baina, izartxoak adierazten duen bezala, ez da hori Lazarragak darabilena, *erexten* baizik (524a).<sup>29</sup> Esaldi elkarkaria denez, (524b) adibidea ere erantsi dut, erakusteko idazle arabarrak egitura elkarkarietan komunztadura datibo singular eta ergatibo pluralarekin egin ohi duela (baina cf. [525a-b] adibideak).

Bada, *-ki* + *-o* > *-ko* azaltzeko erabili dudan argudio beraz baliaturik ([§ 4.1.3.1](#)), bokal baten galera postula dezakegula uste dut. Izan ere, Mitxelenak (FHV: 103-105) bokalen bilakaerarako ezarritako baldintzen arabera, emaitza desberdinak lortuko genituzke, koherenteki: bi silaba (edo gehiago) dituen forma bati morfo bat eranstea, *-i*

<sup>27</sup> Aurkitu dudan Mitxelenaren aipu bakarra (batere argigarria ez dena) hau da: “*Deusteet. Como deutset y/o se lo he a ellos»*” (Mitxelena 1981b: 76).

<sup>28</sup> Cf. Arejitzak *neusten* ‘nien’ (EgiaKant) adizkiaz dioena: “Laguntzailea gaur *neutsen/neutseen* formaz badarabilgu ere, zaharragoa da «neusten» hori. Metatesia egon daiteke: *neuts-:neust-*. Edo izan daiteke *-te* atzizkia daukagulako ere (iragangaitzetan ere *jake* barik «jate» azaltzen da testu zaharrotan” (*apud* Lakarra 1984: 141).

<sup>29</sup> Cf., aldiz, *Alcarr[i?]* on **badereche** (Mikol, I: 13).

> -*ø* edo -*o* > -*a* gertatuko zen, eta hiru silabatik gorakoetan -*o* > -*ø* (cf. *itsas gizon*). Hortaz, *erexte-* < \**eretx(o)-de-* berreraiki dezakegu, hiru silabako oinarriarekin.

- (523) a. cegati utra on alcarri **erexten** (Laz, AL, 1142r: 14)  
          ‘zeren oso on zeritzoten elkarri’
- b. ipirdietan **deyqueoçu** / erraz muñ bioc alcarri (Laz, A27: 37)  
          ‘ipurdietan egingo diozue ziur muin biok elkarri’

Oztopoak jar dakizkioke azalpen horri \**edutsi*-ren adizkiei dagokienez: *deutso-* bi silabakoa da, eta, beraz, soilik *deutsae* ‘diote’ forma argitzen da goiko argudioen bidez. Aldiz, azalbide horretan sakondu eta ondorio interesgarri bat atera daiteke: kronologia ezberdinak izan ditzakete. Izan ere, garai zaharrago batean *deutso-* ez, baizik eta \**de.du.tso* izan zitekeela kontuan hartzen badugu, hirugarren silabako -*o* galdua \**de(d)utso* + -*de* > *deuste*-ra iritsiko gara, eta datibo-pluralgilea ergatiboarena baino zaharragoa izan litekeela ohartuko gara.

Horren aldeko beste froga bat *eutsi*-ren forma trinkoetan idoro uste dut. Argudio zirkularretan galtzeko arriskua badago ere, esango nuke (525c) adibideak ziurtatzen duela aditz hori N-N<sub>i</sub> konfiguraziokoa zela (cf. RS 422 *ausso* eta GarA 26 *ausho* ‘euts hakio’). Zahartasunak ere azal lezake, N-N-N gisara jokaturik ere, (525a-b) adibideetakoak \**eutsaen* ‘zioten’ ez izatea, hiru silabako \**e(d)utsa* oinarrian (cf. *erexten* [524a]). Dena dela, ez dira halabeharrez forma arkaikoenak aldi berean bitxi eta azalgaitzenak. Beraz, (525a-b) adibideetako adizkietan ez da zertan salbuespenik izan (*eusten* ‘zien’ ≠ *eusten* ‘eusten zioten/zitzaien~zitzaizkion’). Egia da absolutibo plurala esperoko zela *alcarri* izenordain elkarkariarekin, baina Lazarragak ez darabil horretarako pluralgilerik (cf. *gagoçu*, *liçatela*) eta horrek bultza zezakeen beste forma bat hartzera (*concordatio ad sensum modura*).<sup>30</sup>

---

<sup>30</sup> Cf. Leizarragaren *on daritzaten* [haiek-hari-hura] vs. *on darizté* [haiiek-haiei-hura]; Lafonek dio ezen “[c]ette forme [*on darizté*] devait signifier indistintement ‘il les aime’ et ‘ils les aiment’”, baina, Leizarragak ez du *hark-haiei-hura* formari erabiltzen, eta pentsa genezake hartarako *darizte* (hots, -*e* azentugabea) erabiliko zuela. Lafonek, ordea, -*te* errepikatua saihesteko joerari egozten dio Leizarragak \*\**on dariztete* ez idaztea (*diote*-k lapurtera modernoan eta gipuzkeraz ‘ils le lui ont’ eta ‘il le leur a’ ez ezik ‘ils le leur ont’ ere esan nahi izan dezakeen moduan). Nire ustez, ordea, *darizté*-ren azentua ez da halabeharrezkoa, baizik eta \**dariz-te-e* batetik eratorria, hots, \**deritz(o)-de-de* (forma zaharraren ondorengo zuzena ezinbestean, Leizarragaren ergatibo-pluralgile emankorra -*te* denez gero); cf. *darizte-* [haiek-niri-hura] < \**deritz-da-de-*, eta *daritzue-* [haiek-zuei-hura] < \**deritz-zue-de* vs. *dariztezue* [hura-haiei-zuek] < \**deritz(o)-de-zue*.

- (524) a. alcarri escuetaric **eustela** (Laz, AL, 1142v: 10)  
 ‘elkarri eskuetarik eusten ziotela [lit. ‘eusten zitzaiela’]’
- b. Ese banatan bici cirean, / ceñac **eusten** alcarri (Laz, A11: 14)  
 ‘etxe banatan bizi ziren, zeinek eusten zioten [lit. ‘eusten zitzaien’] elkarri’
- c. eztacart gorguera, **eztaust** gona (Laz, B15: 17)  
 ‘ez dakart iduneko, ez zait eusten (=ez dut janzten) gona’

#### 4.1.4.3. Pluralgile bihurriak eta munstro pare bat

Azken azpiatal honetan, aurretik esandakoetarik aldentzen diren hiru adizki aztertuko ditut. Zehatzago esateko, lan honetan defendatzen dudan erregulartasunetik ateratzen dira forma horiek, daramaten pluralgilearen alomorfoari dagokionez. Ordea, salbuespenok badute zeresanik aditz jokatuen osaeraren historia koherente batean; azken finean erabat erregularrak direla ikusiko dugu. Lehendabiziko biak ez dira erabat ezezagunak (bigarrena oraindik entzuten da), baina bereziak dira *-te* alomorfoa bokal ondoan dutelako:

- (525) a. ceñay escuacascaetan **egotela**<sup>31</sup> Silvero eta Dorido (Laz, AL, 1154v: 18)  
 ‘zeinei eskuak askatzen zegozkiela (=ari zitzaizkiela) Silvero eta Dorido...’
- b. ainbat sartu **jate**<sup>32</sup> çure bildurra (Laz, B3: 77)  
 ‘hainbat sartu zaie zure bildurra’

Arestian erabilitako Lafonen aipua berrekarriz (“Il semble que les combinaisons -*ki-ko*, -*ki-ka* “à lui”, -*ite*, -*kite* “à eux” ne se rencontrent pas”, Lafon 1999 [1961]: 419) orain esan dezakegu -(*k*)i-*te* morfo-katerik ez agertzea soilik arrazoi bategatik izan daitekeela: -*te*-ren herskaria beste kontsonante baten ostean ahoskabetuko zen, eta aztergai ditudan adizkietan, batez ere bigarrenean, hots hori datibo aurreko markaren herskari belarra baino ezin izan zitekeen (\*-*g(i)-de* edo \*-*k(i)-de* → -(*k*)*te*).<sup>33</sup> Halaber,

<sup>31</sup> Ohar hau egiten diote edizioan *egotela* formari: “cf. Mendiburuk, Ubillosek, Agirrek eta Uriartek erabiltzen duten *zegoten*” (Bilbao eta beste 2020a: 82-83, 474. oin-oh.). Paralelo horiek euskara giputz edo nafarrean idatzitako obretan aurkitzen dira. Kardaberazek *irakasleari iagote* (‘irakasleei(?) dagokie’) dakar bizkaieraz idatzitako dotrina batean. Gehi bekie orain *Gatzagako dotrinako dagote* ‘dagokie’, *datorte* ‘datorkie’ (baina *dakarde* ‘dakarte’) eta *letorte* ‘letorkie(ke?)’.

<sup>32</sup> Orokorra da *jate* Bizkaiera Zaharrean (VJ, EgiaKant, Kap), eta ez da ezezaguna geroagoko mendebaldeko euskaran ere, *Gatzagako dotrinan* estate baterako (cf. Irizar 1992).

<sup>33</sup> Antzeko bilakabideak, gorago esan bezala, ohikoak izan dira aditzetarik kanpo, adibidez \**ahaid(e)-goa* > \**ahaitkoa* > Leiz *ahakoa* (FHV: 283); eta cf. § 4.1.3.2.

pentsa liteke (526a) adibideko adizkiaren modukoetan absolutibo pluraleko formekiko analogiaz gara zitezkeela zenbait *-te* (*dagozte* ‘dagozkie’; ezagunak dira *dagozte* ‘daude’ erakoak ere, mendebaldetik kanpo izan arren), baina hain zuen ere Lazarragaren *egotela* [haiet-haiei] egiturakoa da (cf. *Gatzagako dotrinako gaocola* ‘gagozkiola’), eta, orain arte ikusitakoarekin, eta euskalki guztietako testuetan bilakabide bera jasan ahal izan dituzten adizkiak erregularki aurkitzen direnez gero, hemen proposaturikoa dateke azalpen ekonomikoena. \**egog(i)-de-* > *egote-*.

Aldiz, hirugarren pluralgile “bihurria” arreta handiagoz behatzeko da. Ediziogileek *suplicaetan liçatela* perifrasiaz hauxe diote:

*suplicaetan liçatela*: ‘suplikatzen zitzaizkiolarik, erregutzen ziotelarik’ (...) Aditzaren formari dagokionez, ez dirudi *liçatela* hau eta goragoko *liçateala* (AL:1151v) gauza bera direnik, han *-te-* morfemak hipotetikotasuna adierazten baitzuen, eta hemen pluraltasuna (Bilbao eta beste 2020b: 80, 454. oin-oh.).

Hortaz, *liçatela*-ko *-te* morfoak absolutibo argumentuaren pluraltasuna adierazten duela iradokitzen da.<sup>34</sup> Aurrera baino lehen, hona adizkiaren testuinguru osoa, ondoko azalpenak hobeto ulertze aldera:

- (526) Ceruetaco Erregueari  
 oy dira encomendadu  
*suplicaetan liçatela* <1154v>  
 nay **lequiel**a lagundu.

Ikusten denez, datiboko argumentua agerian dago (erregeari) eta, *encomendadu* aditzak egiten ez badu ere, espero izatekoa zen *suplicadu* aditza N-N<sub>i</sub> jokoaren arabera komunztatzea, eskuizkribuan zehar agertzen den gainerako aldi guztietan hala egiten bai (suplicaetan *nachaçu* ‘erregutzen dizut’). Hala eta guztiz ere, egia da adizki honetan pluraltasuna absolutiboarena dela, izatez, baina *liçacala*<sup>35</sup> esperoko genuke ‘zitzaizkiola’ esateko (gogoan izan Lazarragak ez duela absolutibo pluralgilerik ezartzen NOR hutsezko aditzetatik kanpo; cf. *eocela* ‘zeuden’ vs *egotela* ‘zegozkiela’, eta agian § 4.1.4.2 *eusten* ‘eusten zitzaien~zitzaiak’). Beraz, nire ustea da *liçatela* adizkia, testuinguru honetan behinik behin, *lapsus linguae* bat besterik ez dela, bi eragileren laguntzaz sortua: alde batetik, absolutiboaren pluraltasuna adierazi nahia edo beharra lego ke eta, bestetik,

<sup>34</sup> Ez ote zen *\*lireala* bezalako zerbait esperoko? Cf. Etxep, OihAts *liren*, EtxZib, SilvP, Hb *lirela-*, eta Mendibururen *lirala*.

<sup>35</sup> Izan ere, badarabil forma hori ‘zitzaiola’ adieran (*Silviac uste eben ece escuartean ilgo liçacala*).

perpaus berean hainbat datibo egoteak eta, bereziki, jarraian datorren *lagundi* aditzaren onuradun datiboa eta *suplicaetan* aditzaren absolutibo argumentua pertsona berberen erreferente izateak ekar lezakeen nahasmendua.

Azkenik, atal honi bukaera emateko azalduko dudan adizkia ere halako “munstro” bat dela iruditzen zait (kasu honetan, ordea, ez du pluralgilearen aldaerekin ikustekorik).<sup>36</sup> Hain zuzen ere, aipatu berri dudan (527) adibideko azken bertso-lerroko adizkiaz ari naiz. Lazarragaren eskuizkribuan (ikus Bilbao eta beste 2020a: § 4.4.5), erdialde eta mendebaldeko beste testu zaharretan bezalaxe, *nahi izan* lokuzioak N-N<sub>i</sub> egitura hartzen du gehienetan, “nahi dena” absolutiboan eta “nahi duena” (esperimentatzailea) datiboan. Hala ere, konfigurazio hori jusibozko eta botibozko perpausetan aurkitzen da ia beti (salbuespen bakarraz, Lazarragarena, *nay equion* ‘nahi izan zuen’), indikatiboan *nahi \*edun* lokuzioa erabiltzen baita (adibidez Laz *nay ez doçu* ‘ez duzu nahi’).

Bada, orain hizpide dudan adizkia jusibo/botibo moduko perpaus batean dagoenez, N-N<sub>i</sub> konfigurazioa esperoko genuke, eta halaxe dago jokatua, baina datiboa (berez esperimentatzaileari dagokiona) pluralean dago, nahi izatearen subjektua (“Ceruetaco Erreguea”) bakarra izan arren (*nay lequiola* bezalako zerbait behar luke). Oraingo honetan ere, bi zergati pentsa daitezke forma honen sorrerarako: edo 1) beste *lapsus* baten aurrean gaude, gorago azaldutako “datibo dantzak” eraginda (hots, *nay lequiola* eta *lagundi lequiela* nahasturik); edo 2) huts grafiko bat da (halakoxe hainbat daude testuan zehar, edizioko zuzenketetarik ondoriozta daitekeenez), non *g*-ren ordez *q* idatzi den. Azken hori balitz, *nay leguiela lagundi* interpretatu beharko genuke, Euskara Batuan *lagundi nahi ziezauela* idatz genezakeena; izan ere, laguntzaren onuradunak *nahi izan* lokuzioko adizkian txertatzeko modu bakarra horixe zatekeen.

#### 4.1.5. Lazarragaren sei adizkiren kronologia erlatiborako proposamen bat

Honenbestez, Mitxelenaren, Lafonen eta Trasken ideiak bildu ditut, besteak beste, eta horietatik abiatuta aditz morfologiaren garapenaz zenbait proposamen egin, bereziki Lazarragaren eskuizkribuan agertzen diren adizki batzuk azaltzeko. Funtsean bitara ekar daitezke: alde batetik, datibo pluralgilearen -*te* alomorfoaren sorrerarako testuinguru berri bat (\*-*g(i)-de*, lehenagotik ezaguna zen \*-*z(a?)-de-ren* ondoan), eta, bestetik, horretarako

---

<sup>36</sup> Halako “munstroak” ohikoak dira hizkera bizietan. Ikus, esate baterako, Oihartzabal (2013) *nohazkitzu* zaharraz [‘ni zuri haiak (esatera) joan’] eta bertan aipatzen den Mitxelenaren *nembiltzanak* [‘ni haiak (bilatzen) ibili’] ezaguna.

eta Mitxelenak ikusitako *-o* : *-a* txandakatzerako behar diren eratorpen-arauen esparrua hedatzea eta sistematizatzea; horrek guztiak, gainera, kronologia erlatibo bat finkatzen hasteko aukera ematen digu (Traskek planteaturiko eragozpenak gainditzeko ere balio lezakeena).

Jarraian, orain arte esandakoak laburbildurik emango ditut (8. irudia). Bertan adizki bakoitzaren osaera pausoza aurkezten da, gutxi gorabeherako kronologia erlatibo batean.<sup>37</sup>

<i>*edutsi</i>		<i>eduki</i>	<i>egon</i>	<i>izan</i>	
I. <i>*e-du(n)-ts:o</i>		<i>*da-du(n)-gi:o</i>	<i>*e-go-gi[:o]</i>	<i>*i-da-gi[:o]<sup>38</sup></i>	
IIa.	<i>*eduts-o</i>	<i>*eduts[-o]:de</i>	<i>*dadug(i)-o</i>	<i>*egog(i)[-o]:de</i>	<i>*i-da-g(i)-o</i>
IIb.	<i>*e.utso</i>	<i>*e.uts[o]-de</i>		<i>*egog[o]-de</i>	<i>*i.ag-o</i>
III.	<i>*eu.tso-de</i> → <i>*eutsade<sup>40</sup></i>	<i>*euts-te</i>	<i>da(d)uko<sup>39</sup> 'dauka'</i>	<i>*egok-te</i>	<i>*jak-o</i> → <i>*jaka-an</i>
IV.	<i>*eutsae</i> → <i>eutsaen</i> 'zioten'	<i>*euste</i> → <i>eustela</i> 'ziela'		<i>*egote</i> → <i>egotela</i> 'zego[z]kiela'	<i>jakan</i> 'zaion'
					<i>jate</i> 'zaie'

#### 8. irudia: Lazarragaren sei adizkiren berreraiketa eta garapena

<sup>37</sup> Ohiko ikurrez gain, hauek erabili ditut: “( )” ‘galdu den hotsa’ adierazteko eta “[ ]” ‘galdu den hotsa edo sorreratik ez zegoen morfoa’ adierazteko.

<sup>38</sup> Joseba Lakarrak iradoki zidan *\*dia-* (\**dja-* > *ja-/za-*) berreraiketak dauzkan arazoetariko bat (cf. Mitxelena 1954a: 136; 1979: 49): *da-* baldin bada morfoaren forma osoa, ezin tarteka liteke ezer *d-* eta *-a-*ren artean. Ander Rosek proposatu (*apud* Alberdi 1995: 284-285) eta Alberdik berak hein batean babesten duen “fonologiazko bilakabide baten morfologizazioaren” hipotesia ez zait aukerarik ekonomikoena iruditzen, zenbait analogia gerta zitezkeela ukatzen ez badut ere. Aldiz, Lakarraren hipotesiari jarraiki (cf. Lakarra 2008a: 482, non *i* ‘datibo-marka’ < \**nin* ‘eman’ proposatzen den), datibo aurreko marka zahar bat adizkiaren hasiera-hasieran txertatu zela pentsatzuz gero, palatalizazioaren beharrik ere ez dugu, baizik eta bokal arteko *-d-* galtzea (ondoren /j/ > /ʃ/ eta, “hiperzuzenketa”, → /s/ gertatu zatekeen mendebaldeko euskaratik kanpo, baldin *jako* eta *zaio* jatorri berekoak badira; cf. alokutiboko emaitza ezberdinak (vs *zaio* orokorra) erdi-ekialdeko hizkeretan: *dakit* → *zakiat, xakiat, d(i)akiat* (ik. § 6.2.2.3)).

<sup>39</sup> Lazarragak *daduca-* zein *dauca-* formak darabiltza (baina soilik *dauco*, ez \**daduco*). Baliteke forma batzuetan (luzeenetan?) bokal arteko *-d-* goizago galdu eta ondoren hura mantendu zutenekiko analogiaz berrezarri izana. Zernahi gisaz, aditz honen bilakaera taulan islatu litekeena baino zatiz korapilatsuagoa bide da (cf. Trask 1981: 287), besteak beste jatorrian N-N-N (Lafon 1943: 215-216; Mitxelena 1954a: 134) edo NOR-NORI (ikus § 5.2.1) egiturakoa zela pentsatzen badugu.

<sup>40</sup> Baina \**eretxo-de-n* → *erexten* [haiiek-hari-hura] (beti izango zelako hiru silabatik gorakoa).

Bi ohar besterik ez taula horretako beste hainbeste punturi buruz. Lehenik, bertan ez da *\*edun*, *\*edutsi* eta *eduki* aditzen arteko harremana (I. fasearen aurretikoa) zehazteko saiorik egin eta, beraz, adizki bakoitzak bere kronologia erlatiboa duela ulertu behar da, bilakabide batzuk kronologia absolutuan bateratsu gertatu bide ziren arren. Bigarrenik, datibo aurreko marka ezberdinaren (*-ts*, *-gi*, *i-*) banaketa eta, bereziki, ustezko bateragarritasuna (cf. *\*i-da-gi:o*) azterkizun da; beraz, I. faseko formak ziur aski ez ziren garai beraean sortuak, ez erabiliak izango (areago, oso litekeena da azken zutabekoa inoiz existitu ez izana), tartean analogia prozesuak egon baitaitezke.

#### 4.1.6. Azken hitzak

Atalari bukaera emateko, zeharka baizik ukitu ez ditudan puntu kitzikagarri batzuk aipatu nahi nituzke jarraian.

Alde batetik, pluralgileei dagokienez, *-za* (> *-(t)z*, *-tza*) atzizkiaren auzia dago. Absolutiborako (hura) bakarrik erabiltzen denez, *-te* baino “zaharragotzat” hartzeko arrazoi bat izan genezake. Izan ere, oso aipagarri deritzot orokorpen horren salbuespen bakarrari: *daude* esaten da mendebaldeaz kanpoko euskalki guztietan (nahiz eta badiren Gipuzkoa-Lapurdi bitartean *dozte* ‘daude’ bitxi batzuk);<sup>41</sup> aldiz, datibo-komunztadura gehitzean, guztietan *-z* erabiltzen da (*dagozkit*, etab.).

Nire ustez, *-de* eta *-za* morfoen banaketa historikoa haien gramatikalizazio-iturrien ondorio izan daiteke, hau da, jatorrizko lexemen eduki semantikoak baldintzatua (Bybee *et al.* 1994 *passim*). Lehenaren sorburutzat *\*den* ‘bukatu’ proposatu zuen Lakarrak (2008a: 475-479), eta bigarrenerako ez da gaitzegi *izan-en* erroan pentsatzea. Bada nondik jo, beraz (cf. Lakarra 2013).

Beste alde batetik, datibo eta ergatibo komunztaduren arteko ordena erlatiboaik haien atzizkitze garai ezberdinak salatzen dituelakoan nago, eta hein batean (nahiz ez Trask [1977]-n eta Bakker [1984]-n bezainbat) orduko hitz ordena edo, hobeto esanda, aditzaren inguruko klitikoen jokaera morfosintaktikoa argitzeko balio dezakeela uste dut. Bereziki aipatzekoa iruditzen zait Oregik (1974) iradoki zuena: datibo eta ergatibo komunztaduren morfoak berdinak izatearen arrazoia ergatiboarena datibo-atzizkiaren berrinterpretaziotik sortu izana litzateke (cf. *ahaztu zait/ahaztu dut* bezalako aditzen subjektu esperimentatzaileak eta *dut* edo *dakit* bezalako formen anbiguotasun

---

<sup>41</sup> Joseba Lakarrak diostanez, ziurrenik, “atzo goizean” sorturikoak (ez ordea *dirade*, *garade* eta abar).

morfologikoa). Horrekin erlazionatua, adibidez, § 4.1.3.3 amaieran aipaturiko datibo aurreko markaren “hautazkotasuna” egon daitekeela iruditzen zait.

## 4.2. Etxepareren *darauritzut* eta Leizarragaren *dauritzan*<sup>42</sup>

Atal honetan aztertuko ditudan bi adizkiok (533, 534) nahiko atzendurik egon dira literaturan; izan ere, hiruzpalau aldiz bakarrik idoro ditut euskalaritzaren bibliografian.

- (527) çuri neure iaun eta iabia beçala igorten **darauritzut** heuscarazco copla batzu (Etxep, Hitz: 18)
- (528) Eta eguiteco huni **dauritzan** gaucetan complituqui informatua çarençát (Leiz, Fede, Regueri)

Etxeparerenaren lehen erreferentzia Victor L. A. Stempf-en 1887ko artikulu batean dago, non adizki bitxi honen osaera morfologikoa azaltzen saiatzen den (a).

“DARAURITZUT. Ich habe sie (plur.) Ihnen. *Igorten dauritzut*, ich sende sie Ihnen ; Analyse : *d-arau-r-it-zu-t* = *d + it*, sie (Accusativ. pluralis); vgl. van Eys : *Étude sur l'orig. et la formation des Verbes auxiliaires basques* (1875), fol. 20 § 5; *-arau*, Stamm mit Vokalwechsel des Verbum's : *eroan*, mitnehmen, mitführen, hier aber Hilfszeitwort im Sinne von *izan*, *ukhan*, haben ; *zu*, Ihnen (Dativ ohne die Endung *ri*) ; *t*, ich. Das *r* zwischen *arau* und *it* ist zur Erleichterung der Aussprache eingeschoben. Vgl. van Eys (*Grammaire comparée*, fol. 330) : *darozkitzut*.” (Stempf 1887: 15)

Hurrengo aipamena, adizki biена oraingoan, Hugo Schuchardt-ena da. Austriarrak Leizarragaren obrari eginiko aitzinsolas moduko hartan ageri da eta bertan haien azaltzen ere saiatzen da, Stempfen bide beretik. Atal honetan erakutsi nahi dudanez, asmatzen ez dutelakoan nago.

“Está por *dautzan* = *dagotzan* (*dagoca* «se refiere a»). Exactamente lo mismo tenemos en Dechepare A II' 18 *darauritzut* por *darautzut* «yo os los he». La *i* procede de la marca de plural *-it-* < *-ti-* (vide *Bask. St. I*, 32 s.); la *r* sirve para deshacer el diptongo, lo que es frecuente en vascuence: cf. *loquerē* en Voltaire (1642) por *luqueen*, p. 146 S.” (Schuchardt 1989 [1900]: 51)

Hirugarrenez René Lafonek jaso zituen bere lanetan. Lehenik, Leizarragaren *dauritzan* azaltzen du bere tesian, Schuchardt baino hobekixeago bideraturik, arazoak

---

<sup>42</sup> Atal hau Ariztimuño (2016b) lanaren egokitzapena da.

arazo (“*dauritzan* vient de \**dagokitzan*; l'*r* sert à empêcher le contact de *u* et de *i*”, Lafon 1943: 151). Etxeparerena, aldiz, aipatze hutsean uzten du ikertzaile gaskoiak (1951: 312), bestelako xehetasunik eman gabe. Patxi Altunak (1980: 6) paraturiko *LVPren* edizioan ere aurkitu dut adizki berori, baina euskara batuan *dizkizut* dela adierazten du soilki. Azkenik, Esther Zulaikak (1998: 254) bi formei egiten die erreferentzia bere tesiaren argitalpenean, berriz ere Leizaragarenetik abiaturik eta arrestiko Schuchardten hitzak aipatuz.

Hain oihartzun eskasaren askotariko arrazoik bururatzen zaizkit. Baliteke azalgaitzegi gertatu izana *hapax* moduko adizkiok, edo/eta garrantzi txikikoak direla irizteagatik utzi izana bazterrean; orobat litekeena da azaltzeko beharrik ere inork sentitu ez izatea, adieraz bederen, eta hein batean formaz ere, aski argiak direla-eta. Ordea, nire ustez badute esatekorik euskal aditz jokatuaren garapenaz eta, azterketa sakonago bat eginez gero, baita agian euskalkien zatiketaz ere.

Hariari zirt edo zart heldu beharrez, esango dut adizkion interesgarritasuna ez datorrela soilik *-ri-* misteriotsu horretarik, eta jarraian zerrendatuko ditut puntuz puntu aztertu nahi ditudanak:

- a. *egon* erroaren higadura (-*u*-)
- b. *egon-en -(t)z(a)* pluralgilea
- c. hirugarren pertsonaren datibo-komunztadura
- d. \**eradun-en* objektu pluralgilea
- e. \**eradun-en* datibo-komunztadurako aldaera afrikatua (-*tzu*)
- f. datibo aurreko marka (Trask-en 1997: 227 *dative flag* delakoa)

Derradan, hasteko, hemen aurkeztuko dudan analisia ez dela behar lukeen edota nahi nukeen bezain sakona, ikuspegi orokor bat emateko xedea baitu. Hori esanda, eta aipaturiko lehen puntuari (a) lotuaz, oro har, -*u-dun* aldaerak (oinarrizko *nago*, *hago*, *dago* formetarik kanpo) zaharragotzat jotzen ditut ekialdean (ez etimologikoki, jakina, baina forma lekukotu zehatzei dagokienez).<sup>43</sup> Erdialderago, Aresoko otoitzetan nahiz Bretaniako kantuan, *gaode* eta *daode* bezalakoak lekukotzen dira, beti ere -*de* pluralgilearekin (ahozko testu zaharrak eta “buruz ikasiak” ziratekeela kontuan harturik,

---

<sup>43</sup> Nire datubasean eta Zulaika (1998) lanean hauek topatu ditut: Rabel *nausu* ‘nagokizu’; Etxep *dauque* ‘dagoke’, *daut* ‘dagokit’; Leiz *dauque* ‘dagoke’, *daut* ‘dagokit’, *daucu* ‘dagokigu’, *daue* (eta *dagote*, *dagozte*) ‘dagokie’, *nauque* ‘nagokizue’, *aut* ‘hagokit’ (baina *dagoca*, *nagoca*); Laz *dauquezu* ‘dagokizuke’; Etxart *nauque* ‘nagoke’; OihAts *dauke* ‘dagoke’, *dauko* ‘dagokio’, *auko* ‘hagokio’.

arkaismotzat har litezke). Mendebaldean, ostera, Lazarragak eta Landuccik -o-dunak dituzte gehienez ere halakoetan (*zaoz, daoden*). Izan ere, Lazarragaren eskuizkribuan forma hiatodun ugari daude, gehiago izan arren -g- gorde dutenak (oinarrizkoak asko, jakina), mendebaldean gertatu ohi den bezala.<sup>44</sup>

Hala ere, badira corpusean diptongoa daukaten sartaldeko bi adizki berezi, biak -ke atzizkiaz hornituak: *baleuque* ‘balegoke’ eta *dauquezu* ‘dagokizuke’:

- (529) Dolarabaco esachuetan **baleuque** andrea diruetan. En las casillas sin lagar podríase auer muger en dineros (RS, 309)<sup>45</sup>
- (530) Ezcondu gura baldin badoçu, / asco **dauquezu** senarric (Laz, A27a: 30)<sup>46</sup>

Hortaz, Leizarragak *dauritzan* baten ondoan zazpi *dagozkan* badakartzza (eta cf. besteak beste Materraren *dagotzan*), lehenengoari zaharrago deritzot arestian aipatu zentzuan; jakina, sorburuan \*-go- behar zuen.

Bigarren puntuaz den bezainbatean (b), Ariztimuño (2015a: 67) lanean diodan bezala, badirudi inoiz -z(a) pluralgilea orokorra izan zela *egon* aditzean ere, ondoren hizkera gehienetan -de nagusitu bazen ere. Horren arrastoak N-N<sub>i</sub> motako adizkietan gorde dira; esaterako, arrestion aipatu ditudanetan. Aldaera afrikatuak hainbat azalbide izan litzake, eta nahasgarri gerta daiteke orain denak banan-banan aletzea. Laburbilduz, -tz(a) aldaera testuinguru (morfologiko) horretan bertan sortu den ala bestetarik hedatua den da afera. Inoiz \**dagoz* ‘daude’ bezalako forma orokor bat izan balitz, pentsa genezake

<sup>44</sup> Dena den, mendebaldeko *dagoz* bezalako adizkiak “berrosatuak” direlako hipotesiaz, ikus § 5.1.2.3.

<sup>45</sup> Lakarrak (1996) *eduki*-ren adizkien artean sailkatzen duen arren (cf. Aldai 1999: 384), nire ustez, arazo semantiko eta formalak ditu: alde batetik, itzulpeneko *podríase auer* kontuan hartuta, izatekotan \**edun*-ekin lotu beharko litzateke, baina testuinguruak leku-adierazpena eskatzen duela esango nuke (arkaismo handiegia nire ustez; ik. § 5.2.1). Beste aukera bat singularrezko forma inpertsonaltzat hartzea da (cf. **lekuske**, IKUSI aditzean), baina subjektu orokor horren izaera ulergaitza zait; bestalde, pluraleko ‘baleukate’ edo ‘balukete’ interpretazioa ere baztertzeko bide da, *baleukae/baleukee > baleuke* gertatua zela onartu beharko bailitzateke, errefrauentako hizkeraren kontra (cf. genitibo -aen ugariak, *lenaengo, quehea* ‘kea’, *leuquee* ‘lukete’, etab).

<sup>46</sup> Adizki hori ediziogileek (Bilbao eta beste 2020b: 336) \**edun*-en adizkitzat daukate (‘dukezu’); aldiz, nik *egon*-entzat hartu dut jarraian azalduko ditudan arrazoiongatik. Batetik, mendebaldeko -au- diptongoa 3. pertsonako adizkietan soilik gorde da lehen testuetarik (*dau(-e)* vs *dot, dogu*), eta huraxe ere, lekukoturiko geroaldiko forma bakarrean, monoptongaturik ageri zaigu -ke atzizkia gehitzean (RS 325 *doque* ‘duke’). Bestetik, Lazarragaren sistema aztertuz gero, badakusagu sistemmatikotasun bat non *egon* aditzak -z(a) pluralgilearekiko eta -ke geroaldiko morfoarekiko formetan (beti) galtzen duen bokalarteko herskaria. Izen ere, bi salbuespen ditu bakarrik: ediziogileen zuzenketa batek sorrarazitako *zagode* (bide batez, -de pluralgilearekiko bakarra), eta B16ko *nagoque* (metrikaz gain, idatzaldi nagusitik ateko poema izatea ere kontuan hartu beharrekoa dateke). Areago, bada alderantzizko salbuespen bat ere (ediziogileek nabarmentzen dutena), baina Lazarragarena ez den beste esku batek pasarte bat argitzeko eginko moldaketan ageri da: hain zuzen ere *asco dauquezu senarric* esaldi ironikoa aldatzen du, *estao çure senarric* idatziaz. Horrek lehen idatzaldian ere *egon* aditza erabili zelako ustea indartzen du, ezer indartzekotan.

\*dagotz bilaka zitekeela, euskararen joera ezagunari jarraiki (FHV: 288-289).<sup>47</sup> Bukaerako -a-, aldiz, hirugarren pertsonaren datibo-komunztadurari legokioke (< -o; cf. Leizarragaren beraren *dagoka* ‘dagokio’). Horrekin hirugarren puntuari hel diezaiokegu (c). Izan ere, erdi-ekialdeko autoreengan -a aldaera hedatu da aditz batzuetan (*zaika*, *derauzka*, *dauka*...), *egon-en* N-N<sub>i</sub> motakoetan bezala. Pluralgilera itzulia, pentsa bageneza “*dago : \*dagoz(a)*”-ren ondoan “*dagoka : X*” bazela, orduan X horren osatzeko esan genezake bi aukera ziratekeela, oinarritzat *dago-PL* ala *dago-DAT* hartzen dugun. Lehenari dagokio, noski, Leizarragak badarabilen *dagozka* (< \**dago-z-g(i)-o-*) forma; bigarrenari, \**dago-g(i)-z-o-* lekukotugabea, fonologikoki *dagotza* eman zezakeena (cf. *zaizka*, *daduzka*, *derauzka* vs. *zaitza*, *dadutza*, *derautza* eta, pluralgilearen eta beste morfoen arteko ordena ezberdinatarako, Aresoko otoitzetako *diztegun* vs. *diezkun* ‘dizkiegun’ aldaerak; Ariztimuño 2016a).

Laugarren puntuari dagokionez (d), Stempfek *darauritzut*-entzat eta Schuchardtek adizki berarentzat eta *dauritzan*-entzat proposaturiko azterketa morfológica (erroaren ondotik kokatuz *it* pluralgilea) onartzeko arrazoirik ez bide da, arrestian azaldurikoa (-tz(a) pluralgileaz) eta hurrengo puntuau erakutsiko dena kontuan hartuz gero. Orobak esan beharrik ez bide dago Schuchardten azalpen fonologikoa (*it > ti... > i / V\_?*) ezin gerta dakiokela asebetegarri euskararen bilakaeraz zerbaitek (hark Mitxelenaren *FLV* oinarrizko eta ezin utzizko lana ezagutu ez izanak, kronologia arazoak medio, ez liguke horrelakorik barkarazi behar, hala ere).<sup>48</sup>

Beraz, non da *darauritzut* adizkian hain garbi aditzen den pluraltasunaren marka? Bada, hurrengo puntuarekin lotuz (e), erdi-ekialdeko hainbat autorek datibo zein objektu pluraleko komunztadura (nahiz biak batera) daukaten adizkietan analogiaz orokorturik darabilten -tzu aldaeran gorderik, zeina sortu baitzatekeen, besteak beste, pluralgilea eta bigarren pertsonaren marka baturik (-t(z)+-zu > -tzu), zubereraz egun ere den bezala. “Besteak beste” esan dut, uste baitut, § 4.1-eko proposamenei jarraiki, -k(i)- morfoak ere ikustekorik izan zezakeela (*derautzut* < \**derauzkut*, adibidez; berriz ere, *derauzkizut*

<sup>47</sup> Egia da, Mikel Martínez Aretak gogorarazi didanez, joera horrek salbuespen nabarmenak dituela, -z instrumentala kasu (eta *maiz* edo *ez* bezalako hitzak; cf. halaber *naiz*, baina *balitz*). Ildo horretatik, errazago izan liteke onartzea ordurako bazela -tza alomorfo bat (Camino 2013: 110, 28. oin-oh.), ikusirik *diozta* ‘dizkio’ bezalako adizki zaharrak azaltzeko behar dukegula (ez bada horraino *derautza* eta *dadutza* bezalakoetarik analogiaz hedatu; cf. testuan jarraian ematen den azalpena -tza datibodun amaierako adizki horientzat).

<sup>48</sup> Schuchardtek lege fonetikoez eta oro har hizkuntzaren erregulartasunez zituen usteei buruz ikus Lakarra (2003: 10-13).

bezalako adizkiak “berregintzat” jo daitezke), eta hortik *-tzu* aldaera datibotasunarekin nahiz pluraltasunarekin lotzeko joera.<sup>49</sup>

Azken punturako utzi dut, hortaz, adizkion zati ilunena (*-ri-*); halaber, pluraltasunaren ezaugarri ez bada, datibotasunari lotu beharrean gara (f). Erraz da ikusten *-i-* horrekiko,<sup>50</sup> baina *-r-a* epentesi hutsa ote da, aurreko ikertzaile zenbaitek proposatu bezala? Ez dut uste: euskararen barneko beste bilakaera baten aurrean gaudela begitantzten zait, zeina (itxura batean) erregularra izan ez arren, paraleloak badituen, bai eta beste bilakaera batekiko loturaren bat ere, Joseba Lakarrak iradoki didanez. Proposatzen dudana hau da: *dauritzan* eta *darauritzut* adizkietako *-ri-* morfo oso bat dela, <*-gi-*> hain zuzen ere, *-ki-ren* aldaera zaharra (cf. *edugi* : *eduki*, *egogi* : *egoki*<sup>51</sup> etab.; Trask 1995). Izan ere, *-VgV- > -VrV-* zenbait hitzen bilakaera eta etimologietan proposatua izan da. Argienetako batzuk aipatzearen, *arate* <*agate*< *a(h)ate*, *sorotsi~zorotzi* <*so egotzi* (cf. FHV: 286, 12. oin-oh.), *uler(tu)* (<*\*urer-* <*\*uger-*) : *igerr(i)* (Lakarra 2009a: 584) edota, Mitxelena (FHV: 339) eta Hualde (2005: 300) kontuan hartuz, *belarri* <*\*berarri*< *begarri* <*bearri*< *beharri* <*\*beha-(g)arri*). Joseba Lakarraren ustetan (k. p.), baliteke bilakabide hori beste baten “ispilu-irudi” modukoa izatea: konposaketako *-r# > -h#* zaharrarena, hain zuzen (cf. Lakarra [2015: 355], eta han aipatzen den FHV: 337).

Horrenbestez, Etxepareren eta Leizarragaren adizkiok azaltzeko etimologia hauek proposatzen ditut:

- a. *darauritzut* <*\*da*<sup>52</sup>-*ra-du-gi-z-zu-t*
- b. *dauritzan* <*\*da-go-gi-(t?)za-o-an*

#### 9. irudia: *darauritzut* (Etxep) eta *dauritzan* (Leiz) adizkien etimologiak

<sup>49</sup> Esango nuke mendebaldean ere gertatu zatekeela pluralgilearen desagertzerik *\*edutsi* laguntzailearen txistukariak asimilaturik.

<sup>50</sup> Nahiz eta datibo aurreko markaren alomorfo hau ez den ohikoa *izan* aditzetik kanpo (cf. § 3.1.2.1 eta § 3.1.2.4).

<sup>51</sup> Ariztimuño (2015a: 68, 38. oin-oh.) artikulan *hitzeraduki* (cf. ‘hitzeman’) eta, bereziki, *erauki* (Ax 204-7; ‘(con)céder’, OEH s.v.) lexikalizatuak aipatzen ziren, proposatzeko ezen laguntzaile ditrantsitibo gisa gramatikalizaturiko eta *\*eradun* gisa berreraiki eta aipatu ohi den aditzaren “egiazko” forma horixe zatekeela (*-ki* atzizkiduna), hitz haien esanahiak *\*edun-en* eratorri kausatiboak laguntzaile gisa gramatikalizatu aurretik zukeen erabileratik azal daitezkeela argudiatuz (cf. Mounole 2015; halere, ikus § 5.2.4).

Bestalde, Ariztimuño (2016b) lanean Nafarroa ekialde muturrean lekukoturiko *era(u)gi~eragu* ‘ekarri’ aditzak *egar(r)i* ‘jasan, eraman; erabili’ aditzarekin loturarik ez zuela adierazi nuen, eta *erauki-rekiko* harremana proposatu. Orain, ordea, *jaugin-en* arazletzat hartu behar delakoan nago, semantika begiratuz (cf. *joan* : *eroan*); jada Lafonek (1952: 80) proposatu zuen moduan, geroago ikasi bainuen.

<sup>52</sup> Alde batera utzirik *de-/da-* afera (ikus § 3.1.1.1).

Lehenak arazorik ez badu ere (esan nahi baita, arazo formalik), bigarrenean etimologikoki ez zegokion afrikatua azaldu beharra dago, eta horretarako hiru modu daudela uste dut: gerta zitekeen txistukari afrikatudun alomorfoa zuzenean eranstea (eta beraz, alomorfo aski zaharra litzateke); bestela, halakoa zuten adizkien analogiaz aldatu zatekeen jatorrizko *\*daurizan* bat; azkenik, pentsa liteke ere 3. pertsonaren marka “berria” jatorrizko *\*da-go-gi-za* > *\*dauriz(a)* > *\*dauritz* bati gehitu zitzaiola (*\*dauritz-o*), edo, leheango hora galdu zela pentsatzen badugu (*\*dagogi(o)-z* zein *\*dagogiz(o)* izan), erlatibozko marka zahar osoa dauagula adizkian (*\*dauritz-an*).

Hala ere, badateke adizki hau ulertzeko beste modu bat ere, interesgarri izateari uzten ez dion arren, ikerketarako antzuago gertatzen dena: hipotesi horren arabera, ez litzateke *egon* aditzaren forma bat, baizik eta *jaugin*-ena.

Aditz horren gainerako lekukotasun guztiak argumentu bakarreko formak badira ere, ez dago arrazoirk *jaugin* aditzak N-N<sub>i</sub> formak ezin osa zitzakeela pentsatzeko. Hala, erroa aldatuta *\*daugitzan* genuke, eta ezagunak dira *g* > *r* duten formak (esaterako, *z(i)aure* ‘zatoz’). Esanahiari dagokionez, *etorri-k* eta *heldu izan* perifrasiai badituzte ‘egoki izan; ukitu’ adierak (OEH, s.v.: ), eta testuinguruan erraz uler daiteke jatorrizkoak frantsesez zerabilen *concerne*-ren itzulpentzat (cf. Salaberri 2009: 14-15).

#### 4.3. Axularren -(*k*)*aio* aditz-bukaera<sup>53</sup>

Esan beharrik ez da hizkuntzaren historiaren ezagutzarako edizio on batek dakarzkeen onurak. Urgellek (2015) hitzaurrean zein oharretan nabarmendu eta iradokitzen dituenek, nahiz eta hizkuntzaren berariazko azterketan sartu ez, aztergai berrietarako ildoak irekitzen ahal dizkiote filologo-hizkuntzalari arretatsuari.

Hain zuzen ere, iruzkin haietarik (eta beraiei esker) abiatu naiz atal honetan aurkeztu nahi dudana aztertzena. Labur esanda, Urgellek espresuki aipatu baina haren gaineko iritzi lausoa eskaintzen duen ezaugarri bati buruz ari naiz, hots, “-(*k*)*aio* atzizkiaz”, ikertzaile beraren hitzak hartuaz:

ahalerazko -(*k*)*aio* atzizkia (325-34 testu-oh.) (Urgell 2015: XXIX; Axularren arkaismoak zerrendatzean)

ezin demaiot [Ahalera vs. subjuntiboa: *demola* (178-30), *demogula* (157-22). Oposaketa

---

<sup>53</sup> Atal hau Ariztimuño (2015b) lanaren egokitzapena da.

bera aurkitzen dugu \*ezan-en, adibidez: *ziazzaion* (160-24/25) vs. *ziazon* (328-1). Horrela edo bestela, -(k)aio ilun honexekin (eta ez -ke-rekin) markatuta daude hainbat aditzen ahalerazko formak: *zerauzkaion* (15-2), *lekidikaio* (20-30), *dadukaio* (68-31), *zitzaikaion* (75-5) eta *ezpaineraukaio* (109-10)” (Urgell 2015: 325-34 testu oharra)

Honela banatu dut atala: lehenik eta behin ([§ 4.3.1](#)), corpusa aurkeztuko dut; ondoren ([§ 4.3.2](#)), “-(k)aio atzizki” horren gaineko neure proposamenak azalduko ditut; eta, azkenik ([§ 4.3.3](#)), atalaren ondorioak laburbilduko ditut.

### 4.3.1. Datuak

Analisi sakonagoei ekin aurretik, egoki iritzi diot atal honetarako berariaz erabili dudan corpusaren aurkezpen orokor bat egiteari, ondoren datorrena kokatu eta hobeto uler dadin: lehenik ([§ 4.3.1.1](#)), Axularren *Geroko* adibide hautatu batzuk azalduko ditut;<sup>54</sup> bigarrenik ([§ 4.3.1.2](#)), Axularrez gain ezaugarri bera(k) erakusten d(it)u(z)ten beste autore eta testu zaharretako lekukotasunak azalduko ditut; azkenik ([§ 4.3.1.3](#)), corpus horren osaerari buruzko zenbait argigarri emango dut, datuen gaineko iruzkin orokor batzuekin batera. Analisia zertxobait aurreratuz, esan behar dut ez natorrela guztiz bat Urgelli bere analisitik edizio kritikoan isuri zaizkion zertzeladetako batzuekin, eta beharbada horren ondorio dela nire corpusean jaso ditudan Axularren adibide batzuk hark halakotzat identifikatu ez izana.

Bestalde, adizkion “itzulpena” beti modu berean egin dudan arren (Euskara Batuko -ke-dun formen bidez), kontuan har bedi morfo horrek orobat izan ditzakeela *ahalera* nahiz *geroaldi* eta *apodosi* adierak (ikus [§ 4.3.1.3](#)-ko 5. taula).

#### 4.3.1.1. Axular

Azpiatal honetako (eta oro har [1. eranskineko](#)) adibideak Urgell (2015) lanetik atereak dira (Aresti [1971] baliatuaz aditz-forma guztiak aurkitzeko). Hortaz, grafia gaurkotuan eta, parentesi artean, edizio horretako orri-lerroen zenbakuntzarekin ematen ditut.

---

<sup>54</sup> Axularren eta besteen lekukotasun guztiak [1. eranskinean](#) bildu ditut, autoreka, atzizkika, aditz-erroka eta adieraka ordenaturik. Testuan zehar adizkiak aipatzean, eranskineko zenbakuntza ematen da giltzen (“{ }”) artean, adibide-zenbakuntza arruntetik bereizteko. Halaber, beharrezko jo denean adibideak osorik eman dira, eta zenbakuntza arruntari dagokion zenbakia ageri da halakoien hasieran, baina 1. eranskinekoa ere bai aipuaren amaieran eta giltzen artean, kontsultak errazte aldera.

Arestiko aipuetan Urgellek aipatzen duen “atzizki” edo bukaera honekiko formak bi multzotan sailkatu ditut: batetik, *-kaio* osoa erakusten dutenak ([§ 4.3.1.1.1](#)); bestetik, herskaririk gabeko “aldaera” daukatenak ([§ 4.3.1.1.2](#)). Alabaina, Axularrek baditu *-o* ordez (hots, 3. pertsona singulararen ordez) 1., 2. eta 3. pertsona pluralekiko komunztadura erakusten duten adizkiak ere ([§ 4.3.1.1.3](#)).

#### 4.3.1.1.1. -kaio

Amaiera hau hartzen dute beti *\*eradun*<sup>55</sup> (531), *-kidi-* (532, 533), *eduki* (534) eta *izan* (535) aditzek, noiz eta datibo-komunztadurarekin *-ke-ren* balioetako bat adierazten baitute (lekat bedi *eduki*; ikus [§ 4.3.2.4](#)):

- (531) **leraukaio** ‘lioke’ (96-3): “Pintatziale batek egin baleza imajina eder bat alde guztiz konplitura eta abantailatua: <172> imajina hark, baldin ezagutzarik balu, nori lehenik behatu behar othe *leraukaio?*” {2}
- (532) **dakidikaio** ‘dakioke’ (97-38): “Eta hil ezpadadi ere, zer ahal daidike zahartzean, adin flako harten? Eta orduko ongi egitea zer balia ahal *dakidikaio?*” {10}
- (533) **zekidikaion** ‘zekiokeen’ (290-28): “Eta etzituen behin ere egin, Natan profeta mehatxatzen eta eranzute egitera ethor *zekidikaion* arteino.” {20}
- (534) **dadukaio** ‘daukake’ (68-31): “Ez eta, beraz, Jainkoak ere, bekhatuen neurria bethez gero, ezin *dadukaio*, bere justiziaren arauaz, bere kolera agertu gabe.” {21}
- (535) **litzaikaion** ‘litzaiokeen’ (181-18): “Eta manatu ere, ez noiznahi <331> den, baina bere azken finean, batbederari den hitzik ttipiena ere bihotzean barrena sartru behar *litzaikaion* denboran.” {23}

#### 4.3.1.1.2. -(a)io

Hasteko, ez dago arrazoirik bukaeratzat *-aio* osoa hartzeko (ez bada *-kaio-ren* aldaeratzat jotzea, argudiaketa zirkularrean erortzeko arriskuaz), *-a-* hori *\*ezan* (536-538) eta *eman* (539) aditzen erroei egotz baitakieke. Bestalde, *-kaio* amaieradunak bezala, hauek ere *-ke-dun* gisa darabiltza Axularrek, baina itxura batean horretarako morfo berezirik gabe (baldin *-i* datibo ikurtzat hartzen badugu; ikus [§ 4.3.2.3.1](#) beste azalpen posible baterako):

---

<sup>55</sup> Konbentzioari men eginez hala aipatu(ko) badut ere, ikus [§ 4.2](#)-ko 224. oin-oharra.

- (536) **ziniazaio** ‘zeniezaioke’ (275-7): “Erran bazeneza: «Hegaztina haur trabatzen eta kargatzen dute bere hegalek» eta, urrikaldurik, edeki baziniatzo, kalte gehiago egin *ziniazaio*, probetxu baino.” {30}
- (537) **diazaio** ‘diezaioke’ (19-32): “Iguzkiak arrazoinekin erran ahal *diazaio* beranduraino ohean datzanari: «Zerk aratza hor alfer-nagia? (...)” {37}
- (538) **eztiazaio** ‘ez diezaioke’ (239-6): “Koncientziak ez aita sainduri, ez enperadoreri, ez erregeri, eta ez munduan den bertze presunari, *eztiazaio* barkha.” {56}
- (539) **demaiot** ‘eman diezaioket’ (325-34): “(...) ezin *demaiot* bertzeri atxakiarik, neurk neure burua galdu dut.”<sup>56</sup> {60}

#### 4.3.1.1.3. Beste pertsonekiko adibideak

Urgellek (2015) honen argi adierazi ez arren, badira *-gu*, *-zu* eta *-e* (*hek*) pertsonekiko adizki zeinetan *-i* : *-o* oposaketa morfologiko bera ikusten den, nola *diazaion* vs *diazon* (< \**diazaon*) bikotean.<sup>57</sup> Zehazki, *\*eradun* eta *-kidi-ren* forma bana {5, 18} eta *\*ezan* erroko bi {32, 33} komunztatzen dira 3. pertsona pluralarekin; aldiz, soilik *\*ezan-* etiko adibide batzuk daude non komunztadura 2. pertsona pluralari {34-36, 52-53} edo 1. pertsona pluralari {59} dagokien. Azken horien erakusgarri, adibide bakarra jarriko dut (540), *-i* gabeko batekin batera (541), hauetan ere oposaketa berbera dela agerian uzte aldera:

- (540) **liazaizute** ‘liezazukete’ (166-12): “Zeure etsaiiek anhitz bidegabe egiten deratzute, eta ikhusteintu Jainkoak bidegabe hek, badakizki, eta nahi balu ez *liazaizute* halakorik egin, debeka litzake: ordea, eztu debekatzen.” {34}
- (541) **liazazuten** ‘liezazuten’ (262): “Eta, baldin erraiten ditutzun hitz ergel guztieta, dei bazeneza errege bat edo jaun handi bat lekhuko, mereziz bazenduke eman liazazuten edozein gaztigu”

<sup>56</sup> Aldiz, *lemake* ‘emango luke/lioke?’ (282-22): “Eta deabruak bekhatuari emaiten dioen enganamenduzko gozotasun hura ere, bortxaz emaiten dio, eta ez borondatez. Baldin bertzela eragin albaleza bekhatua, ez *lemake* munduan den plazerik ttipiena ere”. Hor datibodun forma espero zitekeen (cf. “bekhatuari emaiten dioen...”) eta, izan ere, Axularren adibide bakarra litzateke non aditzak ez duen datibo-komunztadura “behar bezala” egiten (cf. *demola*, *demogula*, *eztemozula*, *eztemela*, *emok*, *emozu*, *emozue*).

<sup>57</sup> Autoreak bizpahiru aldiz aipatzen ditu halakoak eta zeharka *-(k)aio* ‘atzizkiaren’ aferarekin lotu, baina lotura horren nolakotasuna ez da garbi geratzen. Aldiz, berariaz markatzen da *ahal diazaizu* ‘diezazuke’ {52} “-ke gabeko ahalera zaharra” dela, *ahal zitzan* ‘ahal zitzakeen’ bezala (ikus § 4.3.2).

#### 4.3.1.2. Beste testu batzuetako lekukotasunak

Orain artekoan Urgellek idorotako Axularren aditz-morfologiako berezitasun bat (bi, nola begiratzen den) izan bada hizpide, azpiatal honetan ezaugarri bera beste autore batzuen lekukotasunetan ere aurki daitekeela erakutsi nahi dut (kronologiaren eta atzizkiaren arabera sailkaturik aurkezten ditut adibideak). Horrela, Axularren idiolektoaren bitxikeria bat baino gehiago dela ikusiko dugu; areago, ekialdeko hizkeretan aski hedatua eta, agian (RSeko lekukotasuna lagun), euskara orokorrekoa ere izan zitekeela pentsa liteke. Hartara, datibo-komunztaduraren (eta zehazki datibo ikurraren) historiari eta adizkien DAMen garapenari argi egiteko erabil genezake aztergai den gertakaria.

##### 4.3.1.2.1. Etxepare (1545)

- (542) **eztemayo** ‘ez dio emango’ (I, 148): “Ordu hartan afer date hari appellacia / Harc ehori *eztemayo* oren vaten epphia” {61}

Jabetzen naiz adibide honen lausoaz. Testuingurua zabaldu eta ahapaldiko azken bi lerroei so egiten badiegu (“Ecetare estimacen chipia ez handia / Batvederac egarrico orduyan vere haxia”), *eztemayo* adizkia *estimacen* aditz-izenarekin batera jarri behar dela pentsa dezake batek, orainaldi orokor gisa (ikus § 4.3.2.1-en Lafonen iruzkina). Hala ere, ez dut uste batak bestea nahitaez ukatzen duenik. Aitzitik, “oren vaten epphia” ez bide da biziadiko edozein uneri lotu beharreko esapidea, azken orduari baizik. Hortaz, *ieyncoari* ordu hartan apelatzea alferrik izango den bezala, hark inori “ordu estrarik” emango ez diola baieztatzen dela esango nuke; geroaldian, beraz. Areago, ez litzateke lekukotasun bakarra non “geroaldiko” forma batek orainaldi orokor gisa jokatzen duen (irakurketa hori nahiago badugu), maiz aurreko baldintza edo, kasu honetan bezala, denborazko erreferentzia baten menpe (cf. Oih. 658 *Oihal ona kutxan dagoela sal daite* ~ RS 541 *Ojal ona huchan saldu doa*). Horrez gain, erka bitez (542) adibideko *eztemayo* eta autore beraren “Fama gayciq *eztemala* lagunari falsuqui” (ustez datibo gabea), nola arrestiko Axularren *demaiot : lemake*, datibo-komunztaduraren aurreko *-i-* horrekin.

##### 4.3.1.2.2. Leizarraga (1571)

Etxepareren adibidea gorabehera, argiago da Leizarragaren bi hauek zerbait adierazten ari zaizkigula, orain artean, dakidala, inork arreta berezirik eskaini izan ez dien

arren (ikus § 4.3.2.1 Mounolek (2014) aipatu salbuespenaz). Hemen proposatzen den irakurketaren indargarri, Salaberrik (2014: 42 hh.) Leizarragaren itzulpenaren iturburu bakartzat proposatzen duen Bonnefoyren (1563) Testamentu Berriko testu-zatiak dakartzat parentesi artean; haietan dago Leizarragak euskaraz adierazi nahi izan zuena:

- (543) **cieçoyon** ‘ziezaiokeen’ (Mt 22, 46): “Eta nehorc ecin ihardets *cieçoyon* hitzic”. {62} (cf. “Et nul **ne luy pouuoit** respondre vn mot”)
- (544) **dietzoyoten** ‘diezazkioketen’ (Mt 21, 41): “(...) eta bere sasoinean fructuac renda *dietzoyoten* berce laborariri ere mahastia alocaturen.” {63} (cf. “& loera sa vigne à d’autres laboureurs, **qui luy rendront** les fruits en leurs saisons”)<sup>58</sup>

Zulaikak (1998) bi adizkiok “KE gabeko” tauletan sartu zituen, lehena (543), *cieçon*-ekin batera, eta bigarrena (544), *cietzoten*-en orainaldiko kidetzat; alabaina, adieraz bederen lekuz kanpo daude hor.<sup>59</sup> Beharbada, (543) adibidekoa ez da horren agerikoa, *ezin* partikulak lagundurik doalako. Nolanahi ere, kontuan har bedi ezen Leizarragaren -ke gabeko \**ezan*-en adizki hirupertsonalek, ez eta formaz eta adieraz -ke-dun direnek ere, ez dutela inoiz -i hori hartzen. Hau da, ez dira halabeharrez -i-dun adizki bakanok aldi berean -ke-dunen balio berekoak (testuinguruan bederen).

#### 4.3.1.2.3. Refranes y Sentencias (1596)

- (545) **lemayo** ‘emango lioke’ (284): “Aramayo, dabenac ez *lemayo*. A Aramayona, quié la tiene no *la daría*.” {64}

Aurretik aipaturiko ekialdeko autoreen kasuan bezala, oro har, *Refranes y Sentencias* bildumako atsotitzetan -i gabeko formak aurkitzen ditugu adizki datibodunetan. Hemengo honekin batera, 25. errefrauko *emayoc* litzateke datiboi-kurrarekiko kasu bakarra; hain zuzen ere, azken hori, hemen aztergai dudana ez bezala, RSeko testu nagusiaz besteko hizkera batekotzat hartzeko arrazoiak ikusi zituen Lakarrak (1996: 257; ikus § 4.3.2.1).

---

<sup>58</sup> *Elizen arteko Biblia* egun ere honela ematen du: “eta bere garaian fruitua emango **dioten** beste nekazari batzuen esku utzik du mahastia”.

<sup>59</sup> Ikusiko dugunez, Zulaikak Schuchardtengandik jasotako azalpena ere ez da egokia: “Ohart \*EZANEN erroko *cieçoyon* eta *dietzoyote-* moldeetan bi bider ageri dela NORI marka” (Zulaika 1998: 206). Nire ustez, asimilazio baten emaitza da; cf. § 4.3.1.2.7-ko adibideak eta oin-oharra.

#### 4.3.1.2.4. *Materra* (1617, 1623)<sup>60</sup>

Hemendik aurrerakoek ahalera adiera dute, salbu eta Oihenarten (550) *dezakeio* ‘diezaioke’ geroaldikoak:

- (546) **baitiaçaiogu** ‘baitiezaiokegu’ (1617: 85): “Eduquitcen du laburzqui cer-ere galdeguin ahal *bai-tiaçaiogu* Iaincoari” = (1623: 86-87): “(...) eduquitcen // du bere baithan laburzqui cer ere galdeguin ahal *baitiaçayogu* Iaincoari” {65}
- (547) **diaçaiçut** ‘diezazuket’ (1623: 279): “Baiña cer eman ahal *diaçaiçut* nic çuri hunen amorio handiaren ordain?” {66}

#### 4.3.1.2.5. *Haranburu* (1635)<sup>61</sup>

- (548) **diaçao** ‘diezaioke’ (405): “Bitarteko on batec hainitz daidi, credita duenac hainitz irabaz *diaçao* beharrean dagoen bati” {67}

#### 4.3.1.2.6. *Oihenart* (1657; *atsotitzak*)<sup>62</sup>

- (549) **dezaian** ‘diezaakeen’ (578): “Emak eure xahala gogo onkara, gora ahal *dezaianari* azkarrara. Baille ton veau de bonne grâce à *celui qui pût* te l'enlever par force.” {68}
- (550) **dezakeio** ‘diezaioke’ (94): “Bere nahiz eri denari nork bilha *dezakeio* osagarri? Qui se voudra mettre en peine de procurer la santé à celui qui est malade pour son plaisir?” {69}

#### 4.3.1.2.7. *Urthubiako anderearen espioitza-gutunak* (1597-1598)<sup>63</sup>

- (551) **nizacoye** ‘niezaioke’ (20: 1): “Jauna: orandic ezcin gastiga *nizacoye* zure senoriary cer quantitate mercaduria dens” {70}
- (552) **niazacoyo** ‘niezaioke’ (20: 6): “Inglesen berriric ezin gastiga *niazacoyo* zure senoriary” {71}

<sup>60</sup> Cf. “Çortci-garrena, nehori falseriaric erauz *ez-tiaçogula*.” (Materra 1623: 102).

<sup>61</sup> Cf. “Hirurgarren bihi chehean othoiztuco duçu ofreci *diaçon* çure Borondatea Espiritu Sainduari çu haren su sacratuaz seculacots erretcea gatic.” (Hb: 45). Bestalde, ohart bekio (548) adibidearen aurreko sintagmako *daidi*-rekiko kidetasunari.

<sup>62</sup> Oihenartek ez darabil \**ezan*-en N-N-N forma gehiago, baina cf. *emak* ‘emaiok’ bera.

<sup>63</sup> Baldin eta jatorrizko huts edo transkripzioko erratak ez badira bederen, bokal-asimilazio eta metatesi bidez azal daitezke, biak < \**ni(a)zakeio*-tik; cf. asimilazioaren adibide gisa *diozozu* < *diezozu* ‘iezaiozu’ bezalako adizkiak (eta arestian aipatu Leizarragarenak, non \*-zaio->-zoio- gertatu den), eta aditzetik kanpo *hedoi* > *hodei*, *hodoi* (e eta o bokalen metatesirako ikus Egurtzegi, 2011: 39). Horrez gain, gutunetan ez da beste \**ezan* hirupertsonalaren alerik -i duenik (bai *dezo(te)n* ‘diezaio(te)n’).

#### 4.3.1.2.8. Voltaire (ca. 1620)<sup>64</sup>

- (553) **dezaqueyo** ‘diezaioke’ (II: 150): “Iaincoa lagû duenary nihorq için qualteriq egünin deçaqueyo” {72}

#### 4.3.1.2.9. Silvain Povreau (1892 [ca. 1648-1659], 1664)

- (554) **dakidikeien** ‘dakiekeen’ (1892 [ca. 1648-1659]: 63): “(...) halaber gizonak erakhartzen ditu loriara halako ordenanza batez non hartarakotz hel *dakidikeien* guzia gertatzen eta kausitzen baita haren Iainkozko predestinazionearen azpian.” {73}
- (555) **gakidiskeie** ‘gakizkieke’ (1664: 23): “(...) ecin egün deçaquegu ordea hec icusten ezpaditugu, ecin ere garai *gaquidisqueye* buruz buru hari ezpagara (...)" {74}

#### 4.3.1.3. Corpora arakatuz

Orokortasunetarik hasiaz, corporak bi zati nagusi dituela nabarmendu daiteke: batetik, Axularren lekukotasun oparoa dugu; bestetik, beste autore eta testuetan idoro ahalako adibide sorta. Kopuruan ez ezik, erro aniztasunari eta aztergai den amaieraren formari dagokionez ere argi ikusten da Axularren berezitasuna: berak baizik ez du erabiltzen *-kai* aldaera, eta bera da \**eradun*, *eduki* eta *izan* aditzekin ere darabilen bakarra (ikus 6. taula). Hala, ez da erraz asmatzen zergatia. Baldin berrikuntza bat bada, zer dela-eta ez dugu beste inon eta gerora gehiago aurkitzen? Aldiz, arkaismoa bada, zergatik ez da lehenago eta ugariago ageri? Testuak sakonki eta xeheki arakatuz gero, baliteke adibide baliotsu gehiago azaleratzea (cf. Leizarragaren adizki parea).

Nolanahi ere, ezaugarriaren eremu geografikoa zehazteko zenbait datu har daitezke kontuan. Alde batetik, agerpen gehienak Lapurdikoak dira, hegoaldekoak batik bat (EspGut, Ax, Mat, Hb, Volt; hots, Urruña-Sara-Ainhoa ardatzean); orobat izan litezke Oihenartenak, gogoan badugu haren lapurterarako jaidura. Beste alde batetik, baxenafarreraren inguruko Leizarraga (cf. Camino 2008) eta ber-bertako Etxepare ditugu. Azkenik, RSetako etsenplu bat ere ekarri dut hona, zeina, auziaren alderdi guztiak argitzeko baliatzen ez bazaigu ere, ezaugarri erkide eta zaharra delako bermea baitateke.

---

<sup>64</sup> Ez da beste *-i-dun* adizkirik; esaterako, *deçequ* ‘iezaiuzu’ darabil Voltoirek (163).

Horiek horrela, honako bi taula hauetan ikus daitezke kopuruak autore/testuen (6.taula) eta DAMen arabera (7. taula) banaturik, atzizki<sup>65</sup> eta aditz ezberdinak ere bereiziz:

ATZIZKIA	ADITZA	AUTOREA/TESTUA									
		AX	RS	ETXEP	LEIZ	MAT	HB	OIH	ESPGUT	VOLT	SILVP
<b>-kai/-kei</b>	<i>-kidi-</i>	13+2	-	-	-	-	-	-	-	-	5
	<i>*eradun</i>	5	-	-	-	-	-	-	-	-	-
	<i>eduki</i>	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-
	<i>izan</i>	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-
	<i>*ezan</i>	-	-	-	-	-	-	1	2	1	-
<b>-i</b>		35	-	-	2	2	1	1	-	-	-
	<i>eman</i>	1	1	1	-	-	-	1 <sup>66</sup>	-		-

6. taula: lekukotasun guztiak, autoreka

<sup>65</sup> Dagoeneko azaldu dudanez, Urgellek (2015) -(*k*)*aio* aipatzen du atzizkitzat (hots, -*kaio* eta -*aio* ustezko aldaerak dituen atzizki soiltzat), baina, erakutsi nahi dudan bezala, “aldaeron” formak -*kai-* eta -*i-* dira, nire ustez ([§ 4.3.2](#)). Bestalde, corpusean sartu ditut -*kei-* aldaera daramatenak ere, tauletan letra etzanez agertzen direnak. Axularrek halako bi ditu -*kidi-* erroarekin (datiboko 3. pertsona singular eta plural banarekin; -*keio* eta -*keie*, alegia). Hala eta guztiz ere, ezin ziurta daiteke -*keie*-ren kasuan -*i-* morfo bat ala *datekeielo* bezalakoetako bokal epentetikoa den (nahiz eta atzizki ezberdinak diren, -*en/-ela* eta -*e*). Izan ere, Pouvrearen obran hainbat -*keie*-dun adizki aurki daiteke, betiere -*kidi-* errokoak; aldiz, ez da -*keio*-dunik.

<sup>66</sup> Adizki hau, beste biak ez bezala, OihNeur-etatik jasoa da, eta 5. taulako *eman*-en geroaldiko -*i*-dun bietariko bat da (ikus [§ 4.3.3.1](#)-eko azalpena).

ATZIZKIA	ADITZA	DAM			
		GEROALDIA	AHALERA	APODOSIA <sup>67</sup>	OROTARA
<b>-kai/-kei</b>	<i>-kidi-</i>	2	9+2 (5)	2	15 (5)
	<i>*eradun</i>	-	-	5	5
	<i>eduki</i>	1	1	-	2
	<i>izan</i>	1	-	1	2
	<i>*ezan</i>	- (I)	- (3)	-	- (4)
<b>Guztira</b>		<b>4 (1)</b>	<b>12 (8)</b>	<b>8</b>	<b>24 (9)</b>
<b>-i</b>	<i>*ezan</i>	5 (1)	18 (5)	12	35 (6)
	<i>eman</i>	- (2)	1	- (1)	1 (3)
<b>Guztira</b>		<b>5 (3)</b>	<b>19 (5)</b>	<b>12 (1)</b>	<b>36 (9)</b>
<b>OROTARA</b>		<b>9 (4)</b>	<b>31 (13)</b>	<b>20 (1)</b>	<b>60 (18)</b>

7. taula: Axularren lekukotasunak (gainerakoak parentesi artean) DAMka

Ezer nabarmentzekotan, eta soilik Axularren datuak kontuan harturik, *-kidi-* eta *\*ezan* erroen nagusitasuna aipatu behar da lehenik (guztien % 83): logikoa, horiek izanik indikatiboz kanpoko aditzak beste ororen gainetik. Areago, *-kidi-* erroa *izan* bipertsonalarekiko banaketa osagarrian denez, eta *\*ezan* hirupertsonala *\*eradun*-ekikoan, noiz batzuk eta noiz bestek agertzen diren behatzea interesgarria dateke. A priori, soilik *izan*-ek eta *\*eradun*-ek bete lezakete aditz nagusi funtzioa. Hain zuzen ere, adibideei so egiten badietu, ikusiko dugu ezen lehena *behar izan* {23} eta *gogora izan* [+burutu] {24} lokuzioetan darabilela Axularrek (egun laguntzaile gisakotzat ditugun arren, Euskara Arkaiko eta Zaharrean oraindik aditz nagusi izaera gordetzen zuten, hein batean behinik behin). Bigarrenari dagokionez, halaber, bost adibideetarik lautan *behar \*eradun* {2, 5} eta *nahi \*eradun* {3, 4} lokuzioetan darabil; bestean {1}, ordea, erresultatibo kutsua gordetzen duen perifrasi bateko aditz jokatua da, izaera gordetzailekoa hau ere (egun “eman(ak) izango zizkion”-edo esango genukeena, *pace* Villasante 1977; cf. Mounole 2014: 110-111).

<sup>67</sup> Gehienak alegiazko baldintzen apodosi burutugabeak; salbuespena *zerauzkaion* {1} burutua baita (iraganeko geroaldia, azken batean). Multzo berean sartu ditut, halaber, baldintzarik gabeko alegiazko adizkiak {2-3, 5-7, 23, 25-26} eta iraganeko geroaldi bat {24}, ez baitute ezberdintasun morfologiko berezirik hemen aztergai dugun ezaugarriari dagokionez (cf. Mounole 2014).

Bestalde, DAMen erabilera orokorrean ere badira aldeak (6. taula): geroaldia da adibide gutxien biltzen dituena, apodosia da kopurutan hurrena, eta ahalerak du gehienik. Azken horri dagokionez, baina, esan beharra dago gehienetan (Axularren adibideen % 90etan) *ahal* edo *ezin* partikulek lagundurik osatzen dela; are soilik perpaus nagusietako ahalera positiboak kontuan harturik ere: ia % 85etan. Salbuespen bakarrak *gertha dakidikaio(-)* {11, 15}, eta *utz arazi diazaio* {54} dira; azkena zalantzazkoa, geroalditzat ere har bailiteke, nire ustez.<sup>68</sup>

Nolanahi ere den, eta laburbiltzeko, Urgellek (2015) *-(k)aio* atzizkiduntzat jotzen dituen adizkiek *-ke*-dunen funtziō-kate bera besarkatzen dute: ahaleratik {8-18, 21, 37-54, 60, 62, 65-68, 70-77}, apodosiraino {1-7, 23, 25-36, 64}, geroalditik igarota {19-20,<sup>69</sup> 22, 24, 55-59, 61, 63, 69, 78}.

Amaitzeko, hauxe da adizkiok gordetzen duten beste bereizgarri bat, zeinaren zehaztasunak eta inplikazioak hurrengo atalean zehar azalduko ditudan: (ia) guztiak daukate datibo-komunztadura.

#### 4.3.2. *-(k)aio* ez da bat eta bera beti

Orainokoan, Urgellek (2015) identifikaturiko ezaugarria zehatzago azaldu dut, Axularren beraren adibide gehiago emanet eta beste autore batzuen lekukotzetara zabalduaz. Jarraian, bada, orain arte axaletik edo soil iradokiz azaldutakoetan sakonduko dut, aditz-amaiera berezi honen jatorria argitzeko.

Hasteko, adibideetan eta haien sailkapenean zein iruzkinetan ikus zitekeenez, nire ustez argi dago ezin dela hitz egin *-(k)aio* atzizki bakar eta bakun batez; hots, ez da *-kaio* eta *-aio* aldaerak lituzkeen atzizkirik. Batetik, *-aio*-ren kasuan, *-io* litzateke benetako forma, *-a-* aditz-erroei baitagokie (\**ezan*, *eman*). Areago, bai berorren eta bai *-kaio*-ren amaiierako *-o*, jatorrian bederen, hirugarren pertsona singularrari dagokio. Hortaz, *-kai*

---

<sup>68</sup> Haranbururen *diazaio* {67} ere partikularik gabeko ahalera dirudi; ordea, egin liteke bestelako interpretazio bat: geroaldi zentzuaren bidez orainaldi orokorra adieraztea (cf. Etxeparenen {61} *eztemayo-z* esandakoa). Aitzitik, Pouvrearen adibide gehienek {73, 75-77} ahalera adierazten bide dute *ahal*-ik gabe ere.

<sup>69</sup> Egiazki {20}-koa ez da (iraganeko) geroaldia huts-hutsik; zutabe horretan kokatu dut beste hoberik ez eta sinpletasunaren mesedetan. Sintagma osoa “ethor zekidikaion arteino” da, eta kontua da Euskara Zaharrean hala eraikitzen zirela maiz denborazko esapideak, [\**edin*, *-kidi*-, \**ezan* + *-te/-ke*] laguntzaileen bidez (Mounole 2014: 332-333; Bilbao eta beste 2020a: § 5.7); cf. Leizarragaren *Eta ezpaitzeçaten eçagut dilubioa ethor cedino, eta guciac eraman citzaqueeno* (Mt 24, 39), edota Lazarragaren *arean da Silvero egoan lecuan el citezqueano* (AL, 1152r: 4).

eta *-i* atzizkiak ditugula esan daiteke (eta halaxe adierazi ditut Eranskinean, arrestiko tauletan bezala); gainera, lehenbizikoa *-ka-i* banatzea izan daiteke egiantzekoena (ikus § 4.3.2.2 *-ka-ren* gainean). Hala ere, horrek ez bide dakar baitezpada hondar *-i* biak morfo bera izatea (ikus § 4.3.2.3). Nolanahi den, aurkezten ditudan bi hipotesien artean zuzena edozein dela ere, bada hemen ezaugarri esanguratsu bat euskal aditzaren historiarako, bereziki datibo-komunztaduraren eta DAMen garapenaren inguruko ikerketarako.

#### 4.3.2.1. Forma hauetaz aurrekoek esanak

Euskal aditzaren gaineko ikerketetan, aditz forma hauen aipamenak urriak dira oso. Segur aski, orain arte (hots, Urgell 2015 arte), haien batasun morfo-semantikoari erreparatu ez izana da horren arrazoia. Zehazki, lau adizkiren berariazko aipamenak aurkitu ahal izan ditut soilik, zenbait ikertzaileren lanetan zehar: Axularren *dadukaio(-)* {21, 22}, Etxeparereren *eztemayo* {61}, Leizarragaren *cieçoyon* {62}, eta RSeko *lemayo* {64}. Azpiatal honetan haien iruzkinak laburbilduko ditut, eta neure corpusaren ikuspegi orokorretik interpretazio berriak proposatuko.

Axularrena azkenerako utziaz (aipatuena eta interesgarrienetakoa baita), *eman* aditzarekikoei lotuko natzaie lehenik. Alde batetik, Etxeparereren *eztemayo* {61} dugu, zeinek Lafonen ustez orainaldi orokorra adierazten duen; hona haren hitz zehatzak:

Mais Dechepare et Liçarrague évitent d'employer à l'état nu les formes simples de la plupart des verbes a valeur déterminée. (...) Aucune forme simple de présent nu appartenant à *ekharri*, à *egin*, à *eman*, ne se rencontre chez eux, à **cette seule exception** près que Dechepare emploie une fois la forme *eztemayo* (v. p. 229), avec la valeur d'un **présent intemporel**.” (Lafon 1943: 435; beltza nirea da)

Esan bezala, baliteke adibide oso argi eta esanguratsua ez izatea,edo hala iduri luke hasiera batean. Haatik, lan honen testuinguruan, eta RSeko *lemayo*-rekin {64} eta Axularren *demaiot-ekin* {60} batera irakurri beharrekoa da. Alde batetik, gogoan izan behar dugu ezen nola Etxeparereren liburuko, hala Axularreneko nahiz RSeko *-i-dun* bakarrak direla (RSeko *emayoc* hizkera ezberdin bateko dela onartzen badugu);<sup>70</sup>

<sup>70</sup> Eta hala behar bide dugu. RSeko adibide honezaz landa, XV-XVI. mendeetakotzat jo daitezkeen testuetan soilik beste adibide bat aurkitu dut non *eman-en* adizki batek datibo ikur gisa *-i* duen: Isasti lezoarraren 1625eko bildumako 29. errefrauauan (“Eguioc eguilleari, eta *emaioc* emalleari”). Areago, XVII. mendeko testu guztien corpusik ez badut ere, neure datubasean soilik halako beste bat idoro dut, hain zuzen ere goinafarrerazko gutun batzuetan: *emayozube*. Oro har, eta *Euskal Klasikoen Corpusean* ere XVII- XVIII. mendeetan bilaketak eginik, ondoriozta daiteke erdialdeko eremu bateko gertakaria dela, gipuzkeraren eta

bestetik, azken bi horien adizkiei *-ke* “falta zaiela” argi ikusten da (cf. Axularren apodosietako *liazaio* ‘liezaioke’ modukoak).<sup>71</sup> Izan ere, Mounolen arabera, apodosi hipotetiko burutugabeek («apodose hypothétique non-révolu») *-te/-ke* marka hartzen dute beti XV-XVI. mendeetako testuetan, sintetikoek orainaldiko ahaleran bezalaxe:

Tout d’abord, nous avons des formes synthétiques d’hypothétique avec (716-717) ou sans (718-719) suffixe *-te* / *-ke*.<sup>72</sup>

Ensuite, la périphrase [radical verbal / participe passé + *\*edin*, *\*ezan*, *egin*] (720-722) est employée dans tous les dialectes. Les auxiliaires *\*edin* et *\*ezan* y reçoivent systématiquement les suffixes *-te* / *-ke*. (Mounole 2014: 114)<sup>73</sup>

Morphologiquement, ce sont des formes de *tempus* présent auxquelles sont généralement ajoutés les suffixes *-te* / *-ke*. (Mounole 2014: 120)<sup>74</sup>

Leizarragaren *cieçoyon-i* dagokionez {62}, esan beharra dago Céline Mounolek bere tesian aipatzen duela, salbuespen moduan; baina perpaus nagusietako ahalerazko formek *-te/-ke* atzizkia hartzen zutela dio, oro har, baina iraganekoez ari delarik, oin-ohar batean azaltzen du Leizarragarena:

Employées en proposition principale, les formes finies à valeur de potentiel – synthétiques ou auxiliaires des périphrases – reçoivent généralement le suffixe *-te* / *-ke*. (Mounole 2014: 117)

---

goi-nafarreraren artekoa (ez naiz sartuko orain berritzairela ala gordetzaile izaera duen; kontuan har bedi, nolanahi ere, inperatiboko formak direla beti).

<sup>71</sup> Gontzal Aldai ere ohartu zen *lemaio-ren* berezitasunaz: “Aramaio, dabenak ez *lemaio* (por cierto, sin sufijo *-ke*)” (Aldai 1998: 393). Zehazki, ikertzaile berak artikulu horretan plazaratzen duen hipotesia da *l-dun* formek zentzu impertsonal arkaiko bat bazutela, ustez jatorrizko imperfektibotasun batekin lotua (Aldai 1998: 390; 2000; 2008). Eskaintzen dituen adibideen interesgarritasuna ukatu gabe (esaterako egungo euskaraz bitxi gertatzen den RS 145 (...) *beste gauza lekuske* ‘beste gauza bat ikusiko litzateke’, trinkoek balentzia aldaketarik ezin baitezakete adierazi), esango nuke ez dela *l-dun* adizkien berezitasun bat, baizik eta 3. pertsonarekin (= ez-pertsonarekin) lotu beharreko ezaugari bat (cf. besteak beste Benveniste 1966, Koch 1995). Izan ere, horren frogatzen Aldaik berak aipatzen dituen *d(a)-* aurritzkiarekiko adibideen existentzia bera, autoreak ezer ondorioztatzeko urriegi baderitze ere (nahiz eta ez duen aukera hori erabat ukatzen); bada, Axularrek baditu *d-dun* batzuk {9, 46-47}, eta gehi bekie iragan burutuko (!) RS 307 *maemana daqui emayten* ‘eman izan zaiona’ (lit. ‘eman ziona’).

<sup>72</sup> Oin-ohar batean zehazten du atzizki gabeko bakarrak *egin* eta horri lotutako *-idi*-ren adizkiak direla.

<sup>73</sup> Hala omen zen artean XVIII. mendean ere, salbuespenik gabe (Mounole 2014: 248).

<sup>74</sup> Orobak XVIII. mendean (Mounole 2014: 261).

Nous n'avons relevé qu'une seule exception à l'emploi des suffixes *-te*, *-ke* en proposition principale. Elle est de Leizarraga : *Eta nehorc ecin ihardets cieçoyon hitzic : ez nehor etzequión ventura guehiagoric egin harçaz harat interrogatzera* (Leiz. Mat. 22, 46) (Mounole 2014: 123, 186. oin-oh.)

Badirudi ikertzaile berak ez duela *dietzoyoten* {63} berdin interpretatu (hots, *-ke-*rrik gabeko “*-ke-dun*” bezala), ez baitu aipatzen geroaldiko formen artean.<sup>75</sup> Nire ustez, ezaugarri beraren gauzatzeak dira bi-biak.

Azkenik, Urgell 2015-en aurreko ikertzaileek erabat ulertzen asmatu ez bide duten *dadukaio* adizkia dugu, Axularrek birritan darabilena ({21, 22}). Aipamenik zaharrena Ithurriren gramatikakoa bide da, zeinari baitarrazkio, esaterako, Euskaltzaindia (1979: 113) eta Fernández (2013: 18-19).<sup>76</sup>

Ex: *Daduko*, il le lui tient. (Harizm., 136 ; A., 336 ; e. 103 ; P., 209, 269, disent *Diaduko*):  
*Zedukon*, il le lui tenait : (A., 489, *Ziadukon*) : ***Dadukeo***, il peut le lui tenir (A., 149, dit ***Dadukaio***). (Ithurri 1895: 289; beltza nirea da)

Ordea, Urgell (2015)-eko “itzulpena” da egiazko esanahira gehien hurbildu dena. Berak ‘ezin izan dezake’ dio; nire ustez, ‘ezin eduki dezake’ litzateke zehazki (aditz horren esanahi zaharraz, izan ere: ‘gorde, eutsi’). Hortaz, lehenagokoen errakuntza *dadukaio* N-N-N motakotzat hartzetik etorri bide da, testuinguruak N-N<sub>k</sub> eskatzen duelarik (noski, *-io* amaierak huts eragin ziekeen).<sup>77</sup> Iku [§ 4.3.2.4](#)-n gehiago adizki honi buruz.

Amaitzeko, Laffitek bere gramatika ezagunean ezarri zuen ohar bat iruzkindu nahi nuke, atal honen galderetako bati erantzuten baitio, harekin bat ez natorren arren:

Remarque. — Dans les vieux textes, on rencontre à la voix dative de **edin**, des formes comme **dakidikaio**, très intéressantes pour les philologues : elles montrent l’élément **ki** précédant le radical **-di-** du verbe, qui a disparu dans la conjugaison modernes; elles nous

<sup>75</sup> Izan ere, ahalaran eta baldintza-apodosietan ez bezala, geroaldiko adizkiek (Leizarra garen honek izan ezik) ez omen zuten *-te/-ke* atzizkia “galtzen” mendeko perpauseta zirelarik ere: “Les auxiliaires, de morphologie présent, sont toujours dotés des préfixes *-te / -ke*.” (Mounole 2014: 64). Orain, cf. Axularren (55-59) adibideak eta, beharbada, Haranbururena {67} ere bai (azken hori eta Axularren batzuk arestian apatu “orainaldi orokorraren” zentzuarekin).

<sup>76</sup> Gabriel Areistik ere berdin, 1970ean Mitxelenari igorri gutun batean: *dadukaio* eta *dadukeo* datibodun baliokide gisa paratzen ditu elkarren ondoan (*apud* Satrustegi 1994: 501).

<sup>77</sup> Hauek dira Axularren pasarteak (parentesi zuzenen atean adizkiak baturaturik):

{21} “Ez eta, beraz, Jainkoak ere, bekhatuen neurria betez gero, ezin **dadukaio [eduki dezake]**, bere justiziaren arauaz, bere kolera agertu gabe.”

{22} “Zeren ezta soberaniak gainez eragin eztiazaionik, ezta bere neurria baino gehiago **dadukaionik [edukiko duenik]**.”

suggèrent que la caractéristique *ke* du potentiel est une forme évoluée de *kai*, suffixe qui marque l'aptitude. (Lafitte 1944: 269)

Hain zuen ere, \**edin*-en joko datibodunaz ari delarik txertatzen du pasarte hori. Ez bide da konturatzen berak aipatzen dituen absolutibo pluralarekiko ahalerazko amaieren artean *keio* aipatzen duela (adib., *dakizkeio* ‘dakizkiode’), *kioke*-ren ondoan eta absolutibo singularrekiko *keo*, *oke* hur-hurrean dituela. Labur esanda, alde batetik, “dans le vieux textes” badio ere, halako formak Axularrek baino ez ditu, dakidanez (areago, autore berak *-kai* ez ezik, *-kei* nahiz *-ke-dun* adizkiak ditu, baina soilik lehen biak datibo-komunztadura duten adizkietan, eta haietan bakarrik). Beste alde batetik, *-di* ez da halakoetan erroaren parte, ez behintzat *dadin* batean den bezalaxe; aitzitik, *-di* atzizkia da hor, nola baita *egin*-etik eratorritako *-(\*g)idi-n* (Lakarra 2013: 304).<sup>78</sup> Finean, *-kai* ez da atzizki bakarra, biren metaketa baizik: *-ka* ([§ 4.3.2.2](#)) eta *-i* ([§ 4.3.2.3](#)).

#### 4.3.2.2. *-ka* morfoa

Onar bekit, bada, aztergai dugun atzizkia *-ka-i* banatu behar delako hipotesiaren ildotik segitzea.

Muinera joanda, eta honezkerro iradoki bainoago dudanez, \*-*ke* > *-ka* aldaketa jasan duela proposatzen dut, eta horren alde argudiatzeko hiru arrazoi nagusi aurkeztuko ditut.

- a) Lehenik, *-ke* dugu alde eta aldi orotan lekukoturiko aldaera bakarra, eta ez da arrazoirik haren jatorrizko forma beste bat zela pentsatzeko, bokalari dagokionez bederen.
- b) Bigarrenik, arestian aurreratu bezala, inork *-ka* horretan *derauka*, *zaika* eta abarretako 3. pertsona singulararen datibo-komunztadura badakusa, azaldu beharko du zer dela-eta gehitu zaion pleonastikoa litzatekeen *-io* amaiera, bereziki Axularrek bezala adiera horretan maizenik (=emankorki) *-ka* darabilen autore batengan.
- c) Lafitteren iritzia iruzkintzean aipatu dudan moduan, Axularrek berak {17} *lekidikeion* bat darabil {6-7} *lekidikaio*-en ondoan, eta beste {28} *dakidikeiela* bat; Pouvreauk ere *-kei-dun* ale ugari ditu {73-77}, eta Oihenarten atsotitzetan {69}, EspGut-etan {70-71} (eraldaturik bada ere) nahiz Voltoireren

---

<sup>78</sup> Gerora fosildu eta *-kidi-/idi-* osorik erro supletibotzat hartu bide ziren, eta horregatik *-ke* erantsi beharra.

elkarritzetan {72} aurki daitezke adibideak. Horiek guztiekin (Axular barne) *-ke* darabilte datibo-komunztadurarak gabeko testuingurueta.

Horrez gain, ez nuke aipatzeko utzi nahi Traskek Mitxelenaren eta Lakarraren azalbide baten harira jarritako eragozpena, proposatu dudan aldaketarekin zuzenean loturik baitago:

An argument against Lakarra's hypothesis [-o > -a adizkietan], which R. L. Trask has pointed out to us, is that the rule of lowering affects both mid vowels /e/ and /o/ in derivation (e.g. *lore* "flower", *lora-tegi* "garden" lit. "flower-place"). In finite verbal forms, on the other hand, there are no instances of /e/ to /a/ lowering. (*apud* Gómez & Sainz 1995: 252, 22. oin-oh.)

Hain zuzen § 4.1-en azaldu dudanez (cf. Lafon 1999 [1961]: 419), L zah. *derauka* edo B *jako* bezalako adizkietan ez dugu 3. pertsona singulararen datibo-komunztadurako *-o/-a* markaren herskaridun aldaerarik, baizik eta *-ki* (edo, hobeto esanda, \*-gi) datibo-ikurraren aldera kamustua. Hura azal genezake Mitxelenak (1954a: §3, §5) bizkaiera zaharreko *deutso* : *deutsan* motako alternantziaren zergatia argitzeko erabili zuen bilakabide fonologiko beraren bidez, hots, hitz konposaketan eta eratorpenean gertatzen ziren bokal aldaketez (FHV: 104). Orain, Trask gogatzeko beste etsenplu bat gehiago genuke \*-ke- + -i > -kai emaitza.<sup>79</sup>

Bukatzeko, *izan* eta *eduki* aditzen gaineko bi ohar. Lehenari dagokionez, baliteke {23, 24} formak aldez edo moldez analogiari zor izatea, ezen *-kaio* arkaismotzat (edo gutxienez *-((k)i)keo* baino zaharragotzat) baldin badaukagu, nekez azal baikenezake *-itzai-* enborraren amaierako datibo-ikurra, ez bada \*-itzakaio batetik abiaturik eta *-ke* gabeko forma arruntagoekiko berdintze paradigmaticoaren eraginez ('analogical levelling'; Campbell 2013: 93-95) edo, besterik gabe, beste aditzetarik *-kaio* hedatuaz ('analogical extension'; Campbell 2013: 95). *Eduki* aditzaz den bezainbatean, soilik gogorarazi nahi dut gutxienez Schuchardtengandik ikusi dela *eduki* aditzak antzina datibo-argumentu bat eduki behar izan zuela, zeina gerora bestela berranalizatu baitzen (ikus gorago § 4.1.5 eta § 4.3.2.4).

---

<sup>79</sup> Alabaina, ikus orain amaierako *postscriptum-a*.

### 4.3.2.3. -i morfoa(k?)

Atal honen hasieran iradoki dudan bezala, baliteke (*-ka*)-*i* eta *-i* amaieretako azken bokalak jatorri ezberdinakoak izatea. Jarraian, bi hipotesi aurkeztuko ditut, bataren nahiz bestearen aldeko ondorioztapen irlorrik ezin idoki badezaket ere.

#### 4.3.2.3.1. -(\*d)i arkaikoaren (eta etorki desberdinen) hipotesia

Baldin eta *dakidikaio* eta *diazaio*-ko azken *-i*-ek ez badute elkarrekin zerikusirik, eta lehenbizioarena datibo-ikurra besterik ezin daitekeela izan onarturik eta kontuan harturik, bigarrenaren forma eta esanahia erkatzeak eman liezaguke argirik bertan morfo bokaliko horrek betetzen zuen funtzioaz.

Hasteko, aurreko ataletan erakutsi den bezala, \**ezan*-en (eta *eman*-en) adizkiok *-ke*-dunen adiera berberak dituzte. Areago, hain zuzen ere bokal horrek ezberdintzen ditu balio hori ez duten beste adizki hirupertsonaletarik, Urgellek (2015: 325-34 testu oharra) ondo ikusi bezala.

Bestalde, baditugu Euskara Zaharrean geroaldia edo ahalera adierazteko *-ke* erabiltzen ez zuten aditz gutxi batzuk, dela orokorrean, dela dialektoren batean: batetik, bestelako markarik ere hartu ez ohi zuten *egin* eta *-iro*;<sup>80</sup> bestetik, *-di* atzizkia eranstenitzaien *egin* bera (→ -(\*g)*idi*-) eta *-ki*- laguntzailea (→ -*kidi*-).<sup>81</sup>

Hala bada, garatzen ari garen hipotesi honetan, pentsatu behar genuke *-i* misteriotsu hori ez ote den *\*-di* baten higadurazko emaitza (adibidea berrartuaz: \**diazadio*). Hartara, bi “arazo” konponduko genituzke: 1) forma zaharrotan ez genituzke bi datibo-ikur izango, non gainera atzizkiturikoa litzatekeen forma osoari arkaikotasuna ematen diona (baina ikus § 4.3.2.3.2);<sup>82</sup> 2) *-ke*-ren balioa morfo ezagun bati egotzi ahal izango genioke (eta horrela azalpen garestiagoak saihestu).<sup>83</sup> Bide batez, orain arte soilik bi errorekin

<sup>80</sup> Perpaus nagusietara mugaturik; mendekoetan, \**ezan*-ek eta \**edin*-ek ere ez zuten marka horren beharrik (Mounole 2014 *passim*). Horiez gain, Leizarragak ba omen ditu *etorri*-ren geroaldiko adizki biluziak ere (Zulaika 1998: 539).

<sup>81</sup> Azken *-ki*- horretaz iritzi orokor edo gutxienez aski zabaldua izan da datibo-ikurra bera dela (cf. Gómez & Sainz 1995: 257), eta \**edin*-en erroa noizbait, arrazoi fonetikoengatik-edo, galdu zela, baina lekualdaturik *-kidi*-n gorde (cf. Lafon 1999 [1961]: 423, Schuchardt-i jarraituaz). Orain, Ariztimuño (2013a: 415) lanean ez bezala, *-ki*- errotzat daukat (eta *-kidi*-, esan bezala, haren eratorritzat); beraz, ez da inon *-di*-rik galdu, ez \*\**-kidi*- > *-kidi*- metatesirik gertatu. Zehazki, \**edin*-en NOR-NORI forma supletiboetako erroa *ekhin* aditzarekin lotzen dut (*ekidin*-ena beste istorio bat da); ikus § 5.3.

<sup>82</sup> Hemen \**ezan*-en adizkiez ari naiz; *eman*-enetan datibo-ikur bakarra litzateke (adib. *demaiot*).

<sup>83</sup> Nahiz eta orokorrean sistemari begira, kasu honetan, garestia bi morfo ezberdin proposatzea bera izan litekeen.

leukotu izan den atzizki arkaiko baten konbinazio-aukera ezagunak bikoitzuko genituzke.

#### 4.3.2.3.2. -(\*g)i zaharraren (eta etorki beraren) hipotesia

Aldiz, forma guztiei azalpen bateratua ematen saiatu nahi badugu, bistan da -i datibo-ikurtzat hartu beharko dugula.<sup>84</sup>

Adostasun horretarik abiatuz gero, bi kontu datozi berehala burura: zein dira, oro har, formariak zaharrenak: datibo-ikurra dutenak, ala ez dutenak? Eta zer dute ikustekorik datibo(-ikurr)ak eta denbora-aspektu-moduen adierazpenak?<sup>85</sup>

Galderok erantzun baino lehen, dena dela, kontuan hartu behar da datibo-ikurraren itxura bera, bakanki baino ez delako halatsu ageri, esan nahi baita zuzenean \*-gi-tik, bokalartean kontsonantea eroririk, eta ez -k(i) aldaera (cf. orain Etxep *darauritzut* ‘derauzkizut, dizkizut’ eta Leiz *dauritzan* ‘dagotzan, dagozkion’;<sup>86</sup> ikus § 4.2).

Lehenbiziko auziari dagokionez, nago zenbaiten (askoren?) iritzia dela ezen datibo-komunzadura, beharbada komunzadurarik eza baino berriago delako ustean,<sup>87</sup> geroago eta morfologikoki agerikoago edo markatuago egin dela; eta baliteke hein batean hala gertatu izana, baina ez aditz eta pertsona guzietan, ez eta kasu guzietan batera ere. Ezagunak dira *nagozu* edo *derauzut* bezalako leukotasun zaharrak (baina cf. § 4.1.3.3, Hegoaldeko grafia defektiboen arazoaz); aldiz, orokorrak dira *nagoko*-ren eta, ekialdean, *derauko*-ren kideak (salbu eta Z *dereio*? Ala hori ere <\*derai(g)io < \*de-rau-gi-o?).<sup>88</sup>

Bigarren eztabaidagaiaz den bezainbatean, argi eta garbi batak eta besteak ez dute harreman zuzenik (nola, bada?), ezpada kronologiazko zoriak elkarren ondoan, konbinaketa berezi batean eman dituela. Hots: datibo-ikurraren aldaera “berezi” hori daukaten formek, edo 1) -ke morfoarekin batera ageri dira, ohi ez bezala (adib. *leraukaio*

<sup>84</sup> Ezen *leraukaio* bezalakoetan \*-di atzizkia ikusteak, \*-ke-di hurrenkera onartzea ez ezik, *dakidikaio*-ren paradigmari atzizki arkaiko bera bi aldiz dagoela esan beharra bailekarke (berriagoa tartekaturik, gainera), hiperpleonasmo anakroniko bat bailitz bezala.

<sup>85</sup> Edo, bestela esanda, datibo-ikurra DAMEN adierazpide?

<sup>86</sup> Baldin hala ulertu beharbada eta ez § 4.2n bertan emandako beste bidetik (*jaujin*). Gehi bekie, agian, ElduBerts *zarizka* ‘zaizka, zaizkio’ (cf. TAV: 123).

<sup>87</sup> Jakina, Mitxelenak (1981a: 527-528) iraganeko z-ren auziaren inguruan esan bezala, oinarri glotogonikoak izan ditzake uste horrek (morfologian ‘zerok’ zaharragoa behar du ‘zerbaitek’ baino), arrazoi testualak ments ditu ordea (besterik da aditz zenbaiten jokaeraren afera datibo-argumentuekiko perpausetan; ikus Mounole 2015).

<sup>88</sup> B-Aetako *deutso*-k ere ez du -k-rik, jakina (cf. Trask 1995), baina bai -ts- marka, dena dela ere haren jatorri eta garapen zehatza (Lakarra 2008b: 321; Mounole 2015: 475).

‘lioke’; cf. Leiz *drauca* : *drauqueo*), edo 2) DAM kategorien balio jakin bat gorde dute, usuenik morfologikoki markatua izaten dena (adib. *diazaio* ‘diezaioke’; cf. Leiz *d(i)eçaqueo*). Azken horri dagokionez, batek pentsa lezake \**ezan* aditzaren berezko esanahiarekin lotua dagokeela: *ukan-en* (baina ez *izan* iragankorraren, ez \**edun-en*) ‘erdietsi’ hura bezalakoa (cf. Hualde & Ortiz de Urbina 2003: 247, non ‘obtain’ itzultzen baita), nolabait *izan-en* eta \**edin-en* arteko oposaketa semantiko-aspektualaren pareko (ikus 5. irudia). Gorago ([§ 4.3.1](#)) azaldu dudan bezala, Euskara Arkaiko eta Zaharrean *-ke* atzizkia aski zen perpaus nagusietan ahalera adierazteko, *ahal* partikularik gabe ere; mendekoetan, berriz, *ahal* nahitaezkoa zen, baina orduan atzizkirik ez ohi zitzaison adizkiari eransten (Mounole 2014: 118-122). Hemen aurkeztu den corpusari behatuz gero, ordea, ikusiko dugu egoera hori bera perpaus nagusietan ere gertatzen zela; areago, *-ke* atzizkirik ez *ahal/ezin* partikularik ez duenik ere aurki daiteke testuinguru horretan.

Horrez gain, badira halako forma biluziak adierazpen-testuinguruetan ere. Horiek dira berezienak, ezen:

D’ailleurs cet écart chronologique a pour conséquence une assymétrie entre présent et passé dans le système verbal du 16ème siècle : pour lors la périphrase [radical verbal / participe passé + \**edin*, \**ezan*, *egin* de présent] est limitée aux contextes non-assertifs, tandis qu’au passé on la rencontre en contextes non-assertifs et assertifs. (Mounole 2014: 335, 389. oin-oh.)<sup>89</sup>

Amaitzeko, Mounolek (2014: 340-341) dioen bezala, ‘ahalera > geroaldia’ aldaketa hainbat hizkutzatan dago lekukotua; alderantzizkoa ez, ordea. Horregatik, *-te/-ke* duten formen jatorrizko esanahia potentziala zela, eta denborazkoa hartatik eratorri zela proposatzen du.<sup>90</sup> Hemen aurkezturiko lehen hipotesia ([§ 4.3.2.3.1](#)) bateragarria litzateke,

---


<sup>89</sup> Ohart bekio pasarte horretan ez dela *-iro-* aditza aipatzen. Azken batean, \*-gi-ren hipotesiaren arabera \**ezan-en* jokaera arkaiko bat litzateke hemen ikusten ari garena, *-iro-* erroarenaren antzekoa (Padilla 2013).

<sup>90</sup> Eta gehitzen du: ‘Le second argument en faveur de ce scénario évolutif est morphologique. Alors que les nouvelles formes périphrastiques de potentiel sont obligatoirement accompagnées des particules modales *ahal* ou *ezin*, ces dernières sont loin d’être systématiques avec les synthétiques et les périphrases [radical verbal / participe passé + \**edin*, \**ezan*, *egin*, \**iro* (+ *-te* / *-ke*) : *ahal* est facultatif dans tous les textes, et *ezin* souvent remplacé par la particule de négation *ez* (cf. ch. II, II.2.1). Donc, ces formes sont fondamentalement modales, et l’emploi des particules *ahal* et *ezin* ne semble être requis que lorsqu’il y a un risque d’ambiguité fonctionnelle. **Rappelons qu’il est obligatoire dans les subordonnées où le morphème *-te* / *-ke* disparaît de ces formes finies. Autrement dit, si le suffixe *-ke* suffit à donner valeur potentielle à ces formes, c’est justement parce qu’il s’agit à l’origine d’un marqueur de potentiel. Ces données vont à l’encontre de l’hypothèse de Rebuschi (1984) selon laquelle toutes les fonctions modales (conjecturale, potentielle et conditionnelle) du suffixe *-ke* sont dérivées de la valeur prédictive”** (Mounole 2014: 341; beltza nirea da).

apika, bilakaera horrekin (ezberdintasun bakarra *-ke* ordez *-di* atzizki baliokidea hartzea izanik). Aldiz, behin baino gehiagotan aipatu dudan bezala, mendeko perpausean \**ezan*-ek eta \**edin*-ek ez zuten *-ke* atzizkia hartzen (eta bai *ahal* partikula beti), eta gauza jakina da mendeko perpausak gordetzaileagoak izan ohi direla; ez ote du horrek iradokitzen ahalerazko zentzua, hain zuzen, *ahal* partikulak erantsi ziola lehenago geroaldi zentzua (besteak beste) izan zezakeen forma bat?

Since non-assertive subordinate clauses are not used for the expression of focus or topic (Hopper and Thompson 1973), they tend to be conservative grammatically, retaining older syntax and morphology (Givón 1979a : 85). (Bybee & al. 1994: 230-231)

Nolanahi ere, Bybee et al. (1994) eta Heine & Kuteva (2002) jasotako bilakaerekin eskema orokor bat egin bageneza, 7. irudikoaren moduko zerbait erdietsiko genuke. Bertan ikus daitekeenez, geroaldia eta ahalera gramatikalizazio bide ezberdinatarik irits litezke, lexema beretik abiatuta (euskaraz \**edin* eta \**ezan* direla hautagai aproposenak).<sup>91</sup>



10. irudia: \**edin* eta \**ezan*-en gramatikalizazio-eskema

#### 4.3.2.4. *Dadukaio* adizkiaz

Bukatzeko, *eduki* aditzaren berezitasunaz eta, bereziki, Axularrek darabilen *dadukaio* adizkiaz ohar pare bat egin nahi nuke. Lehenik eta behin, argi utzi behar da ez dela *dadukaio*-n hiru argumentu bilatu beharrik: Axularrek *diaduko* du N-N-N forma.

Halaber, Mounolen (Bilbao eta beste 2020a: 177) baieztapenaren kontra, esango nuke Lazarragak ez ohi duela *-ke* hutsez adierazten ahalera positiboa ere. Ahalerazko kasu ziur gehienetan *al* partikula edo *erraz* adberbia dakar (*erraz* ulertuko da halakoak geroalditzat zein ahaleratzat interpretatzea; cf. Heine & Kuteva 2002: 284-285); gainerako *-ke-dun* (huts) adizkiek geroaldi (edo geroaldiarekin loturiko) adiera dute.

<sup>91</sup> Lehen hipotesian arazotzat jo dudanez *diazaio* batean bi datibo-ikur agertzea, azalpen bat merezi duke oraingoak: esan bezala, atzizkituriko datibo-ikurra izango litzateke zaharrena, nire ustez, eta bestea (*dia-*) analogiaz zabaldua, forma hauetan betiere (cf. Ariztimuño 2016a, aitagureetako “barka iezazkiguzu” aditzaren aldaerez); horregatik gorde zuketen adizki berriek datibo-ikur berriena (*diazon*), behin hori hedaturik bestea erredundantea baitzen.

Argumentu-egiturari dagokionez, eta [§ 4.3.2.1](#)-en erakutsi bezala, N-N<sub>k</sub> hutsa da sinkronikoki. Haatik, Mitxelenak (1954a: 134) Lafoni jarraituz azaldu bezala, badirudi *eduki*-k datibo-argumentu bat hartzen zuela antzina, atzizki horrek eta forma jokatuetako -o~-a amaierak salatzen dutenez. Gerora, ordea, datiboko 3. pertsonari zegokion komunztadura hori berranalizatu eta adizkia N-N<sub>k</sub> egiturakotzat hartu zen. Bada, Axularren *dadukaio*-k hipotesi hori indartzen eta nolabait frogatzen duelakoan nago, ezen datibo-komunztadurak eskatzen ez duen testuinguru batean, argiro datiboko 3. pertsonari dagokion -o marka baitarama, datibo aurreko -i eta guzti (oroit -ka < -ke dela); eta non, eta -a bokala orokortu duen hizkera batean (hots, mendebaldeko euskaraz kanpoko batean). Nire ustez, adizki honek bermatzen du -kaio amaieraz orain arte esandakoa, eta areago, antzinatasuna eransten dio: *daduka*-tik ezin erator litekeenez, \**dadugio* zen garaira garamatza, nondik \**dadukegio* > *dadukaio*<sup>92</sup> (ikus [§ 5.2.1](#)).

#### 4.3.3. Ondorio gisa

Horrenbestez, atal honetan zehar hainbat gai arazotsu ukitu dira, eta horietako batzuk konpontzen saiatu. Alde batetik, Axularren ustezko -(k)aio atzizkiaren afera azaldu dut, -kaio eta -aio bereizi beharra erakutsiaz, eta, bestetik, -o 3. pertsonaren komunztadura-marka dela kontuan hartuta, adizkien multzoa osatu, zehaztu eta lehenago identifikatu gabeko forma eta testuetara hedatu dut proposamena (besteak beste RS, Etxepare, Leizarraga, Oihenart edota Materrarenetara).

Ondorioz, zenbait adizki eta morforen osaera eta jatorriari buruzko proposamen berriak aurkeztu dira. Hasteko, -kai < \*-ke-i eta -ai < \*(aditz erroko V)-i banatu eta bigarren multzoko adizkien kategoria-zehaztapenen zergatia argitzeko saioa egin da. Zehazki, Axularren *dazaio* vs *dazon* oposaketa azaltzeko bi hipotesi plazaratu dira, lehen formako -i atzizkiaren etorkiaren arabera: datibo-komunztadurarekin (\*-gi) lotzen du batak, eta aurretik soilik beste bi aditz-errorri lotua ezagutzen genuen -di modalarekin besteak.

Datibo-ikurtzat joz gero, lehen aldiz identifikaturiko arkaismo baten aurrean geundeke, perpaus nagusi asertiboetan ere -ke gabeko formak baikenitzke, bai geroaldi

---

<sup>92</sup> Joseba Lakarrak diost epentesitzat ere ezin har ote litekeen. Alabaina, ez dut aurkitu *ao*, *ae* > *aio*, *aie* moduko epentesien beste adibiderik inongo ez inoizko lekukotasunetan. Badira gorago aipaturiko *ee* > *eie* bezalakoak, baina betiere -ke + -en/-ela > -keien/-keiela testuinguru zeharo mugatuan (orobat Lapurdi hegoaldeko *athera* + -a > *atheraia*, XVII. mende bukaeratik). Cf. Oihenarten {68} eta [§ 4.3.3.1](#)-eko (78) adibideak.

adierarekin, bai eta ahalerarenarekin ere (azkenaren kasuan ia beti *ahal* partikulak lagundurik); azken horri dagokionez, Mounolek (2014) defendatzen duen gramatikalizazioaren ordez (ahalera > geroaldia) beste bide bat proposatu dut, ikusirik testuinguru gordetzaileenetan [*ahal* partikula + *-ke* gabeko adizkia] egitura zerabiltela XVI. mendean: funtsean, ahalera adierazteko formarik zaharrena *ahal* + adizki biluzia zatekeen, eta *-ke-k* (zein *-di-k*)<sup>93</sup> geroaldia adieraziko zuen (nahiz eta inperfektibozko formek ere berez izan zezaketen zentzu hori). Bi ezaugarriak batera erabiltzearen poderioz hartuko zuen atzizkiak potentzialtasuna adierazteko ahalmena (ikus orain Ariztimuño & Salaberri, prestatzen). Horrez gain, adizkiotan datibo-ikurra agertzea ez agertzea baino zaharrago dela ondoriozta daiteke.

Aldiz, bokal hori *-di* atzizkiaren lorrazt gisa ikusiko bagenu, morfo horren behialako hedadura handiago baten erakusgarri genituzke lan honetan aurkezturiko datuak, baina bestelako ondorio diakronikorik gabe.

Azkenik, *eduki*-ren jatorrizko datibo-komunztaduraren hipotesia frogatzen bide duen *dadukaio* forma argitu da.

#### 4.3.3.1. Postscriptum

Atala amaitua nuelarik, konturatu naiz § 4.3.2.2-n emandako azalpena ez zela aski: *-e > -a* bi silabako hitzetan gertatu ohi da; hirutik gorakoetan, ordea, bokala galtzea zen araua (FHV: 104-105). Hala eta guztiz ere, horrek ez du zertain nire proposamenaren muina uki (*-ka-i* banatu beharra, eta *-ka = -ke* izatea); alabaina, emandako azalpena (Erdi Aroko bokal-aldaketena) ezin erabil liteke besterik gabe. Horren aurrean, hiru aukera hauek ikusten ditut, beharbada errazenetik (ez horratik egiantzekoena) neuretzako interesgarrienera ordenaturik:

- a) Azken batean, *-ka-* ez da “eratorpeneko” aldaera, baizik eta diptongoan sortu dena, hau da [ei] > [ai] irekitzearen ondorioz (cf. Nafarroa hegoaldeko *eu* > *au*, eta, alderantziz, Iparraldeko *ai* > *ei*). Euskaraz badira *au/eu* eta *ai/ei* txandakatzeak, non *e*-duna zaharrago izan litekeen batzuetan (FHV: 83-85; cf. bertan *gai/gei* pareaz eta *gehi*-rekiko balizko harreman etimologikoaz; *pace*

---

<sup>93</sup> Izan ere, *-di* atzizkia \**din* ‘etorri (~ iritsi?); bilakatu (~izatera iritsi)’ errotik gramatikalizatu bazen, azalpen bera lukete *-kidi-* eta *-(\*g)idi-* formek (cf. Lakarra 2013).

Lafitteren *kai > ke*, bide batez). Nolanahi ere, Axularren hizkerako berezitasun bat besterik ez litzateke (baina cf. [§ 5.2.1](#), [§ 5.2.2](#) Lazarragaren -*kai*-dun adizkiez).

- b) *e > -a* aldaketak luzaroago iraun zuen ezen ez bokalen erorketek (gogoan izan *katu/katagorri*, *kutsu/kutsatu* bezalako bikoteak ere, itxuraz bokal-neutraltzea morfologizatu izanaren ondorio);
- c) ezaugarria uste baino zaharragoa da, horretarako onartu beharko genituzkeen inplikazio hauekin (gutxienez): -*ka-* aldaera inoiz orokorr(ago)a izan da; bokal-aldaleta gertatu zenean artean klitikoak ziren gaur egungo aurrizki-atzizki batzuk bederen, eta ondorioz -*ke* morfoa ez zatekeen bigarren silabatik haragokoen gisara mutatuko (cf. *daduka* vs *dadukaio* azaltzeko ere behar den oinarrizko ezberdintasuna: \**dadug(i)-o* lehenean, \**daduke-(g)io* bigarrenean).<sup>94</sup>

Ezin naiz hemen ezeinen aldeko argudiaketen sartu, harik eta beste proposamen batek edo (zori hobez) testu zahar “berri” batek lainopetik atera gaitzakeeno.

Finitzeko, eta oro har Oihenarten neuritzak kontuan hartu ez ditudan arren (diatopikoki nahiz diakronikoki izan dezakeen zalantzazko fidagarritasuna dela-eta), hona ekarri nahi nuke haietan aurkitu dudan azken -*i*-dun adizki bat: {78} *demaiala* ‘eman diezaala’. Izan ere, nahiz eta hasiera batean jusibo balioko -*ela*-dun forma arruntetarik dirudien, esango nuke ezin bazter daitekeela aldi berean geroaldiko kutsua duenik (cf. Etxeberri Ziburukoaren *lauda egun batean zaitzakela*, eta orain Lazarragaren *beracusque* bezalakoak; Mounole 2014: 96).

#### 4.4. Lazarragaren *ñagon*-etik Garibairen *diago*-ra

Atal honetan, literaturan oso gutxitan aipatu diren adizki batzuk aztertuko ditut; labur aurkezteko, Lazarragaren *ñagon* (edizioan <nagon>), Otxoa Arinen *diago* eta Garibairen *diago* hirukotean bil daitezke. Azaldu ere, hiru urratsotan azalduko ditut: lehenik ([§ 4.4.1](#)) Lazarragaren adizki berezia aztertuko dut, eta bere paradigma kokatatuko; ondoren ([§ 4.4.2](#)), paradigma horren beste aldaera dialektal baten ingurukoak bilduko ditut; eta, azkenik ([§ 4.4.3](#)), aurrekoen itxura bera duen arren erro ezberdinekotzat daukan Garibairen adizki misteriotsua argitu nahiz, besteak beste, haren etimologiaren gaineko proposamena egingo dut.

---

<sup>94</sup> Joseba Lakarrak gogorarazi didanez, hor dugu *anderauren* hitza ere, non hirugarren silaban gertatu baita konposizioko -*e > -a* bilakabidea (eta, agian, *Anderazu* antropónimoa ere bai).

#### 4.4.1. Lazarragaren eskuizkribuko <nagon> adizkia: grafia-kontu bat baino gehiago<sup>95</sup>

Azpiatal honetan laguntzaile berezi bati buruz arituko naiz, bi helburu nagusirekin: batetik, Lazarragaren eskuizkribuan soilik dokumentatu den aditz-forma baten (<nagon>) eta Lazarragaren eskuizkribuko diakritiko-sistemaren azterketa xume bat eginez, adizkiaren irakurketa berria (<ñagon>) proposatzea ([§ 4.4.1.1](#)) eta, bestetik, haren paradigma berekoak diren testu zaharretako forma guztiak biltzea, XX. mendeko inuesta dialektologikoetan jasotakoekin batera ([§ 4.4.1.2](#), [4. eranskina](#) eta [7. eranskinoko](#) i. eta ii. taulak). Azkenik, aditz laguntzaile horrentzat beste ikertzaile batzuek proposaturiko etimologiak aztertuko ditut ([§ 4.4.1.3.1](#)), eta, amaitzeko, neure ikuspegia ([§ 4.4.1.3.2](#)) eta ondorioak laburbilduko ditut ([§ 4.4.1.4](#)).

##### 4.4.1.1. Adizki berezi bat, ezaugarri berezi bi

Lehenik eta behin, Lazarragaren eskuizkribuan orain arte oharkabean bezala igaro den adizkia deskribatuko dut, ezen aurreko lanetan “oker” irakurri da eta, oro har, haren paradigma hobeto azaldu beharra dago.

Delako adizkia Bilbao eta bestek (2020b) <nagon> transkribaturikoa da, eta ‘nion’ adiera du (556-560). Teknikoki ezin da hapaxtzat hartu, eskuizkribuan ageri den haren orainaldiako kide *jagot* ‘diot’ bezalaxe (bai, aldiz, *jago* ‘dio’),<sup>96</sup> eta, gainera, bokalarteko -g- hori dela-eta, Gipuzkera Zaharreko testuetan ezagunak diren *digo* ‘dio’ erako laguntzaileen kutsua dutenez, haietan parekatu dituzte Lazarragaren eskuizkribuaren ediziogileek, xehetasunetan sakondu gabe bada ere. Hauek dira <nagon>-en adibide guztiak, edizioan eman dituzten bezala:

- (556) itaundu **nagon** poridadean / beste donzella bateri (Laz, A7: 71)
- (557) Egun ascotan nic eguin **nagon** / modu ascotan erregua (Laz, A21: 5)
- (558) çaguita çorroz bat ifini **nagon** / berar gaxtoaz ganchitua (Laz, A21: 17)
- (559) bere cençuna ifini **nagon** / promesa ascoz pobladu[a] (Laz, A21: 25)
- (560) Erançun **nagon**: “Ni noçun guero (...) (Laz, B21: 97)

---

<sup>95</sup> Azpiatal hau Ariztimuño (2021a) lanaren egokitzapena da.

<sup>96</sup> Eskuizkribuan bosna aldiz agertzen dira *jagot* eta <nagon>, eta behin *jago* (guztiak Lazarragaren eskuikoak).

Alabaina, datozen lerroetan erakutsi nahi dudanez, batetik, baditugu bi adizki-multzoen (*digo/jago*) parekatze hori zalantzan jartzeko arrazoiak (kronologikoak nahiz geografikoak), eta, bestetik, Lazarragaren <nagon> formak, iraganekoa izanik, agerian uzten du badela azaltzeke egon den beste ezaugarri bat ere: erro aurreko -a-; hau da, adizki horretan iraganeko edo “ez-oraineko” markarik ez agertzea, -n atzizkiaz besterik.

#### 4.4.1.1.1 Iraganeko -a-?

Azken puntu horren harira, esan beharra dago Lazarragaren sisteman orainaldiaz kanpoko adizkiek beti -e- bokala dutela erro aurrean; guztiekin, arrazoi morfofonologiko jakin batzuen ondorioz -i- edo j- dutenek izan ezik: e. g. *nioean* ‘nindoan’, *jacan* ‘zitzaison’. Azken horretan, adibidez, datibo aurreko marka eta iraganekoa batu ziratekeen fonema bakarrean (dela \*e-i-tik, dela \*i-e-tik). Orobak gertatu zen *ballaco-ren* ‘balitzao’ hipotetikoko albokariarekin.<sup>97</sup>

Hala bada, *nagon* forma araua urratuko lukeen bakarra litzateke; aitzitik, Lazarragaren eskuizkribuko hizkien gaineko ikurrak azterturik ([§ 4.4.1.1.2](#)), nahiko ziur ondoriozta daiteke ezen <n-> horiek egiazki <ñ-> irakurri behar direla.<sup>98</sup>

#### 4.4.1.1.2. Lazarragaren grafiaren berezitasun baten inguruau

Lazarragaren eskuizkribuak milaka hitz ditu, eta lehen begi-kolpean iduri luke (bereziki *zein* erlatibozkoaren kasuan) sarritan sudurkariaren sabaikaritasuna ez dela grafikoki adierazten; eta areago, badira sudurkari-sabaikaritasunarekin edota sudurkaritasunarekin loturik ez dauden ikur diakritikoak ere. Haatik, alderantzizko ikuspegia hartua, bestelako ondorioak atera ditzakegu.

Eskuizkribuan 128 diakritiko edo diakritiko-antzeko ikur aurkitu ditut (tiletak <̄>, flokak <~>, eta kalderoi itxurakoak <^>; cf. Bilbao eta beste 2020a: § 1.10), zeinetarik 101ek kontsonante sudurkariekin zerikusirik izan dezaketen, teorikoki: dela kontsonante sudurkaria bera (çecē ‘zezen’) edo halako baten sabaikaritasuna adierazten dutelako (*acompañadua*, *ceñac*, *baño*), dela bokal baten sudurkaritasunarekin lot litekeelako (*morrœ*). Horietatik bokal sudurkariei legozkiekeenak kenduta (zalantzazkoenak

<sup>97</sup> Mendebaldeko *jako*-ren paradigmako j-z, ikus [§ 4.1.5](#).

<sup>98</sup> Ikus [2. eranskineko](#) irudiak.

direlakoan), 91 lirateke “ziurrak” (%71);<sup>99</sup> eta kontuan hartuta eskuizkribuak milaka hitz dituela, ez dirudi halabeharrez gertatu denik. Areago, itxuraz balio fonologikorik (edo sudurkaritasun baliorik bederen) ez duten ikurren erdiak baino gehiago *Artzain Liburuan* daudenez (horrek eskuizkribuaren erdia baino gutxiago hartzen duen arren), gainerako testuetako egokitasunak %75eraino iristen dira, gutxienez.<sup>100</sup>

Bestalde, ez da zalantzarak *baino*, *gain*, *oin* eta *zein* hitzen kasuan (bereziki <bano>, <gan->, <on-> eta <çen-> itxurapean agertzen direlarik) ikusten diren ikurrek <n> horiek <ñ> irakurri behar direla adierazten dutela (cf. Bilbao eta beste 2020a: 84). Bada, kontuan hartuta *na-* hasieradun 200 hitz baino gehiago direla eskuizkribuan, eta ikurrak soilik <nagon> adizkiaren 5 lekukotasunetatik 4tan eta *naguiçu* bakarrean (15etik) ageri direla, egiantzekoena aztergai dugun adizkiaren gaineko ikerra benetako diakritikoa dela pentsatzea bide da; hau da, <ñagon> irakurri behar dela.

#### 4.4.1.2. Paradigmaren hedaduraz

Horiek horrela, aurreko puntuko proposamena onartuz gero, orainaldiko adizkietan argi ikusten den palataltasuna (*jagot* ‘diot’, *jago* ‘dio’) iraganekoan ere izango genuke, irregularitasun morfofonologikoa bazterturik. Hala, ezaugarri bat agerianago geratu da: erroaren aurreko *-a-*.

Arestian aipatu salbuespenak (*jacan* ‘zitzaison’, *ballaco* ‘balitzaio’) oraingoz alde batera utzirik, auzia argitzeko testu zaharrenetatik lekukotzen diren forma guztiak hartu behar dira kontuan. Izan ere, Lazarragaren eskuizkribukoak ez dira N-N-N laguntzaile berezi horren lekukotasun bakarrak: Antzuolako testu zaharrenean (AmillD), bai eta XIX. mendeko dotrinan ere (AnzD), badira halakoak ([4. eranskineko](#) 33-41 adibideak). Areago, oraindik Oñatin eta Bergara-Antzuolan horien ondorengoak erabiltzen dira (*xao /sao/, jao /xao/* ‘dio’ etab.), paradigma defektiboetan, XIX-XX. mendeko dialektologia-lan eta -bilketetan jaso bezala (ikus [7. eranskina](#)).

Hortaz, Arabako (ipar-ekialdeko) euskararen eragin eremuko berrikuntza dukegu hau (Zuazo 2012; Uribe-Etxebarria 2020; Eraña 2020), Lazarragaren jaioterri Larrea eta haren leinuaren jatorriko Oñati lotzen dituena, besteak beste.

<sup>99</sup> Ikus [3. eranskineko](#) 15. taula ondare zaharreko hitzetako diakritikoen kopuru eta proportzioez.

<sup>100</sup> Analisi sakonagoa behar dute eskuizkribuko esku ezberdinak, bakoitzaren ohitura grafikoak bereizteko eta, halakorik balego, sistematikotasunak aurkitzeko, baina hori lan honen xedeetatik harago da.

#### 4.4.1.3. -ago- errodun formen jatorriaz

Honenbestez, aztergai dugun aditz-erroaren inguruan esan diren apurrak aipatu eta iruzkinduko ditut atal honetan, eta neronek atera ditudan ondorioak aurkeztuz amaituko dut.

##### 4.4.1.3.1. Beste ikertzaileen esanak

Adizkiok aipatzen lehena Zavala (1848) izan zen, eta harengandik ikasi bide zituen Bonapartek (*apud* Urquijo 1910: 294-295). Printzeak, adizkietako hots-aldaaketak eta aldaerak deskribatzean, Bergarako *jao* eta Oñatiko *xao* adizkietan /ts/ > /ʃ/, /x/ gertatu zela esaten du (*deutso-tik* abiatuta, nonbait), xehetasun gehiagorik gabe (Bonaparte, 1869: 239).

Aldiz, Schuchardt-ek eta, hari jarraituz, Lafonek adizkiok zuzenean \**edun*-etik zetozela proposatu zuten, oinarrizko formari -(k)i- datibo-marka gehiturik:

Dans des parlers biscayens du Guipuzcoa, “il le lui a” se dit *jao*, ailleurs *xao*. Comme Schuchardt l’a bien vu (*Baskische Studien*, 59), la spirante dorsale sourde *j* et la chuintante sourde *x* proviennent ici de \**d-y*. Toutefois il ne faut pas poser à l’origine, comme il le fait, \**d-a-u-ki-o*, mais \**d-a-(d)u-i-o*, d’où \**d-i-a-(d)u-o*, \**dyawo*, \**dyao* et enfin *jao* et *xao*. Dans la forme roncalaise *dau* “il me l’a”, le *au* ne peut pas être ancien, car dans ce cas il serait devenu *ai*; *dau* provient sans doute de \**d-a-(d)u-o*, sans *i*, forme du type le plus simple possible, d’où \**dawo*, \**dao* et enfin *dau* (Lafon 1999 [1961]: 427).

Bestalde, Lazarragaren edizio-taldeak *digo* erakoekin alderatzen dituzte, tarteko -g- dela kausa, baina lotura zehaztu gabe eta proposamen etimologikorik egin gabe (Bilbao eta beste 2020a: 163); Uribe-Etxebarriak (2008) -g- errokotzat sailkatzen ditu; eta Mounolek (2015), aldiz, ez ditu era honetakoak aztertu.

Azkenik, Erañak (2020: 68-71) *egin*-en forma ditrantsitibotzat hartzea proposatu du, Lazarragak berak darabilen *jagin* jokatugabearekin loturik. Proposamen honi bi oztopo (agian ez gaindiezinak, halere) jar dakizkioke: alde batetik, *jago* ‘dio’ / *degion* ‘diezaion’ balizko oposaketa dugu (laguntzailetan soilik) eta, bestetik, \**jagio* > *jago* ezohiko higadura. Lehenari helduz,<sup>101</sup> kontraesana da aldi berean banaketa modal hori

---

<sup>101</sup> Bigarrenaz ez dut askorik esaterik, euskararen fonetika historikoan paralelorik ez duela besterik. Halaber, ematen duen etimologiari (*jagin* < \**eagin* < *eragin*) zalantzagarria deritzot, kontuan hartuta *eragin* bera bizirik zela eta artean bokalarteko *r* bakunak, oro har, ez zirela galduak.

laguntzaile-paradigman soilik gertatzea (zahartasun zantzua izan litekeena) eta, aldiz, datu diatopikoek iradokitzen dutenaren arabera, eremu murritz bateko berrikuntza izatea (*degi-* inoiz komunaren alboan). Izan ere, aipaturiko oposaketan eredu zaharrena *jai-*zatera, hain zuzen hura indikatiboz kanpoko funtzioetan (ere) agertzea esperoko litzateke, nola ageri baita *jagin* laguntzaile jokatugabea.<sup>102</sup>

#### 4.4.1.3.2. Proposamen berria

Esan dezakegun gauza ziur bakarra da *ñagon* ‘nion’ bezalako forma batean, -*ag*(V)-<sup>103</sup> dela enborra. Horri erro kanonikoaren hipotesia aplikatz (Lakarra 2008b), ezinbestean -*a*- morfoa bereizi behar dugu (< \**da*-?), eta -*g*(V)- geratzen da errorako.

Puntu honetan bi hipotesi plantea litzke: edo lehenago (jokaturik bederen) ezagutzen ez genuen erro baten aurrean gaude (\**gVC*, baina ez *egon*, *igo(n)~igan*, *jagon...*), edo, *digo* erakoetan bezala, -*g*- epentesia besterik ez da eta, beraz, ez dakigu zer erro (ezagun zein ezezagun) den azpian. Oraingoan bigarren aukerari jarraituko diot; zehazki, erro ezaguna izan daitekeelako hipotesiari.

Hasteko, eta bestelako arrastorik ezean, pentsatu beharko dugu ezen delako aditz-erroak “erraz” galtzeko moduko kontsonanteak eta bokala behar zituela. Lehen kontsonanteari dagokionez, *b*-, *d*- eta *g*- dira bokalartean arrastorik utzi gabe desagertu litzkeenak, eta bukaerakoa, aldiz, -*n*. Bokalari dagokionez, esan dugu jada *a*, *o* eta *u* direla egiantzekoenak, datiboko -*o* gehituz gero harekin bat egin zezaten.

Litezkeen konbinaketa guztiak aztertuta (\**ban*, \**bon*, \**bun*, \**dan*, \**don*, \**dun*, \**gan*, \**gon*, \**gun*, \**nan*, \**non*, \**nun*), berehalakoan hiru aukera gailentzen dira: \**bon* ‘eman’ (\**e-bon* > *eman*, Lakarra 2019), \**dun* ‘ukan’ (cf. \**eradun* eta \**edutsi*), eta Lakarrak ahoz aipatu didan \**non* (cf. *erau(n)tsi*; EHHE, s.v.). Alde batetik, kontuan hartuta berrikuntza (zahar) lokalaren itxura duela arkaismo handiarena bainoago, eta \**bon* errotiko -*m-dun* formak (jokatugabe nahiz jokatuak) orokorrak direla lehen testuetarik, ez da aukera egiantzekoena. Bestetik, \**non* erroaren eratorri ugarien semantika (-*i(n)o-* ‘esan’, *erau(n)tsi* ‘jardun, ari izan [euria, berriketan]; jo’, etab.)<sup>104</sup> eta ohiko gramatikalizazioak ikusirik (Heine & Kuteva 2002), nago ezen \**dun-en* bidez azal

<sup>102</sup> Aldiz, aditz nagusi gisa (bi lokuzio hauetan beti: *berba jaguin*, *reberencia jaguin*) partitibodun partizipioaren formarekin ageri da gehienetan (*jaguinic*), modua edo perfektutasuna adierazten.

<sup>103</sup> Azkena -*o*-rekin batu litekeen bokal bat bada, egiantzekoenak *a*, *o* eta, agian, *u* izanik (\*-*agao* / \*-*ago* / \*-*aguo* > -*ago*).

<sup>104</sup> Ikus § 4.4.3 Garibairen *diago* adizkiaren inguruan.

daitekeela errazen. Hala, gorago azaldutako Schuchardten eta Lafonen proposamenera hurbiltzen gara, xehetasunak xehetasun.

Bilakaera fonologikoari dagokionez, gakoa adizkion hasierako sabaikaritzean eta erro aurreko *-a-n* dago. Labur esateko, *-a-ren* presentzia \**da-* (aplikatibo) aurrizkiari egotz dakioke, eta sabaikaritza datibo-komunztadura gehitzeko \**i-* aurrizkiari; edo haien arrasto fonologikoaren morfologizazioari (berrikuntza analogikotzat jotzen badugu).

Aldeak alde, ezaugarri horiek berak dakuskigu beste forma batzuetan ere. Lazarragaren *jaquin* eta *jaguin* jokatugabeetan (← \**ekin*, *egin*; Bilbao eta beste 2020a: § 4.1.5) eta mendebaldeko *jaustak* (← *deust*) adizkian, esaterako, (\**e-*, *d(e)-* → *ja-* dugu; *jakin* aditz nagusiaren orainalditik kanpoko formetako *-a-* behiala orokorra morfologia beraren arrastotzat har liteke (cf. RS 406 *baginea quique*; Etxep, V: 13 *balyaqui*; ikus Mitxelena 1954a: 132-133); eta, bereziki, cf. mendebaldeko hizkera batzuetako *joat* ‘diat’ eta *ñoan* ‘nian’ alokutibokoak.

Hortaz, balizko \**jadun* partizipiorik proposatu beharrik ez bada ere (baina inoiz izan zenik baztertu gabe), eta *jago* ‘dio’ eta *ñagon* ‘nion’<sup>105</sup> adizkiak paradigmaren ordezkari harturik, bilakaera hauek proposatzen ditut:<sup>106</sup>

- a. \**dau* → \**djau-o* > \**ja(w)o* > *jago*
- b. \**neu-* → \**nj(e)au-o-* > \**ña(w)o-* > *ñagon*

#### **11. irudia: Lazarragaren *jago* eta *ñagon* adizkien etimologiak**

##### **4.4.1.4. Laburbilduz**

Honenbestez, azpiatal honetan erakutsi dut, batetik, orain arte <*nagon*> transkribatu izan den forma egiazki <*ñagon*> irakurri behar dela; ez soilik arrazoi morfologikoengatik, baizik eta, Lazarragaren grafiaren berezitasunak azterturik, adizkion gaineko ikur diakritikoak kontuan hartu behar direlako.

Bestetik, *jago* erako formen paradigma bere testuinguru diakroniko eta diatopikoan kokatu dut, eta lekukotasun zahar guztiak bildu; azkenik, adizkion ezaugarri morfologiko

<sup>105</sup> Iraganeko atzizkia (ii)-ko garapen-eskematik kanpo utzi dut, haren bilakabideak azalpen bereizia duelako, eta ez duelako hemen aztergai dugun garapen morfofonologikoan parterik.

<sup>106</sup> Berreraiketako *dj* eta *nj* digrafoek jatorrizko kontsonanteen (*d*, *n*) eta emaitzako kontsonante sabaikarituen (*j*, *ñ*) arteko urrats morfofonologikoa islatu nahi dute (nire ustez, \**i-* aurrizkiarekin lotua), zehaztasun fonetikorik gabe.

eta fonologikoak kontuan harturik, etimologia-proposamena egin dut, \**edun* aditzaren oinarrizko formetatik abiatuta eta mendebaldeko (eta bereziki Lazarragaren testuko) beste aditz batzuetan ikusten den argumentu-gehiketako mekanismo ezagunaren bidez (*d->j-*).

#### 4.4.2. Gipuzkoa mendebaldeko *diago*: Otxoa Arinen bitxitasuna baino gehiago<sup>107</sup>

Azpiatal honetan orain arte ongi deskribatu gabeko aditz laguntzaile batez arituko naiz (-*ag*- erroa erakusten duten formak), bi helburu nagusirekin: batetik ([§ 4.4.2.1](#)), dokumentatu diren adizki guztiak biltzea eta sailkatzea, eta bestalde ([§ 4.4.2.2](#)), haren sorreraren eta garapenaren gaineko proposamen bat egitea ([§ 4.4.1](#)-ekoaren ildotik).

Izan ere, testu eta lekukotza ezberdinak forma guztiok ez dira lehenago aztertu, eta aipatu izan direnak ere ez dira elkarrekin lotu; hau da, inork ez ditu adizki guztiak ez aditz beraren aldaeratzat identifikatu (ikus [§ 4.4.2.3](#)). Ondorioz, ez zaio arreta nahikoa eskaini adizki berezion osaerari, eta haien hedadura zehazteke egon da ([§ 4.4.2.4](#)).

##### 4.4.2.1. Adizki berezi batzuen hatzean<sup>108</sup>

Aurreko azpiatalean ([§ 4.4.1](#)), Lazarragaren ñagon ‘nion’ adizkia (561) eta haren paradigma aztertu ditut, lehenik irakurketa horixe (eta ez Bilbao eta besteren [2020b] <ñagon>) defendatuz,<sup>109</sup> eta ondoren bere testuinguru paradigmatiko eta diatopikoan kokatuz, egundaino gorde diren Oñatiko *xao* ‘dio’ eta Antzuola-Bergara aldeko *jao* ‘dio’ erako adizkiekin lotuz, lehenago Lazarragak berak darabiltzan *jago* ‘dio’ (562) erako gainerakoekin bestek egin bezala (cf. Uribe-Etxebarria 2008; Zuazo 2012; Aldai 2013).

- (561) Egun ascotan nic eguin **ñagon** / modu ascotan errengua (Laz, A21: 5)
- (562) Semeric badeu esaten **jago**: / “Aita, eguidac jaquea” (Laz, A24: 99)

Halaber, adizkion osaera azaltzeko saio batzuk laburbildu eta, behin-behinean, Lafonek (1999 [1961]: 427) Oñatiko eta Bergarako formetarako proposatutako etimologiarekin bat egin dut, xehetasunak xehetasun.

<sup>107</sup> Atal hau Ariztimuño (2020b) lanaren egokitzapena da.

<sup>108</sup> Testuan adizkiak baino ez ditut aipatuko gehienetan, haien euskara batuko ordainarekin batera; adizkiok sailkaturik eta beren testuinguruan irakurtzeko, ikus [4. eranskina](#) (eta hurrengoak).

<sup>109</sup> Esan nahi baita, adizki hori ñ-z interpretatzeko argudio linguistikoak ez ezik, <ñ> irakurtzeko grafiazko frogak aurkeztuz.

Labur azaltzeko, ikuspegi horren arabera, adizkiok \**edun*-en forma ditrantsitiboak dira, oinarrizko *dau* formari hasierako morfoaren palatalizazio-bidezko datibo-marka eta amaieran 3. pertsonaren datibo-komunztadura erantsiz sortuak: \**djau-o* > \**jawo* > *jao*.

Oraingo honetan, baina, lekukotasun gehigarri batzuk aurkeztuko ditut, sarreran esan bezala, inoiz lehenago aztertu edo arestian aipatu ditudanekin lotu izan ez direnak.

Hala, Lazarragaren *ñagon* adizkiak *jago* erakoak aztertzena eraman nauen bezala, Otxoa Arinen *diagola* ‘diola’ (563) adizkia izan da ikerketa-saio honen abiarazlea.

(563) escatcen **diagola** Jaungoicoari (OArin: 132)<sup>110</sup>

Adizki hori (hurrengo azpiatalean aipatuko ditudanak bezala) ez dut ezein ikerketatan aztertua ikusi, autorearen beraren adizkien sailkapenetan izan ezik, eta haietan oker azterturik edo sailkaturik beti (cf. 234. oin-oharrean aipaturiko bibliografia eta Dodgson 1913<sup>111</sup>).

#### 4.4.2.2. -g-dun adizki ditrantsitiboen corpusa zedarritzen

Gorago esan bezala, Bilbao eta bestek (2020a: 163) *jago* eta *digo* ‘dio’ erako adizkiak parekatzen dituzte, aldaera gisa nonbait. Alabaina, ediziogileek aipatzen dituzten testuetako batzuetan (SumBr, LoID, OtxA) ez dira *digo* erakoak soilik ageri, baizik eta *jago*-ren antz handiagoa duten eta, dakidala, inork lehenago elkarrekin lotu ez dituen beste batzuk: *diagola* ‘dio’ erakoak (ikus [4. eranskineko](#) 16-19 eta 31-32 adibideak).

Aipatzeko da ezen testuon transkripzio, edizio eta azterketa bakoitzean ere ez direla besteetan ageri diren *diagola* erako forma bereziak aipatzen, eta gehienek *di(g)o* erakotzat hartu izan dituztela, esplizituki edo haietan batera emanik zerrendan (zalantzaz bada ere; cf. Aranburu eta beste 1999: 102). Fidel Altunak, aldiz, \**eradun*-etik erator zitezkeela planteatu zuen, tarteko *diau-* formen bidez (Altuna 1995b: 623).

---

<sup>110</sup> Hona hemen pasarte osoa, non bidenabar ikus baitaiteke objektu pluralarekiko komunztadurarak eza aztergai dugun adizkian:

Aciertua conseguitceco gauza importanciazco onetan, conveni izango zayo Christaubari bere bacartasunera retiraturic oracio eguitea, eta exercicio santu orretan egunen batzuec, edo gauren batzuec empleatcea, aldian bein edolarican ordubat, edo orduerdi bat egunean, edo gaubean bere aldera artuaz, *escatcen diagola Jaungoicoari* aldeban humildaderic andienaz, Fedez, eta esperantza firmeaz, bere socorro divinoac, eta hasistenciariac andienac, aen medioz ecarri ditzan memoriara bere culpa eta pecatuen numeroa, eta circustancia guciac, batere ezcutaduric guelditu ez daguicoan moduan (OArin, 131-132; letra beltza eta etzana nireak [ BAL])

<sup>111</sup> Honela dio ikertziale ingelesak: “Diagola 59, is possibly meant for *dagoala* without dative or accusative, leaving these to be understood from *escatcen*” (Dodgson, 1913: 243).

Azken proposamen horri dagokionez, ordea, egileak berak ikusi zuen ezen berak aztergai zuena objektu singularrarekiko \*eradun-en adizki bakarra litzatekeela gipuzkeraren corpus osoan:

arazoaren irtenbidea -iau- (<-irau-) erroa daraman forma batetik abiatzea izan zitekeen, objetu singularraz gipuzkeran halako beste ezer ez izatea oztopo larria ez balitz: *diraue* > *diaue* > *diague* > *digue*. (Altuna 1995b: 623)

Jakina, hemen objektu singularreko adibide gehiago aurkezten dudanez gero, batek pentsa lezake Altunak aipatzen zuen forma ez zatekeela horren ezohikoa; haatik, *ja-* hasieradun adizki zaharren paralelismoak eta pluraleko formetan luzaro -r-a gorde izanak zaitzen bide du, hain zuzen, haiekiko lotura.

Era berean, bilakaera horren azken pausoa (*dia-* > *di-*) garai horretan (ca. 1750) egiantzekoa izan baliteke ere,<sup>112</sup> kontuan hartu behar da *digo* erakoak XVI. mendetik daudela dokumentaturik,<sup>113</sup> eta XVII. mendearen hasieran ere *diago* eta *digo* formak ageri direla. Altunaren proposamenera itzuliz, badirudi LoiDko *digue* ‘die’ adizkiko azken zatia bi silabakotzat hartzen duela (/di.gu.e/), baina autoreak berak berariaz baztertzen du *digoe* > *digue* aukera ere, *digue* ‘digure’ formarekin nahastuko litzatekeela-eta, bai eta *oe* > *ue* aldaketa ez zatekelako gertatu (testuan ez da halakorik); izan ere, SumBr-en ere dokumentaturik daude *dige* ‘die’<sup>114</sup> eta *diagen* ‘dien’<sup>115</sup> ([4. eranskineko](#) 11. eta 18. adibideak). Hortaz, gutxienez hiru forma bereizi behar dira: *jago*, *diago* eta *di(g)o*.

Amaitzeko, lehenago inon aipaturik ikusi ez ditudan forma berezi batzuk ere bildu ditut, zeinak *jago/diago* erakoen alokutiboko formak direla uste baitut: alde batetik, Bährren (1927, 1928), Irizarren eta EHHA dialektologia-lanetako Elgoibarko eta

<sup>112</sup> Ordurako (XVIII. mendearen hasieratik) aditz laguntzaileon forma aski higatuak bazirelako zantzu argiak baitaude; cf. 1716ko Lasarteko bertsoetako *diuscu* ‘dizkigu’ (Satrustegi, 1983), Irazustaren testuan -iu- erakoak arau, bai eta Otxoa Arinen *diutzudan* higatua, nahiz eta horretan *dirautzut* osoa ere ageri den. Izan ere, ia osoak dira Larramendik bere gramatikan jaso zituen *diauzcat* ‘dizkiot’ etab. (1729: 116) eta hiztegian, Azpeiti-Azkoitiko hizkerez aritzean, hango *dirautzat* ‘dizkiot’ eta *dirauzkit* ‘dizkit’ ‘bereziak’ aipatu zituen (1745: 30); halaber, AzpGut-eten *dirauzan* ‘dizkion’ aurkitzen dugu.

<sup>113</sup> Baita ekialderago ere (ikus [4. eranskineko](#) 14-15 adibideak).

<sup>114</sup> Testuak baditu zenbait arazo interpretazioan (eta ziurrenik transkripzioan). Oro har grafia eguneraturik ageri bada ere, badu grafia zaharraren adibiderik, eta <*digue*> izan liteke bat, beharbada ediziogileak /gu.e/ interpretatu zuelako; beste aukera bat litzateke egiazki /gue/ </goe/ izatea (nahiz eta halako beste bokal aldaketarik ez den testu osoan), edo bestela <u> pro <o> akatsa, eta beraz, egiazki <*digoe*> irakurri behar izatea. EKCaren arabera, XIX. mendera arte (Agirre Asteasukoaren eta Klaudio Otaegi zegamarraren testuetan) ez da beste *dige*-rik agertzen, baina, ikusi dugunez, LoiD-n ere bada.

<sup>115</sup> *Diago* erako adizkiek sortutako harriduraren eta nahasmenduaren beste erakusgarri bat dugu Fidel Altunak adizki honezaz dioena: “Adiera berekoa da halaber, **hutsa ez bada**, erantzun honetan bertan beherago den *diaguenac* ‘dienak’” (Altuna 1995b: 640, 118. oin-oh.; nabarmentzea nirea).

Legazpiko formak ditugu ([7. eranskineko](#) iii. eta iv. taulak); bestetik, SeguraGab-eko *ze goat* ‘zioat’ (42) eta *zegoe* ‘ziotek’ (43) ([4. eranskinean](#)).

#### 4.4.2.3. Formen sailkapenaz gehiago

Ikusi den bezala, testu zaharrenetatik *di(g)o*, *diago* eta *jago* erako adizkiak ditugu, maiz horietako bi autore beraren testuan (*diago/di(g)o*, *jago/dio*, baina ez *\*\*diago/jago*).<sup>116</sup> Zalantza egin liteke *digo* non sailkatu (*dio-rekin* ala *diago-rekin*), baina, datuen argitan, orain arte egin den bezala, *dio-ren* aldaeratzat jo dut hemen.

Izan ere, *diago* eta *digo* aldaeratzat hartzeak arazo kronologiko eta diatopikoak lituzke: datu urriek marrazten dituzten isoglosek iradokitzen dutenez (ikus 12. irudia), bazen gune bat non *jago* (eta *dio*) erabili zen; ondokoetan, *diago* (eta *di(g)o*; cf. OArin, SumBr, LoID); eta, lehen eremutik urrutien, *di(g)o* baizik ez.<sup>117</sup> Honako mapa honetan argiago ikus daiteke -g-dun lekukotasun guztien banaketa (RosGut-ekoak salbu):

---

<sup>116</sup> Bildutako forma eta aldaera guztiak hobeto kokatzeko, ikus [5. eranskina](#) eta [6. eranskina](#).

<sup>117</sup> Kontuan hartu behar da *dio* inoiz orokorra zatekeela eta han-hemenka kontsonante epentetikoa garatu bide zuela; bereziki arestian aipatu Gipuzkoako alderdian, baina baita handik kanpo ere, RosGut testuak erakusten duen bezala.



12. irudia: -g-dun adizkien banaketa diatopikoa

#### 4.4.2.4. Ondorioak

Honenbestez, azalpen ekonomikoena bi adizki multzo bereiztea dela pentsatzen dut: alde batetik *\*enin* errodunak (*di(g)o*) genituzke,<sup>118</sup> eta bestetik, *\*edun* erroaren forma datiboduntzat jotzen ditudanak (*diago*, *jago*), § 4.4.1-en *jago*-rentzat proposatutako etimologia *diago* aldaerara hedatuaz.

Lehendabizikoen kasuan (13. irudia), batik bat Deba ibarreko hizkeretan, baina baita hortik kanpo ere (cf. RosGut), -g- epentetikoa sartu zen 3. pertsona singularreko datibo-komunztadura zuten adizkietan, eta toki batzuetan (Azkoitia-Azpeitia inguruan, adibidez) pluralekoetan ere bai, beharbada analogiaz.<sup>119</sup> Bigarren multzokoen kasuan (14. irudia), aldiz, *\*edun*-en 3. pertsonako datibo-komunztaduradun formak ziratekeen, Araba

<sup>118</sup> Lakarra (2008a: 479-482) lanaz geroztik ez baita zalantzariak halakoak ez direla *\*edun*-etik eratorriak, baizik eta *\*enin* ‘eman’ berreraiki genezakeen aditzetik.

<sup>119</sup> Epentesi bera dakusagu Mendibururen lanetan (EKC) eta Larramendiren gramatikan, *\*ezan* laguntzailearen formetan: *diezagón*, *ciezagón*, etab. (Larramendi, 1729: 114).

ipar-ekialdetik Debagoiena bitartean eta, aldirietan, Goierri mendebaldetik Azkoitia eta Elgoibarreraino erabiltzen bide zirenak:

- |    |                          |
|----|--------------------------|
| a. | <i>dio</i> > <i>digo</i> |
| b. | <i>die</i> → <i>dige</i> |

### 13. irudia: \**nin* erroko -g-dun adizkien bilakaera

- |    |  |
|----|--|
| a. | * <i>da(d)u-</i> → * <i>djau-o</i> > ... > * <i>djago</i> > <i>jago</i> , <i>diago</i> <sup>120</sup>        |
| b. | * <i>da(d)u-</i> (→ * <i>djau-e</i> ) → <i>jage</i> , <i>diage</i>   |
| c. | * <i>ne(d)u-</i> <sup>121</sup> → * <i>njeau-o(-n)</i> <sup>122</sup> > ... > * <i>njagon</i> > <i>ñagon</i> |

### 14. irudia: -ag-dun laguntzaile ditrantsitiboen etimologiak

Bilakabide morfonologikoari dagokionez, § 4.4.1.3.2-ko proposamenean sakonduz, erroaren aurreko zatia eta ondokoa bereizi behar dira, bai kokalekuagatik eta parte hartzen duten morfoengatik, bai horien kronologia erlatiboagatik ere.

Erroaren ostekotik hasita, ditugun lekukotasunetatik ezin dugu zehaztasun handiagorik atera, baina badira bi aukera, gutxienez: i) \*-au.o > \*-augo > -ago; ii) \*-a.wo (> \*-abo > \*-a.o?) > -ago. Datibo-pluraleko formak azaltzeko lehen bidea da egiantzea, baina izan litezke singularrekoekiko analogiaz sortuak ere.

Erroaren ezkerretara gehitu den morfologiazko ekaiai dagokionez, berriz, bi modutara azal liteke (bien arteko muga lausoa bada ere): edo maila morfosintaktikoan

<sup>120</sup> Atal honetan ez naiz sartuko *j-~di-* (eta *ñ-*) horien jatorri eta garapen fonetiko zehatza zein den (ikus § 4.4.1); analogiaz ere sor zitezkeen forma berriak.

Dena den, gogoan eduki behar da mendebaldean orokorra dela *joat* ‘diat’ (eta cf. Oñatin eta Bizkai hegomendebaldean erabiltzen den iraganeko *ñoan* ‘nian’); halaber, Gipuzkoako testuetan ez da ezezaguna *da* → *dia-* baliabidea (esaterako, Otxoa Arinen *badiakit*, Lubietaren *diaramaio* edo Larramendiren *diakart*; ikus Ariztimuño, 2021b).

Hortaz, har bitez \**dj-* eta \**nj-* berreraiketak adizkien hasierako kontsonanteak aldarazi zituen elementu palatal baten presentziaren konbentziozko adierazle huts gisa, eta ez bilakaera fonetiko zehatzaren proposamentzat; are gutxiago *diago* erakoen zahartasun erlatibo handiagoaren aldekotzat.

<sup>121</sup> Inork pentsa lezake ezen Mendebaldeko Euskara Zaharrean jada \**neb-* zatekeela forma komuna (RSko *neuen* eta Portalen *neuan*, esaterako, ez dira argiak, bokalarteko <u> batek /b/ ere adieraz baitzezakeen testu haietan) eta, hala izatera, 14. irudiko (c) berreraiketa oztopatuko luke.

Haatik, eta aurrerago aurkeztuko ditudan bestelako azalbideak (analogia, partizipio berria) alde batera utzirik, nago ez ote dugun orobat \**neu-tik* abiatu behar mendebaldeko euskararen barneko *neban/neben* banaketa azaltzeko, bigarrena \**neu-(e)n* berreraikirik (alegia, *-an* → *-n* alomorfo aldaketaz eta horren ondoko bokal epentetikoaz).

<sup>122</sup> Ikus aurreragoko azalpenak erro aurreko bokalez.

gertatzen zen argumentu-gehiketa (*dator* → *datorkio* bezala), edo lexikalizaturiko oinarri baten gainean eratzen ziren adizkiak (\**eradun*-en adizkien modura; cf. Mounole 2015); demagun, \**jadun* moduko partizipio batetik (cf. Lazarragaren *jigin* bera). Edonola ere, iraganeko forman ere ageri den *a-* azaltzeko beharrezko da \**da-* morfoa edo haren arrasto morfofonologikoa, 14. irudiko (c)-ko \**njeau*-n islatzen den bezala (cf. *jakan* ‘zitzaison’ bera; eta, RSko *bagineakike* ‘bagenekeke’ eta kidekoez, Mitxelena 1954a: 132-133).

Adizkien eskuinaldera itzuliaz, eta lexikalizaturiko aditz batean pentsatuz gero, epentesia forma jokatugabeetan sor zitekeen (\**jadun* > \**ja.un* > \**jagun*),<sup>123</sup> eta hortik adizki jokatuek \*-*agu.o* > \*-*agwo* > -*ago* bilakaera izan; alabaina, formon hedadura murritzak eta aldaerek pentsarazten didate berrikuntza (zahar) lokal baten aurrean gaudela, eta ez ondare zahar komuneko partizipio baten forma jokatuen aurrean.<sup>124</sup> Kontuan hartu behar da, dena den, tartean diren bilakabide morfofonologikoa antzinakoak direla (beharbada komunak, aurrizkiak direnez) eta herri batzuetan hitano alokutiboko formetan iraun dutela (izan ere, datibo- eta alokutibo-komunztaduraren arteko loturaren beste adibide bat da).

Horrenbestez, esan liteke ezen, zedarritutako eremu hartan, noizbait \**edun*-en 3SG pertsonako formaren gainean datibo-gehitzeko bideak erabiltzen hasi zirela; ordea berrikuntzak ez bide zuen arrakasta handiagorik izan eta, geografian ez ezik, paradigman ere ez zatekeen osoki hedatu.

#### 4.4.2.4.1. Postscriptum

Atala amaiturik zegoela, 1515 inguruko Azkoitiko poemen (AzkPo) aurkikuntzaren berri jakinarazi zuten hedabideetan. Testu hartan, ediziogileek <Vitarteco em(an) ni[...]gon> transkribatu duten pasarte iluna ageri da, zeina <Vitarteco em[en] ni[a]gon> zuzendu eta osatzea proposatu duten, ‘bien bitartean hemen nagon [noka]’ ulerturik (Ros 2020).

---

<sup>123</sup> Lakarrak *ezagun*-en etimologian proposatzen duenaren antzera: *ezagun* <*eza.un*< \**ezadun* < \**e-da-zun* (Lakarra, 2008b: 330, 87. oin-oh.; Lakarra, Manterola & Segurola, 2019: 206-207, s.v. *ezagun*). Eta cf. Damaso Intzak Dorraon entzundakotzat jasotako *egon* ‘ukan’ < \**edun* (*apud* Mitxelena, 1958: 229), baldin bestelako azalpenik ez badu (ikus § 5.2.2).

<sup>124</sup> Adizki laguntzaileok zuzenean \**jadun* edo \**jagun* aditz zahar batetik gramatikalizatu balira, testu zaharretan haren erabilera trinkoren bat agertzea espero genezakeen, gainerako hiru laguntzaile ditrantsitibo zaharragoen kasuan bezala (\**edutsi*, \**enin*, \**eradun*; cf. Mounole 2015, eta § 5.2).

Testuaren azterketa sakonago bat beharrezko bada ere, baliteke egiazki atal honetan hizpide izan dudan aditz laguntzailearen zorioneko beste lekukotasun bat izatea azken hitz hori; areago, Lazarragaren *ñagon* adizkirako proposaturiko berreraiketarekin (\**njagon*) bat letorkeen eta *jago* : *diago* bikotearen argitan Azkoitian esperoko genukeen forma lekukotzen du, hain zuzen: *niagon*.

Hortaz, nire proposamena da AzkPo-ko lekukotasuna <Vitarteco eman nj[a]gon> ('bitarteko eman nion') osatzea, non *bitarteko* hitza '(zerbait lortzeko) bide' gisa ulertu behar bide den; kasu honetan, penitentzia betetzeko edo ezartzeko modua izan liteke, testua nola interpretatzen den, esaldia ez baitago osorik (Ariztimuño 2020a [2022a]).

#### 4.4.3. Garibairen *diago*<sup>125</sup>

Sique illos loqui audires, canum latrancium memorares / Berbetan entzungo bazenitu, adausika ari diren txakurrekin oroituko zinateke (Aymeric Picaud, XII. mendea; apud Bilbao 1994: 75)

Ez dira asko euskarazko hapax ilunak (zenbatespen subjektiboa da, noski),<sup>126</sup> eta are gutxiago aditz jokatuetan, baina azken horietako gehienetan etimologiek argitzeke diraute (baita haien esanahi zehatza ere zenbaitetan).

Azpiatal honetan ahaztuxen den adizkiotako bati buruz arituko naiz: Garibairen *diago*. Beharbada, gutxi gorabeherako esanahia (zehazki, testuinguruan duen adiera, etimologia gorabehera) aski argia duela iritzita, ez da askorik idatzi hartaz, eta aipatu duten ikertzaile gehienek ez dute haren osaera ezer argitu.

Nire hipotesia da Garibaik berak emandako bi itzulpen ezberdinek izan ditzaketela errefraua egoki interpretatzeko gakoak, batarekin ala bestearekin lerratu beharrean; eta haren edo berak bildutako testuen jatorriak ere eman diezagukeela adizkiaren osaera argitzeko aztarnaren bat.

Bestalde, EHHEk abiapuntu sendoa eskaintzen digu adizkiaren jatorrian sakontzeko eta hemen aurkeztutako hipotesiari loturiko beste zenbait ondorio etimologiko ateratzeko.

<sup>125</sup> Atal hau Ariztimuño (2021b) lanaren egokitzapena da.

<sup>126</sup> RStik kanpo, esan beharko nuke, beharbada. Zorionez, esanahi argia dute testu hartako gehienek, jatorrizko itzulpenari (*behse, hendore*) nahiz filologoen lanari (*ekix*) esker (Lakarra 1996).

#### 4.4.3.1. Garibairen errefrauak

Lehenik eta behin, ikus dezagun arestian aipatu adizkia bere testuinguruan, edo hobeto esanda, testuingurueta, birritan ageri baita eta hori izan baita, hein batean, zalantzen iturria; orain, ordea, korapiloa askatzen lagunduko digun oinarria dateke:

- (564) Por los que murmuran detras sin poder hacer daño, dizen:

Açean diagonac, vsean diago

Los que hieren detras hieren en vacio. (Garibai, A20)

- (565) Por los que hablan mal de otros en ausencia, dizen:

Tras en dize el q vazio en dize

Ace an diagon ac, use an diago

Quiere decir: El que dice detras, dize en vacio. (Garibai, B39)

Ikusten denez, Garibaik berak bi eratara itzuli zuen errefraua; eta egundaino adizkia aipatu duten euskalari gehienek, esan bezala, edo zalantza agertu dute interpretatzeko orduan, edo ez dute iruzkinik egin.

#### 4.4.3.1.1. Aurreko irakurketak

Lehen aldiz, dakidala, Urquijok azaleratu zuen irakurketaren auzia, hark egin baitzuen Garibairen errefrauen lehen edizioa:

Las formas *diagonac* y *diago* ofrecen dificultad, pues no conozco ningún verbo vasco que signifique «herir», ni «decir» al que puedan corresponder.

Atzean diagonak utsean diago

El que dice (?) detras, dice (?) en vacio. (Urquijo 1919: 17)

Hurrengo iruzkina Lafonen tesi erraldoian etorri zen, non Urquijoren zalantzazko hautua (‘dice’) bermatzen zen, beste itzulpena desegokia zela argudiatuz:

A mon avis, la seconde traduction [hieren] est erronée : dans *diagonac* et *diago*, l’agent est au singulier; de plus, le proverbe ainsi traduit ne s’applique pas bien à ceux qui « murmurent derrière ». (Lafon 1943: 200)<sup>127</sup>

---

<sup>127</sup> Ondoren *ago ‘aho’* izena aditz-erro gisa jokatu zela proposatzen du (Lafon 1943: 201).

Azkenik, Koldo Mitxelenak Orixeren liburu bati egindako erreseinan (hark hizpide dugun adizkia erabili zuela-eta) atzera ziurtasunik eza ekarri zuen, itzulpenaren auzia berriro irekiz:

Berdintsu gertatzen da *diago* eta bere senideekin. Dakidanez —eta poztuko ninduke bizi oker nagoela jakiteak—, euskal literatura guztian *behin* agertzen da adizki hori, Garibayk XVI. mendean jaso zuen esaera batean: «Atzean diagonak utsean diago». Jakin, ez dakigu ziur «dio» esan nahi duenik ere, bitara itzulia ageri baita: «dize» eta «hieren». (Mitxelena 1956: 498)

Horiez gain, Lakarrak (1986a, 1996) “*diago adizkia*” aipatu izan du, hapax edo hitz berezi gisa, baina bestelako iruzkinik gabe; Urkizuk (1989: 38), alderdi honi dagokionez, ez zuen ezer erantsi, Lafonen sailkapenari jarraitu baitzion, “AGO” aditzaren formatzat aurkeztuz; eta Mounolek ere, ildo beretik, \**ago* erroa aipatzen du bere tesi bikaineko tauletan (2014: 393, 398, 446, 450).

#### 4.4.3.1.2. Lekukotasunen analisia

Orain arte egin diren analisiak aurkeztuta, eta datu berririk ezean, lekukotasunak berraztertu besterik ezin dagikegu, bai euskararen historian izandako aurrerapenez baliatuz, bai lekukotasunei berei bestela begiratuz, zehatzago aztertuta eta lehenago ikusi ez diren (edo ezberdin interpretatu diren) xehetasunak kontuan hartuta.

Hasteko, § 4.4.2-ko datuak eta proposamena izan ditzakegu abiapuntu. Han azaldutakoak laburbilduz, Gipuzkoa mendebaldean (eta Araba ipar-ekialdean) indikatiboko laguntzaile ditrantsitibo berezi bat izan zen:<sup>128</sup> \**edun*-en forma hirupertsonalak (edo, bestela adierazita, \**jadun*, partizipio hori inoiz izan zen ez dakigu —eta beharrik ere ez zuen— arren). Formari dagokionez, 3. pertsonakoen berdinak dira Garibairen errefrauetakoak (cf. Otxoa Arinen *escatcen diagola Jaungoicoari* ‘eskatzen diola Jaungoikoari’). Alabaina, argi dago ez dutela esanahi eta funtzio bera: esan bezala, laguntzaileak dira hangoak eta sintetikoak honakoak; horrez gain, ez dirudi badenik gramatikalizazio biderik ‘zauritu’ edo ‘esan’ adierako aditz bat indikatiboko laguntzaile

<sup>128</sup> Eta badirau edo oraintsu arte iraun du, defektiboki bada ere, hizkera batzuetan: cf. Oñatiko *xao* ‘dio’, Bergarako *ja(o)zu* ‘diozu’, edota Legazpiko hitanoko *ñaoan* ‘nioan’, Lazarragaren *ñagon* eta AzkPo-ko *niagon* ‘nion’ zukako adizkien kide zuzena.

ditrantsitibo gisa garatu izana erraz azal lezakeenik (ikus beherago, dena den, etimologia-aukera ezberdinatarako).

Bestalde, gorago nabarmendutako zalantza berrartuz, ikusi dugunez, adizkiaren esanahi zehatza (edo literala) Garibaik ematen dituen gaztelaniazko ordainen arabera argitzen saiatu izan dira orain arte; eta hala beharko du, beste euskaririk ezean. Ordea, zein itzulpeni jarraitu? Urquijok eta Lafonek, agidanez, errefrauaren azalpenei (“Por los que murmuran...” / “Por los que hablan mal...”) eta (566) adibideko lerroarteko hitzez hitzeko itzulpen bateragarriari (“dize”) begiratu zieten adizkiak berez zer esanahi zuen ebazteko. Dasadan, lehenik eta behin, *a priori* bat natorrela haien interpretazio orokorrarekin (hots, ‘esan’ edo antzeko adiera zuela, eta ez ‘jo’ edo ‘zauritu’); alabaina, adizkiaren beraren forma ere azaldu beharra dago, eta horrekin interpretazio-aukera desberdinak eta, batez ere, zehatzagoak azaltzen dira.

#### 4.4.3.1.3. Irakurketarako proposamena, filologia zehatza lagun

Hala bada, jatorrizko esanahiari dagokionez, hiru aukera dituzkeu: lehen itzulpena literaltzat hartu eta hori ontzat hartzea (‘jo, zauritu’); horixe bigarrenarekin egitea (‘esan’); edo biak batu edo azal litzakeen hirugarren bat bilatzea.

Azalpen formalei dagokienez ere, beste hiru aukera idoro ditut:<sup>129</sup>

a) *Jo* aditzaren forma trinkoa izatea:

- Joseba Lakarrak ere aipatu didan analisi honi bi oztopo nagusi ikusten dizkiot: batetik, *jo-k* ez du datibo-komunztadurarik eta, bestela ere, \**e-(i-)don* berreraikitza proposatu da (Ariztimuño 2012), haren adierak eta beste aditz batzuekiko sarea kontuan hartuz; ez da, beraz, *-a-* azaltzeko nahikoa.

b) Arrestian aipaturiko *diago* laguntzailearen erro berekoa izatea (hots \**jadun* edo \**edun*-en forma jokatu ditrantsitiboa):

- Aditz honek inoiz ‘eman’ esanahia izan zuela pentsa genezake (cf. \**enin* eta \**eradun*; Mounole 2015), eta zabaltze semantiko bat gertatu zela (cf. *eman* aditzaren beraren erabilera hori berori RSen: *Iac, emac, erac ta çeguioc trancart* (272), eta errefrauaren jatorria autorearen jaioterritik gertu ezarriko luke ziurtasun aski handiz (cf. § 4.4.2).

---

<sup>129</sup> Alde batera utziko dut, ageriko arrazoiengatik, erro/aditz guztiz ezezagun bat izatearen aukera.

#### 4. Zenbait ezaugarriren azterketa

Mahaigaineratutako eragozpenez gain, aurreko bi kasuetan azalkizun geratuko litzateke ‘esan’ adierarekiko itzulpena (Garibairen aieru etimologikoren baten ondorio izan zela pentsatzen ez badugu, bederen), eta, gorago esan bezala, hain zuzen horixe da oinarrizko esanahirik egiantzekoena.

c) *-i(n)o-* ‘esan’ aditzaren forma ditrantsitibo berezi bat izatea:

- Garibairen errefraueta *diago*, azken buruan, *dio* adizkiarekin lotua dela, alegia; edo morfologia zaharraren bidez (\**di-da-o-*), edo beste *dia-* hasieradun adizkien analogiaz eraldaturik (cf. beheragoko (567-572) adibideak, eta bereziki *di(g)o/diago* aditz laguntzaile bikotea).

Xehetasun etimologikoak hurrengo punturako utziaz, bestalde, kontuan hartu behar da gaztelaniaz *herir* aditzak baduela adiera berezi bat, garaitsuko hiztegietan<sup>130</sup> ere ageri dena: ‘iraindu edo laidoztatu, bereziki hitzez edo idatziz’ (*DRAE*, s.v.<sup>131</sup>; neure itzulpena). Hortaz, errazago dateke, bi itzulpenak kontuan hartuta, ‘esan’ edo antzeko adierako aditz bat *decir* nahiz *herir* aditzen bidez itzultzea, literalago bata, eta errefrauaren esanahiari (“gaizki esateari”) lotuago bestea.

Hortaz, eta *di(g)o~diago* laguntzaileekiko analogiaren aukera erabat ezin bazter bidaiteke ere, morfologiaren bidea urratuko dut jarraian, aberasgarriago gertatu ohi baita.

##### 4.4.3.2. *Diagotik* harago eta atzera *diagora*: adizkiaren analisi morfologikoan sakontzen

Esan bezala *diago*-ren oinarrian *-io-* gisa aipatu ohi dugun aditza badatza, erantzun beharreko lehenengo galdera da ea zer eransten dion morfo gehigarriak (\**da-*) erro horri. Hala, bi bidetatik sar zitekeen aurritzak adizkian: morfosintaxian edo lexiko-eratorpenean. Ikus ditzagun bi aukerak.

###### 4.4.3.2.1. Adizkiaren azalpen morfosintaktikoa

Lehen hipotesiari dagokionez, arestian aztertu dudan *diago* laguntzaileaz gain, Gipuzkoako beste zenbait testutan ere ageri dira *dia-* hasierako adizkiak, gehienetan oinarrizko argumentu-egituraren datiboa txertatu zaiela adierazteko:

---

<sup>130</sup> Covarrubias (1611, s.v. *herir*): “Herir de agudo, por alusion lastimar de palabra, tocando en la honra”.

<sup>131</sup> <https://dle.rae.es/herir>

- (566) Beotibar, hic **diadutac** Martin de Oybar (BeotNaf)
- (567) Ez **diaço**<sup>132</sup> bacarric, / Çe an daz Presebal ylic (ArrasErre-2b: 5)
- (568) cerren baldin, nere proximoac ez **badiaquit** niri cer juicio, cer sospecha, edo cer murmuracio, edo ausentcia gaizto egun dodan beraren contra (...) (OArin, 170)
- (569) eguzquiari gala **diaramaio** / que del sol se lleva la gala (Lubieta, 247)
- (570) bésté onguille bátzuec dira oní ascó ta iori **diacartzigútenac** (AndS, 76)
- (571) Eleizá berrí horrécer on **diacart** niri? (AndS, 79)

Ikuspegi honen alde leudeke (edo gutxienez bateragarri lirateke), halaber, zenbait errefrautan (572-575) eta gutxienez Axularren obran (576-577) bildutako inpertsonal hauek:

- (572) Gaza lora ditean artean beste gauza **lecsque**. En tanto la sal floreciese otra cosa se vería (RS, 145)
- (573) Aramayo, dabenac ez **lemayo**. A Aramayona, quiê la tiene no la daría (RS, 284)
- (574) **Maemana** daqui emayten. Lo que no se le escusa de dar sabe dar (RS, 307)
- (575) Eci eguiña arria baño gogorrago. Arriari malluaz ere **baledeco**. El no poder, más duro que la piedra: a la piedra se puede quitar con el martillo (Isas, 26)
- (576) hobe da gizonekin ihardukitzea, eta hetarik ethor ahal **dakidikaion** kalteari igurikitzea, ezen ez Jainkoa baithan eta haren miserikordian fidaturik bekhatu egitea (Ax, 83-9)
- (577) Gauza gaizki egina da, eta itsusia, adiskideari deiez dagotzunean, ez ihardestea, atean iguriki arazitza ; eta berehala eman ahal **diazaison** errepuestaren eta egin ahal **diazaison** zerbitzuaren geroko luzatza (Ax, 304-5/6)

Adibideotan, aditzaren ohiko konfiguraziotik argumentu bat (ergatiboa edo datiboa) “inpertsonal” gisa interpretatu behar da; alegia, aditz laguntzaileen bidez *luke* → *litzateke* (cf. 572), *lioke* → *luke* (cf. 573) / *litzaioke* (cf. 575), *zion* → *zitzaison* (574), *dakiokeen* → *daitekeen* (576) eta *diezaiookeen* → *dezakeen* (577) erako aldaketekin adieraziko genukeena.

#### 4.4.3.2.2. Adizkiaren azalpen lexikoa

Bigarren hipotesiaren ildotik, ordea, gerta zitekeen jatorrizko datibo-argumentua (zena zela haren rola), fosildurik geratu izana, beste adizki batzuetan bezala (cf. \**edun* vs

---

<sup>132</sup> Adibide hau da eztabaidagarriena, ez baitago argi zeri egiten dion erreferentzia itxuraz daukan datibokomunzadurak, baina cf. Larramendik bere hiztegiko *etzan* sarreran bildutako *diatza* ‘datza’ eta *diautza* ‘dautza’ (TAV: 83-84; Mitxelena 1979: 49).

*eduki*), eta beti forma horretan erabiltzea, syntaxian bestelako argumentu-egitura erakutsita bazen ere.

Hipotesi honen alde, hain zuzen, ageriko datibo argumenturik ez izatea legoke. Hala, jatorria gorabehera, oinarrizko argumentu-egitura hartuko/gordeko zuen aditz eratorriak (cf. (*a*)*urtiki~jaurtiki*, *erion~jario*, *ilki~jalgi*, eta, beste morfo batekin, *jarrain~jarraiki* edo *erein~ereiki*, esaterako).

Areago, pentsa liteke delako morfoak ez zuela ezinbestean (edo soilik) argumentu-egitura aldatzen eratorpenean, baizik eta bestelako ñabardura bat eransten oinarrizko esanahiari (cf. *edan/jan*, \**edin* ‘bihurtu’ / *jin* ‘etorri’<sup>133</sup> eta, atzizkiarekin, \**edun/eduki* edo *iñardun~jardun/iharduki*,<sup>134</sup> adibidez).

#### 4.4.3.3. Aditzen morfologiaren auzian etimologia gehigarriak

Nolanahi ere, erro beretikotzat berreraiki diren beste hitzen esanahiari (eta aditzen kasuan argumentu-egiturari) begiratzea besterik ez dugu jabetzeko oraindik ongi ulertzen ez ditugun eta ilun ageri zaizkigun gorabehera diatetikoak jasan dituztela aditz-erroek, aurrizki-atzizki ezberdinekiko harremanean. Hortaz, datozen azpi-ataletan EHHEko zenbait sarreraren eta haien arteko loturen zertzelada batzuk eskainiko ditut ([§ 4.4.3.3.1](#), [§ 4.4.3.3.2](#)), bai eta horiei beste hitz batzuk gehitzeko proposamena egingo ere ([§ 4.4.3.3.3](#)).

##### 4.4.3.3.1. \*einon, oñon~iñó eta inotsi

EHHEan (ikus orobat Lakarra 2006b: 597-599) azaltzen denez, *di(n)o* ‘esaten du’ saileko adizkiek, *oñon~iñó* ‘kirrinka, marmarra, hotsa’ hitzek eta *iñotsi* ‘(euria, elurra) ari izan’ (cf. *iñutsi* ‘erauntsi’), erro bera dute. Bereziki nabarmena da *bardinotso* bezalako formen polisemia: ‘esaten dio’ eta ‘euria ari du’. Guztiak \**einon(tsi)* batetik letozke (“Osaera, pentsa daiteke \**einon* aditza dagoela honen oinarrian, -*tsi* bukaerarekin”, EHHE, 413), non -*ts* nolabaiteko datibo-marka gisa ulertu behar den adizki jokatuei dagokienez (cf. *i-* aurrizkia ere), adiera jakin batean lexikalizaturik ageri dena. Kontuan

---

<sup>133</sup> Ikus Ariztimuño (2012) laneko proposamena: \**e-da-din* > *jin* (Lakarrak [2006c] zuzenean \**e-din*-etik).

<sup>134</sup> Aurreko puntuau ekarri *jalgi*-rekin batera, *jalki* eta *jaulki* ere aipagarri dira (baldin etimologia bera badute), dituzten ñabardura semantikoengatik.

harturik Lakarrak berak (2006b: 598) *-ts(-i)* hori atzerago *-s(-te)* < *-z(-te)* /n\_ berreraikitzen duela, aurreko \**einon(tsi)* zuzendu eta \**e-i-non(-z-i)* eman genezake.

#### 4.4.3.3.2. eusi, era(u)si *eta* erau(n)tsi

Hitzok modu ezberdinetan daude aurrekoekin eta beren artean loturik (ikus EHHE, s.v.), baina orobat erator daitezke \**non* errotik; oraingoan, baina, ez da \**i-* aurritzirik tartean.

Kronologiak ere ez bide dira berberak: *eusi* ‘zaunka’ < \**e-non-z-i* batetik zuzenean ateratzeko, aspaldi lexikalizaturik behar zuen; aldiz, \**e-i-non-z-i-k* \*\**inosi* ez, baizik eta *inotsi* eman zezan, ozen ondoko edo/eta aditzoinaren bukaerako afrikatzea beharrezko zen (aditzoin kategoriaren sorreraz, ikus Urgell 2018). Interesgarriro, *eusi*-rako berreraikitzen den forma berbera behar da gure hizkuntzaren izenaren oinarria azaltzeko (\**e-non-z(-i)* + \**hala* > \**ehoskara* > (*h*)*euskara*).

Halaber, horietatik edo horien antzeko forma banatatik eratorrita azal litzke *era(u)si* eta *erau(n)tsi~irau(n)tsi*, *ra-* aurritzarekin (zentzu arazle gardenaz ez bada ere). Betiere soinuaren (edo soinua egiten duen mugimenduaren)<sup>135</sup> eremu semantikoan gaude; dela animalien hotsa, dela ekaitza, dela hizketa, besteak beste.

#### 4.4.3.3.3. aun, txanpa *eta* jauki

Azkenik, EHHEan agertzen ez diren hiru hitzon (ikus OEH, s.v.) etimologia posibleak proposatu nahi ditut, haien bitxitasun zenbait azaltzeko balio dezaketelakoan.

Lehenik, Landuccik baino ez dakarren *aun (egin)* ‘zaunka (egin)’ dugu, zeina Nafarraoko *aunka*-rekin lotu behar den (besteak beste Lizarraga Elkanokoak darabilena). Onomatopeia-itxura gorabehera (cf. *au*), *-ka* adberbiozkoa erantzirik *zaunka*-rekin erkatu beharra dago. Hala, kontuan harturik, batetik, badirela *s-dun* formak (*sainga*, apikari-lepokari bereizketa gorde duen erdialdeko eremu nabarmen batean, izan ere) eta, bestetik, ekialdean *txainka* (E) eta (*t)xanpa* (BN, Z) aldaerak dituela, egiantzekoa da jatorrizko \**aun* bati (*t)x- sasi-aurrizki adierazkorra erantsi izana eta, ondoren, despalatalizazioz, non *z-*, non *s-* “berrezarri” izana;<sup>136</sup> bilakaeren xehetasunak berdin-berdinak izan ez arren, cf.*

<sup>135</sup> Ez naiz hemen sartuko itxuraz *joan* eta bestetako \**non* erroarekiko homofoniaren auzian (ikus EHHE, s.v.).

<sup>136</sup> Iñigo Urrestarazuk Sakanako *jaunka* aldaera gogorarazi dit, [x] ahoskeraz; hain zuzen ere, despalatalizaziorik gertatu ezean \**xaunka*-ren ondorengotzat alboko Gipuzkoan espero zitekeena.

*txatal/zatal* < *atal*, *txingure* < *ingude*, *zorabiatu/txorabiatu* < \**horabiatu*, etab. (ikus EHHE, s.v; FHV: 154-155, 243).

Onomatopeia-itxura aipatu dut arestian, eta litekeena da hitzaren eta aldaeren bilakaeran balio fonosinbolikoak eragin izana; halere, une batez mendebaldeko *eusi* zaharrari begiratzen badiogu (egun *ausi* aldaeran nagusitu dena),<sup>137</sup> eta haren etimologiatzat \**e-non-z-i* proposatu dela kontuan hartuta,<sup>138</sup> ezin baztertu bide dugu \**e-non* > \**ehon* > \**heun* > (\**h*)*aun*<sup>139</sup> bilakaera.<sup>140</sup>

Hala bada (eta *jardun/iharduki* bikotea gogoan), pentsa liteke ekialdeko *jauki* ‘oldartu, erantzuki egin’ aditzak eta horren eratorri eta aldaerek ere (*jaukin* ‘maiseatziale’, *jaingin* ‘gaitz-erraille’, *jaukikatu* ‘aurpegitatu’) ez ote duten erro bera, azken batean: \**e-(i-)da-non(-ki)*.<sup>141</sup>

#### 4.4.3.4. Laburbilduz

Horrenbestez, erakutsi uste dut ezen Garibaik *herir* aditza hizketarekin loturiko adiera jakin batean erabili zuela errefrauaren itzulpenetako batean eta, beraz, esan daitekeela *diago*-ren oinarrian \**non* erroa dagoela, -*i(n)o-* aipatu ohi dugun aditzarenean bezalaxe. Hain zuzen ere, adiera berezi horrekin lotu dut ekialdeko *jauki* aditza, zeina \**e-(i-)da-non-ki* berreraiki daitekeen, *diago*-ren hasierako hiatoa azaltzeko behar dugun \**da-* aurrizkiarekin.

Hala bada, *diago* adizkia bera bi modutara berreraiki dezakegu, itzulpenetako ‘hieren’ eta ‘dize’ (eta *jauki*-rekiko harremana) nola ulertzten ditugun. Alde batetik, hirugarren pertsona orokortzat hartuta (*diotso*-ren modukoa formaz, baina impertsonala adieraz; cf. 572-577 adibideak), pentsa genezake amaierako -*o* bikoitza bakundu zela

<sup>137</sup> Azkuek *aausi* aldaera ere badakar. Arrazoi fonetikoengatik bokal luzatzea izan liteke, edota beste forma zaharrago baina mendebaldeko testuetan lekukotu gabeko baten ondorengoa (cf. Oihenarten *adausi*, agian < \**edausi* < \**e-da-non-z-i?*).

<sup>138</sup> Erronkarierazko *aunsi-k*, dela \**eūsi* (< \**e-non-z-i*), dela \**adaūsi* (< \**edanonzi* ?) aldaeratik, kontsonante sudurkaria bermatzen bide du.

<sup>139</sup> Agian *hauma* ‘zaunka’ aldaerako hasperena ere horrela azal daiteke (\**haun(-)a?*).

<sup>140</sup> Diptongoaren bilakaerarako, dagoeneko aipatutako *ausi* < *eusi* ez ezik, cf. *aurtiki* < \**egor-*, *ausiki* < \**eusiki*, edota Leiz *aun/auk* < \**e(d)un/\*e(d)uk* (FHV: 83-84; EHHE, s.v. *aurtiki*). Bide batez, ez litzateke zaila *ausiki* hitza ere *ausi-rekin* lotzea, batez ere RSko *esugi* aldaerari ere etimologia bera onartuko balitzao: \**eusi-gi*.

<sup>141</sup> *Jauki* eta beraren familiaren argitan, espekulatiboki bada ere, aztertzekoa iruditzen zait hizpide dugun erroa *jaun-en* osaeran ote den (esanahia ez aberastasunari lotua, baizik eta aginteari?), eta erro bera edo beraren homofonoa (cf. *joan* < \**e-da-non*) *jaugin* aditzarenean, horren osaera azaltzea erraza ez bada ere, bereziki amaierako -*gin* (baina cf. OEHn horren eratorritzat hartzen diren *jaugi*, *jaungin*, *jaukin* ‘jaiera’).

(\*dia(g)o-o > diago); edo, bestela, § 4.4.2.4-n diago ‘dio’ laguntzaile homograforako proposatutakoaren antzera, \*-ao-o > \*-au.o > ... > -ago gertatu zela.<sup>142</sup> Beste alde batetik, zehar-objektu edo helbururik gabeko forma gisa irakurriz gero (*dio*-ren modura), diago < \*dia(h)o (eta, zinez zaharra bada, < \*d-i-da-no(n)) berreraiki dezakegu.

Bigarren proposamenak bi abantaila ditu: bata, ez dela datibo-komunztadura inpertsonalik behar eta, bestea, morfo gehigarriak ñabardura semantikoa azaltzeko balio dezakeela. Nolabait, delako esana “norbaiti zuzendua” dela markatuko luke aurritzkiak, *ibiltzearen* eta *jarraitzearen* arteko alde bera, baina lexikalizaturik, sintaxian argumenturik erantsi gabe.

---

<sup>142</sup> Dela (\*VuV>\*VbV>) \*V.V> VgV epentesiaz, dela \*VuV> \*VubV> V(\*u)gV bilakaeraz.



## 5. Aditz-erro eta -familia batzuen azterketa

Kapitulu honetan, hiru erroaren gainean jardungo dut; zehazki, haien inguruan sorturiko aditz-familiez, zeinetan datibo-komunztadurak rol garrantzitsua jokatu duen. Lehen atalean ([§ 5.1](#)) *\*zan* erroa izango dut aztergai; bigarrenean ([§ 5.2](#)), *\*dun*; eta, azkenik ([§ 5.3](#)), *\*kin* izango da hizpide nagusia.

### 5.1. *\*zan* erroaren paradigmak

Atal honetan *\*zan* erroarekin loturiko zenbait aditz aztertuko ditut, eta aditz horiek erro hartatik datozena argudiatuko dut. Zenbaitetan nire proposamenak izango dira, eta beste batzuetan lehendik ere egin izan diren loturak berretsiko ditut, beti ere datu historikoek edota ikerketa tipologikoek lagunduriko barne-berreraiketaren bidez.

Hasteko, esan dezadan ezen erro hau, aditzetan ez ezik, zenbait atzizkiren jatorrian ere ikusi izan dela; bai aditz-morfologian, bai izen-morfologian. Joseba Lakarrak (2006b: 605; 2008a), alde batetik, adizkietako nahiz izenetako -(*t*)*z(a)* pluralgile edo ugaritasun-atzizkia *etzan*-en erroarekin lotzeko aukera aipatu zuen, eta Igartuak eta Santaziliak (2013: 239-240), bestetik, instrumentalaren gramatikalizazioa *izan*-en errotik abiatuta azaldu dute. Ikusten denez, bi proposamenek balio lokatibo-existentziala esleitzen diote atzizki horien jatorriari.

Bestalde, EHHEn erro hori zenbait aldiz aipatzen da, berariaz azterturik ez bada ere; zehazki, *izan* eta *\*ezan* aditzen eta *(-)zain*, *(-)zale* eta, agian, *zahar/-zar* izen/atzizkien oinarri gisa aipatzen da, baina azalpen gehiagorik gabe. Lehenago, *izan*, *\*ezan* eta *etzan*-en arteko berreraiketa-proposamenak aurkeztuak nituen (Ariztimuño 2013c, 2014), bai halaber *zain(du)*, *zahi* eta *-zagi/-zari* hitzak *\*zan* erroarekin lotzeko proposamena (Ariztimuño 2018), ‘nonbait izan, egon’ adiera lokatibo-existentzialetik abiatuta.

Hala bada, jarraian *izan*<sub>1</sub> (iragangaitza), *izan*<sub>2</sub> (iragankorra) eta *\*ezan* (laguntzaile iragankorra) ([§ 5.1.1](#)), *etzan* ([§ 5.1.2](#)), eta *arazi* zein *jazo* aditzen<sup>1</sup> ([§ 5.1.3](#)) jatorriaz,

<sup>1</sup> Izan ere, *arazi* konposizio bidez arazleak sortzen dituen aditz-forma jokatugabetzat hartzen dut (cf. Urgell 2018: 789). Kontuan hartu behar da hiru silabako elementu atzizkitu bakarretarikoa dela *(-k/t)eria* eta *-duria* maileguez gain), eta aditzetarik aditzak sortzen dituen bakarra.

bilakaeraz eta haien arteko nahiz beste aditzekiko eta aditz-morfologiarekiko harremanez hitz egingo dut.

### 5.1.1. \*e(i)zan

Ondare zaharreko aditz askok *e*- aurritzka daukate, eta beste batzuek, ordea, *i*- (edo > *j*-), hizkeraren arabera batzuetan. Testuek erakusten dute hainbat *e*- > *i*- bihurtu dela, eta bokal-igoera hori erroko bokalarekiko asimilazioagatik gertatu dela proposatu zuen Mitxelenak, *eguzki* > *iguzki-n* bezala; esaterako, *ebili* > *ibili* edo *ekusi* > *ikusi* (FHV: 51-52).

Haatik, aldaketa ez da beti gauzatu (\*\**igin*, \*\**igun*), eta badira erroan bokal itxirik ez duten txandakatzeak ere (*egorri* : *igorri*); bai eta are, erroan bokal irekiena izanagatik, beti *i*- darakustenak ere (*ikasi*, *izan*). Horregatik, bilakaera orokorra eta sistematikoa izan ez dela kontuan harturik, Mitxelenak azpimarratu zuen ezen forma sintetikoetan *e*- agertu ez ohi den arren, *i*- beti gordetzen dela (adib. *dirudi*, *naiz*), eta halakoetan jatorrizkoa dela ondorioztatu. Horrela, \**e-iza-n* berreraiki zuen hizkuntzalari erreenteriarak, bokal hori erroaren zatitzat harturik (FHV: 86); Lakarrak, aldziz, jatorrian \**nin* ‘eman’ erroaren datibo-marka gisako gramatikalizazioa zela proposatu du, morfologiako beste /i/ batzuekin lotuz (Lakarra 2008a).<sup>2</sup>

Datozen lerroetan saiatuko naiz argitzen zer dela eta daraman *i*- aurritzka *izan* aditzak datibo-komunztadurarik ez duelarik ere, eta horrek zer implikazio duen haren paradigmaren eta erro bereko beste aditz batzuen azalpen etimologikoan.

#### 5.1.1.1. *Izan* iragangaitza eta iragankorra

Jakina denez, badira bi *izan* aditz-partizipio: iragangaitza bata (*izan<sub>1</sub>*) eta iragankorra bestea (*izan<sub>2</sub>*). Lehena orokorra da, eta bigarrena ekialde muturretik kanpo guztiz hedaturik dago. Sortaldeko eremu hartan (Zuberoan, Nafarroa Beherean eta, behinola, Erronkaribarren), *ukan* erabiltzen da antzeko esanahiekin, bai eta perifrasietako laguntzailearen forma jokatugabe gisa ere (*egin ukan zuen*). Iraganean, ordea, hedatuxeago zegoela erakusten dute testuek, Nafarroan eta Lapurdin (ikus § 5.2.2).

---

<sup>2</sup> EHHEn (s.v.) ere aipatzen da Mitxelenaren \**e-iza-n*, baina iradokitzen da (beste aditz batez ari baita) \**e-i-zan* berreraiki behar dela, eta *i*- hori datiboarekin lotu, baina han ere ez da azaltzen *izan*-en datiboarekiko harremana zertan datzan.

Alabaina, bi *izan*-en arteko lotura formala ageriko den arren, edo agian horrexegatik, ez da lehenago hura azaltzeko saio sakonagorik egin. Horixe argitzen saiatuko naiz hurrengo puntuau.

### 5.1.1.2. *Izan* eta *\*ezan* lotuaz

Gorago esan bezala, EHHEk bi aditzok lotzeko aukera aipatzen du zeharka, baina azalpenik eman gabe. Nire ustez, *izan<sub>1</sub>* eta *izan<sub>2</sub>*-ren arteko lotura bera da azpian datzana; alegia, *izan<sub>2</sub>* da *\*ezan* berreraiki *izan* den partizipioaren egiazko formaren oinordekooa. Hori erakusteko, aditz horien paradigmen gaineko ohar batzuk egingo ditut eta, ostean, hipotesia garatu.

Hasteko, *\*ezan*-en adizkien berezitasun bat nabarmendu behar da: erro aurreko *e*-bokala hirugarren pertsonaren orainaldiko formetan (*deza-*).<sup>3</sup> Egia da badirela *a*-dun formaren batzuk dokumentaturik, baina horiek errazago azal daitezke orainaldiko morfologia emankorrera egokituriko forma analogiko gisa, alderantziz baino;<sup>4</sup> mendebaldetik ekialde muturreraino, hizkera guzietan ageri dira *deza-* erakoak, eta komuntzat jo beharrekoak dira, ezin azal baitaitezke aldaketa fonologiko zein analogiko hutsen bidez.

Orobat da egia testu zaharrenetan orainaldiko *e*-dun adizki gehiago ere agertzen direla, baina ikusi dugu ([§ 3.1.1.1](#)) datibo-komunztadura izan ohi dutela halako batzuek, eta zenbaitetan hainbako adizkiekin kontrastea egin ere bai, bokal horixe izanik alde bakarra (*da-* vs *de-*).<sup>5</sup>

---

<sup>3</sup> Ekieldean beste pertsonetan ere ageri da (adib. *nezazu*), baina hizkera haietan *e*- hori N-N<sub>k</sub> forma gehiagotara hedatu denez (ikus hurrengo oin-oharra), eta orokorra hirugarren pertsonakoa denez, horixe da frogua edo argudio gisa erabil daitekeen bakarra.

<sup>4</sup> Zehazki, Etxeparek badakartza halako hainbat (bost *dazala*, lau *dazan*, eta bina *badazagu* eta *dazagun*); eta Misererean ere *dazan* eta *dazagun* ditugu aldi banatan (ikus [§ 2.2.1.8](#), s.v.). Caminok (2008: 159-160) -*a*-dun formen jatorrizkotasunaren alde egiten du arrazoi geografikoengatik. Berak Leizarra garen *zazaten* ere aipatzen du, baina kontu handiz hartzeko da adibide hori, alde batetik, iraganeko forma delako (*e*-“behar” zukeen edonola) eta, bestetik, 400 aldiz baino gehiagotan darabilelako *zezaten* forma, *zazaten* bakarraren alboan. Edonola ere, are maizago eta eremu elkarrengandik urrunagotan ageri dira -*e*-dun formak, eta, testu nagusian emandako arrazoiarekin batera, egiantzeoago gertatzen da historikoki dakuskigun formetatik zaharrenak -*e*-dunak direla pentsatzea.

<sup>5</sup> Nahiz eta egia den ekieldean gauzak nahasiago direla lehen testuetatik, uste dut bokal horren hedapen analogikoa proposatu beharra dagoela, dela partizipioetako *e*-tik, dela datibodun/datibogabe bereizketa egiten den aditzetan *e*-ren alde neutralizatu delako (ikus [§ 3.1.1.1](#)).

Bestalde, ezaguna da *izan* aditzaren paradigma historikoa aski irregularra dela (oraingoz argumentu bakarreko formez ari naiz soilik), eta jatorrizko singularreko lehen eta bigarren pertsonetatik kanpo ez duela legokiokeen erroaren arrastorik (*naiz*, *haiz* vs *da*, *gara*, *zara*, *dira*). Ordea, balizko forma erregularrak \**ezan* laguntzailearenen oso antzekoak liratekeela ondoriozta daiteke: \**na(i)za* : *naza-*, \**ha(i)za* : *haza-*, \**da(i)za* : *deza-*, etab.).<sup>6</sup>

Hortaz, nire hipotesiaren arabera, \**ezan*-en adizkitzat ezagutzen ditugunak *izan*-en bi argumentudun (datibodun) formak lirateke jatorrian, zeinak ‘*izan*’ (*izan*<sub>1</sub>) adiera izatetik ‘*ukan*’ edo antzekoren batera igaro baitziratekeen (cf. *izan*<sub>2</sub>). Hurrengo azpiatalean sakonduko dut aldaketa horren azalpenean.

#### 5.1.1.3. Jabetza-predikatuen iturburuez

Aurkeztu berri dudan hipotesiaren indargarri, jabetza-predikatuak edo ‘edute’-egiturak (‘have’-constructions) nondik eta nola garatu ohi diren aurkeztuko dut, Heineren (1997) eta Stassen-en (2001) tipologia-lanei jarraituz.

Literaturan halako predikatuetarako zenbait jatorri proposatu dira eta sailkapen desberdinak egin. Esate baterako, honako hau Heineren (1997) proposamenaren egoitzapen bat da, ‘Xk Y du’ esanahidun predikatuen jatorri-eskemak (*source schemas*) laburbiltzen dituena, *helburu* motakoa nabarmendurik:

---

<sup>6</sup> Orain Joseba Lakarrak (prestatzen) pluraleko formak ere erro beretik eratortzeko modu bat proposatu du, ezohiko (testuinguru bereziko) aldaketa fonologiko baten bidez eta *-de* pluralgilearen erabilera orokortuaz: haren ustez, \**iza* > *ira* gertatu zen, beharbada 3. pertsonatik hasirik (\**d(a)izade* > *d(a)irade*), eta ondoren analogikoki besteetara hedaturik.

- I. Ekintza: *X-k Y hartzen du.*
- II. Kokapena: *Y X-(ga)n da.*
- III. Laguntza: *Y X-rekin da.*
- IV. Existenzia:
  - a. Genitiboa: *X-ren Y bada.*
  - b. Topikoa: *X-rentzat/X-ri dagokionez, Y bada.*
  - c. **Helburua: *Y X-ri zaio/X-rentzat da.***

**Jabea DATIBO edo BENEFAKTIBO gisa kodetuta**

**Jabetza subjektu gramatikaltzat**

**Adib.: lat. *mihi liber est* ‘badut liburu bat’**

#### 15. irudia: jabetza-predikatuen jatorri-eskemak (Heine 1997-tik moldatua)

Halaber, lan tipologikoek *iragankortzea* (*transitivization*, Heine 1997: 110-114) edo *edute-lerrokatzea* (*have-drift*, Stassen 2001) deritzon fenomenoaren zenbait adibide bildu dituzte. Funtsean, bi argumentuko (subjektu + zehar-objektu/adjunktu) predikatu existenzial (iragangaitz) bat iragankor gisa berranalizatzean datza, ondorioz *edute-*aditzen ohiko ezaugarriak hartzen dituela:

- i. Jabea aditz iragankorren ohiko subjektuen eran kodetzen da.
- ii. Jabetza objektu zuzen gisa berrinterpretatzen da.

#### 16. irudia: iragankortze-prozesuaren ezaugarriak

Heinek (1997: 96-104) dioenez, maiz ezaugarri fosilduren bat geratzen da adierazpide berrian, zeinak jatorri-eskema berreraikitzen laguntzen baitigu ([§ 5.1.1.4.2](#)).

#### 5.1.1.4. Munduko hizkuntzetako datuak

Jarraian, aurreko puntuau eskematikoki azaldutakoa ilustratu eta hobeto ulertarazteko adibide batzuk eskainiko ditut, bai sinkronikoki 15. irudiko IVc helburu-

5. Aditz-erro eta -familia batzuen azterketa

eskemari jarraitzen dioten hizkuntzetakoak (579-584), bai ondoren azaldu dudan *iragankortze* bilakaerenak (585, 586).

5.1.1.4.1. *Helburu-eskemaren adibideak*

- (578) Akadiera (*apud* Bar-Asher 2011: 60)

minummê	ša	<b>ibašši</b>	<b>ana</b>	yâši.
zernahi	REL	existitu.DUR.3SG	DAT	1SG
‘Zernahi ere dudan.’				

- (579) Letoniera (*apud* Mazzitelli 2012: 56)

<b>Man</b>	<b>ir</b>	māja		
1SG.DAT	<b>izan.PRS.3</b>	etxe.NOM.SG		
‘Badut etxe bat.’				

- (580) Boliviako kitxua (*apud* Heine 1997: 59)

waska	tiya-puhan			
soka	existitu-1SG.BEN			
‘Badut soka bat.’				

- (581) Tamilera (drabidikoa; *apud* Heine 1997: 59)

<b>ena-kku</b>	oru	nalla	nay	<b>(irukkiratu).</b>
1SG-DAT	bat	on	zakur	<b>da</b>
‘Txakur ona daukat.’				

- (582) Bretoiera (zelta, indoeuropoera; *apud* Heine 1997: 60)

ur	velo	c’hlas	<b>am</b>	<b>eus</b>
bat	txirrinda	urdin	<b>1SG.DAT</b>	<b>da</b>
‘Txirrinda urdina daukat.’				

- (583) Anywa (sartaldeko nilotikoa, nilo-sahararra; *apud* Heine 1997: 128)

yàa,	<b>jír-á</b>	<b>dá</b>	gwèl	
bai,	DAT-1SG	existitu	diru	
‘Bai, badut dirua.’				

## 5.1.1.4.2. Iragankortze adibideak (apud Heine 1997: 78, 98)

(584) Egiptoera berantiarra (afro-asiatikoa):

a.	n	<b>wn</b>	<b>m.dj-f</b>	is-t	
	NEG	izan	COM-3SG.M	talde-F	[Laguntza-eskema]
'EZ du talderik.'					

b.	m.dj	>	mtw	>	ente, enta-	
	wn	>	wen		wen+enta-	> Coptic wenta-,
					wen+ente	> wente
						'ukan'

c. Koptoa (egiptoera, afro-asiatikoa):

wenta-f

**ukan-3SGM**

'Badu'

(585) Kornubiera (zelta, indoeuropera)

a.	Ancow	<b>a-s</b>	<b>byth</b>		
	Heriotza	DAT-2SG	izan.3SG.FUT		[Helburu-eskema]
b	Why	a-s	beteugh	ancow	
	2.SG.NOM	DAT-2SG	be.2.SG.FUT	heriotza	
c	Why	<b>asbeteugh</b>	ancow		
	2.SG.NOM	<b>ukan.2SG.FUT</b>	heriotza		
'Heriotza izango duzu = hilko zara.'					

## 5.1.1.5. Hipotesiaren azalpen diakronikoa

Datu tipologikoak aztertuta, eta arestiko proposamena zehazteko, \*ezan laguntzaile iragankorra, jatorrian, [ABS-DAT] helburu-eskeman gramatikalizaturiko *izan*<sub>1</sub> aditza litzateke, zeinak orainaldiko hirugarren pertsona singularrean *e-* bokala utzi baitu, Heinek aipatzen dituen ezaugarri fosilen modura.

Halaber garatu zatekeen *izan<sub>2</sub>* jokatugabearen adiera iragankorra, eta luzaroan izan bide zen \**edun*-ekiko nolabaiteko lehia edo banaketa osagarri batean (cf. Lcc *bear eun*), hizkera askotan azken horri gailendu zitzaion arte (ikus § 5.2.2 *ukan*-i buruz).

Eskema hauetan laburbildurik ageri da forma jokatugabeen eta jokatuen (1SG eta 3SG formak eredu gisa harturik) bilakaera morfofonologiko eta semantikoa, hemengo proposamenaren arabera:

I. ALDIA	II. ALDIA	III. ALDIA	IV. ALDIA
* <i>e-zan</i> (irgaitz.)		(formaren orokortzea)	<i>izan<sub>1</sub></i>
-	+dat * <i>e-i-zan</i>	* <i>eizan</i> (dat → erg)	<i>izan<sub>2</sub></i>

#### 17. irudia: *izan<sub>1</sub>* eta *izan<sub>2</sub>* aditzen forma jokatugabeen garapena

I. ALDIA	II. ALDIA	III. ALDIA	IV. ALDIA
* <i>na-za</i> ‘naiz~nago’			† <i>naza</i>
-	+dat * <i>neza-</i> ‘X-rentzat naiz / X-ri natzaio’	> ‘X-k nau’	<i>neza-</i> (→ <i>naza-</i> )
* <i>da-za</i> ‘da~dago’			† <i>daza</i>
-	+dat * <i>deza-</i> ‘X-rentzat da / X-ri zaio’	> ‘X-k du’	<i>deza-</i>

#### 18. irudia: \**ezan* laguntzaile iragankorraren forma jokatuen garapena

Berreraiketa horiek azalkizun diren bi irregularitasun azaleratzen dituzte (ikus § 5.1.2.2-n beste bat): lehena, erro aurreko *a/e* txandaketa, historikoki aditz iragankorretako [bipersonal → hirupersonal] eratorpenean soilik agertzen baita, eta, bigarrena, datibogabeko *izan<sub>1</sub>*-en (singularreko) formetan ere ageri dela datiboko *i*- hori (*naiz*, *haiz*, *litzateke...*).

Irregularitasunok azaltzeko, 19. irudian bildutako (eta ondoren azaldutako) aldaketak gertatu direla pentsatu behar dugu:

I. ALDIA	II. ALDIA	III. ALDIA	IV. ALDIA	V. ALDIA
*naza		†naza	→ *na-iza <sup>7</sup>	naiz
-	*na-i-za-	> *neza-		neza- (> naza-)
*da-za		†daza	(*dar ‘jarri’ >)	da <sup>8</sup>
-	*da-i-za-	> *deza-		deza-

#### 19. irudia: *izan* eta \**ezan* (= *izan*) aditzen forma jokatuen garapen paraleloa

I ALDIA: \*e-zan ‘izan’ oinarrizko formak (iragangaitz pertsonabakarrak)

II ALDIA: \*e-i-zan ‘izan’ forma iragangaitz bipertsonalak

III ALDIA: -ai- > -e(i)- monoptongazioa forma jokatuetan

IV ALDIA: oinarrizko forma jokatuen ordezkapena (forma jokatugabeko i- erroaren zatitzat berranalizaturik), eta \*dar ‘jarri, eseri’ erroa, kopula gisa gramatikalizatua (> da- [inperfektiboa]) *izan*-en paradigman txertatzea markarik gabeko pertsonarentzat (hots, 3SG)

V ALDIA: forma bipersonal iragangaitzen *iragankortzea* (eta gerora laguntzaile gisa gramatikalizatzea)

#### 5.1.2. *etzan*

Jarraian azpiatal honen izenburuko aditzaren etimologia argitzeko proposamen bat aurkeztuko dut, haren aldaerak eta testuetako forma jokatuak aztertuz. Labur esanda, *etzan* eta *izan* etimologikoki lotuta egon daitezkeela proposatzen dut, bai eta forma jokatuen paradigman pluraleko formak supletiboak direla defendatu ere (dagoeneko Schuchardt-ek proposatu bezala); zehazki, *egon* aditzarenak.

Ikusiko den bezala, aditzaren aldaera jokatugabeak (*etzan*, *etzin*, *etxun*) ez dira azaltzen errazak. Mitxelenak (FHV: 272) eta Lakarrak (2017: 32) jatorrian egitura fonologiko eta, ondorioz (Lakarraren kasuan bederen), morfologiko konplexuagoa zuela

<sup>7</sup> Cf. 10. irudiko III. aldko i-ren orokortzea forma jokatugabeetan.

<sup>8</sup> Izan ere, \*daza berreraikia ez zatekeen aditz kopulatibo bakarra izango (baldin inoiz hala erabili bazen), lehenagotik kopula orokor gisa gramatikalizaturik baitzegokeen *da*, hain zuzen aditz trinkoen inperfektibozko formak osatzera iritsi zena (Lakarra 2008a: § 3.1 eta § 3.2).

proposatu dute, baina etimologia zehatzik (Mitxelenaren kasuan)<sup>9</sup> edota bilakaeren xehetasunik eskaini gabe (Lakarraren \*(h)atz(e)-edon).

Lakarrarekin bat nator, oro har, aditz jokatuetako erroak, formari dagokionez, jokatugabeen menpe daudelako ustean (Lakarra 2011: 656) eta, beraz, jokatugabeetako alternantziak eta irregularitasunak kontuan hartu behar direla, adizki jokatuen forma gorabehera, etimologia argitzerakoan. Alabaina, pentsa liteke kasu zehatz batzuetan jokatuek jokatugabeetan ere eragin zezaketela, dela haien maiztasun erlatiboen arteko aldeagatik, dela bereizketa semantikoren baten ondorioz bi paradigma berrosatu direlako (cf. § 5.2.1). Bestalde, ez dirudi \*e- aditzetarik kanpo forma sintetikorik izan denik,<sup>10</sup> eta horrek arestian aipatu Lakarraren etimologiaren kontra egiten du.

Hemengo proposamenerako, bada, ondoren azalduko ditudan bi premisetatik abiatu naiz. Alde batetik, forma jokatu eta jokatugabeetako erroen aranean fonologikoki azaldu ezin daitekeen irregularitasunik bada, ziurrenik jokatuek gorde dute forma zaharrena (hots, fonologikoki hartatik zuzenean eratorria), kontrako ebidentzia edo argudio sendorik ez bada. Alegia, jokatuetako erroa fonologiaz bestelako arrazoiengatik aldatzeko modu bakarra (paradigma-barneko bestelako erregulartzeak alde batera utzirik), hain zuen, forma jokatugabearekiko analogia dateke, baina ez nahitaezkoa; hortaz, gerta liteke forma jokatugabeetan gertaturiko aldaketa zenbait forma jokatutara hedatu ez izana. Bestetik, era berean, jokatuek forma orokor bat badute, eta jokatugabeek aldakortasun dialektala erakusten badute, azaldu behar dena azkenok jasan duten banaketa da, ez besteen batasuna, bestela dialektoen arteko konbergentzia forma jokatuetan soilik gertatu dela proposatu beharko baikenuke.

Ikus dezagun, bada, zertan diren aldakortasun eta orokortasun horiek aztergai dugun aditzari dagokionez.

#### 5.1.2.1. Aldaerez

Arestiko oin-ohar batean eman dut Mitxelenaren aipu bat *etzan*-en aldaerez, non baitio aditz horrek badituela “alternancias vocálicas, comunes a las formas personales e impersonales”; handik ondoriozta daiteke Oihenarten eta Zalgizeren *atzi* ‘etzan hadi’

<sup>9</sup> “(...) un verbo como *etzan*, *etzin*, *etxun* ‘iacere’, cuyas alternancias vocálicas, comunes a las formas personales e impersonales, llevan a sospechar que su raíz sea compuesta.” (Mitxelena, FHV: 272).

<sup>10</sup> Besterik da \*e- aditz baten forma jokatugabe “berezi” batetik paradigma analogiko berriak sortu izana (cf. Sasiolaren *nirtean* edo Lakarraren [prestatzen] proposamena \**edun*-en pluraleko forma supletiboez).

zuela buruan, dokumentaturiko gainerako forma jokatu guztiekin *a* bokala erakusten baitute.<sup>11</sup> Hortaz, zehatzagoa edo egokiagoa da Azkueren hitzak aipatuz beranduxeago esandako hau: «En su conjugación, hoy moribunda, no aparece ninguna de ellas». Mejor dicho, hay alguna rara excepción como Oihenart» (Mitxelena 1979: 48-49).

Forma jokatugabeei dagokienez, gauzak nahasiago dira (ikus 6. taula). Testuetan aldaera bi dira nagusi: *etzan* eta *etzin*. Bizkaian *etxun* ere ageri da (dagoeneko RSn), gehienetan *etzin*-en alboan (eta Añib *etzan*).

Egun, EHHAREN arabera, *etzan* da aldaerarik hedatuena. Izan ere, ia orokorra da Bizkaitik kanpo (non *etxun~etzin* guztiz hedatu den); hots, Gipuzkoatik ekialdera *etzan* da nagusi, salbu eta Debagoienean, Eibarren, Sakanan, Aezkoan eta Lapurdi hegoaldeko herri batzuetan, non *etzin* bildu den.

Egia da, esan bezala, testu zaharretan *etzin* ugari ageri dela, eta nagusi zela ere esan liteke, maiz *etzan*-ekin batera ageri den arren autore beraren edo eremu bereko testuetan; salbuespen nabarmen batekin: Belapeire eta Tartas zuberotarrek eta Dassança baxenafarrak *etzan* baino ez darabilte. Hala, testuetako eta egungo banaketa dialektala (eta aditz-jokatuen itxura) ezin uler daiteke, nire ustez, *etzan*-en lehentasuna onartu gabe.

Hortaz, hipotesia da jatorrizko forma *etzan* zela. Hala, haren aditz-izena \**etzaite* izan zitekeen, hainbat aditz zaharretan bezala, eta ez dago eragozpen larriegirik hartatik *etzite* atera zedin (cf. *erazi*-ren etimologia-proposamena § 5.1.3.1-en). Ondoren, *etzite*-tik *etzin* partizipio analogikoa sortuko zen, bai eta, bestalde, *etzate* berria ere, *etzan*-etik, hizkera batzuetan (tamalez, lehen testuetarako forma guztiak sortuak ziren eta ez dugu *etzan* : *etzite* bikote zaharraren lekukotasunik).

Zehazki, badirudi Arabako euskaran (Lcc, Laz) eta harekin lotura izan duten hizkeretan (Sakanakoa, Debagoinenekoa) *etzin* aldaera nagusitu zela. Aldiz, Bizkaian \**etzaite* → \*-on > -un gertatuko zen partizipioan (cf. kausatiboaren *eratzo(n)* aldaera), eta \**etzaite* > *etzite* (nondik geroago *etzin*). Txistukari sabaikariari dagokionez, tarteko \**eitz-* aldaera bat proposatu liteke agian (cf. *izan* < \**eizan*), baina forma jokatuek ez dute horren alde egiten.

---

<sup>11</sup> Eta pentsa liteke mauletarrak Zalgizeri hartu ziola, beste batzuk bezala, zeren lehenaren paperen artean aurkitu baitziren bestearenak, hark helarazirik (Urquijo 1908).

	<i>etzan</i>	<i>etzate</i>	<i>etzin</i>	<i>etzite</i>	<i>etxun/-te</i>
Etxep					
Leiz		(1)			
Mat		(1)			
EtxZib	<i>etzantza</i>				
Harizmendi					
Hb					
Gazteluzar					
Tartas					
Belapeire					
Dassança					
Ax			(1)		
SilvP	(+)				
Oih	<i>etzauntza</i>				
Urte	(+)				
He					
Lcc					
Laz					
Kap					
RS					
Arzadun					
Añib					
Astarloa					
Mogel				<i>etzun</i>	
Irazusta					
Mendiburu					
Lizarraga					

8. taula: *etzan* aditzaren aldaerak testuetan<sup>12</sup>

Forma jokatuetara itzuliz, ordea, *-tza* erroa orokorra izan da alde eta aldi orotan (586-592), ustezko bi hapaxetan izan ezik: Zalgize-Oihenarten *atzi* ‘hatza’ inperatiboa (595), eta Lazarragaren *cauciden* ‘zautzan’ (596).

Lehenari dagokionez, eta besterik gabe *etzin* aski hedaturik zegoen garaiko forma analogikotzat besterik gabe har bidaiteke ere, beste aukera bat ere badagoke: *atzi(tu)* aditzaren arrastoa izatea (cf. EHHE ss. vv., \**hatz-i*, nondik *atztitu*, *atzipe* etab.). Egia bada ere *lo etzan* perifrasia zela ohikoena *lo* egoera adierazteko, ezin bazter daiteke, alde batetik, bestelako perifrasirik ere erabiltzen zenik eta, bestetik, Oihenartek ematen duen itzulprena literalra ez izatea.<sup>13</sup>

<sup>12</sup> Datuak EKCTik, OEHTik eta, autore zaharrenen kasuan, dagokien edizioetatik atera ditut.

<sup>13</sup> Izan ere, (595) adibideko errefrauaren itzulprena, oro har, ez da literalra: “Dominique, prens une femme, & apres dors tant que tu voudras, car elle aura assez de soin de teveiller” (OihAts, 119; etzana nirea da).

Bigarrenaz den bezainbatean, lehenik eta behin, kontuan hartu behar da pluraleko forma irregularretako dela (-u-duna), eta horiek bestelako azalpen baten beharra dutela (ikus § 5.1.2.3). Nolanahi ere, Lazarragak berak *etzin* forma baizik ez darabilela esan dut eta, beraz, forma jokatugabe berriaren araberako adizki analogikoak sortzea ere ez litzateke horren harrigarri.

- (586) Gajo nachala / y penas **naçala** (Perutxo, 11)
- (587) Gaxo ninçala, / ez nenduçaçun contuan, / ez gueyago / catigu **nençan** lecuan (Laz, A16: 66)<sup>14</sup>
- (588) aguiān **valeçala** (NafEs-2, 155)
- (589) çori honian sortu date haren bessoan **daçana** (Etxep, V: 24)
- (590) Madalenean an ey **dauça** (ArrasErre-2a: 4)
- (591) Mosiur Chanfarron, jaun andia, / Irun(go) calean **daza** illa (Xanf, 2)
- (592) Hemen **naça** orçiriq (Amend: 1)
- (593) Ez diaço bacarric / Çe an **daz** Presebal ylic (ArrasErre-2b: 5)<sup>15</sup>
- (594) Lo ete **naç**? Ala iraçarriric nago? (Laz, AL, 1152r: 8)
- (595) Domingo eguic emazte, **atzi** lo, berac iratzar hiro (Zalg, 158)
- (596) Conjuraetan oy eta çaitut, oean **caucidenean** / gogaberatu çaquezquedala (Laz, A16: 86)

Horrenbestez, eta hasieran planteaturiko premisei lotuaz, forma zahar eta berreraiketarako oinarritzat *etzan* hartuko dut, eta horrela aipatuko aurrerantzean.

### 5.1.2.2. \*ezan / etzan

Arestiko (§5.1.1) azalpenari lotuaz, badirudi han aurkeztutako *izan<sub>2</sub>*-en formen etimologiak honako gertakari hau onartzea eskatzen duela: \*ezan-en oinarrizko

---

<sup>14</sup> Bilbaok eta bestek (2020b: 322) ‘nintzen’ interpretatzen dute, baina, formaz ezinezkoa ez bada ere (Leizaragak ere badu *nencen* bat), kontuan hartu behar da Lazarragak *ninça-* darabilela gainerako kasu guztietai (35 aldiz; adibidez, poema bereko aurreko bertso-lerroan). Horrez gain, edizioan ez da argudiorik ematen adizki hori *etzan* aditzarekin ez lotzeko, eta ez da ulertzen zergatik ez den harekin lotu behar, kontuan hartuta (597) adibidekoaz gain (zeinak bere berezitasunak dituen eta, nire ustez, forma supletiboa den; ikus § 5.1.2.3) *naç* eta *daçan* ere badarabiltzala. Azken biei dagokienez, lehenak azalpen ezaguna du (ikus hurrengo oin-oharra, eta cf. Bilbao eta beste 2020a: § 2.1.6) eta bigarrenak *a* bokala dauka, *nençan-*ek bezala. Bestalde, *yacer ca(u)tivo* kolokazioa ezaguna zen gaztelania zaharrean (CORDE).

<sup>15</sup> Forma honetan (603) eta Lazarragaren hurrengo adibidean (604) erroko bokala galdu da (\*-a, ziurrenik), nola gertatu baita *izan*-en eta \*ezan-en forma batzuetan (ikus § 5.1.1.5-eko 12. irudia, eta § 5.1.2.2).

paradigma (\**naza*, \**daza*...) osorik galdu zela. Halako galerak ezinezko ez badira ere,<sup>16</sup> zilegi da inolako arrastorik utzi ez ote duen galdetzea.

Lehenago aipatu dut testu zahar batzuetan \**ezan*-en adizkiek *-a* galdua dutela (597-600), eta ikusi dugu *etzan* (593, 594) aditzen forma jokatu batzuek ere bukaerako *-a* falta dutela. Bada, hain zuzen, uste dut horrela azal daitekeela *etzan*-en erroko afrikatua, zeina \**ezan* laguntzailearen adizkietan ez baitzen gertatu (edo, bederen, hedatu eta lexikalizatu), beharbada *etzan*-en kasuan bokal-galera gerta zitekeen formen maiztasun erlatiboa handiagoa izango zelako, demagun, \**ezan* laguntzaileak sarriago izango baitzuen erroko bokala babestuko zuen atzikiren bat (dela pertsona-komunztadura, dela menderagailua),<sup>17</sup> eta akaso pluraleko formek ere lagunduta (ikus § 5.1.2.3).

- (597) Samarien osticoa da gestoa, noc verac ar **bez** vere ydecoa (RS, 363)
- (598) baldin da mandamentu au goarda ez **badez** (Laz, A17: 14)
- (599) On da pacencia / sufri al **valez** (Bikuña, B8: 6)
- (600) eta acheguin ar **bes** ‘y tome placer’ (NafEs-1, 106)<sup>18</sup>

Hortaz, eskema honetan (20. irudia) laburbildutako bilakaera proposatzen dut *etzan*-en singularreko formentzat, pentsatuz jatorrizko aditzak (\**ezan* iragangaitzak) “existenzia” adiera ez ezik, kutsu lokatiboa ere bazuela; baita, agian, gorputz-jarreraren [etzanda] ñabardura adierazteko aukera ere (vs *jarri* [eserita], *egon* [zut(?); cf. *igo*?]).

I. ALDIA	II. ALDIA	III. ALDIA	IV. ALDIA
* <i>na-za</i>	* <i>naz(a-)</i>	> <i>natz#</i> / * <i>naza-</i>	→ <i>natza</i>
* <i>da-za</i>	* <i>daz(a-)</i>	> <i>datz#</i> / * <i>daza-</i>	→ <i>datza</i>

#### 20. irudia: \**ezan*-en oinarrizko adizkien garapena ‘*etzan*’ adieran

##### 5.1.2.3. *Etzan / egon*

*Etzan* aditzaren atalarekin amaitzeko, lehenago ere proposatu izan den supletibismo kasu bat izango dut hizpide. Ezagun denez, *etzan*-en pluraleko aditzek *-u-* bokala agertzen

<sup>16</sup> Esaterako, Gildeak eta Haudek (2021) Movima hizkuntza isolatuaren “aditz joko etimologiko” osoa galdua dela proposatu dute, predikatu historikoak aditz-izenkiatarik berreraikitzean.

<sup>17</sup> *Izan* aditzaren paradigmaren ere badira halako irregularitasun historikoak; esaterako, *naiz* (\*\**naitz*), baina *balitz* (<*baliz*; eta beranduago *lizate(ke)* > *litzate(ke)*, analogiaz).

<sup>18</sup> Nafarroa Garaiko adibide gehiago badira hurrengo mendeetan: Beriainen lanetan (baita pluralean ere: *utci biz* ‘utz bitza’), 1743ko sermoietan, Obanosko bertsoetan eta Lizarraga Elkanokoaren testuetan (Reguero 2019: 457-458).

dute erroan, edo erro-ustekoaren aurretik: *gau(n)tza, zau(n)tza, dau(n)tza*.<sup>19</sup> Schuchardtek jada ikusi zuen bezala (1907), adizkiok ezin azal daitezke singularreko kideetatik abiatuta,<sup>20</sup> eta berak *egon* aditzaren bidez azaltzeko proposamena egin zuen.

Hizkuntzalari austriarraren ustez, *\*dagode > daude* gertatu zen bezala, *dautza < \*dagotza* berreraiki behar da, zeinak jatorrizko *etzan*-en pluraleko forma (*\*datza(t)za* izan zitekeena) ordezu zukeen. Funtsean bat nator proposamen harekin, baina zehaztasun handiagoz azaldu nahi dut bilakaera eta supletibismo kasu honen motibazioa, *etzan*-en singularreko formeい arestian emandako azalpena ere kontua hartuta.

Esaterako, atzizkiak txistukari afrikatua berezkoa izatea ez da egoera zaharrenerako espero dena (-za/-tza alomorfoen kronologiaren arabera; cf. *doaz, datozi, dakaz*<sup>21</sup> noizbait orokorrak). Azalpen posible bat singularreko formen analogiaz aldatu zela izan daiteke edo, haietarako proposatu bezala, (pluralgileko) azken bokalaren galeraren ondorioz, zeina ondoren berrezarri baitzatekeen: *\*dagoz(a) >> \*dautz → dautza*. Jakina, azalpen horrek gauza bat onartzea ere eskatzen du: *egon*-en paradigman inoiz *\*-za* pluralgilea orokorra izan zela (eta, beharbada, mendebaldeko forma historikoak ez direla zuzenean haietarik eratorriak, berrituak baizik). Horretan sakonduko dut hurrengo puntueta.

#### 5.1.2.3.1. Erro- eta pluralgile-alomorfoak

Hasteko, *egon* aditzaren pluraleko formak aztertuko ditut, bi aldagai nagusi kontuan hartuta: erabiltzen den pluralgilea (9. taula), eta erroaren higadura (10. taula). Lehenari dagokionez, bi eremu nagusi eta tarteko bat bereiz daitezke lehen testuetatik, beti ere datibogabeko formeい bagatxezkie: Bizkaiko lekukotasunetan, gerora bezala, *-z(a)* da pluralgile bakarra; Arabakoetan biak agertzen dira, testuaren arabera (Bet *-z(a)*; Laz *-z(a)* gehienetan, behin *-de*; Lcc *-de*); gainerakoetan *-de* da aukera bakarra, nahiz eta *-dez* erako forma pleonastikoak Leizarragarengandik agertzen diren.

---

<sup>19</sup> Ekialdeko hizkeretan agertzen den sudurkariaren azalpen gogobetegaririk ez dut aurkitu; erroari ote dagokio? Cf. Etxepare eta Leizarragaren *ninçande* etab., eta mendebaldeko *deunçun* (BustSorg 2) edo DotrSerm *deunso* ‘deutso’, *deingunset* ‘dagiguntzat’ eta *eunqueala* ‘zukeela’ (Ulibarri 2015: 192-193).

<sup>20</sup> Ezta *etzan*-en etimologia diptongodun bat onartuko bagenu ere, zeren eta, hain zuzen, forma luzeenetan diptongoa lehenago bakuntzea esperoko bailitzateke, ez alderantziz.

<sup>21</sup> Cf. *Yzozac ta euriac / dacaz escura gariac* (RS, 492) eta *Eryoa manacen du ecelyn falta gaberic / Hilac oro dacacela aycinera viciric* (Etxep, I: 240).

5. Aditz-erro eta -familia batzuen azterketa

	-z(a)	-de
B		
A	Bet	
	Laz	(behin)
	Lcc	
G		
N		
L		
BN		
Z		

9. taula: pluralgileen banaketa *egon* aditzean (NORTZUK)

	-go-	-o-	-u-
B			
A	Bet		
	Laz	(<çanode>?)	
	Lcc		
G		(BretKant)	
N		(Areson)	
L			
BN			
Z			

10. taula: erroaren alomorfoen banaketa (NORTZUK)

Aurreko bi tauletan oinarrituta, ondoriozta dezakegu korrelazio nahiko estua dagoela *-de* pluralgilearen eta erroaren higaduraren artean, zeren eta *dagoz* prototipoa da nagusi mendebaldean eta *daude*, aldiz, gainerako lurralteetan, nahiz eta Araba-Gipuzkoetan *daoz* eta *daode* erakoak ere ageri diren.

Bestelako morfoak (soilik edo pluralgileaz gain) erantsi zaizkien formek, ordea, bestelako banaketa erakusten dute batzuetan. Esaterako, *-ke* atzizkiarekin (11. taula) erro osoa dakar EspGut-etako *nagoke* adizkiak, baina *-u-*, ordea, RSko batek: *baleuque* (baldin nire irakurketa zuzena bada, noski; ikus § 4.2-ko [529] adibidea eta hango oin-oharra). Hala ere, datibo-komunztadura eranstean gertatzen dira gauza berezienak (ikus 12. eta 13. taulak).

	<i>-go-</i>	<i>-o-</i>	<i>-u-</i>
B (RS)	<i>zagokez</i>		<i>baleuke</i>
A (Laz)	<i>nagoke</i>	<i>daoke, beoke, zaozke</i>	
G			
N			<i>gaudeke</i> (NafEs-2, 158)
L	<i>nagoke</i> (EspGut)		<i>dauke</i> (Leiz)
BN			<i>dauke</i> (Etxep)
Z		<i>naoke</i> (Oih)	<i>dauke</i> (Oih)

11. taula: erroaren alomorfoen banaketa (NOR[TZUK]-*ke*)

Alde batetik, absolutibo singularreko datibodun formetan, pluralgilearekikoen antzeko banaketa ikusten da, bi ezberdintasun nagusirekin: Lazarragak, Nafarroa Garaiako lekukotasunek eta, zenbaitetan, Leizarragak erro osoa darabilte (pluraleko *-o-* eta *-u-*ren ordez, hurrenez hurren), eta, aldiz, bi salbuespen nabarmen ditugu: Lazarragaren beraren *dauquezu* (baldin ‘dagokizuke’ gisa interpretatzen badugu; ikus § 3.4.4.1 eta § 3.4.5.3), non berak darabilen *daoke-ri* datibo-komunztadura erantsi zaion, eta Oihenarten *dagoka*.<sup>22</sup>

	<i>-go-</i>	<i>-o-</i>	<i>-u-</i>
B			
A (Laz)			( <i>dauquezu</i> )
G			
N			
L		(Leiz <i>diaoc</i> )	
NB			
Z (Oih)			

12. taula: erroaren alomorfoen banaketa (NOR-NORI)

Antzera gertatzen da absolutibo pluraleko datibodun formetan, nahiz eta ekialdeko lekukotasunak falta diren (13. taula). Alabaina, bada beste ezberdintasun bat datiborik gabeko formekin alderatzen baditugu: pluralgilea beti da *-z(a)*.

<sup>22</sup> Oihenarten errefrauetaoak dira Zko guztiak. Halere, hau da *-go-* ez ezik *-ka* daukan bakarra (guztietan itxura sartaldekoena duena: *Burua guriz duenari eztagoka izatea labekari*, OihAts 105); beste hirurek *-u-* eta *-ko* daukate (*dauko* ‘dagokio’ bat eta bi *auko* ‘hagokio’).

	<i>-go-</i>	<i>-o-</i>	<i>-u-</i>
B	<i>baçagocas</i> (Mikol)		
A	<i>gago(t?)çu</i> (Laz)		
G			
N	<i>zagozkit</i> (NafEs-2, 121)		
L	(Leiz)	<i>daozala</i> 'dagozkiola' (Urt)	<i>dauritçan</i> (Leiz) <sup>23</sup>
NB			
Z			

13. taula: erroaren alomorfoen banaketa (NORTZUK-NORI)

Laburbilduz, oro har, zenbat eta ekialderago joan erroaren higadura handiagoa eta arruntagoa da lehen testuetatik, oinarrizko formari morfo bat eranstea; eta mendebaldean, aldiz, osoago gorde ohi da. Dena den, badira forma higatuak mendebaldean, bai eta osoak ekialdean (batik bat datibo pluralekoak). Aldaera dialektal sinkronikoak ez ezik, adizkien luzerak eragindako higatze-abiadura ezberdinak ikus daitezke, eta, bereziki datibo singularreko eta *-ke* atzizkidun formei begiratuz gero, pentsa liteke analogiazko morfologia-aldaketak zein berrosatzeak gertatu ziratekeela, hurrengo puntuau azalduko dudan bezala.

#### 5.1.2.3.2. Kronologia erlatiboaz

Aurreko datuak ikusirik, eta aditzaren histori(aurre)an sakontzeko, zenbait galdera azaleratzen dira aldagai guztiak (pluralgileak, datibo-komunztadura, erro-higadura, morfo-hurrenkera) gurutzatzuz gero:

- a. Zein da morfo-hurrenkera zaharrena?
- b. Zein da aditz honen pluralgile zaharrena?
- c. Garai historikoan, forma konplexu(ago)etan erro oso(ago)a darakusten formak gordetzaileak dira? Ala, arestian aipatu bezala, analogiaz sortuak edo berrituak?

Galderok erantzun ahal izateko, datuak osoki hartu behar dira kontuan, bai eta eremuka (edota autoreka) eta ardatz ezberdinak gurutzatzuz (numeroa, komunztadura) aztertu ere. Esaterako, zentzuzkoa da pentsatzea, eratorpen sinkronikorik izatekotan,

<sup>23</sup> Baldin 'dagozkion' ulertu behar bada (ik. § 4.2).

pluraleko formak singularrekoetatik eratorri direla eta ez alderantziz; eta datibodunak zein *-ke*-dunak hainbakoetatik. Zer gertatzen da, baina, halako bi ezaugarri batera direnean? Adibidez, pluraleko datibodun formak singularreko datibodunetatik datora ala pluraleko datibogabekoetatik? Erantzun bat *a priori* ematekotan, proposa daiteke kategoria markatugabe(en)ak (maiztasun handienekoak) egoten direla oinarrian eta, hala, lehenik SG > PL eta ondoren ABS > ABS-DAT edo *-ø* > *-ke* eratorpenak gertatuko direla. Bestalde, corpusean datibodunak *-ke*-dunak baino askoz ere maizago agertzen direla kontuan hartuta, bigarren atzizki hori eransten azkena datekeela pentsa genezake; beti ere eratorpen sinkroniko erregeularraz ari garelarik.

Salbuespenak, izan ere, bi modutara azal litezke: berrikuntza (analogiko) gisa edo arkaismo gisa. Lehen kasuan, morfoaren kokapen edota itxura jakin bat (maiztasunagatik, gardentasun morfologikoagatik, bestelako analogiaren bategatik) orokortu izana gerta liteke, ez zegozkion edo ez zegokien formetara iritsi arte. Bigarren aukeran, aldiz, arrazoiren bategatik (dela erabileraren eraginez, dela emankortasuna galdu eta fosildurik geratzearen ondorioz) hurrenkera edota aldaera bat finkaturik geratu bide da, eta, ondoko berrikuntza edo eratorpen morfologikoak gorabehera, itxura hori aldarazi gabe, paradigma-barneko irregulartasunak sortu ditu.

Tamalez, Euskara Arkaikoko corpusean ez da morfo-konbinaketa guztien (ez euskalki gehienetako) lekukotasun nahikorik eta, beraz, jarraian egingo ditudan erkaketak eta azterketak nahi baino murritzagoak izango dira, ezinbestean.

#### 5.1.2.3.3. Morfo-hurrenkeraz

Alde batetik, § 3.4.4.1-en ikusi den bezala, orokorra da *-ke*-DAT hurrenkera testu zaharretan (gerora erdialdean *-DAT-ke* hedatuko da; euskara estandarrean darabilguna, alegia); salbuespen bakarra, halere, Zaraitzuko edo gutxienez Nafarroa ekialdekotzat hartu dudan lekukotasun bateko *nioque* da (481).

Beste alde batetik, Bizkaian eta Arabako zenbait testutan, oro har, *-z* pluralgilea izaten da azken elementua, *-(a)n* eta *-(a)la* alde batera utzirik; adibidez: *zakidaz, goakez, zagokez, gakioza[n], beukaz, daroaez, jatorguz, eginezan, deusuguz, gagizuz, jakaz, digus*. Lazarragak, aldiz, datibo-komunztaduraren edota *-ke* atzizkiaren aurretik ematen du pluralgilea, oro har, objektu pluralarekiko komunztadura (agerian) duenean: *zarezt, zakezt, litezke, zaozke, zatozke...* (baina *zaidaz*, ergatibo-komunztaduraren ondoren; halere, <bagaguiçu> = *bagagitzu*?). Halaber, bada Bizkaian ere salbuespen garrantzitsu

bat behintzat, zeinak aurrerago ikusiko dugun beste gai bat ere ukitzen duen: *çacusquidan* (BizkOlerk, 16), non \*-z(ki)- pluralgilea ergatibo komunztaduraren aurretik antzeman daitekeen, eremu hartako joera orokorraren kontra. Beste salbuespen bat ere badateke Aiaraldean, baldin objektu pluralarekiko komunztadurarik ezaren adibide ez bada (testuko bakarra, eta bitxia, Araba erdi-ekialdeko edo Gipuzkoa mendebaldekoa ez izanik): DotrSerm *deunçun* ‘deutsun’, non \*-z-zu > -tzu gertatu zatekeen.<sup>24</sup>

Halaber, Araba ekialdetik Zuberoaraino -kez > -zke berrikuntza gertatu izana onartzea diatopikoki garestiegia dela uste dut. Are gehiago, kontuan harturik ezen pluraleko lehen eta bigarren pertsonen pluralgilerik gabeko formarik ez dela historikoki existitzen eta batzuetan pluralgileak erroa itxuraldatu ere egin duela (*datoz*, *dakaz*),<sup>25</sup> berrikuntza aski zahar eta orokorra behar du izan pluralgileak berak.

Egia da, halere, ezein aukerak ez duela arestian aipatu hatsarrearen kontra egiten (singularreko *doake*-tik pluraleko *doakez* atera liteke, eta balizko *doazke* zaharragoa ordeztu; edo *doaz* plural arruntetik *doazke* eratorri balizko \**doakez*-en ordez), baina *goakez* edo *jatorguz* bezalakoek jatorrizko egitura gorde dutela onartzeko, arkaismo handitzat (handiegitzat, nire ustez) hartu beharko lirateke.

Aldiz, ez da gaitza pentsatzea analogiak erraz eralda zitzakeela mendebaldeko forma horiek hiruko erregelaren bidez, -ke nahiz -z morfoak emankorrik (artean bederen) eta gardenak zirela kontuan hartuta, eta areago -ke atzizkia -z baino “eratorpenezkoagoa” dela onartzen badugu (cf. Bybee 1985),<sup>26</sup> halakoek errotik gertuago kokatzeko joera dutenez gero (edo, alderantziz, -z bezalako “flexiozko” morfoek kanporago kokatzeko).

Horrenbestez, PL-ke-DAT hurrenkera zaharra proposa daiteke, z-ren kanporatzea Mendebaldeko Euskara Zaharretik bizkaierarako bidean egindako berrikuntzatzat joaz.

#### 5.1.2.3.4. Egon aditzaren pluraleko formen bilakaeraz

Logika diatopiko berari jarraituz (nahiz eta Lazarragaren testuan bertan -z ohikoago izan, hor ditugu Landucciren *daode* eta Lazarragaren beraren <çanode>), *daude* forma (edo \**dagode*) zaharragoa litzateke *dagoz* baino. Aldiz, datibodun formetan -z orokorra

<sup>24</sup> Beste erkaketa bat ere egin liteke mendebaldeko eta ekialdeko adizki banarekin: *leidis* (OihBizk) : *daidiz(-ke)* (OihKai 278). Balirudike forma horietan -di atzizkiaren ondoren doala -z (mendebaldeko -ke-z formen antzera), baina, arkaismoa izanda, litekeena da ordurako erro banaezin gisa berrinterpretatu izana.

<sup>25</sup> Gerora *datortz(e)* eta, usuago, *dakartza* bezalakoak berregin ziren.

<sup>26</sup> Ez da beti erraza flexioaren eta eratorpenaren artean bereiztea (cf. Haspelmath, 2022 proposamen orokor baterako).

izateak gauzak horren simpleak ez direla adieraz dezake. Aukera bat da pentsatzea ezen datibodun formak singularreko datibodun formetatik abiatuz eratu zirela (ez pluraleko datibogabeetatik), sisteman ohikoena zen absolutibo-pluralgilea hartuz. Beste bat, egiazki pluraleko forma datibogabe zaharrenak ere -z pluralgileaz osatuak zirela eta, azaldu beharreko arrazoiren bat medio, -de atzizkiak ordeztu zuela, mendebaldean izan ezik (edo, mendebaldean ere bai, baina ondoren -z atzera berrezarri zela, berrikuntza Bizkaitik abiaturik). Nolanahi ere, *etzan*-en pluraleko formen azalpenak mendebaldeko *dagoz* erakoak ere forma berregintzat hartzea eskatzen du. Izan ere, -de pluralgilea Gasteizera (bai eta Zuberoara) ere hedatu izana berrikuntza zahar orokor bat proposaturik azal daiteke, zeina Bizkaieraren eremuko beste berrikuntza zahar batek eremu hartatik desagerrarazi zukeen. Beste aukera bat, eremu lektal zaharren arteko dinamika ezberdin batekin, honako hau litzateke: Gasteizek<sup>27</sup> Bizkaiko euskaran eragina galdu ondoren, baina artean erdialdeak (Iruñea?) Gasteizko euskaran eragiteko indarra zuen garai batean hedatu zatekeen \*dagode berrikuntza.

Esan bezala, edonola ere, berrikuntza horren motibazio komunak Bizkaiko *dagoz* ere eragin zukeen. Izan ere, nire ustez (Schuchardt-ek proposatutakoaren bidetik), *egon*-en egiazko pluraleko forma zaharrak *etzan*-en paradigman sartu ziren forma supletibo gisa (berrikuntza orokorra), eta, ondoren, *egon*-en saila berritu zatekeen, ezen aldaketa fonologiko eta, beharbada, analogiko batzuk tarteko, jatorrizkoen itxura aski aldatu baitzen (*dautza*). Bestalde, forma bera bi paradigmatan erabiltzeak ezberdintasun semantikoa formalki ere adieraztea ekar zezakeen, eta forma berrituak oinarritzko adiera hartu zukeen, Kuryłowiczen analogiaren 4. arauaren arabera (Kuryłowicz 1945).

### 5.1.3. Beste eratorri batzuk:

Jarraian beste bi aditz (edo aditz-jatorriko elementu) \**zan* erroarekin lotzeko proposamenak aurkeztuko ditut.

#### 5.1.3.1. Arazi (*arazo*, *erazi*, *erazo*)

Jatorrizko adierara jo baino lehen, hipotesi formal batzuk egin daitezke. Alde batetik, azpian erro ezezagun bat dagoela pentsatu eta \**e-laz-i/o* edo, arazletasun adiera zuzenean lortzeko, \**e-ra-ziC/zoC* berreraiki liteke (aldaera hustzat edo lexema

---

<sup>27</sup> Gutxi gorabeherako eremuen ordezkaritzat har bitez Gasteiz, Bizkaia eta Iruñea.

ezberdintzat jotzen ditugun); alabaina, aditz-erro ezezagunak genituzke. Beste aukera bat da \*e-ra-zVn(-i/o?) batetik eratortzea da, dela atzizki ezberdin biren bidez, dela amaierako bokal ezberdinak \*erazaiten batetik atzera-eraturiko forma gisa interpretatz (adibidez, *jaiten* ← jo bezalakoen alderantzizko eredura \*erazaiten batetik *erazo* sorturik, edota \*erazaiten > *eraziten* aldatu eta, ondoren, → *erazi* eginik; cf. *etzin-ez* esandakoa § 5.1.2.1-en). Hala, \*erazVn proposa liteke, eta jatorrizko bokal hori izateko egiantzekoenak \*erazon (nondik *erazo* ere atera baitzitekeen) eta \*erazan dira; baina \*zon-ek ez bide digu laguntza semantikorik eskaintzen (cf. *zohi* < \*zon-i, Lakarra 2002: 435).

Alderdi (morfo)sintaktikoari dagokionez, jatorrian beste partizipio batekin erabiliko zela pentsa daiteke, eta halakoak atributu gisa interpretatu; horrela, esaterako, \*egin erazan ‘egina izanarazi’ zatekeen. Bestela, oinarrian aditzoina<sup>28</sup> edo aditz-izena izaten zela pentsatzen badugu, \*ikus(te) erazan ‘ikustea gertarazi’ izan liteke jatorrizko egitura. Izan ere, *izanaraztea* eta *gertaraztea* semantikoki elkarrengandik nahikoa hurbil direla deritzot. Hortaz, *arazi* eta haren aldaerak \*e-ra-zan berreraikitzen ditut; alegia, \*ezan ‘izan’-en arazole zahar gisa.

Laburbilduz, \*zan erroaren ‘existitu, [nonbait] izan’ adieratik, \*erazan ‘izanarazi, gertarazi’ sortu zatekeen, eta haren aditz-izenetik \*erazaite > *erazite* (beti aurreko elementuari prosodikoki loturik, diptongoa errazago bakundi zitekeen)<sup>29</sup> → *erazi* (> *arazi*), eta \*erazaite → *erazo* (> *arazo*).

Azkenik, bada corpusean arreta berezia merezi duen forma bat Etxart zuberotarraren gutunetako batean (601).

(601) Curutchagari baka **eraçacoçu** bere despendioac Aguostini (EtxRos-07, 2r: 18)

Baldin eta ez badugu *erazi* atzizkiaren eta laguntzailearen arteko kontrakzio goiztiar gisa interpretatzen (eta horren kontra lihoake, gainerako lekukotasunekin batera, arrestian aipatu -i-ren galera, adibidez), atal honetan proposaturiko etimologiaren tarteko urrats baten arrastotzat jo daiteke: atzizkiak bezala arazletasuna eransten dio predikatuari, baina, hura ez bezala, jokaturik dago.

<sup>28</sup> Bainan cf. Urgell (2018).

<sup>29</sup> Berrikuntza horrek azal lezake, hein batean, zergatik *erazi-k* beste -i-dun aditzek baino gehiagotan (beranduago arte eta eremu zabalagoan) gorde zukeen bokal hori aditz-izenean (Urgell 2018: 789).

### 5.1.3.2. Jazo

Aurrekoak ikusita, batek pentsa lezake *jazo* ‘gertatu’ aditza ere, *arazi*-ri esleitu diodan ‘gertarazi’ esanahia gogoan, jatorri bereko ez ote den. Forma aldetik, bukaerako bokala \**jazan*-etik abiatuta azal liteke, *igo(n)/igan* edota *jaso/jasan* bikoteak eta arestiko *erazo* bera gogoan. Adierari dagokionez, nahiko erraz erator bide daiteke ‘norbaiti zerbait izatea’ > ‘egokitzea, suertatzea’ (cf. *gertatu* aditzaren beraren adierak, eta arestian \**erazan*-en beraren jatorri eta bilakaera semantikoaz esanak).

Antzeko hedapen edo interpretazio semantikoa (‘izan’ > ‘jazo’) ikus daiteke adibide honetan, oinarrian den erroa beste bat izanik ere: *deseo neben ocasio bat / cerren nagoan jaquinic* ‘zeren desio nuen aukera bat jazo/etorri zaidan (~izan dudan)’ (Laz A23: 3-4). Izan ere, *jaquin* hori \**edin*-en N-N<sub>i</sub> konfigurazioko forma supletiboa da (Bilbao eta beste 2020a: § 4.1.5; ikus hemen [§ 5.3](#)).

### 5.1.4. Ondorioak

Atal honetan \**zan* erroaren zenbait ondorengo proposatu eta azaldu ditut, paradigma barneko irregularitasunak, supletibismoa eta analogiak tarteko. Zehazki eta bereziki \**ezan*, *izan* eta *etzan* aditzen arteko lotura etimologiko zuzena defendatu dut, bai halaber *arazi* eta *jazo* ere erro beraren eratorriak direla.

Proposamen nagusiaren aldeko zantzuak, funtsean, \**ezan*-en orainaldiko adizkietako *-e-*, *izan*<sub>1</sub> adizki zenbaitetako *-i-* eta *izan*<sub>2</sub> iragankorra bera izan dira. Berezitasun bokalikoak eta iragangaitz/iragankor ezberdintasunak datibo-komunztadura zahar baten bidez azal litezkeela argudiatu dut, eta datiborik gabeko formetako *-i-* hora erroaren partetzat berranalizatzearen ondorio gisa. Gainerakoan, gramatikalizazioaren teoria, tipologia, aldaketa analogikoak (paradigma-berdintzea eta ezaugarrien hedapena) eta gutxitan aipatutako (baina orokorra izan den) *-a* bokalaren behialako galerak baliatu ditut formen osaera eta paradigmen bereizketa azaltzeko.

Haatik, guztia ondo loturik ageri bada ere, ezin ezkuta daiteke proposamenaren alde ahulena edo, gutxienez, lausoena: forma jokatugabeetako bokal-alternantziak. Saiatu naiz horien azalpen asegarri bat aurkezten, baina halere zenbait aldaketa ez-sistematiko onartzea eskatzen dute, ebidentzia zuzenik gabe. Jakina, diptongo bat berreraikitzeko aukera ere hor da, baina etimologia sendorik ez du (Lakarraren \*(h)*atz-edon* ez da

asebetegarri, nire ustez, besteak beste, halako konposatu batetiko aditz trinko bakarra litzatekeelako) eta forma trinkoen batasun formal ia erabatekoia azalgaitzago egiten du.

Harentzat proposaturiko etimologia onartuz gero, *arazi*-ren aldaerek erakusten dute, gutxienez, *-an* / *-o(n)* eta *-i(n)* amaieren arteko aldakortasuna posible zela, aditz-izenetako aldaketa (morfo)fonologikoen ondorioz, dela diptongoen bakuntzeagatik, dela eratorpenetako bilakaerek sortutako anbiguotasunengatik: *-a(i)ten* berdin etor zitekeen *-an* zein *-o(n)* amaieretatik, eta *-aiten* > *-iten* gertatuz gero, partizipioa *-i(n)* berregiteko aukera zegoeken.

Bestalde, aditz-familia irregular honetan ez da falta halakoetan ohi den supletibismoaren adibiderik. *Etzan*-en paradigmari dagokionez, *dautza* erako formak *egon*-en pluraleko adizki zaharretatik eratorri zirela defendatu dut. *Izan*<sub>1</sub>-en formak, bestalde, berrituak izan zirela proposatu dut (3SG-eko *da* izan ezik, noski; beste supletibismo kasu bat), inoiz jatorrizko \**ezan*-etik zuzenean erorritakoek *etzan*-en paradigma osaturik eta datibo-komunztaduradunak laguntzaile iragankor (*izan*<sub>2</sub>) bihurturik.

Aipatzeke utzi ditut, azkenik, *izan*<sub>1</sub>-en datibodun forma historikoak, ezinbestean bigarrenkariak baitira; horiek ere *etzan*-en eta *izan*<sub>1</sub>-en arteko loturaren erakusgarri izan litezke; zehaztasunak zehaztasun, *-(i)tza-* (mendebaldean > *-txa-*) erroko afrikatua ezin azal liteke *lizate* > *litzate* bezalako analogiaz (*baliz* > *balitz* ondokoa hura), lehen testuetarik *na(i)tzaio* eta *natzako* erakoak ageri baitira, *baliz* eta *lizateren* ondoan, eta *etzan*-en forma berritua dakar gogora, baina, aldi berean, (\**i*- aurritzkiaren presentziak *izan* partizipioarekiko lotura erakusten du. Horren azpian, analogia prozesuez gain, paradigma hauen arteko eta barneko forma-esanahi harremanen konplexutasuna igar daiteke.

## 5.2. \**dun* erroaren paradigmak

Atal honetan \**dun* errotik eratorri izan diren zenbait aditz aztertuko ditut, bai eta proposamen berriren bat egin ere, etimologia horien nondik norakoak adizki jokatuen garapenarekin alderatuz eta lotuz. Horretarako, orokorrean onartutako interpretazio eta etimologia batzuk eztabaidagai izango ditut, nire ikerketa-ildoarekin bateragarri diren ikusteko eta azalpen berri edo osoagoak proposatzeko.

### 5.2.1. \**edun* / *edu**k*i

Lehen testuetatik bi aditz independente gisa agertzen dira, biak N-N<sub>k</sub> argumentu-egiturarekin, nahiz eta adieretan elkarrengandik gertuago ageri diren mendebaldean, oro har (OEH s.v. *edun*, *edu**k*i). Forma jokatugabeei dagokienez, *edu**k*i (mend. *edugi*) orokorra da; \**edun*, aldiz, beste partizipio batzuek “ordezkatu” dute. Mendebaldeko *eun/eute* gutxi batzuk kenduta, mendebalde-erdialdean *izan* erabili izan da eta, ekialdean, *ukan*.

Bi aditz hauen arteko harremana hainbat ikertzailek proposatu edo onartu dute (Lafon, Mitxelena, Trask, EHHE),<sup>30</sup> baina Lafonen proposamenaz gerotzik ez da askoz sakonago ikertu. Trasken azalpenari jarraikiz, honela laburbil daiteke hipotesi estandarra: \**edun* ‘ukan’ aditzari zehar-objektuarekiko komunztadura erantsi zitzaion (\**edun* + -ki > *edu**k*i) ‘norbaiti zerbaite eutsi’ adieran eta, ondoren, komunztadura hori galdu zuen sintaxian, baina morfologian arrastoa utzirik.

Hortaz, bi aieru edo aurretiko uste daude hemen ere onartzen dudan lotura etimologikoaren hipotesiaren oinarrian: 1) lotura hori lineala eta emendiozkoa da, alegia \**edun*/\**dadu* formetatik *edu**k*i/*daduka* (edo nahiago bada, \**daduko*) formak atera ziren zuzenean, lehenei argumentu bat (datibokoa) gehiturik; 2) \**edun*-en jatorrizko eta oinarrizko esanahia eta argumetu-egitura historikoki ezagutzen dugun bera zen, eta *edu**k*i-ren sortzezko argumentu-egitura ditrantsitiboa galdua zen lehen testuetarako.<sup>31</sup>

Hemen, ordea, galdera honetatik abiatuko naiz: nolatan berrinterpretatuko zen *edu**k*i aditza N-N-N izatetik N-N<sub>k</sub> erako izatera (eta historikoki duen esanahiaz), baldin morfologikoki markaturik egoteaz gain, oinarrizko \**edun*-ek bazirauen? Izan ere, euskararen historian N(-N<sub>i</sub>)-N<sub>k</sub> joko gehiago agertzeko joera ikus badaiteke ere perifrasietan (Creissels & Mounole 2017), beti N-N<sub>i</sub> aditzetatik aldaturikoak dira, eta bistean da balizko N-N-N > N-N<sub>k</sub> aldaketa hura ezin litekeela Creisselsek eta Mounolek proposaturiko “ergatiboagotze” prozesu berean sar.

Hala, jatorria azaltzeko hiru aukera logiko plantea daitezke, arestian esandakoari (i) bi alternatiba erantsiz (ii-iii):

<sup>30</sup> Blevins (2018) bezalako salbuespen bereziak gorabehera.

<sup>31</sup> Bestelakoak dira RSetako *deuko* edo Axularren *diaduko* erakoak, geroagoko “berreratorpen” sinkronikoak baitira.

- i) \**edun* iragankorra zen eta datiboa gehitu zitzaion (*eduki*), zeina atzera N-N<sub>k</sub> gisa berrinterpretatu zen (jatorrizko \**edun* ere gorderik).
- ii) \**edun* iragangaitza zen eta datiboa gehituta *eduki* [N-N<sub>i</sub>] sortu zen; eta hura, ondoren, N-N<sub>k</sub> gisa berrinterpretatu (cf. \**ezan-ez* § 5.1.1-en proposatutakoa).
- iii) \**edun* [N(-N<sub>i</sub>)] aditza zen berez, eta -ki gehituz hiperkarakterizatu egin zen, arrazoi morfosintaktikoengatik edo/eta pragmatiko-semantikoekin; eta, ondoren, N-N<sub>k</sub> gisa berrinterpretatu.

Esan bezala, lehen interpretazioaren alde egin da orain arte (gehiago zehazteke); eta Traskek, Schuchardti jarraituz, Haranederren adibide bat aipatzen du bere liburuan, haren aldeko froga delakoan (1997: 229); eta halaxe aipatu nuen Ariztimuño (2013b: 392) lanean ere:<sup>32</sup>

(602) *eduquico dio bere emazteari* (He, 1855: 172)

Alabaina, adibide hori ez da XVIII. mendeko jatorrizko eskuizkribuan ageri, baizik eta 1855eko Maurice Harrieten argitalpenari dagokio. Eskuizkribuan, Haranederrek pasarte hori bera *eta da egonen bere emastearequien* itzuli zuen (He, 1740: 181); hartan dakarren egiturarik antzekoena *atxekiko dio bere emasteari* da, zeina badakigun N-N<sub>i</sub> (*zaio*) zela lehenago, bereziki trinkoki jokatzean. Hortaz, nekez har daiteke ezer arkaikoren arrastotzat XIX. mende erdialdeko argitalpenean soilik agertzen den esaldia; areago, kontuan hartu behar da adibide horretako aditza perifrastikoa dela eta horrek ez duela erroaren beraren jokabide trinko zaharraz ezer erakusten.<sup>33</sup>

---

<sup>32</sup> Honela zioen austriarrak: “(...) in ‘atchekiko du bere emaztearekin’, „er wird seinem Weibe anhangen’ Matth. X IX , 5 Har. liegt ein zielloses unpersönliches Transitiv vor. So wird denn schliesslich auch das ‘k’ von ‘iduki’, bicc. ‘euki’ hierhergehören, mit andern Worten dies die ursprüngliche Form von ‘eutsi’ sein, wobei der Uebergang des ziellenden unpersönlichen Transitivs in ein zielloses persönliches anzunehmen ist: ‘da(d)uka’, eig. „es wird gehalten ihm [von ihm]’ (so z. B.: ‘edukiko dio bere emazteari’, „er wird seinem Weibe anhangen’ Mark. X, 7 Har.), dann „er wird gehalten [von ihm]’ (...)” (Schuchardt).

<sup>33</sup> Jatorrizko iturrietara jotzearen onuren beste adibide bat, beraz (ikus Iparragirre [2021] eskuizkribuaren eta argitalpenaren arteko aldaketa gehiagotarako; hizpide duguna, halere, ez da beste inon aipatu, dakidala).

Bestalde, 2022ko maiatzean sareratu zen tesi batean, aurrekoen interpretazioari eusten zaio, eta okerreko adibide bera eman, XVIII. mendekotzat aipatuaz: “That *eduki* had dative valency is further supported by the ABS-DAT-ERG periphrastic V+AUX group and dative argument noted by Schuchardt in Haranader’s eighteenth century translation of the Gospel of St. Mark *edukiko dio bere emazteari* ‘He will cleave unto his wife.’” (Broughton, 2022: 101).

Hala, testu zaharretako adizki hirupertsonal guztiak argiro *-auko/a-* oinarriaren gainean eraikiak dira (adib. *deucot* vs *daucat*; *diaduco* vs *daduca*); alegia, historikoki datibo-komunztadurrik ez duen forma fosilduaren gainean. Hortaz, ezin dira arkaismotzat jo, eta, beraz, aditzaren jatorrizko jokabideaz ez dute ezer adierazten.

Jakina, lekukotasunik ezak ez du hasierako hipotesia erabat ezeztatzen, ezen datibo-marka fosilda eduki, badauka (cf. [§ 4.3.2.4](#)). Alabaina, hemen proposatzen dudana da jatorrian *eduki* ez zela hirupertsonala, bipertsonala baizik; absolutibo-datiboduna, hain zuzen.

Horretarako arrazoi nagusiak bi dira. Lehena, hipotesi tradizionalean inork ez duela azaldu nolatan berrinterpretatu zen edo zitekeen bipertsonal gisa, eta daukan adiera historikoarekin, jatorrian ditrantsitiboa zen forma bat. Bigarrena, paralelismo gisa, *eutsi* ere  $N\text{-}N_i$  zela sintetikoki jokatzean, eta gerora  $N\text{-}(N_i)\text{-}N_k$  erako izatera igaro zela; eta hori perifrasietan soilik, joko trinkoa galdurik.

Tesi honetan planteatzen den hipotesietako baten barruan (historikoki absolutibo-ergatibo konfiguraziokoak diren hainbat aditz absolutibo-datibokoak zirela), eta aipatu joera historikoa kontuan harturik, *eduki* aditzerako  $N\text{-}N_i \rightarrow N\text{-}N_k$  bilakaeraren aukera aztertzea merezi duela uste dut. Horrek, baina, azalpen zehatzagoak behar ditu.

Gorago aipatu ii. eta iii. hipotesietara itzulia, baliteke garai batean ergatiboa eta datiboa, kasu batzuetan bederen, txandaka ibili izana ñabardura ezberdinak adierazteko; zela gertaeraren beraren alderdi jakin bat azpimarratzeko, zela parte-hartzaileren bat edo haren ezaugarrien bat nabarmentzeko. Ondoren, ñabardura semantiko ezberdinekin zeinek bere paradigma (berr)osatuko zuen, ohiko paradigma barneko berdintzearen bidez.

Beste aukera bat da txandakatzea beste postposizio batekin<sup>34</sup> edota absolutibo hutsarekin ere gertatzea (absolutibo bikoitzeko egitura batean, adibidez; cf. Lazarragaren *beste amore bilatuco nax*). Hipotesi honetan, \**edun* aditza NOR erakoa zatekeen jatorrian; [§5.1.1.3-n](#) \**ezan-i* buruz aritzean ikusi bezala, ohikoa da argumentu bakarreko existentzia-adierako formetatik abiatzea edutezkoak eratzeko, postposizio bidez jabea erantsita. Adieraz, azken batean ‘X-ren alboan (= X-rekin?) izatea’ bezalako zerbait zatekeen (cf. *eutsi*-ren forma trinkoen ‘atxiki, itsatsi’ adiera zaharra). Horren osagarri, Lakarrak (2002) *lagun* hitzerako proposaturiko \**la-dun* etimologia aipa daiteke: *lagun* - en adiera zaharrena ‘kide, laguntzaile’ izanik, jatorrian ‘(norberak) alboan duena’ ez, baizik eta ‘alboan dena’ zatekeen, \**dun-i* esleitu berri diodan adiera lokatibo-


<sup>34</sup> Ergatibo gisa gramatikalizatu zen \*-ga bera lokatiboa zela proposatu da (Lakarra 2011).

existentialari ondo egokitzen zaiona.<sup>35</sup> Aurreko aukeran bezala, datiboarekiko formek ñabardura ezberdina adieraziko zuten, eta paradigmak bananduko ziren.

Formari dagokionez, erraz azal daiteke *eduki*-ren paradigma Watkinse (1962) proposamen klasikoaren ildotik, eta horri gehiturik ergatibotze prozesuak eragin zukeen argumentuen izaera sintaktikoaren aldaketa. Horren arabera, 3. pertsonako \**daduko* (< \**dadu-k-o*) forma oinarri markagabetzat hartuko zen (ziurrenik N-N<sub>i</sub> zena N-N<sub>k</sub> gisa berrinterpretatu eta, beraz, -o amaiera 3. pertsonarekin gehiago lotzen ez zelarik), eta oinarri berri hori gainerako formetara hedatu zatekeen (21. irudia). Zalantza, ordea, ordezkatu zituen gainerako formek ere \*-gi atzizkia zeukan ala ez izan daiteke; alegia, forma ez ezik, datibodun-datibogabe kontrastea bera hedatu ote zen, baldin lehenago 3. pertsonan soilik egiten bazen, eta bilakaeraren zein puntutan gertatu zen.

Hortaz, ibilbide hau irudika dezakegu, abiapuntuaren araberako aldaerekin:

- i) \*-du- / \*-duki- bereizketa<sup>36</sup>
  - a. pertsona jakin bat(zu)ekin soilik egiten da (3. p. vs 1.-2. pp.?)
  - b. pertsona guziekin egiten da
- ii) morfologiaren orokortzea; bereizketa morfosemantikoa (datibo-markarekin) paradigma osora hedatzen da
- iii) paradigma berriaren sorrera (baldin (i.a)-tik badator) edo berdintze analogikoa (baldin (i.b)-tik edo (ii)-tik bada); paradigma 3. pertsonako formaren gainean (-duko/a-) eraikitzen/berdintzen da.



21. irudia: *eduki*-ren paradigmaren sorrera eta berdintze analogikoa

<sup>35</sup> Denis Creisselsi zor diot (k. p.) halako adiera batean pentsatu izana, duela hainbat urte izandako hizketaldi baten ondorioz.

<sup>36</sup> Zehazki, baldin (i) puntuan (a)-ko egoera bazen, ondoren (ii) nahiz zuzenean (iii) gerta zitekeen; aldiz, baldin (b) bazen, zuzenean (iii) gertatuko zen.

Gerta zitekeen, halaber, 3. pertsonaz bestelako formak, datibo-marka lehenagotik harturik ere, aldaketa fonologikoen ondorioz *\*edun*-en forma jokatuekin berdindu izana (adibidez, *\*dadug(i)t* > *\*dadut*).<sup>37</sup> Egia da kasu horretan pluraleko *-ku*, *-tzu*, *-te* alomorfoak bereizgarri izan zitzakeela *eduki*-ren paradigmak —cf. *jaku*, *jatzu*, *jate*—; edonola ere, singularreko formen presioa (bereziki 3. pertsonarena) nahikoa izan daiteke analogiazko aldaketarako.

Galdu genezake ea baden bilakabide horren punturen baten arrasto testualik, eta egia da Nafarroan lehen lekukotasunetatik ageri direla *-ki* osoarekiko aldaerak (603, 604):

- (603) Galçac baldin baytun eneac, heure on artuengatic **dausquin**, baldinba (NafEs-1, 125)
- (604) Jayncoac **gaduzquiela** guciak bere escutigaduzquiela (RosEtx-15a, 1r: 28)

Alabaina, badira bi datu forma horiek antzinako eta orokortzat hartzea eragozten digutenak: alde batetik, Nafarroan bakarrik agertzen dira halakoak (bat Iruñe aldean, beste bi Ros erronkariarraren gutunetako agur-formula batean); bestetik, eta bereziki, lehen testuetan *-ki-* hori pluraleko formetan baizik ez da agertzen, singularreko *-ka* ugariagoen alboan. Horregatik, Regueroren bidetik (2019: 440-441, 515), halako formak *-zki* pluralgilearen hedapenaren adibidetzat hartuko ditut (cf. Camino 2013: 114),<sup>38</sup> nahiz eta, beharbada, ezin bazter daitekeen erabat hirugarren pertsona pluralean iraun zezakeen *\*-zki-ø* baten orokortzea izatea.

Beste lekukotasun berezi, berantiarago eta, beraz, zalantzazkoago bat Damaso Intzak bildu<sup>39</sup> eta Mitxelenak iruzkindutakoa da, nafarra hori ere: Dorraoko *egon dauzkizie* ‘izan/eduki dituzue(?)’. Mitxelenaren ustez, *\*edun* aditzaren bilakaera izan liteke *egon* hori, eta hala izatera, mendebaldetik kanpoko lekukotasun bakarra litzateke (geografikoki ez oso hurrun, halere). Adizki jokatuari dagokionez, ordea, ez dago argi nola ulertu behar den, baina Damaso Intzak jasotako azalpenei kasu eginez gero, badirudi

<sup>37</sup> Beste jatorri batetik bada ere, interesgarri eta hemen aipatzekoak iruditzen zaizkit *egon*-en datibodun adizki zaharrak: esaterako, Etxeparenen *daut* ‘dagokit’ edo Lazarragaren *dauquezu* ‘dagokizuke’.

<sup>38</sup> Izan ere, Nafarroako Lizoaingoa da *-zki*-ren hedapenaren lehen lekukotasuna ere, 1599ko auzi batean: *dramasquite* ‘daramatzate’ (Maiora 2018: 146). Alde batera utzi ditut hemen azterketa bereizia behar duten *ikusi*-ren objektu pluraldun formak (adib. *badacusquit* [Etxep, XIII: 34] <*\*badakus-zki-t*) eta Leizarragak erruz darabiltzan *-zki-dun* inperatibokoak (cf. Oih. *ezarzkik* ‘ezar itzak’).

<sup>39</sup> “Unanu’ko Apez jaunaren eskutitz edo karta bat etorri zait eta artan esaten dit «Dorraun aitu dut eta oarturik nago egon aditza euki bezala artzen dutela. Aza onak egon dauzkizie? (Aza onak dauzkatzue?) Belak egon dauzkizie = Ba-dituzue argizariak? Onek irudi du laterazko *pecunia est tibi?*».” (Intza, 1921: 72).

‘zaizkizue’ ulertu behar dela, eta hala aipatzen du Erdoziak (2001) ere. Irizarrek eremu horretan *dazkizie* bildu zuen adiera horretarako (eta hala espero da Nafarroako hizkera batzuetako *da(z)ki-* oinarritik). Aldiz, laguntzaile ditrantsitiboarekin ere lot daiteke, formaz bederen: nahiz eta Irizarrek *dozkoizie* dakarren herri horretan, inguruetaiko formak ikusita, ez dirudi ezinezko, baldin semantikak eta sintaxiak lagunduko balute. Hortaz, ‘egon’ ala ‘ukan’, eta ‘zaizkizue’ ala ‘dizkizue’ ulertu behar den argitu behar da. Esan daiteke ‘egon dizkizue’-k ez duela zentzu handirik, eta esango nuke ‘ukan dizkizue’ ere ez dela oso logikoa azken buruan duen esanahiari begira. Hortaz, ‘egon/ukan zaizkizue’ interpretazioak geratzen zaizkigu (-au- diptongoak azalpenik ez badu ere). Edozein dela ere, eta beti ere lapsusa edo bestelako akatsen bat ez bada, azalpen horrek iradoki lezake edo 1) nola *egon*-en adierako aditz batek \**edun*-ena har zezakeen datiboko argumentua gehituta,<sup>40</sup> edo, nire ustez zailagoa dena, Dorraon \**edun*-en joko zaharra (N-N<sub>i</sub>) gorde zela, fosildurik bada ere. Azken aukera bat, bestalde, Damaso Intzaren berriemailearen bigarren itzulpenari jarraituz, mendebaldeko *eduki* *dauka* ‘badauka’ erako errepikapentzat hartza da: *egon dauzkizie* = \**edun dauzkazue* ‘badauzkazue’.<sup>41</sup> Hala balitz, Dorraon \**edun* (> *egon*) : *dauka* loturak *egon* : *dagokio* bikoteak bezala iraun zuela pentsatu beharko litzateke, baina, datu isolatu, zeharkako eta zalantzazkoa izanik, bego gehiegizko ondoriorik atera gabe.

Aldiz, baliteke \*-gi atzizkiren forma zaharraren arrastoak (hots \*-g(i)- > \*-k-aurrekoak) izatea Axularren eta Lazarragaren adizki berezi batzuetan, bokalartean igurzkari ahostuna galtzearen ondorioz. Kasu guzietan *-ka* (ustez < \*-ke) atzizkiaren ondoren: *daducayo* < \**dadu-ke-gi-o* eta, besteak beste, *beucai(que)* ← \**bedu-ke-gi*. Lehen adizkiaren kasuan (*dadukaio*), jatorrizko 3. pertsonaren datibo-komunztaduraren morfoa agerian da, testuinguruak datibo-komunztadurariik eskatzen ez badu ere; Axularren hizkeran (eta oro har mendebaldetik kanpo) *-ka* (< \*-g(i)-o) orokortu dela eta adizki hori *-ke* atzizkidun gisa interpretatu behar dela kontuan hartuta, arkaismotzat baizik ezin har daiteke, non, ohi ez bezala, \*-ke- > *-ka-* eta, apika arrazoi prosodikoengatik, \*-V-gi-o > -Vio gertatu zatekeen ([§ 4.3.2.2](#)-n defendatu bezala; ikus baita ere [§ 5.2.2](#)). Bigarren adizkiari dagokionez (*beukaike*), bi ezberdintasun ditu: alde batetik, ez *dauka* 3.

<sup>40</sup> Ziurrenik Monhoren eta XIX. mendeko beste autore lapurtarren *dagoka* ‘dauka’ erako formetan *egon* aditzaren adiera jakin baten eragina ikus liteke: *daukat* / *dagokat* ‘uste dut’ (cf. *nago...*), *-tzat neukan* / *nagokan* (OEH s.v. *eduki*).

<sup>41</sup> Erdoziak (2001: 339) *dazkazie* ‘dauzkazue’ dakar Dorraorako, inguruko herrietan *-zki-dun* formak ere ageri dira, Nafarroa hegoalde gehienean bezala.

pertsonaren datibo-komunztaduraren morforik eta, bestetik, -ke pleonastikoa hartu du amaieran. Hori erraz uler daiteke berranalisi eta analogiagatik: -ke > -ka aldaturik, aken hori errotzat hartu eta -ke marka berrezarri zaio, eta jatorrizko formak zeukakeen datiboko -o ezabatu da (haren falta arkaismo are zaharragotzat hartzen ez badugu, behinik behin), dela -ka 3SG.DAT gisa berrinterpretatu zelako, dela (ziurrenik) ordurako aditz hori N-N<sub>k</sub> erako gisa berrinterpretatua zelako.

### 5.2.2. \*edun / ukan

Arestian esan bezala ([§ 5.1.1.1](#)), *ukan* aditz jokatugabea Ipar Euskal Herrian (eta Erronkaribarren) erabili izan da; halere, testu zaharrenetan Nafarroa Garaian ere ageri da: Zannettiren kredoan eta Iruñeko auzietan, bai eta XVIII. mendeko Muruzabaleko eta Ororbiako testu batzuetan ere, zein bere bitxitasunekin.<sup>42</sup>

Hainbat autorek (Trask; Urgell; EHHE) aipatu dute *eduki* eta *ukan* etimologikoki lotzeko aukera, xehetasunak xehetasun. Laburbilduz, \**edukan* forma hipotetiko batetik letorke *ukan*, zeina modu batera edo bestera *eduki*-ren aldaera zatekeen; eta egia da \**educaite* aditz-izena aski hedatua izan zelako zantzuak badaudela (cf. Lcc *euchayteco* eta Laz *eucaiteco*, eta Leiz *eduqueiten*), eta hala \**educaite/edukeite* → \**eukan/\*euken* > *ukan/ukan* gerta zitekeela (FHV: 68).

Hipotesi horren arazoak bi dira, ordea. Batetik, lehen testuetatik *ukan* erabiltzen den eremuan *eduki* ere bada eta, Leizarragarengandik hasita Zuberoa-Erronkaribarretako lekukotasunetaraino, forma jokatu (*du, dauka*) nahiz jokatugabe (*ukan/uka(i)ten, eduki/eduk(e)iten*) desberdinak izan dituzte. Azken zehaztapen hori garrantzitsua da, izan ere, \**edun*-en eta *eduki*-ren adizkien bereizketa semantikoa garbien gorde den lekuetan baitugu *ukan* lehenaren ordezko gisa. Bestalde, Leiz-en *edukeite* forma XVI. mendearen amaieran agertzeak/irauteak berak ez luke zentzurik, baldin autore berak darabilen *ukaite*-ren jatorrian balego.<sup>43</sup> Ez dago, hortaz, motibazio semantiko garbirik etimologia horren alde (are kontrakoa baizik), eta kronologia erlatiboak zein banaketa dialektalak ere ez dute faboratzen.

---

<sup>42</sup> Zannettirena egitura pasiboetan ageri da, Leizarraga batek ere *izan* erabiliko lukeen testuingurua (baina cf. EspGut-etako *ukan* '(nonbait) izan' argia ere); Iruñeko lekukotasunak *uquindu* eta <*uquinun*> hapaxak dira (lehenak aurrean duen *alquiric* 'ahalkerik' hitzak pentsarazten du *uquendu* dela egiazki, eta orobat proposatzen du OEHk bigarrenaz, alegia, *uquinun* > *uquenen* irakurtzea); azkenik, XVIII. mendeko *iken* aldaera dugu Muruzabal eta Ororbiako testu banatan, lehendabizikoa balio iragangaitzaz.

<sup>43</sup> Are bokal ezberdintasuna kontuan hartu gabe ere.

Bilakaerari dagokionez, kontuan hartu behar da ezen *-aite* (> *-eite*) amaiera analogiaz baizik ezin dela azaldu. Izan ere, arestian neure egindako Joseba Lakarraren maximaren arabera, forma jokatuak, oro har, jokatugabeetarik eterri ohi dira, eta ez alderantziz (besterik da analogiazko aldaketa fonologikoak gertatzea norabide horretan; cf. § 5.1.2-ko proposamena *etzan* partizipioaz, eta hemen jarraian aipatzen dudana *\*edukaite* aditz-izenaz). Hala, bi gertakarik eragin ahal izan zuten *\*edukaite* (> *eduken*) forma, *edukite*-tik: batetik, artean aditz zaharretan ohikoak ziren *-ite* amaieren eredu dago, zeinetan [o/e > a] bilakaera dela-eta maiz *-a-* baitzuen aditz-izenak (cf. *betaite* ‘betetze’, *eridaite* ‘eridete’, *eraite* ‘erotze’, *jaiaite* ‘jaiotze’, *jaite* ‘jotze’, etab.);<sup>44</sup> bestetik, forma jokatuetako *-ka* erroaren parte gisa berranalizatu izanak ere lagundu zezakeen balizko *\*eduka-* oinarri bat eratzen (areago kontuan hartuta Lazarragaren partizipioa *e(d)ugi* dela, herskari ahostunaz).

Aditz-izen horiei loturik bada ere, parentesi txiki bat irekiz, ez dut uste Laz *eucaiqueçu* (birritan), *beucaique*, *baneucaique* adizkiek hizpide dudan aditz-izenaren analogiaz hartu dutenik *-i-* hori (*pace* Bilbao eta beste 2020b: 191, 41. oin-oh.). Kontuan hartu behar da autore beraren beste adizki ugarietan ez dela ageri eta, areago, aipatutako laurek gauza bat dutela komun eta berezi: *-ke* atzizkia. Horrek zerbaiten adierazgarri izan behar duela pentsa daiteke, batik bat Ax *dadukaio* ‘daukake’ (besteak beste) gogoan badugu, non *-io* (< *-(g)i-o*) bukaera *-ka-ren* (< *\*-g(i)-o*) baliokide den, eta ordea, *\*-ke->-ka-* gertatu den (ikus § 4.3.2.2 eta arestiko § 5.2.1). Hala, pentsa liteke Lazarragaren adizkietako *-kai-* hori ere *\*-ke-(g)i-* zela jatorrian eta, kasu honetan, beste *-ke* bat erantsi zitzaiela forma horiei, behin adizkiaren osaera berrinterpretaturik.

Nolanahi ere, aitortu behar da auziak ez duela azalpen errazik, baina, *ukan* aditzaren jatorriaren alderdi formala eta semantikoa bateratzen saiatuko naiz beste proposamen batekin.

Hasteko, ez dago zalantzak *\*edun* berreraiketa zuzena dela. Partizipioaren lekukotasun bakarra Landucciren *eun* den arren<sup>45</sup> (cf. orobat partizipioaren gaineko inperatiboak: *euk*, *euzu...*), herskaria gorde da ohiko adizki batzuetan (cf. *ninduen*) eta

<sup>44</sup> Cf. orobat Lazarragaren *isaite* ‘ixte’ eta *ausaite* ‘hauste’ (agian *-tzaite* atzizki konplexuaz; Urgell 2006), eta analogiaz baizik azal ezin daitekeen Zuberoako *igorraite* ‘igortze’ (Padilla 2017: 411-413).

<sup>45</sup> Hirutan, beti [izen + aditz arin] egituraren: *bearr eun* (*menester*), *miracuru eun* (*maravillarse*), *piedade eun* (*misericordia auer*). Aipagarria da azken adibidean *auer* itzultzeko darabilela *eun*; gainerakoetan, ordea, *euqui* da ordaina. Areago, *eun* hitzegiko *m-* letran ageri da (hor soilik eta bera bakarrik), eta *euqui* aurreko zein ondoko guztieta.

ErrZar *baleduque* arkaikoan; bai eta, beharbada, hapaxa den forma jokatugabe batean ere, ahoskabeturik (RS *ituten*). Gainerako aditz jokatugabeetan ere *eu-* dugu (605-609).

Aldiz, ez da ziurra adibide garbiagoak liratekeen Mendietaren margolaneko eta Bertso Bizkaitarretako *edutea* formak \**edun*-etik atereak direnik (610, 611). Gainerako lekukotasunei erreparatuta eta, batez ere, ikusirik lekukotasun zaharrena bederen (610) semantikoki hobeto ezkontzen dela *eduki*-rekin (-tzat *eduki* egiturak), arrazoi nahiko dago pentsatzeko ezen testuetako *edute-* guztiak *eduki*-renak direla.<sup>46</sup> Horrez gain, bitxia litzateke ezen, oraindik XVII. mendearen azkenaldera bizirik bazirauen, bokalarteko *d-dun* arrastorik utzi ez izana partizipioetan (areago, ez da partizipiozko forma gehiagorik Landucciren *eun* hartaz geroztik).

- (605) Garrastu adi icasterren ta neca adi **euterren** (RS, 553)
- (606) Christiñau fiel gustia dago asco obligaduric **euten** devocinoea vioz gustiric. Christoen Cruce Santeagaz (Bet, 2: 3)
- (607) Atseyn andia da amore **eutea** (OihBizk: 1)
- (608) Fedeau confesseetaco, eta onetan indar gueiago **euteco** (Kap, 25)
- (609) Vengaien desseoric ez **eutea** (Kap, 74)
- (610) bizcaitarrai confirmadu egunezan euren foruac ta eurac bera jauntçat **edutea** (MendKoa, 5)<sup>47</sup>
- (611) Paraliticoaren quejea / guizonic es **edutea** / nor baliadu daucazula / zeuen / terquedadea (BBizk, 38)

Bestalde, Haranburuk baditu beste bi *-d-dun* forma (612, 613), baina horietan, hain zuzen, argi ikus daiteke *eduki*-rekiko lotura: bata (612), Mendietarena (610) bezala, ‘(-tzat) *eduki*’ adierazteko darabil; bestea (613), aldiz, bateragarri da *eduki*-k izan ohi duen ‘gordetze’ edo ‘iraunarazte’ adierarekin.

- (612) Iaincoaren semea baino Barrabbas ohoina guehiago gendeac **eduitea** (Hb, 51-52)
- (613) çure seme Iaunagana fede vici bat, esperança cinezco bat eta amorio garbi bat guc **eduitea** gatic othoitz eguiçu (Hb, 56)

---

<sup>46</sup> Bitxia iduri dezake forma atzizkitua osoagorik iraun izanak, baina egitatea da *eduki*-ren bokalarteko herskari ahostuna gaurdaino iritsi dela, forma jokatugabe nahiz jokatuetan (beharbada erregistro edo molde jaso edo zainduago batzuetan). Litekeena da \**edun*-en higadura handiagoa haren zahartasunari eta laguntzaile funtzioa ere izateari loturik egotea.

<sup>47</sup> 1609ko <ecutea> erratatzat daukat, baina ez da auzi erraza. Nolanahi ere, beranduagoko kopiako <edutea> “zuzenketak” (CONTAV: 116) hura *eduki*-rekin lotzearen alde egin dezakeela uste dut, izatekotan.

Adieragatik ez ezik, formaz ere bateragarri da Haranbururen beste aditz-izen berezi batzuekin: *idoki-tiko idoite* (cf. Oihenarten *itoite*) eta *ideki-tiko ideite* (cf. BBizk *idete*, eta Laz, Ax *edete* < *edegil-ki*).

Horiek horrela, \**edun*-en forma jokatugabeen adibide guztiak mendebaldean ditugu, *ukan*-en eremutik urrun. Ekialdeari dagokionez, berriz, *ukan* eta *uken*-en ondoan, *ekun* ere badugu, Erronkaribarren. Han-hemenka *u-e* > *e-u* metatesia gertatu dela proposatu izan bada ere, hipotesi gisa alderantzizkoa ere plantea liteke kasu honetan; *ekun* dela egoera zaharra, alegia. Halaber, *ekun* hori *ekute*-ren bitartez \**egute*-ra eta, beraz, \**e(g)un*-era eraman liteke. Honela irudika genezake bide osoa: \**edun* > *eun* [e.un] > \**egun* (cf. Dorraoko *egon*? ) → \**egute* > *ekute* → *ekun*.<sup>48</sup> Hortik abiatuta, kontsonante belarraren eta atzeko bokal biribilduaren konbinaketaren berranalisi segmental baten bitartez (cf. *euskara* > *eskuara*, bilakaera bera ez badu ere), \**eukun*<sup>49</sup> gerta zitekeen, nondik, gorago aipatu -*aite* erako aditz-izenen analogiaz, \**eukaiten* (> *ukaiten* > *ukeiten*) eta, atzera, \**eukan* (> *ukan*; eta *ukeiten* → *uken*) ager zitezkeen.<sup>50</sup> Horrela, erro ezezagun batera jo gabe eta ekialdean iraun duen *eduki*/\**edun* bereizketa semantikoa begiratuz, \**egun* aldaera eta haren bilakaerak (→ *ekun* → (...) → *ukan*) berreraiki daitezke (erdi-)ekialderako, mendebaldean *eun*-ek iraunik, *eduki*-k (eta *izan*-ek) lekua hartu arte.

### 5.2.3. \**edun* / \**edutsi* / *eutsi*

Aditzon arteko harremana modu ezberdinan azaldu dute ikerlariek (loturarik eza proposatu duenik ere bada). Esaterako, \**edun* aditzaren eta \**edutsi* laguntzailearen arteko lotura defendatu zuen Traskek (1995),<sup>51</sup> eta hari jarraituz Lakarrak (2006b), lehenari -*ts*

<sup>48</sup> Forma honetatik azal liteke zuzenean Erronkaribarko *ekun* eta Etxarten *ikun*, nahiz eta, alderantziz, Rosek *ukan* darabilen.

<sup>49</sup> Beste aukera sinpleago bat metatesi hutsez *ekun* > *uken* proposatzea litzateke, Irigoinenek egin bezala, baina *u* eta *e* bokalikoen arteko metatesisirik ez omen da beste ezein hitzetan ikusi (Egurtzegi 2015: § 8.3.3). Edonola ere, Erronkaribarko forma jatorrizkotik gertuen gorde dena litzateke. Kasu honetan, Rosen gutunetako *ukan*-ek ez du zertan erronkarierazko forma zaharra islatu (adierazgarria da Etxartek behin darabilen *ikun* ere), testu bereko beste ezaugarri batzuekin gertatzen den moduan; esaterako Rosen beraren -*te* ergatibo-pluralgilea (*dute*, *diroquete...* baina baita ere *due*, *dirozkei*), Etxarten -*erau-* erroko laguntzaileen eta *gauza* hitzaren agerpen ugariak, baina *aizo* (eta behin *gai-* idazten hasi eta *gauza* zuzenduta), edota bien *i\_u* > *u\_u* gabeko formak (Ros *zaitut*, Etxart *zitüt*), baina Etxarten *baiküttü*. Hortaz, baliteke ezaugarri batzuen kronologia uste zena baino berantirragoa izatea, baina zenbait kasutan (-*e* pluralgilea, adibidez) errazago ulertzten da hautu pragmatiko-estilistiko (soziolinguistiko) gisa.

<sup>50</sup> Nafarroa Garaian lekukoturiko *iken*, agian, \**eukan* > \*(*e*)*ikan*-etik erator liteke, ez bada *izan*-ekiko analogiaz azaldu behar (adiera horrekin ageri baita, *izan* ere; OEH s.v. *ukan*).

<sup>51</sup> Egiazki Schuchardt izan zen lehena, baina hark *eduki*-rekin lotu zuen *eutsi*, -*ki* > -*tsi* (ustezko eta ezinezko) aldaketa fonologikoaren bidez.

datibo-marka erantsirik (cf. *dio* ‘esaten du’ / *diotso* ‘esaten dio’).<sup>52</sup> Aldiz, Lakarrak berak \**duts* erro beregaina izan zitekeela proposatu izan du (nondik -*ts* atzizkia berranalizaturik beste aditz batzuetara hedatuko zen), eta badirudi EHHEn (s.v. *eutsi*) aukera horri eutsi zaiola, Traskena ere aipatzen bada ere. Edonola ere aurreko proposamenek ez dute argitu aditz laguntzailearen (edo bestela esanda, aditz laguntzaile ditrantsitibo gisa gramatikalizatu zitekeen balizko \**edutsi*-ren) eta NOR-NORI jokoa zuen aditz sintetikoaren arteko harremana. Neure proposamena aurkeztu aurretik, aipatu bietan sakonduko dut, horien azpiko aurreusteak eta dauzkaten implikazioak azaleratzeko.

Lehen hipotesiari dagokionez, Trasken etimologiak \**edun* iragankorra (N-N<sub>k</sub>) behar du oinarrian, datiboa gehitzean aditz ditrantsitiboa atera dadin; aurreko puntuau ([§ 5.2.1](#)) eman ditut jatorrian \**edun* iragangaitza zela pentsatzeko argudioak eta, beraz, ez naiz horretan luzatuko, baina hala izatera, \**edun*-en N-N<sub>i</sub> → N-N<sub>k</sub> aldaketaren ondokotzat jo behar da \**edutsi* ditrantsitiboa sorrera.

Bigarren proposamenari dagokionez, ez daukat argudiorik \**duts* erroa izan zela ukatzeko, baina, edonola ere, EHHEn oharkabean pasatu den xehetasun bat berrekarrako dut: *eutsi* aditz nagusiak (trinkoa zelarik) N-N<sub>i</sub> jokoa zuen (614-615); beranduago agertzen da, eta perifrasietan soilik, N-N-N jokoan (*atxiki* bezalaxe). Alabaina, ordurako gramatikalizaturik zegoen \**edutsi* laguntzaile ditrantsitiboa; hortaz, ezin lezakete bi aditzek etimologia berbera izan. Bestalde, ez dugu \**edutsi* horren (ustez jatorrizko) ‘eman’ adierako forma jokatugaberik, dialektala eta, hortaz, *eman* baino berriagoa zatekeen arren.

(614) **Ausho** Perucho Vrdeorri, eta neuc iesdaguidan (Garibai, A26)

(615) eztacart gorguera, **eztaust** gona (Laz, B15:17)

Azkenik, eta hurrengo puntuarekin lotuz, bada beste arrazoi bat *eutsi* aditz nagusia eta \**edutsi* laguntzailea elkarrekin zuzenean ez lotzeko: lehen testuetan bazen \**edutsi* aditz nagusi ditrantsitiboa ere, semantikoki \**edun* iragankorrarekin lotu daitekeena (616-623), eta nekezago arestian aipatu *eutsi* ‘atxiki’ zaharrarekin. Areago, proposatzen dudana da garai batean bazela \**edun* iragankorraren (cf. [§ 5.2.1](#)) eratorri ditrantsitiboa sortzeko aukera (egun *daramat* → *daramakiot* bezalatsu), eta hala sortu zela \**edutsi*, \**eradun*-en antzera; alegia, ez zela oinarrizko ‘eman’ adierako (‘norbaitek zerbait inoren

---

<sup>52</sup> Edo, zehatzago, \*-*tz* marka: \**eunzte* > *euste* → *eutsi* (Lakarra, 2006b: 598).

esku ezarri') aditz baten gramatikalizazio berezia izan (cf. *\*enin*), baizik eta datibogehiketa arrunta baizik.

Egia da Mounolek (2011: 348-349; 2015) ‘eman’ adierako aditza proposatzen duela (*\*eradun*-entzat bezala; baina ikus § 5.2.4), laguntzaile ditrantsitibo gisa gramatikalizatu ahal izan zedin. Nire ustez, ordea, *\*enin* eta *eman* (eratorri zaharra) aditzek baizik ez dute ‘eman’ adiera betea izan; eta *\*edutsi*, aldiz, *\*edun*-en datibodun forma jokatuetarik sortu (cf. *\*jadun*, § 5.2.5) eta ondoren gerturatu zen esanahi hartara, beharbada *\*enin*-en formekiko gertutasun semantiko eta funtzionalak lagundurik (laguntzailea, *\*edun*-en datibodun forma gisa gramatikalizatua).

- (616) esquerric asco **deustet** (frJZum, 40)
- (617) ain da nic **deusadan** amorioa andia (Laz, AL, 1147v: 11)
- (618) Bada bere, nic çuri / **deusudan** amorioa ayn firmea dan azquero (Laz, AL, 1151v: 10)
- (619) Ene capea oial ona da, / neure diruac costaric, / iñoenari **ezteusalá** / bapere inbidiaric (Laz, A23: 51)
- (620) Amore poderosa, jauna, / asco **deusut** esquerric (Laz, A14: 14)
- (621) linda damea, asco **deusut** / nic aregaiti esquerric (Laz, A23: 27)
- (622) **ezteust** agaiti anse bapere (Laz, B17: 3)
- (623) salvo çor **deustaçun** amorea (Laz, B3: 75)

Adibideotan ikus daitekeenez, sentipenak dira *\*edutsi*-rekiko lokuziookin adierazten diren ia denak (esker ona, maitasuna, bekaitza, antxia), baina partaideen rolak ez dira guztieta modu berean markatzen (edo, bestela esanda, berdintsuak izan arren, ez dira rol berberak).

Alde batetik, amorioa, inbidia eta esker ona norbaitek (nahita edo oharkabean) eragiten dituela esan daiteke, eta lokuzio hauetan datiboz markatzen da hura. Izan ere, eragiten duten sentipen horien helburu ere bada (baina ez onuradun/kaltetu ezinbestean); sentipenen esperimentatzalea, ordea, ergatiboz markatzen da. Egia da *esker(rak) eman* lokuzioa ere testu zaharretatik ageri dela, baina, beharbada, trinkoen erabilera eta lokuzio analitikoena bereizi beharko genituzke; historikoki *eman* da adiera horretako forma jokatugabea duen aditz bakarra (cf. *\*enin*), eta adiera ugari eta oso zabalak ditu, ez ezinbestean edo zuzenean laguntzaileen gramatikalizazioarekin lotuak.

Halaber, zor *\*edun*/*\*edutsi* alternantzian (623) ergatiboa zor egoera hori “esperimentatzen” duena da (kaltetua, zorra duena), eta datiboz markatzen dena zorraren

eragilea (orobat zorrak kaltetua; baina, kitatzekotan, onuradun datekeena). Hau aurrekoak baino urrunago dago ‘eman’ adieratik.

Aldiz, datiboan markaturik ageri da *antsiaren* esperimentataile izan litekeena (622), eta ergatiboari dagokion argumentua *egoera* bera dela dirudi, eragilea beraz (“horrek ez deust antsiarik” bailitzan). Kontuan harturik ezen hitz horren beste agerraldian *arc enegaiti oy oraingaño / eztau edugui ansiric* dioela Lazarragak (A14: 32), esan daiteke \**edutsi* kasu honetan \**edun*-en “arazole” edo argumentu-eransle funtzioan dela (*ukan du* → *ukanarazi dio*), baitezpadako ‘eman’ adieraren beharrik gabe.

#### 5.2.4. \**edun* / \**eradun* (~ *erauki*)

Mounolek (2015) erakutsi bezala, \**eradun* aditzak badu ‘eman’ adierarekiko lekukotasunik, eta pentsa daiteke \**enin* aditza bezala adiera hartatik gramatikalizatu zela laguntzaile ditrantsitibo gisa. Halere, bi zalantza planteatu nahi ditut hemen aditz horren inguruau: formala bata, bilakaerari buruzkoa bestea.

Morfologiari dagokionez, arestian adierazi dudan moduan, bazen \**eradun* laguntzailearen eremuaren bihotzean *erauki* aditz bat, funtsean ‘eman’ adiera zuena eta, beraz, laguntzailearen gramatikalizazio-iturritzat jotzeko hautagai egokia datekeena; areago kontuan harturik ezen, gutxi-asko, -ki atzizkiaren arrastoak hizkera guztieta ageri direla.<sup>53</sup> Edonola ere, alternantzia ere gerta zitekeen jatorrian, \**edun-eduki* bikotea aztertzean esan bezala (cf. orobat *egon-egoki(tu)*).

Aldiz, gramatikalizatzeaz denaz bezainbatean, \**edutsi*-rekiko zalantza bera sorrarazten dit aditz honek: egiazki ‘eman’ adierako aditz nagusi batetik garatu ote zen, ala zuzenean \**edun*-en forma ditrantsitiboak sortu ziren (zeinak, noski, testuinguru batzuetan \**enin*-en adiera bertsua baitzuketen, hura laguntzaile gisa ordezkatu ahala areagotu zitekeen parekotasuna). Leizarragaz kanpoko adibide urriak aztertuz, erdietan (624-625) adiera ez da ‘eman’ literala (perpaus jokatugabeetan *eman* aditza erabili arren), eta bai ‘*ukan(arazi)[+dat]*’ batetik gertuagokoa, eta beste bietan, *eman* aditza erabili ohi da testuinguru bereko lekukotasun gehienetan eta adierazpide fosilduen itxura dute (cf. *esker* hitzarekikoak). XVII. mendekoaren kasuan (627), agian, \**enin*-ekiko parekatze

---

<sup>53</sup> Egia da zubereraz *deio* (<*dereio*) dela, baina cf. bizk. *deuat* ‘diat’ (-ts gabe), eta *deita-*, *deiku* ere hor dira, herskari ahoskabetuaz. Bestalde, eta zubereraren berrikuntza izatea ez ezik, ezin bazter daiteke *dereio* < \**derao* < \**deraiio* < \**deräuio* etimologia ere, datibo-markaren beste alomorfo batekin.

erabatekoaren ondorio da (gogoan izan *dio* gorde dela hainbat tokitan \*eradun-en paradigmaren barruan, 3. pertsonarako):

- (624) Ceren bada **daraucate** emaztiari hoguenic? (Etxep, III: 34)
- (625) Galdu valin badituću ceren oguen **derautaçu?** (Etxep, IX: 25)
- (626) Nic **draudaçut** fede çu emazte arçeco (EsparEzk, 1)
- (627) Jatean **drauco** viçia (MAld, 88)

Leizarragak, ohi bezala, corpusekoak baino are ale gehiago dakartza (628-639); edonola ere, ez \*enin-enak bezainbeste. Erdiak *esker* \*eradun-enak (628-633) eta beste bi *promes eman*-enak (634-636) dira, geroagoko testuetan ere fosildurik ageri zaizkigun bi lokuzio. Beste bat (627) adibidearen antzekoa da (637). Azkenik, (638) adibidekoak ‘ukan[+dat]’ adiera du argiro, eta (639) arazletasunetik gertuko egitura bat da (egia da, halere, azken horren forma jokatugabe edo analitikoetan *eman* aditza erabiltzen dela).<sup>54</sup>

- (628) Esquerric othe **drauca** cerbitçari hari, ceren eguin baititu manatu içan çazcan gauçac? (Leiz, Lc 17-9)
- (629) Lehenic behinçát esquer **draucat** neure Iaincoari Jesus Christez çuen guciocgatic (Leiz, Rom 1-8)
- (630) baina abundatzen-ere badu anhitzec Iaincoari esquerrac **drauzquoten** becembatean (Leiz, 2 Cor 9-12)
- (631) Esquer **diarocat** Iaincoari (Leiz, 2 Tim 1-3)
- (632) Esquerrac **drauzquiagu** hiri Iainco Iaun bothere-gucitacoa (Leiz, Apoc 11-17)
- (633) Iainco Aita eternala, gure bihotz guciaz esquer **drauagu** (Leiz, ABC 1412-23)
- (634) Jesus Christ Iauna bethi iabeturen çaiçu promes **draucun** beçala (Leiz, Adv 268-35)
- (635) ecen hala promes **draucu** eta bere hitçaren Iabe da (Leiz, Som 278-3)
- (636) Huna, **badrauquet** bothere suguen eta escorpionen gainean ebilteco (Leiz, Lc 10-19)
- (637) Ecen Iaincoaren ogua da cerutic iautsi dena, eta munduari vicitze **draucana** (Leiz, Io 6-33)
- (638) Halacotz othoitz eguiteco **draucagu** (Leiz, Cat 1355-5)
- (639) Gauça guciac hiregana beha diaudec Iauna, eta hic **drauec** iatera bere demborán (Leiz, ABC 1410-27)

---

<sup>54</sup> Tentagarria da pentsatzea historikoki ikusten den *-ten/-tera* banaketa dialektalaren aurretik *-ten* zela orokorra (*-tera* erromantzeetako *a* preposizioaren kalko gisa hedaturik?), eta egituraren bilakaera honela izan zitekeela: *jaten du* → *jaten derauko* ‘janarazten dio’; → *jaten ematen derauko* → *jatera ematen derauko*.

Bestalde, corpusean ez dut topatu Lazarragaren *deusudan amorioa* erako egiturarik \*eradun aditzarekin; horren ordez, Etxeparek \*edun/eduki inorgana dio (640-642),<sup>55</sup> eta nafar auzibideetako lekuko (ustez iruindar) batek ere zenbait aldiz dakar *inorekin amorio* \*edun/eduki egitura.<sup>56</sup>

- (640) Nic hargana hanbat **dicit** amoryo handia (Etxep, VI: 7)
- (641) Harc nigana **eztaduca** vnsa leyaldateric (Etxep, VII: 29)
- (642) Nic nola **daducat** amore çugana (Etxep, X: 24)
- (643) nic amorio **daucat** Miguel de Anocibarequi (NafEs-2, 103)
- (644) eta beldurra dut neques edequico çaydala arequi **dudan** amorioa (NafEs-2, 103)
- (645) eztit bada edequico niq arequi **dudan** amorioa (NafEs-2, 104)<sup>57</sup>

Horrenbestez, eta lehenago \*edutsi-rekin ikusi bezala, adibideokin erakutsi nahi izan dut ezen, kasu askotan (gehienetan agian) \*eradun-en erabilera trinkoak ez duela baitezpada ‘eman’ esanahi prototipikoaren beharrik (alegia, ‘eman’ adierako aditz lexikorik) jatorrian. Nolanahi ere, ikusten da \*eradun trinkoa *eman* edo \*enin baino gutxiagotan erabili izan dela (eta bereziki esapide batzuetan), eta pertsona eta, batez ere, denbora-moduen aldetik murritzago. Kontuan hartuta datuen argitan \*enin dela laguntzaile ditrantsitibo zaharrena eta orokorrena (Bizkaitik kanpo, behintzat), esanguratsua da ikustea nola \*eradun berriagoak ordeztu zuen ia erabat erabilera horretan (ekialdeko hiru testu zaharrek \*enin-en adizki bana besterik ez dakarte: Leizarragak *zion*, Etxep *dio*, Oih *diotza*)<sup>58</sup> eta, aldiz, iturburuan zatekeen erabilera trinkoan \*enin baino urriagoa zen \*eradun. Horiek horrela, errazago uler liteke jatorrian ez bazen ‘eman’ adierako aditz beregaina (*eraukiren* lekukotasuna hor bada ere), baizik eta \*edun-en adizki ditrantsitiboa (arazlea berez, baina argumentu-gehitze gehiagotara hedatua), bereziki esapide batzuetan ‘eman’ adieratik gertu zatekeena, eta nolabait \*enin laguntzailearen baliokide. Azkenean, haren lekua hartu ahala, sortzez ez zituen adierak ere bereganatu zituzkeen.

<sup>55</sup> Lazarragak ere badu behin: çugana **deudan** amorioac / oy iñon ez dau caburic (Laz, A16, 1184r: 31).

<sup>56</sup> Berdin-berdina ez bada ere, Oihenartek [inorengana zordun izan] egitura dakar [inori zor \*eradun] izan zitekeenaren tokian: *Jainkoagana, ukhenago duena da zordunago* (OihAtsUrrh: 636); baina cf. *Cembaç çor draucac ene nabussiari?* (Leiz, Lc 16-5).

<sup>57</sup> Amorioa edeki, Etxeparek bezala: Iangoycoa edetaçu amoria gogotic (Etxep, VII: 27).

<sup>58</sup> Lapurtar klasikoek ere badarabilte, baina murriztapen bertsuekin: esaterako, Materrak (salbuespen batekin) orainaldian baizik ez darabil, datiboko eta absolutiboko hirugarren pertsona singulararekin beti; Voltoirek orainaldiko datiboko hirugarren pertsona singularrekin, baina badu objektu pluralarekiko adibideren bat, Oihenartena bezala; Axularrek datiboko hirugarren pertsona singularrekin darabil, eta objektu singulararekin baizik ez, baina zeinhai denboratan.

### 5.2.5 \*edun / \*jadun


Dagoeneko azaldu dut § 4.4-n *jago~diago* erako adizkien gaineko neure proposamena, hortaz, hemen etimologia horrek dakartzan implikazioetan eta galdera berriean jarriko dut arreta, labur bada ere, paradigma hori \**dun* erroaren sare barruan dagokion lekuaren kokatzeko.

Alde batetik, kontuan hartu behar da balizko \**jadun*-en erabilera trinkoaren adibiderik ez dela dokumentatu eta, ordea, gainerako (indikatiboko) laguntzaile ditrantsitiboena bai; hori arkaismo handi izateari egotz lekiroke, beste daturik ezean. Beste aldetik, \**e-* → *ja-* aldaketak berak ere, baliabide morfologiko zahar baten isla denez, arkaismoaren hipotesia indartzen bide du.

Alabaina, beste ikuspegi bat hartu dut neure analisian, beste laguntzaileen garapenerako proposatutakoarekin bat eginez: forma jokatuetan gertatutako berrikuntza morfologiko bat litzateke, edo are morfonologikoa, datibodun zaharren (=alokutiboen) eredura: *dau* → \**jauo* >> *jago*. Horren ondorio lirateke adizkion hedadura txikia eta, beharbada, erabilera trinkorik eza: laguntzaile funtzioan baizik ez zatekeen gertatu berrikuntza.

### 5.2.6. Ondorioak

Atal honetan zehar proposaturiko etimologiak eta garapenak laburbilduz, \**dun* erroa iragangaitza zela proposatu dut, eta lehenik gehitu zitzzion argumentua datiboa (edo historikoki datibotzat daukaguna) izan zela, eta geroago aldatu zela ergatibora, ziurrenik berrinterpretazio baten ondorioz. Hots, euskara zaharrenean N-N<sub>i</sub> konfigurazioa garai historikoetan baino ugariago agertzen zela eta, ondoren, hainbat aditz N-N<sub>k</sub> bilakatu edo berrinterpretatu zirela ikusi dugu beste behin (cf. § 5.1.1 eta, beharbada, § 5.3).



22. irudia: \*dun erroaren familia-zuhaitza

Hortik abiatuta, gainerako proposamenak bi multzotan sailka daitezke: alde batetik, \*edun-en joko zaharretik ( $N-N_i$ ) azal daitezkeen formak, eta, bestetik, \*edun-en joko berritik ( $N-N_k$ ) azal daitezkeenak. Lehen taldekoak lirateke *eduki* eta (baldin \*duts errotik ez badator) *eutsi* zaharra; bigarrenekoak, berriz, \*edutsi (eta \*eradutsi), \*eradun (~erauki?) eta \*jadun-en paradigmak.

Berritasunetan nabarmentzekoak dira bi hauek: 1) *eutsi* trinkoa eta \*edutsi laguntzailea (kronologikoki eta etimologikoki) desberdindu beharra; 2) *ukan*-en eta *eduki*-ren etimologia berri(tu)ak (besteak beste, forma jokatuen eta jokatugabeen artean gertatu ziren elkarreaginak proposatuz, eta neure ustez ez ziratekeenak baztertuz).

Azkenik, N-N-N aditz laguntzaile ugariren iturburu komun eta, era berean, kronologikoki (eta dialektalki) ezberdina agerian utzi nahi izan dut, defendatuz ezen guztiak ez direla, ezinbestean, ‘eman’ esanahidun (ez eta bestelako) aditz nagusietarik gramatikalizatu, baizik eta batzuk datibogabeko formeい (g)uneko baliabide morfosintaktikoak aplikatuz eratorri zirela, eta, joko trinkoen kasuan, *eman*-en adieretara hurbildu.

### 5.3. \**kin* eta \**din* erroen paradigmak

Izenburuan bi erro aipatzen badira ere, \**kin* izango da aztergai nagusia atal honetan, besteak beste hura baita, historikoki bederen, bietatik datibo-komunztadura egiten duen bakarra; areago, bestearren joko datiboduneko erro supletiboa ere bada. Hain zuzen, harreman paradigmatiko horregatik, eta, hein batean, etimologikoa ere proposatu izan denez (esaterako, \**dadikion* >> *dakion*), \**din* erroaren inguruabarrik ere aipatuko ditut lehenik.

#### 5.3.1. \**din*

Jakina da \**din* erroa (edo, nahiago bada, \**edin* aditza) trinkoki jokaturik ere ageri dela testu zaharrenetan ‘bihurtu’ (646) edo ‘izatera iritsi, sortu’ (647) esanahiaz. Aldiz, gaurdaino iraun duen erabilera bakarra haren gramatikalizazioa da, laguntzaile iragangaitz gisa (indikatibotik kanpora mugatua egun; cf. 648, 649).

- (646) Ausa zala euriaz loyza **çidi** (RS, 358)
- (647) Abraham **cedin** baino lehen, ni naiz (Leiz, Io 8-58)

Joseba Lakarrak (2006c) *jin* aditzarekin lotu zuen, eta xehetasun formal edo morfologikoak gorabehera, bat egiten dut lotura horrekin, baina ‘etorri’ adieradun partizipio historiko horretarako \**e-(i-?)da-din* eratorria berreraikiz (Ariztimuño 2012). Hain zuzen, Lakarrak berak aipatu lanean *jaio* aditzaren oinarritzat ematen du berreraiketa hori, *-o* atzizkia gehituta.

Lehenago ([§ 4.1.5](#)) eta hurrengo puntuan (eta ikus [§ 6.2.2.1](#)) erakutsi bezala, \*(i-)da- aurrizkia(k) edo, orokorrago esanda, partizipioetako *e-* : *ja-* txandakatzea beste aditz batzuetan ere ageri da, baina haren funtzioa edo esanahia ez da beti garbia, hainbako forma jokatu nahiz jokatugabeak kontuan hartuz gero. Litekeena da argumentu-egiturarekin zein aditzaren bestelako ñabardura semantikoekin loturik egotea jatorrian eta haren bilakaera diakronikoan zehar.

Bestalde, “aoristo zahar” esan ohi zaion perifrasian \**edin* aditzak historikoki izan duen perfektibozko adierari dagokionez (648, 649), zehaztapen batzuk egin beharra dago.

- (648) ai ichi ta joan **cidin** bere esera (Laz, AL: 1144v)
- (649) Aharra **citen** artzainac, aguer **citen** gaznac (Zalg, 99)

*Izan*-en eta *\*edin*-en arteko banaketa paradigmatikoaren arrazoia haien berezko inperfektu/perfektu tasunetan eta perifrasien arteko ezberdintasun morfologikoetan (Lafon 1943; Aldai 2002; Mounole 2014) bilatu izan bada ere, gramatikalizazio-bideez eta geruez dakiguna kontuan harturik (Bybee eta beste 1994, eta Mounole 2014: II, I, § 2.2.4 eta IV, I, § 2.1.) eta Urgell (2018) lanaz geroztik, ez bide da halakorik behar.

Alde batetik, testu zaharretan *izan*-en iraganeko forma trinkoen perfektibozko adiera ere dokumentaturik dago (650-655),<sup>59</sup> beste zenbait aditz ateliko edo estatiborena bezala. Bestetik, Urgellen (2018) proposamenari jarraituz, *\*edin*-ekiko perifrasietako aditzoinak partizipioak besterik ez bide ziren jatorrian; hots, funtsean, *ibil(i) zedin* eta *ibili zen* garai ezberdinan gramatikalizaturiko egitura baliokideak dira jatorrian, lehenaren kasuan bilakabide fonologiko ezagunen ondorioz aditz nagusiaren itxura aldatu bada ere.<sup>60</sup>

- (650) **Nincén** Spiritutan Igande egun batez, eta ençun neçan neure guibelean voz handibat (Leiz, Apoc 1-10)<sup>61</sup>
- (651) Nic orain diot inox ez **çala** / ipuçarric, güçurric, / cegaiti gauça equinic ezta / munduan secretocoric (Laz, A23: 5)<sup>62</sup>
- (652) bada emen noys ere bayt jaurri çarra **çela** [itzulpenean: que ubo] erraten oy çuten (AritzAuz, 1)
- (653) nola goure erregue iaunac bere Conseilhu Privatuyan, azquen Bordelen **cenian** ['Bordelen izan zen azken aldian'] (EtxRos-02, 1r: 8)
- (654) Gaixto gaixta **ninçan** ['izan nintzen, jokatu nuen'], / Berdin vici **ninçan** [bizi izan nintzen]. (Zalg, 191)
- (655) Lotsa **ninزان** [J'ai été effrayé] eznea zen isuri, bana aita da hil, Jainkoa esker zuri (OihAts, 304)

<sup>59</sup> Zaila da adibide garbi ukaezinik aurkitzea, ezen maiz testuinguruak baizik ezin baitu argitu interpretazio zuzena zein den; hortaz, adibideok ez dira ezinbestean burututasunezko balioaren erakusgarri ziurtzat hartu behar, baina bai bateragarritzat bederen. Nire irakurketa (edo jatorrizko itzulpena) parentesi zuzenen artean ezarri dut beharrezko ikusi dudanetan.

<sup>60</sup> Aldai (2020) lanean *\*e-* aurritzidun aditzen aditzoin/partizipio bereizketa antzinakoa dela defendatzen du autoreak, besteak beste aditz laguntzaileen (*\*edin*, *\*ezan*, *\*edun*) eta haieneko perifrasien arteko ezberdintasun morfologiko eta aspektualak kontuan harturik. Nire ustez, Urgellen (2018) proposamena aski asebetegarria da formari dagokionez; hortaz, perifrasion arteko ezberdintasunak gramatikalizazio-bideari (sorrera-kronologiarri eta garapenari) zor zaizkiola pentsa daiteke, gainjartzen diren geruzen ikuspegia hartuta (Bybee eta beste, 1994; Mounole 2014).

<sup>61</sup> Testuinguruak berak argi uzten ez badu ere, orduko eta egungo beste bertsio batzuei erreparaturik (bai erdarazkoei ere: frantses, gaztelania, latin, grekera), burutu gisa interpretatu behar bide da.

<sup>62</sup> Cf. Mounoleren azalpenak: «Le deuxième exemple de Lazarraga est moins clair. Çala peut en effet être interprété comme un parfait expérientiel («*nunca ha habido*») – équivalent de la forme périphrastique des exemples (101-102) de Leizarraga cités ci-dessus – ou comme un passé narratif («*nunca hubo*»). Nous sommes quand même plus tentés par la première interprétation» (Mounole, 2014: 41).

Adibide sintetiko horiei, nire ustez, Euskara Arkaikoan [participioa + *izan*] perifrasia zuen erabilera gehitu behar zaie, *izan* aditzaren adiera zahar hori isla bailezake iraganeko formetan, (656) adibideko bezalako pasibo gisakoetan behintzat:

- (656) *Iltean il ninçan, da aztu ninçan* ['ahaztua izan nintzen'] (Lcc, 328)

Bide batez, bitxitasun moduan, gutxitan aipatu den Jean Saroïhandyren (1918) lanean ere antzeko zerbait proposatzen da, aldeak (nabarmenak) alde; alegia, antzina euskarak (lapurterak, haren lanean) kideko bi perifrasi sail zituzkeela, aditz laguntzaile eta aditz nagusiaren molde banarekin.<sup>63</sup>

Nolanahi ere, esan bezala, bi perifrasiok ez ziratkeen inoiz erabat baliokide izan, zeren eta *erresultatibo > perfektibo > iragan* gramatikalizazio-bideko urrats ezberdinetan gertatu baitira. Hala, partizipio/aditzoin banaketa historikoen araberako jatorri berezirik bilatu beharrik gabe, berezketa hartarinoko bidea, baita formala ere, albait xehekien eta koherenteen azaldu nahi izan dut, Mounoleren eta Urgellen lanak bateratzeko moduan.

### 5.3.2. \**kin*

Hasieran esan bezala, \**edin*-en paradigmaren barruan kokatzen dira (funtzionalki, etimologia gorabehera) atal honetan aztergai izango dudan \**kin* erroko laguntzaile-funtzioidun adizkiak (657, 658). Bestalde, *ekin* aditz sintetikoa ere lehen testuetarik agertzen zaigu, baina \**edin* trinkoaren ‘bihurtu’ adierarekin bateratzeko zail gerta daitezkeen esanahiak ditu: ‘jardun, egiten segitu’ (659, 663) edo ‘egiteko bati lotu, zerbaitetan hasi’ (660, 662); aldiz, (661) adibidekoa bietara uler liteke.

- (657) supitamente **baequion** / uzcar andi bat soltau (Laz, B12: 23)  
 (658) guen **aquit** ortic borracho dollor xarrori (NafEs-2, 120)  
 (659) Ar eçac mayazean / aunz bal[z]aren eznerean, / ta **aquio** veti / betseguien eznerean (RS, 411)  
 (660) Adin onari **aquio** (Garibai, A8)  
 (661) amorantian **lequidanari** / atera neio beguiac (Laz, A4: 19)

---

<sup>63</sup> Esaterako, haren adibideak aipatzearen: *xar dadi* ‘il entre’ = *xartsen da* ‘il entre’ (Saroïhandy, 1918: 176). Iraganeko formetan, paraleloki, *xar sedin* eta *xartsen sen* parekatzen ditu, bietan ‘il était entré’ itzulpena emanez; bistan da itzulprenaren okerra eta hemengo ildoarekiko aldea. Bestalde, Mounolek (2015: 312) haren lana kritikatzean aipatzen dituen *xar daiteque* ‘il entrera’ eta *har dessaque* ‘il prendra’ itzulpenei dagokienez, Saroïhandyren “antzinako lapurteraren” deskribapen-berreraiketaren testuinguruan ulertu behar dira, eta ez bere garaiko euskarakotzat emanik bezala.

- (662) Eta hura ilkiten cela bideari **lequionçat** [pour se mettre], norbeitec... (Leiz, Mc 10-17)
- (663) Ethor nadin artean, **aquió** [sois attentif] iracurtzeari, exhortatzeari, doctrinari (Leiz, 1 Tim 4-13)

Mendebaldetik kanpora forma trinkoak urriak dira, nahiz eta, aipatu Leizaragaren gain, cf. beherago Elduaingo ziri-bertsoetako (664), Isastiren (665) eta, agian, Etxeparereren (666) adibideak. Forma jokatugabeak, aldiz, ondo lekukotuak dira Lapurdin ere (OEH s.v. 1 *ekin*). Horrez gain, aditzaren orokortasunaren berme eta, nire ustez, jatorrizko adiera berreraikitzeko lagungarri, Zuberoako *ekin* (OEH s.v. 2 *ekin*) eta *ekhintü* (OHE s.v. *ekindu*) hitzak ere baditugu: lehenak, ‘hazi (adj.), azkor; lerde; harro’ eta ‘goiztiar’ adierak ditu (A. ‘crecidote, gallardo, fanfarrón’; Lh. ‘grand, précoce, fanfaron’; cf. A. *ikhin* ‘(persona) precoz’); bigarrenak, berriz, ‘hazi (ad.); aurrera egin’ eta (adjektibo funtzioan) ‘harro’ edo ‘dotore, lerde; heldu’ (Lh. *Gizun ekinthu bat* ‘un homme fait’; Lrq. ‘fanfaron; portant beau ou belle’).

Azkenik, *jakin<sub>1</sub>* eta *jakin<sub>2</sub>* aditzak ditugu. EHHEn azaltzen denez, horiek ezin dira \**edadikin* bezalako zerbaitetatik azaldu (cf. Lafonen \**dadikion* >> *dakion* proposamena), arrazoi morfo(fono)logikoak tarteko, eta *ekin*-*ekin* lotzen dituzte.<sup>64</sup>

Nolanahi ere, hitzon lotura etimologikoa aipatuagatik, haien arteko harremanak eta bilakaerak ez dira behar beste zehaztu. Izañ ere, ez da lan erraza horien kronologia erlatiboa lerro zuzen batean kokatzea, haien azpian abar ugari (eta beharbada gurutzaketak ere) baitautza, nire ustez.

Hasteko, puntu hau argitu behar da: 1) *ekin* aditza \**edin*-en paradigma supletibokoa ote zen hura laguntzaile gisa gramatikalizatu baino lehen ala 2) zein bere aldetik egin ote zuen bide hori, \**edun* [N-N<sub>k</sub>]-erako gramatikalizatu zen bezala *izan*-en alboan, edo \**enin* [N-N-N]-erako, \**edun*-etik aparte.

<sup>64</sup> Bestelako loturak ere aipatzen dira lan horretan. Alde batetik, *irakin* aditza erro bereko arazletzat analizatzen da (‘ekinarazi’) eta, bestetik, erroa komitatibo-atzizkiarekin (eta ustez harekin zerikusia duten beste funtziobatuekin) lotzen da, *ekin* “aditz komitatibo” gisa aipatuz.

Lehenaz ez dut iritzi sendorik, baina egiazkoak dirudi, erregimena kontuan harturik bilakaera xeheki azaltzeke badago ere (argumentu bakarreko *ekin* zahar baten arazlea ote?); bigarrena, aldiz, ez zait horren onargarria begitantzten. Aditz komitatiboek, zentzu hertsian, ‘elkarrekin egon’ edo ‘elkarrekin egin’ bezalako esanahiak dituzte eta, zentzu zabalagoan, nolabaiteko lotura adierazten duen beste ekintzaren bat, hala nola ‘(inori) jarraitu’, ‘lagundu’. Alabaina, *ekin*-ek ez du halako oinarrizko adierarik izan (eta ez dugu berreraiketan behar), ‘egiteko bati lotu’ parafrasia gorabehera. Hala, hiztegiaren egileek berariaz aipatzen duten Isastiren erre Frau koa ez da, nire ustez, ‘(zerbaiti) atxiki, heldu’, baizik eta ‘sortu’; alegia, ez zerbait kanpotik itsastea, baizik eta, izatekotan, barrutik garatzea (cf. [664, 665] adibideak). Beste aukera bat ‘jazo’ adieraren bidez azaltzea litzateke, hain zuzen Lazarragaren *jakin<sub>2</sub>*-ek zukeena, hiztegi etimologikoaren egileen ustez.

Ildo horretan, interesgarriak dira esanahi zehatz ezezaguneko forma batzuk, zeinak ‘sortu, garatu, hazi’ adieretatik hurbilekoak diruditen:

- (664) veguietan **daquila** beteria (ElduBerts 32)
- (665) Chindurriari **daquitzanean** egoac, galdu oi ditu gorputza ta besoac [itzul. “A la hormiga quando le nacen las alas, perder suele el cuerpo y los brazos”] (Isas, 21)

Ez dago argi, aldiz, Etxeparereren adibide hau nola interpretatu, *mesuratu* aditza ere ez baitago ongi dokumentaturik euskaraz (cf. OEH, s.v.), batez ere esaldi honetan egoki litzatekeen adieraren batekin:

- (666) Andriac hon deriçanari **ezpadaqui** mesura, / Ni lehenic eta guero amoros oro galdu da (Etxep, XII: 42)

Bestalde, nahiz eta (665) adibidekoa N-N<sub>i</sub> forma arrunta izan daitekeen (cf. *zakizkio~zakitza* erako aldaerak), deigarria da beste bietan (664, 666) datiboko komunztadura-markarik ez izatea. Izan ere, laguntzaile funtzioan den beste forma batean (667) gauza bera ikusten da:

- (667) Vzqur baquio ecachari, **sendaquipue** eguzkiari (RS, 251)

Datu gutxiegi dira (eta erratak edo lapsusak ere tartean izan daitezkeela baztertu gabe), baina zilegi bekit, testuen edo esaldien izaerari erreparatuta (madarakazio-formula [664], errefrauak [665, 667], euskarako testu inprimatu zaharrena [666]), arkaismo baten aurrean gaudelako hipotesia plazaratzea; datiboko hirugarren pertsonak (absolutibokoak eta ergatibokoak bezala, hain zuzen) komunztadura-marka agerikorik ez zukeen<sup>65</sup> garai bateko ezaugarria, alegia.

### 5.3.2.1. (\**ekin* vs *jakin*<sub>1/2</sub>: \**da-* aurritzkiaren gorabeherez

Forma jokatuei begira, oro har, *-ki-* erroa baizik ez dugu ikusiko, hiru adiera/funtziotan: N-N<sub>k</sub> jokodun trinkoa (*berak asko daki*), N-N<sub>i</sub> trinkoa (**nakion bideari**), eta egitura bereko aditz laguntzailea (*ondo joan dakion opa diot*). Forma jokatugabeak, aldiz, bi itxurapean agertzen zaizkigu, *e-* edo *ja-* hasierarekin; *ekin* trinkoa, *jakin*<sub>1</sub> trinkoa eta \**ekin* berreraiki edo aipatu ohi den baina Lazarragak *jakin*<sub>2</sub> dakarren aditza, laguntzailea gehienetan, baina baita aditz nagusi gisa ere. Bada, bestalde, kontuan hartzeko beste datu bat: *jakin*<sub>1</sub>-ek, orainaldiaz kanpoko formetan, \**da-* aurritzki

---

<sup>65</sup> Edo testuinguru guztietai nahitaezkoa ez zena, behinik behin (cf. § 3.2.3.2; eta § 5.2.1).

etimologikoaren (cf. Mitxelena 1954a: 132-133) arrastoa erakusten bide du lekukotasun zaharrenetako batzuetan (cf 668-671) adibide gutxi izanagatik orokorra dirudien arkaismo gisa; aldiz, \**ekin* edo *jakin*<sub>2</sub> laguntzailearen formetan ez da halakorik.

- (668) Baguêduco **baguineaquique** (RS, 406)
- (669) eta arrc eçe*aquia*la asenturic baue an (NafEs-2, 146)
- (670) Respondatu ciun ezi Pariseco Parlamentuyac **vaziaquiala arch çer potere çuen (RosEtx-13, 1r: 14)**
- (671) Ene gogoa **balyaqui** mayte vide nynduque (Etxep, V: 13)

Lazarragaren eskuizkribuko *jakin*<sub>2</sub> jokatugabeari dagokionez (672-675), \**ekin* laguntzailearen \*da- aurritzidun aldaera bide da, eta aditz nagusi gisa ere badarabil (672, 673), zenbaitetan argiro egun *izan* erabiliko genukeen kasuetan (674, 675):

- (672) Jaun Cerucoay emaiten jagot / oy asco gueraciari, / deseо neben ocasio bat / cerren nagoan **jaquinic** (A23: 1-4)
- (673) Oyta capa bat emunagaiti / ez nax gueratu piloxic; / inori emun bajagot bere, / ez nago damu **jaquinic** (A23: 57-60)
- (674) donzella batec joci ceban / Iruneco calean, niri ondo costa **jaquin** / Guipuscoaco lurrean (Sasiola, B33: 15-18)
- (675) Doncella, cegati çaoz / enegaz enojaduric, / çurequin ene aitasuna / orrela anci **jaquinic?** (Laz, AL: 1142v)

Adibideotan ikus daitekeenez, *gertatu* aditzetik (672?) edota *izan* aditzaren adiera iragankorretik (673) gertuko erabilerak ere bazituen, eta semantika hori erraz ulertzten da *izan* iragangaitzari datibo-argumentua gehitzearen ondorio gisa (cf. [§ 5.1.1](#), [§ 5.1.3](#), eta hemen beheragoko proposamena).

Elduaingo ziri-bertsoetako (664) eta Isastiren errefrauuko (665) adizkiak ere erro berekoak bide dira (cf. TAV: 124 eta EHHE s.v. *ekin*), baina *ekin* aditzaren ohiko esanahietatik aldentzen dira. Horrek zenbait galdera edo aztergai dakar, kontuan harturik *ekin* historikoak ere N-N<sub>i</sub> konfigurazioa duela, ageriko morfologia gehigarririk gabe.

Mendebaldean, lehen testuetatik, *ja-* hasiera beste inon baino ugariagoa eta emankorragoa da, nola erakusten baitute forma jokatu datibodun/alokutiboetako *da-* → *ja-* baliabide morfofonologikoak (*jago* ‘dio’ erakoak barne) eta beste hizkeretan ageri ez diren hitz eta aldaerek: *jaurti* (cf. *aurtiki*), *jarrugi*, *jarrekin*, *jagon*, *jazo* ([§ 5.1.3.2](#)), eta Lazarragaren zenbait aditz jokatugabetako (\**e-* → *ja-* datibo-komunzadura (*jagin*, *jakin*<sub>2</sub>)). Hasiera batean, ez dakigu forma horiek guztiak arkaismoak (sinkronikoki emankorrak zein lexikalizaturiko forma zahar orokorrak) ote diren, ala berrikuntza

dialektalak (beharbada noizbait (bir)morfologizaturiko bilakaera (morfo)fonologiko baten emaitza sinkronikoak edo ez horren zaharrak). Dena dela, esanguratsua dateke Lazarragak berak darabiltzan *difinçuen* ‘ipin diezazuten’ eta *jafındaçu* ‘ipin iezadazu’ formekin alderatzea. Lehena *-fin*-erroaren gainean eratua da, \**daifinzuən* edo \**definzuən* batetik (vs *badafinçu* ‘ipinten baduzu’, *dagizu* vs *degizu* erako balentzia-kontrastea eginez); bigarrenak, aldiz, partizipioaren gainean eraikitako ohiko inperatiboa dirudi, baina \**e-* → *ja-* aldaketa dauka (birritan darabil Lazarragak, eta ez da halako besterik beste ezein testutan). Bestalde, bada *niri ifinten* jokatugabe bat ere, kontuan hartzeko. Autore berak, aldiz, *eguidaçu* darabil inperatiboan (ez \*\**jaguidaçu*), baina *jaguin*, jokatugabe datibodun gisa (cf. *reberencia jaguiteco* ‘hari erreberentzia egiteko’ vs *niri ifinten*, ez \*\**jafinten*).

Hortaz, Lazarragak \**ekin* zaharrago batetik *jakin* forma eratu ote zuen, aditz laguntzailearen datibotasuna markatzeko (nola gertatzen baita, arkaismoa zein berrikuntza izan, *egin/jagin* bikotean)? N-N<sub>i</sub> adizki laguntzaileak ohiko *ekin* aditzetik gramatikalizatu ziren zuzenean, ala \**ekin* zaharrago (eta beharbada jatorri ezberdineko) batetik? Azkenik, zer esaten diezagukete *ekin* historikoaren adiera eta eratorri ezberdinek haren jatorrizko esanahiari eta, bide batez, etimologiari buruz?

### 5.3.2.2. Erroko kontsonanteaz

Azken urteetan Joseba Lakarrak Martineten teoriaren aldeko zantzu gehiago aurkeztu ditu, \**thur* > *hur* ‘ur’ (cf. *iturri*) eta \**khar* > *har(tu)* (cf. *ekarri*) bezalako adibide iradokitzaleekin, besteak beste (2018: 115-116). Hala eta guztiz ere, nabarmena da aditz erroetan fortis/lenis oposaketaren errendimendu eskasa.<sup>66</sup> Aztergai ditudan \**kin* erroko aditzak kenduta, *ekarri*, *etorri*, *ikusi* eta *ikasi* (eta haien eratorriak) dira fortisduen bakarrak, lenisdun askozaz ere ugariagoen aldean. Areago, gutxienez *ekarri* erraz lot daiteke *egari* aldaerarekin (cf. OEH, s.v.); bai eta *etorri* (jarraian emango ditudan azalpenak onartzen badira) *erori*, *idor* eta *lortu* hitzekin ere (\**dor* erroarekin, alegia). Hala, *ikusi* eta *ikasi* gelditzen dira azaltzeke, baina \**khus* edo \**khlas* erroak berak ere ez dira beste ezein hitzetan ageri, Lakarrak haietarik eratortzen dituen *huts* eta *hats* erroez landa.

---

<sup>66</sup> Egia da jatorrizko *h*-dun errorik ez izatea edo berreraiki ahal ez izatea hots horren “lehen jatorria” hain zuzen haietan egoteari egotz lekiokeela, baina, dakidala, ez da halako proposamenik egin, ez eta argudio gehiagorik eman. Nolanahi ere, bestelako argudio eta ebidentziarik ezean, nire hipotesiari eutsiko diot.

Aldiz, ugariak dira ahostun / ahoskabe aldaerak dituzten eratorriak, txandakatze gardenaz edo gutxienez azalpen etimologiko errazekoak: halakotzat jo izan dira *ebagi* : *epai(-)*, (\**eden* : *eten*, *egotz* : *ekoiz-*, *ebats* : *epais-*, *edeki* : *etekin*, eta gaurdaino iraun ez duten *e(\*d)un* : *itute-* eta *idogi* : *itoite-*.<sup>67</sup> Hortaz, zilegi bikit planteatzea *ekinek* berak ez ote duen sorburua aldaera ahostun batean, alegia, *egin* aditzean.<sup>68</sup> Jarraian, lotura hori azaltzeko proposamenaren bi aldaera aurkeztuko ditut.

Proposatzen dudanaren arabera, jatorrian N-N<sub>i</sub> nahiz N-N<sub>k</sub> konfiguraziokoa zatekeen aditza, aldagai pragmatiko batzuen arabera (objektuaren erasate maila edota agentzia-maila, adibidez). Formari dagokionez, aditz izena *egite* → *ekite* aldatu zatekeen eta, hartatik, → *ekin* atera; gerora, berriz ere *egin* : *egite* bikotea berrosa zitekeen, analogiazko berdintzeen bidez bi paradigma berezi sorraraziz. Bitartean, *egin* aldaerak morfosintaxi iragankor “arrunta” hartu edo finkatuko zukeen (\**edun-en* eta \**ezan-en* eredura, adibidez), hura burututasunari lotuago izaki, eta *ekite* berriak, aldiz, aspektu burutugabearen ñabarduraz horniturik, ‘etengabe egite’ edo ‘egiten haste’ esanahiaz lexikalizatuko zen (perfektibotasunaren “kontrako” adierak, nolabait), eta \**edin-en* eremura hurbildu, ‘egiten hasi’ > ‘sortu; bihurtu’ aldaketa semantikoaz<sup>69</sup> Halaber, datiboz markaturiko argumentua esperimentatzale/jasaile rolean berrinterpretatuko zen (beste aditz batzuetan hala izaki lehendik ere), beharbada bi argumentuak 3. pertsonakoak ziren formetatik hasita, halakoan anbiquotasun morfologikoa lagun (cf. Isastiren errefrauako eta Elduaingo ziri-bertsoetako adizki trinkoen adierak); ondoren, > ‘(norberari) jazo; eskamentua izan’ moduko aldaketa semantikoa tarteko, *jakin-en* adizkien ohiko adierara iritsi zitekeen.

Beste aukera bat litzateke, berriz, urrats bat harago joatea eta \**gin* errorako jatorrizko NOR(-NORI) jokoa proposatzea, beste aditz gerora iragankor batzuen modura

<sup>67</sup> Ez dut adierazi nahi zerrenda honetako bikote guztiak inoiz orokorrak eta aitzineuskaratik zuzenean eratorritakoak direnik, bilakabidea bera baizik (gehi bekie *ikan* ‘igan’ aldaera, eta, § 5.2.2-ko etimologia onartuz gero, *ukan*). Edonola ere, haietako batzuk analogikoki eraturiko txandakatze berantiarrak izateak berak ere behinolako emankortasun eta hedaduraren alde egingo luke, izatekotan.

<sup>68</sup> Nabarmenzkoa da herskarien bilakabide hori *-te* atzizkiarekin gertatu zela, ez *-ki* rekin (cf. *edu*ki < \**edu(n)-ki*, baina *ituten* < \**edu(n)-ten*); *itoite* ‘idokitze’ bezalako formek, izan ere, \**ido(g)i-te* berreraikitzera garamatzate, agidanez *-ki* aldaera orokortu baino lehenagokoa. Ildo berean, erka bitez Leizarragaren *aurdigi* aditzoina eta *aurditen*, *aurtiten*, *aurtikiten* aditz-izenak (Zulaika 1998: 161, 167)

<sup>69</sup> Forma jokatuetan aditz-izenetiko partizipioaren aldaera ahoskabedunen adibide argi eta orokor askorik ez bada ere (cf. arestian aipatu *egari* : *ekarri* eta (\**eden* : *eten*), beste kasu are bereziago bat proposatu du berriki Joseba Lakarrak (prestatzen) \**edun-en* pluraleko *it-* “aurrizkiarekiko” formak azaltzeko: haren ustez, RSen ageri den *ituten* aditz-izenak erakusten duen *itu-* oinarria gramatikalizatu zen pluraltasunaren adierazle gisa, *i-* (< \**e/\_Cu*) erroaren partetzat berrinterpretaturik, burutugabetasunaren “iteratibotasun” edo “errepikapen” kutsua objektu plurala adierazteria igaroaz.

(cf. § 5.2). Hala, adiera aldetik errazagoa dateke jatorrizko ‘sortu’, ‘gertatu’ edo ‘gauzatu’ bezalako zerbaitetatik abiatzea (cf. *jakin<sub>2</sub>-z* esandakoa, eta ikus *jazo-ren* etimologia § 5.1.3.2-n), arestian proposatutako ‘sortu’-rekin lotuta, iragankor gisa berrinterpretaturik historikoki dugun ‘egin’ izatera iristeko.<sup>70</sup>

### 5.3.3. Bilakaera osoa eta kronologia erlatiboa

Aurreko puntuetañ adierazi dudanez, lotura etimologikorik eza ere litekeena den arren, uste dut ezin bazter daitekeela *ekin* eta *egin* erroen jatorri komunaren hipotesia.

Horrenbestez, bi aukerak xehatuko ditut jarraian, orain arte aztergai izandako erro eta aditzen arteko lotura etimologikoari begira: hipotesi “arina”, eta hipotesi “gogorra”. Lehendabizi, *ekin*, *jakin<sub>1</sub>* eta *jakin<sub>2</sub>-ren* eta haien arteko harremanen bilakaera azalduko dut, urratsez urrats, eta ondoren *egin*-ekiko balizko loturarekin osatu (ikus bukaerako 23. irudian proposamenaren eskema).

#### 5.3.3.1. Hipotesi “arina”: \**kin*

- 1- Lehenengo aldi batean, \**kin* balentzia iragangaitzeko erroa zatekeen (‘agertu, sortu’ antzeko adierakoa), zeinari argumentu bat (datiboan) erants zekiokeen: edo (a) esperimentatzaile rolean, baldin absolutiboa zihohan argumentua bizigabea bazeen (‘norbaiti zerbait agertu, sortu’ → ‘gertatu’), edo (b) objektu edo jasaile rolean, subjektu absolutiboa biziduna bazeen (‘norbaiti zerbaiti agertu, gertatu’ → ‘norbaiti zerbait egiten hasi’, ‘norbaiti zerbaitekin ekintzaren bat egiten hasi’). Lehen adieraren (a) arrastoak lirateke, izan ere, Elduaingo ziribertoetako arao-formula (19) eta Isastiren atsotitza (20).
- 2- Uneren batean, aditz-erroak (edo orduko forma jokatugabeak) ere morfo bat (aplikatiboa? lokatiboa?) hartu zukeen, bereziki (edo soilik?) zehar-argumentua biziduna bazeen, eta subjektua bizigabea; hala, \**e-da-kin* (→ *jakin<sub>1</sub>*) adieraz bereizi eta bere paradigma osoa eratu zuen, esperientzia eta, ondorioz, jakituria adierazten zuela: ‘gertatu’ → ‘esperientzia izan’ → ‘jakin’.

---

<sup>70</sup> Hipotesi horrekin bateragarri dira beste datu hauek ere: alde batetik, datiboarekin loturiko partizipioetako -*ki* atzizkiaren -*gi* aldaera (zaharragoa) eta, bestetik, morfo beraren alomorfoak diruditzen -*k* eta -*i* aldaerak (< \*-*gi*). Horiek \**giC* itxurako erro batetik datozena pentsatzuz, \**gin* bera proposa daiteke sorburutzat. Hala ere, bateragarri diot, eta ez indargarri, ezen datibo-komunztadurarekiko loturaren nondik norakoez ez dute argirik egiten, argumentu-gehitzeko bide baten gramatikalizazioaz besterik.

Bide batez, *jarrekin* aditza ere erro berekoa ez ote den pentsa daiteke, aurrizki gehiagorekin (\*e-da-ra-?), baina jatorrizko ‘agertu’ adieratik gertuago. ABS-DAT konfigurazio horretan, argumentu biziduna agentziarik gabeko subjektu esperimentatzale gisa ulertu izan zitekeen, eta horrela garatuko zuen ‘norberari (ustekabean) agertu’ → ‘topatu’~‘aurkitu’ adiera.


- 3- Azkenik, aditz laguntzaile gisa gramatikalizatuko ziren (a) adierako jatorrizko formak (Lazarragaren *jakin*<sub>2</sub>-renak, baina adizkietan \*da- morfoaren arrasto oro galdurik, hura inoiz orokorra izan bazen, *jakin*<sub>1</sub>-enek ez bezala; cf. *balekio* vs *baliaki*); eta (b) adieratik, aldiz, *ekin* historikoa genuke (norbait zerbaiti gertatzea → norbait zer horretan hastea; cf. *bideari ekin, irakurtzeari ekin*).

### 5.3.3.2. Hipotesi “gogorra”: \*gin

Hipotesiaren aldaera honen arabera, esandako guztiaz gain, eta § 5.3.2.-ko argudioei helduz, \*kin erroa \*gin-en alomorfo zahar bat litzateke, funtsean *ebagi*-tik abiatuta *epai* azaldu ohi den bezala, edota, nire ustez, *ekarri*-ren eta *egari*-ren artean dagoen harreman etimologikoaren antzera.

Kasu honetan, ordea, behinola bereizitako erro bakoitzak bere paradigma trinko propioa garatu zukeen, analogiazko aldaketak eta orokortzeak tarteko.

Jakina, proposamen hau tentuz hartu beharra dago. Alde batetik, erroaren aldaera zaharra \*gin dela pentsatu beharko dugu (eta ez \*kin, nahiz eta horrek ere aski zaharra behar duen), euskararen eta aitzineuskararen bilakaera fonologikoaz dakiguna kontuan harturik. Bestelako berreraiketek (*gi-* aurritzia < \*gin erroa) eta, horiekin loturik, Trasken Legeak ere (-gi/-ki atzizkiak), ondorio berera garamatzakete. Bestalde, aipatu zahartasunak implikazio batzuk dakartzia kronologia erlatiboan: baldin *ekin* alomorfoa *ekite*-tik atzeranzko eraketaz sortu zela pentsatzen badugu, eta berori < *egite* formatik, eta aldi berean *jakin* aditza erro berekotzat badaukagu, *ekin* aldaeraren sorrera *e-* : \*e-(i-)da- (edo ordurako *ja-*) eratorpen (edo txandakatze) morfosintaktikoa bizirik zirauen garairaino eraman beharra dago (nahiz eta *ja-* analogiaz emankortua ere izan zitekeen; cf. Lazarragaren *jagin*, beste inon lekukotu gabea izateaz gain, *egin*-en forma hirupertsonal orokorretan islarik ez baitu).



23. irudia: *\*gin~\*kin* erro(ar)en familia-zuhaitza

## 6. Ondorioak

Azken kapitulu honek hiru helburu ditu, tesia borobiltze aldera. Lehen atalean ([§ 6.1](#)) aurreko kapitulueta ondorio eta emaitza behinenak laburbilduko ditut, ikuspegi orokorra marrazteko; lanean zehar joan naiz atalkako ondorioak aurkeztuz eta, hortaz, haietako zenbait gogorarazi eta nabarmendu baizik ez dut egingo hemen. Bigarren atalean ([§ 6.2](#)), emaitza horietatik eta, oro har, tesiko hipotesi, analisi eta proposamenetatik abiatuta ondorioetan sakonduko dut, noiz ziurrago, noiz zuhurrago. Amaitzeko ([§ 6.3](#)), aurreko guztiari jarraipena eman diezaioketen galdera zenbait planteatuko ditut, euskal aditz jokatuaren morfologia ikertzen segitzeko ildo gisa.

### 6.1. Emaitza nagusiak

Corpusaren parteari dagokionez ([§ 2](#)), tesi honetarako Euskara Arkaikoko adizki jokatuen orain arteko datubaserik osoena eraiki dut,<sup>1</sup> lehenagoko autoreek (Schuchardt, Lafon, Mounole) erabili gabeko eta harrezkerotik aurkituriko lekukotasunak ere erantsiaz; adizki bakotza morfosemantikoki etiketatz, morfologikoki deskribatz, eta beharrezko testuinguruaz horniturik.

Kapitulu horretan eskainitako ~2500 sarrerako adizkitegiaren bidez, datubasean bilduriko adizki ezberdin guztien berri eman dut. Hala, Euskara Arkaikoko aditz jokatuen ikuspegi orokor (baina era berean xehea) eskaintzeaz gain, aditz morfologiaren azterketarako eta aditz laguntzaile ([§ 2.2.1](#)) zein trinkoen ([§ 2.2.2](#)) konsultarako tresna izan nahi luke, besteak beste hurrengo ikerketetarako abiapuntu gerta ledin.<sup>2</sup>

Ondorengo kapituluan ([§ 3](#)), lehenik ([§ 3.1](#)), ikusi dugu ez dela datibo-marka esklusiborik ezein dialektotan (\**i*-, \*-*gi*, -*ts*). Areago, alomorfo eta bilakaera gehienak ere partekatzen dituzte euskalkiek (*de-*, \*-*g* [> -*k*, -*S*, -*T*], -*i*), alderik nabarmenena alomorfoen banaketa eta maiztasuna direla, bai eta \**i*- aurrizkiaren emaitza ezberdinak

---

<sup>1</sup> Leizaragaren testuak salbu. Kapitulu hartan azaldu bezala, haren lan osoa datubasean sartzeak ez zukeen tesi honen helburuetarako onurarrik ekarriko, eta bai distortsio handiegia; horregatik erabili dut Zulaikaren (1998) lana beskoitztarraren aditza aztertzeko.

<sup>2</sup> Hurrengo urratsa, noski, datubase etiketatua edonork konsultatzeko moduan sareratzea izango da.

ere.<sup>3</sup> Horrek bilakaera (morfo)fonologiko zenbait partekatuak direla erakusten du, nahiz eta, jakina, ondoren eremu bakoitzean aldaera bat edo beste hedatu zen, dela paradigma barneko analogiazko berdintzeengatik, dela (alo)morfo jakin bat berezitu edota emankortu izanaren ondorioz.

Bilakaera komun edota geografikoki aski hedatuak ikusi ditugu datiboko pertsonamarka batzuen eta ondoko morfoen artean ere ([§ 3.2](#), [§ 3.3](#)), zeintzuek halaber hizkuntza-egoera zaharrago bertsu baten berri ematen diguten. Adibidez, Leizarragaren *dieçaquede* ‘diezadakete’ formaren akabuak RSeko *balinde* adizkiarena dakar gogora, bietan *-de* < *\*-da-(d)e* gertatu zenez gero; eta, izan ere, Leizarragak *-te* duenez ergatibo marka emankorra, adizki horretako *-de* akabua (edo bestela esanda, *-(\*d)e* alomorfoaren erabilera) ezaugarri gordetzailetzat jo behar da haren hizkeran.

Halaber, autore haren eta erdi-ekialdeko beste testu batzuetan (berantiarragoak izanagatik) antzerakoxe bilakaerak ikus daitezke *\*ezan* eta *\*ekin* laguntzaileen zenbait formatan, bokal asimilazio edo galerak/bakuntzeak tarteko, eta adizki horietako zenbaitek badauzkate, aldi berean, beste ezaugarri berezi (eta itxuraz zaharrago) batzuk ere; nire ustez, bestelako forma sinkroniko gardenak baino egoera zaharragoa erakusten dute horiek ere, ezin azal baitaitezke orduko beste formen analogiaz edota morfologia emankor sinkronikoaz. Erka bitez, esaterako, Ber *daquico-* ‘dakioke-’ eta OtxA *daguico-* ‘id.’, non *\*-keo* (> *\*-kao?*; cf. Ax *-kaio*) > *-ko* gertatu den; edota Leiz *dietçoyote* ‘diezaiokete’ eta OtxA *dizoco-* ‘diezaioke’, non bokalen asimilazioa edo datibo-komunztaduraren pleonasmoa<sup>4</sup> ikusten den ([§ 3.4.5.4](#)), bi kasuetan morfo bat tartean dela (*-i*, *-k(\*e)*); bai eta, agian, Leizarragaren adizki hori RSeko *lemayo* ‘emango lioke’ eta Mat, Ax eta besteren *-i*-dun adizki batzuekin (adib. *diazzaio* ‘diezaioke’), *-i* (alo)morfoari eta *-ke* ezari dagokionez ([§ 4.3](#)).

Modu orokorrago batean, Mitxelenak erakutsi adizkietako *-o* : *-a-* (*dauko* : *daukat*) txandaketa eta haren azalpena berretsi eta indartu dut, hark proposaturiko beste bilakaera fonologiko batzuk ere aditzaren eremura ekarriaz (pace Trask, apud Gómez & Sainz 1995: 252, 22. oin-oh.) eta aditz-morfologiaren bilakaeraren azalpenean eta berreraiketan erabiliaz: *-i* > *-ø* (*\*-gi* > *k*; cf. Gómez & Sainz 1995) eta *-e* > *-a* (*\*-ke-i-* > *-kai-*), hain zuzen.

<sup>3</sup> Izan ere, hor sartzen ditut, *da-* → *de-* ez ezik, *izan*-en paradigmako N-N<sub>i</sub> jokoko mendebaleko *j-* eta erdi-ekialdeko *z-*, besteak beste; ikus aurrerago [§ 6.2.2.1](#), [§ 6.2.3.1.1](#).

<sup>4</sup> Bigarren kasu horretan, pentsatu beharko litzateke *\*-za-o* > *-zo* monoptongatu zahar baten gainean eraiki zela forma berria, *\*-za* erro biluziaren gainean egin beharrean.

Bestalde, defendatu dut arestian aipatu formetan ikusten den morfo-ordena (*-ke-DAT*) dela zaharrena eta, hortaz, esaterako, Ber *daquicon* ‘dakiokeen’ : *daquioque* ‘dakioke’ formen artean lehenak morfofonologia zaharrena edo, gutxienez, zaharrenaren garapen fonologiko zuzena erakusten duela.

Orobak iradoki lezakete lehenagoko fase bat datiboko 3. pertsonaren komunztadura-markarik gabeko RS *aquique* ‘hakioke’ eta Etxep *ezpadaqui* ‘ez badakio’ formek (akatsak ez badira, noski); alegia, oraindik argitzeke dauden arrazoiengatik (atzizkien gramatikalizazioarekin loturikoak, ziurrenik) komunztadura-markak, 3. pertsonarena behinik behin, kasu guztietai nahitaezkoak ez ziratekeen garaiko arrastoak.

Alokutiboko formeい begiratuta, marka aurrizkituen agerpena da azpimarragarriena. Datibo-komunztadurarekiko lotura erakustearaz gain, haren forma zaharrena islatzen dutela pentsatzen dut (Ariztimuño 2013b-n adierazi bezala); alegia, datibo-komunztadura eransteke balio zuen mekanismo zaharra alokutiborako geratu zela batik bat, eta datibo-komunztadurak (bereziki erdi-ekialdean) beste forma batzuk hartu zituela, Kuryłowiczen lege ezagunaren antzera: erabilera bigarrenkaria [alokutiboa] → forma zaharra; oinarrizko erabilera [datiboa] → forma berria.

Lehentasun kronologiko horren adibide, ikusi dugu pluralgilearen alomorfo zaharra ageri dela Leizarragaren alokutiboko formetan (\*-ae > e), alokutiboaren marka estaliz eta, aldi berean, morfoen ordena zaharra iradokiz, *diate/ditek* bereizketa egiten duten hizkerek erakusten dutenarekin alderatzen badugu (orobat, atzizkiari dagokionez, mendebaldeko zenbait hizkeratako *due*, *doste* ‘diate’ edo *juek*, *jeurek* ‘ditek’).<sup>5</sup> Hala ere, pertsona-markaren lausotze hori hikako forma ez-alokutibootan ere gertatu zenez (esaterako, Leiz *draue* < \**drauae* ‘diate’) horietan ere gertatu da eta zen “oinarrizko” formaren amaieran ageriko marka ezartzea: *draue* → \**drauek* → *drauēan* (nola erabiltzen baita egun hainbat hizkeratan *ditek* bi adieretarako).

Beste konbinaketa interesgarri batzuk 3. pertsona singularreko *-io* / *-ko*, *-ka* eta, absolutibo pluralgilearekin, *-zko*, *-zka* / *-tzo*, *-tza* dira, hizkeraren eta aditzaren arabera; adibideak aztertuta, honela berreraiki litezke, hurrenez hurren: \*-(g)i-o / \*-g(i)-o eta \*-z(a)-g(i)-o / \*-g(i)-z(a)-o (ezin bazter daiteke zenbaitetan datibo-markarik gabeko

---

<sup>5</sup> Kasu honetan Kuryłowiczen legera makurtu ez izanak badu arrazoi simple bat: datibo-komunztadurak bere kokalekua du sisteman, edozein pertsonatikoa dela ere, eta alokutiboko formetatik kanpo, beti ere ergatiboa baino ezkerrerago (presio paradigmatikoa). Alokutibo-marka, aldiz, “askeagoa” dateke zentzu horretan: behin datibotik bereizita, ez baitio barne-argumentu bati erreferentzia egiten, eta horren ondorioz, ez zatekeen inolako presio paradigmatikorik atzizkia berri zamaieran eranstea eragotz zezakeenik.

\*-tz-o batetik etortzea, baina aldaera afrikatua bera, aldi berean, lehenagoko forma baten analogiaz hedatu zatekeen).

Horrek guztiorrek, behialako hizkuntz batasunaz ez ezik, ondoko bilakaeren eta haien kronologia erlatiboen gaineko hipotesiak egiteko bidea irekitzen digu, eta datibo-komunztaduraren eta alokutiboko formen inguruabarrek euskal aditz jokatuaren eta dialektoen bilakaera ulertzeko duten garrantzia agerian uzten du.

Azkenik, ekarpen zehatzago batzuk ere nabarmendu nahi nituzke, bai berreraiketari dagozkionak, bai alderdi filologikokoak ere; zeren eta ikerketa-ildo honen eskutik irakurketa berriak proposatu eta adizki batzuen osaera ere azaldu ahal izan baitut.

Berreraiketaren alderdiari dagokionez, zenbait aditzen arteko harremanak eta jatorri komuna azaldu ditut, datibo-komunztadurarekin lotuak batik bat. Hala, \*ezan aditz laguntzaile iragankorra *izan* aditzaren erroarekin lotu dut, N-N<sub>i</sub> jokoaren ergatibotzearen bidez, eta, bide batez, *etzan* aditzaren jatorria \*ezan iragangaitz hartan datzala proposatu dut; orobat *arazi* eta *jazo* aditzei dagokienez. Halaber, \*edun ‘alboan izan’ aditza jatorrian iragangaitza zela proposatu dut, *eduki* ere N-N<sub>i</sub> argumentu-egiturakoa zela pentsatzeko arrazoiak daudela ondorioztaturik; banaketa dialektalari eta lekukotasunei begira, bestalde, *ukan* aditza \*edun-en aldaeratzat azaltzeko modua dela defendatu dut. Horrez gain, \*eradun eta \*edutsi inoiz “egiazko” aditz trinko izan zirenik edo, behinik behin, ‘eman’ adiera hutseko aditzak izan zirelako ustea zalantzan jarri dut, testuetara joaz eta haien erabilera eta hedadura azterturik; horien modukotzat jo dut, izan ere, identifikatu eta azaldu dudan \*jadun aditz laguntzailea ere, ezen, azken batean, \*edun-en forma arruntetatik datibo-komunztadura gehitzeko mekanismo baten bidez garaturiko forma laguntzaile ditrantsitiboak bailirateke. Azkenik, \*edin-en N-N<sub>i</sub> jokoan erabiltzen diren -ki- errodun formen inguruabarrik ikertu ditut, eta \*ekin hura *ekin* historikoarekin eta *jakin*<sub>1/2</sub> aditzekiko lotura azaldu (EHHEn ere azaltzen edo iradokitzen dena); N-N<sub>i</sub> > N-N<sub>k</sub> bilakaeraren beste adibide bat erakustea gain, horrek *ekin* eta *egin* aditzak, modu espekulatiboagoan bada ere, etimologikoki lotzeko aukera ematen duela defendatu dut, jatorrizko fortis/lenis kontrastearen bidezko azalpena (kasu honetan) baztertuz.

Arestian aipatu proposamenetan lan filologikoak garrantzia izan du (lekukotasun zaharr(en)ak erabili baititut, besteak beste); ondoko adibideetan, aldiz, testuetako adizkiak berak izan dira aztergai, haien osaera argitze aldera filologia zehatza eta tesiko ikerketa-ildaia uztartuz. Esaterako, RSetako *deique* ‘egingo dik’ formaren bitxitasuna jatorrizko eskuizkribuak \*deiq izango zuela proposatuz azal daitekeela defendatu dut, horrela, pertsona-markaren “falta” eta testu horretako gainerako formekiko koherentzia

eza (*egin-ek ez du -ke* morfoa hartzen) kopontzen baitira. Halaber, errefrau bereko *diratan* forma bitxia \**iradogi* (= *iradoki* ‘idokiarazi’) edo \**iradagi* (cf. zubererazko *iraki* ‘elikatu?’) moduko aditz batetik eratortzea proposatu dut, \**diradog(i)-ga*/*\*diradag(i)-ga* batetik erraz azal baitaiteke *dira-* hasiera, eta 2SGM-ren markaren bilakaera hori (-*ta* < \*-ka < \*-ga /C\_) forma gehiagotan ageri baita, bakanki bada ere (kontsonante hortz-hobikarien testuinguruan, cf. RS *deustat* ‘diat’), edo inoiz gertatu zela igar baitaiteke (cf. Ber *ciroquetat*). Bestetik, Lazarragaren *asco dauquezu senarric* perpauseko adizkia, autore horren aditz-morfologia osoa (eta corpora, oro har) kontuan hartuta, \**edun* aditzarekin lotzeak dakartzan desegokitasunak agerian uzten saiatu naiz, eta, aldiz, arestian aipatu morfo-ordena zaharra kontuan hartuz,<sup>6</sup> *egon-ekin* lotzea proposatu dut, alegia, ‘dagokizuke’ = ‘egongo~egokituko zaizu’ ulertzea; izan ere, bigarren eskuaren *estao çure senarric* ‘ez dago zure senarrik’ berridazketak ere, hein batean, bermatzen bide du irakurketa hori. Orobak ahalegindu naiz Etxeparerentzat Leizarragaren adizki berezi bana azaltzen (*darauritzut* eta *dauritzan*; § 4.2), haien jatorria ez ezik azpian dautzan xehetasun diakronikoen konplexutasuna agerian utzi nahiz, bai alomorfia, bai analogiazko aldaketak, eta haien kontuan hartu beharra azpimarratu, etimologien zuzentasuna gorabehera. Orobak esan daiteke Garibairen *diago* (<< \**diau-o* << \**d(a)-i-(d)a-no(n)* ‘dio, esaten du [norbaiti zuzendua dela markaturik]’) adizkiari buruzko atalaz (§ 4.4.3), hura azaltzeko saioak berak azken etimologiak bezainbesteko balioa izan baitezake, eragindako galderengatik eta erdietsitako beste azalpen etimologikoengatik (*jauki* aditzarena, besteak beste). Bukatzeko, lan honetan egindako beste proposamen bat ekarri nahi nuke berriz: \**jadun* balizko partizipio berreraikiaz aipa daitekeen aditz laguntzailea (§ 4.4.2). Frogatu dut ezen Gipuzkoa hego-mendebaldean eta Arabaren zati batean (Lazarragaren lekukotasunarekin) \**edun-en* forma ditrantsitibo bereziak garatu zirela, eremu hartan noizbait emankorrik ziratekeen *da- > ja-~dia-* mekanismo morfofonologikoen bidez; azalpen hori han-hemenka barreiatutako lekukotasunak lotuz erdietsi da, Lazarragaren <ñagon> adizkiaren azalpen filologiko-linguistikotik abiatuta (§ 4.4.1) eta, horrez gain, Azkoitiko 1515eko poemetan (Ariztimuño 2020a [2022a]) agerturiko <nj[a]gon> adizkia azaldu ahal izan da (zeina noketakotzat hartu baitzuten lehen interpretazioan), *jago* eta *diago* formen argitan.

<sup>6</sup> Eta, \*-gi atzizkiaren gorabehera diakronikoak xeheki ezagutzen ez baditugu ere, <z> grafiak /ts/ ere adieraz zezakeela ahaztu gabe; alegia, ezin bazter daiteke *dauketzu* (< \**dago-ke-g(i)-zu*) irakurtzeko aukera (cf., atzizkien bestelako bilakaera fonologikoarekin, Ax *dadukaio* < \**dadu-ke-(g)i-o*).

## 6.2. Ondorioetan sakonduz

Atal honetan, datuen analisitik eta proposaturiko bilakaeretatik abiatuta, zuzenago edo zeharrago dagoeneko aipatu ditudan hipotesi eta proposamen batzuetan sakondu nahi dut, zenbait ezaugarriren inguruko nire ustea osoago edo esplizituago (nahiz eta, era berean, espekulatiboagoki) azaltzeko.

### 6.2.1. Datibo-komunztadura eta ergatibo-komunztadura alderaturik

Lan honetan ez dut berariaz eta sakon aztertu datibo- eta ergatibo-komunztaduren arteko harreman morfologiko, paradigmatico eta diakronikoa, baina ikusi dugu haien arteko antzekotasun, desberdintasun eta bilakaera zenbait ([§ 5.1.1](#), [§ 5.2](#); eta ikus [§ 6.2.3.1.2](#), [§ 6.2.3.2](#)). Labur esateko, ageriko datibo-markarik gabeko formak morfologikoki anbiguoak dira orainaldian; orainalditik landakoetan, berriz, ergatiboaren lekualdatzea medio, bereizketa argia da. Noiztik eta zergatik edo nola, ordea? Aldaik (2000) proposatu zuen inoiz jokoa erregularra zatekeela puntu horretan ere, eta \**dakarda*-ren ondoan \*(z)ekarda(n) esango zela ‘nekarren’ adierazteko; hala balitz, are berdinagoak ziratekeen ergatibo- eta datibo-komunztadurak.

Nolanahi ere, eta lehenago nola ote zatekeen sartu gabe, historikoki dakusagun “ergatibo-lekualdatzea” azaltzeko, aurreko lan batean (Ariztimuño 2013a) defendatu nuen lehenaldiko 3. pertsonako objektudun forma historikoak aditz jokatugabe baten birmorfologizaziotik datorzela: partizipio moduko \**ekar* batetik, alegia, zeina gerora sortu zen aditzoinarekin nahastu behar ez den, agidanez (cf. Urgell [2018]; eta *pace* Trask [1995], hark ere jokatugabetzat bazuen ere, aditzoin historikoarekin loturik “izenkitzat” baitzeukan).

Hala azal daitezke morfo-ordena ezberdinak eta -n- “tartekaturik” eza (*nen-*, *hen-*) singularreko 1. eta 2. pertsonetako ergatibo-komunztadura duten formetan:<sup>7</sup> \**nakar* / \**nenkar* eta \**dakarda* jokatuen ondoan, \**ekar* (jatorrian) jokatugabea genukeen, zeinari pertsona-marka (izenordainaren forma “ahuldua”) atxiki baitzitzaiokeen (eta ez \**denkar* oinarriari edo lehenago \**den* laguntzaileari, \**nen* adizki laguntzaile jokatua osatuz). Hain zuzen, historikoki hirugarren pertsonako argumentuekin agertzen den (z)ekarr-en

---

<sup>7</sup> Dirudienez, pluralekoetan beste formetako \**gen-* eta \**zen-* osoak sartu ziren, baina maiz oinarriko *e*-ren gainean nahiz hura ezabatuz. Hizkeraz hizkera, askotariko formak topa daitezke, analogiazko eta fonologiazko aldaketa ezberdinen ondorio.

formaren oinarri bera, eta \**n-ekar* forma ‘nire(=nik) ekarria’ gisako burututasun adieraz. Oinarrizko lau formak, “itzulpen” moduko bat ematearren, honela uler daitezke:<sup>8</sup> \**n:a* kar ‘*ni(re) ekartze burutugabea*’, \**n:en*-kar ‘*ni(re) ekartze burutua*’, \**da-kar-da* ‘*honengan(a)* (> ‘honek, honi’=‘nik, niri’)<sup>9</sup> *ekartze burutugabea*’, \*(*n:*)*ekar* ‘(*nire*=nik) *ekarria*’ (jokatugabea). Izan ere, \**dakarda* bezalako formen anbiguotasun morfologikoa, noizbait gramatikalizaturiko datibo-markek ez ezik, testuinguruak eta morfosintaxiak (ageriko argumentuen markatzeak) argituko zuketen. Adibide berarekin jarraituz (eta forma historikoak erabiliz), irudika daiteke garai bat non *niri dakar(-t?)* nahiz (*ni(ri)?*) *diakart* bezalako zerbait esan zitekeen (orobat ergatiboarekin: *nik dakar(-t?)* zein (*ni(k)?*) *dakart*). Zentzu horretan, izan ere, pentsa daiteke komunztadura-markatzat ditugun aurrizki/atzizki horiek inoiz klitikoak edo izenordainen edo bestelako morfo askeagoen forma “ahulduak” zirela, eta historikoki erakusten duten jokaera morfosintaktikoaren bestelakoa izan zezaketela, ez horren zurruna (ikus, besteak beste, Corbett 2006: § 1.4 eta Siewierska 2004: § 2).

Hortaz, ergatibo-lekualdatzeaz eta datiboaren kokagune erregularraz ari garelarik, nahiz eta irregularitasunak zahartasuna adierazten duela esan ohi den, ez da itsu-itsuan jarraitu beharreko baieztapena (cf. [§ 3.4.2-n](#) eta [§ 4.1](#)-en muturretako dialektoen arteko kidetasunaren irizpideaz, -e alomorfoaren ustezko zahartasunari dagokionez). Jakina, irregularitasunak erregularitasun eta gardentasun handiagoko garai bat iradokitzen du, eta hari azalbidea eman beharra dago, hizkuntzaren garapena ulertuko badugu; baina horrek ez du esan nahi sinkronikoki erregularragoa den beste elementu bat baino zaharrago denik beti eta ezinbestean: irregularitasun horren sortze-testuingurua (eta garaia) eta garapen-mekanismoak argitu behar dira eta, hemen proposatu dudanaren arabera, euskararen aditz jokatuen alorrean, anbiguotasun morfologiko partzialeko garai bat izan zitekeen, zeinetan, alde batetik, morfologia berria gehituz edo zegoena orokortuz joan zen (datibo-markak, kasu-atzizkiak) eta, bestetik, ziurrenik erabilera berezia zuen egitura jokatugabe berri bat (\**(X:)ekar*) lehendik existitzen zen beste egitura edo forma baten (\**(X:)en*-kar) eremura sartu zen, hirugarren pertsonatik. Zehazki, \**den* aditz-erroarekiko formak ziratekeen \**n-en*, \**h-en*, \**g-en* eta \**z-en* (Aritimuño 2013b). Hirugarren pertsonarako forma jokatugabea (pertsonarik gabekoa) erabiliko zen, zeinetan \**den* ezkerreko izenordainari

<sup>8</sup> Litekeena da, halere, analisi honetan pankronismo zerbait izatea eta, garai jakin bateko egoera gutxi gorabehera egoki isolatu arren, adizki jokatuen sorrera eta lehen garapenak guztiz azaltzeko aski ez izatea.

<sup>9</sup> Singularreko 1. eta 2. pertsona-marka atzizkituen etimologiaz ez dut hemen sakonduko, baina Lakarrak (k. p.) -da eta -ga lokatiboetatik datoza pentsatzen du; horregatik itzuli dut 1. graduko erakuslearen forma lokatiboen bidez.

lotu beharrean, ondoko erroari lotuko zitzaison, zerbaiti lotu beharraz (orainaldiako *da-* $\Sigma$  bezala); ondorioz, hasierako kontsonantearen ordez, amaierakoa galdu zukeen: \**de-* $\Sigma$ . Hain zuen ere, forma horretatik letorke *le-* $\Sigma$ , historikoki mendeko perpausetako perfektiboko~iraganeko forma gisa agertzen zaiguna, (*z*)*e-* $\Sigma$  formek perpaus nagusietatik egotzirik. Horrek azalkizun uzten du, akaso, zergatik ez dugun \**nar*, \**har*, \**zar*, \**gar* bezalakorik orainaldian (edo zergatik \**n-en*-eta ez diren halaber \**ne-*, \**he-* etab. bihurtu). Litekeena da morfo eta fonema bakoitzaren ezaugarri bereziek eta alde kronologikoak zerikusia izatea bilakaera ezberdinakin.

### 6.2.2. Datibo-markez

Noizbait datiboaren edo zena zelako zeharkako kasuaren komunzadura adierazteko edota halakorik berezko ez zuten erroei eransteko morfoak gramatikalizatu ziren; garai ezberdinetan edo/eta funtzió ezberdinakin, pentsa daitekeenez. Zernahi gisaz, datibo-marka bat baino gehiago dagoela ezin uka: aurritzka eta atzizkia ez dira gauza bera aspaldidanik. Gutxienez, (\*)*i*- eta \*-*gi* berreraiki behar ditugu barne-berreraiketan, azken buruko iturria berbera den ala ez sartu gabe; cf. Lakarraren *i- <...< \*ni(n)* proposamena, betiere \**V-ni-* $\Sigma$ > \**V-hi-* $\Sigma$ > \**Vi* $\Sigma$  bilakabidea onartzen badugu, non hasperenaren galera alde batera utzirik ere, hasperenaren beraren sorrera-garaia kontuan hartu behar den. Bestalde, lanean zehar ikusi da datibo-marka bat baino gehiago ager daitekeela historikoki, eta hori soilik formen etengabeko eraberritze edo sortzearen ondorioz gerta daiteke, garaian garaiko morfologia emankorren eta oinarrizko formen analogiazko eraginez. Hala, atzizkiok ez dute beti itxura bera erakusten, ez euskalkien artean, ez dialekto beraren barruan ere, nahiz alomorfo gehienak orokorrak diren, eta hain zuen konbinaketa eta itxura ezberdin horien jatorri eta garapena argitzeko bidea urratzen saiatu naiz.

#### 6.2.2.1. Aurritzka(k)

Tesian zehar defendatu dut bi bilakaera nagusi izan dituela \**i*- morfoak euskalki guzietan: alde batetik, imperfektiboko *da-* aurrizkiaren bokalarekin batu da haren ondotik zetorrenean eta *de-* eman (horretarako, *ai >...> e* aldaketa gertatu zela onartu beharra

dago)<sup>10</sup> eta, bestetik, marka beraren kontsonantea aldarazi du (*>ja-*, mendebaldean) edo artizki moduan ageri zaigu historikoki (*dia-*, erdi-ekialdean); hala ere alokutiboko formak kontuan hartuta, *za-/ze-* emaitza ere ikusten da eremu hartan, erdialdean batik bat. Bigarren emaitza edo alomorfo-multzo horri dagokionez, ordea, beste ikuspegi bat gailendu da orain arteko ikerketetan.

Mitxelenarengandik hasita, *da- > dia- > ja-* edo antzeko bilakaerak proposatu edo onartu izan dira, dela [i]~[j] hotsa datibo-markatzat hartuaz (Mitxelena 1964, Hualde 2003), dela baliabide fonosinboliko baten morfologizaziotzat joaz (Ros 1986, Alberdi 1995). Esan bezala, bestelakoa da nire ikuspegia, nahiz eta aurreko bi azalbideetatik ere edaten duen, lehenetik batik bat: alde batetik, nire ustez erdi-ekialdean *ja- > dia-* despalatalizazioa edo *ja → d-ja* hasierako morfoaren berrezartze analogikoa gertatu zen,<sup>11</sup> errazago iruditzen baitzait banaketa dialektala horrela azaltzea, eta ez mendebaldean aldaketa fonologiko berezi bat (*di- > j-* palatalizazioa) gertatu zela eta, batez ere, *da-* aurritzian \*-i- artizkirik sartu zela pentsatzea (artizkiak ez dira nolanahi sortzen eta euskaraz ez dugu halakorik proposatzeko nahikoa argudiorik).<sup>12</sup> Hala, proposatzen dudana da (cf. § 4.1.5), aditz-egiturak askeago ziren garaian (erro eta klitiko-moduko morfoz osatuak, ziurrenik pertsona eta DAM markak bezala), denbora-aspektu markaren aurretik zein atzetik joan zitekeela (ez edonoiz-edonola, noski); edo beste modu batera ikusita, denbora-aspektu markari (< erro laguntzaileari) nahiz erro lexikoari lotzen zitzaiela aurretik (\*i:da:Σ / \*da:i:Σ). Aldakortasun hori nolabait finkatu zen, eta garapen fonologiko ezagunak izan zituen.<sup>13</sup>

Aldaketa fonologikoei dagokienez, agian morfologia gehigarriak (forma luzatzeak) erraztu zitzakeen bai \**dai- > de-* bilakaera, bai \**ida- > ia- > ja-* ere (areago baieztapenezko *ba-* morfoaren erabilera zahar ugariagoa kontuan hartzen badugu; ik. Lakarra [2008], hain zuzen adizkietan *d- > l-* gertatu ez izana azaltzeko), eta, bide batez,

<sup>10</sup> Joseba Lakarrak \**da-(h)e-* batetik abiatzeko aukera ikusten du (k. p.). Horrek alomorfoen azalpena arindu lezake, baina, era berean, morfema bat eransten du (edo, hobeto esanda, morfema ezagun bati beste balio edo funtziobat eransten dio, ezen Lakarrak uste baitu genitiboko *-e* atzizkiaren eta, bereziki, aditz jokatugabeetako *e-* aurritzikaren jatorri etimologiko bera leukakeela).

<sup>11</sup> Egia da halako testuinguru gehiago zail dela euskaraz aurkitzea; morfologiaren analogiarik gabe gertatu bide dira, aldiz, Zaraitzuko *diago* ‘gehiago’ (< *ddago* < (g)iago) edota Nafarroa Behereko *deitzi* ‘jetzi’ eta *dosta* ‘josta’ bezalako despalatalizazioak (FHV: 151).

<sup>12</sup> Esaterako, *-ra-* arazlea artizki gisa aipatu izan bada ere, aurritzki fosildu bat besterik ez da, ez baita erroaren erdian txertatzen, baizik eta jatorrizko erroaren eta beste aurritzki baten artean.

<sup>13</sup> Bide batez, baldin \**ni(n)* etimologiari eusten badiogu, eta morfologia gehiago proposatu ezean (cf. hurrengo paragrafoan, adibidez), hurrenkera zaharrena edo/eta ohikoena \**da-i-* zela pentsatu beharko dugu: \**da-ni- > \*da-(h)i-*, eta, ondoren (adizki zein funtziotak jakinetan hala finkatuta > *de-* eman arren), morfo ordena emankorra aldatuta, → \**(h)i-da-*.

partizipioetako \*j-rekiko paralelismo zein ezberdintasunak ere kategoria ezberdinaren ezaugarri sintaktiko/prosodiko ezberdinek (+ analogiek) azalduko lituzkete. Beste kontsonanteek (alegia, *n*-, *z*-, *l*- > *ñ*-, *x*-, *ll*<sup>14</sup> / *ni*-, *zi*-, *li*-), aldiz, azalpen ezberdinak izan ditzakete, baldin besterik gabe *d*- : *j/di*- bikoteen eredura (esaterako, analogiaz palatalizazioa morfologizaturik, Alberdi eta Rosen erara) aldaturikoak ez badira; cf. *ballako* ‘balitzaio’ : *jaco* ‘zaio’, *jacan* ‘zitzaison’<sup>15</sup> (eta cf. autore beraren *balloa* ‘balihoa’ [Oñatin, aldiz, *balixoia*] : *bajoazen* ‘bazihoazen’<sup>16</sup>). Hala, *da*- ez bezala, *n-a*- bana daiteke eta, \*i-da-rekiko paralelismoa eginez, \*n-i-(d)a- berreraiki; kasu horretan, ez genuke \*ñ-“orokor” baten despatalizaziorik proposatu beharrik. Beste aukera bat, honela irudika liteke, morfo-hurrenkera zaharra beste bat izan zitekeela pentsatz gero: \*(ba)-i-na- (> \*bañā ?) > \*(ba)ñā-, eta, Laz *ballaco* adibidetzat harturik, \*ba-i-l- > *ballaco* (baina cf. *balloa* ‘balihoa’?).<sup>17</sup> Esan bezala, forma neutroekiko analogiak (azken batean, hiztunen gramatika sinkronikoan ziren morfoen antolaketa eta erabilera emankorrak) erraztu zezakeen hasieran DAMari zegokion kontsonantea (palatalizaturik nahiz gabe) izatea “emaitza”, eta ez beste bat (*i*- bokala, alegia).

Proposamen honen abantailak bi dira. Alde batetik, sinpletasuna: morfo (ezagun) berarekin bi emaitza lortzen ditugu; ez dugu morfo (ezezagun) gehiago proposatu behar, ez euskararen barruan bestelako oinarririk ez duten fenomeno fonosinbolikoetara jo behar. Bestetik, galdera gehiago plantearazten ditu: zeren arabera ageri zen *i*- morfoa kokagune ezberdinan? Nola azal ditzakegu ezberdintasun dialektalak eta sistema-barneko irregularitasunak? Zein kronologia erlatibo proposa dezakegu bilakera ezberdinatarako (ikus 24. irudia)?

Sistema-barneko banaketari begiraturik, bien arteko aldea kronologikoa dela pentsa liteke, alegia bata zaharragoa dela bestea baino (“aurrizkiago” izateagatik). Alabaina, biak orokorrak izanik, ez da erabakitzera erraza; egia da *de-k* formazko batasun handiagoa

<sup>14</sup> Emaitza sabaikaritu horiek (ez beti denak) eremu txiki baina esanguratsuetan dokumentatu dira: alde batetik, Arratia-Oñati inguruari, eta, bestetik, Aezkoan. Esaterako, alokutiboa, *ñagok* ‘nagok’, *xuan* ‘zegoan’ (eta *ballegok* ‘balego [NOR-ALOK]’) erabiltzen dira Oñatin; Aezkoan, aldiz, *xeota* ‘zegoan’ erakoak. Datibo-komunztadurarekin, ordea, Lazarragaren *ñagon* ‘nion’ eta *ballaco* ‘balitzaio’ (Oñatin ere *ballako*) ditugu, nahiz horietan analogia ere gerta zitekeen (ikus baita ere § 3.4.1).

<sup>15</sup> Adizki horiezaz, ikus § 6.2.3.1.1.

<sup>16</sup> Indikatiboko oraindiz kanpoko datibo-gabeko *joan* aditzaren formetan -i- aski hedatua da lehen testuetatik (adibidez: RS *lioaque*, frJZum *bioa*, Leiz *zioan* eta *zohian*(!), AndrEm *bihoa*); \*e-i-da-non berreraiki behar ote da partizipioa, erroaren jatorrizko semantika aldarazi zukeen baina gerora sintaktikoki arrastorik utzi ez duen aplikatibo/datibo-marka batekin?

<sup>17</sup> Albokariaren gorabeherek *iloba* hitzaren aldaerak gogorarazten dituzte (*loba*, *lloba*, *il(l)oba*, *lioba*...), emaitzen banaketa ezberdina bada ere.

erakusten duela, baina horrek ez du baitezpada zahartasunaz ezer erakusten, garapen fonologikorako aukerak ere ezberdinak baitira [aj] ala [ja] hots-segidak abiapuntu izan.

Partizipioetako \**j*-ri dagokionez, zenbaitetan *ja-* < \**e-da-* berreraiki izan bada ere, baliteke (kasu batzuetan bederen) \**e-i-da-* izatea, \**da-* gabeko formetan bezala (cf. \**e-i-zan*). Edonola ere, 14. taulako banaketa orokor hau ikusten da dialektoetan zehar, partizipioetako \**j*-ren, indikatiboko NOR-NORI laguntzailearen hasierako kontsonantearen ([§ 6.2.3.1.1](#)) eta aditz-morfologiako datibo-/alokutibo-markaren aldaerei dagokienez.<sup>18</sup>

	(A-)B	Oñ	G	IGN	HGN	Aez	Zar-E	L-BN	Z
* <i>j</i>	[j], [dʒ], [x]	[x]	[x]	[j] (~[x])	[ʃ] (~[x])	[ʃ]	[ʃ]	[j]	[ʒ]
<b>Jako/Zaio</b>	[j], [dʒ], [x]	[ʃ]	[s]	[s]	[s]	[s]	[s]	[s]	[s]
<b>ALOK</b>	[j], [dʒ], [x]	[ʃ]	[s(e)] ~[d(i)-]	[s(e)] ~[di-]	[s(i)] ~[di-]	[ʃ]	[d(i)]	[s], [d(i)-]	[d(i)], [s-]
<b>DAT</b>	[j], [dʒ], [x]	[d-(k)]	[d-(ki)]	[di-]	[di-]	[di?]	[di]	[di]	[di]

14. taula: jokatugabeetako \**j*-ren eta datibo/alokutibo-adizkien bilakaerak<sup>19</sup>

Hasiera horien jatorri “komuna” (alegia, \*[j]-tik datorrena, morfologia gorabehera) onartuz gero, ondoriozta dezakegu: 1) mendebalde muturrean [j-] mantendu zela (arkaismoa); 2) gainerako tokietan (mendebaldearen zati bat barne) alokutiboko eta datiboko formetan txistukari sabaiaurrekoranzko bidea egin zela eta despalatalizazioa gertatu zela ondoren bi modutara, ziurrenik testuinguru morfonologikoaren arabera: (a) *z*- (ekialdean ere badira halakoak) eta (b) *di*- (salbu eta Oñati eta Aezkoan, non *x*- gorde baita); 3) datiboa, NOR-NORI laguntzailean *z*- fosildurik ageri zaigu, eta bestela, *d(i)*- egin da, analogiaz despalatalizatzu edo morfologia berriztatuz, oinarrizko adiera forma berrienaz adierazirik, alomorfo zaharragoak alokutiboan gordez, eta \**j*-ri bide “osoagoa” egiten utziaz, morfologiaren analogiazko gorabeheretatik kanpo.

<sup>18</sup> Mitxelenak ere (FHV: § 9.5) bere \**dj*-tik eratorri zituen adizkietako aldaerok guztiak. Lehenago Schuchardtek *zaio* erako adizkietako *z-izan* erroarekin lotu zuen; hala izatera, *da*- aurritzirik gabeko forma (arkaiko?) berezitzat hartu beharko genuke (\**za-gi-o* > *zaio*, *zako*) eta, bestalde, mendebaldeko *j*-dun formak berrikuntzatzat, *da* 3. pertsonako kopulatzat gramatikalizatu ostean datibo-gehitzeko mekanismo zaharra sortua. Egiantzekoago bide da guztiak azken horretatik eratorrita batasun morfologiko handiagoa berreraikitzea, eta ondoren forma alokutiboan (ñabarrago) ere ikusten den dibergentzia zahar bat, erdi-ekialde osoa batzen duena (*j*- vs *z*-).

<sup>19</sup> Taula hau osatzeko, FHV, Irizar eta EHHA-ko datuak erabili ditut, betiere databaseko datuak eta oro har Euskara Arkaiko eta Zaharreko corpusa kontuan hartuz.

Egia da, halere, Nafarroa-Lapurdi eremuan [j] mantendu dela partizipioetan, mendebalde muturrean bezala (baina han beste formekin koherentea izaki). Beharbada, [ʒ]-ranzko bidean, erabat txistukaritu (x-, z-) edo despatalizatu (*di-*) ordez [j] bihurtu zen atzera, frikaritasuna galduz (jakina, orobat gerta liteke kronologiak bat ez etortzea eta aditz jokatu eta jokatugabeetako emaitza ezberdinak horren ondorio izatea).

#### 6.2.2.2. Atzizkiak

Atzizkiei dagokienez, *-ts* (< \*-tz) eta \*-gi morfoak ditugu, biak orokorrak, nahiz eta erabilera-maiztasunean aldeak diren dialektoen artean. Nabarmenena, mendebaldeko indikatiboko laguntzaile ditrantsitiboko *-ts* marka da (\**edutsi*), aditz bakarrean erabiliagatik, hain adierazgarri izanik, gerora aditz gehiagotara hedatu dena eremu hartako hizkera batzuetan (*egidazu* > *eistazu* eta, eremu txikiagoan, *jat* > *jast*). Beste aditz batzuetan orokorra izan zela ikusten dugu, bereziki partizipioetan utzitako arrastoagatik (*erauntsi*, *eutsi*, *dio* vs *diotso*). Bigarrenari dagokionez, alomorfo guztiekin ere ez dute banaketa bera: *-k* orokorra da, *-ki* bereziki erdialde-zabal batean ageri da (eta beti *-z* pluralgilearen ondoren), nahiz eta bazterretan ere baden arrastorik, eta badira halaber *-i* ere orokorra izan zelako zantzuak. Aldiz, *-ri*-ren estatusa ez dago guztiz argi, adizki bakarrean ageri baita ziur (*darauritzut*), eta beste bitan zalantzaz (*zarizka*, *dauritzan*); hietan, \*-gi-ren emaitza zuzena ala \*V.i hiatoan sorturiko kontsonante epentetiko baten ondorena izan liteke (edota, bigarrenean, *-augi-* aditz-erroaren beraren *VgV*-ren emaitza).

Bada beste “marka” orokor bat, lehen eta bigarren pertsonetako (bereziki pluraleko) morfoen indartzean datzana, eta, Lafonen (1999 [1961]) ildotik, *-k-* (< \**g(i)*) datibo-markaren ondoko ahoskabetze eta afrikatzetzat daukadana ([§ 3.1.2.5](#), [§ 3.1.2.6](#), [§ 4.1.3](#)). Hala sortu ziren, beraz, gerora testuinguru gehiagotara ere hedatu diren *-ku* eta *-tzu* bezalako alomorfoak (eta zenbaitetan atzera pertsona-marka horien oinarritzko itxura berrartu).


Ildo horretan, zilegi da galdetzea \*-gi marka ez ote zen gutxienez *-zk(i)* erabiltzen den aditz guztien absolutibo singularreko formetan ere erabiliko: esaterako, *dio* bezalakoetan, ez ote zen \**digio* formarik existitu, nondik > \**dio* > *dio*, baina \**dizgio* > *dizkio*. Nolanahi ere, tartean pluralgilearen beraren kokagunearren auzia dago (\*-g(i)-za-o > -tzo/-tza vs \*-z-gi-o > -zk(i)o/-zka), bai eta bestelako analogiazko hedadura posibleak ere: esaterako, baldin *zaio*-ko *-i-* datibo-marka bada, *za(r)izka* edo *zaizkit* bezalakoetan, bi datibo-marka genituzke, bietako bat analogiaz hedaturik.

Lehenago aipatu *-zki-* pluralgilearen orokortasunarekin loturik, interesgarriak dira gordetzailetzat hartu ohi diren (Mounole 2015) inperatiboko forma batzuek pluralgile hori berori izatea, baita sinkronikoki bederen datibo-komunztadurarik ez izanik ere (esaterako, Oihenarten *ezarzkik* edota Leizarragaren *eraunzkik*). Horrekin ez dut esan nahi aditz horiek guztiak inoiz datibodunak zirenik; baizik eta datibo-komunztaduraren jatorria eta garapena eta *-zki-* morfo-konbinaketaren sorrera eta hedapena ikertzean kontuan hartu beharrekoak direla.

Horiek bezain esanguratsua (edo areago) iruditzen zait, dena den, Elorrioko poema zaharrean (1650ean bildua izanagatik, hizkeraz arkaikoa baita) ageri den *ikusi-ren* adizkia, mendebaldeko hizkera dela kontuan harturik: *çacusquidan* ‘ikus zaitzadan’ (cf. Etxep *dacusquidan* ‘ikus ditzadan’).

#### 6.2.2.3 Datiboa eta alokutiboa: marka komunak eta arkaismoak

Datibo-komunztaduradun forma batzuen ezaugarri bereziak aipatu ditut lehenago. Alokutibokoetan ere ikusten da hori, bai ergatibo-pluralgileari dagokionez, bai eta, proposatu izan den eta aldezten dudan hipotesiaren ikuspegitik, datibo-markari dagokionez ere. Alegia, alokutibo-markak datibo-marka hutsak ziratkeen jatorrian. Hori horrela izanik, *j-* eta *di-* hasierak ez ezik, *z-* ere jatorri berekotzat joko nuke; hain zuzen, *izan-en* paradigma berezian ere dakusaguna (ik. § 6.2.3.1.1). Izan ere, alomorfook 24. irudiko kronologia erlatibo honen bidez azaltzea proposatzen dut, ahoskera historiko ezberdinetan eta Hualdek \**j-ren* emaitzetara iristeko zehazturiko urratsetan oinarriturik (Hualde & Ortiz de Urbina 2003: 27):



24. irudia: datibo/alokutibo-marka aurrizkituarekiko aldaeren sorrera eta garapena

### 6.2.3. Barne-berreraiketa sakonagoa: aditz batzuen etimologiak eta erregimen aldaketak

Atal honetan, tesian zehar egindako aditz(-familia) eta adizki jakin batzuen berreraiketak berrekarriko ditut, ekarpenok azpimarratzeko ez ezik, eragiten dituzten galderak plazaratu eta behin-behineko erantzunak ematen saiatzeko.

#### 6.2.3.1. Paradigmen etimologiak

Hainbat pasartetan iruzkindu eta aztertu ditut adizki jakin batzuk, haien morfologia argitu nahian eta osaera horren implikazioak azaleratzeko.

##### 6.2.3.1.1. Jako eta zaio

Hualde & Ortiz de Urbina (2003) gramatikan aurkitu dut bi adizkiok lotzen dituen proposamen zehatz eta esplizitu bakarra. Hobeto esanda, bi adizkion paradigmak lotzen dira, *jat* eta *zait* formek ordezkaturik; eta forma horiek ez dira halabeharrez hautatu, ikusiko den bezala, bestelako formek (3SG-ekoak batik bat) azalkizun gehiago baitituzte. Honela dio Hualdek, berak idatzitako pasartean:

The initial *z-* of the standard forms may derive from a historical palatalization, assuming a repetition of the *-i-* pre-dative marker: \**d-i-a-gi-t* > *zait* (older \**d-i-a-gi-da*). In Bizkaian, forms of the type *jat* are found, probably from \**d-i-a-t'* (Hualde & Ortiz de Urbina 2003: 214).

Alabaina, arestian aipatu ditudan 3SG-eko formak kontuan hartuta, “bizkaieraz” ere datibo-marka atzizkitua adizki gehienetan ikus daiteke (*jako* < \*-g(i)-o, *jate* < \*-g(i)-de) edo antzeman dakioke (*jatzu*, *jaku* < \*-g(i)-zu, \*-g(i)-gu). Hortaz, zilegi da *jat*-en ere \*-g(i)-da berreraikitzea. Horrek, izan ere, proto-oinarri bera (\**jagi*-) proposatu beharra dakar (< \*i-da-gi; cf. [§ 4.1.5](#)-eko 8. irudia), zeinetarik, bilakabide fonologiko ezberdinaren bidez (bokalarteko kontsonantearen galera vs -i bokalaren galera) hizkerak bitan bana daitezkeen, oro har: mendebaldeko *jako* eta erdi-ekialdeko *zaio*. Bien artean bada, bestalde, tarteko *zako* eremua (Urola-Goierrri mendebaldea), bai eta *za(i)ko* ere ekialdean (Lapurdi ekialdean eta Nafarroa Behereko euskaran; ez, ordea, erronkarieraz eta zubereraz). Azken adizki hori eremu berean gertatu bide zen -ko~ka mark(ar)en

hedatzearen ondorio gisa ulertu behar da, *zaiko~zaika* aldaera pleonastikoek salatzen dutenez.

Azken horren antzekoa da, baina eremu zabalxeagokoa, pluraleko *zaizko~zaizka*. Horietan ere, arestiko etimologia onartzen badugu, analogiazko hedatzea gertatu dela pentsatu behar da, kasu honetan (-o →) -*zko~zka* osoarena (cf. -*zki*(-) “pluralgilearen” hedatzea, bai eta *zaitza* bezalakoak ere); hizkera batzuetan are nabarmenagoa da, ordezkapenaren ordez gehitze hutsa gertatu delako, eta *zaiozka* sortu (cf. orobat *diotza*, *diozka*; Leturiaga 2019).

Hala ere, badagoke beste aukera bat adizkion (edo, gutxienez, *zait* erakoen) osaera azaltzeko: -*di-* erroa. Horren aldeko bi argudio (ez erabateko) eman daitezke: datibo-markaren -*i* alomorfoaren urritasun sistemikoa ([§ 3.1.2.1](#); cf. [§ 4.3.2.3](#)) eta *z~j-* zaharraren presentzia (vs *da*-tik abiaturiko *dakit* erako forma berriak Nafarroan, adibidez; Reguero 2019). Hala, bestela berreraiki behar den \**dadi* adizkiak, datibo-komunztadura gehitzeko baliabide zaharraz, \**i-(d)a-di* > \**jai* >... > *zai-* eman zezakeen. Horren ondoan, *jako~zako* erakoetan *ai* > *a* bakuntzea gertatu zela pentsatu beharko litzateke, etimologia berari eusteko. Alabaina ez dirudi mendebaldean besterik gabe analogiaz hedaturiko -*ko* proposa daitekeenik (zeren eredura?); hortaz, edo \*-*gi* atzizkia erantsi zitzzion, edo *da* adizkitik abiaturik sortu zen mendebaldeko paradigma.

Horiek horrela, absolutiboko 3. pertsonarekiko formen oinarrian *da* ala \**dadi* dagoen (edo biak, baina hizkeraren arabera) eta, horrekin batera, \*-*gi* atzizkia erantsi zitzzion ala ez (eta noiz-non) da auzia.

Nolanahi den, *jako* eta *zaio* erakoen hasierako marken etimologia-batasuna proposatzearen implikazio nabarmenena hau da.<sup>20</sup> datibo-markaren *j-* emaitzaren orokortasuna onartzea (alokutiboko alomorfoen banaketa eta hedadura nabarragoaren aurrean), eta, era berean, *di-* hasieradun formak berrikuntzatzat hartzea (gutxienez *z-* bezainbatekoa): Hualderen ildotik, hots sabaikari baten ondorio gisa uler daitezke biak, batetik, analogiaz orainaldiko adizkien *d-* berrezaririk (\*[j~j] > [dj]) eta, bestetik, kontsonantea txistukaritu ondorengo despatalizazio bidez (\*[j~j] > \*[ʒ~ʃ] → [s]), hiztunek forma zahar palataldunak adierazkortzat harturik. Hipotesi horretan, beraz, *dia-* hasieradun formak ez dira \**di-* baten zuzeneko ondorenak, eta hala \**dia-* etimologia bera ere zalantzian jar daiteke (*da-* morfoaren zatiezintasun etimologikoa nahikoa bada ere horretarako); aldiz, hemen proposatu dudan \**i-da-k* ez du halako arazorik.

---

<sup>20</sup> Cf. 13. taula ([§ 6.2.2.1](#)).

### 6.2.3.1.2. Dau eta dauka

Aditz honen berreraiketan, autore gehienek ikusi dute datibo-marka partizipioaren eta forma jokatuen akabuan. Alabaina, hemen egindako proposamena aurrekoenetik aldentzen da puntu batean: nire ustez NOR-NORI zen jatorrian, ez NOR-NORI-NORK. Soilik horrela uler daiteke NOR-NORK berrinterpretazioa eta aditzaren jatorrizko adiera, alboan *\*edun*-en adizkiak izanda.

Edonola ere, Mitxelenak mendebaldeko hizkeretan aurkitu *-o/-a* alternantziaz gain, erakutsi dut Axularren *dadukaio* adizkian datibotasun horren arrasto gardena dugula, ekialdean dugun *-o* alomorfodun forma bakarra ez ezik datibo-markaren *-i* alomorfoa ere baitauka. Ildo beretik, Lazarragaren *beukaike* erako adizkietan ere jatorrizko formaren aztarna dugula defendatu dut, morfo modalaren pleonasmoak eta (analogiazko zein jatorrizko) *-o* markarik ezak estalirik bada ere: *\*beu-ke-gi(-o)* > *\*beukai(o)* → *beukai-ke*.

### 6.2.3.2. Erregimen-aldaketak

Beste aditz batzuetan ere gertatu da (historikoki gertatu ere) erregimen-aldaketarik. Hala, *eutsi* eta *ekin* trinkoak NOR-NORI baziren, gerora, perifrasietan, NOR-NORI-NORK bilakatu dira. Mounolek (2014: 130-134, ) eta Creisselsek eta Mounolek (2020) erakutsi dute, izan ere, halako aldaketa/txandakatze ugari izan dela euskararen historian zehar, dialektoen arteko ezberdintasunak ere eragin dituztenak (*lagundu* aditza, esaterako NOR-NORI zen antzina; orain, NOR-NORI-NORK da mendebalden eta NOR-NORK ekialdean).

Modu berean, *eduki*-rentzat proposatu etimologia gogoan, aditz sintetiko zenbaiten erregimenean ere aldaketak gertatu ahal izan direla pentsa genezake. Horrela, *ekin* trinkoak laguntzaile homofonoa etimologiakide duelako hipotesia plazaratu dut ([§ 5.3](#)), zeinak jatorrizko NOR-NORI konfigurazio bera gorde duen joko “trinkoan” (egun, batik bat, laguntzaile funtzioan), eta, Lazarragaren *jakin<sub>2</sub>* jokatugabea kontuan hartuz, zilegi da *jakin<sub>1</sub>* ere haien familiakotzat hartu eta inoiz NOR-NORI izan zela pentsatzea.

Ikusirik ezen *eduki* bezalako edute-aditzak eta *jakin<sub>1</sub>* bezalako esperientzia-aditz edo aditz psikologikoak behinola egungo iragankortasun kanonikotik (ergatibotik) aldenduago zeudela, ez ote da halako besteren arrastorik geratu? Bada, hor sartzen da *ikusi* aditza, hain zuzen gorago azpimarraturiko pluraleko *-zki-dun* formak dituena. Hortaz, egiantzekoa da *ikusi* ere N-N<sub>i</sub> argumentu-egiturakoa izan zelako hipotesia egitea.

### 6.3. Aurrera begira

Honenbestez, aurrerantzean jarraitu nahi nukeen ildoa ezarririk, etorkizunean ikertu beharreko zenbait alderdi aipatuko ditut, bai tesi honetan azaletik baino ukitu ez direnak, bai azken atal honetan proposatu edo iradoki diren berreraiketak eta azalpenak sakonago eta zehatzago garatzeko.

Alde batetik, Euskara Arkaiko (eta Zaharreko) zenbait testu orain dakigunetik abiatuta xeheki (berr)aztertu beharko lirateke. Esaterako, Leizarragaren itzulpena, haren hizkera esku gehiagoren ezaugarriekin zipritzindua baitirudi; orobat Oihenarten atsotitzak (kaiera ezberdinakoak erkatuz eta geografikoki identifikaturik daudenak baliatuz) zein Etxarten eta Rosen gutunak. Lapurdiko Voltoire (Materra-Axularrekin batera) ere kontuan hartzekoa da, eta ekialderago, Charles Lüküze koaren gutunak ere berebiziko garrantzia duke ekialdeko hizkeren irudi osatuagoa erdiesteko. Horietan guztietañ argitu beharko da zer izan daitekeen egile bakoitzaren oinarritzko hizkeraren ezaugarri eta zer esku gehiagoren edo idatzizko tradizioaren nahiz testu jakin horren xedearen ondorioz eginiko egokitzapenak.

Beste alde batetik, azterketa ergatibo- eta absolutibo-komunztaduretarra zabaldu eta jokoa bere osotasunean azaltzea litzateke hurrengo urratsa, Ariztimuño (2013b) lanean eta tesi honetan zehar eginiko azterketen ildotik.

Halaber, Ariztimuño (2016c, 2020c) lanetan aurkezturiko DAM kategorietako morfoen eta menderagailuen jatorri eta garapenean ere sakondu beharra dago; nago gramatikalizazio-geruzen bidezko azalpenari probetxu handiagoa atera dakiokela oraindik, ezaugarriok banan-banan harturik bainoago, ezen egiturak eta morfoak elkarren ondoan joan baitira eraldatuaz, datibo-marken eta beste morfoen arteko harremanak aztertzean ikusi den bezala.

Azken batean, aitzineuskarako aditz-morfologia analitikoagotik (funtsean, multzo-aditz edo nolabaiteko perifrasietatik) joko trinkoa nola garatu zen ikertzeko bidean sakondu nahi izan dut datibo-komunztadurari datxezkionetatik abiatuta; alegia, morfo aske(ago)en arteko harremanak eta beren eranste-bidea nola gertatu zen ulertzeko eta paradigma-barruko edota -arteko aldaketak (sistemikoak eta formazkoak; garapen morfologiko-fonologiko arruntari nahiz analogiari zor zaizkionak) azaltzeko oinarri bat ezartzen saiatu naiz, ondoko ikerketa gehiagoren abiaburu.



## Bibliografía

- Aginagalde, Borja & Urgell, Blanca, 2012, «XVI. mendeko mendebaldeko lekukotasun berri bat: Sarasketa hiztegitxoa», *ASJU* 46:2, 13-29.
- Akesolo, Lino, 1982, «Amaseigarren Mendeko euskerazko “Miserere” bat», *Karmel* 166, 37-47.
- Alberdi, Xabier, 1995, «The Development of the Basque System of Terms of Address and the Allocutive Conjugation», in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 275-293.
- Aldai, Gontzal, 1998, «Un nuevo rasgo de la lengua de los Refranes y Sentencias de 1596», *FLV* 79, 387-396.
- \_\_\_\_\_, 1999, «Notas sobre la última edición de los *Refranes y Sentencias* de 1596», *FLV* 82, 383-392.
- \_\_\_\_\_, 2000, «Split ergativity in Basque: The pre-Basque antipassive-imperfective hypothesis», *Folia Linguistica Historica* 21:1-2, 31-97.
- \_\_\_\_\_, 2002, *The grammaticalization of present and past in Basque*, University of Southern Californiako doktorego-tesia.
- \_\_\_\_\_, 2008, «Sobre el significado arcaico de las formas con prefijo *l-*: su uso en Lazarraga», *FLV* 108, 301-327.
- \_\_\_\_\_, 2013, «Sasiola vs. Lazarraga: Acerca del euskera del texto de Estibaliz Sasiola», *Lapurдум* 17, 7-29. <https://doi.org/10.4000/lapurдум.2400>.
- \_\_\_\_\_, 2020, «Complex predicates, simple inflecting verbs, and “uninflecting verbs” in Pre-Basque», *Linguistics* 58:6, 1609-1658.
- Altuna, Fidel, 1995a, «Pleonasmo baten historiaz: *debea* ‘dute’ bezalako adizkien inguruan», *ASJU* 29:1, 219-244.
- \_\_\_\_\_, 1995b, «Loiolako doctrina (XVIII. mendea)», *ASJU* 29:2-3, 611-649.
- \_\_\_\_\_, 2001, «Rosabella. 1550. urteko komedian lau esaldi euskaraz», *ASJU* 35:1, 271-280.

- Altuna, Patxi, 1980, *Linguae vasconum primitiae. Edizio kritikoa*, Euskaltzaindia & Ediciones Mensajero, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1992, «Ochoa de Arin-en Doctrina Christiana-ren (1713) hizkeraren laburpena», *Euskera* 37:1, 573-589.
- Altuna, Patxi & Lakarra, Joseba A., 1990, *Manuel Larramendi. Euskal testuak*. Andoaingo Udalai.
- Altuna, Patxi & Mujika, Jose Antonio, 2003, *Arnaud Oihenart. Euskal atsotitzak eta neurtitzak (= IKER 15)*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Anttila, Raimo, 2003, «Analogy: The Warp and Woof of Cognition», in B. D. Joseph & R. D. Janda (arg.), 2003, 425-440.
- Antonov, Anton, 2015, «Verbal allocutivity in a crosslinguistic perspective», *Linguistic Typology* 19:1, 55-85.
- Añibarro, Pedro Antonio, 1969, «Gramática Bascongada para el uso, y alivio de párracos, y predicadores bizcaynos, guipuzcoanos, y navarros», *ASJU* 3, 3-169.
- Aranburu, Pello Joxe, Bidegain, Marian, Idiakez, Antton & Rezola, Iñaki, 1999, *Jose Otxoa Arin (1672-1743) gipuzkera literarioaren aintzindari (VIII. Gerriko ikerlansariketa)*, Goierriko Euskal Eskola / Maizpide Euskaltegia / Lazkaoko Udalai: Lazkao.
- Arejita, Adolfo, 1983, «Domingo Egikori gorazarre kantua», *Litterae vasconicae* 2, 139-181.
- \_\_\_\_\_, 1988, «Domingo Heguiari kantua. Textoa eta lexikoa», *Litterae vasconicae* 4, 7-51.
- \_\_\_\_\_, 1991, «XVII. mendeko bizkaiko amodio-kantu ezezagun bat: enojaduric», *Litterae Vasconicae* 5, 9-20.
- Arejita, Adolfo & Alberdi, Mirari, 1985,: «Amilletaren doctrinea», *Litterae vasconicae* 3, 9-68.
- Aresti, Gabriel, 1971, «Flexiones verbales empleadas por Pedro de Axular en su obra “Gero”», *FLV* 8, 197-221.
- \_\_\_\_\_, 1972, «Flexiones verbales empleadas por Leizaraga de Briscous, en sus traducciones vascas de 1571», *FLV* 11, 157-194.

- Ariztimuño, Borja, 2012, «Etimologiak ate-joka: *din-don...* (*jo* eta *josi*; *eman* eta *iramo(n)*; *jin* eta *jainko*)», *FLV* 114, 119-128.  
<https://revistas.navarra.es/index.php/FLV/article/view/1321>
- \_\_\_\_\_, 2013a, «Finite Verbal Morphology», in Martínez-Areta, Mikel (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction* (Mikroglottika 5), Peter Lang: Berna, 359-427.
- \_\_\_\_\_, 2013b, «Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar», in R. Gómez eta beste (arg.), 2013, 41-60.
- \_\_\_\_\_, 2013c, *Existence-to-Possession: evidence from "two" Basque verbs* [Poster aurkezpena], The 46th Annual Meeting of the SLE, Split, Kroazia (irailak 18-21),  
[https://www.academia.edu/3254041/Existence\\_to\\_possession\\_evidence\\_from\\_tw o\\_Basque\\_verbs](https://www.academia.edu/3254041/Existence_to_possession_evidence_from_two_Basque_verbs)
- \_\_\_\_\_, 2014, *To Be(come) Basque 'to be' (split, suppletion and analogy in the origin and development of Basque *izan* 'to be')*, The 47th Annual Meeting of the SLE, Poznań, Polonia (irailak 11-14) [https://www.academia.edu/8250384/\\_To\\_Be\\_come\\_Basque\\_to\\_be\\_split\\_suppletion\\_and\\_analogy\\_in\\_the\\_origin\\_and\\_development\\_of\\_Basque\\_izan\\_to\\_be\\_47th\\_Annual\\_Meeting\\_of\\_the\\_SLE\\_11\\_14\\_September\\_2014\\_Pozna%C5%84\\_Polska](https://www.academia.edu/8250384/_To_Be_come_Basque_to_be_split_suppletion_and_analogy_in_the_origin_and_development_of_Basque_izan_to_be_47th_Annual_Meeting_of_the_SLE_11_14_September_2014_Pozna%C5%84_Polska)
- \_\_\_\_\_, 2015a, «Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuez (euskar aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz)», in Ezeizabarrena, Mari Jose & Gómez, Ricardo (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, UPV/EHU: Vitoria-Gasteiz, 49-70.
- \_\_\_\_\_, 2015b, «Axularren -(k)aio aditz-bukaera: datibo(-ikurraren) eta denbora-aspektu-moduen historiarako gaiak», in Epelde, Irantzu (arg.), *Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun (Lapursum ale bereziak 3)*, 81-113.  
<https://doi.org/10.4000/lapursum.2649>
- \_\_\_\_\_, 2016a, «Euskararen dialekto zaharrak aztertzeko saioa: aitagureen mithridates baten deskribapena», in Aurrekoetxea, Gotzon, Makazaga, Jesus Mari & Salaberri, Patxi (arg.), *Hire bordatxoan. Txipi Ormaetxea omenduz*, UPV/EHU: Bilbo, 21-40.
- \_\_\_\_\_, 2016b, «Etxepareraren *darauritzut* eta Leizarragaren *dauritzan*, parez pare», *Lapursum* 19 (Ale Berezia), 59-63.

- \_\_\_\_\_, 2016c, «Euskal ezeztapena(k) ‘Jespersen Zikloen’ argitan», *Monumenta Linguae Vasconum* mintegi irekietan emandako hitzaldia, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz, 2016/12/05.
- \_\_\_\_\_, 2018, «SENI eta LOHI (sudurkari galduaren bila)», *ASJU* 52:1-2, 19-31. doi: <https://doi.org/10.1387/asju.20191>
- \_\_\_\_\_, 2020a [2022a], «Ohar filologikoak Azkoitiko testu aurkitu berriaz: irakurketa proposamena», *ASJU* 54:1-2, 1-18.
- \_\_\_\_\_, 2020b [2022b], «Beste aditz laguntzaile ditrantsitibo bat Gipuzkoa mendebaldean: -ag- erroko formen jatorria eta garapena», *ASJU* 54:1-2, 265-278.
- \_\_\_\_\_, 2020c, «Manner expressions in Basque: Dialectal and cross-linguistic comparison, and some grammaticalization paths», *53rd Annual Meeting of Societas Linguistica Europaea* kongresuko *The grammaticalization of manner expressions into complementizers or quotatives* workshopean emandako hitzaldia, 200/08/26.
- \_\_\_\_\_, 2021a, «Lazarragaren eskuizkribuko <nagon> adizkia: grafia-kontu bat baino gehiago», *Uztaro* 118, 81-92.
- \_\_\_\_\_, 2021b, «Garibairen errefraueta diago: euskara, zakurrak, eta ustekabeko beste etimologia batzuk», *FLV* 131, 47-59.
- Ariztimuño, Borja & Salaberri, Iker, prestatzen, «A new perspective on the evolution of mood and negation markers in Proto-Basque». UPV/EHUko lan argitaragabea.
- Ariztimuño, Borja, Manterola, Julen & Zuloaga, Eneko, prestatzen, *Mikoletaren edizio kritikoa*. UPV/EHUko lan argitaragabea.
- Arriolabengoa, Julen, 2008, *Euskara Ibarguen-Cachopín kronikan*, Euskaltzaindia: Bilbo.
- Axular, Pedro Agerre, 1643, *GVERO, bi partetan partitua eta berecia*, Milanges: Bordele. <https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go568644/v0002.simple.highlight=Axular.selectedTab=thumbnail>
- Azkue, Resurrección María, 1969 [1923-1925], *Gramática básica dialectal del euskera (Morfología Vasca)* (2. liburukia), La Gran Enciclopedia Vasca: Bilbo.
- Azpiazu, Jose Antonio, 1988, «Palabras y textos vascos antiguos», *Hizkuntza eta Literatura* 7, 9-14.

- Bähr, Gerard, 1927, «Estudio sobre el verbo guipuzcoano comprendiendo el presente e imperfecto de indicativo del auxiliar transitivo *izan* y de los verbos *jakin, euki, ekarri, eraman, egon, joan, etorri, ibilli* en sus flexiones comunes y alocutivas», *RIEV* 18:3, 437-469. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/rieg/18/18437469.pdf>
- \_\_\_\_\_, 1928, «Estudio sobre el verbo guipuzcoano comprendiendo el presente e imperfecto de indicativo del auxiliar transitivo *izan* y de los verbos *jakin, euki, ekarri, eraman, egon, joan, etorri, ibilli* en sus flexiones comunes y alocutivas», *RIEV* 19:2, 287-312. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/rieg/19/19287312.pdf>
- Bakker, Peter, 1984, «The order of affixes in the Basque verb», *ASJU* 18:2, 63-87.
- Benveniste, Émile, 1966, *Problèmes de linguistique générale* (Bibliothèque des sciences humaines), Gallimard: Paris.
- Bilbao, Gidor, 1994, «XII. mendeko Euskal Herria Santiago bidean: Liber Sancti Iacobi V, 7», *Uztaro* 10, 61-84.
- \_\_\_\_\_, 2013, «Textos Arcaicos Vascos 50 urte geroago», in R. Gómez eta beste (arg.), 2013, 717-728.
- \_\_\_\_\_, prestatzen, *Lubieta donostiarren eskuizkribua (1728)*. UPV/EHUko lan argitaragabea.
- Bilbao, Gidor, Gómez, Ricardo, Lakarra, Joseba A., Manterola, Julen, Mounole, Céline, & Urgell, Blanca, 2020a, *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa. I. Sarrera, gramatika, hiztegia eta adizkitegia*, UPV/EHU: Bilbo.
- Bilbao, Gidor, Gómez, Ricardo, Lakarra, Joseba A., Manterola, Julen, Mounole, Céline, & Urgell, Blanca, 2020b, *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa. II. Testua*, UPV/EHU: Bilbo.
- Blecua, Alberto, 1983, *Manual de crítica textual*, Editorial Castalia: Madrid.
- Blevins, Juliette, 2018, *Advances in Proto-Basque Reconstruction with Evidence for the Proto-Indo-European-Euskarian Hypothesis*, Routledge.
- Bonaparte, Louis Lucien, 1869, *Le verbe basque en tableaux* (berrarg.), in Euskaltzaindia (arg.), 1991, *Opera omnia vasconice* (1. liburukia), Euskaltzaindia: Bilbo, 221-242

Bonnefoy, Jean (arg.), 1563, *Le Nouveau Testament, c'est à dire, La nouvelle alliance de nostre Seigneur Iesus Christ. Revue & corrigé de nouveau sur le Grec, par l'advis des Ministres de Geneve. Avec Annotations revés & augmentées par M. Augustin Marlorat.* <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k108678p>.

Brinton, Laurel J. & Traugott, Elizabeth Closs, 2005, *Lexicalization and language change*. Cambridge University Press: Cambridge.

Broughton, Sylvia Mary, 2022, *An exploration of the person-related markers in finite synthetic verbs in C16 Basque*, University of Essex-eko doktorego-tesia. [http://repository.essex.ac.uk/32855/1/Corrected Final Complete Thesis.pdf](http://repository.essex.ac.uk/32855/1/Corrected%20Final%20Complete%20Thesis.pdf)

Bybee, Joan, 1985, *Morphology: A study of the relation between meaning and form*, John Benjamins: Amsterdam.

Bybee, Joan, Perkins, Revere & Pagliuca, William, 1994, *The evolution of grammar. Tense, aspect, and modality in the languages of the world*, The University of Chicago Press: Chicago/London.

Camino, Iñaki, 2003, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua: Iruñea.

\_\_\_\_\_, 2008, «Nafarroa Behereko euskara zaharra», *ASJU* 42:1, 101-170.

\_\_\_\_\_, 2009, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Elkar: Donostia.

\_\_\_\_\_, 2011, «Ekialdeko euskararen iraganaz», in Epelde (arg.), 2011, 87-154.

\_\_\_\_\_, 2013, «Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia», in R. Gómez eta beste (arg.), 2013, 77-140.

Campbell, Lyle, 2013, *Historical linguistics. An introduction*, 3. edizioa. Edinburgh University Press: Edinburgh.

Canonica, Elvenzio, 2019, «El plurilingüismo en las cartas de Eugenio de Salazar: usos y funciones», in Canonica, E., Panzera, M. C. & Sultan, A. (zuz.), *Relier, délier les langues. Formes et défis linguistiques de l'écriture épistolaire (Moyen-Âge - XVIIIe siècle)*, Hermann: Paris, 251-269.

Corbett, Greville G., 2006, *Agreement*, Cambridge U.P.

Covarrubias, Sebastián de, 1611, *Tesoro de la lengua castellana o española*, Luis Sanchez: Madril. <http://ntle.rae.es/ntle/SrvltGUILoginNtlle>.

Creissels, Denis & Mounole, Céline, 2017, «Non-canonical valency patterns in Basque, variation and evolution», in Hellan, L., Malchukov, A. L. & Cennamo, M. (arg.), *Contrastive Studies in Verbal Valency* (Linguistik Aktuell/Linguistics Today 237), 151–174.

\_\_\_\_\_, 2020, «Les verbes psychologiques du Basque: typologie et diachronie», in Santazilia, Ekaitz, Krajewska, Dorota, Zuloaga, Eneko & Ariztimuño, Borja (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca*, Nafarroako Gobernua: Iruñea, 177-193.

Dodgson, Edward Spencer, 1912, *Verbi vasconici ab Ihoanne Leisarraga in novo testamento adhibiti formulas composuit Eduardus Spencer Dodgson = Leizaragaren Testamentu Berrian E.S. Dodgsonek eriden eta elkarganatu zituen eraskitzaren zatiak*, Oxford University Press.  
<https://www.euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/461>

\_\_\_\_\_, 1913, «An analytical and quotational index to the 353 forms of the verb which occur in the catechism of J. Ochoa de Arin», *Hermathena* 17:39, 219-243.

Egurtzegi, Ander, 2011, «Euskal metatesiak: abiaburua haien ikerketarako», *ASJU* 45, 1-79.

\_\_\_\_\_, 2012, «Hugo Ernst Schuchardt: Bibliografía Vasca», *ASJU* 46:2, 161-176.

\_\_\_\_\_, 2015, *Towards a phonetically grounded diachronic phonology of Basque*, UPV/EHUko doktorego-tesi argitaragabea. [https://www.academia.edu/10049444/Towards\\_a\\_phonetically\\_grounded\\_diachronic\\_phonology\\_of\\_Basque\\_Thesis](https://www.academia.edu/10049444/Towards_a_phonetically_grounded_diachronic_phonology_of_Basque_Thesis)

Epelde, Irantzu, 2011, *Euskal dialektologia: lehena eta oraina* (ASJUren gehigarriak 69). UPV/EHU: Bilbo.

Eraña, Ane, 2020, *Arabako euskararen dialektalizaziorantz: aditz morfología aztergai*, UPV/EHUko Master Amaierako Lan argitaragabea.

Erdozia, Jose Luis, 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, UPV/EHUko doktorego-tesia. [https://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/jose\\_luis\\_erdozia.pdf](https://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/jose_luis_erdozia.pdf)

Erdozia, Jose Luis, 2005, «Zenbait euskal testu Nafarroan XVII. mendean», *FLV* 99, 307-333.

Euskaltzaindia, 1979, *Euskal aditz batua*, Euskaltzaindia: Donostia.

\_\_\_\_\_, 2008-2019, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa* (10 liburuki), Euskaltzaindia: Bilbo.

Euskara Institutua, 2013 [2005], *Euskal Klasikoen Corpusa (EKC)*.  
<https://www.ehu.eus/ehg/kc/>

Fernández, Beatriz, 2013, «-(K)i hiztegian, eta hiztegiaz harantzago». *ASJU* 48:2, 1-26.

Fernández, Beatriz & Ortiz de Urbina, Jon, 2010, *Datiboa hiztegian*, UPV/EHU: Bilbo.

Floristán Imícoz, Jose Manuel, 1993, «Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI», *FLV* 63, 177-219.

Frajzyngier, Zygmunt, 1986, «From preposition to copula», *Proceeding of the Twelfth Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*, 371-386.

Gaminde, Iñaki, 2007, «Datibodun adizkiak *jakin* eta *eduki* aditzekin Bizkaian», *Euskalingua* 10, 53-62.

Gildea, Spike & Haude, Katharina, 2021, *An Austronesian type voice system in an Amazonian isolate*, The 54th Annual Meeting of the SLE, online (abuztuak 30 – irailak 3). <https://osf.io/3xgvv>

Gómez, Ricardo, 1994, «Euskal aditz morfología eta hitzordena: VSO-tik SOV-ra?», in Orpustan, J.-B. (arg.), *La langue basque parmi les autres: influences, comparaisons. Actes du Colloque international de l'URA 1055 du C.N.R.S. (Bayonne 27-28 septembre 1993)*, Izpegi: Baigorri, 93-114.

Gómez, Ricardo & Sainz, Koldo, 1995, «On the origin of the finite forms of the Basque verb», in Hualde, Lakarra & Trask (arg.), 1995, 235-274.

Gómez, Ricardo, Gorrochategui, Joaquin, Lakarra, Joseba A. & Mounole, Céline (arg.), 2013, *3rd Conference of the Luis Michelena Chair - Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra - III Congreso de la Cátedra Luis Michelena (“Koldo Mitxelena” Katedraren Argitalpenak, 5)*, UPV/EHU: Vitoria-Gasteiz.

Gómez, Ricardo, Ariztimuño, Borja, Bilbao, Gidor, Camino, Iñaki, Krajewska, Dorota, Lakarra, Joseba A., Manterola, Julen, Mounole, Céline, Reguero, Urtzi, Zuloaga, Eneko, prestatzen, *Euskal Testu Zaharren Bilduma Berria*, UPV/EHU: Vitoria-Gasteiz

- Gorrotxategi, Joakin, 1987, «Andres de Poza y el euskera», *ASJU* 21:3, 661-681.
- Haranburu, Joanes, 1635, *Debocino escuarrar, mirailla eta oracinotegua*.  
<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DBKVisorBibliotecaWEB/visor.do?ver&amicus=25711>
- Haraneder, Joanes, 1740, *Jesu Christoren evangelio saindua Jaun Haraneder apuez Donibane Lohitsucoac escoararat itçulia* [Joanes Robin apaizaren 1770eko kopia].  
<http://gordailu.bilketa.eus/notice.php?q=id:120123>
- Haritschelhar, Jean, 1983, «Une poésie basque du milieu du XVI<sup>e</sup> siècle célébrant la naissance de Henri III de Navarre (futur Henri IV)», in *Piarres Lafitte-ri omenaldia* (= IKER 2), Euskaltzaindia: Bilbo, 259-274.
- Haritschelhar, Jean & Charriton, Pierre (arg.), 1999, *Vasconiana, R. Lafonen lanak* (Iker 11), Euskaltzaindia: Bilbo.
- Haspelmath, Martin, 2006, «Against markedness (and what to replace it with)», *Journal of Linguistics* 42:1, 25-70.
- \_\_\_\_\_, 2010, «Framework-free grammatical theory», in Heine, B. & Narrog, H. (arg.), *The Oxford handbook of linguistic analysis*, Oxford, 341-366.
- \_\_\_\_\_, 2022, «Inflection and derivation are merely ways of speaking», *Max Planck Instituteko eskuizkribu argitaragabea*.  
[https://www.academia.edu/80271068/Inflection\\_and\\_derivation\\_are\\_merely\\_ways\\_ofSpeaking](https://www.academia.edu/80271068/Inflection_and_derivation_are_merely_ways_ofSpeaking)
- Heath, Jeffrey, 1977, «Remarks on Basque Verbal Morphology», in Douglass A., R., Etulain, W. & Jacobsen jr., W. H. (arg), *Anglo-American contributions to Basque Studies. Essays in honor of Ion Bilbao* (Desert Research Institute Publications on the Social Sciences 13), Reno, 193-201.
- Heine, Bernd, 1997, *Possession: Cognitive Forces, Sources, and Grammaticalization*. Cambridge U.P.
- \_\_\_\_\_, 2003, «Grammaticalization», in B. D. Joseph & R. D. Janda (arg.), 2003, 575-601.
- Heine, Bernd & Kuteva, Tania, 2002, *World lexicon of grammaticalization*, Cambridge University Press: Cambridge.

Hock, Hans Henrich, 2003, «Analogical Change», in B. D. Joseph & R. D. Janda (arg.), 2003, 441-460.

Hualde, Jose Ignacio, 2005, «Azentua eta etimologia», in Euskaltzaindia (arg.), *Nerekin yaio nun* (= IKER 17), Euskaltzaindia: Bilbo, 297-303.

Hualde, Jose Ignacio, Lakarra, Joseba. A. & Trask, Robert Lawrence (arg.), 1995, *Towards a history of the Basque language* (Current Issues in Linguistic Theory 131), John Benjamins: Amsterdam & Philadelphia.

Hualde, José Ignacio & Ortiz de Urbina, Jon (arg.), 2003, *A Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter: Berlin.

Ibisate, Angel, 2001, «Frases en euskara desconocidas, en una comedia impresa en 1550», *ASJU* 35:1, 261-270.

Idoate, Florencio, «1969, Una carta el siglo xv en vascuence», *FLV* 2, 287-290.

Igartua, Ivan & Santazilia, Ekaitz, 2013, «Instrumentalaz gogoratuz, instrumentuaz haratago: kasuaren izaera tipologian eta euskararen bilakabidea», in R. Gómez eta beste (arg.), 2013, 227-244.

Intza, Damaso, 1921, «Naparroko aditz laguntzailea zuketazko esakeran», *Euskera* 2, 3-35, 65-91.

Iparragirre, Andrea, 2021, *Harrieteak Haranederren "Testamentu Berriaren" edizioari (1855) egindako aldaketen nolakoa* (UPV/EHUko Gradu Amaierako Lana).  
<https://addi.ehu.es/handle/10810/55769>

Irigoien, Alfontso, 1987, *De re philologica linguae vasconiae II*. Deustuko Unibertsitatea: Bilbo.

Irizar, Pedro, 1991-2002, *Morfología del verbo auxiliar vasco* (9 liburuki). Euskaltzaindia: Bilbo. <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/dialektologia/morfologia-del-verbo-auxiliar-vasco-467>

Ithurri, Jean, 1895, *Grammaire basque : dialecte labourdin*, Lamaignère: Baiona.

Janda, Richard D., 2003, «“Phonologization” as the Start of Dephoteticization – Or, On Sound Change and its Aftermath: Of Extension, Generalization, Lexicalization, and Morphologization», in B. D. Joseph & R. D. Janda (arg.), 2003, 401-422.

- Janda, Richard D. & Joseph, Brian D., 2003, «On Language, Change, and Language Change – Or, Of History, Linguistics, and Historical Linguistics», in B. D. Joseph & R. D. Janda (arg.), 2003, 3-180.
- Joseph, Brian D., 2003, «Morphologization from Syntax», in B. D. Joseph & R. D. Janda (arg.), 2003, 472-492.
- Joseph, Brian D. & Janda, Richard D. (arg.), 2003, *The Handbook of Historical Linguistics*. Blackwell.
- Kapanaga, Martin Otxoa de, 1656, *Exposicion breve de la doctrina christiana*, Juan de Azpiroz: Bilbo. <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k9764159c.texteImage>
- Koch, Harold, 1995, «The Creation of Morphological Zeroes», in Booij, Geert & van Marle, Jaap (arg.), *Yearbook of morphology, 1994*, Kluwer: Dordrecht, 31-71.
- Krajewska, Dorota, 2017, *Euskararen sintaxi diakronikorantz: egitura konplexuak*, UPV/EHUko doktorego-tesia. [https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/26877/TESIS\\_KRAJEWSKA\\_DOROTA/URSZULA.pdf](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/26877/TESIS_KRAJEWSKA_DOROTA/URSZULA.pdf)
- Krajewska, Dorota, Zuloaga, Eneko, Santazilia, Ekaitz, Ariztimuño, Borja, Uribe-Etxebarria, Oxel & Reguero, Urtzi, 2017, *Esteve Materraren Do(c)trina Christiana (1617 & 1623): edizioa eta azterketa*, Euskaltzaindia & UPV/EHU: Bilbo. [https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/80995.pdf](https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/80995.pdf)
- Kuryłowicz, Jerzy, 1945, «La nature des procés dits "Analogiques"», *Acta Linguistica* 5:1, 15–37. doi: <https://doi.org/10.1080/03740463.1945.10410880>
- Kuteva, Tania, Heine, Bernd, Hong, Bo, Long, Haiping, Narrog, Heiko, Rhee, Seongha, 2020, *World lexicon of grammaticalization. Second edition*, Cambridge.
- Lafitte, Pierre, 1944, *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, Le Livre: Baiona.
- Lafon, René, 1943, *Le système du verbe basque au XVI<sup>e</sup> siècle* (berrarg.), 1980, Elkar: Donostia.
- \_\_\_\_\_, 1951, «La langue de Bernard Dechepare», *BAP* 7:3, 309-338.
- \_\_\_\_\_, 1952, «Le Basque et Les Langues Caucasiques (Suite et fin)», *Word* 8:1, 80-94. <https://doi.org/10.1080/00437956.1952.11659423>

- \_\_\_\_\_, 1961, “Sur les formes verbales basques qui contiennent un indice datif”, in J. Haritschelhar & P. Charritton (arg.), 1999 (berrarg.), 411-430.
- \_\_\_\_\_, 1999 = Haritschelhar & Charritton (1999)
- Laka, Itziar, 1988, «Configurational heads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque», *ASJU* 22:2, 343-365.
- Lakarra, Joseba A., 1981, «Barrutiaren edizio kritiko baterako», *ASJU* 15, 121-156.
- \_\_\_\_\_, 1984, «*Bertso Bizkaitarrak* (1688)», *ASJU* 18:2, 89-183.
- \_\_\_\_\_, 1985, «Literatur gipuzkerantz. Laramendiren Azkoitiko sermoia (1737)», *ASJU*, 19:1, 235-281.
- \_\_\_\_\_, 1986a, «XVI. mendeko bizkaierazko errefrauez: I. Garibairen bildumak», *ASJU* 20, 31-65.
- \_\_\_\_\_, 1986b, «Bertso bizkaitarrez gehixeago», *ASJU* 20:1, 243-247.
- \_\_\_\_\_, 1986c, «Bizkaiera zaharra euskalkien artean», *ASJU* 20:3, 639-682.
- \_\_\_\_\_, 1996, *Refranes y sentencias (1596): edizioa eta ikerketak* (Euskararen Lekukoak 19), Euskaltzaindia: Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1997a, «Euskararen historia eta filología: arazo zahar, bide berri», *ASJU* 31:2, 447-535.
- \_\_\_\_\_, 1997b, «Hizkuntz eskuliburuen tradizioa Euskal Herrian: I. *L'interpret ou Traduction François, Espagnol et Basque* (~1620)», *ASJU* 31:1, 1-66.
- \_\_\_\_\_, 1999, «*L'interpret ou traduction françois, espagnol & basque* (~1620): II. Elkarrizketak», *ASJU* 33:2, 493-568.
- \_\_\_\_\_, 2002, «Etymologiae (proto)uasconicae LXV», in Artiagoitia, Xabier, Goenaga, Patxi & Lakarra, Joseba A. (arg.), *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* (*ASJU gehigarriak* 44), UPV/EHU: Gasteiz, 425-442.
- \_\_\_\_\_, 2003, «Hacia un nuevo paradigma etimológico vasco: forma canónica, filología y reconstrucción», *ASJU* 37:1, 261-391.
- \_\_\_\_\_, 2006a, «Protovasco, munda y otros: reconstrucción interna y tipología holística diacrónica», *Oihenart* 21, 299-322.

- \_\_\_\_\_, 2006b, «Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco», in J. A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), 2006, 561-621.
- \_\_\_\_\_, 2006c, «Jaun eta jabe, jaio eta herio, jin eta joan ...: etimologiaz eta aditz morfología zaharraz (Hitz hasierez II)», in B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, UPV/EHU, 575-611.
- \_\_\_\_\_, 2008a, «Aitzineuskaren gramatikarantz (malkar eta osinetan zehar)», in Artiagoitia, Xabier & Lakarra, Joseba A. (arg.), *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez*, UPV/EHU: Bilbo, 451-490.
- \_\_\_\_\_, 2008b, «Temas para un prólogo: Forma canónica, tipología holística diacrónica y reconstrucción del protovasco», *Oihenart* 23, 277-347.
- \_\_\_\_\_, 2009a, «Adabakiak /h/-aren balio etimologikoaz», *ASJU* 43, 565-596.
- \_\_\_\_\_, 2009b, «Aitzineuskara berreraikiaz: zergatik ezkerra?», *Euskera* 54:1, 17-98.
- \_\_\_\_\_, 2011, «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: euskara batu zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz», in I. Epelde (arg.), 2011, 155-241.
- \_\_\_\_\_, 2013, «Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipología holística, kronología eta gramaticalización», in R. Gómez eta beste (arg.), 2013, 275-324.
- \_\_\_\_\_, 2015, «Hiru hasperen haboro», in María-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, UPV/EHU: Bilbo, 349-378.
- \_\_\_\_\_, 2016, «Gramaticalización, morfemen forma kanonikoa eta berreraiketa morfológicoaren bide berriak», in G. Aurrekoetxea, J. M. Makazaga & P. Salaberri (arg.), *Hire bordatxoan. Txipi Ormaetxea omenduz*, UPV/EHU: Bilbo, 175-192.
- \_\_\_\_\_, 2017, «Bi eta bere askazia», *Lapurдум* 20 (Xarles Videgainen omenez 2), 17-43.
- \_\_\_\_\_, 2018, «Euskararen historiaurrea», in J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (2. atala), Eusko Jaurlaritza: Vitoria-Gasteiz, 23-230.
- \_\_\_\_\_, 2019, «*Bon/bor-/bol-* familiaren berreraiketarako (II): Etimología, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez», in Irantzu Epelde eta Oroitz

Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen Omenez*, UPV/EHU: Bilbo, 377-395.

\_\_\_\_\_, prestatzen, «Irregularitateak, supletibismoa, gramatikalizazioa: Aitzineuskarako aditz pluralgileen oihartzun berantiarrok». UPV/EHUko lan argitaragabea.

Lakarra, Joseba A. & Hualde, Jose Ignacio (arg.), 2006, *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask* (ASJU 40), Gipuzkoako Foru Aldundia - UPV/EHU: Donostia-Gasteiz.

Lakarra, Joseba A., Manterola, Julen & Segurola, Iñaki, 2019, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE-200), Euskaltzaindia: Bilbo.

Larramendi, Manuel, 1729, *El impossible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Antonio Joseph Villargordo Alcaráz: Salamanca.  
<https://books.google.es/books?id=7RNKAAAACAAJ&printsec=frontcover&>

Larrañaga, Josu, 2018, «El primer *Ayta gure* y las naos de Plasencia», Grupo de Etnografía del Museo Plasencia de Butrón.  
<https://etnoplentzia.com/argitalpenak.php?idPost=19>

Leizarraga, Joanes, 1571, *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*, Pierre Hautin: Arroxela. <https://binadi.navarra.es/registro/00009136>

Lekuona, Manuel, 1954, «Gabon-kantak», *Egan* 5/6, 9-44.

Leturiaga, Olatz, 2019, «Gipuzkoako osagarri pluraldun adizki tripertsonalen erroez», *ASJU* 53:1-2, 127-162.

\_\_\_\_\_, 2020, «Gipuzkoa erdialdeko pluralgileen azterketa», in Camino, Iñaki, Artiagoitia, Xabier, Epelde, Irantzu & Ulibarri, Koldo (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz, 367-402.

Loidi Bizkarrondo, Jose Antonio, 1992, «El verbo vasco: bibliografía», *RIEV* 37:1, 201-270.

Madariaga, Juan, Azpiazu, Jose Antonio & Elortza, Jerardo, 2009, «XVIII. eta XIX. mendeetako Azpeitiko euskal testu batzuk», *FLV* 110, 5-45.

Maiora, Fernando, 2011, *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases*, Egilearen argitalpena.

- \_\_\_\_\_, 2018, *Reino de Navarra. Euskera, lengua inteligible: causas del retroceso. Injurias, coplas*, Egileraren argitalpena.
- Marcos-Marín, Francisco A., 2006, «Un texto informal vasco manuscrito en un impreso de 1505», *ASJU* 40:1-2, 677-686.
- Martinez-Areta, Mikel, 2013, «Ergatibilitate hautsiaz. Zergatik ote da orainaldia iraganaldi/irrealisa baino ergatiboagoa?», in R. Gómez eta beste (arg.), 2013, 353-368.
- \_\_\_\_\_, 2020, «Ergative from passive in Proto-Basque», in Drinka, Bridget (arg.), *Historical Linguistics 2017: Selected papers from the 23rd International Conference on Historical Linguistics, San Antonio, Texas, 31 July - 4 August 2017* (Current Issues in Linguistic Theory 350), John Benjamins: Amsterdam & Philadelphia, 143-160.
- Mitxelena, Koldo, 1953a, «Arnaut Oihenart» (berrarg.), in *OC XI*, 277-296.
- \_\_\_\_\_, 1953b, «Sobre dos refranes de Oihenart» (berrarg.), in *OC XI*, 297-298.
- \_\_\_\_\_, 1954a, «Nota sobre algunos pasajes de los *Refranes y Sentencias de 1596*» (berrarg.), in *OC XI*, 131-140.
- \_\_\_\_\_, 1954b, «J. Corominas, *Diccionario Crítico Etimológico de la Lengua Castellana. I. A-C*, Madrid, 1954» (berrarg.), in *OC VIII*, 523-528.
- \_\_\_\_\_, 1955, «La doctrina cristiana de Betolaza (1596)» (berrarg.), in *OC XI*, 187-204.
- \_\_\_\_\_, 1956, «N. Ormaetxea «Orixe», Agustiñ Gurenaren aitorkizunak, Zarautz 1956» (berrarg.), in *OC XIII*, 496-499.
